

ELOKI.



VIOLASKEITÄ



MITÄ ONMIINDIÄ.

Jainkoak —ikusiaz bakarrik?— milla gauza ederrez 'jantzi eban mundua. Goian, miiloika izarkiren artean, eguzkia dizditsu; gure alboan, urdin ta nagusi, itxaso zabala; gure oinpean lurra mendiz, .zuzatzez, errekez ta egartziz ornidua. Gauza zoragarri guztiok, munduaren asi-asieran nunhait, geuretzat sortu ehazan Jaunak, eta Bera Aita ta Egille dogun ezkerok, gauzok ditugu lorratz eta mailladi zeruraino igoteko.

Izadi-zale ba'zara halez be, zoaz sarri mendirantz, ta, zelai orlegi ta mendi-gain jagiak ikusiz, arnas artu ta poz-alaitu za'tte henetan. Jaso gorantza begiak eta eder-eisi gau izartuaren anditasuna. Jrreratu 'txas-egalera, ta askatu egizu b'totza aren ederra txalotuz. Entzun, adi-zur, goi-beak dagien ereserki l'dluragarria, izadi osoak Jainkoari zuzentzen dautson kantu ozena. Ar, zuk be, kantu orretan esku, ta kanta eten har'tk biotz-kantar'tk bero sentikorrena.

Esku arteart daukazun liburu au, aurtxo ta nagusi, ortarako laguntzaille lez egiña dozu. Jainkoak egiñiko gauza guztien antzera, lurra, izadia, mundua txit eder ta egokia da, dudarik bage; baiña giza-semeok, sarri askotan, loitu ta gaiztotu egin doguz Jainko-eskutiko gauza eder apaiñok. Guk, jakiñez beintzat, ez daiguzan okertu ta biurritu, herez dauan mingoztasuna kendu ta al giñoan dotoretu ta poz-alaiazo baiño Liburu onek, goizean loratuak lez, irriaren keiñu ezta dagerkig

ortarako apaindu dot jolas-hitxiz, kantu soiñuz, ipuin mardulez ta irakurgai arin errezez. Umeak maite dabez pñeik guztiok, lau berezko ta suma bageak diralako.

JOLASAK.—Gaur, zoritxarrez, jostailu geiegi dakusgu umetxoen eskuetan, zentzunez ta gizabidez azteko kaltegarri yakezan jostailu geiegi. Azken urteotan gure kale, zelai ta bideak gerrariz beteta agiri dira; dana da gezia, esku-burdin, sutarma, zizpa, azaga ta abar. Oñek, harriz, herez haketsu ta eder-zale dan umea sen oker ta biurritz heterik izten dau. Len-oinkadak emoten asi-barri danarentzako kalte andia, benetan. Izadia, ederra, Jainkoa, urko-laguna, aberria ta onakoak maite izaten erakusten dautsozan jostailuak bear ditu umeak.

Esan oi danez, erreka ertzean urari hegira igarri barik joaten yakuz orduak. baita olgetan dabiltzan umetxoai begira be. Zelako pozaldiak dakarskuezan eutak! Naiz etxe barruan edo zelaian, naiz atartean edo ondar gaiñean, aurtxoak heti jolaslari ta artega. Lelengo urteak olgetan emon oi dabez, ta guretzat hai ikuskizun zoragarriak! Ezertxo he ez dahe adigaitz, nastu edo matasa zaillekorik, dana errez, berezko ta apain eza baiño. Eurak dituen jolasak ikasteko be eztabe bear gaitasun andirik, ez indar ta saio larregirik be.

Aurra jolaska yaku atsegiñez bete: geldi ta bazterrean jarria haldin ba'dago, meko ta geixo iduritzen yaku. Dabillela ara ta ona, hizkor ta urduri. gorputza azi ta eratzeko he, osasunerako be bear dau ori ta. Umeak, bere garaian, janari lez dau jolasa. Kezka ta huruauste ikaragarri da etxean jolasten eztan umea. Zelai zahala egoki ta eder yako, gorputz eta arima zalo ta osasuntsu azi ta indartzeko. Zoriontsuak ziñez, gaztetan, goian zeru zahala ta beian zelai loratsuak dahezan gizasemeak. Giro ta inguru orrek, igarri barik, askoz jator ta gizonago egingo ditu. Jolasak norhere izakera osotzeko laguntza damosku, ta izakera orrek, jolas-grüña orrek bizi guztian dirau. Urneak jolasez bizi dira, diñoenez, gazteak amesetz eta zarrak gomutapenez. Umearenlat, bost urtetik amarreraiño, ikaskairik beiñena jokua da; amarretik amabost urteraiño, hearrezkoa, ta amahostetik ogei ta bateraiño, oso egokia. Bere bizialdiko irutik hat jolasean emoten dau.

Gogoan izan, alan he: jokua ta jolasa ez dira bizi-muga, bitarte hat haiño, um.ea gizon izatera eldu daiten. Orrela begiratu ezker, jolasak ba-dau bere esangura ta muiña, hizi-bizia izan he: umearen

gaitasunak egokitu, joera-griñak zuzen-azo, zirkin-eragiñak alai-jostarazi. Antxiñakoak au esan oi eben: "Atsegin emonez eskolatu". Esakun au, aspaldikoa dan arren, ezta iñoiz be beiñolako ta zar itxia, beti gaurkoa haiño.

Umetxoentzat atsegingarri da olgetea, itz au pozaren kideko da-ta. Zelan jolastu jakin bear, alan be. Bakarka iñoiz egin oi dan arren, geienetan taldeka jolasten da; ta askoren arteko gauzetan ardura geiago izan bear dogu, iñori miñik ez emoteko be. Galtzen eta irabazten jakin bear da; onako jolas ta jokuetan, bada, ezta egundo be irabazleko jolasten, geure trebetasuna ta antzea kidekoen artean neurtu ta erakusteko baiño. Gaur arek irabaziko dau, biar arek besteak. Naiz galdu naiz irabazi, ezta artegatasunik erakutsi bear. Galtzen baldin ba'da, kirol arauz galdu bear da.

ABESTIAK.—Mundu txiki dira umeak. Aziaz ta ikasiaz doazala, gauza barririk asko aurkitzen dabez, ia igarri ta konturatu barik, euren barne-mundu orren zelaietan. Azterketa andiak egin daroez barrenera begira, ta guretzat aspalditik ezer etziran gauzak, eurentzat arrigarri dira oindiño. Arrigarritasun ori, geldiro geldiro, urteak joan urteak etorri, gauzen ezkutua jakiñaz, uxatzen yake. Baiña, bitartean, euren mundu estu orretan bizi dira, arraiña urtegian lez.

Eta, izan be, umetxoaren izate barnean dagoz guk len-urteetan jakitera eltzen garean arrigarririk asko. Ta barruan dardar dagitson ames-mundu orrek su artzeko, txingar bat naikoa dau sarri askotan. Olerkariak geienez barrura so-egin oi dau, bere izatearen leza sakonean aurkitzen hai ditu gauzarik eder jorienak. Umea be olerkari, bertsolari da bere neurri ta giñoan, olerkari erne-min, olerkari loratan. Lora ta txoriak, erreka ta margoak, mendi ta zugatzak begiko he begiko yakoz: kuma-kantak, ipuin-eresiak, maitagarrien oiua eta itz-neurtu samurrak atsegin ditu. Olerkia arimearen doi eder dogu, ta kantuak gora ta inportantzi ikaragarria dau umetxoaren mundura esnatzean.

Orixegaitik ipiñi dodaz emen, ille bakotxean, abesti arin errikoi halzuek. Lendik be, gizaldiz gizaldi, gure aurretikoak abestu ebezanak dira, gure ama ta amamak ezpanetan erabilliak; geienak beintzat zar-sundaz asetuak, eta beste batzuk gure olerkari yaukalak ondu ta egiñak. Danak be errez ikasi leikez, errez abestu, joare antzera biotza dardarazoz.

gero, aziaz doalarik, pentsamentuen ederra, izkeraren ederra be atsegin yako. Iru-lau urtera czkeroz, gauzak here eran ta neurrian aitzera eldu dala adierazteko, norbaitek kantua eta ipuiñak esatea nai izaten dau. Geroago, irakurten ikasi dauanean, iñoren laguntza barik be, zokondo hatara jo ta antxe irakurriko ditu berenez atsegiñen yakozan ipuin eta kontakizunak.

Irakurten ikasiaz, izan be, gero ta zahalago egin yako bere ames-mundua. Ta norbaitek edesten ez baldin ba'dautso ipuiñik, herak eskatuko ditu ipuin-liburuak, ipuin barriak, ase-eziña baita here irakur-zaletasuna. Ta bere mundu txikian, nasai ta zoragarri, maitagarriakaz, sorgiñakaz, aziakaz, gizuren eta erraldoiakaz adiskide egin da. Auxe egin dabe umeak beti, ta berak be auxe egin bear. Eder-min da, ta min orren atzetik dabil atertu bage. Ta eder-bidetik ibilte ortan bere adimen-argiaz topo dagi, bere harru osoaz. Eskolan be, zenhat gauza ikasiko dabezan! Ahesti ta musika zale egingo da, antzerki zale, kirol zale amorratu. Etxe barruan eta eleizan otoitzaren ederra somatuko dau, bere arimearen hikaintasuna.

Euskaldunok andi ta txiki eder-zale, ipuin zale izanak gara heti. Erriak —esan oi danez—; euren aurtzaroan, ipuiñakaz bizi dira pozkor ta alaitsu. Guk be, aldiaren altzoan barrenduz kondaira zarrik ez dogun arren, aurtzaro orren ezaugarri, enda azkar burutsu adierazle diran ipuin-sail galanten jaube gara: gure literatura ezta urria, zazpi prohinziotan atan he, edeski, kontakizun eta ipuiñetan.

Emen, esku artean daukazun au ume-liburua dan ezkeru, aur-goerari, pentsaerari dagokiozanak hakarrik aldatu ditut; haiña ba-dira onako lanak aldizkari ta liburuetan bilduma, antologi (lorategi) andiak osotzeko aiña. Azkue zanak bere Euskalerrriaren Yakintza'n, luze ta lahur, 241 onako dakaz; Lontzi Ahak bere Ipuintxoak lihuru bietan, 200; Legoaldi'k eta Altuna'k ainbat euskeratu ebetan; Bizenta Mogel'k, Iturriaga'k, G. Muxika'k, J. B. Barbier'ek, Mayi Ariztia'k, Julene Azpeitia'k, J. San Martin'ek eta beste askok, lan ederrak dabez.

IRAKURGAIK.—Gero, txit laster, gaztetxo eske daukazu oin-diño he. Zeren eske? Orain, egia, eztau ameseko gauzarik eskatzen, maitagarriakaz be ia asetu da; beste zerbait gura dau, nunbait. Jazoriko kontuak, egintzak eta edeskizunak eskatzen ditu; lengo munduko gau-

dodan au? Ames-laiñotan murgil ez ete noa hizitza zear?" Itauñ au bere huruari egiten dautso lenengo, ta gero bere amari edo aitari. Egizaleago hiurtu yaku, ta elezarretako ames-jazokunak eder yakozan arren, here aurretikoak egin zituen gauza arrigarriak gogokoago ditu; herak he arein antzeko izan nai leuke, ta kementsu, biotz-zabal, arriskurako gertuago agertzen asi yaku. Garai ontan gizon, emakume ta aur geiagogaz artu-emonean sartu da, eurakaz bardindurik. Eta, ezer baiñ len, ikasiak dakarren poztasuna sentiduten dau biotz-barruan. Azken hako lez egin da bere mundMa, ta bere hizitza zear edatu ta zahaltzen dan iakintzazko hide zoragarria argituaz yoako aurrez aurre.

Begiak dauz, ta eurokaz zenhat gauza dakusan ezker-eskuma! Iza-diak edertasunaren guria eskintzen dautso ihaika, jakintzak gauzen zergaitia; eta inguruan ditun gauza guztien gun ta sustraia gero ta gartsuago jakin nairik, oso artega ta urduri dabilkigu gazettxoa. Jakin-gose ori itoteko itandu egiten dau, irakurri egiten dau. Beraz, liburuak ez yakoz ukatu bear.

Gaztetxoai opaturiko liburu ontan ainbat irakurgai ipiñi doguz, jakingairik asko dira herton, gazteak eskolatu ta gogoz jantzi daitezcan, euren adimen-arasci zabal-ederrago egin daiten. Auxe haita lan au borobiltzean izan dogun asmo berezia. Beste errietan eta izkuntzetan orrelaxe egin dabe. Guk zergaitik ez? Ez al gara hiotzez ta adimenez ornidutako gizakiak? Bai umeak bai ume-azleak ha-dabe emen jolas, kanta, ipuin ta irakurgairik naikoa. Baita, irakurten dauanak laster somatuko dauan lez, euskera errez, gozo, ugaria be.

JJmeen adin eta sasoiari egokien datorkion janaria aukeratu, egokitu ta goxo-goxo eskintzea ez da urrean lan erreza. Ona gaur mundu guztiak darahilen kezka: umetxoak baitira hiarko gizon, eurai edertoen yatorkezan zinema, irrati-saio, urrutikuskizun-jolas, aldizkari ta irakurgaiak atondu. Baiña ezta zelai ontan askorik aurreratzen; alde guztietatik datorkigu, ba, atx la illeta bardiña: "Bear aiñako ardura barik daukaguz umetxoak". Alemani'n hertan, oraintsu, aurrentzat irakurgai egoki gitxi dituela-ta, Stuttgart'eko "Ernest-Klett" argitaldari etxeak, eskola liburuak harriztu ta gaurkotasunez jazteko, olako sari hatzuk ipiñi ebazan: doixtar idazle guztieri lau kuartilla geien ebazan ipuin bat idazteko eskatzen eutsen. 2.466 idazle agertu ziran; haiña, host



jakitunek osotzen eben maikoen eritxiz, egilleak eskatzen zan gaitasunik beteten ez ebelako, batek he ez eban saririk artu.

Olerkaririk eta idazlerik onetmk etziran aurkeztu zoritxarrez, bai ostera kaskar ta ez-ezagunik asko. Naiz-ta sari bage, sei aukeratu ebezan onzat emonik. Zelakoak ziran seirok? Minheratiak ez, ezta ezkorrak be, bizi au zurbil ta illun margoztu oi dauskuenen artekoak, alai ta irriharretsu apaintzen dauskuenak baiño. Ta, izan he, ainbeste zinkulitt atsekabe daukan mundu au eztogu iñoiz be dan haiño narrasago ta dongeago egin bear. India'ko olerkari yaukal R. Tagore'k, here aur-eskola sortzerakoan, heste asmo bat izan eban: zelai, zugatz, ur, margo, soiñu, txori, lora ta onako ederrez umetxoen arimak jantzi ta eder-beratu. Guk be orixe berori egin bear genduke, hateg he idazleok. Lur eder aherats baten jabe garean ezkeru, geure eguneroko hitza, bertoko ederrez ase ta gantzaturik, leun eztiagoa egin. Orixen izatt bear leuke gure jotnuga.

Guk, osoan jadetsi ezta be, ortara jo dogu lihuru ontan. Oso ta beteazateko, ipuin obeto aukeratuak eta marrazki-mordo ederra bear ebazan; ez dogu ori egin, astirik ezagaitik eta txanpon-urri gabiltzalako. Laster, hear bada, obeto aukeratu ta marrazki ugariz apaindu ori be argitara azalduko da. Ta, orduan, beteagoa izango da ziuurrik asko gure lana. Bitartean bego au, aurtxoan jolasgarri.

AITA ONAINDIA

URTARRILA



Zeru-gerriak (zodiakoak) amabi ezuugarri ditu, bakoitza 30° ustai-luzerako. Azlagnk ez, besteak giza edo ahere izenak urtzen dahez. Onela:

Udabarri	Uda	Udazken	Negu
Arito	Zangurru	Aztaga	Aker
Zezen	Leoi	Lupu	Urkari
Biki	Neskatx	Geziluri	Arrain

Ortze borobillean biru nagusi hi ezagutzen doguz: 1) Eguerdi-marra (ekuatora), ta 2) zearka ebagiten dauan itzal-lerroa (ekliptika). Lerro onek, dan baizen zuhal zati bitan ainbanatzen dau zeru-gerria; baita eguzkiari urte barruan egin bear dauan ibilbidea erakutsi ta mugatu be,

Eguzkiak, bide ontatik dabillega, bere mugak (ekinotzioak) dauz: udalenekoa, epaillaren 21'rantza, ta udazkenekoa, irailaren 2,3'rantzu. Udabarrian eguzkiak egotik iparrera ta udazkenean iparretik egora igaroten duu zeru-gerria. Ta orduan egunak eta gahak bardiñak dira,

Udabarri ta udako ezaugarriak eguerdi-marraz goilik aurkitzen dira, udazken tu negukoak ostera beetik, egoaldetik. Eguzkiak gainera, bai udun bai neguan, bere egon mugdk (solstizioak) be ba-ditu: udan, bagillaren 32'an asim, sei illabetez, beerantza doia lotazillaren 22'rarte; gero, barrero, negumagan usita, beste sei illabetez, gorantza, ipurrerantza.

URKARI.—Ille bakotxak bere ezaupidea dau: Urtarrillak, *Urhari Aquarium*). Zergaitik? Illabete au euritan jori dogulako? Urkaria iduritzeko, barriz, giza-itxura bal aukeratu da, txangil batetik edo bitik ura arradan emoten daularik. Emen pitxer barruan daukagu, oso yaukal, gure Urkari. Negu dala, eztau oztik.

Nun aurkitzen da berau? Eguzkiak, beerengo maillatik dabillegan, eguerdi-lerroaz lopo dagian lekuan. Urtarrillaren 21'tik otsaillaren 19'raiño dirau. Itzal-lerro edo ekliptika esparruan 300'tik 330'raiñoko luze zatia da. Zeru-gerriko amai-gagarren ezaugarri. Garai ontan gu negu biotzean gagoz.

JOLASAK

1) SOKA-SALTOKA

Neskatoen artean batez be asko ikusten dogun jolasa. Banaka, biñaka naiz askonaka jolastu daiteke. Batek naiz bik txandaka jokatu leikie, sokeari eragin eta au zapaldu barik zenbat saltu egitea lortuaz. Sokeari lenengo aurrerantza ta gero atzerantza eragiten yako, lenengo bost saltu ta ondoren beste bost jarraian emonik.

Jolaslariak asko ba'dira, sokeari eragingo dautsoe bik, batek mutur batetik eta besteak bestetik oratuaz. Saltularien batek uts ba dagi, olakoak bigarren soka-muturrari oratuko dautsa, eta au eukanak lenengoaren muturra artuko dau. Lenengo muturra erabillen neskatoak saltu egingo dau orain. Geiago diranean be bardin dagie txandaka. Sokeari, barriz, saltuka dabillen jolaslariaren alderuntz emon bear yako beti.

Jolas bitartean abestu leike. Ta ba-dira ortarako abesti politak. **Saltoka** dabillenenak abestu daike, baita soka-muturrari eragiten dautsonak be. Ona kanta bat:

Txoria goian kantari,
emen gu be dantzari:
zapia beera,
zapia goora !
Bat, bi, iru,
galtzen dauna kanpora,
bat, bi, Iru !

"Zapia beera" esakeran, saltalariak bere esku-zapitxo beera jausten itxi bear dau, eta "zapia goora" esatean, barriro jaso, punturik galdu bage. Azkenengoz "iru" esatean, ostera, kanpora urten bear dau. Orduan beste neskato bat sartzen da, abesti berbera esanik.

Beste au be era polita. Neskato batek jauzi edo saltu dagi, jokuan sartzen diran guztiak abestitxo au kantatzen daben bitartean:

Burdi-zaiñak, bai,
esan eustan, bai,
bart gabea, bai,
maifre riindula, bai;
esan neutsan, bai,
leunik asko, bai,
eskerik asko, bai.

"Bai" esan bitartean, sokeari eraginka dagozan neskato biak goi-goi euki bear dabe sokea, eta saltu dagiana makurtu, punturik galdu barik barriro be saituka jarraituaz. Saltari dagoanak uts ba'dagi, soka-muturrari eragitera doa.

Beste era bat, orai'ndik. Jokolari bakotxak, aldizka, iru saltu emolen ditu. Ondoren, beste neskato bati dei dagio bere izenez; deituak, bere alde-tik, iru saltu emon bear dauz, ta erabat beste jokolari bati dei egin. Deitua, punturik galdutzeka, besteak saltu dagian une-unean sartuko da saitari.

2) ATXIA MOTXIA

Mutiko aidra zelaian, oigetara joana. Aren zaratotsa! Azkenean, al-karganatu ta eskutxuak alkar-joaz birabiraka asi dira.

Batera, kantu onen ed'errak gozatzen ditu alboetako zugatz-basoak.

Atxia motxia,
besteren kotxia,
zirrin zarran txurrunplet,
olea bite konkolo,
on-zale neu nago,
atzera begira dagonentzat

ezer bere eztago,
zidarra kanpan,
zidarra kanpan gari bat.

Au kanta bitartean, esan dot, umeak bata besteari atzamartxoak ikutzen dautsoez, atzenean bati oraturik.

3) ZAPATARI ZOROA

Joku onetarako saku andi bat —burusi naiz zapi zar andi bat be bardin da—, koillaraxo bat eta kanpaitzako balio dauan edontzi bat bear dira,

Jokolari guztiak, zapatak erantzi ta ondo nastau ondorean saku barruan sartzen dabez. Orrela egiñitakoan, sakua zarratu egiten da, edo burusiaren muturrak lotuazo.

Joku-zuzendariak, dana orrela atondu ostean, jokua asteko zantzua emongo dau edontzia koillara-puntaz ikutu ta amabost segunduan zartada jarraikoz markaurik. Auxe da jokolari bakotxak bere zapatak billatu ta jazteko bear dauan epea.

Lenengo jazten dauazana izango da, naitaez, joku-irabazle.

4) ABERE-KARRERA

Ume-zerrenda. Bata-bestearan atzetik doaz, zuzendariak egingo dautsezan zirkin eta oiua egiñaz. Onela edo.

Zuzendariak diño: "Ardi", ta jolaslariak oiñez eta eskuz ibilli bear dabe, ta ofu au bota: bee-beel

Zuzendariak diño: "Kirkir", eta mutikoak oin baten gaiñean saltu dagie, kri-kri garrasika.

Zuzendariak dino: "Asto", ta mutikoak belaunez ta eskuz dabiltz, aa aaa I arrantzaka.

Zuzendariak diño: "Igel", eta anakak eta besoak batuta saltu egiten dabe mutikoak, kra-kra ! oiua egiñez.

Zirkiñak aldizka aldatzen dira berezko oinkadakaz. Zirkiñetan nai oiuetan uts dagiana jokatik kanpora doa.

Zuzendariak, gaiñera, aginduak emon orde, mutikoen aurretik jarri ta berak egin daikez zirkin eta oiua. Umeak barriz dagie berak egiten dauana.

5) TXINBOKA

Izen asko dauz jolas onek; ezta arritzekoa, aintxifiatikoa ta atsegingarria dalako. Gure edozein baserri naiz uri nagusietako atsegin tokietan dagoz txinboak, eta eurotan txinbo-txinboka neskato ta mutiko taldeak.

Au atontzeko, gaiñera, ezta gauza andirik bear: soka bi alboetarako ta oltxo bat azpirako. Besterik ez ba'daukazue, zugatz adar batetik dingilizka ipiñi zeinkie. Eta ara ta ona, aize garbi ederra artu.

Baita beste era ontan be egin zeinkie. Serratxo ba'tegaz ebagi taket gogor bi alboetarako; josi gaiñekaldean beste taket laburrago bat, eta or daukazue zelai zabalean txinbo polita.

Jolas bitartean abestu daikezue.

IGOTZ

A B E S T I A K

1) ARRE, ARRE.

Arre, Arre, astotxoa, arre, arre, kon-kon!

Atzetik gizon gaiztoak,
zorrotzik beren aiztoak.

Arre, arre, astotxoa, arre, arre, kon-kon!

Traka, traka, axkar, axkar bear dogu jon-jon.

Umetxoen garrasiak
bai estu eta larriak!

Arre, arre, astotxoa, arre, arre, kon-kon!
Traka, traka, bixi-bixi, bear dogu jon-jon.

Ama gaxoen negarrak
aizkatu ditu baztarrak.

2) TRAKATAN, TRAKATAN

Trakatan, trakatan, iru Errege
trakatan, trakatan, Belen'era,
Belen'en jaiio dan Jesus Aurtxoa
trakatan, trakatan, jaurestera.

Beltxor'ek, trakatan, zaldia beltza,
Kaxpar'ek, trakatan, zaldi gorri;
trakatan, trakatan, Baldaxar zarrak
zaldia, trakatan, txuri-txuri.
Trakatan, trakatan, izarra dabe
ain bide luzean gidaria;
trakatan, trakatan, Jerosolim'a
oraintxe eldu dira ia-ia.

Trakatan, trakatan, izarra barriz
len bezela argi ta dizdizari;
trakatan, trakatan, Belen'era arte
bideko pozkille ta gidari.

3) ERREGEAK DATOZ

Pra pra pra pra pra, pra pra pra,
pra pra pra pra pra, pra pra pra !
Erregeak datoz prisaz Belen'a,
guk billa dagigun al dan lenena.

Ate txokoan oillar bi,
batak bestea dirudi:
etxe ontako etxeko-andreak
Ama Birjiña dirudi.
Ama Birjiña, Ama Birjiña,
Zu zara zeruko Erregiñal

Atea eder ezpelez,
atal-burua zidarrez:
nagusi jauna, esan elguzu
asiko garan ala ez.
Nagusi jauna, nagusi jauna,
Gabon emonaz gatoz zugana

Errege-egun bezpera,
beti onela ez gera;
ori iñolaz galdu ez dedin
etorri gara eskera:
galdu ez dedin, galdu ez dedin
txanpon eske gatoz zure etxera

4) EDURRA MARA MARA

Edurra mara mara ari da,
zuritu dau mendia.
Arditxoak sartu dira
otz-otzez
txabol, txabol zarrera.

Nik ba-daukat bildots txiki bat
emen seaskatxuan,
baiña au jango daun otsorlk
ez da sortu munduan.

Aurtxoa loak artu dausku
jango neuke mosuka,
aingerurik baldin ba'da,
emen gure umetxoa.

5) AURTZO MAITE

Aurtxo maite,
nola zaude,
seaskan negarrez?
Atoz gaur nere biotzera,
atoz, bai, lo-lo egitera.
Abesti maitalez,
abesti maitalez.

Eguberri,
egun argi,
zeruan kantari;
aintza zero goian Aitari,
pake lurrean gizonari,
eskerrak Amari,
eskerrak Amari.

URTE - AROA

Mundua, eguzkiaren inguruan dabil, iñoiz gelditu barik, biraka; ta, bira ori osotuten dauan une bakoitzean, urtebete igaro dala esaten dogu. Olan ba, lurrak jira oso bat egiten dautso eguzkiari, eta lurragaz batera lur gaiñeko guztiok be bardin. Lurra geldi dagola guk uste izan arren, izugarrizko abiadan dabil, ortzea zear. Onezaz gaiñera, lurrak bere buruz beste bira bat dagi beraren gain, ogei ta lau orduren buruan: ipar-burutik ego-burura ardatz bat ba'leuko lez, ardatz orren gaiñean jira osoa dagi; jira orri eguna deritxogu. Urtea eta eguna, onexek dira guk aldia neurto-teko darabilguzan oinarriak.

Antxiñatik, ezagun izan ziran erri askotan illabeteak be, ta illargiaren gora-berakaz zenbatu oi ebezan illabete oneik.

Eguna ogei ta iau ordutan banatutea antxiñakoa da izan; baiña ordu orreik alde guztietan etziran bardin zenbatuten (kontetan). Gure artean gaberditik asten gara ta, eguerdiko amabieiera eldu ezkeru, ordu batetatik gaberdiraiño goiaz barriru. Gaur egunean, bi amabiko egin barik, lenengolik ogei ta laugarrenerarte zenbatuten dira eguneko ordu orreik; arratsaldeko ordu batai amairugarrena deritxogu, ordu biai amalaugarrena ta bardin gaiPierakoak. Lenagoko Grezi'tarrak be ogeta lau ordu eukiezan, baiña berarizko era onetakoak: amabi ordu egun argiz ta beste amabi gaberako; orretara, etziran ordu guztiak bardiñak i'zaten; esaterako, neguan gaua luzatuten danean, gabeko orduak be udan baiño luzeagoak izaten ziran, eta egunekoak udakoak baiño laburragoak.

Antxiñako erromatarren urtea amar illabetekoa zan, eta 304 egunekoa urteten eban. Lenengo illa biak, urtarrilla ta otsailla ziran palta ziVanak, eta urtea martian asten zan. Denporeagaz illabete bi orreik be geitu yakozan urteri baiña alan da guzti be, 365 egunerairio baiño etzan eltzen; au zala-ta, urteak joan urteak etorri, urte bakoitzean amar egun atzerago, negua udan eta udea neguan jausiko ziran. Ezbear au zuzenduteko, amai-katxo alegin egin ebezan; baiña beti egun larregi edo gitxiegi emoten eutsoezan urteari, eta iñoiz ez 365 bear dan lez. Ibilli ta ibiili, ara zer jazo zan Julio Zesar agintariaren egunetan: ordurako, neguko illeak udazkene-runtz etozan, urtea bear baiño iru illabete atzerago ebillalako. Naste oneik ikusita, agintari onek, bein betiko atondu nai izan eban xaltsa au; orretarako Sosigenes astronomoari emon eutsan eginbear au. Onexek bai izen-tau eban ganoraz urtea, eta 365 egunduna egin eban.

Lurraren eguzki-inguruko bira 365 egunekoa osta-ostan ba'litzake, So sigenes orren erabagia ezin-obeia izango zan, eta betiraiñokoa. Baiña jira ori 365. egun eta sei ordu ingurukoa da, ta sei ordu orreik laugarren urte-beterako egun oso bat egin daroe; orregaitik, lau urterik lau urtera, ondo ibilli nai izan ezkeru, urteari egun bat geitu bear. Ona zergaitik imiñi zan izan diran bisiesto deritxoen urteak.

Bairia, au lana! Eguzki urtea, diñogunez, urtea ta sei ordu ingurukoa da, baiña sei ordu oneik be eztira osoak, amaika miñutu laburragoak baiño; eta urteko amaika miñutu oneik, ibilli ta ibilli, egunak dagiez. Okertxo au be beingoanj zuzentzearren, Aita Santu Gregorio XIU'garrenak azkenengo zartadea *emon* eban. Amaika miñutu oneik lareun urtean iru egun egiten dabez, eta Aita Santu onek agindu eban eun urtetik eun urtera bisiesto egunik ez geituteko, baiña bai lareun urtetik lareunera,

Era onetan gabiltza gaurko egunerartean eta, patxadan, eguzkiaren urteagaz batera ibilli be».

Baiña,; bai zera! Oraintxe be ezkabiz pozik eta, zelan edo alan, asta barroko egunak *urte* guztietan illabete bakoitzeko egun bardiñetan jausi eragin gura dabez jakitun batzuk. Azkenez, ara zer erabagi daben; urtea 364 egunekoa izan bear ei da. Urtero, izenik bako egun umezurtz bat jarriko ei da lotazillaren azken eguna ta urtarrillaren lenengoaren artean. Bis'resto urteetan, barriz, onezaz gaiñera beste egun umezurtz bat gara-garrilla ta garillaren bitartean. Zortzi illabete 30 egundunak izango dira ta lau 31 egundunak. Ona zelan:

Urtarrilla,	30	Garilla,	30
Otsailla,	31	Dagonilla,	31
Epailla,	30	Irailla,	30
Jorrailla,	30	Urrilla,	30
Orrilla,	31	Azilla,	31
Bagilla,	30	Lotazilla,	30

Onetara, urtarrillaren l'go eguna beli bardiña izango litzake, esatera-ko, igandea; bigarrena, beti astelena, ta abar.

Iñoiz izentauko ete dauskue urtea modu onetan?

Batek ba daki; baiña ziur samar esan gengikena auxe da: orduantxe be, guztiok ez gintzakezala pozik egongo eta, nundik edo andik, aldaketa barriak asmao bearrez jardungo leukiela or jakitunen batzuk.

AMEZTI

AGUR URTE ZAR!

Toki guztietan agur sutsua egin oi dautse Urte zarrari, ta ondo etorria be bai barriari. Baiña Txiaña'n lako agur ta ondo-etorririk ez dot uste iñun be egin dagikeanik. Bilbao'n *eta* beste alderdi askotan "baporiak" txistu joka agurtzen dabe zori txar edo zori on asko ekarri dautsoezan Urte zarra, eta txistu joka artzen dabe Urte barria be.

Baiña Txíña'n "bapore" bear barik egiten dabe dana. Arigi-ontziak biz-tuten dabez, igesik doan Urte zarrari argl egin dagloen. Eta, etxeko krikketa ta zulo guztiak orritz Itxi ondoren, danak oerutzen dira. Baiña, gau erdian, amabiak entzun orduko apurtzen dabez berrero orri areik, eta, izugarrizko sutargia eskuan arturik, txapleruak bota ta bota ibiltzen dfra, ta kalerik kale musika jo 'ta jo. Onegaz, uste dabe, Jainkoak, pozturik, urte barri on bat jaritxiko dautsela.

AGIRREOLEA'tar P.

URRUNETARA

Bedar-kolorez	Urrunetako
ontzi barria	ugarteetan
osabeak deust eskeiñl,	milla altxor dagoz utzita;
oial txuriak	baso illunetan,
tantaitxuetan	artzuloetan
egingo ditut esegi.	kutxa baltzetan jarrita;
	nire ontzian
Urdin jantzita	sartuko ditut
uin eta bagak	isilpean ibillita,
ontziaren azpigarri,	zorabiozko
azal kolokan	altxor zaharrak
dantza dantzaka	lillura-amesez iosita.
urrunera jungo naiz ni.	

Bedar-kolorez
ontzi barria
osabeak deust eskeiñi,
tantai goretan
olal txuriak
deutsadaz gaur nik IpIRI.

ERKIAGA-tar EUSEBI

TXANO GORRITXU

Egun batez, Txano Gorritxu'ren amak onela berba egin eutsan:

—Opilgozo au amamari eroaiozu. Basoaren beste aldeko etxetxoan bizi da. Baiña, ez jolasik egin bidean.

Otarretxoa (otzaratxoa) artu ta, poz-pozik, abiatu zan Txano Gorritxu.

Bera ikusi orduko, basoko txoritxu eta aberetxoak agur egiten eutsoen.

Batekin eta besteakin itz egiñaz, bere laguntxo laztanakaz geratzen zan.

Bere amaren esana aztu egin yakon ba.

—Berandu egingo yatzu, Txano Gorritxu —esan eutsan txoritxu batek.

Bat batean, ara nun agertzen dan otsoa Txano Gorritxu jan guran.

Baiiia, an inguruan baserritar batzuek ebizan, eta orregaitik ,Txano.

Gorritxu jan barik, maltzurkeriz, onela esan eutsan:

—Begira, Txanotxu: goazen olgetan. Ni emendik joango naz eta zu ortik. Amamaren etxera lenengo eltzen danak, arexek irabaziko dau. Ikusiko dozu zelan jolas egingo dogun !

Otsoa askozaz lenago iritxi (eldu) zan.

—Txano Gorritxu naz —esan eban aren antzeko abotsa atarata.

—Atea zabalik dago ta sartu, erantzun eutsan amamak, an etorrena bere lobeaz zalakoan.

Baiña, a otso izugarria ikusita, arasa (armario) barruan sartu zan.

Orduan, amamaren atorra luzea, txotoa ta betaurrekoak ipiñi, eta aren oiean sartu zan otsoa.

Gerotxoago, Txano Gorritxu etorri zan, eta atean, dan ! dan ! jo eban.

—Zabalik dago eta sartu —erantzun eutsan otsoak, amamaren antzeko abotsaz.

Txano Gorritxu urreratu ta arrapatuko ebalakoan, otsoa geldi-geldi geratu zan oiean.

Baiña, neskatoak zerbaiten susmoa artu eban.

—Amama, zelako begi andiak daukazuzan !

—Zu obeto ikusteko, ume.

—Amama, eta zelako esku andiak!

—Zu obeto laztanduteko, txiki.

—Amama, agoa be bai andia dozula.

Otsoak orru bat egiñaz:

—Zu obeto jateko!

Baiña, neskatoa ikutu baiño len, eiztari bat agertu zan, eta "puml" otso gaiztoa jo eta ilda itxi eban.

Beingo batean, arasa barrendik urten zan amama.

Amama, eiztaria ta Txano Gorritxu mai inguruan jarri ziran, eta alkarregaz pozik jan eben amak egindako opilgozoa.

OÑATIBIA'tarJON

L E O ! A

Bein leoia gosakillik larri ei zan.; Aren bildurrez pizti guztiak oianeko sasi artean ostonduta bizi ei zirean, eta leoiak bere orroe ikaragarriakaz barrurago bairio sar-azo ez.

Indarrez ezin ebana amarruz jarisiera bururatu ei yakon. An inguruko etxe baten bizi zan astoagana joan, ta eizan lagun egiontzat apalik eskatu eutson, eizatuko ebena erdibana izango yakela-ta.

Errotara zorrotan gogait egindako astoari eder izan asmua, ta joan Zirean oianera. Sartu astoa sasi artean, asi arrantzaka ta izu laborrian laster urten eban basauntz batek leoia zai egoan larrara.

Leioak erpako batez lurrera zerraldo eratsi eban, eta baita 'iztarretatik elduta, aginka zorrotzez, guztia iruntsiten ekin be.

Joan yakon astoa ariñeketan; erdia, berea ebala-ta, emon egiola eskatu eutsan.

Leioak, baiña, begietatik asarre sua eriola basauntzari egiña berari be egiterik gura ezpa-eban, andik alde egiteko erantzun eutsan.

Jardetsi eutsan astoak: "Oker diarduzu orretan, leoi jauna; basauntza neuk eragi dot eta erdia, itundu gareanez, neurea da."

—Ago ixillik, asto kirten ori —birrerantzurt eutsan leioak-; leoia nazala ba-dakik eta orixe asko dok eskubide osoa neurea izateko.

Igarri eban astoak alperrik ebala bere eskubideen alde ekitea, ta alango lagunaz itundu izanaz ondo damututa, etxeratu zan;

LEGOALDI

PEDRO DONEAREN ERIOTZA

Neron bai, benetan, gaizto ta odol-zalea! Or-emenka, batez be Erroma'n, triskantzata, sarraski ta eriotz ikaragarriak egin ebazan bere agintaldian.

Pedro apostolua zan, barriz, garai aretan Eleizearen zuzendari. Ogeta bost urtez gorriak ikusi ta eroan bear izan ebezan eliztar guztiak, Kristo'ren jarrailleak. Eta oneik, euren Buru zana arriskuan ikusirik, uritik urtetako eskatu eutsoen, jazarle gaiztoaren ezpatapean jausi ez eiten.

Ba-joian Pedro igeska. Baiña Api-bidez joiala, Kristo bera agertu yakon, gurutze astunaz zamatuta. Apostoluak, arriturik, itandu eutsan: "Jauna, nora zoaz?" Eta Kristo'k erantzun eutsan: "Erroma'ra noa, barriro gurutzatu nagien." Eta, au esanaz batera, ezkutatu zan.

Pedro'k berealaxe igarri eutsan Jaunak zer esan nai eban, eta lengo oiñatzez ibillirik, Erroma'ra itzuli zan.

Andik laster, errege okerraren mandatariak, katez lotuta, Mamertin eritxon espetxean sartu eban; baita eriotzara epaitu be. Zigor astiñaldi ederrak emon ondoren, Janikul mendira eroanik, antxe gurutzatu eban. Baiña, untzez josi aurretik, Eroslearen antzera ilteko duin. etzala-ta, gurutzea buruz bera jarteko eskatu eutsen borrareru edo urkaitzailleai. Alantxe egin eban.

Bere gorpua gero, Batikano mendian obiratu eban Erroma'ko kistarrak. Geroago, apostolu zintzo onen obi gaiñean eleiz eder andi bat jaso eban Konstantin Nagusiak, antxiña-antxiñako eleizatxoaren ordez.

IGOTZ

LAU LAGUN

Aizea, Ura, Sua ta Izen ona, banandu bear eban egun baten, alkarri agurka asieko egozala, asi zirean asmaten zelan barriro alkar bat egin al izango eban.

Aizeak esan eutsen beste irurari: "Solo baten galburuak makurtuten asitakoan, ekatxa murrusaka somau dagizuenean, esan ziñaikee: "An dago aizea".

Urak esan eban: "Ugarasi edo igelen "kirri-karrea" entzun edo ii ta ira ta ezpata-bedarrak ikusi daizuezanean, esan ziñaikee: "An dago ura".

Suak esan eban: "Ke ariñak iragarriko dautzue ni zein tokitan nagoan".

Izen ona, besteak adi egon arren, ixillik egoan.

—Eta ik ez diñok ezer? —itandu eutsoen lagunak—; zelan aurkitu auagu?

Ta izen onak erantzun eban: "Ni, bein galdu nabena, ez nau iñoiz aurkituten".

AZKUE (R. M.)

MUTILTXU ARTEAN

—Txo: zuen aita gizon zeken-zekena da.

—Zegaitik da, bada, zekena?

—Zegaitik I Zapataria izan, ta oiñetako zar-zarrakaz arabil i.

—Zuen aita, barriz, gurea baiño zekenago, eutsiago, zikotzago ta miz-kiñago dok, askotaz bere.

—Zer dala-ta?

—Zer dala-ta! Zuen aita agingiña (dentistea) dala ta ire anaitxuak agin bat baiño etxaukak.

AZKUE (R. M.)

IGARKIZUNA

lkatza baiño baltzago da, ta
edurra baizen zuria;
oiñik eztauko aldean, baiño
guztiz da ibiltaria;
miñik beregen eztauko, baiño
berba egiten ba-daki.
Zer gauza dan au irakurleak
igarriko dau bertatik.

—Eskutitza.

ARTATXORI

AGUSTIN DEUNA TA UMETXOA

Itxas-ertzez ebillan bein Agustin. Irutasun deunaren korapilioa eten nai ta ezin eten; egin-alak egin arren, ezin eban ezkutu aundia azkatu. Alako baten, beragandik ur samar, umetxo bat ikusten dau: joan eta etorri, ondarrean egiñiko zulo bat urez bete nai eban, maskor (kontxa) baten bitartez. Agustin'ek, urreraturik, itandu eutsan:

—Zetan diarduzu, ume?

—Itxasoko ur guztia zulo onetara aldatzen.

—Eziña dozu ori, maite.

—Or, ba; eziñago dozu zuk azken bakoa azkendun danaren muga barruan sartzen jardutea; au da, Irutasun deunaren ezkutua gure adimen barruan sartu nai izatea.

Au esanaz, ezkutau zan umetxoa. Jaun onak goitik bialdutako aingeru bat etzanik nok esan?

IGOTZ

IKASLE AZKARRA

Manu ikaslea, bein, ikastetxe nagusitik urten-barri zala, an entzundako azkarkeriakaz aitari adarra joten asi yakon.

—Aita, bi dagozan lekuan, bat be bai dago, ezta?

—Egia dok, seme, bi dagozan lekuan bat be ba-yagok ziur.

—Beraz, bi dagozan lekuan izango dira bi ta izango da bat, ezta?

—Bai, seme, ori olan da.

—Orduan, aita, bi dagozan tokian iru be ba-dira, bi ta bat iru dira-ta.

—Karatxo! —aitak diño, irbarre gogait antzekoa egiñaz—; oneik mutillok zenbat ikasten daben, gero.

Aparia artzeko mairatu ziranean, aitak, emazteak maira ekarri ebazan uretan egositako arrautza bietatik bat beretzat artu ia bigarrena emazteari emcn eutsan. Gero, seme azkarragana biurturik, oneri dirautso:

—Bi dagozan tokian iru dagozalako, iretzat, seme, or geratzen dokan arrautzea.

Eta azpil (plater) uisa eskuz erakutsi eutsan.

IGOTZ

IGALI OSASUNKORRAK

Igali edo frutu baizuk guztiz osasungarri dirala, ezin leike ukaiu. Lurrak ezkutuki sakonak daukoz, eia eurotatik asko ikasi geinke; eta, jakin ezkeru, onura aiera.

Lo egiteko, onak dira urazak (letxugak), berakatzak eta kipulak. Garnu obeto egiteko, guztiz ondo daioz porruak, perejillak eta, batez be, azeri-buztena deitzen yakon bedarra.

Erreumea ta anditu zornatuak osatzeko, zaurira lotu egizu piko ao-zabala. Sabeletik bigun ibilieko, barriz, baraurik artu egizuz igali, arnari edo fruta batzuk, esate baterako: sagarrak, laranjak, pikoak, masustak, kerexak, urre-madari edo limoia, ta onakoak.

Osaki ona da ezitia, eztarri ta urdailleko gatxak bigunizeko.

Samako min, eztul, m.arrani edo olakorik daiorreanean, ur bero ta ozpin (binagre) apur bategaz ezitia nastuta, gargarrak egitea ondo dator. Erreumea biguntzeko be, ezti askotxugaz, koñak edo ron pizkategaz nastaurik, katillu bete ur bero edatea, on izaten da.

Arnasa gozoa erabilteko, ur berotan kollarakada bat ezti nastau ta naste orregaz egunero agiñak garbitu. Eztarria minduta dagonean be, naste auxe ariu.

Kirio ia nerbioak baretzeko, ederral da ezki (iilo) lorea egosita artzea.

Abots motela zolitu ta sama zarratua argitzeko, eukaliuu-orriak egosi ia edan. Eukaliuu-orritxuak agoan eukiteak be, abotsa garbi zaintzeko ia, asko *lagundu* oi dau. Abeslari ia izlarienezai, osaki auxe da eragintsuena,

AÑESE GURENAREN BILDOTSAK

Erromarrak eraspen bizia dautse Añese gurenari. Erromarra bera be, andiki-alabea ta siñestearen alde bere bizia amabi-amairu urtegaz emona, aren izenak gozo iraun eban siñestedunen artean.

Konstantin Kaiserrak aren sendietxe ta illobi ganean oindo zutunik dakusgun elexa ederra eragi eban, eta geroago erriak beste bat eriotza jasan ebalako tokian. Urteillaren 2Tan elexa biok, gcxetik gaberarte, guren begi-koari otoizka doazanez gonburuz beterik agiri izaten dira. Añese'ren ederrez egiten direan eleizkizunen artean, txiroenetikoa orraitio, Aita Santuari eskeintzeko bildotsen onespena dozue.

Antxiñako gizaldietatik datorren ekandua. Trapa-lekaideak urte sariz bildots bi ordain-bearra dautse Laterano'ko elexeari, onek emongo lekaide-txearen orde. Laterano'ko elexeak, barriz, bildotsok otzara apain banan Añese gurenaren elexara bidaltzen dauz; an meza ostean onetsi ta Aita Santuen otseñai eskuetaratzen dautsez. Oraintsurarte, dotore ta apai'n jantzitako zaldi ganean eroaten eutsezan bildotsak Aita Santuari, orain belbillez.

Aita Santuak birronesten dauz eta Koikille gureneko lekaimetxera daroetz. Lekaimeak euren baratzean azi bear dabez Aste Gureneararte; orduan moztu ta arein artulez Gongotzaifai emoten yakezan sorbaldetakoak eotzen dabez. Bildotsak... Aste Guren urrengo Igaratz edo Pazko egunak datozala ba-dakizue.

LEGOALOI

E G U Z K I A

Gauzarik asko, begiz ikusi arren, zer diran ez dakigu; gizonaren adimena laburtzua da nunbait.

Eguzkia ia egunero dakusgu (ikusten dogu), eguraldi laiñotsua ez ba'da beintzat. Zer dan, baiña, ete dakigu? Zeru zabalean milloika izar dira; ta orrein arteko bat baiño ezta eguzkia. Ta txikietakoa izan be, sugar ta indartsu gure begi aurrean andi' agertu arren. Gabaz ikusten doguzan izarrak, naita txiki iruditu, eguzkia baiño askoz andiago ta indartsuagoak dira.

Izar orreik, ostera, eguzkia baiño urriñago diralako, txiki emoten dabe. Eguzkia gugandik 150.000.000 km. urrin dago. Gu bizi garean lurralde ontatik urren dagoan izarra 40.000.000.000 km. aurkitzen da. Egazkin edo aeroplanu batek, orduko 200 km. ibiltera, lurretik eguzkira joaten 84 urte bear dltu.

Emengo su bizia baiño biziagoa da eguzkiaren berotasuna: 6.000 mailla edo gradu daukaz. Izarrak ba-dira 27.000 gradu dabezanak be. Eguzki-sugarrak goraka igoten dabe; ta batzuetan, 300.000 km. luzera dabez ango gar biziak. Eguzkiak, biribil antza dauan arren, 4 milloi km. ditu gerrian.

Iparraldetik dabil udaz; neguz, ostera, ego-aldetik: neguan beetik eta udan goitik. Eguzki-izpi ta argiak goitik beera zuzenean artzen ba'gaituez, bero da, udan esate baterako; baiña ego-aldeko errietan bestera jazo oi da; eguzkia gure neguan arein gain-gain jarten dalako, bero izaten dabe.

Bizi garean lurrak buru bi ta gerri bat daukoz. Buruai Iparburu (N) ta Egoburu (S) deritxe. Eguzkia, neguz lur gerritik bekaldean dabil eta udaz goikaldean; bein batzuei ta bein beste betzuei bere argi, bero ta gozotasuna emoten dautsels ibilli be. *Lurraren* gerri inguruan uda bero izaten da beti, ta iparburu ta Egoburuan negu gogorra: etxeak be leiarriz egin daroez. Gerri ta buru bitartean, ostera, negu ta uda aldizka eukiten doguz.

Eguzkiak mesede andiak dakartsoz lurrari, batez be goitik dabilenean. Neguan, esan dogunez, beetxotik ibilli oi da, berandu urien eta arin sartu egiñik. Baiña bein jorraillera ezkerro, naikoa jagiaz doia, ta solo, mota, baso ta alde guztietan eguzkiaren argi ta bero indarra, egunik egun biziago dakusgu.

Augaitik landara ta zugatzak biztuten asten dira, euren barruko odol zuri edo izerdia, eguzkiaren egi'tez gora-beraka bai dabil azalpean. Izerdi onek, lur mamiñak emondako janaria sustrai-bizarretatik goraka daroa. Onelan, ba, eguzkiak odol zuria biztu ta izerdiak alde guzti'etara janaria jaso ta zabaldurik, landara ta zugatz guztiak errime datoz orain.

Bedarra be eguzki-berotasunak indartu ta azten dau; orriak adar barrutik atara ta baratzak lore guri ederrez apaindu ta jantri be bai. Eta gure bizitoki au, eguzki ongilleak oparo be oparo emoten dautsozan argi, bero ta indarrez, bikain baiño bikaiñago agertzen yaku, udabarri soillean alan be.

Gauza eder ta onuragarri guztiokaitik, eskertsu ager gakiozan Jainko altsuari.

G. ARAMAIO

I T X I A

Mikeltxori eder yakon aitari oianera laguntzea. Eta aitak, gero errian saltzeko egurra ebagi ta batzen eban bitartean, berak erbi ta txoriakaz olgetan alcia emon oi eban. Aberetxo oneik asko maite eben, eta eurekaz bat geiago izan zeiten, euren izketa be erakutsi eutsoen.

Bein batean, lbilkari eritxon erbi nagusiak, kolore korrizko arri diz-ditsua eskiñi eutson, esanaz:

—Nire adiskideak eta nik, arri au damotzugu; maite zaitugu, bai, ta artu egizu, arren, maitasun onen ezaugarritzat.

—Neuk be, oso maite zaituet.

Mutikoa, arria eskuan artu ta luzaro egon zan, andik eta emetik, berari begira; azkenean itandu eban:

—Nundik atera dozue berau?

—Bide egalean aurkifu genduan, atzo. Ez ete yatzu atsegin?

—Bai orixe! Baiña, ni're ustez, oianean ez dago onen antzeko arririk. Ba-leiteke bateren batek galdua izatea.

Erbiak ez dabe egundo kolorezko arririk euki izan, eta Mikeltxo'k iñoanari ez eutsen bat be jaramonik egin; olgetan ekin eutsen, Pakor egur-giñak etxera biurtzeko agindu arte. Bidez joiazala, Mikeltxo'k aitari edestu eutsan jazo yakona, eta onek aolku (kontseju) emonez diñotsa:

—Gorde egizu arria, norena dan jakin arte; jaubea agertuko ez ba'litz, zeurea bedi: bien bitartean ez.

Mutikoa, bere gelako gau-maitxo gaiñean arria itxi ta errira joan zan aitareki'n. Erriko kale-ertz eta orma-barren guztietan au ikusi eban, josita: "Osbalda errege-gaiak atzo pitxia galdu eban oianean. Aurkitzen dauanak, mesedez, biurtu begio".

Pakor jauna laster konturatu zan; eta, erbiak bere semeari maite-erakutsiz emondakoa zala errege-gaiak basoan galdu eban pitxi'a ta, semeari esan eutson:

—Zoaz, faeingoan, faere fcilla. Ementxe itxarongo dautzut.

Mikeltxo joart zan takada baten etxera; baiña gelan sartzean, pitxia ez egoala gau-maitxo gaiñean asmnu eban, samiñez. Katua an inguruan ebillen ezkeru, itandu eutsan:

—Entzun, katutxo! Jolasteko, bear bada, zuk eroan ete dozu errege-gaiaren pitxia?

—Miau ! miau ! —ezetz katuak—. Ni ez naz izan. Itaundu egiozu oi-
arrari, a be ona etorri da, ba, ikusteko asmoz.

Mikeltxo jatsi zan oillotokira. Ar gaixo batek burua atera ebalata,
oillarra a jaten egoan ezti-eztitan. Mikeltxo'k itaun:

—Katuak ikusi zaitu nire gelara sartzen, errege-gaiaren pitxia ikusteko
Esaidazu: olgetako bear bada, zuk eroan ete dozu?

—Kikiriki ! Ez nik, beintzat ! Itaundu egiozu txakurrari; nik urten ta
ak sartu egin genduan.

Mikeltxo joan zan txakurra itxartzera; bazkal-osteko lo alditxoan egoan
au, eta, ari txarreko, galdetu eutsan:

—Zer gura dozu?

—Katua, oillarra ta zu nire gelan egon zarie, errege-gaiaren pitxia
ikusten, eta olgetako edo, artu ete dozun jakin nai neuke.

—Guau!, guau ! Zetako bear dot nik pitxia? Azur bat ba'litz, tira, ez
diñot bera artu ez izatea; baiña arri bat... Itaundu egiozu aateari, ni joan
zain geratu zan, ba, etxera sartzeko.

Mikeltxo aatearen billa joan zan. An beeko zingiran egoan aatea, ure-
tan poz-iturri, sartu ta urten, kuak!, kuak ! garratzak jaurtzen ebazala.

Zatoz ona, aatetxo. Katua, oillarra, txakurra ta zu nire gelan egon
zarie, errege-gaiaren pitxia ikusten, eta orain ez dot bera iñun be aurkitzen.
Esaidazu: beragaz olgetako eroan daustazu, bear bada, ala uretan galdu:

—Ba, pitxia! Zetarako ori? Itaundu egiozu Ibilkari erbiari, nire atzetik
joan da-ta. Ba-leiteke arek zerbait jakitea.

Mikeltxo erbiaren billa joan zan, eta aotik surrera itaun:

—Katua, oillarra, txakurra, aatea ta zu nire gelan egonak zarie, errege
gaiaren pitxia ikusten. Barrero biurtzeko edo, zuk artu dozu bear bada?

—Nik? Niri ez leuskide jauregian sartzen itxiko. Oianean idoro neban,
eta zeuri emon neutzun, beragaz nai zenduna egi'teko; alan be, errege-
gaiaren pitxia zan ala ez, obeto ikusi nai izan neban... Baiña orain gogoratu
yat nire atzetik igela sartu zan zure gelara; zergai'tik ez daustazu berari
itaunduten?

Mutikoa, izkirik be artegatzeka, igelaren billa joan; azaldu eutson lau-
-lau:

—Katua, oillarra, txakurra, aatea, erbia ta zu nire gelan egon zarie,
errege-gaiaren pitxia ikusten; osiñera eroan dozu, bear bada, zeure adiski-
deen jolasgarri?

—Ez egizu tentelkeririk esan. Oso zikinduko litzake emen, eta bere dirdira guztia galdu. Zergaitik ez dautsazu itaunduten eperrari? Nire ondotik a be zure gelan.

Eta igela, itzok esan ondoren, saltoka, plisti-plasta aldendu zan. Luza-roan egon zan Mikeltxo aren kruak!, kruak! entzuten; eta azkenez, aita zain eukala-ta, nai'gabetan, eperra ikustera. Ari be azalpen bardiña:

—Katua, oillarra, txakurra, aatea, erbia, igela ta zu nire gelan egon zarie, errege-gaiaren pitxia ikusteko. Zuk eroan al dozu jolasteko?

—Noiztik olgetan eperrak pitxiakaz? Itandu egi'ozu mikeari; ni urtetean, a sartu yatzun.

Mikeltxo mikearen billa; aurkitu ebanean, galdetu eutsan bertatik:

—Zuk artu dozu errege-gaiaren pitxia, nire gelan egoana? Katua, oilarra, txakurra, aatea, erbia, igela ta eperra an egon dira zure aurretik; baiña ez ei dautsa iñok ikuiu,

—Ezta nik be, ziur diñotzut —erantzun eutsan mikeak.

Joan zan Mikeltxo; eta eperrak, mutikoa artega ta arpegi-illun ikusirik, itaundu eutsan:

—Aurkitu dozu, onezkero, errege-gaiaren pitxia?

—Ez, ba; mikeak diñosf berak er daukala.

—Nik, ba, ziur diñotzut: zirla sartu dautzu, ta ez makala I Euren endako guztiei eder yakez, dakizunez, diz-diz dagien gauzak. Erdu neugaz. Ezin bestean, abia arakatu bear dautsagu.

Mikea zan, izan be, pitxia ostu ebana. Griña ta lera txar bat eban, eperrak iñoanez: dirdiraz edsr yakozan gauza guztiak bereganatu bearra. Baiña arerio biak ur samar ikusterakoan, laster ak igarri zelako asmoz joia-zan; eta, pitxia pikoan arturik, asi zan, goi, oso goian, Mikeltxo'k errapau ezin zeikean eran. Mutikoak betiko galdua uste eban pitxfa; baiña erbi ibil-karia, zer jazoten zan jakiñik, errege-gaiaren pitxi gorria baiño askozaz dizditsuago bategaz aurreratatu yakon, eta berau mikeari erakutsiaz, esan eutsan:

—Mika andera, pikoan daroazun arria emoten ba'daustazu, zeuretzat eskuan daukadan eder-diztikor au. Gogora egizu: zuk daukazuna errege-gai batena ba'da, nire au errege batentzat lain be ba-dala.

Mikeak, eguzkitan diz-dizka ikusirik erbiak eskintzen eutsona, Mikeltxo'ren eskuetan itxi eban pitxia; baiña, bigarren pitxia artzerakoan, an-katxoa urratu yakon.

—Zer da ori? —itandu eban.

—Ja, jai! —erbiak barre—. Ispiliu apurtu baten zatia! Ondo baiño obeto daukazu sartu dautzuguna, dana zeuretzat nai dozuna zara-ta.

Mikeltxo'k azaldu eutsan aitari zer jazo zan, belutu zalako asarratu ez zedin. Eta biak batera zuzendu ziran jauregirantza; ara eltzean, euren zintzotasunari yagokon saria emon eutsen errege-gaiak.

Mutikoak, barriz, bere adiskide aberetxoai esker ona erakustearren, janaria erosi eutsem ugari. Eta, areik egin eben bazkaria!

IGOTZ

PIZTIEN INDARRA

Nok esango leuke pizti batzuen soiña, gorputza, txiki ta ziztriña Izanik, ain indartsua dala?

Ardiak edo arkakusoak, lurtean ozta agiri dan pizti kaskar onek, kana beteko gora-gorakak egiten dauz. Gizonak, bere gorputza 900 ardiren beste-koa dala konturatu ezkeru, 900 kanako akitia (brinkoa) egin bear leuke. Ta onen beste kana eztaukee Euskalerriko torrerik andienak, bata besteen ganean sel ipiñita bere.

Erle batek, bera baiño 15 bidar astunago dan gauza bat, tatarrez frago (eroan) daike. Gizonak, erleak aiña indar beren giñoan eukiteko, 120 arroa tatarrez eroan bear leukez.

Euliak, gure sakeleko orduariak, erloiak tak-tak bi egiten dabezan artean, **600** egokada egin ei daikeez. Erlastar (erle alper) baten eztenak, jostorratza baiño txikiagoa izan arren, gizon mardo bat il al dau.

Zelangoa ete da Lurbira guztiko indar guztiak egin dabezanaren altsutasuna?

AZKUE (R. M.)

EURIA TA ATERRIA

Esakune ta beste igargarri asko dagoz baserri batzuetan eguraldi ona ala txarra, euritsua ala aterria izango dan jakiteko.

Ona bat: "Goiz gorri, arrats euri". Goizean, eguzkiak urteten dauan aldetik laiño gorriak ba'dagoz, arratsaldean euria ziur.

Ona beste bat: "Arrats gorri, goiz aize". Arratsaldean, eguzkia sartzen dan aldetik laiño gorriak ba'dira, urrengo goizean aizea; eta eguerdi aldetik laiño gorriak ba'dira, urrengo goizean aizea; eta eguerdi aldetik zuri-zuri andiak urteten ba'dabe, illuntzea baiño lenago euria ta trumoia.

Onez gaiñera, ba-dagoz beste ezaugarri errezago batzuk be.

Euria egingo dau:

Kardu-latzak bere ortz zorrotzak estutzen dabenezan.

Irusta edo sekula-bedarren lorea luzatu ta arteztuten danean.

Arrak, ugari, lur ganera urteten dabenean.

Oilloak eta eperrak, auts artean eraginda, zorriak ilten egon oi diranean.

Antzarrak, batera ta bestera, egaz dabiltzanean, eta itxas-antzarrak urperatzen diranean.

Aariak eta auntzak gora-goraka ta agiraka dabiltzanean.

Erleak euren kutxan urrean dagozanean.

Egabela txikiak (enada ta elaiak), egaz, lurraren kontra dabiltzanean.

Eguraldi ona:

Jeriko'ko larroseak bere orriak batu ta tximurtzen dauazanean.

Usoak urrumeka ta urrungaka eragoten dabenean.

Gau illuntzetan eresten ba'dabe.

Euli txikiak alkartu ta, eguzkia sartu baiño lentxuago, egaz dabiltzanean.

M.

KRISTIAN GUDARIA

Orain urte asko, Kristian eritxon gudari (soldau) bat, guda askotan egonikoa ta euretariko baten beso-bakoitz gelditua, Bakartegi (komentu) bateko atarira joan zan. Bakartegi aren orma ondakiñak ikusten ei dira gaur bere Eskandinabia'ko mendietako edur artean.

Bakartasuneko bakea nairik, atera urten eutsan bakartarrari; etxe atan-txe bizi izateko guraria erakutsi eutsan.

Bertako nagosiak barruratu eban, eta lenengo-lenengotik izan zan bakartar beso-bakoitza beren bizilagunen jolasgarri ta barregarria. Esangifia, eroa-pen andikoa ta berbetan aurrerea, toki askotako albistak jakin eragiten eutsezan. Beren berbetea etzan izaten, baiña, bear zan baizen erazkoa, garbia ta arteza; bein baiño sarriago mindu ebazan entzuleen belarriak; eta agaitik nagosiak agirakar latz-latza egin eutsan.

Kristian'ek apal-apal entzun eban esan yakona; ta gabon-arratsaldean sutondoan ikasi ta aratu ibiltan diran umeak biño pozago gelditu zan, nagosian aotik baserririk baserri amarren-billa ibilli bear ebala jakin ebanean.

IbMtaldi baten, aintzira-urertzean mendi zorrotz edertsu barreanean, arzulo edo koba bat aurkitu eban. Eguraldi txarrakaitik baserrietan ibilli ezin zanean, koba barruan zurezko tresnaren batzuk egiten jarduten eban. Bein, auntz baten bernazakiaz beretzat beso-ordeko bat egiteko gogotan sartu zan; esku-orde ezpelezko mukur bat moldatuteko. Aurrerantzean ezkerreko sorbaldatik beera, igarri ezindako moduan eutsita, auntz-azurrezko besoa ta ezpel-zurezko eskua erabilten ebazan. Bakarkideak guztizko arrera ona egin eutsoen, eurak legez beso-bikoitz ikusi ebanean.

Geroago ta sarriago egiten ebazan Kristian'ek ingurumari aretako ibiltaldiak. Beren sakutoetan edur-matasea legez jausten zirean parra-parra eukitsuen ondasun-izkiak; eta ganera berak jan ta edan-ala ogi ta ardao, edozein bizitokitan eskinten eutsezan. Bein baiño sarriago eldu zan Bakartegi'ra bear zan baiño beranduago. Alako baten nagosiak arpegi itzalaz, "Kristian, esan eutsan; ik, dakustanez, beti egon gura dok sartu-barri, besteon antzera eskintzariak (botoak) egin baga; bada geroago ta okerrago akust".

Kristian'ek, parka eskatuaz, erdi negarrez ta bene-benetan zuzenduko zaneke berbea emon eutsan; eta barriro, zamari bat lagun ebala, eskean asi zan.

Egun baten, nunbait emon eutsoen ardaoak bear zan baiño gorago igon eutsanean, lagun askon erdian soldautzako eresi (kanta) bat garrai'zitu eban. Bakartegian barri au jakiñaz batera, txantxana (aingeru kanpae edo txiliña) nagosiaren aginduz jo ta guztiak gela andian bato zirean; eta, eritxi bardiñaz, Kristian kanpora bota bear zala erabagi eban.

Kristian'ek ez eutsan arpegiari ziririk eragin, naibagezko epai au entzun ebanean. Biderik galdu barik elizara joan zan, eta done Jertrudis'en besoa egoan gorpuzki-ontzi aurrean belaunikaturik, arrenka ta erreguka asi zan.

Gabardi inguruan, Bakartegiko nagosia elizara bertara arren egitera jatsi zan; eta, Kristian ezagutu ebanean, "Ene anaia —esan eutsan—, ona emen ire zoriona. Jaungoikoaren eritxia zirikatu bear dogu. Biar, gabon eguna dan aldetik, baldin oso-osorik eta zintzo pndo nai ba'dok, izan leike zeruak igaitik mirari' bat egitea".

—Orretarako, nire damua ta garbaia bear ba'dira, miraria lortuko da —erantzun eban Kristian'ek.

—Ona emen liburu bat, guk Erregentzat birregin bear doguna. Ik gau bakar baten, Jaungoiko gizondua jαιο zan gabean, liburu eder au birregin (kopiau) al ba'dok, barriri Bakartegi onetan artuko augu.

Kristian'ek, au entzueran, beren beso bakarrari jausten itxita, larri-larri nagosiari esan eutsan:

—Ene aita, iru urtean ezin dan arloa, gau baten zelan egingo dot?

—Bigarrenez dirauat. Jaungoikoaren eritxia zirikatu bear dogu. Benetan garbaatu ta damaturik ba'ago, ik eurez ezin dauana, Berak mirari batez egingc yok.

KHstian gaixoak, zerbait gogoratuten egonda gero, onetara berba egin eutsan nagosiari:

—Onetarako gauza bat ogetalau ordutan euki gura neuke.

—Zein da?

—Aor barruan dagoan Done Jertrudis'en besoa.

—Tira, bada.

Kristian, nagosiari agur egindakoan, beren kobarantz joan zan. Koba aurreko aintzirea leituta egoan. Larrapastada baten igaro eban ertz batetik besterako unea. Bizi-tokira sartu zanean, lankai ganean jezari zan lenengo; gero, auzpaz jarri la uluka esan eban: "Satanas, atorkit, Zeruaz asarratu ta nagoan ezker, lagundu bekit inpernuak". Lastertxu aitz baten arrakalatik gar atsitu artean agertu zan deabrua, ta esan eutsan beso bakoitzari:

-ertzera erpeak eroanaz.

—Estualdi armin-armin baten nago, ta zelan edo alan atara naik estualdi onetatik, al ba'dok.

—Tira, al dot. Baiña, zer emongo daustak saritzat? Sari bako traturik ezta egiten.

Kristian'ek, burua makurtuaz, kiño egin eban, besteak ez ikusteko eran. Burua jaso ebanean, beren albokoak esan eutsan:

—Nik orain estualdi onetatik atara ezkeru, ik aurrerantzean neuk nai dodan lekura jarrai'tuko daustak, e?

—Nik jarraituko dauat, baiña orretarako berba bat emon bear daustak euk.

—Zein da berba ori?

—Egubbarri-eguna igaro ezkeru, eztok ik nigan ezetariko eskubiderik eukiko; eta bakar-bakarrik eguerdiko txilln-otsetik gaberdikora egongo nok ni ire mendean.

—Naikoa dot nik abagadune ori, adiskidea; nik eroango audan lekutik osteratu orduko, mendi onetako ura urtu ta gorituko da.

—Beste gauzatxu bat oraindiño. Bear dan moduztasuna niganako ik euki daian, ezkerreko eskutik bakarrik oratuko daustak, ire bizi-toki aldera joaten Jagundu bear daustanean.

—Tira, egiunea eginda dago. Saria ezta txarra. Esan orain nai dauan mesedea.

—300 astoren marrua nai neuke.

Olako gogorkeririk !

—Kontuz eratzita, narru orrek pergaminozko liburu bat egiteko izango dira. Onetarako margo edo kolore guzti'etako tintea bear dot; eta eugazkoa eukitearren, edo eu bere pozik egon aitean, eure irudia ezarriko yautsagu liburuari azpiko aldean. Baiña gero amabi ordutan egin bear izango da liburua.

—Bai. Oraintxe iplñiko dodaz lanca deabru-txiki pillo andi bat, eta eurakaz batera arako Jerusalem'en "eriotzea Kristo'ri" deadar egin eben eskribauak. Errialde onetan eztago, otzegi dagoalako, guk nai doguzan beste asto; baiña ez estutu: inpernutik ekarri eragingo dot bear dan narru guztia.

Gauzak, esanda legez, gerta zirean. Gau guztian jardun eben lanean koba atan. Aintzirako ur leitu guztia lurrundo zan, auzoko d'eabruen berotasunaz. Mendi aretako txori ta egazti guztiak luma barik agertu zirean urren-

go egunean, iiburua egiteko bear izan ziralako. Goizaideko mezatarako txiliñak ots egin ebanean, Kristian, liburua besapean ebala, Bakartegiko nagosi-agana joan zan.

—Aita neurea —esan eutsan agertu yakanean—, ona emen ik nai izaniko lliburua.

—Ator ona neure besoetara, gizagaixo ori; zeruak mirari andi bat egin dau eugaitik. Bakarkide guztiak, arrera ona egiñaz, pozik laguntzat artuko abe.

—Nik orain, euk aginduriko saria bear dot; neuk neure berbea jagon dodan ezker, jagolk euk eurea.

—Pozarren. Baiña, zein da?

—Gaurko egun guztian Done Jertrudi's'en besoa neugaz eukiko nebala agindu eustan.

—Ator neugaz altaraño ta an artuko dok, gizon zerutar barrirazu orrek.

Kristian'ek atsegiñez artu eban zidarrezko ontzi done Jertrudis'en besoduna, ta ardura andiaz eroan eban bere koba itzalera. An, Jaungoikoari arren gartsu bat eginda gero, kendu eban sorbaldatik dingilizka eukan azurrezko besoa, ta beren orde, done Jertrudis'ena ipiñi eban. Jarri zan lankai-ganean, beste mutilla noiz etorriko. Laster agertu zan au, gorrizko jantzirik, sua ta barrea eriozala.

—Aurrera, laguna, —esan eban Satanas'ek.

—Begira nengoan, eu noiz agertuko. Ba-dakik gero zein dan gure egineua. Nekatuta, eiota, arikatuta nago; ta oratuidak ezkerreko onetatik, obeto ibilli' naitean.

Deabruak, edurtzan erpe-markak itxirik eta iutika Kristian'egana urreraturik, eskua luzatu eban, gizonari eusteko ustean; eta aida bere-atantxe done Jertrudi's'en besoa, maillu baten gisan, gora ta bera asi zan, ukabilkada galantak Satanas'i buruan emonaz.

—Praille buru-motza, niri au? Au da egitekoa?

Deabrua berbetan ta intzirika egoan arte guztian, done Jertrudis'en besoak, zein da burdinoletan gelditu bagarik ibiltan direan gabien antzera, jo ta jo buru guztia adar ta guzti zatitu eutsan. Burruka onek gaberdirarte iraun eban. Txilin-otsen durundia il zanean, inguruko mendi-tontorretan txinpart andi garri-gorriak edurra urfu eben. Kristian, iluntasun andian bakarrik gelditu zanean, Bakartegirako igitu zan; itxi eban beren lekuan beso miraritsua, ta azurrezko besoa sorbaldatik bera ipiñita, besteakana joan zan. Ez eban aurrerantzean Bakartegitik urten. Antxe il zan, arpegia bizar zuriz, gorputza tximurrez, ta arimea zerurako irabaziz beterik.

AZKUE (R. M.)

ZENON'EN IKASLEA

Grezia'n ba-zan beiñola jakituri-zale edo pilosupu bat, Zenon eritxona; oso entzute andikoa berau. Gazte ta zar, asko yoakozan aspertu barik irakasten ebana entzutera.

Arratsalde baten, Zenon'ek bere jakituriz lilluratuta eukan ikasle bati, au bere eguneroko zeregiña bete ondoren etxeratu zanean, aitak, jakin guraz, esan eutsan:

—Ia, seme, esan egidak; zer ikasi dok jakitun orrenean? Merketxo ez al yok jakituria saltzen?

—Laster ikusiko dozu —erantzun eutsan gazteak.

Aitak, ostera, semeak ez eutsola gauza onik egin uste eban; eta, oso asarre, gurbiza bategaz narrua berotzen asi. yakon, garrasi baten zirautsola:

—Ona emen, alpertzarra, nire ardura ta lanak. Ik alperrik emon dozak orduak, eta nik zetarako ainbat diru eralgi?

ixil-ixillik eroan ebazan gazteak aitaren zigorkada ta añeneko garratzak; eta, zerbait baretu zanean, esan eutsan:

—Begi aurrean dozu, aita, Zenon'cn eskolan ikasi dodana: len ez nintzan bape gauza zure erabilli txarrak eroateko; orain, barriz, eurok eta geiago be, tautik atara barik eroateko beste ba-nozu. Ez naz, ba, alperrik ibilli jakitun orrenean.

IGOTZ

A S M A K I Z U N A

Maixuak, bein, onela itandu eutsan mutil koskor ikasleari:

—Zura aitak milla peseta zor dautsoz joskiñari; beste milla zapatariari; (areun denda batean, eta seireun ogi-egilleari. Egun baten Jainkoak alan naita, milla peseta emoten dautsoez zure aitari. Ba-dakizu artu dauana ta zor dauana; zenbat geratzen yako?

—Milla ogerleko.

—Baiña, ume, ordaindu bearrak iru milla peseta ditu ta dituanak milla ogerleko. Ia, pentsau egizu pizkat.

—Nire aitari milla ogerieko geratzen yakoz, zuk ez uste arren.

—Lelo al zara? Ez ete dakizu asmakizonak ezagutzen?

—Ezagutzen dodana, eta ondo, nire aita da.

A P E L E S

Apeles, antxiñako Grezia'ko pintore errime bat zan. Gaur oi danez. lan on bat egiten ebanean, urian egoan dendarik agirienean baten erakusten eban.

Bein, erritarren eritxia jakitearren, iñok ikusten ez ebala, beran antzeztu (lauki edo kuadru) atzean ostendu zan. Asi zirean, bata joan ta bestea etorri, erritarrak Apeles'en lan barria ikusten. Euren artean zapatari bat eldu *ian* bertara; ondo begiratu eutsan lanari; ta alboko lagunai, Apeles'ek barrutik entzuteko gisan, esan eutsen: "oiñetako andiegiak daukaz".

Apeles'ek, ondo begiratuta gero, zapatariaren eritxia egiazkotzat arturik, urrengo egunerako oiñetako laburragoakaz erakutsi eban aurre-eguneko antzeztu edo irudia. Orduan bere asi zirean illuntzetxoan bera ikustera lagun asko etorten. Zapataria eldu zanean, oiñetako laburragoakaz ikusirik, arro-
-arro eginda asi zan begiakaitik au, buruagaitik ori, eskuakaitik bestea esaten: guztia zan atxakia.

Apeles'ek, orduan, amurruz baterik, barrutik esan eban: "Zapataria, eure zapatetara".

Zapatari aren antzera, asko dagoz gaur bere, ez dakien gauzea aitzakiaz bete ta txartzat zokondora botaten dabenak.

AZKUE (R. M.)

Silbin erregeak, zaldi ganean beresi zear elzara doala, artzain zartxo bat aurkitu dau, zorrotxoa lepoan eta urretx-makilla eskuan, pagadi oiñean jarrita. Zaldua gelditu ta pizkat makurturik.

—Esaidazu, artzain —diñotsa erregeak—, zenbat irabazten dozu ardlzain?

—Jauna, esango dautzut, ba, pozlik be; zuk zeure esku-mendekoak zainduaz irabazten dozuna, axe Irabazten dot nik be.

—Zelan izan daiteke ori? Zuk, artzain lau orrek, nik errege nagusi onek aiña, zelan irabazi zeinke? Ez dot au aitzen.

—Bai, jauna, orrelaxe da; nik, neure ogibide ta arloan, zerua edo inpernua irabazi daroat; zuk, zeurean, ezln zelne nik baiño geiago irabazi.

Nai errege nai artzaintxo,
orain erein azia,
axe guztiontzat gero
amaibako saria.

IGOTZ

ERRAMUNT XO

Antxiña-antxiña, iñor be gomutaratzen ez dan aldian, etxe aundi ta mando baten, bere izekokin batera, Erramun eritxon ume bat bizi zan. Erriaren izena esateko gatxa dalako edo, iñok be ezin dau esan.

Zazpi urte ebazan, eta bere aita edo ama, iñoz ikusi ete eban, ez zan gomutatzen. Erramuntxo'ren aziera jagon eta zaintzen eban izeko, blotz-estu ta zekena zan. Otorduan be, jateko, ogi koskor gogorak emoten eutsozan. Ogi erre-barririk ez eban iñoiz be muxtau. Batean bekosko illuna, bestean agiraka garratza, betl eukan, zer edo zer, bere lzekok. Ala ta be, umekondo txikiñak, emakume geizto a, blotz-biotzez maite eban; ez eban eta, beste

iñor, maite izateko. Ori zala-ta, egun goibel eta illunenetan be, atsegin fzipiren bat, ke-bide zear, sutondora jausten dan edur maluta lez edo, agertu ta alienatzen zan.

Erramuntxo'ren izekok, etxeko zirkilluetan eta oge azpian, urrez beteriko galtzerdi batzuk, ostenduta eukozala, auzoko guztiak ekien. Zelan jakin eben ez daklgu.

Orregatik, txiro ta beartsuen ikastolara Erramuntxo bialtzea, yoranez gura arren, ez zan azartzen. Auzoko irakaslea, ia utsean, Erramuntxo'ri irakasten asi zan. Baiña arazo ta zeregiñen bat etxean ba'eban, etzan joaten. Irakasleak gitxi maite eban berakin urri irabazten ebalako edo. Orregatik sarritan zigorkatzen eban Erramun; ikastolan zer edo zer jazoten ba'zan, Erramun an ba'egoan batez be, berealaxe agirska asten yakon.

Batzuetan umea begi-illun egoan; eta bein baiño geiagotan ezkutu-leku ta zokondoetan ostendu ta ezkutau egiten zan, iñok ez egian ikusi. An egoan gure Erramuntxo negar-antuluak zara-zara eriozala, biotza ausi ta lertu arte.

Guenez, umekondo soster guztiak, poz-pozik. Gabonak igaro ondoren, Errege eguna etorri etorren. Urtarrillaren bosgarren eguna zan. Beraz, Erregeen atzeguna (bezpera). Beti lez, ikastolan sartzeko, orduari zain egozan mutikoak.

Umeak alai-alai ziran. Negute a gogorra izan zan eta, lur guztiak edur zuriz estalduta egozan. Ume guztiak soiñeko dodu ta berogarriaz, buruko txapela belar'rietaraiño sartuta oazen; oiñetakoak be egokiak ziran, oiñak busti barik, bero-bero izateko.

Erramuntxok, barriz, soiñeko berogarririk ez eukan. Udako astegun buru-zurietan erabilten ebazan jantzki meak jantzita, otzaren otzaz ikaraka egoan. Galtzerdiak be, zakar-zakarrak zulatuta eroazan. Bere oiñetakoak zirala ta ez zirala, ume guztiak ikusi orduko, barre purruztadaka, barre zantzo baten egozan mutiko guztiak. Baiña Erramuntxok, iñori be jaramon egin barik, atzak agoan sartuta, putz iñarduan, zelan-edo-alan eskuak berotzeko. Baita oiñakin belurra gogor jotzen eban eta berari esaten eutsaezan esamesak ez ebazan entzuten.

Ikastolarako ordua eldu zanean, mutiko soster pilloa bere irakasiakin ikastolaratu zan. Ikastolaren ederra! Amaika irudi ba-ziran an! Aizea be bero-bero, ta bere atz otzaz Erramuntxo aztu zan. Mutiko koskorrak, une batxo baten be ixilten ez zirala, txor-txor-txor, guztiak batera, barriketan iñarduen. Gero erregeai zer eskatu bear eutseen alkarri esaten asi ziran.

Zaldi aundi bat eskatu bear eutsela endorearen (alkate) semeak iñoan. Beste milika ta bupera batek, goxoak-eta berak eskatu eutsezala iñoan.

Zaldiak eta, zelan ibilli bear ebezan gogoratuta bakarrik, umeen begiak diz-diz argi egiten eban.

Erramuntxo, barriz, illun egoan. Gau atan be, bere izekok, apaldu barik ogera bialduko ebala gomutarazoten eban eta. Ba-ekian gaiñera txiroa zala ta ogasun urriak eukezala ta eragozpen aundia zala Erregeen opariak lortu ta jadetsi al izateko. Baiña egun atan be, beti lez ona ta zintzoa izan zala, biotzak iriotson. Orregatik, bere oiñetakoak zarrak izan arren, Erregeak zerbait ekarriko eutsoela uste eban.

Guenez, ikastolatik urteten asi ziran. Irakaslea atzekaldean etorren. Ikastolatik urtetea, igaro bear zirean ate ondoko mailletan ume bat otzaz kikilduta, loak artu eban. Ala ta be, ume aren arpegiak edertasun utsa erioan. Ule zuri-gorriak, burestun (koro) batek lez bere burua inguratzen eban; baiña ortozik egoan, eta oiñak neguko otzaren otzaz ubel-ubel ebazan. Ikusteak bakarrik negar-gurea emoten eban.

Ikastolatik urten ziran umeak, soiñeko berogarri ta lodiaz estalduta bere aurretik igaroten ziran. Edurretan lo egoan umeari begirakada bat be otza-otza ezarriten eutsoen. Erramuntxo azkenengo etorren. Berak zergatik ez ekiala ume aren arpegi eder eta biguna begikoa izan yakon. Bere aurrean errukitsu gelditu ta bere kautan iñoan: "Gaxoal... Ortozik... Edur artean lo!... Au tamalaren tamalal... Bere ondoan... Oiñetako bat be ez dauko... Erregeak emendik igarotzean, zer edo zer itxita... itxartzean, pozaren pozaz, biotzak gaiñezka egin dagiontzat! !..."

Erramuntxok, aonelakotxe gauzak, bere buru zur zolian eta biotz bigun errukiorrean erabili ebazan. Azkenez, bere eskumako oiñetakoa kendu ta lo egoan umearen ondoan polito-polito itxi eban. Gero, oiña otz-ikaraz ta biotza bero-bero, edurrez ta txingi'li-mingili edo txingorrika, an joan zan Erramuntxo,

Etxeratu ordukoxe izekok abegi illunaz diñotso:

—Nun egon az... Ta, eskumako oiña ortozik ebala ikusita, arpegi muker mukerraz itandu eutson: —Beste oiñetakoa nun dok?.,.

Erramuntxo otzaren otzaz ta bildurraz ikara-ikara egoan, baiña guzurrik esata otu be ez yakon egin. Bera baiño ume txiro ta bertsuago bateri oiñetakoa *emon* eutsola, izeko asarratuari esan etuson. Irri-barre murri maltzurrik emakume aren arpegi tximurri, narru-gogorrari' zirkin eragin ta onela esan eutson Erramuntxo'ri:

—Gure jauntxo eder eta apaiña beartsuei oiñetakoak emoten!... Olakorik!... Ara!..., eure oiñetako bakar ori leioan ipiñik, eta erregeak ezer ipinten ez ba'dauste, zigor bat izango dok eure bizkarra berotzeko. Aurre-

rantzean be ogi koskor gogorrek jango dozak!..., ta ur otz-utsa edan bearko dok! Orrela ikasiko dok lenengo idoroten doan beartsuari oiñeta-koak emoten !...

Gero, zartada eder bat arpegian emon eta apaldu barik ogera, ganbarara, lo egitera bialdu eban. Sutondoan subil ganean jesarrlta pozik egongo zan umetxoa oge otz eta gogorrean erantzi ta etzin zan. Baiña iretargia ozkarbi be-beraño etorri ta erregeak ba-etozela esaten eben oillarren ku-ku-rruku zoliak eta kanpaien otsak entzun arte ez eban lorik egin.

Goizean goiz, izeko jagi zanean leioratu ta arri'tuta geldltu zan. Leio dana ingi txaiak zurietan bildutako goxoz... jostailuz... mueta guztiko gauza eder gelgarriz beteta egoan. Erdian, Erramuntxok beartsuari emon eutson oiñetakoa ta bsre ondoan... bertan zigor gogorra idoroko ebalá esan eutson oiñetakoa.

Izekok arrituta deadar eta oiu egin eban. Erramuntxok ulu a entzun eta leiora jatxi zan, zer jazo ete zan ikusteko. Gauza eder areik Erramuntxok be ikusi ebazan. Leio ondoan, bertan egozan gauzak ikusten egozela, txaide zear, be-alderuntz oazen giza aldrak, euren etxeetan, gau atan jazo zirean gauzak esaten ebezan, Guraso aberatsen etxeetan errege opari ederren zain egozan oiñetakoetan zigor gogorrek idoro ebezan. Bitartean izeko ta Erramuntxok, arrituta, euren oiñetakoetan ageri ziran gauzai begira egozan.

—Nork ipiñiko al ebazan?

Etxe ondoan. egoan eleizan izlari (sermolari) batek, orduantxe, esaten ebazan gauzak entzun ebezan. Orrela eurái jazo yakena ulertu eben.

Izekoren biotz tximur eta gogorra bigundu ta samurtu zan, bere ezpanak irri-barre ta begiak erdi negarrez; ta biak batera belaunikotu ta ume txikiaren erruki-maitasuna saritu eban Jainkoari eskerrak egin eutsoezan.

ZAITEGI'tar JOKIN

BILDOTSAREN KEZKAK

Bildots bat egoan bein beeka, miñak eta naibageak eroan eziñik: deskeila (kexatia) zan.

—Neure bildots maitea —erantzun izan yakon—: ba-dakust eure burua gordeteko gordegarri gitxiegiáz egiñikoa azana. Bldebagakotasun au ondo

izango da zelanbait ondutea. Gura dok oifietan erpeak eta aoan agin gogor triskatekoak euki?

—Ez —erantzun eban bildotsak—: eztot nik izan nai abere odolzaleen antzekoa.

—Nai dok eure aginpean merenoa (pozioa) euki?

—Ez, merenodun abereak iguingarrak dira-ta.

—Zer gura dok, bada? Adarrak bekoklan eta sorburuan indar geiago Ipiñiko dauadaz, nai izan ezkeru.

—Ez olakorik, Aita; bada, orretara ezkeru, akerra baiño auskariagoa izango nintzake.

—Baiña, besteak kaiterik ez egitea nai ba'dok, euk bere kalte egin al izatea nal-ta-ezkoa da.

—Ori olan bada —esan eban bildotsak inkesaka, zizpuruka—, ifxi naizu, ene Aita ona, nazan langoxea; bada kalte egin al izateak kalte eragiten dau. Zuk ona ta otzana egin nozu, *ia* naiago dot ona nazala il, dongea nazala bizi baiño.

AZKUE (R, M.)

NOR BURUTSUAGO?

Or aurrean txakurra, buztan luzea ara ta ona darabillena; begira egizu pizka baten. Ogia emoten yakonean, buztanari daragio; gari solo ederra dakusanean, barriz, jaramonik bere ez.

Beglra gizona: arlote utsa izan arren, atsegiñez begiratzen dau ogi-zatia, baiña atsegiñago au dakarren gari-sail oria.

Ikusi, azkenez, gizon Jaungoiko-zalea: eder yako ogia, ta garia erein eta artzen dau; baiña gauzok egin ebazan Jaunaz gogoratzean, belauniko jarten da.

Txakurra ogian geratzen da, ez doa aurrerago; gizona, barriz... Nor ete burutsuago?

IGOTZ

NEGUKO EURIA

Onak edo txarrak ete dira lurrarentzat neguko eurite luze ta ugariak? Egia da, euria ekartea edo gelditzea eztago gure eskuan; baiña euria ona dogu, naiz negukoa naiz udakoa.

Ba-dira lur ondartsuak edo areatsuak, euritan elduten yaken ura be-reala, edo laster, iresten dabeenak. Orrelako lurretan, ona emen zer ger-tatzen dan. Ur ori ba-doa beerantza, edo azaletik barrurantz, lurra on-dartsu dagoan artean, arrian edo lur gogorrean jo arte. Bakarrik ba'leioa ez leuke kalte andi-andirik egingo; baiña gauza gosea da ura, bere mendean daukazan ordutik, arturiko gauza guztiak beragaz daroaz. Orixe egiten dau lurreah landarentzako dagozan janariakaz; artu ta ba daroaz batera azal-ingurutik barruruntz, eta gariaren sustraia ezin eldu leiken lekuan izten dauz. Orduxetik geiago gariarentzako galduak d'ra janari orreik. Bedarki onein sustraiak ez daukee euren inguruan gozo bagako edo gozo gitxiko lurra baiño.

Lur areatsuetan ba-dakigu, ba, zelango kaltea egiten deutsan euriak gariari: ondoan daukan gozo edo janaria kendu, ta bapere barik itxi, edo beintzat, bear daben baiño gitxiagogaz.

Buztiña daukeen lur gogorretan, gaiñera, yatorken ura eztoa ain laster barrurantz, ta astiro-astiro dabiñenez, indar gitxi'ago dauka beragaz edozer eroetako. Orregaitik, lur onetan gozo gitxi kentzen dau euriak, eta kentzen dabena be eztaoa ain urrin, ura bera eztalako sartzen ain barrura.

Beste aldetik, onetariko lurak euskorrek dira, au da, eutsin egiten dautse aldean daben gozoari (gozo au simaurretik daukela nai berez dauke-la), lur astun sarratuak direalako.

Lur buztintsuetan eztau, beraz, euriak ongarri asko kentzen, eta garia obeto emoten dabe lur areatsuak baiño.

Ba-dira lurak, azkenez, azaletik laster gogorrek edo buztintsuak di-reanak, nun ezin leiken urik iredi. Olango lurretan, ba-doa ura azaletik beera, baiña laster gelditzen da. Gariaren erroak edo sustraiak azlaz ta

beintzat.

Ezotasuna (umedadea) gauza bearrekoa bada sustraientzat, uragaz artzen dabeelako euren janaria, ur larregi ta gelditua baiño gauza kaltetsua-gorik eztago eurentzat; bizi izateko beroa ta arnasea kentzen dautsee-ta.

Agor-aldietan izan ezik, onetariko lurretan ezin leiteke gauza onik atera. Zelanbait zuzenduteko euren izakera gaizoa, edo landu-orduan azpi-azpitik erabilf bear dira goiko ta beeko lurrak alkar nastetako, edo ur-bide batzuen bitartez kendu bear yakee ezo geiegia. Baiña oneik, gariak erein orduko egin bear direan lanak dira.

Aitatu doguzan ur-bideak izan letkez soloai inguruan egin leikiozan erretenak; baiña, askotan, ezta ori naikoa, ta azpitik egin bear izaten dira.

URTEKO SASOIAK

Urteko sasoiak oneka izaten dira:

Udabarria; epaillaren 2Ttik bagillaren 22'ra.

Udea: bagillaren 22'tik, irailaren 23'ra.

Udazkena: irailaren 23'tik lotazillaren 22'ra.

Negua: lotazillaren 22'tik epaillaren 21'ra.

O R D U A K

Gure lur au, pelotiaren antzera, biribilla da; eta biurka, bueltaka ibi-llirik, eguzkia bera lurraren inguruka dabillela begitand'uten yaku. Augaitik, 24 ordu barruan, lur zati guztiai, alderdi guztiai argi egin ondoren, lengo tokira datorkigu eguzkia.

Orain, bada; eguzkia gain-gaiñean daukan lur zatian egun erdiko ama-
biak dira; au dala-ta, aldean baten beti dira amabiak.

Euskalerrian amabiak diranean, 1911'garren urteko Batzar batek era-
bagi ebanez, Buenos Aires'en goizeko zortzirak dira. Eguzkia Greenwich'tik
igaroten danean, (nglaterra'n, Prantzia'n eta Espaiña'n amabiak izaten dira.
Egiaz, alan be, Iruña gaiñera 12 ta 4'tan, Donosti'ra 12 ta 8'tan, Gazteiz'era
12 ta IO'tan eta Madrid'era 12 ta 15'tan eltzen da eguzkia.

Augaitik, uri onein egun erdiari jaramon egitera, gaberdia belutxoago
datorkigu.

G. ARAMAIO

ZAZPI LOTIAK

Epeso'ko kristauak, batez be lenengo gizaldietan, gorriak ikusi bear
izan ebezan. Bein baten, erriko zazpi nagusienak, Kristo'ren jarraile amur-
rratu zirala-ta, salatuak izan ziran. Onetan, eriotzara epaituak izango zirala-
kotan, eukezan ondasun guztiak ez-eukien artean banandu ta Zelion mendiko
koba (artzulo) batera iges egin eben, aldikada bat an emonik baru ta
otoitzean.

Baiña iñundiko kalte barik egunak ba-joiazala ikusirik, eta zer janik
euki ez, euretaiko bat —erabagi eben—, zotzean jausten zana, urten zeitela
janari billa. Lenengo urten zana albiste ta barri izugarriakaz biurtu zan: oso
asarre zan agintarTa ta euren billa ebillen eriotza emoteko. Zazpirak, alan
be, guztiz nasai, ekarritakoa jan eben, otoitz asko esan eta, Jaungoikoagan
uste osoa ezarririk, lotaratu ziran.

Azkenez, itxartu ziranean, laster etorkioen martiri-eriotzaz asi ziran
berbetan; eta batak bestea biztu ta azkortzen eben, beste jainkori ez eutsela
iñoiz oparirik eskiñiko alkarri agindurik.

Jatekoak amaitu yakezanean, gosetu ziran barriro be; eta (Malko'ri,
zazpiretan bati, urira ogi billa joateko esan eutsen.

JVlalko, bost zuri arturik, joan zan ogia erosten.

Luzaro samar ibilli ta gero, eldu zan nozbait *uviko* atera. Asko be asko
arritu zan alde guztietan Gurutze santua ikusirik. Amesetan egoala uste

eban, edo toki ez-ezagunean aurkitzen zala...; an nai emen, bada, argi ta garbi agiri zan kristauen ezaugarria, ez bakarrik bera ebillen bide zear, baita aurkitzen ebazan lagunetan be: Jesus onarena ezik, ez eben beste ize-nik aotan artzen. Begi aurrean eukanaz zurtorik, faere kautan iñoan:

—Izan ete daike orrela aldatzea Epeso'ko arimak, aln arin?

Ogitegi batera eldu zan, bitartean; eta ogia erositakoan, zidarrezko bat emon eutsan okiñari, erosiaren ordaiñez.

Baiña... zer da au? Zer jazoten da? Okiñak besotik oratzen dau Malko, ta zarataka diño:

—Gazte onek dirutza itzala aurkitu dau. Nun idoro dozu zuri zaar au? Diru-tokia erakutsi eiguzu, arren.

Eta inguruko guztiak ara doiez, aren zaratak entzunik, itaun eta itaun.

Nok esan edo iruditu Malko gaixoaren zurtasuna? Ezeuki bat zala ta ez ebala ezer aurkitu iñotsen danai, baiña iñok be ez eutson siñi'sten, ta iñotsoen:

—Dakazun zuri au aintxiñako agintarien dirua da.

Jazoera onek ots andia atera ebalako, Gotzain jaun eta erri-agintariak be izan eben beronen barri, ta gazteari dei egin eta itaunka asi yakozan. Zidarrezko zuria ikusi ebenean, arri biurtuta geratu ziran eta bera nun idoro eban jakin nai eben. Baiña Malko'k ez ebala ezer aurkitu iñotsen, bere senideak emon eutsen zurla zala bakarrik.

Onein izenak esatean, —Malko'k guztiak izentau ebazan— orreik etzirala geiago bizi jakin-erazo eutsoen: antxiña illak zirala. Eta au entzonaz, gazteak oi:

—Ez dakit nun nagoan. Au ezta Epeso? Ta Detzi ez ete da agintari? (nguruko guztiak, barre-algaraz, iztenak egin ebezan. Gotzain jaunak diñotsa, atzenean:

—Ene seme, urte asko ta asko dira Detzi bizion arteko ez dala.

Erdi mekoturik eta mirari andi bat Jazo zalakoan, Malko'k diñotse ingurukoai:

—Zatoze neugaz guztiok Zelion mendira; beste nire sei lagunak an dagoz, Detzi bizi zala, krislau ziralako, neugaz batera il bear ziranak.

Bertatik, arako mendira ba-dozaz guztiak, eta orrelaxe zala ikusi eben. Maximian, Martzian, Dionisi, Juan, Serapin, Konstantin eta Malko lagun santuak, eun ta ogetasei urte zirala, Jaunaren eskerrez loak artu ebazan, eta Teodosi nagusieren agindupean itxartu ziran; au da, Gurutz-ikurriñak nasai ta garaitsu bere egoak zeru zear zabaltzen ebazanean.

IGOTZ

E U L I S K I

Antxiña, gizon andiak ei ziran Markiña'n; euretariko bat ei zan Euliski, Xemein gaiñean bizi zana. A zan, izan be, gizona! Diñuenez, egarri zanean, anka bata Oiz'en eta bestea Malax'en ebazala, itxasoan edaten ei eban ura.

Beren izenak diñoanez, euli-arrapatzailea zan. Eta zelango euliak atrapau be gero! Bein, oi eban lez, ur edatera joiala, Deba'ko itxasaldean baltzune-txo bat ikusi ei eban; eta, eltxoren bat zalakoan, Jesus baten eztau ba irun-tsi... txalupa andi bat gizon ta guzti?

Eta aren burua? Kontuak atera: meza entzun gura ebanean, burua Xemein'go eleizaren orma-ondoan etzunda, goiko bentanatik begi' bataz ikusten ei eban.

Beste bein, Markiña'ko arotzak aretx-tantai andi bat bota ei eben, gabi-ardatza egiteko; eta Euliski'k, gau atan lotan egoala, eulien bat zalakoan, ez dautse ba irun-tsi gabi-ardatz-gei ori?

Urrengo egunean arotzak ba-doaz tantai orren billa, baiña zoroenak egin arren, etzan iñun tantairik agiri.

Jo dabe Euliski'gana, onek zura nun zan ete ekian. Euliski'k ez ekian besterik, lotan egoala gauzaren bat eulia zalakoan jan ebala baiño.

Au entzun eutsenean, arotzak susmau eben bizar arieen eukiko ete eban tantai ori, ta ba-doiaz Markiña'ra kodaiña billa Euliski'ri bizarra eba-teko. Arazo onetan izerdiz zeatz busti arte jardun arren eta ogstamar kara-bi'entzako aifia erregarri bizarretan ebagi arren, ez eutsen topau aretx-tantaia.

Orduan esan eutsen Euliski'k:

—Itxoizue apur baten... Eginbear bat egitera noa, ta etorri zaitzez biar... bada...

Esan eta egin. Urrengo egunean Euliski'k bear ori egin eban lekoan topau eben arotzak gabi-ardatz-geia, gizon itzal arek eulia zalakoan irun-tsitakoa.

Beste bein, Markiñarrak burruka gogorra erabillen beste erri batzuekaz. Zintzo jo arren, arerioak asko ziralako edo, estu ta larri aurkitzen ziran. Egun baten ikusi eben mendiak bete arma-gizon etozela Markiña'runtz; eta

zer egin ez ekiela, ba-doiatz arin-aringa goiko Metala'ra Euliski'gana laguntza-eske, istillu gorri atatik atera eiezan, berak jasoalako urre-zakua emongo eutsela-ta.

—Ez bildurtu, mutillak —esan eutsen Euliski'k—; laster egingo yoagu orrena.

Txakada baten eldu zan Iderra'ra ta jan zituan an inguruko okaran guztiak azur ta guzti; eta, andik ordo belera, arerioak Erdotza aldean agertu ziranean, artzen dau Euliski'k arnasa luze bat eta, a zan axe-boladea, okaran-azurrekaz naste arek bota ebana !

Arerio guztiak, orbel igarrak ego-axe indartsuenaz lez, zurrunbilloan joan ziran etorreran baiño ariñago Oiz zear, mendiaren beste aldean ondutu arte, batek ba-daki noraiño.

Markiñarrak pozez birloratuSa, Euliski'ri berea emon bear yakola-ta, idi-narru bi alkar josirik egin eben zaku andi bat eta orrez beteta emon eutsen Euliski'ri. Onek atzamar bataz Jaso ei eban urre-zakua, baiña ez eutsen ge'ago eskatu. Eta, nasai-nasai, joan ei zan bere etxaldera, goiko Metala'ra.

X.

PRAKA GORRIAK

Zuek gomutetan ez dozuen bariku arratsalde baten, Mikel-Anton, Mañari'ko "Gerela" deritxon basetxeko etxagun zarra, aizkora zorrotz bat eskuan ebala, basorantza juateko asmoan jarri zan.

Arratsalde aretako eguraldia, otza ta illuna zan; aitz-mendiak laiñoz ondo estalduta zirala, euria zaparrada andiz jausten zan. Olan bere, gure gfzonak atzerarik ez eban egiten, bein bidean jarri ezkeru, aurrera egin bear zala-ta. Euria goian-beian zala bideak igaroten ikusita, bere emazteak esan eutson:

—Gizona!... Eguraldi onegaz, nora zoaz?

—Untzillaitz aldera, egurretan... —erantzun cutson itz gitxitan.

—Gaurko eguraldiagaz egurretan! —esan eutson andreak ikaratuta—. Etxailer juan gaur, orretarako eguraldi txarra be ha-dago-ta. Barikoa danez,

barriz, ekatxagaz batean "bestaldeko mutikoak" or-orren baten urduri ibi-lliko dira ta...

Senarrak, baiña, emaztearen esanari "entzun da gor" egiñik, bidean aurrera egin eban barriro be, atsuen esanak zietz egitea gauza zaila zala-ta.

San Martin'go artzulora eldu zaneko, baiña, trumoi-ots ikeragarriagaz batera ekaitz bildurgarria sortu zan; ango oiñaztu ta ango trumoiak eta ango euria ta txingor jausteak, andiak ziran. Orrenbestegaz, "Gereta"-ko etxaguna ikeratu zan; eta, ekaitz andiaren erpeetatik iges egiteko, bertan egoan la-barpe batera jua zan. Aitz-mendi guztiak ganera joakozala begitandu yakon.

Onetan, San Martin ermitako artzulotik urten ziran zarata batzuk, Mikel-Anton bertara begira imiñi eben. Alako zarata ta zarraparrarik, bere belarriak egundo ez eben entzun.

—Onako zaratarik eta garrasirik, egundo etxoat entzun —iñoan—. Ze ete yagok bertan? Egingo neukek... "bestaldeko mutikoak" dagozala bertan. Onako demoniñoik!...

Gure gizona olako autuetan ebilan artean, oiñaztu andi baten argitan, artzulotik, zortzi mutil, zortzirak dantzari antzian arrapalada baten urten ziran. Mutillak, euren gorputzak arkondara baltzakaz ta praka gorriakaz estalduten ebezan. Eta eurakaz batean, beste praka-gorri bat turuta-soiño bat eskuan ebala arinka agertu zan,

Orduan zortzi "praka-gorriak" turut-otsean, ifiun ziran dantzak egiten asi ziran. Arein jira-birak eta arein saltuak ikusiia, "Gereta"-ko gizona ezetarako be adorerik barik geratu zan. Oi, nik andrearen esana egin ba'neu!... —tamalez esaten eban. Eta ikuskizun bildurgarria begi aurretik kenduteko, eskumako eskuagaz "Aitearen" egin eban. Beste barik, "praka-gorriak" geratu egin ziran. Eta, euretariko batek, asarre bitsetan juanda, Mikel Anton'eri "Aitearen" egin eban besoa zugatz batera lotu eutson.

Ori eginda, barrien barri dantzak egiterb asi ziran; barriro be gure gizonak, beste eskuagaz "Aitearen" egin eban. Eta orduan be "praka-gorriak" beste eskua lotu eutson. Irugarrenez, dantzan asi ziranean, barriz, ujujuka ta didarka pozarren ibilli ziran, labarpeko gizonak "Aitearen" barriro ezin-go ebala egin eta.

"Gereta"-ko gizonak, baiña, "Aitearen" ezin ebala egin ikusi ebanean, ikusirikuaaren barri andriari zietz eta mietz emonda gero, arretaz jazo zan andiena. "Praka-gorriak", Jesus izena entzuteagaz batean, jolas eta dantza guztiak alde batera itxita, arrapalada baten artzulorantza abiau ziran. Bidean, laugiñean joiazala, esaten eben:

—Orrexek, "Gereta"-ko gizon zirtzillak yaukek *errua*... Orrek apurtu yozak gure dantzak eta jolasak..., eta orrek kendu yauskuk umoria...

Ta, ori esanda beste barik, praka-gorri guztiak asarre bitsetan, ke mol-tso sendo baltzak atzean izten ebezala, amorruez beterik artzuloratu ziran.

Mikel-Anton zintzoa, ostera, praka-gorriak amorruez ikusi ebazanean, barre-zantzoka asita, etxerantzakoan jarri zan. Eta gabian etxera eldu zanean, ikusirikuaeren barri andriari zietz eta mietz emonda gero, arretaz esaten ekin eban:

—Nozipein izanda be, andren esana egitekoa da... Sorgin eta lamiña kontuetan atsuak dozak nagusi bai...

Praka-gorri areik, txerrenak edo diabruak izan ei ziran.

MAÑARIKO

SUR BATERI

Babel'go torre leio bikoa !
Sur azken bako, sur betikoa !
Fortuna itsuen burlazko doia !
Sur erraldoial

Munduko surren surrik surrenal
Ikusi danik sur andiena !
Sur Elefante, surtzar Balaia,
Sur Himalaia !

Jagola barik aziko surra !
Arpegi kirten punta-makurra !
Sur ain luzea, ze bere erdia
Da gelegia !

Oraingo surren aitalenena,
Berdiñik iñoz euki eztabena.
Sur disparate barregarria !
Sur asko eukia !

E. M. AZKUE

Ars'ko erritxoan, Ars'ko abadearen egunetan, mutil bardingo bat burutik beatzeraiño gexoaz, zauri bildurgarri bat eginda egoan. Egun baten, txauburu jaunak esan eutson:

—Osatuteko gurarik, umetxo laztana, ba-daukozu?

—Ez, jauna; Jaungoikoak beste gauzaren bat erabagi arte, olantxe egon gura neuke.

—Baiña, zergaitik ori?

—Gorputz osasuntsua neukan bitarte guztian gaizto-gaiztoa izan nintzan, eta arima gexo-gexoa erabilten neban; eta, gorputzez osatu ezker, gexoa barrien barri arimaratuteko bildurra daukot.

Zeinbat bidar, zori txarrik andientzat daukoguzan jazoeretatik, zorionik andienak yatorkuz!

EGUZKIAZ BARRIKETAN

"Geldi adi, eguzki, ta entzun egidak"...


Edonok daki olerkari ospatsu batek era onetara asten daula olerki txukun bat. "Geldi adi, eguzki, ta entzun egidak"... Baiña edonok ezta olerki ori gomutetan dodan bakotxian niri zer etorten yatan burura. Bai zera! Nik uste dot eguzkiak erantzuten dautsela: —Gelditu naitela ni, e? Bai, orretarakoxe naiagok! Olerkarien barriketak entzutea baiño zeregin geiago ez ba'neukek lez! Ta esatea be "gelditu adi, eguzki, ta entzun egidak"!

—Etxoat nai, ta kitu!

Ta olantxe da, izan be; eguzkiak ezer entzun ez ba'leu lez, edo entzun daun guztiagaitik ezer ardura ezpa-leutso lez, daragoio bere bidean; ogeta bost egun edo zertxobait geiagotan egiten dau bere inguruen ibilketa eder bat, eta ori gitxi balitz lez, beste ibilketa bat be egiten dau mutil onek, oindiño iñok ziur izentau ezin leiken tokien baterantza.

Ta zeregiñik be ezpa-leuko olerkariari begira agoa zabalik egoteko! Nok emongo leuskio ludiari argitasuna, berotasuna ta bizitza, eguzkia olerkarien barriketak entzuten geldituko balitz? Dana dala, gomutau daigun bera dala zeruko izar guztien errege, ta ezala gauza ona errege bategaz ainbeste leunkeri erabiltea.

A.



PISCIS • II-20•III-20.

ESGEL

ARRAIN.—Arrain bi oneik, jakiña, urpean dabiltz, orixe baitabe euren biasileku; baiña lurtar izan naiean, txapela ta zapia jantzi dabez. Itxas-barrenekp biztanle oneik gure arimearen ikur, adierazle ei dira: gure arimea, gorputz barruan bizi da, arraiñak urez lez, soin-atalcz inguratuta.

Emen agertzen dan arrain (Piscis) au zero-gerriko azken ezaugarria dezu. Eguzkia, barriz otsaillaren 20'an sartzen da ezaugarri ontan, epaillaren 20'an urteko. Eta ekliptika barruan 330'tik 360'rako luze-maillea dauko udabarriko egungau hardiñean amaiturik.

Izadiko (munduko) gauzai begiratu ezker, bizia oraintxe asten da zirkin egi-ten; argia ta beroa geiago somatzen dira: gauza guzlietan barren-sormin bat daukagu ler-zori. Lo-ernai aroa nunbait, txingar gaiñeko autsa.

J O L A S A K

1) MARIA GOIKO

Neska txikiak, alkarri begira, edo asko diranean, alkarri eskuak emanez bira-biraka, jolastu oi dute onela.

Ijuti egiñez batak esaten dio besteari:

—Zapata ta galtzerdi.
—Maria goikoa.
—Zer dezu, bekoa?
—Iturrira al zoaz?
—Ez.
—Zer dezu, ba?
—Amona etorri.
—Zer ekarri?
—Zapata ta galtzerdi.
—Zer kolore?
—Txuri ta gorri
ta kikirriki.

Eta azkeneko "kikirriki" esakeran, "urra labiru labiru lena" kantatuaz, ijutika asten dira.

2) POTXOLAKA

Amaika bider jokatu gendun onela, geure aurtzaroan.

Intxaur, arri-kokkor naiz bolatxoakin jokatzen da, lau edo bosteren artean. Lurrean potxo bat, ots, zillo biribil bat egin bear da lendabizi; eta zillotik iru bat metrora lerro luze xamar bat.

Jokolariak, aldizka, iruna bolatxo potxorantza bota bear dituzte, asi aurretik. Eta urrenen jartzen dituna izango da aurrenengo jokolari. Ondoren beste irurak jokatuko dute, bigarrenak, irugarrenak eta laugarrenak.

Bolatxoak erori diran toklan utzi, ikutu gabe. Lenengo jokolaria bola foat potxoan sartzen saiatuko da, fa sartu ba'dagi, bola irabazten du, jokuan aurrera jarraituz. Galtzen dunean, au da, sartzen ez dunean, bigarrenari utzi bear dio, onek ere alegin berdiñak egiñaz.

Orrelaxe azkeneraiño, bolatxo guztiak sartu ta potxo egin arte.

3) SOIN-ZENTZUAK

Bean soin-zentzunentzat esaten dan beste gauza bear dira. Gaiñera, esku-zapi bat begiak lotzeko. Lau jokolari ta zuzendari bat.

1) Lenengo jokolariak, begiak estalita, "entzumenez" asmatu bear du noiz darabilten txintxarria, txirriña, txistu, karraka; edo-ta, aspil batean erortzen dana iriña, gatza, txilista, indaba dan.

2) Bigarrenak, "osaimenez", igarri bearko du ozpiña, ardoa, ura, sagardoa, kolonia, anisa, alkoola dan.

3) Irugarrenak, "txastamenez", beatz-erpiñez ikututa, jakin bearko du txokolatea, gozokia, gatza, limoia, laranja ala iriña dan.

4) Laugarrenak, "ikumenez", banandu ta bereizi bearko du papera, ikatza, ola, gozokia, plexiglasa, zirikoa ala belarra dan.

4) IKU-JOKUA

Etxe barruko jolasa, aurtxoeri aldia eman-azteko txit egokia. Txiki ta aundi, mai gaiñean ipiñi itzazu gauza asko nasteen.

Gaztetxo pilloa, begiak zapiz estalita, banaka urbMtzen da mai ega-lera. Eta orrela jarririk, ona euren egitekoa: mai gaiñean dauden gauzak, beatzez ikututa, ezagutu bear dituzte.

Joku ontan, jakiña, gauzarik geien ezagutzen ditunak irabazi oi du.

Begiak zapiz itxi' gaberikan ere jolastu dezake, jokolariak eurak beren oldez begiak itxita. Ezta bide txarra, naimena sendoazi ta jokuan leialtasun geiago adierazteko.

5) KURKULUXETAN

Izen asko ditun (kukuka, aponga, arrikoka, andrexketa, osten-ostenka) jolas au gaur ere asko i'kusia degu neskatoen artean.

Ontarako bildots-anka ezur bat erabilten dute. Lau alde ditu beronek, eta alde bakoitzak ba-du dagokion izena ere: zillo, sabel, aragi ta uzki, erderaz bezela.

Era asko dira jokatzeko, baiña ezagunena auxe: beatz biren artetik igaro bear du azurkoak, eta bftartean mosarri naiz pe'lota bat gora ta gora jaurti, au esanaz:

Bat artu, bestea utzi,
onela eingo ditut
laster bai emeretzi.

6) MANDO ITSUA

Txintxilla bat bear da.

Mutiko bati begiak zapiz estali ta txintxilla ori jartzen zaio sorbaldan, lokarri batetik zintzilika.

Beste mutikoak, lenengoak ikutu gabe, txintxilla jotzen saiatuko dira. Ori irixten dunak puntu bat irabazten du. Eta ikutzen uzten danak galdu, ta mutiko zapituaren lekua artu bear.

7) ITSU-ITSUKA

Itsutu jolaslaria, zapi bat lokune-biran ipiñirik. Zirkinzarkun batzuk eragin gero, zuzenezko biderik igarri ez dezan.

Lagunak ara ta ona iges egingo dute. Zomorrotuak, orduan, aiek arrapatzeko alegiñak egingo ditu; bateren bat arrapatzean, arrapatu ori nor

dan esan bearko du. Jokolarlak, bitartean, aren ondora eldu ta gauzak esango dizkiote belarri-obora; eta, gero, urrutiratu atxintxika. Balña itsuak esan dezake ondoren: "Bat, bi, i'ru, geldi!"

Au entzutean, jolaslari guztiak geldi-geldi geratu bearko dute, eurentan bat arrapatua izan dedin. Arrapatu au nor dan igartzen ba'du itsuak, begietako zapia kenduko diote, eta jolaslari arrapatuak artuko du onen tokia. Bestelan, itsuari berriz ere bira eragingo zaio bere gain, eta jokolarriak or-emen barreatuko dira lenengoan bezela.

8) ZEZENKETAN

Mugatzat aukeratu daiteke zugatz bat edo beste edozeln muiño.

Mutikoak eskuetatik pratuko diote alkarri, Ingurua osaturik. Euretarike bat, "zezena", zezen-plaza barruan, au da, mutikoak egiiiiko obo barruan egongo da. Jokua asikeran, irteiera billatuko du, bere lagunen esku eiopetik igarorik.

Ingurutik irten ondorean, mugarantza egingo du ariñeketan; baita besteak ere, aren atzetik, atzeman naiean. Urrengo txandan, mugara orduko ura arrapatzen duenak egingo du zezenarena. Arrapatzen ez ba'dute, bigarrenez ere bera izango da zezen.

IC7OTZ

ABESTIAK

1) ORMATXULO BATETIK

Arratoi beltz aundi bat nuen nik ikusi,
Ormatxulo batetik gau baten igesi
zijoan pizkorki.
Noranai saltatzeko etzegoan gaizki,
Baiñan atzaparra clio katuak ezarri,
Umilduan sarri.

Katuak eltzen zion atzaparrarekin,
Azkazalak zorrotzak zituen berekin:
Ematen zion min.
Arratoiak naiko lan ba-zeukan berekin,
Karraxika ari zan oiñazearekin,
T'ezin iges egin.

Katuak nola zeukan naikoa indarra,
Etzuen askatu nai bere atzaparra,
Naiz egin negarra.
Arratoiak aiperrik zuen deadarra,
Ikusten zuen bere sententzi gogorra,
Antxen il bearra !

Gau erdian goxoro bat dabillenan,
Zepuan erortzen da nai ez duenian,
Geien-geienian.
Bereganatzen ba'du garai ez danian,
Atzaparrak an ditu beraren gaiñian,
Azken-azkenian !

2) SANTA AGEDA'RENAK

Zorion, etxe ontako denoi,
oles egitera gatoz:
aterik ate oitura zarra
aurten berritzeko asmoz.
Ez gaude oso aberats diruz,
ezta ere oiñetakoz:
baiña eztarriz sano gabiltza,
ta kanta nai degu gogoz.

Santa Ageda bezpera degu
Euskalerriko eguna,
etxe guztiak kantuz pozteko

aukeratua cleguna.
Santa maitsa gaur artu degu
gure bideko laguna;
aren laguntzaz bete gentzazke
egun ontako jarduna.

Sizilia'ko ugarte ederrak
emana degu lorea:
an jaiotze bai zan gure Ageda,
zorioneko gaztea.
Txikitatikan gogoz artu zun
Jesukristoren legea:
maitasun onek ekarri zion
biotzeko poz betea.

Edertasunez Jaunak apaindu
zuan Ageda gaztetan:
aren begiak izar bi ziran.
arpegi gozo aretan.
Gizon gaiztoen griña zitalak
esna zitzaken benetan;
laster itxutu zan Kintziano
Ageda'ren ederretan.

Ageda'k bere maite bakarra
Jesus aukeratu zuan:
orregatikan beste maiterik
etzan arentzat munduan.
Kintziano'ren eske guztiak
errez baztatu zituan:
baiña agintari gaizto oker arek
kristautzat salatu zuan.

Emakume gaizto baten mende
sartu zuten giltzapean,
Ageda'ren biotz garbi ura
zikin ote zezakean.

Ailperrik baiña aleginclu zan
andra lizuna lanean;
onen esanak etziran sartu
Ageda'ren biotzean.

Amorru biziz oiñutsik jarri
dute Ageda zintzoa,
txingar gorien gaiñean *gero*
ibil-arazi gaixoa;
ondoren, bular bat ebakita,
uzten dute urratua:
baiña Jainkoak biurtu zion
gau artan bular mindua.

Ailperrik gizon gaiztoak zuten
oiñazez erdi-illik utzi:
Jesukristoren maitasun artan
etzuan iñola etsi:
otoi gozotan gogoa ixuriz
mundu ontatik igesi,
zeruetako zori ederra
betiko zun irabazi.

AMILAITZ

3) EDURRA TEILLATUAN

Edurra teillatuan,
zakua lepuan
ibilli bearko degu
aurtengo neguan.
Rau, rau, rau, rakata plau !
Au dek umoria,
utzi alde batera
euskaldun jendia.

Ez naiz aundietarik gizonen artean,
Udaran bakarrik naiz an mendi gaiñean;
Artaldetxo bat daukat an nere mendean,
Arekin bizi naiz ni pake ederrean (bis).

Asko dira benturaz nitaz urrikaltzen,
Atsegin zoro batzuz ez bainaiz gozaten
Aiek bai urrikarri, orain eta leen
Pakearen gozoa ez dakite zer den !

Artizarra zeruan agertzen danean,
Goiti noa ni ere arekin batean;
Sartzera egiten du illunabarrean,
Ni ere itzultzen naiz umore onean.

Txoriak eder dira kantari mendian,
Begira egoten naiz denbora luzian.
Bazter guzietatik kantuz daudenean,
Ni nolatan nengoen illun biotzean !

AURTXO BATEN AMETSA

An, Prantzia'n, umetxo maitagarri bat bizi zan. Zazpi anai, ta gurasoak beartsuak. Umetxo au Mieltxo deitzen zan. Ez nezake esan zenbateraiño zan ona. Bere amari auzokoak maiz esaten zioten:

—Eujeni, gaur ire seme Mieltxo mezan ikusi diñat. Aingerutxo bat irudi ziñan. Bai, siñestu zan. Etzakiñat zertarako Jaungoikoari zerutik ebatsi dienen. Amaika bider obeto zeruan Jegoken ori.

Ezta zertarako esan, Eujeni'k siñisten ziela. Nik ere siñetsiko nuke. Eujeni'k, bada, pozik, etxera itzultzean, besarkada estu-estu bat Mieltxo'ri ematen zion.

eta gaiñera etxean traba besterik ez omen zuan egiten..., ala zioten, sorik beintzat, bere etxeko "bizardun gizonak". Orrengatik oberena ori iruditu zitzaion: jostetan gelditu. Etxera biltzen zanean, zuzen-zuzen amaren altzora eta ortik aitaren belauñ gabiñera zijoan, ela an egiten zituen eguneko ondar (azken) jostetak. Batean amaren illeakin zala, bestean aitaren zurezko pipa-kin, beti jostetan.

Dotriñara joaten asi zanean, buruan, obeki esateko, biotzean, gogai laztan bat sartu zitzaion: bere lendabiziko Jaunartzea. Erretoreak dotriñan zer-edo-zer galdetzen ba'zfon, bereala asten zan:

—Bai, jauna. Bataiatzeko amabietatik ezer Jan edo edan gabe egotea, oben astunik ez lzatea...

—Babiña ez diat ori galdetu, txotxolo. Zenbat dituk Eleiz Amaren aginduak?

Eta par-purrustada bat ateratzen zan beste mutikoen aonetatik. Mieltxo Gsertzen zan alketuta. Gero, karrikan beste mutikoak gaitz-izenak piKaka jartzen ziozkaten, eta azkenik marrumaka etxera bialtzen zuten. An, berririo amaren altzoan, idortzen zituen bere "bonbil" bezelako malkoak.

Bere barruan gogai (pentsamentu) ura, orai eta geiago indartzen zijoan. Azkeneko, danak konpondu zituan; bera ona izango zan, au eta ura egingo zituan, baiño egon artako, norik egingo ote zion jantzi zuria? Ori bakarrik zeokan konpondu bearra. Eta gurasoak txiruak izaki!...

Ala, beste anatak bezela, jai egunetako galtzakin eta ator zimurrakin joan bearko ote zuan? Ez, al ba'zuen beintzat.

Eta lanera jarri zan. Eztakit nungo errotara edo, etxekoan ixilik, joaten zan arratsalde guzietan eskola ondoan; illunabarrean, etxera. Emen itxulapiko txiki batean gordetzen zuen bere eguneroko saria, trajetxo zuria erosteko lain osatu bearrez. Onelaxe, pixkaka-pixkaka, milla ta bosteun pranko aurreratuak zeuzkan...

Babiña alako batean, zer gertatu zitzaion? Errotazpiko txirrinkola artera edo, erori ta anka autsi.

Etxera eraman zutenean, an gertatu zana ezta esatekoa. Aurraren marrumak eta zalapartak etxea betetzen zuten. Ama etzan ondolik aldetzen. Zer esango ote zuen aita lanetik zetorrenean?

Dana jakin zan; baita biotzak samurtu ere. Auetatik batek besteak baiño geigo samurtu eta izparringian zabaldu zuan berria. Ura zan ura, biotzak biguntzen. Umeenak batez ere.

Nunaitik ba-zetorren eskutitzen bat lauerlekoz estalia. Andik eta emen-
tik milloi bat pranko inguru etorri zitzaizkan. Eta Mieltxo'k naiena zuana ere
bai: lendabiziko Jaunartzeko jantzi zuri-zuri bat, eta onen ondoren beste
asko, amaika arte. Danak bere aurrean zituanean, bere anka-motzak etzion
miñik ematen, eta uste esan geinkela egiñagaitik etzela damutzen.

ANJEL MARI, K. O.

BILLA JOAN ETA GABE ETORRI

Eizezale gazte batek bi eper arrapatu zituan; eta, pozez, beste bere bi
laguni berri au eman zien, esanaz, etxeko leioan zintzilik zeuzkala beste
egun batean jateko asmoarekin.

Lagunak au aditu zutenean, elkaturik, pentsatu zuten gau artan, ixil-
-ixillik, joanda, bi eperrak xiskatu bear zizkatela. Eta ala, eiztaria oeratu
izango zala uste zuten orduan, joan ziran biak aren atarira; ta abiatu ziran,
kaiñabera luze baten puntan kandelatxo bat piztuta, eperrak zintzillik zeuz-
kan lokarria erretzen, oik beera erori zitezen.

Eiztaria, ordea, etzegoan lo; somatu zituan xiskalariak zertan zebiltzan,
eta ixiltxorik leiora joanda, aize eman eta itzali zien kaiñaberaren puntan
zerabillen kandelatxoa. Kaiñaberadunak berezko aizeak itzali ziela uste izan
zuten, eta bigarren aldiz kandelatxoa piztuta, lengo lana bera egin zuten;
baiña berriz ere leioko eiztariak itzali zien. Irugarren eta laugarren aldiz
orobat gertatu zitzairen. Asperturik orduan, batak besteari esan zion: "Alpe-
rrik ari gai'tuk, aize txarra zebillek".

Au entzun zuanean leioko aize-emailleak, boz eder eta garbiarekin, era
onetan bertsoa bota zien:

Kandela-kaiñaberak
dabiltzan artean,
aize txarra izango dek
lelo bitartean;
eper oiek jatea
nai dezutenean,
etorri Bize txarrik
eztabillenean.

Eta bi xiskalariak lotsaturik, makur-makur eginda, erantzuteko almenik gabe, eta eperrik ere gabe, ango aldiak laister egin zituzten.

Maiz oi dana mundu onetan: Billa joan, eta gabe etorri.

IRISASI

TXORIAK TXAPELPEAN

Mikel basetxe efer bateko seme-nagusia zan: lelotxua bera. Egun baten. kabi bateko txori gaztetxoak arrapatu zituen. Non eraman etzekiela, txapelean sartu zituan, ta txapela txori' ta guzti, buruan. Izango zuen gili-gilia buru aldian !

Etixerontz zijoala, ezezagun batek, gurka bat egiñaz, esan zion:

—Adi zazu, adiskide: norakoa da bide au?

—Baiñan Mikel'ek txoriak zeuzkan ginbelian (sombreruan) ta agurrari eranizuteko ginbela kendu bear, ta... txoriak iges-egiteko bidean jarri baiño len, oldoztu zuen bere artean: —nik zer zeukat ze-ikusi ezezagun onetzaz?—, ta jaramonik egin gabe jarraitu zion bideari.

Ezezagunak arriturik, onela zion: —Au zakarkeria!, begiraiu ere ez! Basatiak ote dira emengo giza-semeak?—, eia geiago gabe uizi zion Mikel'i.

Geroxiago, endore jaunaren ondotik igaro zan Mikel. Erriar guziak zuten endore jauna agurtu bearra: baiñan Mikel'ek, ginbelian txoriak zituala-ko edo zakar zalako, etzion agurrik egin. Endore jaunak esan zion bere ondoren zetorren otseiñari:

—Mutil orrek ginbela buruari irantzita al zeukak?

Joan zan otseiña beriala Mikel'gana, ta esan zion:

—Aizak, Mikel: Endore jaunak ginbelpian zer daukan jakitea nai dik, eta kendu zak beriala.

—Etzeukat ezer, mutil..., illeak bakarrik —zion Mikel'ek; eta eizuen ginbela erantzi nai.

Baiñan otseiñak etzeukan berriketako gogorik; eia, zapla! jo ta botazio zion lurrera ginbeloi. Aura zan ikustekoa! Txoriak, parra-parra, pozkidaz

egazka ! Mikel asarre ta purrustaka; endore, otseln ta inguruko guziak irriz ta parrezka!

Andik aurrera "Mikel txori" deitzen zioten Mikel'i; ta agur egiten etzu' tenentzat esakun sortu zan:

"Orrek txoriak ditu
ginbelpian noski".

JULENE AZPEITIA

OGI EGUNA

Ikus, aiskide, euskal etxean
zer gertatzen dan otegunean.
"Opilla aguro!" Burrak amari:
—Itxedon, lotan oraindik ari,
Amak umeaz ezin burutu,
orraztu baiño len superatu.
Auzora bere kideko billa
umea doa: "Gaur guk opilla".
Amak opilla laberatzean
bi ume datoz opil eskean.

Gonen artetik ezin atera,
"alde umeak, ots jolasera!"
Berriz ta berriz itzuli ta, zai,
"Ama, nik opil adarduna nai".
"Alde"! ta berriz erre baiño len
ume egongaitzak labera itzultzen,
Bero-berorik aterata amak
magal zokoan ditu opillak.
Berena artuta bela atarira
mutillak: antxen aiskide dira,

Orantza auzora eramateko
ume billa ama: ez da arritzeko.
Amak berberak aza-ostean
derama: biar ogia auzoan.
Opil bero ta biguñen usai
ote darite nere neurtitzai?

N. O.

GIZONAREN BIZIA

Gizonak, bizi izateko, elikatura ta asnasa bear ditu. Janari ta edariak agotik, zintzurrean barna, urdaillera doaz. Asnasa agotik eta sudurretatik, eztarrian barruna, biriketara sartzen zaigu.

Zer egiten degu elikatzeko? Jakiak, naiz araki naiz arrainki naiz belar-kiak, eskuz artzen ditugu; gero, geienak beintzat, sutan erre naiz egosi.

Usain gozoa ematen dutenean, maiera erratillu batean ateratzen ditugu. Aiztoz zatitu ta zati bat edo beste txaliñean artu ta sardeaz agora.

Ortzez eta agiñez eltzen diogu jakiari, agoan erabilli, mamurtu, txuz edo txistuz beratu ta zintzurretik zintzur-estera, zintzur-estetik urdaillera, igarri ere gabe, sartzen da elikatura.

Edariak urdaileratzeko ezta bear ez sarderik, ez ortz ta agiñik, ez txis-turik. Salda, xaliaz agora eramaten degu. Batzuek katillua ezpaiñetara eramanez, zurru-zurru artzen dute. Ardoa naiz sagardoa naiz txakoliña (ura ere bai norbaitek) glan-glan basoan askok edaten dute, bazkal-aparia egiten dan egunetan.

AZKUE (R. M.)

NESKA TXIKI ZINTZUA

Ungria'ko erritar gizaxuak gizon sozialista edo boltxebikien erpepian egin zituzten egun aietan, agintarien ordezkari bat, izenez Oskar Faber, neska txikien eskola batera sartu omen zan, ango irakaslariak nolako zerak erakusten zituan ikusi arren.

Agindu zion irakaslariari edesti edo istoriako zatiren bat neska aiei galdetzeko. Amasei urteko neska gaztetxo bat jaiki zan, ta bare-bare, kristau *on* bati dagokion bezelaxe, gauza guztiak esan zizkion Faber gaizto ari. Asarretu zitzaion gizontxua, ta:

—Ez al dakizu —esan zion—, ez al dakizu, nai ba'nuke, eskolaren atetik zintzilika jarriko zindukeala? Zer derizkiozu?

—Ba-dakit, jauna, —erantzun zion neskatx garbi arek—; ba-dakit. Ala jartzen ba'nindukezu, or goitik ere Jaungoikoari zure alde otoi egingo nioke. Arrituta gelditu zan gizon petrala, ta:

—Onelako emakumerik oraindaiño ez det iñun ikusi —omen zion.

LARDI2ABAL A., L L.

BARREN BIZITZA

Eriotzak neguaren jabe dirudi. Enadak, txioka gure bazterrak alaitu ondoren, lurralde beroagoen billa egualderontz iges-egin zuten; aspaldi ontan berriz eztegu entzuten kirkirren ots lilluratzaillerik... zomorroak ere lo zorroan datzate. Bazter guztiak billusik eta geldigeldi dagertzi, otzez kuskurturik ba'leudete edo...

Baiñan ori neguaren azala besterik ezta. Barrutik begiratzen ba'zaio, ez dager illik, baizik lo. Nekazariak udazkenean erein zun gari-azia, azaletik usteldu arren, urdai-azpikoak gatzaren bidez irauten dun bezin ondo bizi da lurraren kolkoan..., eta amets dagi lurpean ernemin-amets gozoa...

Erori ditezela izigarrizko euri-jasak; elur-maındirez jantzi ditzaigula mendi-ibarrak..., ez dio ajolik nekazariari; ainbat obe. Txori banakak txio-txioka tellatupean diarduten bitartean, antxe dakuskezute irriparez baserriko leioan edo ukulluko atetik soro-alderuntz begira..., zer dala-ta? Bere aurrekoetatik ikasi ditun itz mamitsuak gogoratzen zaizkiolako: "Elur asko dan urtean, garia; ta erle asko degunean, eztia"; edo beste arek: "Izotzak eta euriak, dakarzkite eskura gariak"...

Gizonaren bizitzak neguketa gogorrek baditu noski. Baiñan bere eskuan dauka zorion azia, biotzeko lur-sarean garai danean ereintzeko. Eta neguko egun labur, illun, otz, euritsuetan, irriparrak ez du bere ezpaiñetatik alde egingo, bada esaera zarrak diotenez, "neke ondoren poza" ta "ez da aldapik, ibar gabekorik". Gaiñera "gaba, gogapenen ama" bada, oiñazea zorionaren ama...

IÑAKI A.

ZALDUNA TA LEOIA

Europa'ko zaldun azkar sendo bat Goizerra-aldean bizi zan aspaldian. Bein batez, bere zaldira igo ta basagune elkor batean zebillela, entzun zuen urrutian alako oi u min bat.

"Aral, esan zuen bere baitan; bidez zioanen bati lapurrak atera zaizkio"; eta bere zaldia sistatuz, marruma ura atera zan leku aldera jo zuen fasterka. Zaldia arkaitz-zulo estu illun batera iritxi zanean, beingoan tenk egin zuen; dardarka asi zan, atzeko zangoen gaiñean zutitu ta agotik aparra ta bisutsa zeriola jarri zan.

Leoi gaitz (andi) bat zegoen aitzulo aren barnean, ta aren begien dir-dirak sartu zion zaldiari alako ikareria. Leoi ori izugarrizko sugetzar batekin burrukan ari zan; sugeak leoiaren gorputz osoa arrapaturik zeukan, biritxaturik zegoen.

Zaldunak ori ikusi bezain laster, geiagoko gogoetarik egin gabe, bere ezpata zorrotza atera ta jo ta sugeari burua moztu zion. Orduan leoiak, bere etsai bildurgarri ura illik eta bere burua askaturik ikustean, txutitu zan, orru egin zuen, bere motoa astindu, gorputza edatu ta zaldunari urbildu zitzaion.

Bildots apal baten antzera, gizon suar aren aurean etzin zan, eskua milikatu zion, cta orduzkeru etzuen aren ondotik aldegin; arekin zebillen bide guzietan, aren atzetik igerika igarotzen zituen ibai gaitzak, arekin joaten zan gudura ere.

Baiña zaldunari Europa'ko bere sorterrira itzultzeko garaia iritxi zitzaion. Etxerako bidea artzean, leoi on zintzoa ere ekarri nai zuen. Baiña

ontzi-jabe batek ere etzuen animala eder ura bere ontzian artu nai, zaldunak sari aundia eskaintzen ba'zuen ere. An utzi bear izan zuen, beraz, eta bera bakarrik sartu zan ontzira ta abiatu zan itsaso barneruntz.

Leoia, ordea, bere nausia urrunduz zioala ta bera ezin jarraiki zekio-kela oarturik, orruz ta marrumaz asi zan, ondartzan alde batetik bestera zebillen urduri; azkenez, ur-bazterrean gelditu, ontziari begiratu ta zartadan itsasora jauzi zan.

Ontziko gizonak ikusi zuten ta urrikaldu zitzaizkion ta ontzira artzea erabiki zuten. Baiña leoia ontzitik urbil samar zegoanean, indarrak utsegin zioten eta akitu zan. Orduan azkeneko aldiz begi argiz ontziari begiratu tan urpera joan zanl gaxoa.

Zintzoak eta esker-onekoak izan gaitezen beti gure ongiegillen aldera.

URTSUIA

EGAZTIAK ETA TXORIAK

Biatzak (bi oiñekoak) dira egazti guztiak. Bat ere eztago lauatzik beren artean. Abereak bezela, auek ere batzuek basati'ak dira; besteak etxenaik. Basegaztiak etxegaztien aldean asko dira. Gizona dan baiño otzanago balitz, etxegazti geiago ezagutuko litzakez. Gaiztoak eta uzuak geralako, gure igesi ibiltzen dira egazti geienak.

Abere txikiak berarizko izena dute: piztiak. Egazti txikiak ere ba-dute izena: txoriak. Egaz dabilten izaki guztiak eztira egaztiak. Saguzarra eguratsen (aidean) ibiltzen da; baiña ezta egaztia, piztia da. Erleak eta euliak, txingurri batzuek eta tximeletak egaz dabilta, baiña eztira egaztiak, ma-muak dira. Egaztiak lumazko egoak dituzte; mamutzen egoak eztira lumaz-koak.

AZKUE (R. M.)

JAKINTSU BAT ETA BERE MORROIA

Jakintsu batek bere morroiari esana zeukan, goizero-goizero, seietan deitzeko, morroitz-ordaiñen gaiñez sari bat ernango ziola-ta. Morroiak arduraz artu zuen arazo auxe, ta seien dangetakoan esnarazten zuen bere nagusia. Onek zaputzetan eta erdi lotan erantzuten zion. Milla argurio ta katramilla sortzen zituen jaiki baiño lenago, bairian azkenez jaikitzen zan.

Urrengo goizean morroiak oi u ta oi u; nagusiak zurrunga ta zurrunga. Onek berebiziko iraiñak esaten zizkion morroiari, baiñan morroiak kinke-takorik egin gabs, etzizaion oi ondolik joaten alik eta bera jaiki arte.

Egunero-egunero iskabil bera. Nagusi arekbazuen noski morroi aren bearra; baiñan, alaz ere, etzion eskatzen ta, agindutako saria ere urruti xamar zebillen. Morroia beti berean; nagusiak azkenerako egun-egunero, goiz jaiki bear.

Urteak igaro, nagusia etorri zan aburu onera, ta bein orretara ezker, etzuan morroiaren oi u bearrik izaten garaia zanean oietik jaikitze. Orduan sari guztiak bat ordaindu zizkion.

Jakintsu au geroztik beti gogoratzen zan bere morroitzaz, ta esan oi zuen, aita baiño geiago maite zuela.

Iñoiz ospe aundienera iritxi zan jakintsu au. Eliza ta agindariak batean bildu ziran jakintsu oni urre-uztai eder bat buruan ezartzeko.

Sei liburu zituan gain-gaiñeko edeskien idatziak.

Koroitze garaia eldu zanean, jakintsu au negarrez mara-mara gelditu zan. Apezpiku jaunak esan omen zion:

—Pozaren pozaz, negarra dariozu...

—Jauna, besteri zor diodan negarra da.

—Zeifiñi, ordea, zedorri baiño...

—Jaunak, nik idatzi nituen sei liburu eder oiek, besteri zor dizkiot.

—Zeifiñi?

—Nere morroi maiteari!... Arek egunero-egunero, ta txanda luzean, goizeko seietan esnatu ez ba'nindu, ez nituen liburu oiek idatziko...

Jakintsuak bere sakeletik urrezko diru aundi bat atera zuen, ta apezpiku jaunari eman zion, esanik:

—Jauna, nere morroi maitearen alde, atera beza meza bal.

Ipui onek ez du adibiderik bear, urre uts-utsa da-ta.

ELURMENDI

LO TA AMETS!

Negua. Zabal-zabal bere ego beltzak. Elurra goian, bean izotza. Bero eske edo, ipar mea atean bultzaka diardu, zorioneko fji!... luzeibeldurtia maratil ertzetan atereaz... Etxe-arpegiko teilla-aoetatik zintzillika, izugarrizko izotz-txirikordak dagertzi, malko zuria tarteka dariotela... Ate aurrean bi oillo otzez kirikuldu'ta... Eta barruan?...

Barruan!... Su-bazterrean exerita, Semetxoa besoetan duala, A. Birjiña josten ari da. Sutan lapikotxo bat esne poil-poilka bits arro-txuria goraka dagerkiola... Aur-abarka gaiñean katutxoa, lo zurrunga... Eta ate bitarte, ixil-ixil, Jose zorionsua zurgintzan...

Jesus Aurak negarrari damaio; eta A. Birjiñak, biotzean estutuz, igortzika lo pixkat egiteko desai, onezkeronekatua bai dagola-ta... Eta geldi-geldi, kuluh-zabunearan erabilliz, lo eragiten dio aopean kantari:

Ene kutuna, lo ta lo.
Sagar ximela emango.
Mamorro beltza ba'letor,
burruntziaz banaiz ni nor...
Nere biotza zain dago.

Ene kutuna, lo ta lo.
Soiñekotxoa egingo.
Zakurrak zaunka ba'dagi,
etzaitzezela, zu itzarri...
Makillarekin nik joko.

Ene kutuna, lo ta lo.
Nere biotza zain dago...

Eta Jainko txikiak, altzoan erdi-gorderik, lo dagi: lo ta amets! Lo... amaren magalean. Amets... amaren biotzean... Miren Ederra eziñez dago... Jose Zorionsua atean kukuka...

LORAMENDI A,

Eguzki beruak dana kiskaitzen duan sortaldian, azti edo mago deitzen diran bakaldun antzeko iru jakitun bizi ziran: Meltxor, Gaspar eta Balarasar. Biotz oneko gizonok pakez ta zorionsu zeuden beren erreiñuetan. Jakitunak nola ziran, batez ere izarren gora-beretan, Balaam izena zuen igarlaren iragarkiak ondo baiño obeto ezagutzen zituzten.

Gezurrezko igarla zan Balaam ori, ta bein Israeldarren gudaltegiak (kanpamentuak) madarikatzera zioala, an bertan agertu zitzaionagatik biU durtuta, egiazko iragarkia egin zuan Jaungoikuak gezurrezko igarlaren aboz. Israeldarren gudaltegiara eldu orduko, Jaungoikoaren erri guztia donetsi ondoren, onela asi zan esaten: "Jakob'en belaunetik izar batek irtengo du, ta Israel'dik jagiko da ludi guztia menperatuko duan zigorra.

Iragarki onen bitartez, munduko erri guztiak menperatu zituan errege altsuaren agerpena ulertzen zuten. Agerpen onen iragarle izan bear zuan izarrenen berri ere ba-zekien, ta itxaropenez beteta beren erreiñutxuetan baketsu bizi ziran. Noizik-bein batak besteei beren ikustalditxoak egiteko oitura ere ba-zuten.

Olako baten, Meltxor'en jauregiko baratza ederrean alkarrekin beren jakiturizko gauzen gaiaz izketan ari zirala, orra nola zerualde garbian agertzen dan argitason miragarritzko izar ederra, bere dizdiz sutsuakin sortalde guztia argitzen.

Izarrari begira, bere dizdiz zoragarria ikusten unetxo baten egonda, batak beste ikurpen aren berri galdetu zien. Onetan, bere begi samurrak ortre aldera jasorik, Gaspar'ek dio bereala: "Au, mondu guztia menperatuko duan Errege altsuaren agerkuna da. Jaiki, nere lagun maiteok, eta guazen bere billa, gure Jaun eta Jabetzat gurtu dezagun".

Esan eta egin. Al izan zuten azkarren, bakoitza bere jauregira biurtu zan eta, sortalde guztian oi dan bezela, errege berriari eskeiñi bear zizkieten opariak arturik, Jerusalem'era jo zuten, izar miragarria bidsrakusle zutela; gizatalde aundiak jarrai zizkieten.

Bide luzeko neke-lan ugariak Jaungoikuaren maitasunagatik igarota, Jerusalem'era eldu ziran, esanaz: "Nun dago jaiio dan judeuen erregea? Orren izarra sortaldean ikusi degu, ta agur egitera gatozkio". Au aditurik, orduan Jerusalem'en agintari zan Erodes artegatu zan, eta arekin Jerusalem

osoa. Eta apaiz nagusi ta erriko idazlari guztiak bildurik, galde zegien Kristo nun jaio-bearra zan. Ta aiek esan zien: "Juda'ko Betlen'en. Orrela igarleak idatzita baitago:

"Ta zu, Betlen, Juda'ko bazter ori,
ez zera iñola ere Juda'ko nagusietan txikiena;
zugandik sortuko baita
Israel nere erria larratuko duan Aitzindaria".

Erodes'ek ordun, magoak ixillik deituta, izarra noiz agiri izan zitzaien oiengandik arduraz ikasi zuan. Eta, Betlen'era bialtzen zitula, esan zien: "Zoazte, ta Aurraren berri arduraz ar ezazute; ta, idorotakoan, iragar ezadazute, ni ere agur egitera noakion".

Aiek, ba, erregeari entzunda, Jerusalem'dik aldendu ziran Betlen aldera. Ta ona, sortaldean ikusi' zuten izarra aurretik zioakien.

Jaungoiko gizondua jaio berria zegoan estalpetxora eldu baiño len-txuago, artzain errubakoen soiñu gozo ta poz-abesti samurrak aditu zituzten, Estalpe txiro artan sartu ziran bezin laster, lasto gaiñean otz ikaraz zegoan umetxu artan, igarlak agindutako Mesias adoretsua ezagutu zuten; eta, bere aurrean auzpez jarriarik, beren Jaun eta Jabetzat gur egin zioten.

Jaungoikozko Aur eta onen Ama Andra Maria agurtu ondoren, Mel-txor'ek bere eskuetan zeukan urre gorritz betetako kutxatxo polita irikirik, eskeintza egin zion esanaz: "Zu zera, ene Jesus laztana, mundu guztia men-peratzera etorri zeran Errege altsua; eta, ala zerala ezaguturik, biotz-biotzez eskeintzen dizut urre gorritz betetako kutxa au". Eta, aren ointxoetan mosu beroak emanaz, zutik jarri zan.

Gero Gaspar auzpeztu zan, eta lurriñez beterik zeukan kutxa irikiaz, onela eskeiñi zion: "Ene Jaun eta Jabea, Zu zera gure egiazko Jainkoa, eta Jainkoa zeran ezkeru, nere biotzaz batera lurriñez beteriko kutxa eskeintzen dizut".

Azkenez, Baltasar'ek ere bere kutxa iriki zuan; dena mirraz beteta zegoan, eta eskeiñi ere bai esaten ziola: "Ene gaizkatzaille zorionsua, Zu zera gizon guztiak salbatzera zatozen Jainkoaren Seme bakar adoretsua; gure egiazko Salbagilla zeralako, bada, mirraz beteriko kutxa au eskeintzen dizut.

Eta Erode'gana ez itzuitzeko onua ametsetan arturik, beste bide ba-
tetik jo zuten beren erri aldera.

PERU AZKOITI, K. O.

IKASLE ALPER ETA ZINTZOAK

1) ALPERRAK

Egunero igandea ba'litza,
Ai, gure poza ! Ai, gure poza !
Zelaietan bilduko genituzke
Milla larrosa, milla larrosa.

Liburu denak erreko ba'lira,
Ai, gure poza! Ai, gure poza !
Gure bizitza izango litzake
Josta ta goza, josta ta goza.

Ikastolarik iñun ez ba'litza,
Ai, gura jaia! Ai, gure jaia !
Nexka-mutikoz beteko lirake
Kale ta kaia, kale ta kaia.

Azterketarik beñere ez ba'litza,
Ai, gure jaia! Ai, gure jaia!
Pozaren pozez lertuko litzake
gure ansia, gure anaia.

Maixu denak gaixotuko ba'lira,
Ai, gure dantza ! Ai, gure dantza !
Mundu guzian entzungo litzake
gure arrantza, gure arrantza.

2) ZINTZOAK

Beti jai ba'litz, nork irabaziko
Luke ogia, luke ogia.
Goseak laster ondatuko luke
Gure bizia, gure bizia.
Ikastolarik gabe ba'genitu
Gure erriak, gure erriak,
Basapizti biurtuko lirake
Gizon guziak, gizon guziak.

3) GUZIAK BATEAN

Ur guziak agortuko ba'lira,
Ai, gure miña! Ai, gure miña!
Nork garbituko ote liguke gure
Musu zikiña, musu zikiña?

ETXANIZ'tar NEMESI

JESUS AURTXOAREN JOSTAILLUA

Aur guziak ba-dakite noiz etortzen diran erregeak, baita nola etortzen diran ere. Galdetzen ba'diogu iru urteko aurtxo batl, noiz etortzen diran orregaak, bereala erantzungo digu:

—Ilbeltzaren 6'an.

—Nola etortzen dira?

—Zaldi aundi eta itxusi batzuen. gaiñian jarrita

—Ikusi al dituzu?

—Nik ez, baiña ala esaten dit nere amak.

Jakiña da ori, danak ba-dakitela, geienak beintzat bai.

ikasteko adiña izan bear, noski. Berak ala uste zuen, eta orrengatik etzen asartzen; etzezaken ere.

Ama il zitzaionean eraman zuten osaba batzuen etxera. Baiña an etzuten maite. Ikusten zituen, bai, bere lengusuei erregeak jartzen zizkieten jostailluak. Eta berari, zer jartzen ote ziotela uste dezute? Ezer ez. Ezer ez joan dan urtean, ezer ez aurten, eta seguru aski ezer eldunen urtean ere.

—Nun biziko ote dira erregeak? Ba'neki...

Orai bost urte ba-zituen... Ilbeltzaren 3'ko gaba urbil-urbil zegoen Etsituta zegoen beste urteetan bezela ezer etziotela erregeak jarriko ustean. Igandean, 3'an, eleizan meza nagusia entzuten zagolarik, gogoratu zitzaion ia Jesus Aurtxoari erregeak zerbait ekarriko ote zioten edo ez. Galdetuko dlot, bada, esan zuen bere baitan.

Jaunartzean, Jesustxo bere blotz txikira etorri zanean, esan zion erdi-nigarrez, uste bai zuen ezetz erantzungo ziola:

—Aizu, Jesus maite; zuri erregeak ekartzen al dizute zerbait errege egunean?

Jesus'ek erantzun zion:

—**Neri, ez. Zergatik?**

—Neri're ezpa-didate ekartzen, eta orrengatik galdetzen nizun. Baiño jostaillurik ez izanez, nai al dezu blok jostetan arl gaitezen? Ni izango nalez zure jostaillu. Emen, mundu onetan ez daiteke au egin. Eramango al naizu, ba, laster zerura?

Bere biotzeko Aurtxo xamurrak eranfzun zion, pozez beterik:

—Bai: bostaren gaban eramango zartut zerura, eta an biok, beti-betiko maltasunezko jostetan, ibiliko gera; nai al dezu?

—Ez det, ba, nai izango? Orlxo esaten nizun nik eta...

Ilbeltzeko 5'aren gaban Jesus'ek eraman zuen bere jostaillu maitoa, eta, uste det, an beti jostetan biziko diraia...

ANJEL MARI, K. O.

Margolari batek, bere olean, leoi bat iduritu zuen oso azpiratua, ta gizonen ankapean makurtua. Gizon ori jatzar-garaitzaillea zan.

Egietako leoia andik igaro zan, ta margolariaren lana ikusi zuanean, ala omen dio:

—Garaibide ori ederki zio, margo utsetan zegok-eta. Ikusi nai nikek nere aurrean gizon bat. Ez nukek oleko leoia bezin ergela izango. Ez naxiokek ez, ni orren errez garaituko.

Pintatzea bat, izatea beste.

ELURMENDI

TXORIAREN NEGARRA

Txoritxu txiki polit bat zebillen neguko goiz otz batean, an basoan galduko txabol baten ondoan, pio-pio errukarriaz mintzatzen. Zer adierazi nai ote zuan?

—Aztu al zerate, mendi ta zugaitzak, entzun zenituzten nere udaberriko kanta ederretatik? Etzerate oroitzen, zuek loreak, nik, zuek itxusten eta jaten ari ziran mamutzak, aldendu nituela? Orduan kantu ta lanak zebe edertasun ta usai goxoekin eskertu zenidazten; baiño orain nere zintzurra otzak ixildu ta mamutzak aldatu diralakoz, estali zerate maindire zuri orrekin, nik ez dezadan zekin bizia arkitu.

—Zuk, etxe ontako nagusia, nola itxi didazu zure etxeko ate ta leioak; zergatik elur otz orrekin estali dezu zure etxeko teillatua? Nik zure landetako ar guztiak garbitu nitizun, ta orain lanik ez daukatelako, ez zure etxean, ezta zure teillatuan ere, ez didazu idor pixka bat ere eman nai.

—Nigaz errukitu zaitezte gutxienez zuek, neregandik ainbeste mesede artutako ume maiteak. Non zabilzate orain? Emen nago zuen ama zarra otzaz ia illfk. Ekarri zaidazute bazka pixka bat, nere odola berotzeko...

Ez nuen uste orren gaizki eskertuko zitiartzela ekingaitik arlu nituen neks guztiak. Jatekorik ez daukat, eta billatzekb indarrrik ere ez. Ola ere ilko ote dira, nere ume maitiak?

Auek esan ondoren, zagon zugaitzetik lurrera erori zan, otzez ormaturik.

MODESTO A., K. O.

AGUR TONTORRAK!

Amonak esan zidan. Aintxiñetako garai zarrean miragarrizko gertaerak arritu omen zuten Euskalerrria. Uso antzeko talde zuri bat ageri omen zan ipar-mugatik onuntza; itxasoz beste aldetik edo, ez jakin nondik; baiña biotz-begien zoragarri omen zan. Eta, geldiro-geldiro, zerbaiteren billa ba'lebi! bezela, Euskalerrriaren gain bira batzuek egin ta gero, zeru-goitik jetxi zitzaion odei me-zurizka batean bilduki, Aitzkorri aldean pitinkapitinka, exkutatu omen zan, zorioneko atsegin-itxuretan... Amonak esan zidan.

Ontatik luze aundi gabe, 'orrilleko goiz-urratze batez, era berian talde uraxe berriren berriz agertu omen zan; baiña lenbizikoan baiño lilluragarriago bear bada. Oraingoan, bada, argi eta eder zerion Norbait, ots bigun eta eresi zolien erdi, ba omen zekarten... Goiz artan larrera bide zeuden artzaiñoak, makil-buruetan ukabillak tinkatuki, begi eta belarri zegozkien. Eta talde zuria, bitarte, ba omen zijoan, ba omen zijoan, uretxindor-sailla bezela kantari, elur-begiak bezin dirdari, usotxoak lez egari. Eta Aloña mendira zanean, tink egin omen zuan... Amonak esan zidan.

Zer litzaken ori? Ene amonak esango: leen-aldiko agerpen ura, Zeruko Erregiñak bere egontoki billa bidalitako aingeru-taldea besterik etzan. Eta lurbira osoa, aztertu ala aztertu ta ere, iñbn ez arkitu, emen, gure Euskalerrri maite ontan bezelako egontoki eder eta maitale zintzorik. Eta atseginka ta poztari, lur ontara jetxi zedilla iragartzera itzuli zitzaioten... Bigarren-goan, ordea, aingeru beraietaz inguraturik, Andre Maria etorri zitzaigun, euskaldunon zaintzaille ta bitarteko izatera.

Jaso, euskalduna, zure begiak gure tontor goietara eta ikusi zenbateraiño maitasuna izan digun Zeruko Amak eta nolako zaletasun eta jaierez erantzun diogun gaurdaiño eoskoparrok. Begira: tontor geienak bere Irudiz ornituak dagerz. Agur, Ama, ta agur, tontorrak i

LORAMENDI

AMETS BAT

Amesetan lau arratoi ikusi zitula-ta, larri ta estu zegoan mozkorti bat.

—Andre —esan zion goizean emazteari—; lau arratoi ikusi ditut gaur amesetan, bata itsua, bestea plast-egiteko bezin gizena, ta beste biak jostorratza bezin estu ta miak. Esan akidazu arratoi oiek zer nai ziaten adirazo.

Emazteak etzekin zer esan; eta, mutikoa argia dala-ta, oiuegin zion. Mutikoak, aitari bere amesa entzun orduko, esan zion:

—Aita, arratoi zapal bi oiek, ama la ni gera; zu zera, berriz, ilsua, ta plast-egiteko bezin gizen dagoana auzoko ardo saltzaillea da.

A ze yaiua!

AGIRREOLEA'tar P., I. L,

BELEN'GO LORATXUAK

Belen'go atarira, Umea gurtutera joan zirean artzaiñak, ez gaztae ta esnea bakarrik, baita loratxu batzuk be Jesus'i eskiñi eutsoezan.

Eurak baiño geroago eldu zirean Erregeak, guztiok dakigunez, eskin-saritzat urrea, intzentsoa ta mirrea ekarri ebezan.

Artzaiiak, lenengotan, ataritik kanpora lotsaz urlan eben; gero, txorituak zorobiauta sugetzarren aora joaten ei direan antzera, igarri barik

barruratu zirean. Eta, arako Erregeen eskinsari baliotsuak ikusi ebezenean, artzain batek lagunai esan eutsen:

—Orain Umeak eztau nai izango guk eskiñitako lorarik.

Ez eban beste berbarik egiteko astirik izan. Umeak oiñaz askako zokondo baten urrea batuaz, eskua luzatuta, artzaiñak eskiñitako pitxilora txorta bat artu eban, ezpanetara eroanaz berari mun egiñik.

Ordurarte zuri utsak ei zirean pitxilorak, ordutik ona erdi-inguruan ori-gorri une bat daukie, egun-sentiak udabarrian lakoxea, Ume-Jaungoikoaren ezpanetako barre gogozkoa.

AZKUE (R. M.).

Z A I

Aizete baten gizon bat egoan, buru-ulsik, kale bazter baten.

—Zertan ago or? —esan zion batek.

—Aizeak kapela eramnn dit, eta besteren bat jabegabea, noiz ekarriko ote duen zai nago.

ZAKURRA TA ARAGI ZATIA

Zakur batek bere aoan aragi zati bat zedukala, igaro nai izan zuen ibaia batetik bestera. Igerian zijoaia, uretan ikusi zuen aoan zeraman okela zatiaren keriza, ta begitandu zitzaion benetako aragia zala. Damu ematen zion ez arrapatzea; ta azturik aoan zeramanaz, murgildu edo mur egiñik uretan, dendatu (saiatu) zan arrapatzera. Idiki zuen orretarako aoa; erori zitzaion aoan zedukan aragia; keriz utsari kolpe eginda, etzuen ezer atera

ta galdu zoen berea. Abiatu zan amorroz esaten: "Zerk erabifli nau geiagoren billa? Zori gaiztoan galdu det nere".

Ipui onek esan nai du pakean gorde bear degula garbiro deguna. Galdu oi dala bide onez dagona, geiegi eduki naiz. Obe dala, esan oi dan bezela, etxatxori edo kurro bat eskuan, arrano egatua baiño. Guzia billatzea dala guzia galtzea: bakoitzak eutsi bear diola bereari, ta larga iñorenari.

BIZENTA A. MOGEL

SUGEAK ETA KOMEDIAK

Suge-komediak dagizkitenak ez dira geienak emengoak; arabe, ijito antzekoak izaten bai dira.

Itxas-ontzi aundi bafean zebilela ikusi zuen aiton onek gauza arrigarri bat. Aiek, aiek gure ontzira sartu ziran gizonak! Ura jazkera! Aiek soñe-kotzat zerabilkiten zatarrak! Zeramaten saski artan lotan suge aundi bat, Eseri zan, ba, gizon bat lurtean; eta asi zan onela:

—Ez dezute gaurdaño gauza ederrik ikusi izan; ez bai dezute beifere suge-dantzarik ikusi. Ementxen dakarzkite nik suge eder batzuek; batez ere ba-daramat bat ederragoa! Ikusi nai al dezute? Eseri lenbizi; orrelako gauza miragarriak patxada aundiz ikusi bear dira-ta.

Eseri giñan guziak; eta batzuk onela esaten zuten:

—Indio auek sorgin-semeak dituk, motel.

—Zer sorgiñak? Deabruak bai dirala!

—Ea, ba, zer sorginkeri egiten ote dituen orrek.

Itxas-mutillak ontan ari zirala, asi zan gizon ura txirubita batekin soñu jotzen; eta ontziko buruzagiak ez ba'zien galerazi izan, itxas-mutil aiek dantzan asiko ziran noski.

—Aitona! Zertarako jotzen zuen, bada, txirubita?

—Ikusiko dezute; txirubita somatu-ala, sugeak atera egin zuen saskitik bere buru ikaragarria; ta ba-zirudien orduantxen esnatu egin zala, ain nagi-nagi mugitzen zan eta. Ura orduan mariñela guzien bildurra! Geienak

Andaluzi-aldekoak ziran ezkerro, ba-nekien nik, Andaluzia'koak sugeari dioten bildur ikara aundia; ta ea nola jartzen ote ziran ikusteko asi nintzaian:

—"Señores, esa "colebra" ez horripilante".

Enel "Kulebra" entzun-ala zuri-zuri jarri ziran mariñela guziak, eta asi ziran esaten:

—Lagartol Lagarto !!

Eta biatzakin eta egiten zituzten gauza batzuek...

—Zergatik ote?

—Uste bai dute "Kulebra" esanda kalte aundiak izango dituztela; beraz, bereala "lagarto" nai ta naiez esan bear; bestela... Ainbeste aldiz esaten bai nuen nik "kulebra", batek esan zidan:

—Kabaiero! Haga ute er favo de no nombra tanta bese la bicha.

Eta nik, arrezkerro, "kulebra" esan bearrean, beti "bicha" esan egin bear izan nuen.

Asi zan, ba, komedietan gizon ura; ta andaluz geienak iges egin zuten, etzutela sugerik ikusi nai-ta.

Saskitik atera orduko jarri zan sugea, tente!, tente! !

—Ez bildurtu —esaten zigun gizonak.

Sugearen jauziak (saltoak) bildur ematen zuten ordea; ta, ibiltzean, zirripi zarrapa zebillen; eta noizpenka gizonari bota egiten ba'zitaion ere, gizonak ordea, trebea bai zan, alde erazten zion bereala; ta gu, bitartean, bildurrez...

Etzuen gizon arek sugea begitik kentzen; uste gabean eldu zezaiekela ba-zekien eta. Gizona soiñua jo ta jo ari zan, bada; ta sugea, berriz, jauzika !!, gizonari ozk-egin naiaz. Azkenean ikusirik ezin zuela sugeak gizona eldu, nekaturik geldi-geldi gelditu zan; orduan gizon ura txirubita ezpaiñetik utzi gabe juan zan sugeagana ta bere arpegia suge gaiñetik igaro (pasatu) zuen. Ene!, orduan eldu izan ba'lu sugeak! Bai, estu ibilli zan, arrano! Bada beste batean, mingaiñakin eta, sugea txurikatu egin zuenean, piztia su ta gar jarri zitzaion. Etzuen, ordea, gizon arek uzten soiñurik jo gabe; soiñuak sugea lokartu edo egiten zuela-ta.

Etzegoan orduan ontziko sendagillea gure artean; etorri zanean esan giñion ikusitako guzia; ta orduan esan zion indioari berriz egiten ba'zuen ura bera, "duro" bat emango ziola. "Ondo dago", erantzun zion arek; eta asi zan lenago bezela soiñua jotzen; etzuen, ordea, sendagilleak nai zuenik indioak egin; bere arpegiakin suge guzia lenago bezela etzuen igortzi izan. Ezin izan zuen; sugea aldi artan "tximistak" egiten jarri zalako. Orduan esan zigun sendagilleak:

—Baliteke suge orren ortzak, batez ere letagiñak, pozoirik gabe egotea. Ta galdetu giñion indio ari:

—Ez du, noski, suge orrek letagiñik. Ortzik gabekoa da nunbait.

—Baditu, bai —erantzun zigun indioak—; eta ikusi dezazuten, ekarri bi oillo.

Oilloak bota orduko eldu zituen sugeak; eta andik gutxira oilloak illik.

—Aitona! Indlo arren lana, dirudienez, txarra zan; bada, uste gabeen, "riau" sugeak egin ezkeru, beste mundura bota zezakean.

—Bai; ori gertatu zan bein Zellan aldean. Indio bat arl zan sugeakin komedietan, eta uste ez zuen balean "rau"! eldu egin zion; eta andik ordu batera gizon ura beste munduan.

—Pozoi-eriotza txit ikaragarria omen da.

—Ez dek izango ba? Nere gaztaroan ikusi nuen bein nik zakur amorratu batek eldutako gizon bat, Joxe Iñasio izenekoa. Ura eriotza! Egarri aundia ba'zuert ere, ezin urik ikusi, urak otz-ikera izugarria ematen zion eta.

Erne egon beti sugeakin eta, oso bildurgarriak bai dira.

LEZO'ko JOSEBA ABA

BI LOTSAGABEKO

Perutxo piper-sudur mutiltxo kazkarrak
Ikasi dltu buruz lur ta itxas baztarrak,
Izen oro dakizki luze edo laburrak;
Baiño bakoitza zer ikasi bearrak.

Irakasleak zion: "Ugartea zer da?
—Bat ez beste aldetik uran dagon lurra.
Irakasleak ordun: —Eztek ori, aurra;
Lur orren inguruan nondi-nai dek ura.

- Diokena esateko, non dituk begiak?
 —Zure sudurran, jauna, dauzkat ezarrlak.
 —Sudurrak ugarteaz ze-ikusteko zeukak?
 —Uste nun, ba, alaxe zirala ugarteak.
- Orrelaxe dituk aur lotsagabeak.
 —Onelaxe bai dira gure irakasleak.
 —Laxter ikasiko dek, nola izan umeak.
 —Naigo nituzke ikasi Jainkozko legeak !

L E G A Z P I

Itxas-gizon argiak, indartsuak, bildurra zer dan eztakitenak, asko eta asko atera dira gure Euskalerrri maite-maitagarritik.

Mundu berria. Amerika, itxaso zabal illunaren aronztik Kolon zeritzai-on jenobatar aundiak aurkitu zuenean, euskaldunak joan ziran ugari, lur eder loretsu aiek munduratu, itxaso-bazter guztiak ondo ikusi, eta batez ere, animako illunpean Jaungoiko egiazkoa ezagutu gabe bizi ziran gizagaixo asko ta asko, Kristo'ren federekin sutu eta zeruko bidean jartzera.

Nor da, banaka banaka esan lezakeana, zeinbat orlako gizon argidotar atera ziran Euskalerritik? Ugari dira, ezin konta-ala, zeruan izarrak, itxasoan ondar-aleak ugari dira; baita Euskalerrriak, mundua mundu dan ezker, eman dituen seme bikain itxasoaren indar izugarriak menderatzen oituak ere.

Amaseigarren eunkian, batez ere, ba-zirudien emen jaiotzen ziran gizon guztiak beste iñoiz baiño barrengo indar aundiagoarekin emen jaiotzen zirala. Guztiak ziruditen, eta ziran umantak, arrigarriak, Jesus'en izen santua zabaltzeagatik eta beren jaioterrria gora jasotzeagatik, ezertxorekin ere ikaritzen etziranak.

Ala Elkano, getariarra, munduari lendabiziko jira eman ziona; ala Urdaneta, itxasgauzetan gutxi bezin jakintsua, aize gogorrari neurriak artzen egoki zekiana, Gipuzkoa'ko Billafranka'n jaioa, asko ibilia, Erregek

maitatua; baiño, alaz guztiaz ere, lurrekp aunditasun guztiakin ezin biotza bete zitzaiolako, billatu zuen pakea bakartasunean, eta jantzi zuen Done Agustin aundiaren semeak daramaten jantzia.

Urdaneta'ren adiskide mamia zan Legazpi, Zumarraga'ko semea, amaseigarren eunkiaren asieran mundu ontara etorria. Españi Berri edo Mejiko'n izan zan alkate, eta utzi zuen omen edo entzute aundia eta eroso irabazia, gizon leial, zintzo, zuzen-zuzena zalako. Urdaneta'k ongi ezagutu zuen, eta orregatik Españi'ko errege Felipe bigarrenak esan zionean joan zedilla an urrutian, txit urrutian, Txina ikutzeko moduan zeuden ugarte batzuek Españi'arentzat irabaztera, Urdaneta'k, bera buru ezin joan zitekeala esanik, lurreko arrokeri eta uskeri guztiak alde batera utzi zituelako, Bakartegian sartu zanean, izendatu zuen Legazpi, egintza aundi ura ederkiena bukatu zezakeana bezela. Eta jakin zuen Urdaneta'k zein izendatu zuen, bada Legazpi'k utzi zuen beti-betiko oroitz maitagarria, zazpi urtean (etzan besterik bizi Mejiko'tik atera zan ezkerro) irabazirik Felipetar Ugarteak, ala deituak Felipe zalako Españi'ko erregearen izena.

Eta nola irabazi zituan? Ori da *ondo* jakin bear dana. Odolik ixuri gabe: biotzaren maitasunez, Kristo'ren fededun suturik, Kristo'ren izen santuak ematen duen mundu ontakoa ez dan indarrarekin. Legazpi zein zan jakiteko, eztago begiratu besterik zer egin zuen berak irabazi zituen ugarte urrutikoetan.

1564'an atera zan Mejiko'tik. Urrengo urtea asia zan, zijoan lurretara iritxi zanean. 1572'an il zan Manila'n, kristau on birtutetsuak il oi diran modura.

Ona zein zan Legazpi. Urdaneta bezelako gizon batek esan zuenean ura zala onena, orduan Españia'ko erregeak nai zuen aundirako, etzan nola naikoa. Gutxi bezelakoa zan Urdaneta: bera joan zan, praille izanagatik, Legazpi ta bere jendeakin zijoazen ontziak zuzentzen, eta eraman bear zuten bidea, itxaso zabalaren erditik eroso billatzen: bera. zan, bere anai Done Agustin semeakin, lur ezkutatu aietara, lendabiziko Golgota'ko' Gurutzea eta Golgota'ko Gurutzeak berakin dakarzkien ondasun bedeinkatuak, eraman dituen. Gurutzearekin, eta ez ezpatarekin irabazi ziran Felipetar Ugarteak. Ori da lurrak irabazteko modua. Orregatik beti ta beti bedeinkatuko da, Urdaneta'ren, Legazpi'ren izena, eta euskaldunen biotzak poztuko dira, aiek ere euskaldunak zirala eta egiazko euskaldun biotz aundikoak, esatean.

. E.-G.

BIOTZ BI

Arratsaldero, eskoia ondoan, gizandiaren baratzera jostetara joaten ziran aur guziak.

Baratze eder bat zan ziñez. Loreen artian andana bat zuaitz zerurontz jasotzen zituzten adarrak. Txoriak ere an abestutzen zituzten beren abesti ezti samurragoak. Umiak, entzutean, ago zabalik, poza begietan, txorieu begirutzen gelditzen oi ziran gaixoak. "Zein ondo gauden emen!" esaten zuten.

Beiñola itzuli zan gizandia; aurrak ikustean, abots zatar batek oiuegin zuan:

—Zer dagizue or?

Aurrak, gizon aundi ura ikustean, ikaratu ta lasterrari jo zioten.

—Nere baratzea nerea da. Nior ez da bertan sartuko, ni baiño —zegion gizonak, arro-arro eginda.

Orma luze bat egin zuan baratz-inguruan, eta sarreran idatzi: "Ez daiteke sartu. Sartzen danari, zigorra".

Gizandia oso berekorra zan.

Aur gizagaixoak etzuten orai beren jostetako tokirik. Ormaren inguruan zebiliten barruko baratzea zein polita zan gogoratzen.

Udabarria iritxi zan; belai eta baratzeak txoriz eta lorez estali ziran nun-nai. Gizandiaren baratza bakarrik zegoen *neguan* ba'liz bezela. Txoriak etzuten maite, aurrik etzegolako, noski. Zuaitzen adar egurtsuak lorerik etzuten ekarri. Antzi zitzaien...

Bein, orma ondoan, lore eder batek ideki zitun bere ostotxo bigunak, baiña an zegoen iragarkia irakurri zuanean, aurretiaz errukiturik, berriro lurpera sartu zan negarrez, ixilik...

—Udaberria berandu dator aurten, alaere eztu urrun izan bear —zion gizandiak bere baitan.

Baiña ezta udaberria, ezta uda ere etziran egundaiño iritxi. Udazkenak igaliak nun-nai ugari banatu zitun zugaitzetan, baiña gizandi berekoia renak ostrorik ere etzeukaten, otzak, itunak, ixilak zeuden zerura begira. Udazkeneko zeru xarmantak berentzat etzeukan irriparrerik. Aztuak zeuzkala zirudin.

Goiz batean gizandia oe gaiñean etzunda zegoen ernai; soifñu zoragarri bat biotzeraifño sartu zitzaion, biotza bigundu zion ustekabeen. Kardin

txikitxu baten abestia baiño etzan, baiña ainbeste denboran etzuan abesti ori entzun eta munduko musikaririk goxoen zeritzaion orduan. Orduantxe ere ekaitzak aldendu zuan bere baratze gaiñetik eta usaikil pozkil bat leiotlik usaindu zuan.

—Azkeneko, udaberria iritxi dala uste det —zion gizandiak; eta oetlk, leiorea urbildu zan egia ote zan ikusteko.

Ark ikusi zuana!

Orman egiñikako zulo batetik aurrak baratzean sartu ziran eta onez-keru zuaitzen adarretan gora ta bera zebilten. A nolako igali ederrak ziruditen orduan ! Biotza samurtzen zuan ikusteak. Zuaitzak poztu ziran ume-txoen laguntasun beroa berriz zeukatelako, eta lore politez estali ziran. Ostroak aurtxoan buru politak maitekero inguratuz musu gozoak ematen zieten. Txoriak nun-nai abeslariak agertzen ziran eta loreak belar urdiñaren gaiñetik par zegiten gozoro.

Zoko batean, oster, neguak irauten zuan. Zoko aretan aurtxo txiki txiki bat zegoan. Txikiagia zanez zugaitz inguruan zebillen marrumaka adarreri ezin eutsiaz. Zualtza bera ere intziarraz estalita zegoan ordurarte.

—Igo zaitetz, txikitxu —esan zion zugaitzak, adarrak apaldurik, Aurtxo, baiña, txikiagia zan orduan ere.

Gizandiaren biotza bigundu zan au ikusita. Egiz damutu zan. Berekoikeriari alde batera eginda, ixil-ixilik asi zan eskillaraz bera jausten. Polki-poliki jauregiko ate aundia idekiz urbildu zan aurrengana, baiño aiek ikusi zutenean laster igesi joan ziran eta baratza berriro neguaren pean gelditu zan. Zokoko aurtxoak, baiña, etzion laisterrari jo. Bere begi zabal garblak malkoz beteak zeuzkan ezker, etzuan gaixoak gizandia ikusi. Urbildu zitzaion atzetik gizandia eta esku zabalean arturik igo zuan zugaitzan, eta onek bereala eman zitun loreak, txoriak abestu zuten lore tartetik ume-txoaren inguruan.

Umetxo onek besoak zabalduz gizandiaren lepora inguratu zun besarkada bigun batean eta musu samur bat aurpegian maltekiro utzi zion.

Beste aurrak, orain gizandia ona zala ikustean, sartu ziran danok baratzean, udaberria zekartela berriro.

—Orai zuena dezute baratza, umetxuok —esan zien gizandiak, eta aizkora aundi bat arturik, orma beltz ura lurrera zuan.

Geroztik errikoak gizandia aurtxoan erdian jostetan ikusi zuten. Arratsaldean, etxerakoan, agurra "aitonari" ematera zetozten umeak.

—Baiña nun dago zuen adiskidetxo, neronek zugaitzan igo nuana? Gizandiak ura maiteago zuan, musua eman ziolako edo.

—Ez dakigu; joan da.

—Biar etortzeko esaiozute.

Aurrak, baiña, nun bizi ote zan etzekitela erantzun zioten; orduarte egundaiño etzuten ikusi gaiñera.

Aitonaren biotza illundu zan maite-nekez.

Arratsaldero aurrak gizandiagana zetozten, baiña onek maitatzen zuan umetxo ura etzan iñoiz agertu.

—A nolako poza artuko nuke emen ba'litz! —zion sarritan, aurrak ondoan zituanean.

Urteak, joan-etorri asko egin zituzten onezkero, eta gizandiaren in-darrak agortu ere bai apurka. Etzetzaken jostetan egin. Aulki zabal batean exerita, aurreri begira luze egoten zan; gogoia beti aspaldiko adiskidexoaren atzetik zebillen oldarki, nekatzeke.

—Lore asko ba-ditut —esan oi zuan—, baiña aurrak dira munduko lore ederrenak.

Neguko goiz batean leiotik begira jarri zan. Neguak orai etzion beldur-tzen, bai-zekian udaberriaren lo egitea lorien berritzea baiñol etzala.

Bapatean zerbait ikusi zuan zoragarri.

Baratzearen zokoan zugaitz pean zutik, bere biotzak maite zuan umetxo zoragarri ura zegon.

Eskillaraz bera jausi zan, malko eztiak parrez naasturik begietatik zeriola. Ondoratu zitzaionean, baiña, asarre biziak gorritu zizkion begiak. Galdetu zion:

—Nork zauritu zaitu, maite ori? —Umetxoaren esku barruetan ultzien zauri gorri biziak ikusi bai-zitun. —Nork zauritu zaitu? Esaidazu eta nere ezpata aundiakin arin kenduko diot bizitza.

—Ez —erantzun zion umetxoak eztiki—, zauri auek maitetasunak egin dizkit; zuganako maitetasunak.

—Nor zera? —itaundu zion gizandiak, eta dardara arrotz batek gorputza ikaratzen ziola, umearen aurrean belaunikaturik jausi zan.

Umetxuak, irriparez begiratuta, esan zion:

—Bein utzi zidazun zure baratzen jostetan ibiltzen, gaur etorriko zera neure lorategira betiko; nere baratza zerua da...

Eta arratsaldean aurrak lasterka gizandiaren baratzean sartu ziranean, "aitona" illa aurkitu zuten, luze luze egiñik, lore zuriz inguratuta, bere zorionezko zugaitzaren pean...

ANJEL MARI, K. O.

SALOMON'EN EPAIKUNDEA

Guztiok dakizute noiakoa izan zan. Bi ama juan omen zitzaizkan aur batekin, eta biak beria zala zioten. Ara, ba, orainguan ere orrelako ezta-baida errukigarri bat.

Juan dan gerratlan (munduko lenengoan) turkotar zarrak Armen'tik milloi bat baiño geiago lagun negarrez atera zituzten gizonak eta emakumlak, guztiok nastuta beren famili guztia nun-nal utzirik.

Aur gizaxo asko gurasorik gabe edo gurasotandik aldentuta gelditu ziran. Gero ingelesak etorri ziran, aur koltaru oiel beren alta-amak biltatu nai izan zieten. Ara, ba, orain eglazko gertaera.

Armenitar ama gazte gizaxo bat zegoen beti negarrez, bere alabatxua Alepo'n turkotar gaizto baten etxan zegola-ta; Ikusi zuela ta ura zala bere biotzeko alabatxua. Zazpi urte zeuzkan aurrak eta emakume ura etzuan ezagutu nai. Emakumiak, berriz, baietz ura zala bere alaba: iru urte besterik etzituala etxetik kendu ziotenean.

Ze egiten du orduan ingeles kapitana batek? —"Umeari kantatzen zenez abesti gozo batzuek kanta itzazu, emakumia", esan zion. Umeari seaskatxuan egiten zion lo-abestlak erdi negarrez bota zituan. Berealaxe aurra arrituta bezela gelditu zan lenengo, amaren otsa ezagutu zuan eta bere lepora zoratuta bezela alalturik, juan zitzaion.

LARDIZABAL A., I. L.

AMAR NESKATXA EGURRETAN

Egun batean, Amoroto izena duan Bizkal'ko erri batean, amar neskatxa juan ziran basora egur biltza.

Bakoltzak egur-karga eder bana egin zutenean, etxeruntz asi baiño len, Kontzesi izena zuan neskatillak galdetu zuan: —Danok emen goaz, ala? Eta Erruperta izena zuanak erantzun zion: —Ba, kontau zenbat goazen eta olan

jakingo degu. Eta asi zan kontatzen: bat, bi, iru, lau... eta bere burua nola ez bai zuan kontatzen, bederatzi egiten zituan. —Bat palta dogu, nor da? esaten zuan. Eta beste neskatilla batek esan zuan: —Zuk ez dozuz ondo kontatzen. Neuk kontatuko ditut, bat, bi, iru, lau, bost, sei, zazpi, zortzi, bederatzi. (Arek ere ez zuan bere bururik kontatzen).

Berriro ere, beste batek kontatu zituan eta iñork ez zuan nor bere bururik kontatzen, eta beti bat palta, eta nor palta zan jakin ezin.

—Au da ez-bearra l —zioten—; amar lagunek urten degu egurretara, eta bederatzi baiño ez goiaz etxera. Nor ete da palta dana? —Ni, emen nago —zion batek—, Ni be bai —beste batek—. Baiña nbr edo nor palta degu. —Ene!, goiazan etxera, gautu baiño len, besteren bat paltau ez dakigun.

Eta bakoitzak beren egur-kargak buruan artu ta erriratu ziran. Baiña etxeratu baiño len alkarri esan zioten, gauza txarrak berez jakiten dirala ta azkar gaiñera, ta augatik beren etxietan ezer ez esatea erabaki zuten.

Urrengo goizean, Kontzesi'k Erruperta'ri leiotik leiora galde egin zion al zuan ixillan: —Entzun egizu, Erruperta: ezer berri txarrik zabaldu ote da errian?

—Nik ez det ezer entzun.

—Ene, ixillik gauden bada; baiña laster jakingo da zerbait, neskatilla gazte baten palta jakitekua data.

JULENE AZPEITIA

ZAKUR ZINTZOA

Lapur batek zakur zintzo ate-zaiari okel aundi bat eman nai zion, zaunkik egin etzezan. Baiñan alperrik: zakurrak aragiari jaramonik egin gabe, zaunk eta zaunk egiten zuen, ta txolarte batean lapurrari esan omen zion:

—Nere abo ta zintzurra ixilarazo nai itukek, aragi ziztrin orrekin, nik zaunkik egin ezta, i, nai bezela etxe-barrenen, ibilli adin. Etzago gaizki, al-projatzarra; zaunkaka ariko nak, goiz-goizeko argi arte...

Askok ba-dute, ixpillu ontan, zer ikasi.

ELURMENDI

Oraingo jakintsuak asmatzen ez dituztenak!... Janari bakoitza bere margo, koloria zuala, guk ere ba-genekigun; balña oraingoa aundiagoa da. Atera dute eta nola zenbat eragiten duan giza-janarian jakien margoak.

Umiak geiago zirikatzen dutenak arrosa-kolorezkoak (arrosaskak) omen dira. Umiak aurrean goxoak jarri ezkerreko txuriak alde batean ta bestean arrosaskak, eunetik larogeta amabostetan arrosasko goxoetara omen doa. Ez ote dituko, aurrenekoan arrosaskoak ta gero txuriak arropatuko? Uzten ba'dute beñipeln...

Giza-semeentzat, aundientzat, autsmargoa omen da zirikatzaileena. Txuriak ez omen daragite beste edozeinezkoak bezin, batez ere oriak edo nabarrak ba'dira. Ta orregatik sal-erosle askok margotzen omen dituzte janariak, geiago salfzeco. Orain jakiten ez ditugunak!

Aspalditik ba-genekigun, bai, asto ta mandoai berdeak zirikatzen zituztela; ta orain nundik arkitzen degun gizasemeai oriak ta umeai arrosak, asto artean muskerrek bezela zirikatzen gaituztela.

J. A.

NEGUGAIAK

Aldiren ontzian Negu arraunlarl.
Ontzia astun bide, geldiro baitabil

ARGINABAR

Gau illun batetik sortu da gaur Egun;
Larrez gero erno ta lorez jantzia.
Aingeruek elur-ariz ari dira
Jostalari josten Lurra'ren jauzkia.
Zeruak bart jarri dion jauzki zuriz
Udaberri iduri eusko 'lurraldia...

ILLUNABAR

Egun'i makurtu zaio buru soilla,
Ta Gauak dizeki bere krisaidua.
Illun-ezkilaren adiak urratu
Dute ixilleraren soñeko-jostura,
Illargi'k maiteki zaintzen du lur-gaiña,
Lotan baita elur-izaran bildua...

ENE ERROTAN

Ene barne-errotan bilduki, ba-dantzut
Errota-klakaren asperen larria.
Arian-arian laister eioko da
Errotan arkitzen dan lurtar garia.
Eta eio dana, noruntza dioa?...
Errota lanean... Negu... Lo erria..

Aldi'ren ontzian Negu arraunlari.
Ontzia astun bide, geldiro baitabil...

ZARAIA (O. M. C.)

ETXEKO ETA KANPOKO SAGUAK

,Erri-etxe eder baten bizi zan saguak irten zuen bein kanpora, jakin nairik zer igarotzen zan zeiai ta basoetan. Aurkitu zuen beste sagu bat iñoiz errian sartu gabea, ta basoan beti azia. Ondo egonak alkarri emanik, diotsa kanpokuak:

bazkari baso gisakoa. Agertu ziran maira aritz-aleak, intxaurrak, urrak, mispillak, txermenak, aranak, sagarrak, ta zer ez?

—Adiskidea -esaten dio erriko saguak—, janari ugari dezu, baiña guzia otza ta sabela indartzen ez duena. Atoz orain nerekin erri barruko etxe aberats edo jauregi eder batera, non bizi naizan nere era guzietara, ta emango dizkiizut janari gozatsuagoak, koipe ta ezti, urdai ta gaztaña, lukainka, zeziña, gozoka... ta zer ez? Andiki bat naiz zure aldean.

Berriketai siñisteia emanda, joan zan baso-sagua errikoarekin. Sartu ziran etxel aundi baten. Etxekoak darama dispensa edo jantokira, ta erakusten diozka an agindu ziozkanak. Bizarrak koipetu ta musuak eziturik zebiltzala jaten, orra non onik onenean sartzen zaien katu lodi ta arre bat. Etxeko saguak artu zuen igesa, gorde zuen burua zulo ezagutueta. Basotarra ikaraturik zegoan, zer egin etzekiela; artzen du iges-bidea, jarraitzen dio katuak, ikutzen dio zerbait atzaparrakin, baiña zorionez etzuen arrapatu. Irten zue-nean katuak, bi'urtu zan etxekoa basokoaren billa, ta arkitu zuen odola zeriola lepotik, ta bildurrez erdi illik. Esaten dio etxekoak:

—Nola nik bezela iges egin ez dezu katuaren keriza ekusi orduko? Kontu bada urrengorako. Abiatzen dira berriz jaaten; ta onik onenean entzuten da ate giltzen otsa: iges egin zuen laster etxekoak; basokoa zegoan eltze edo lapilco koipea zeukan baten. Aizartu eziñik irtetzen, egon zan an bazterturik. Giltzera neskatxa ebilli' zan batetik ta bestera gauzeen, billa, ta zorionez etzan eldu basokoa zegoan ontzira ta irten zuen. Biurtu zan etxekoa jantokira ta esaten dio basotarrari:

—Ez nizun nik esan irtetzeko ta iges egiteko bereala? Ni naiz soldau zar urteak igaro dituana onelako irriskueta.

—Adiskidea —diotsa basotarrak—, zuretzat janari gozoak, aberats ta andi etxekoak. Ai, nere mendi laztana! Zenbait zeran ohea! Eztezu an katurik, ez giltzera andrari. Jaten det nere basoan ezeren beldur gabe. Zaude, zaude zu emen bizarrak koipetzen, beti auzitan bezela katu ta etxekoakin, Agur: ba-noa ni nere basora.

Ipui onak, zenbat gauza on erakusten ote digu? Bakoitza paketu bear da duiduiatz ta duenaz. Igo nai duenak andi gauzen billa edo leku goratura, buruko zorabio bat asko bea jo ta bizitza galtzeko. Beldur ta kezka gabeko bizitza paketsua ohea da betiko irrisku ta ikaran egotea baiño. Ez da iñoiz

zorioneko aberats ia asko duena, pake ta atsekaberik ezak iges egin badio. Nekazari basotarraren sabela beteago dago arto, kaztaña, sagar ta tupin szadunekin, andiki bat eper, oillagor ta oillanda samurrekin baiño; onek osasunik edo pakerik ez du, ta ark bai.

Obea da gitxi iduki, ta pakea;
ondasun askok dakar ikarea,

BIZENTA A. MOGEL

IGEL ANDI-NAIA

Ibai baten ertzetik igel arro batek, larrean zebillen beia ikusi omen zuen. Au bezin aundi ta zabal izan naita, bere buruari indarka asi omen zitzaion, indarrez, azgoraz eta azberaz puztutzen ote zan. Lanbide auxe eginda, bere umeeri galdetu zien:

—Ene umeak, ba ote naiz ni, zelaian dabillen beia ain zabal?

Umeak, ezetz erantzun zioten.

Onetxek naigabetu zuen, ta berriro ekin zion puztu ta aunditze jardunari. Aldi larria eginda, ostera umetara joan omen zan, galdezka:

—Zein da aundi ta zabalago, ni ala beia?

—Beia —erantzun zioten umeak.

Amorrazi zitzaion igel amari bere barren guzia, ta izugarrizko indarrez puztu nai zituen anka, sabel, bizkar, buru-kankar ta abar...; baiñan, puztetzan ari zala, bertan lertu omen zan.

Ez dator gaizki ipui auxe arro dabilleneztat.

ELURMENDI

IKURRIN GORRIA

Bidean arriskuren bat dagonian, ikurrin edo bandera gorria ipiñi oi dute, eta orduan orruka ta tximist-azkarrez datorren trenak, aiziaren aurrean egan dijoan berezibillak eta tringili-trangala arririk arri dijoan gurdiak, zapi gorri oietakoren baten aurrean, bertan pot-eginda gelditu oi dira...; bestela, bada, eriotzaren biidur izan bear.

Ba-zekian zapi gorri oien berri Xotero makiñistak. Bein baiño geiagorian amaika gizon eta emakume eriotzaren atzaparretatik atera izan zituan. Baiña Xotero, bultzi edo tren beltzera begiak eginda zauzkan nunbait, eta burnizko etxe beltz artatik erten orduko, an zan "Biotz argi" deitzen zioten ardantegian. Ari klink eta oni txurrut; baso erdiak gora ta baso-erdiak bera, laister izaten zan Xotero bere tren beltza bezela, beste makiñista baten bearrean.

Egun oietan ondo beteta etxera joaten zan, eta etzan giro izaten Xotero'ren inguruan. Aren purruztadak!, ango gaizki-esaka!, aren astindu bearrrak! Bere emazte lñaxik mozkorrak aldegiten zionean, gauzak garbi jartzen zizkion, baiña Xotero'k... bai... bai ta biar arte, ta biar aundiagoa arrapatzeko,

Xotero'k seme ta alabatxo bat ba-zituan. Kontxexi oso neska polita, azkarra ta maitekorra. Jakiña, Kontxexi Xotero ardoz jo baiño lenago jaio bai zan! Bein Kontxexi'k bere aitari esan zion:

—Aita, egia al da trenian zuazengan, zapi gorri oietakoren bat aurrean ikustean, bertan geldierazitzen dezula trenena?

—Bai, maitetxo, bestela ez tren ez gizon eta ez emakume! Guziok ilko giñiluken!

Kontxexi ixildu zan...; berak ba-zekian bai ardua zala sendi baten-tzako kalterik aundiena; eta txikia izan arren, ba-zeklan bai aitaren berri.

Andik egun batzuetara, lanak egin ondoren bere lagun batekin bazi-joan ba Xotero, "Biotz argi" ardantegira, eta aurrez aurre zapi gorria... Xotero bertan gelditu zan, zapi gorriari bildur aundia zion-ta; gero, ondo begiratu zuen zer ote zan eta... Jox!, nere Kontxexi ez dek, ba... Baiña, alabatxo, zer den or?

—Aita, arriskuan zagoz...; emendik aurrera ez zaite joan. Aita, zuk ez zenidan ba esan zapi gorria ikustean, gelditzen ziñala? Orra ba emen; aurrera ez egin, ardantegian eriotza dago-ta.

Xoteroi, begiak malkoz busti zitzaizkion; Kontxexi besoetan artu eta etxeratu zan, andik aurrera ardantegian geiago ez sartzeko asmoz,

Bai, orixel Gaur zenbat tokitan jarri ote gentzazke zapi gorri oriek!
Zenbat zine, paper gaizto, dantza zikin eta zenbat lagun gaiztoen aurrean!

Gauz oien aurrean beti zapi gorri oietakoak daude ta arriskuan izan nai ez ba'zerate, aurrera ez jarraitu!

SOLUXE, I, L.

BELEN'GO ARTZAIAK

Illunabarrean urrutitik entzuten ziran artzaien deadarrak eta ardien txin-txarri otsak. Artaldeak bideko autsa arrotzen zuan biziro ta artzai txakurrak zaunka ta zaunka zerakarten artaldea eskortara.

An zetozen Txanton, Txistu eta Txomin, artzai pixkorrak, bakoitza bere artaldearen aurrean banan-banan bere ardiak kontatzen.

—Nereak osorik zetozen, Txistu.

—Nereak ere bai, Txanton.

—Ortik Txuri! —deadar egin zion txakurrari Txomiñ'ek.

Asko luzatu gabe iritxi ziran txabolara ta an gorde zuten arlaldea, *alkarren* ondoan jarriaz irurenak.

Gaba argia zetorren eta Abenduko giroa prexkoa zuten. Apari-legea egin ondoren, irurak beren artil berogarrietan bildu ta garotan etzan ziran lo egiteko asmotan.

Noiz izan ote-zan?., Lorik ederrenean zeudela, txabola barrua tximista batek jo ba-lu bezela argitu zitzaien. Zer zan ura?.,

Txanton esnatu zan aurrena. Begiak igurtzika artean, Txistu jaiki zan urrena. Txomin lozorrotik atera zan azkenen. Eta artean konturatzeko betarik izan baiño lenago, zerutiko aboisa entzun zuten:

—Artzaiok esna ta jaiki zaitzte. Belen'go Beortegian, Aur bat jαιο da. Aska batean etzanda arkituko dezue. Zoazte, Jaungoikoaren Semea da-ta. Argira begiratu ta an ikusten dute Eguzkia baiño argiagoko Aingeru bat.

Berealako batean, etorri bezela izkutatu zan Aingerua ta iru artzaiok an gelditu ziran ao-zabalka zer esan asmatu eziñik. Alako batean bere onera etorri zan Txanton:

— I , Txistu, rkusi al-dek Aingerua?

—Ikusiko ez nian, ba, Txanton ! Eguzkia baiño argiago uan-da ! Oraindik itxututa natxegok aren briztada biziarekin.

—Ta esan diguna? —erantsi zien biei Txomiñ'ek.

—Ori audiena, Txomin —erantzun zion Txanton'ek.

—Jaungoikoaren Semea lurrean jaio dala esan ez du?

—Bai orixe, Txistu. Ta nun arkitzen dala esan du, Txomin?

—Errekaldeko Bordan-edo?

—Ez gizona. Beien'go Beortegian.

—Aitzulo narras aretan?

—Antxe, noski... Motellak! Zertan gaude emen? Ez al-dezu ankarik?

—Gaberdian nora joango gaituk, ba, Txistu?

—Nora? Aur ori ikustera ta gure eskeintzak Berari egitera. Ez al derizkiok, Txomin?

—Bai, bai. Neregatik ez dek geldituko. Beortegi ori Belen'go irteran ez al dago?

—Antxe, erritik goraxeago.

Bakoitzak zituanak artuta abiatu ziran irurak bidean bera. Illargia bete-betean zegoen eta iru mutillak bereala ziran Beortegi aurrean. Txanton'ek esan zien lagun bie:

—Or diagu Beortegia. Atea joko ote diagu?

Ala zeudela, zerua argiz josi zan. Eguardia zirudin. Gora begiratzeko betarik etzuten izan. Izarretatik bera Aingeru taldea kantari asi zitzaicn:

—Mesias sarritan agindu zana, Aingeru artian dator gugana...

Iru mutillak an zeuden txundituta zer egin asmatu eziñik. Aingeruak zeru guzia bete zuten beren Erregetxoari kanta berriak eskeintzen. Alako kanta gozorik!

Alako batean Txanton'ek oi u egin zien lagunei:

Eta besterik gabe, eraso zioten irurak kantuan:

Belen'en jaio zaigu,
—kriskitin kraskitin—
Jesustxo poxpolin.
Askatxoan etzanda,
larrosa zirudin.

Aita San Jose, kantu aiek entzunda atera agertu zan:

—Nungoak zerate, mutillak?

—Belen'go artzaiak gera. Or goraxeago dauzkagu artaldeak, eta onela ta onela Aingeru batek emengo berri eman digu.

—Sartu, sartu barrura.

Ta irurak Beortegira sartu ta an arkitu zuten Andre Mari belauniko askaren aurrean, eta Jesus Aurtxoa, urrea baiño ederragoa askan etzanda.

Txistu'k egin zion lenengo eskeintza:

—Andre Mari, emen nere bildotxik gizenena!

Txanton aurreratu zan urrengo:

—Eta nik, aste ontako gaztarik bigunenak!

TxomIn atzetik urreratu zan, esanaz:

—Ta nik narrurik beroenak Aurtxoarentzat.

Ontan Txistu'k atera zuan bere txirula ta asi zan soiñurik bizienak jotzen. Zer zan ura? Jesus'ek askatik begiak i'rlk ta par-irri egin ziela irudltu zltzalen mutillei.

Andre Mara ta Alta San Jose entzuten zeuden artzaiaren soiñuak
Zeiñek ixil-arazi Txistu'?

Azkenerako aurrak lo egin bear zuala ta Ixil-arazi zuten beste biak Aita San Jose'k eta Andre Maria'k eskerrak eman zizkieten irurei eta artzaiak bldean gora oiuka ta poz-soiñutan itzuli ziran beren artegira. Ta ordutik kantatzen da kristau errletan:

Belen'en jaio zaigu,
—kriskitin kraskitin—
Jesustxo poxpolin.
Askatxoan etzanda
larrosa zirudin.

Andre Maria'k dauka,
—kriskitin kraskitin—
jantzi txuri-uridin.
Zoragarria dago
zeruko Erregin.

San Jose antxe dabil,
—kriskitin kraskitin—
sua nai du egin,
Aurtxoa negu artan
otzitu ez dedin.

Aingeruak aidean,
—kriskitin kraskitin—
egan dabiltz arin.
Jesus'i nai diote
kantuz lo eragin.

Artzaiak menditikan,
—kriskitin kraskitin—
arkumetxoekin.
Soiñu ta dantza dute
txistu ta danbolin.

Guk ere jo ditzagun,
—kriskitin kraskitin—
tapiko ta tupin.
Etxean zai daukagu
gaztaiña danbolin.

ETXANIZ'tar NEMESI

EPAILLA.



ARIES • III-21 • IV-20.

ARITO.—Or arito (Aries) adar-oket ta erasotzaille; jokera egiten dau indartsu-indartsu. Bere barruan, loturik antza, egon nai ezpa-leu lez. Gogo sendoa esan gura dau, bizitzako arriskuak eta eragozpenak azpiratu ta gainduteko gertu dagoana.

Zeru-gerriko lenengo ezaugarria da, Eta eguzkia, epaillaren 21'tik jorraillaren 20'raino dabdl bere barruz barru. Izarki arauz, 30°ko lenengo ustai da, udabarriko gau-egun bardiñeko unea asten dana. Babiloniarrak epe onetan, aariak lepo egin la eskiñi oi ebezan.

Urlea berbiztuz doa, pizkaka pizkaka. Argia ta beroa be laiño ta otz-er.papetik urtenaz doaz. Izadia pozez gaiñezka agiri da: pinportak erne, abere ta piztiak berotu, zelai ta dandak orlegi jantzi, egaztiak kanta. Itxaropenaren irriñoa nun-nai; laster da bizia dizditsu.

J O L A S A K

1) TXILIN TXALAN

Erri askotan jolastu oi da, ezkil edo kanpai otsa antzeratuaz.

Sorbaldatik alkartzen dira umetxoak, atzetik besoak bateratuz. Olan dagozala, gora ta beerako zirkiña dagie, kanpai baten mobimentua ba'litza, Bitartean, Olaeta'ko mutikoak au abesten dabe:

Din-claun,
belaun.
Nor il da?
—Txeru zapataria.
—Zer egin dau?
—Pekatu,
auzoko txakurra urkatu.
—Ori baiño egin ezpa-dau,
bearko yako parkatu.

2) AULKIAK

Jokolari lain aulki. Naibeste jokolari. Oneitariko batek epaikari egingo dau, ta beste batek laguntzaille.

Areto baten ertzean, erreskadan naiz illargi-erdi antzera jartzen dira

aulkiak. Jokolariak erdian, korru egiñik, bira asko egingo dabez danak dakien abesti bati ekiñaz.

Ortan epaikariak txalo naiz txistua joko dau, eta guztiak ori entzueran, aulkietara zuzenduko dira, bakotzak jarleku bat arturik.

Aurretik, baiña, epaikariaren laguntzailleak, jokolariak biraka dabil-tzan bitartean, aulki bat kenduko dau. *Au* da, zortzi ba'dira jokutzen da-benak, jarten joatean zazpi besterik eztira egongo; bat, beraz, jarleku barik geratu bear, eta oni jokotik urtetea dagokio.

Erdira doaz barriro, ta lenengoan lez asten dira biraka ta kantuz. Epaikariaren kiñura, jolaslariak aulkietara joko dabe, baiña bat gitxiago dagonez gero, beste mutiko edo neskato bat geratuko da jokutik kanpora.

Orrelaxe jarraitzen da aulki bat eta jokolari bi bakarrik geratu arte. Bion artean da azken-leiaketa. Atzen-aulki utsean jartzea lortzen dauana dozue garaille ta txapeldun.

3) ALTXOR-BILLA

Ustez altxor edo diru-zisku bat dago gorderik. Edozer gauza izan dai-teke: bonboi-kutxa, gozoki-gangarra naiz beste moltso bikain bat.

Ibilli bearko dan bidean ezaugarri batzuk jarten dira or eta emen, altxor gordea dagoan lekuruntz begiratzen daben paper-zati idatzietan. Lenengo paper-zatian, esaterako, au irakurriko da: "Bi'de-amaikeran dagoan zugatzeraiño eldu ta gero ezkerrentza artu egizue". Bigarrena, ostera, billalariak aurretik esanari jarraituz, altxorra naikoa errez aurkitu legi-keen toktan ipiñiko da.

Jokolariai, asikeran, nundik idoroten dan gitxi-gorabera esan bear yake. Lenengo ezaugarriak bigarrenera zuzenduko dauz, ta orrelaxe azke-neraiño, altxorra gorderik dagon uneraiño. Eiztariak egoan lekuan itxiko dabe ezaugarria, atzetik datozenak be aurkitu dagikeen.

Altxor-aurkitze au banaka naiz taldeka egin daike. Baiña taldeka beti da barregarriagoa.

4) ARIN-ARINGA

AAutikoen naiz neskatoen artean jolasten da. Ogei laguneraíño izan o'aitekez jolas ontan sartzen diranak.

Bat doa, beste baten ondorik, ariñeketan. Arrapau ta gero, biak alkarri eskuak emonaz, irugarren baten billa dabiltz txopinka edo txauka. Gero irurak laugarrenaren billa, ta onela gora ta gora, azkeneraíño.

Jokatzen dabenak ogei lagun da'dira, emeretzi alkartuak ogeigarrena arrapau dagienean, ogei'garren auxe asten da bakar-bakarrik bigarren billa.

Joku oni "bandaiuxka" ibiltea esan oi dautsoe Olaeta'n. Ibiltari bakarrari, ostera, "saltzai".

5) ARRAUTZ-KARRERA

Bikote bi beintzat sartzen dira joku onetan. Etxeko edozein gizategitan —baita zelaian be— erreia bat egin beian. Lenengo bikoteko jolaslari bat, zutik, erreia orren mutur batean dago; bikote bereko beste jolaslaria, barriz, bekoz-beko daukan beste muturrean.

Zantzua egin ondoren, bata besteagana zuzenduko dira, biak agin artean tinko koillara baten kirtena eroanik. Koillarotatik baten, aurretiez, arrautza egosi bat jarriko da; bestea utsik dago. Alkarren ondora eldukeran, jokolari' bialc, eskuekaz ikutu bage, arrautzea koillaratik aldatu bear dabe.

Arrautzea beera jausiko ba'litz, au daroan jokolariak barriri jaso bearko leuke, baiña eskuakaz ikutu barik.

Ondoren beste bikoteak be bardin egingo dabe.

Ondo ta egokien dagien bikoteak dituzue txapeldun.

6) AKIT-AKIT

Mutil bi —diño Azkue'k— alkarren aurrean jarrita, taket bana be-launpean dabela, besatxoko biakin eutsi, ta eskuak, erregu egiteko lez, lotzen dautsez, esku artean makillatxo bat ipinten dautsela.

Batak dirautso besteari:

—Akit, akit.

—Etorri akit —besteak.

—Etorrita, zer egin bear dok?

—Eztia atera.

Eta gero, bien artean dagoan erraiara edo lerrora, tatarrez leiatzen dira. Ara eltzerakoan, beatez alkar jotzen jarduten dabe.

7) JAGOLEKA

Lenengo, joku-zelaia egokitzen da, an ta emen lerro zuzen bi egiñaz. Jagolea, aurretik aukeratutakoa, ezkerreko lerroaren erdirantza jarten da zutik; beste jokolari guzti'ak, bitartean, biñaka bateratuko dira beste lerroan aurrez-aurre.

Zuzendariak jokua asteko kiñua egin ostean, bikoteak, zelai erditik zear, beste lerrora aldatzen saiatu bear dira, erdian dagoan jagoleak ikututzeke.

Atxilo jausi dan mutikoak, jagole egingo dau urrengo jokuan.

8) KANDELA-KARRERA

Pelota-leku baten, esaterako, ederto egin daiteke jolas au.

Lagun bakoitxak zuzi edo kandela ixio bat daroa eskuan. Arin egitean, jakiña, itzali egingo yako bidean, arduraz ezpa-dabil.

Aruntz-onuzkoa zuzia itzali (amatau) barik egiten dauanak irabazten dau jokua.

IGOTZ

A B E S T I A K

1) TXALO-PIN-TXALO

Txalo-pin-txalo,
txalo ta txalo.
Katutxua mizpira
gaiñian dago.
Ba'dago bego,
bego, ba'dago.
Zapata barriai
begira dago.

Erreka-oxiñak
agortu dira,
ezta ezer bizi
euretan.
Txalo-pin-txalo...

Txoriak dagoz
kantak aiztuta,
ixil abotsa
gerizpetan.
Txalo-pin-txalo...

Seaska onduan
lo-lo kantatzen,
neure laztanari
begira.
Ubatatxua, lo, lo,
Eu, eu...

AZKUE (R, M.)

2) BONBOLONTENA

Bonbolontena,
ene laztana,
ez egin lorik basuan;
azeritxuak
eruingo au
erbia azalakuan
Lo!...

Ortzi garbian
izar artian
argi yagik illazkiak.
Beren izpiak
illuna dozak
begitxu orreïn aldian
Lo!...

3) LENENGOTXU ORI

La lara la la,
la la lara la lara,
la lara la la, la
la lara la la.

Lenengotxu ori,
punta-biatz ori,
beste guztien artian
txikarra dot ori.

Irugarren ori,
punta-biatz ori,
beste guztien artian
luzia dok ori.

Bigarrentxu ori,
punta-biatz ori,
beste guztien artian
nagia dok ori.

Laugarrentxu ori,
punta-biatz ori,
beste guztien artien
sendua dok ori.

Boskarrentxu ori,
punta-biatz ori,
beste guztien artian
lodia dok ori.

4) U30 ZURIOI

Uso zurioi, nora ua
ortze zabalaz egazka?
Mendi-aranak zuri yagozak
lats-iturriak 'leitu dozak.
Uso zurioi, nora ua?
aberri ataz eiotan?

5) ZELAIETAKUA

Zelaira dua neskatxa:
—axia dabil loretan—.
Zelaira dua neskatxa
maitasun-kanta kantetan.

Txirula ta danboliña
entzuten dira mendian.
Zerua dagon oztiña !

Argi daukazuz begiok,
gorputza dozu 'liraiña:
abestu daigun bi-biok.

Abestu daigun zelaian
soin orren lili-usaiña,
millazkaen antzo dantzan.

Zelaira dua neskaxa:
—erliak mur-mur loretan—,
Zelaira dua neskaxa
maitasun ona topetan.

Dantza-dantzari bedartzan
ete gara udabarrian?
Ara txindor bi zugatzen.

Zelaira dua neskaxa:
—ingumak dardar loretan-
Zelaira dua neskaxa
maitasun deuna gordetan.

Barre dagigun leunkiro,
barre auxe dan ixilla!
Tanbolin, abil, astiro!

Mendiko axe biguna,
ator zelaira lora-billa,
lorak eta maitasuna.

Zelaira dua neskaxa:
—axia dabil loretan—.
Zelaira dua neskaxa;
—urretxindor bi kantetan!-

LAUAXETA

6) EMONGO DEUTSUT

Ez deutsut, emongo, maitetxu,
nire biotzaren giltzik;
txoriak maite, . abia;
ez dau nai gizonen itzik.
Ez neutsun emon, maitetxu,
eskubide ain aundia;
txori-kantak maite ditut,
maiteago goi-bizia.

Emongo deutsut, emongo,
noizbait ni naizen guztia,
batera lortutekotan
betikotasun zuria.

Ez deusut emon, maitefxu,
biotz neurearen giltza.
Giltz orrek euki dauka-ta
zerutiko urre-bitsa.

Emongo deusut, emongo,
maite-laztan eta mosu,
biontzat gora-bidea
zeuk eskintzen ba'deustazu.

ERKIAGA'tar EUSEBI

A Z A - O R R I A K

Ama guztiz dulabre batek, bere baratzen guztitariko ortuariak zaintzen zituan. Egun baten, bere alabeari esan eutson:

—Koldobike; ikusten dozan, orri onen lepalpean agiri dozanan mota zurizke orreik? Orretariko bakotxa, arrautzatxo bat don. Gerorantz ortixek sortzen dozan, ik ainbeste bider arri'turik ikusi dozanan, margo ederdun asoin edo arrak. Eta arrok gero, an bean, jira-biraka ikusten dozanan mi-txeleta zuri biurtzen dozan, ainbeste kalte egiten dabelarik. Bazkal ostean arduratu adi, ba, guztia aztertu, ta aurkitzen dozanan arrautza guztiak zapaltzeko. Orixe egiten ba'don, gure azak beti orlegi ta mardul iraungo yone.

Koldobike'k orretarako astia eukiko ebala uste izanik, amak emondako aginduaz aztu egin zan.

Bere ama gexotu zan, eta aste batzuetan baratzera ezin izan zan jatsi. Baiña osatu zanean, bere alabea eskutik ebala, azak ipiñita egozan tokira eroan eban.

A zan ikuskizuna! Azok, arrak guztiz mauka iruntsiak aurkitu zitue-zsn; aza-orrien zanak eta sortzanak baiño ez ebezan lldoro!

Koldobike, bere naglkeriaren ondorenak zirala-ta, lotsaturlk, negar ta negar asi zan.

beste ikaskizun ederrago bat be, birrindutako orri orreitan idatzirik yagola yirudin. Auxe don:

Ekanclu txarra zapaldu daigun,
sustartu baiño lenago;
atzamarreko gatxa ba laster
zabaltzen don besoraiño.

SCHMID-MANTEROLA

I T U R R I A K

Arratia'ko kokola bat, bein baten, atxurra bizkarrera bota ta bere auzo-
•buruko iturrira joan zan.

Etxetik iturrira joiala bere buruari iñotsan: "Amaika kokolo ba yagok gure errian l Andrak etxe inguruan ura gura ta gizonak onetako iñoiz be zeregindu ez! Ointxe auzo buruko iturriari sustraiak neok topauko yautsazat, eta auzo erdi-erdian iturria ipiñiko yautsiet".

Bai ba, Arratia'ko kokolo onek erriko gizonak kokolotzat bota ta bere burua zorrotz egiten eban. Eta auntsak, ardiak, beiak eta... errapeetatik esnea emoten daben lez, lurrak be bere kolkoan ura emoteko errapeak eukazala uste eban; eta lur barruko errapeak topau, ekarri auzora ta bertan iturri barria ipintea gogoratu yakon.

Iturrira eldu zanean, iturri barruruntz, iturri-ariari jarrai, atxurraz zulotu eban; zulotu ta zulotu, ta iturriaren azkena ezin aurkitu. Ekin eta ekin, sator bat lez, lur barruruntz jo eban; baiña ura emoten eban erraperik ezin aurkitu. Bere jardunean jarraitu ta jarraitu, ta azkenean lur ertz batetik irestu pitin pat, bestetik erion apur bat, ta alan iturri-aria galdu yakon. Eta len iturria egoan tokian zingira bat baiño etzan geratu.

Uda legorra datorrenean, iturriak miesten dirala edonok daki. Euria egiten dauanean, euri-urak lurra bustiten dau; lur artetik ur au beruntz

eratziten da ta mendi barruetako oxiiñetara jausi. Oxiiñak irestuen bat ba'dauko, ura zulo ortatik Iturrira etorten da.

Mendiko oxin eta iturri bitartean lurra zulotu ezkeru, iturrira barik, urak zulo ortatik gora urtengo dau. Iturri barri asko onela aurkitu leikez. Ona zelan: Mendi oiñetik urrintxora iturri edo zingiraen bat ba'dago, mend! ta zingira bitartean lurra goitik bera zulotzen da, ta geienetan, iturri barria sortuko dogu.

Iturrietako ur artean alde aundiak dagoz. Batzuk atx-urak, bestatzuk metal urak, bestatzuk baitz-urak, bestatzuk uratsak, bestatzuk arbel-urak, bestatzuk ur-beroak, ta alan izaten dira.

Lur barru-barrutik datorzanak beroak izaten dira; azalazaletik datorzanak udan beroak eta neguan otzak. Baiña 29 metro inguru barrutik datorzanak beti, uda ta negu, bardiñean otzak izaten dira; naiz ta ura udan neguan baiño otzago dagoala begitandu.

Ura lur artetik mendi barruko oxiiñera eratziten danean, lur orren /oikeriak eta autsak eta elak narrastzen dauz; eta iturriko urak, narrastu dauan lurraren izatea, beragan ekarten dau.

Atx artetik bera eratzi dan ura, atx-ura izango da; burdin-lurretik zear eralki dana, metal-ura ta olan.

G, ARAMAIO

A T E Z A I N A

—Atezain ona izango zareala zeure bizitzan? Baiña, nok siñistu diños-tazuna? Ori egiztu al daiken testigurik ez ete dozu? —itandu eutsan bein andiki batek bere etxeko atezain izan nai eban gizontxo bati.

—Esango dautzut, ba, jauna —erantzun eutsan eskaleak—; berrogei urtean atezain izan naz, ta aldi guzti orretan ez daust iñok be illetarik jo, txarto artzan dodazala-ta.

—Ederto; ori orrela izango da. Baiña... testigutxo bat ba'zeunke, ori egiztatzeko. Ni sifiisgogorra be ba-naz-ta.

—Arraiea, ez yat ba errez izango!

—Zegaitik ez, ostera?

—Iltegi (kanposantu) bateko atezain izan nazalako.

IGOTZ

TXINDORRIA TA GERNIKA'KO ZUGATZA

Illuntzetako txori ar-zale
txindorri papar gorrla:
lagunak batu ta oa Arizpera,
kanta an kantatxu zolia.

Miru erpedun txori-jalea,
arren, lagaiok baketan,
Gernika'n dagon txindorriari
geure legea kantetan.

Zegaiti daukak txori kantari
laxtantxu orrek izentzat,
Andra Maria guztiz garbian
gozo-goza danontzat?

Txepetx kaskartxu eskabizkoak
Golgota mendi-buruan
Andra Maria zerutarrari
loia egin eutsan altzuan.

Andra Maria'k, oiñazez illik,
adore barik egola,
beran altzua egazti batek
nai eban garbi eiola.

Erroi, saierre, arrano, bela,
zozo ta beste lumadun
askok iraindu eben Maria,
egin nai ezik an lagun.

Papar-gorritxu txori bakartl
txindorri eder garbia,
beren begiko Maria'k artu
ta egin au maitagarria.

Ire musturtxu garbitzailleak,
zerutar askon gutarrak,
gure Aritzan sustraietatik
kendu ta amaitu beiz arrak.

Oiz-ganako bildots zuriak,
aurrerantzean zororik
etzaiz izutu yatortzunean
lepula billa txoririk.

Gernika aldeko aritz-txoria
abia-gaitan ba'doa,
Bizkai maitean izenagaitik
gertuiozue lepoa.

Biribildu eik abia bigun
bildots-ulezko beroa,
ta ire umetxuak seasko beuke
euskal Aritzan besoa.

Txori galtzaillek loituko ba'lsuz
Zugatz maitean orriak,
garbitu beioz *men ta* zintzorik
txindorri papar gorriak.

Illuntzeko txori ,ar-zale
txindorri papar gorria,
lagunak batu t'oa Arizpera,
kanta an kantatxu zolia.

AZKUE (R. M.).

BURUTSUA TA BURU-ERITXIA

Silbiano abat donea nagosi zan bakartegi batera, eldu zan bakartar bat. Zumazko otzarak egiten aurkitu ebazan bakartarrak, eta esan eutsen:

—Galtzen dan jatekoaren billa, zetarako nekatzen zarie? Iñoz be amaitzen eztan arimakoa da billatu bear dana.

Nagosi doneak entzun eutsan, eta ostatua emon eiola gelatxu baten agindu eban. Eldu zan jateko ordua; bakartegikoak jan eben, baiña osta tukoari ez eutsoen dei egin.

Belutuaz joian, eta arek batera ta bestera begiratzen eban baldin *deituta* ea etorkozan, gosez larri egoan-ta. Baiña etzan iñor be agiri, nagosiak onetara agindu ebalako. Estu ta artega, joan zan Nagosiagana ta esan eutsan:

—Aita, gaur etxe onetan ez dabe jaten?

—Bai —erantzun eutsan—, jaten dabe gizonak direanak; baiña zu legez aingeru edo gizon megopekiak direanak, eztauke lurreko jatekoaren premiñarik; guk aragizko gizonak legez jan bear dogu, eta orrexegaitik bera irabazteko bearra egiten dogu.

Aitu eban esakunea ta irakatsita gelditu zan.

J. J. M.

MARRASKULUA TA URKIOLARRA

Urkiolar batek, bein, Mañari'n bera etorrela, Durango'ra eldu baiño lentxuago bide zidor baten marraskulua aurkitu eban, adar biak agirian ebazala. Margul ta zurbil geratu ta gelditu zan bideztia. Ez eukan beste biderik aorrerazfeko: ezkerrean ibaia, eskuman orma aundi bat, *aurrean* marraskulua.

—Marraskulua! —esan eutsan mamutxoari.

Besteak jaramonik ez.

—Marraskulu! —barriro be—; bidea "libre" iztearren, orra or emerefziko bat.

Eta orduan ezagutzen ziran urrezko diruetatik txikiena, emeretzi errial balio ebazana, egotzi (bota) eutsan Urkiolarrak marraskuluari bere aurrera. Urruntxo geratu zan diru orritxoa; ta ikusi ez ebalako edo, marraskulua adarrak agirian egoan beintzat orduan bere.

—Marraskulu.', beste bat bere emongo neuskizu bada —esanda, bigarrena urtxoago jaurtigi eutsan.

JVlarraskuluak orduan be jaramonik ez. Estu egoan onegaz Urkiola'ko gizon ori.

—Marraskulua I —esan eutsan irugarrenean—; ez geiegi daukadalako, baiña irugarren emeretziko bat emongo dautzut; eta, gi'zona, itxidazu ibiltan.

Irugarren diru gorria ur-ur jaurtigi eutsan; eta, orduan, esker-usaiñean edo, bere adar lokak oskolpean gorde ebazan. Urkiolarrak a ikusirik, arduraz zapart eginda, arnasaz biriak bete ta Durango'rako bidea artu eban.

AZKUE (R. M.)

ONEZKO AMESA

Nik ezagutu neban Zugarramurdi'n ibilliriko sorgin atso bat. Arraia-nea! Sorginkerinaiak itxi ebazan baltz arek, mutil bik zaiñazurrak ausi etsezanetik. Erriko mutiko guztiak oiuka esaten geuntsen:

Atso zarra belandin
Ustel usaiña darin,
Agiñak be joan zaizkin,
Diabru zarra dirudin.

Guk ikasi gendun umetatik sorgiñik etzala, baiña alan be ez dakit zelan, zoraziten euskuen burua sorgin-ipuin aiek. Baraibar'ko Pantxike edoiatan gora joaten zala ta alako ta alakoak egiten ebazala, ta nok daki zenbat zorakeri siñisten genduzan nai ezik.

Bein batean, apal ostean, oera joan nintzan sorginkeriz burua nastuta... Loak ezin artu eustan, gura izanda be, baiña azkenean aspertu nitzan. Arek amesak! Iñon diran sorgin-zoko, ta zubi, ta estalpe, ta mendi, ta edoi gogoan neukazan. A bai zala l Izerditan irazartu nftzan, sorgin-bildurrik ez neban iñoz azaltzen, bizkorra ta izugatxa nintzala adierazoteko.

Urrengo gabean asiko zan amama, kontu-kontari: Ai, ene! Sorgiñik aitatuko ete dau? "Amama —esan neutson asi baiño len— bart ames izugarria egin dot; zer eingot olakorik gaur gogoan ez eukiteko?". Olantxe erantzun eustan: —Esan ik neugaz:

Amandre Sanla Ines,
bart egin dot ames.
Bart egin ba'dot txarrez,
agur egin dagian onez.

Bai nik esan gogoz l Eta, arrezkero, aztu be ez oindiño. Gau atan, izanez be, onezko amesa egin neban. Gure amama guztiz ona zan-da, askotan berba egiten eustan ni abade egitea gura leukela: geiago barriz praille sartuko ba'nintz. Gau atan zori onez, sorgiñak alde batera itxi ta ara zertzaz berba egin eustan. Amama joan oi zan oiñez Loiola'ra San Iñazio'etan, Jesuita edo Jesus'en Lagundiko jai andira. "Ikusiko ba'zeunkez —esan eustan—, ikusiko ba'zeunkez praille gazte areik, Azpeitiarren zai zurguan dagozala, danak lurrera begira, zuriz jantzita aingerutxuak lez. Aintxe ikusi gura neukatzu gixaxo ori"

Bien bitartean sorgiñez aztu nitzan eta oian sartu ezkeru, lotan gelditu. Baiña ez nendun aztu amamak erakutsiriko otoia: "Amandre Santa Ines..."

Urrengo amesa bestelakoa izan zan, bai. Praille nintzala ta zerura joango nintzala. Neure amesa, bai siñetsa, bai' egia, Jaungoikoa lagun. Andik urte gitxi barru antxe ikusi ninduan amamak prailletxo arein artean. Au onezko amesa !

Ikasi zuek be umetatik, nik lez, ta ez aztu otoitz on ori:

Amandre Santa Ines,
bart egin dot ames.
Bart egin ba'dot txarrez,
gaur egin dagian onez.

N. O.

no

TXOMINTXO'REN ALTXORRA

Bein baten, ama bat ba-zan eta onek seme bat eukan, Txomitxo eritxona. Ez eukien gauza andirik; obeto esateko, guztiz lander, txiro, ez eukiak ziran. Eta egun baten, amak, Txomintxo'ri onela diñotsa:

—Ene seme, oso estu bizi gaituk, bai?, eta naitaez diru billa joan bearko dok, errietan zear.

—Bai, ama, pozik joango naiatzu, eta aberats, oso aberals biurtuko naz. Ez izan nire ardurarik, Jaungoikoak lagunduko daust-eta.

Txomintxo'k amar urte baiño ez eukazan; alan be, txit erabagitsu ta azkarra zan, eta egun artantxe bertan, biderako bear ebana gertaurik, ba-joian etxetik.

Amak, agur egitean, eukan bakarra emon eutsan: oillasko txiki-txiki bat. Alkar besarkatu eben, eta andik ordu gitxi barro, etxetik oso *vrrin* aurkitzen zan Txomintxo.

Illundu ebanean, bide egalean ikusi eban basetxe batera zuzendu zan.

—Maiteok, artuko nindukezue emen gaba emoteko? —itandu eban, ara eldu zanezoxe.

—Bai, bai! —erantzun eutsoen ango jaubeak—. Sabaian lo egin zeinke.

—Eta nire oillaskotxoak, nun lo egingo dau? —galde Txomintxo'k.

—Zure oillaskoak? —Ugazabak, egazti'ari begiak zorrozturik, diñotsa: Oillokaz lo egin dagike.

Ugazabak iñoana egin zan. Baiña, biaramon goizean, bere oillaskotxoaren billa joan zanean, au zori txarra!, oilloak jan eutsoen egaztitxoa, eta negarrari ezin ak eutsi. Urrindik entzuten ziran Txomintxo'ren negar uluak:

—Ai!... Oillaskotxoa jan daustie, eta ez neukan besterik mundu onetan! Nire zori gaiztoa! Ni're biotz-larria!

Negar-zizpuru ta adia areik entzunik, urten eben etxetik, eta zer jazoten zan jakin ebanean, esan eutsoen:

—Ez egik negarrik egin! eutso, emen daukak oillo bat, joadi bakean. Txomintxo'k artu eban oilloa eta, egindako aldaketeaz pozarren, bideari ekin eutson barrien barri, zorion billa beti.

Ibilli ta ibilli, landetxe baten ondolik igaro zan, eta gaba gain etorkiolako, gau-aidia bertan emotea erabagi eban.

Pam, pam!... jo eban etxeko kisketean.

—Nor da? —itandu eutson neska gazte batek, atea zabaltzean.
—Txomintxo nozu; bidez noa ta gaba ementxe emon nai neuke.
—Ederto, morroikaz lo egin zeinke.
—Eta nire oilloak? —gaiñeratu eban mutikoak.
—[re oillo ori, itxi egik or txarri-tokian.

Orrela egin eban, eta gau atan be, nekearen nekez ebagita egoalako, lumixar baten antzera lo egin eban.

Urrengo goizean, jagi ta oillo billa joan zan; baiña zurturik geratu zan an aurkitu ez ebanean: txarriak jan eben gaixoa.

—A!... oiuka asi zan, garratz be garratz negarrari emonik.

Aren intzira ta garrasik entzunaz, danak urten eben etxetik.

—Txarriak jan daustie oillotxoa, eta bera zan nik munduan neukan guztia! —gero ta gogorrigo iñoan Txomintxo'k.

—Ez egik negarrik egin, mutiko; emen daukak txarri-kume bat; artik berau ta ater egizak negarrok.

Txomintxo'k, oso poztua ta eskerrak emonaz, barriri ekin eutson bi-deari, beti zorion billa, biziteko diru-billa.

Luzaro ibilli ondoren, mendi bizkarrean dingilizka lez aurkitzen zan erritxo' batera eldu zan. Errira sarreran bertan, mandio edo aterpe bat ikusi eban, eta gaba bertan emotea otu yakon. Beizain batzuk ziran txabola aren jaubeak, eta an igaroten eben gau-aldia euren abelgorri ta guzti, batez be udaran.

—Or, lastategian lo egik —esan eutsoen.

—Eta txarri-kumeak, nun lo egingo?

—Itxi egik bei eta idiakaz.

Baita itxi be, Txomintxo esanekoa zan eta. Bfaramon goizean, bere txarri-kumetxoaren billa joan zanean, ona, idiak jan eutsoen errukarria.

—Ai, ene! Ni bai zori txarrekoa!...

Aren aiots eta negar zotifñak *entzun* zeitekezan erriko bazterrik ezku-tuenetik be. Ain ziran gogor ta erdiragarriak!

—Zer jazoten yak, mutiko? —Erritar guztiak inguratu yakozan.

—Ene txarri-kumetxoa!... Idiak jan daustie, eta axe baiño ez neukan mundu onetan. Ai, ene!

—Ez egik origaitik negar egin —esan eutson jaubeak—; eutso, emen daukak idi bat, ez geiago negarrik.

Eskerrak emonda, joan zan Txomintxo pozik efa alaitsu.

Ibilli ta ibilli, eguerdi alderuntz solo ondo baten jesarri zan; soloan lugin bik inarduen lanean; lurra goldatzeko idirik ez eukielako, atxurrez ontzen eben berau, baiña lan neketsua yaken oso.

—Txomintxo urreratu yaken eta au esan:

—Gura ba'dozue, neuk itxiko dautzuet, soloa goldetu dagizuen.

—Ederto, mutiko, ederto! —erantzun eutsoen pozez gaiñezka.

Gertatu eben bear zana, ta bertatik asi ziran araketan. A bai nasai bear egitea f Idi a bai langille ona!

Baiña aren poztasuna etzan luzerorako izan. Solo-ertz baten, bada, arriz beteriko une baten, goldea ondartu yaken eta, egiñalak egin arren, ezin izan eben andik atara.

Besterik eziñean, lurra atxurtu bear izan eben irurak, lana galazoten eutsen eragozpen eta zoztorra alderatu arte. Azkenez, onako gorputz gogor bat aurkitu eben, arri eskerga zirudiana; atera nai izan eben zulo atatik, baiña sor ta lor konturartu ziran etzala a arria, kutxa ikaragarri bat baiño.

Izerdi-patsetan, baiña adoretu, atera eben azkenik; eta, edegitean, zurturi'k geratu ziran irurak, urrezko txindiz ta arri-bitxiz beteta egoala ikusirik.

—Altxorra! —oiu egin eban lugiñetatik batak.

—Au dok dirutza! —iñoan bestea.

—Auxe zan, egiaz, nik billatzen nebana, dirua! —gaiñeratu eban Txomintxo'k, oso zirt eta zarteko.

Lagun biak begira geratu yakozan; eta konturaturik a ta aren idi barik ez ebezala aurkitu al izango alako ondasunak, dirutzea iru zatitan banatzea erabagi eben; bai egin be.

Txomintxo'k, urre-txanponezko ta arri-bitxizko zakuaz ta gaiñera idia, bizitza guztirako be oso aberats zala-ta, etxerako bidea artu eban, pozez beterik.

Urriñetik ikusi eban bere amak zama andiaz etorren semea, ta ariñeketan bidera urten eutson; baita oso pozik besarkatu be.

—Ama, dirutza andiaren jaube nozu, ta ez dogu geiago goserik ez bear-izanik izango.

Txomintxo'k eta amak, zur ta ondo, eralgi eben euren dirutza: solo-zati andiak erosi ebezan, eta etxetxo polit bat. Bertantxe bizi izan ziran, lan eginda, luzaro, poztasunaren magal goxoan.

IGOTZ

ASTOKILLO

Astokillo'ri jazo yakon au. Andiki-etxe baten ate-zain egoan, zaartu zanean. Ugazaba-andreak esan eutsan bein, iñor ba-etorren bere billa, etxean ez egoala esateko.

Gaba eldu zanean, joan zan ateraiño, gora, ugazaba-andreagana, ta banan-banan aitatu eutsazan bera ikustera etorri zirean guztien izenak. Onen artean ugazaba-andrearen aizta baten izena esan eban. Orduan ugazaba-andreak, "Astokillo, ori egingo euan ba? Len bere esanda daukat, aiztearentzat beti nago etxean".

Urrengo egunean, ugazaba-andrea kalean ebillen artean, eldu zan bere aiztea etxera. Astokillo'k, ugazaba-andrea urteten ikusi arren, goian egoala esan eutsan etorri barriari. Igon eban onek, eta, jo orra ta jo ona, ezin aurkitu al izan ebanean, atezaiñagana jatsi ta esan eutsan: "Eztok esan ba goian dagoala? —Kalera urteten ikusi dot, baiña berorrentzat beti dagoala etxean, esan eustan atzo.

ZORIONA

"Azkenez be, zorriotsu!" Ona emen Ampere jakitunak, bere ilobi ganean ezartea gura izan ebazan itzak.

Baiña, zer da zoriona?

Batzuentzat, guztien "zera" ta iñok egundo izan eztako bizitza. Al-diaren liburu edegia, joanean gomutaz eta etorkizunean itxaropenez, oraiñera iñoz eldu barik, noznai erabilli oi dogun aditz guzurria.

Nik, orrafitiño, zorion ori zeure eskuan daukazula diñotzut, ume, poz andi bat iragarriaz.

Zoriona: ezta, ezelan be, aurkitzekoa, norberak egiten dauana baiño. Barrutik yatorku, ez kanpotik.

Bai, egia diñotzut: biziro opa dozun Zoriona, ez billatu or zear; zeugan bai-daroazu. Zetan, baiña? On eta guren dana, noznai egiteko erabagi zindo arturik, begira bet! ta nun-nai argi orreri. Etzara damutuko. Orrez gaiñera, iagundu beste enparauai be, alegiñez, bizitzeak berez dauan garratasuna zerbait arindu ta legutzen. Orrela egin ba'dagizu, uste on izan, zure zoriona askoz jator, ditzikor eta aberatsago izango yatzu.

Zoriontsu izateko, ez egiozu ez daukazuari begiratu, daukazuna ondo gorde ta erabili baiño.

Askuen ustez, aberats izan ezker, zoriontsu gara. Baiña ezta egia; onakoak ara orduko, artuaz batera jan bear eben ogia garraturik bai dabe aurkitzen. Zoriona ta egite onak, ezin berandutu geinkez. Izan be, aberats baten iruzur eta kezkarik mingotzena, zoriona diruz erosi eziña da. Naita asko euki, ezin eskuratu biotzak opa dauana: or bere ezten miña.

Oraindik ba-dogu beste bide oker bat be zoriona geugantzeko: guzur bidea. Gizon erkin, gaizto ta galduak dabilta bide ortatik. Goiz edo berandu, nai-ta-ez, amiltegira daroa onek: Jeza illun sakonean bet! itsu izatera

Auxegaitik diñotzut, ume: Zoriona ezta burruka leiatsu baten azkena Laster aurkituko dozu, ta errez bidez zabiltzala, ondo ibilten ba'dakizu Egun guztrak, zure eginbear guztiak, gozotasun-usaiñez josita dagoz. TxaS' tatu egizu gozotasun ori! Ezker-eskuma ona erein beti. Etzara bakarrik bizi, lagun artean baiño. Goikoaren begipe gozoan, irri-barre ezta erakutsi ingurumari dozun lagunari. Onek zorionaren ate nagusia, eguzki betea bai-zen ditzikor, edegiko dautzu.

IGOTZ

MUTILLA TA MUSKERRA

Igande-goiz baten, "Otxintxueta"-ko mutil gaztia, ez mezarik entzun, ez ur onetsirik artu, kistarraren ezetariko biarkunik betetu bari'k, patxaraz-paxaraz basora juan zan.

Mutilla, juan eta juan ba-joian bidean; eta aurrera ta aurrera egiñaz, mendi-gaillurrerantza egiten eban beti. Eta bide zati andia olan igarota, sastraka arte batera eldu zanean, pizti narraz batek ezkerreko oiñean zart!

minbixi mingarria egin eutsola oartu eban. "Ai, ene!" andi bat egiñaz, begirutzen dau ta musker andl batek bere oiñean aboa ezarrita eukola ikusi eban. Estutu zan, larritu zan; eta esku-makilliaz zartada errimiak emoten eutsozan arren, ikerarik bez muskerrak, gogor bertan.

Ori ikusita, mutilla, ara inguruetara begi-luzez begiraturik, laguntza eske didar baten asi zan. Bere didar zolietara, bertatik, atsotxu bat agertu zan. Eta atsotxu zarra, mutillaren oiñean alako musker andia ikusi ebanian, gelduta geratu zan. Eta, zur eta lur eginda, bere esku biak buruan ebazalarik, mutillari errukf andiz esan eutson:

—A... mutil!... Ederra daukok aldian... Gaur, igandez mezarik entzun dok?...

—Ez, ezlot entzun —erantzun eutson mutillak, negar muskerioz.

—Eta ur bedeinkaturik artu?...

—Ezta...

Kistar-biarkunak ez ebazala betetu ikusi ebanian, atsuak barriro be bere esku biak burura jaso ebazan; eta, olan luzarotxoan egonda gero, tamal-tamalez esan eutson:

—Ire galdua, mutil!..., ori olan ba'dok; orain, pizti orren aboa ire arsgitik aldentuteko, iru erritako elexako kanpian amar miñutuen barruan ots-egin bearko yoek. Bestela... ire zori txarraren zoritxarra. Muskerra oiñean dokala, or egon bearko dok betiko.

Itz bildurgarriok entzunikoan, mutillak, garratzago negar egiten eban; amar miñuteren barruan iru erritako kanpaik jotea gauza gatxa be gatza izango dala-ta.

Negar asko-asko eginda gero, bere begiak begirakune illunez zuzenduta, atsuari abots illunez itandu eutson:

—Eta... amar miñuteren barruan, iru errietako kanpaiak, nok joko dauz?

—Besterik ezian, neuk joko vuadaz, mutill... —erantzun eutson atsuak errukiz. Ori egiteko, eure obenakaz damututa agoan ala ez jakin bear, baiña... Damu az, eztok?

—Bai, damu naz... —erantzun eutson mutillak, bular-joka.

Orduan atsoa, "ondo yagok" esanda, iru erritara joan zan; eta euretariko elexetako kanpaiak gogo beroz jo ebazan.

Lenengo erriko kanpaiak bere otsagaz batian esan eban:

"Txalan, txalan, mezarik entzun eztaulako, muskerra oiñian".

Bigarrenekuak, barriz:

"Txilin, txilin, ur bedeinkaturik artu eztaulako, muskerrak min egin".
Irugarrenekuak, ostera:

"Txolon-txolon, txarto egiñaz damutu dalako, ontxe bertan zori on".

Eta, azkenengo kanpai otsagaz batian, muskerra, mutillaren ondotik arrapaladan aldendu zan; eta, bide-zidorretik arin-arinka juanda, sasipe baten sartu zan.

Olan, mutilla, muskerraren abotik azke geratu zan; oratuaren ezau-garririk be geratuten etxakolarik.

MAÑARIKO

U R O T Z A

Udako egun bero-beroa da. Koldobika, amak zeregiñen batekin beren-berengi bidalduta, alboko uri batera joan da.

Laguntxoak olgetako bere begira egongo dirala-ta, etxerantzekoan, ari-ñeketa baten asten da mutilla bidean; eta, jaki'ña, zenbat eta ariñago egin, ainbat neke ta izerdi geiago dakar gorputzean. Azkenean, egarriz itota, bide erfzean agiri dan iturritxo batean danga-danga ura edaten asten da.

'Ura oso otr dago. Koldobika, barri'z, barrutik guztiz bero; ta, olan-goetan jazotan dana, jazoten yako, bere ruhurtza-gabekeria dala ta ezta, gure mutil gizajoari be: ura edan eta beingoan, otzikara itzala susmau dau gorputzean.

Etixeratu danean, sukar ukaragarri batekin oian sartu, ta, ainbat egu-netan, bai ilgo ez ilgo estu ibilli da.

Ezin dau ulertu Koldobika'k oindiño, urak, ain gauza gozoa ta ederra izanik, zelan egin leikion orrenbeste kalte norberari gorputzean.

Gazteak: izerdttan zagozenez, edo arin egin dozu elako gorputza bero daukozuenean, ez egizue, arren, ur otzik edan, kaltegarri izango yatzue-ta.

ARRUGAIN

IZKIRIMIRIAK

Txomintxo, mutiko koskorra, oso ona dator itxuraz. Asko ikasten dau, amari esanak egiten dautsoz...

Gaur goizean pezeta bi eskatu dautsoz amari.

—Eta atzokoak nun dozak?

—Gizon beartsu bateri emon neutsazan.

—Ederto, mutil, ederto. Eutsi bosteko bat. Zergaitik emoten dautsozuz, ba, gizon orri?

—Gozoak saftzen dabillelako.

Indar-batzaldi batean iru gizon agertu ziran. Andi, zabal eta azkarrak bi. Txarra, betarren antzekoa, bestea. Ba-ekien euren egin-bearra: burdiñaga lodi bat biurtu.

Lenengoa, bere ister lodietan burdiñaga ezarriaz, asi zan. Enaiz banaiz egon ondoren, garaille, burua ta besoak —burdiñaga erakutsiaz— jaso zituau, Jente guztiak txaloz aren garaipena ospatu eban.

Bigarrena, lengoa baiño oraindik azkarragoa eta gizenagoa zan. Bere belaunen gaiñean burdiñaga arturik, ba-ziarduan onek be. Larri samar baiña, alan be, okertu eban azkenean. Txalo galantak barriro be.

Irugarrenak —gizon txiki ta Igarra— danak arrituta egozalarik, artu eban berari egokion burdiñaga ta ankan ezarriaz asi zan okertu naiez. Guztien begiak aren gaiñean tinko egozan. Etzan itzik entzuten. Danak gizon txikiaren ausartasunakin arrituak. Gaixoari gorputzeko odol guztia arpegira etorri yakon, noski, egiten eben indarragaz. Azkenak emoten ziarduala iduritu yakonean:

—Egin dot —esan eban.

—Zer gin dok ik? —itaundu eutson bat-batean agintzailleak.

—Anka apurtu, gizona.

TXANTXANGORRIA TA IPURTARGIA

Gau illuna zan, iretargi bakoa. Txantxangorri bati, elorri-esi galñez nora-ezean egazka eblllela, arantzea sartu yakon ankatxoan. Min bizitan, txi!, txi!, txi! egian zarata. Balña, zelan atara, illuntasun andiaren erdian, ankatxoko arantzea?

Zorlonez, Ipurtargi batek entzun eban txori' gaixoaren negar-ulu, eta ltandu eutsan bedar artetik:

—Zer daukak, txoritxo, orren estu ta larri?

—Oi, ene ipurtargi eder! —erantzun eutsan txantxangorriak—, elorri puntea josi yatan araglan, eta illuntasun ontan ezin yonat atara.

—Etxaik apur baten —besteak jardets!; ta bere argitxoa ixetu eban—. Ikusten al dok?

—Bai, eskerrik asko! —txoriak; eta aren argiak lagunduta, arantzea atera eban aragltik.

Bltartean, zeru alde guztia areago i'llundu zan. Urriñera, trumoiaren otsa entzuten zan, eta olñestu arglak dir-dlr eglen ortzipe zabalean zear.

—Bildur naz! —oiu ipurtargiak.

—Ater neugaz —txantxangorriak ari—. Etxetxo bat eratu egingo daunat.

Moko ta pikuz lan egiñlk, orri batzuk eundu ebazan, mamokokoak arglz laguntzen eutsan blartean. Ura txorroka jausten asl zanean, izaki txlki biak etxetxo berdearen aterpean babestu zi'ran; au da: alkar maitasunetik sortutako aterpe ezti gozoan.

IGOTZ

ELTXUEN BURRUNDARAK

Eull txlklei "eltxo" derltxegu, andiei "euli". Euliak egazkin andien antza dabe; eltxoak, barrlz, egazkin txlkiena. Areik astiro ibilten dira, oneik arin; areik gorputz andia ta ego laburrak dauklez, oneik soin ziztriña ta ego me luzeak.

dara andiaz igaroten diranean, gu itzartu egiten gaitue.

—Zergaitik? Zuk ete dakizu?

—Niaz-ta "eltxoak" gorrak izan, gu "gorrak" ez garealako.

GOTZON A.

GUDALDIKO TIRUAREN TXISTUA

Gudan (gerratean) bizi izan zan andra batek iñostan bein:

—Niri bildurrik geien tiruen txistuak emoten daust. Ene! Baten baiño geiagotan neure belarri ondotik igaro ziran balak! Egazkiñak eta beste arrastada guztiak ez eustien bildurrik emoten; baiña tiruen txistuak galduta izten nindun.

—Ba, niri —erantzun eutsan gizon batek— tiruen txistoak ez eustan ardurarik emoten. Bapez, bapez gero!

Zein ete egoan artez, eta zergaitik?

—Gizona! Tiruen txistua, ba, firu-kakua joanda gero entzuten dogu, Arek, tiruak, ez dausku gatxik egingo. A juan zan!

GOTZON A.

G A U A

Gauak esan leio egunari: "Neure altzoan jaio zirean izarrak, neure magalpetik arra-arradaka urten eban itxasoak: neu naz zeruaren ama".

Gaua, egun argitik begiratuta ikusi ezker, geriza bat baiño ezta: luzea batean, bestean laburra. Lurrak, eguzkiaren atzetik biraka biraka dabillega,

egiten dauz luze-laburketa oneik? Batzuk esaten dabe gaua luzeagoa danean, neguan, lurra ta eguzkia alkarren urreen egoten dirala.

Argiari illuna, eguzkiari gerizea ta egunari gaba atara al izateko, erdi-unea da onena. Lurra eguzkiagana geiegi urreratu ezkeru, agur gerfzea, agur illuntasuna ta agur gaua: suak artuko leuke ta kltu. Eguzkiagandik geiegi urrunduta, barriz, neguak urte-lagunak galduko leukez, eta gauak eguna; otzak ez leuke eukiko nor otzitu, eriotzeak bere ez nor il.

Gauak adi'skide on bat dauko, ia bera baizen zaarra, edo beintzat lurraren ganean bera baizen luzaro bizi dana: loa. Gaua, gure gorputzak lotan ipiñitakoan, geure arima edo gogoakaz jolasean ibilten da. Gauaren jolasik eta olgetarik atsegingarriena izaten da, geu i'ratzartueran, geure adiña irudiak eukiriko ondasunak gogoratu eziñik ipintea. Gauzak izen bana bear izaten dabe, ta gauaren jolasaldi onei "ames edo ametsak" ipiñi' yake izentzat.

Ezta pozez aseten gaua, gure arimak zoraldian ipintez: ego-aizeari zeruraino igon eragiñaz, izarrakaz putz eta putz ibilli eragiten dautso. Eta ikustea baiño eztago: orduan izarrak kiñuka egoten dira, briskalariak irukoa daukenean legez. Izar oneik "kiñulari" izenaz ezautu eroezan euskaldun zarrak.

Lurrean bizi izan dan gizonik altsuenak, sendoenak, jakintsuenak izar bat amata al izan ba'leu, arroen arroaz lurra be ez eban artuko. Gauak, barriz, izar baten orde guztiak ogeta lau ordurik ogeta lau ordura amata edo itzali arren, iurra ez-eze baserririk eskolenak, etxerik tutuenak, gelarik kaskarrenak, intxaur-azal batek artu al izaten dau. Anditasuna ta al izateak, egunerokoak izan ezkeru, euren antza galdu daroe: txikitasuna ta ezin-izatea irudi izaten dabe.

Izarrak amatatea, arazo kaskartzat dauko gauak. Berak ez ekiala eguzkia altzoan jaio yakonetik dabil auxe amata eriñik; baiña eguzkia, eritxi baten, beren bildur dala, igesi dabilkio beti. Etorriko da, baiña, eguna eguzkiak igesik egingo eztautsana, eta ketan ilda gautuko dana. Orduan gauak egunari, au bizi ba'litz, esan al izan lekio: "Neure altzoan jaioriko izarrak eta eguzkiak, neure altzoan aurkitu dabe aspaldion itxaroten daukeen eriotzea. Nor ni langorik? Jaio barik bizi naz, il barik biziak betiko itxiko nau. Nire naibagerik eta tamalik andiena da, neure illezkortasuna nok miraritu ez izatea".

EKETA

Baratzain batek bere etxe aurrean mats-aien bat ipiñi eban; eta, aziaz aziaz, bere adar-ostoakaz etxe aurre guztia estaltzeraiño eldu zan, mats-mordo gozoak bere barruan ezkutaurik.

Auzoko batek mats-landara ederrari bekaitzez begiratzen eutson eta, gau baten, adarrak indartsuenak ebagi egin eutsozan.

Urrengo egunean, ugazabak bere parrea alan moziuta ikusi ebanean, atsekabe andia artu eban; aldi atan, ba, ez ekien ondiño, matsak igali ugariagoak emoteko, adarrak moztutea onuratsua zanik.

—Gogoz negar egingo neuke —iñoan gaxoak—, neure matsak negar egiten daben lez, bere adarrak ebagi dautsiezala-ta!

Baiña gauza arrigarria! Urte atan mats arek uzta ugariagoa ta mordo ederragoak emon zituan, ordurarte emon ebazanetatik ederrenak.

SCHMID-MANTEROLA

OTSEINA TA KERIZAK

Kerizak urri egozan aldi baten Friedrich (Federiko) Prusia'ko erregeri, otzarakada eder bat bialdu eutsan norbaitek. Erregek, orduan, Ciist eritxon otsein bati deitu ta otzarakada osoa erregeñari eroan eiola esan eutsan. Otsein onek, bakartu zanean, kerizak ain gorri eder jan naizkoak ikusirik, etorkizunari jaramon baga, banan-banan lenengo ta biñaka gero, otzara guzia ustu ta urdailla ederto bete eban.

Arik egun batzuetara, Federiko'k itandu eutsan emazteari, ea kerizak gogoz jan ebazan.

—Kerizak? Zelango kerizak? —eranzun eutsan erregeñak.

—Clist otseiñagaz bialdu neutzuzanak.

—Nik eztot kerizarik garaurik bere artu, ikusi bere ez, ain gitxi jan.

—Ori bere bai? Neok emongo dautsat otsein salobre orreri aspertuko daben zerbait.

Sartu zan gelan errege ta berba oneik ezarri ebazan paper baten: "Emoiozak au daroanari ogeta bost zartada eder, ta emon daiala artu dabezanen siñisgarria". Clist'i ots egin eutsan gero, ta paper a, edegi barik, etxe-zaiñari eroateko agindu eutsan, crantzunaren begira egoteko esanaz.

Otseiñak, zer ete zanen bildurraz, besteren bategaz paper au bialdu nai izan eban. Erregeren jauregitik urtenaz batera judear bankeru bat aurkitu eban, ta erregeak emoniko papertxua eroan eiala eskatu eutsan. Judearra eztitan egoan jauregi-gizonakaz artu-emona eukalako, ta pozarren joan zan etxe-zaiñagana. Eldu zanean, onek irakurri eban erregeren agindua ta zain-tzan egoan gizonari deitu eutsan. Judearrak uste eban, erregeren mandatariak berarizko abegi onagaz artuak izaten zirealako, agertu zala bigarren gizona; ta poza euki eziñik, zer edo zer esan bear eban-ta, beragaitik ez alako gora-berarik artuteko esan eutsen.

—Adiguri oneik oi direanak eta nai-ta-ezkoak dira: laster ikusiko dozu.

Etorri-barriari agindu eutsan oratu eiola judearrari eta emon eiozala ogeta bost zartada *edsr*. Esan ta egin: okertuta arriturik itxi eben mandataria, zer esan ez ekiala; ta iñora joan orduko, artu ebazanen siñisgarria emon eragin eutsen.

Erregek au jakin ebahean, barrea ezin euki izan ei eban; eta, judearrak diru asko aurreratuten ebalako, mandatuaren gora-berea aztu eragitearren, mesede bat edo beste egin bear izan eutsan gero.

EMAKUMEAK ETA IXILLEKOA

Astuna antza ixilla gordetzea, batez be andra maratillentzat; ba-dira, orraitño, gizonen artean be min-zolitoak.

Senar bat bein, oian egoala, bere emaztea arlo orretan noraiño eltzen zan jakitearren, dei-oiuka asi zan:

—Ipar biguna l Zer da au? Ezfn dot geiago l Ler egin bearrean nago l Ai, zer da au! Arrautza bat ez dot ba ipiñi!...

—Arrautza bat?

—Bai, enetxo, or daukazu: bero-bero oindiñokarren. Ez egiozu iñori esan, bestelan oilloa deituko leuskide.

tzak gau ijlungaz batera uxatu ziran. Egundu zaneko, emazte txatxalea, oia itxi ta ariñeketan joan zan auzoko lagunagana. Eta, pozarren, etxera biurtu zan itzontzia, bere lagunari barria emon ostean. Bestea, bertatik, irrikatzen egoan jakin ebana zabaltzeko, eta berealakoan asi zan asi be etxerik etxe zabaltzen; baiña, arrautz bateren orde, iru zirala esanik. Eta etziran irutan gelditu, beste txaldan batek ixilka-mixilka lau zirala iñoan eta.

Era ontan, geituaz joiazan gizonak ipiñitako arrautzak. Errondo? Gau illunak mendi ta soloak maindira baltzez estali orduko, arako arrautzak eunetik gora ugaritu zirala.

IGOTZ

K E R (Z A K

Nori atsegin ez kerizak? Niri neuri bai beintzat! Udabarrian batez be, gozoak bai dirala, naiz baltz naiz gorri! Bizkai aldekoetan, niretzat beiñik-bein, Mañari'koak. Mutil kuxkorrak giñanean, guk bai tripakada galantak an inguruetako zugatz orritsu aletsuetan! Azur eta guzti' iruntsiten gebazan geienik. Ase arte jan ondoren, iñoiz negar egiñak gara geiago ezin janez: San Pedro'ren antzera, sabel biko izan nai orduan.

Bairia kerixa onak artzeko, zugatz onak sartu bear dira; gero iñausi, ondoren mendu, eztitu, edo gure giputzak esan oi dabenez, txertatu. Olaxe lortzen dira kerixa onak. Baiña ori be ezta naikoa; Jaungoikoaren atsa bear dabe: "Nik erein, Apolo'k ureztu, baiña Jai'ngoak indarra emon", diño Paul deunak.

Japon'en iñun baiño kerixa zugatz geiago dagoz. Mendi ta baratz guztietan, kerixa zugatzak baiño ez tira ikusten. Alan be, iriun baiño kerixa gitxiago jaten da Japon'en.

—Zergaitik?

—Japon'eko kerixa arbolak, lora eder ugari bai, baiña ale bat be ez dabe ekarten. Kerixa zugatzak lore-zugatz besterik ez dira arako; mendi ta zelaiak eder ta txukun jazteko bakarrik. Jateko ez, oster, ezer ez dautzue ekarten eta. Japon'darrak, kerixak jan gura dabezanean, atzerritik eroan bear izaten dabez.

GOTZOM A.

ARRATE'KO IZARRA

Nora zoaz, usotxo, ain edler egazka?
Arrate gaiñerantza, Izar zurigana?
Ortxe claukot nik Ama mendi tontorrean,
Zugatz-arkaitzez jori, leza bakarrean.

Oi mendi zoragarri, egiz atsegiña,
Beiñola nire Amak beretzat egiña l
Maite-miñez naukazu, Izar me-naroa,
Ta uso antzera, orra doakit gogoa.

Eguzkiaz batera oro da kantani
Goi-arnasaz beterik, nornai ameslari.
Ni be zure miñetan, ameskor ta txori,
Zu goretsi naiean naukazu txit gori.

Zu zaitut Izar ta Ama, Arrate gaiñean,
Zeruko bide zuzen erbeste illunean.
Argi nagizu, arren, indartu ta poztu,
Ta azkenik, ene Ama, zerura nagizu.

X.

ESKUTITZ LUZEA

GoiAmerikarrak be izaten dabez euren apostu politak!... Ango gudariak atzerrian dagozanean, espa gogorra izaten dabe euren artean zeñeri eskutitz, karta, luzeagoa etorri.

Oraiñarte Pensilvania'ko batek dauko gaiena, rekorra. Luzea izatearren bere lagunen bitartez, erritar guztiak berari karkatxo bat idaztea lortu eban, eta gero guztiak, aldraka, eun ta bi metroko eskutitxtxo egin eta bialdu eutsoen. Irurogeitik gorakoak, orrez gaiñera, gudari bat baiño geiagok artu izan dabez.

Andia ta gauza ederrcz apaindua izan ez arren, guztiz ikusgarria da Migel Goi-aingeruaren elizatzu au. Iru arri andi zutunik goi-aldean alkarri dautseela ta euren ganean beste andi bat, auxe da eliza atan dagoana. Arri artean dagoz iru altara, aurrerengoena Done Migel'ena dala. Elizkizunik dagoenean erdi-erdian arri ikaragarriak eta inguru guztiak Markiña ta Je. meintarrez beterik egoten dira. Antxiña bakartegia izan ei zan; gaur eztago-bakartarrik.

Gaurko elizatzua 174Tko urtean egifia da. Iñok eztaki arri arek bertan aurkituak direan, ala uiol nagosia izan zanean urak ekarri ba ebazan, ala gizonen batzuk era atan imiñiak ba dira. Gizonak imiñiak izateko, astunegiak direala deritxagu, batez be iruren ganean laugarrena zapalgarri ezarteko. Urak ekarriak izateko, ta alan geratu, Jaungoikozko gauzea dala esan leike. Bertan billatuak izan ete zirean dagoz ikusten dabezan geienak; baiña eztago inguruan be antzekorik.

Lenengoz sartzen direan geienari jazoten yako neuri aurtengo auts-egunean jazo yatana. Markiña'ko elizgizon adiskide bategaz joan nintzan, eta arri zutunak ain urrean ta era atan ikusirik, neure ganera etozalakoan, aurrera bearrean atzeruntz jaurti neban oinkadea.

Bein Firmintar Apezplku jaun bat sartu zan; eta Sortaldeko Gargano mendiko Done Migel'en eiizeagaz eukan antz andia ikusirik, bedeinkatu eban; eta gero esan eban, egiaz uste ebala Arretxiñaga'ko elizea Done Migel'en zaintasunean egoala, Gargano'koagaz, Goi-aingerua agertu zan lekukoagaz, eukan antz andiagaitik.

Albo-errietan gogoz arren egiten yako Arretxiñaga'ko Done Migel'i. Ez-tau euskaldun askok jakingo Markiña ondoan dagoala gauza ikusgarri au. Erdal-erritarrak ba'leukee, batez be Prantzi aldekoak, ezautuagoa ta erregutuagoa izango leiteke Done Migel Arretxiñaga'koa.

AZKUE (R. M.)

Nun, baiña nun ezkutau zara
ene semetxo laztana ?
Neurri barik nire biotza
pozez betetan zeustana !
Nok, baiña nok eruan zaitu
etxeko geure maiteena !
Zer, baiña zer jazoten yatzu
ez etorteko nigana !

—Ez estutu, ene aitatxo,
ez eizu egin negarrrik;
Goiko Autaz nago zeruan
betiko aintzaz beterik.

Laztanduko zaitut ondiño,
ez galdu ba itxaropenik:
donokira zatozanean
bidara urtengo dautzut nik.

—Goiko Aitak emona ziñan
ta nik opea Berari;
beraz goian ba'zagoz orain,
izten nua negarrari.
Zuzen utsa dan Urtzi deunak
ezer oker eziin legi.
Aintza Jauna'i ! Goian ta beion
Bere naia egin bedi.

ENBEITA'tar K.

ERROTAZURI'KO URRETXINDORRA

Katariñe gaxua, Errotazuri'ko atso maitegarri gurgarria! Beria baiño buru-zapi zuriagorik, ez gogo zinduago ta biotz oberik ez aguan Naparra osoan. Katariñe gaxua ! Eguzkia mendi ostez sartuta, basotik etxera eiduten zanian, illobatxuak maitero artu ta zainduten ebazan, euroi abestuten eutsezalarik Bertizarana'n entzun eta ikasita eukazan abesti samur gozuak.

Erriko txadon-juliak (eleiz-kanpaiak) Angclus samurkiro joten ebela, Katariñe'k bere etxequakin egiten eban arratsaldeko otoia. Gero, su ondoan jarri ta gorua eskuetan artuta, gogoz ekiten eutson ardatzari, larogei urte ta geiago euki arren. Ori ikusita, etxeko umiak bere inguruan jesarten ziran, amamaren ipuiñak pozik eta adi entzuteko.

Bein auxe entzun neutson, Errotazuri'n bertan, Katariñe'ri.

Ni txikla nintzarian, errota ostian dagon areitz onduan abi polit bat eguan, sasi ta baso-loraz estalduta. Abi onetan egoten zan uda-gau izartsu ta beruetan abesti (kanta) gozuak egiten ebazan urretxindorra.

Bein, Kepatxu'k, Gazteluzar'eko semiak, lakua ipiñi, beragaz txoria artu ta, pozik, etxera eruan eban. Kaiola eder baten jarri eban urre txindorra ta jatekorik asko emon eutson. Baiña txori gaxuak ez eban gura jan, ez abestu. Itxuraz, bere gogora etorkion baso ta iturri, mendi ta zugatz eta abi maitiaren gomutea, ta itun-itun eguan. Bere iñarkun bakarra zan batetik bestera ibilli kaiola barruan, espexeko loruai pikua ezarri, eurok ausi ta bertatik alde egiteko.

Baiña egunak juan egunak etorri, asi zan gure urretxindorra baretuten, geldituten. Bagiak lengo poza ta argia erakusten ebezan. Edonok esango eban aiztuta eukala bere zoritxarra. Kepatxu, kaiolaren onduan jarri ta luzaro egoten zan ereskiak (tonadak) txistu egiten, urretxindorrek eurok ikasi egizantzat. Eta ibilli ta ibilli, baita onek ikasi be.

Au zala-ta, Kepatxu poz pozik eguan. Baiña bein amak esan eutson azke (libre) ta nasai baso-ziar ibilten ekanduta eguan txori arentzako zoritxar andia zala kaiolan estu-estu egotia. Gomutaratu eutson urretxindorraren zoriona uda gabetan, burua nasai, kantetan ebanian. Onen antzedun beste gauzarik asko be esan eutson amak. Eurok entzunda, Kepatxu'k —okerra baiña biotz ederduna zanak—, erantzun eutson:

—Orain igarten dot txarto egin nebala txori gixaxo ori arrapatziatz, ta lengo azkatasuna emon gura dautsot, len lez alai ta pozik bizi daiten.

Au esanda, kaiola artu ta berakin ariñeketan juan zan. Errota osteko areitz ondora, elduta, kaiola lurrian itxi eban. Atia zabalduta, atzera egin eban, txoriaren poza ta zoriona ondo adituteko egaz egin ebanian.

Urretxindorrek kaiolatik txioka urten, areitz-adar baten jarri, bere abia ikusi ta... bai dakizue zer egin ete eban?

—Bertan sartu ta kukurtu —esan eban mutiko batek.

—Mosurik abiari emon —esan eban beste batek.

—Antziñan lez, txioka asi, pozaren pozaz —esan eban irugarrenak.

—Ez olakorik —erauntzun eutsen amamak—. Txoriak ez eban gomutean bere gurasuen abesterik ez etxerik, ez txikitako azkatasunik. Aulan, ba, adarrik adar ibilli, lurrera jatsi, Kepatxu bere jaubiagandik ikasitako soifiu bat egin, eta barriro sartu zan kaiolan.

Errotazuri'ko umiak ikaratuta lotu ziran, entzuten ebena ziñetsi eziñik. Ori igarrita, Katariñe zinduak, bekokia esku tximurtsu ganian ezarrita, esan eutsen:

—Inoz zuen guraso edo aberriagandik nai-ta-ez alde eragingo ba'leu-tzue, ta gero eurekana etorri al izango ba'zendue, ez egin, ene umeak Erro-tazuri'ko urretxindorrek egin ebana!

ITURRALDE-ALTUNA

ARRANOA TA AZERIA

Arranoa ta azeria, bein, lagun egin ziran. Eta, berba gozoetan ekiñik, maitez berotzeraiño eldu zirala uste eben. Maite-min ori, gero ta geiago lotzearren, alkarregandik ur samar bizi izatea erabagi eben. Arranoak, beraz, tantai-kokotzean egin eban bere abia; azeriak be, antxe ur-ur, txapar artean ipiñi ebazan bere kumeak. Alkarren ur ta adiskide bizi ziran.

Baiña, ona zer jazo zan: arranoak egun batean, zer jan bearrez eizara urtenik, txaparretara egaz eginda, azerikumeetatik nagusienari oratu ta jan egin eban bera. Anaitxoak, arranoak iruntsitako azerikume zoritxarrekoaren anaitxoak orrela autortu eben, beintzat.

Azeria bere kumeekana biurtu ta zer gertatu zan jakin ebanean, txito samindu zan; eta, kumearen eriotzagaitik baiño geiago, bere auzokoa zigortu ezin ebalako, atan be. Ordukoz, madarikatu besterik es eban egin arrano lotsabakoa: au, makalak eta diruz urriak egin oi dabe.

Egunak joan ziran. Eta arrasti baten, len *ain* maite eban urreko adiskideari agurrik be ez egitson arrano ego-zabalak, auntz bat il eben lekura egazturik, onen zati bat jaso eban; baita ezotasunaz aragiari josita egozan txingar batzuk batera eroan be. Onetan, aize zakarra sortu ta sugar itzala egin zan; arranokumeak, oindiño lumabako ziran-eta, ezin egazik egin; estu ta larri, gora-goraka, il-agiñean, beera jausi ziran errukarriak.

Azeria zain egoan lurrean. Eta kumetxoak jausiaz batera, bape kezka barik, bat eta bi, ziran guztiak, goian garrasi mingotzez egan ibillen arra-noaren begi aurrean, irunsi ebazan.

Adiskide-legeak
austen dabezanak,
izango dauz miñak
ondo mereziak.

IGOTZ

MIRUA TA AMILLOTXA

"O zein ikusgarria
dan masti bat ona,
mats ori-laru-zuriz
betenik dagona".
Txirta bat goiz batez
txio txioketan,
amillotxa asi yakan
onantxe berbetan.

—Adiskide kutuntxu:
amillotx ederra,
kêrizarik ez al dok
sartu sabelera?
Sarritxu oi dabiltzan
txoniak mastian
ega-astun sorrak dira,
ak erantzun eutsan.

Mats-zale dozak erroi
ta eskillasotzarrak.
Nok entzun kanta-ordeko
euren karraskadak?
Atorkit, eder ori,
keriza-adarrera;
jan, jan aspertu бага
anpolai urmela.

—Keriza-azurrak saman
egin ezkerot txut,
nok atara, laguna?
egingo al daustak euk?

Miru zelatariak,
estutuaz saman,
amillotx gaisoari
erantzun eutsan: "Neuk".

O zeln negargarria
dan gizon gordiñak
ez-gauzakaitik keztan
beti jardutea;
ta muker ta illunpean
auzia ebaterra,
eriotza anka-ariña
arteratutea l

AZKUE (R. M.)

MAIATZ LUZEA

Etxe baten, kakotik esegita dindilizka euken urdai-azpiko gorri galant
bat, eta gose zan baten motiltxuak esan eutsan amari:

—Ama, noz jango dozu ori?

—Ai, txotxo! —erantzun eutsan amak; eruango yok maiatz luzeak!

Andik aldi batera Jaungoikoaren deiko eskale andi bat etorri zan atetara, eta makilleaz atea jorik, asi zan erreguan; mutiltxuak urten eutsan barrutik, eta dirautsa:

—Nor zara zeu?

—Maiatz luzea naz ni —erantzun eutsan eskekoak.

—Eguno! Zu zara, beraz? Ementxe dauko, ba, ama guriak gordeta, zuri emoteko urdaiazpikua.

Ekarri ta emon eutsan urdai-azpikoa, eta agurea ain gauza ederra bere zorroan sartu ta joan zan pozik.

Ama etxera biurtu zanean, esan eutsan onl mutiltxuak zer egin eban. Eta amak:

—Txotxo, zer egin dok?

—Etzenduan, bada, esan maiatz luziak eruango ebala? Eruan dau, ba.

—A kakatsua!; ostera be igaro bearko dok sabel-zorria, eta igaiti guk! Okelia ugari be ba-yaukagu-ta, orretaraxe agura gangeloi emoteko: itxok itxon, ostera be jan biarkok arto iizuna eure muskilletan bustita, mustur zital mior orrek.

TXISTULAR

SUGEAK INDIA'N

Idazti deunak diño txerrenak (diabruak) gure lenengo gurasoak atzipetu gura izan ebazanian, sugearen soña (gorputza) artuta ziria sartu eutsiela. Augaitik Jaungoikoak pizti maltzurra dongetsi ta narrazka ibiltera beartu ebala. Arrezkero, gizasemeak sugea arerio aunditzak dauko, ta bera ikustean bildur-ikara andia oartzen dau.

Baiña, abere au, emen beste tokietan baiño gizonaren arerio andiagoa dala deritxat. Mendi ta aranak, basoak eta zelaiak, oianak eta soluak, erre-kak eta ibaiak, bultziak eta etxiak sugez beterik dagozla esan leike. India'n, etxeetan, sugreak egunero aurkitzen dira, egi utsa ta biribilla da. Lenengo bizitzan, baita bigarren eta irugarrenean be, neuk neronek sarri-askotan ikusi dodaz.

Oin iru urte, mixiolari batek oean egoala bere ondoan zerbait igitzen zala oartu eban; oetik jagi, argia ixiotu ta arakatu ebanean, suge andi ta edentsuenetaikoa, "kobra" deritxona, oe-egalian aurkitu eban.

Abereak India'n 20.000 notin (pertsona) urtero llten dabez; eta geienak, sugeak il oi daroetz. Sugeak mixiolaririk il dabenik eztogu iñoiz entzun, Indian'n mixiolari asko izan arren. Noz edo noz aginka egin ta estualdi andiak igaro-azo dautsiez, baiña aginkadea ilkorra ezta iñoiz be izan. Xabier'tar Pantzeska deunak Jaungoikoagandik esker au lortu ei eban.

Zegaitik emen onenbeste suge? Oian ugari ta zabaletan gizonaren zigorra eztabe iñoiz min-izaten; egurasti beroak be ugarituten laguntzen dautse, ta siñezkiak, batez be brah-miñeak, eurak galtzea (iltea) gebenduta dauke. Bramiñek, beti okerretara jotearren edo, sugea gsuza done ta gurgarritzat daukie, ta euren otoi-etxearen inguruan jagon, gurtu ta esneaz ta ogiaz eta "kokoteruaren" arnariakaz alikatzen dabe.

Suge andienak eztira edentsuenak eta kaltebide andikoenak gizonentzat; neurkin (metro) ta erdi luze dan "kobra" deritxona ta bedar artean ostenduta egon oi' dan txiki-txiki bat, ibai sakonetan bizi diranak lez, edenez ta pozoiz beterik dagoz. Euren aginkadeak il egiten dau.

Sugeak biotzik ete daukie? Legoiak umeari nozean bein gaitzik ez dautsiela egiten esaten dabe; elefantiak, basakarra danean be, gitxitan gizona erail edo minduten dau; "puma" deritxon abereak iñoiz zaindu dau gizona pizti ta abere-amurruetatik. Baiña sugeak egin ete dau onangorik? Bein baten, sei illabeteko umetxoa erreka ertzean itxita, zerbaiten billa joan zan ama. Umeagana biurtu zanean, guztiz larriturik geratu zan: ume-txoak suge bat eukan eskuetan, eskuz bigunki laztandu ta irrebarreka olgefan iñarduan pizti izukorraz; sugeak bere eztentxua pozarren atera ta buruxua alde batera ta bestera igituaz, *umearen* maitasuna atsegin yakola argi agertzen eben. Ama ta beste lagun batzuk zarataka asi ziranean, sugea, umeari ezetariko miñik egin barik, bere zuloan sartu zan.

Sugeak indartsuak dira? Bai, antza. Suge batzuk, katamotzak eta zekorak indarrez menperatzen dabezala, askok diño; baiña igaro dan urtean India'n jazo izan zan lakorik iñoiz ez neban entzun izan. Zortzi-amar neurkin luze zan suge batek, bere soiñagaz tronpa edo dingilizka daukan ezpan luzea ta atzeko ankea elefanteari lotuta, zirkiñik egin eziñik aberetzarra ipiñi eban.

Arrapari batzuk, orraitio, sugea errez azpiratu oi dabe. Bein baten sugea ta arranoa burrukan ebiltzan. Onek buztenetik eldu gura eutsan;

arek ostera, buztena aboaren ondoan ezarrita zaintzen eban. Azkenez, txoriak sugeagana otozotoan egaz egin, buztenetik oratu, gora jaso ta jausten itxiaz il egin eban.

SEKUNDO ABA, K. O.

EZETZ JAKIN

Lodiak eta argalak.—Andra lodiak baltz jantziten dira, ta argalak zuri.

—Zergaitik ete da?

—Lodiak mee ta argalak lodi emon gura dabelako.

Jantzi baltzak eguzki ta argiaren izpiak iruntsi egiten dauz; eta jantzi zuriak aldendu. Orregaitik jantzi baltza daroanak, dan baiño lodiago ez dau emoten; baiña zuri jantzita dagoanak, dan baiño lodiago emon oi dau.

Zaldiak eta errekak.—Zaldiak, errekak aundiak izan arren, alde batelik bestera aldaketan dira. Baiña burua ta belarriak batez be uretan sartu barik,

—Zergaitik?

—Belarri-txilotik ura sartzan ba'yakie, konorte barik geratu ta ifo egiten diralako.

Biotz bi?—Biotz bi daukazan abere edo piztia, zein da?

—Kunkuna sapoa.

...

Zorrotzailleak.—Gure errietan ibilten diran zorrotzailleen txirrinkelak beti zorrotzailleen aldera egiten dira.

—Zergaitik ez dabez ibilten besterantza?

—Osterantza erabilliko ba'leukie, txinparta guztiak zorrotzaiMearen arpegira joango litzakezalako.

)txas-gaiñeko orioa.—Itxas gaiñera kantara bat orio bota ezker, igeri egiten dau eta ezta ez urperatzen, ezta uraz nastuten. Zergaitik?

—Orioa ura baiño ariñagoa dalako, eta, orma batek lez ondatu ezta-ten eutsiten dausolako.

Lobela ta ontziak.—Erdiraño bakarrik lobelez (likiduz) beteriko ontz-lak, naiz-ta itxita egon, eztabez burdbiltzallleak eroan gura izaten; baiña ontzia beterik ba'dago, bai. Zergaitik?

—Ontzia beterik eta itxita dagoanean, barruko lobelan apur bat baiño ezta zalantzaten, eztabil ara-ona; baiña erdiralño bakarrik beteta ba'dago utsune guztian, batetik bestera ibilten da, ta burdia itzuliteko arriskuan ipinten dau.

. . .

Itargia.—Itargiak itxura bardiña euki arren, samur ezagutzen da noiz ilbarri ta noiz ilbera dagoan. Zelan?

—Adarrak, ilbarri danean ezkerretara, ta ilbera danean eskometara, euklten dauz.

Gorputzeko ura.—Gure gorputzak euneko berrogetamar (100/50) ura dauko. Zetarako dau ainbeste ur?

—Urak, gorputz-lazakorrak barriatu edo urtu egiten ditu; eta orrela zabaldu ta urtuaz, soiña arindu ta biurkoi ipinten dau. Urik ez ba'leuko, gorputza gogortu ta gantzatuko litzake, eta ez leuke bape zaulitasunlk eukiko. Gizonen gorputzak, esan doguna, 100/50 ur euki bear dau ondo egoteko; ez geiago, ez gitxiago.

...

Eskumako eskua.—Eskumako eskua bizkorragoa, baiña ezkerrekoa min-garriagoa izaten da. Zergaitik?

Eskumeak azal lodiagoa daukalako.

Iru eper.—Aita-bi ta seme bi eizara joan ziran, eta iro eper artu ebe-zan. Alan eta guztiz be, bakotxai eper bat tokai yakon. Zelan?

—Aita-bi, aitaita edo aita-jauna zalako, au da, birritan aita.

Itxas-besoa igarotzen.—Iru gizonek itxas-besoa alde batetik bestera igaro nai dabe. Gizon andienak 100 kilo daukoz eta beste biak 50 bakotxak. Itxasontziak, barriz, ondatuteko arrlsku barik 100 bakarrik eutsi leikio. Irurak zelan igaroko dira?

—Lenengoan gizon andia, ta bi'garren txandan beste biak eroanik.

Zazpi euli,—Mai gaiñean zazpi euli dagoz, bata besteagandik alde bardiñean. Mutiko batek, zapla!, eskua botaten dautse, ta bat zapaldurik il dau. alan be, mai galñean ezta euli bat baiño bizirik geratu. Zer jazo da?

—Beste seirak egaz egin dabe.

Itxasontziak arriskuan dagozanean, urrutlzkñetik deitzen dabe; eta dei orri S. O. S. esaten yako. Zer esan gura dabe izki (letra) nagusi oneik?

—Ingleseko esakunen lenengo izkiak dira, ta esan nai dabe: "Save Our Soul", au da: "Gaizkatu gure buruak".

Geixoentzako untxia (konejua), erbia baiño oba da. Zergaltik?

—Untxiak okela ohea daukalako.

GOTZON A., K. O.

OROLDI-LARROSEA

Miren'ek, goizean goizetik, errira bialdu eban Josu.

—Zoaz, ene seme —diñotsa—, ta dagokigun lan eskiñia eskatu. Txiro bizl gara, ta zure ama luzaro lan barik ba'dago, bear-bearrekoak be uts egingo deusku. Joan zaitetz, ba, ta Miren'ek, arotzaren emazteak bialduta zoazala esan.

Amaren esana egiñik, ba-doa Josu.

Eta etxera biurkeran, seda-karga andia bizkarrean ebala etorren; ziki-rio (seda) ori bere amak irungo eban, etxeko atadlan, palmondo ori-uridin baten kerizpean jarrita.

Bero kiskalgarria; eguzkl biribilla odei bako zerutik zut-zut Izpi dar-dairik ixetuenak jaurtika.

Lorak buru-makur; egarriz aulduta, zimel.

Nekien nekez abailduta, geldiro dabil Josu ona. Bere esku bigunak ezin eutsi dautsoe ain zama (karga) astunarl. Alan eta guzti be, ez dator arpe-gl-illun. Bestera, ezitsu barrez dago, ta begl eder biak zerura jasorik:

—Ene Aita —diño—, lor eta atsekabe barri oneik eskintzen dautzudaz; baiña alperrikakoak ezpeitez izan. Zigortu nagizu ta gizonak gaizkatu.

Otoi onek indar barriak damotsaz, eta adoresu ekarren bideari darrai-ki'o. Baiña, bat-batean, indarrak uts-emon: soin nekatua zerbait atsedendute-arren, tokl berezia aurkitu gura dau. Baiña, ai!, muiño erre ta ondatuz inguratutako leku aretan legorra ta kiskala ziran nagusi, dana eguzki-galda. Larrosondo bat bakar-bakarrik oindiño bizlrik, oso igartu baga. Orrlak eze, buru-zut eta loran.

Josu arengana eldu zan; lepoan ekarren seda-moltsoa belan itxi ta larrosa ongillearen itzalpean ezarri zan. Berealaxe larrosa-lora guztiak batu ziran, alkar artuta edaturik, ustai usaintsua eratu eutsen buru-galn. Larrosok Egillea ezagutu, noski. Kukuluak makurturik, barruan euklen azken-iruntz tanta bakarra Jaungoiko-Gizonaren bekoki ixetu gaiñera egotzi (bo-ta) eben. Ondoren, legun-legun, igitu ziran, eta urre-osto meak ara-ona era-billirik, erlearen murmurra baiño ols eztiagoa, urretxindorraren txorrotxloa baiño oiú sentikoragoa atera eben. Josu, loren usain ta abestiz sorgor, loak artuta geratu zan.

Itxartu zaneko, odeimoltso bati su emonik sarkaldera joian eguzkia; aize otz epela ebillan. Josu'k, jaglta, larrosa ongillleari esker onez begiratuaz:

—Larrosondo ederra —ots egin eban—, zu zara nire loaren zaindari; zer nai dozu sarltzat?

Itz oneik entzunik, lora bakotxak bere eritxia agertzen dau. Plpilk txlkienak be, euren burutxoarl eraglnda, batzar aretan zer-edo-zer zirala erakutsi gura izan eben. Ixillera ziran azkenez; eta, danetatlk zarrenak, orri zabal egoan batek, abar makurtua pizkat jaso ta itz nagusi onelk ebaai ebazan.

—Gaurtik iñoiz baiño be ederragoak izan gura dogu.

Ikaraz Josu. Arrokeriak, alngeruak poztu ta gizonak galdu ebazan arrokeriak dar-dar egian lora artean be. Gauza itxusi ta nabarmena, ziñez.

Eta, asarre, oroldiz beteriko lur-plloa eskuan artu ta arroputz areikana bota eban, iñotsela:

—Arroak eztau Jaunaren adiskidetasunik, ezesarri da-ta.

Loratoakr damuaren damuz, ondo yatorken zigor aren aurrean buruak lurreratu ebezan. Josu'k, barriz, aren damuaz errukitu ta zugaztxoa onetsi eban. Eta bat-batean, au alatza !, oroldiak, adar guztien gain zabaldu, arantzak estali, pipillak gorde ta lorak jantzi zoragarritz inguratu ebazan.

Damutu ziralako, Josu'k parkatzen dautse: damutu zaite zu be, ume-txo, ta Josu'k azketsiko dautzu.

Or orolcli larrosearen sortze ta jatorria.

IGOTZ

LAUGARREN AGINDUA

Itz batzuk, gura ta be aiztu eziñak dira. Ertxadonean (parrokian) goizeko amaikak eta laureneta kistar-ikastia asten zan. Kistar-ikastia atzalduten eutsen neskatillaz, Jaungoiko-zalien egal-inguruetan igandero bilduten zan umeteri gaztiak amabietan jaupea, mezea entzuten eban.

Kistar-ikasti Frakasleak umeai kistar-ikastiak irakasteaz asko arduratzen ba'ziran, igande-jaietan mezea entzun-azoteaz milla bidar be geiigo ardura-tuten ziran. Goiz atan talderik talde maitetasun eta txerea zabaltzen ebillan txauburuari, amabost bardingogaz egoan neskatilla zintzo baxen zur batek amairu urtedun mutiko bategaitik, olan iñotsan:

—Emen ikusten dozuzan amabostetatik ardurabako ta itziena, auxe da. Igande baten ba'dator, bostetan etxako ulerik ikusten. Ta ondiño txarrago dana, jai-iganderik geienetan jaupara be eztoa. Txar samarra dala ezin ukatu leike!

—Zure aita ta anaia be eztira jaupara joaten, baiña ondo gizon on eta legezoak dira, —lotsa gitxidun bardingoak neskatilleari erantzun eutson.

Mutikoaren esana, zoritxarrez, egi negargarria zan; ela, neskatilleak, lotsearen lotseaz, zer esan ez ekiala burua makurtu bakarrik egin eban. Biotzez maitatzen ebazanakandik alegin guztiakaz ez ete eban ezer ataraten,

ala urko-lagun edo auzokoakaz ainbeste arduratzen zan neskatilleak, etxekoa-kaz ikusi ta ez ikusi egiten ete eban?

Mutikoaren itz gogorretatik neskatilleak ondorenik atara eban ala ez jakiteko, irakurteari jarraitu egiozue, ta jazoriko edesti baten indar guztia aurkituko dozue.

Bederatzi neba-arrebaen artean gurasoai goratasun, poztasun eta atsegin geien, Luke izendun alabarik zarrenak emoten eutsen. Jaungoikoak Lukéri izaten ederraz batera gogo bikaiña emon eutson ezker, gurasoak euren alabatxoai begira pozaren pozaz adur dariola, eztitan egoten ziran. Irakaslatzako ikaskaiak goratasunez amaitu zituan eta agertzen zan tokietan maitetasunez, begirunez ta itzalez guztiak artzen eben.

Seme-alabaen alde ainbeste egin eban aita, Luke'k, alaba *on* eta zintzoak maitetu bear dauan lez, biotzez ta gartsu maitetzen eban. Luke'ren aita ezerezean jaio zan, baiña bere lan zaletasun, jakituri ta zintzotasun bidez, or-emen bideratu yakozan eragozpen, zoztor ta gaiztasun guztiak azpiratu, ta bera lez sendia itxura baten bizi ziran. Egiz sendi zoriontsua zan.

Mutikoak kistar-ikastian lotsatu ta gorritu eban eguerdian Luke maira atsekabez ta illuntxo agertu zan. Negar egin ebanik iñok igarterik ez eban gura, baiña alegin andiak egin *arren*, ezin eban ezkutatu. Aitak begiratuaz beste barik igarri eutson, baiña ez eutson jaramonik egi'n.

Guztiak jaten ekioen; Luke be abora eroaten asi zan, baiña atsekabeak geiago egin eta barrien barri bera jausi yakon. Begiak zear yatorkozan malakoak jateko gogo guztia kentzen eutsen. Orduan aitak maitasunez itandu eutson:

—Alabatxo laztana, zer daukozu ta zergaitik negar egiten dozu?

—Ezegaitik be ezin neike esan —alabeak erantzun eutson.

Luke barriro jaten asi zan, baiña bigarrenez begiak bera yatorkozan malkoak jaten ez eutsen itzi. Aitak barrien barri iñotson:

—Alabatxo laztana, gexorik zagozan ala zer daukozun esan egizu.

—Baiña, aita, ezer ezpa'daukot, zer esan neiskizu?

Aita ixildu zan, eta Luke'k begiak ligortu ta jateko alegin guztiak egin zituan, baiña bere biotzeko atsekabea andiegia zan eta zotin larri bat jaurti ta negarrari emon eutson. Orduan, atsekabearen atsekabez, zer esan ez ckian aitak sendotasunez esan eutson'.

—Zer daukozun esaten ezpa'dauskuzu, emen eztau iñok jango. Zergaitik negar egiten dozu?

—Nire negarraren zergaltia jakin gura dozun ezker, argitasunez, aita esango dautzut —diñotso alaba garbi-errubakoak—. Nire negar guztlak etxe onetan gaur oben astun bi egin diralako bakar-bakarrik dira.

Jai-Igandetako jaupeaz ardura bakotxea ba'zan be, sendi guztia Jaungoikoaren bldurrean asl eban altak, Luke'ren abotik uste etzltuan itzak entzun ordukoxe, "pekatu astun bi etxe onetan gaur nok egn dituan, alabatxo laztana, esan egldazu", dlñotso.

—Zuk bat, alta, ta amak beste bat mezarik entzun ezaz —erantzun eutson.

Altak, gelagoko barik, maitik jagl ta emazteari esan eutson:

—Andrea, ordu bat eta erdlak dira, ta ondiño ordu bletako jaupea arrapatu gelnken ezker, beingo-belngoan goazan.

Etxe aretan, mezarik entzun barik, Igande-jaletan gelago iñor etzan geratu.

ORMALDA

FELIPE ARRESE TA BEITIA

184Tgarren urteko malatzaren 25'an, guraso nekezala izen garbikoa-kandik jalo zan Otxandio'n gure koblakar! Arrese. Amalru urte izan artean uriko bertako ikastetxean ikusl ebazan arlmako lenengo arglak: ume ikaspenak.

Gero mutll bardingoa zala, jatorriz ekarren menduak eraginda, iru urte ta erditan aita arotzaren ondoan ekln eutsan lanari: zurezko kurtzeak egiten.

Altak orduan, berak emon eusklozan aurrerazpldeak balño andlagotarako ta dulña zala Ikuslrik, Gazteiz'era bialdu eban, Markos Ordozgotl'ren ardurapera. Gaztelz'en aldi atan, gabean gabea, batu ol izaten zlrean mutlkoak Dibujoa Ikasteko asmoaz Ikasola edo Akademi'a Izeneko Ikastetxe baten. Ara joaten zan gure mutllla be, egunez tallista ta eskultore artean lan eginda gero. Ikaspen bltzuotan leen altaturiko Ordozgotl eban Irakaslea.

Urfe batzuk onelan igarota, gurasoaganako maitetasunak eta sorterriaren erakarpenak Otxandloratu eben.

Arrezkeroko urteotan lanari dautsala bizi izan zan: irudl ta altaragin-tzan batez be. Ezin esan-ala dira euskal uri ta ergoien edo baserrietarako egiñiko lanak. Onetarako erririk erri ibilli bear, eskuak lanean gogortoten izan yakazan artean, biotza euskereaganako ta Euskelerriaganako samurto-ten izan yakazala.

Onegaitik esan giñaike, Arrese'k euskal errian batetik bestera ibilleran egin daben bidea bide bikotxa izan daia: ogibidea, guraso ta emazteumentzako; kobla edo bertso-bidea Ama Euskalerrarentzako; esku-lanak buroan egin izan dautsazan utsuneak, bada, astiuneetan or ta emengo berbaz ta orrako ta onako koblaz beteten izan dauz.

Gara erdiko gizona egiñarte gitxik, orregaitiño, ezautu izan dabe kolakaritzat. Napparroa'ko Elzondo deritxon urian, 1871-garren urtean izaniko Euskal-jaietan agerto ebazan Jenengo neurtitz edo bertsoak. Asko izan zirean lan saritu eder onegaitik eskoratu yakazan oneritxiak; asko, paper ta libu-ruetan "Ama Euskerearen azken agur" onek izan dabezan laudu ta gorapenak.

Lapurdi'ko eoskalzale jakintso Duvoisin'en eskabidez egin eban laster-txura beste lan eder bat, "Bizi da Ama Euskera".

Noizbait —nor ezta gazte izan?— Arrese erdal erritarrakaz batera ibilli da gure Erri maite au goratu nairik. Aspaldion, ogeta sei urte onetan beintzat, Araba ondoko uri otz sutso atan, bakartsu bizi izan da, gogaide gitxi alboan dakusazala. Gaor asko dira, Arrese legez, zerura ta Gernika'ko Zugatz adar artera begira bizi direanak.


Arrese'k ondo daki ta guk bere ondo dakigu, soloai atz egm narik, ondartzatik lora ta bizigarriak noiz urtengo lugin edo laborariak bizi ezkeru, goseak azurrostoko leuskioezala euren gorputzak.

Ondo daki Arrese'k eta gok bere ondo dakigu, erdel erritiko bizigarriak ilgarriak direala gure euskera eder ta Euskalerra laztan onentzat.

Arrese'k egiñiko neortitz edo kobla onenak Zogatzari, Erriari ta Berbakoneari egiñak izan dira, boroa baiño biotza iturrl ekarritsoago izan dabelako.

AZKUE (R. M.)

JORNAL A



TAVRVS • IV-20 • V-20.

ZEZEN.—Ikus zezen (Taurus) buru-andi ta adar-luze. Patxada ederrean mar-goitu dau erti'lariak, kapela zapal bat be, edergarritzat, oso txairo buru gaiñean ipiñirik. Gure artean eztira onakoak sarri ikusten, zezenketa batzuetan izan ezik.

Zeru-gerriko bigarren ezaugarria dogu berau. Jorraillaren 21'tik maiatzaren 20'ra bitartean eguzkia onen altzoan dabil oso lerdan. Ekliptika barruan 30'lik 60°raino aurkitzen da. Ejiptoarrak jai andiak egin oi ebezen eguzkia ezaugarri on-tan sartu garaian.

Gure lurraldean bizi-piztutzea gero ta zabalagoa da. Zugatz, landare, lora ikus-garri agiri dira nainun. Txori ta egaztiak ugaritzen asi dira; abere-saillan txala zezen egin da. Eta zezenak guritasuna, indarra, ar-emon bete-betea, gerekatasuna esan nai dau. Udabariaren eder osoa!

JOLAS AK

1) ZERUKETAN

Neskato bik, beren besoz, aulki bat egiten dute. Beste neskato bat jartzen da aulki ortan. Lagunak, orduan, galde au egiten diote: "Zein txokotara joan nai den? Zerura ala inpernura?"

"Orrera ta onera" erantzuten du aulki gaiñekoak. Berak ez daki, alaere, zerua ta inpernua non diran.

Batzuk ondoren inpernura daramazkite; zerura, besteak.

Eta jolas-lagunak, batzuegatik, "inpernuan ori" esan oi dute; beste batzuegatik, ostera, "au zeruan".

2) AROTZAK

Iltze txikiak bear dira, egur-enbor edo txubillak eta jokolariak aiña mailluki. Jokolariak, sei-zazpi.

Joku zaratatsua dezute, ta obe dezute noski urrutiko zelai' baten egitea, iñor naskatu ez dezazuten.

Egur-enborrik ez ba'dezute esku mendean, ol iuze batean jardun. Ol onetan iltze-puntak sartzen dira, pixkat bakarrik. Jokolariak, txandaka,

Galazota dago, jakiña, beatzakin iltzea zuzendu naiz maillukiaz jo bi-tartean iltzeari eustea. Lenengo, joku-araua dalako, eta bigarren, maillu-zar-tako bat beazetan ezta izan oi gauza egoki ta goxoa.

3) OPILLENA

Ona jolas au. "Ogiarena" deritzana ere antzekoa degu.

—Ama: goseak nago ni. Ekatzu ogi,

—Jaunak ditu giltzak.

—Joaten natzaio jaunari emateko giltzak.

—Jaunak esaten dit emateko esne.

—Ea, zeraren esne?

—Beiairen esne.

—Joaten natzaio beiarl, arren, didala esne.

—Beiak esaten dit emateko belar.

—Ea, zeren belar?

—Mendiaren belar.

—Joaten natzaio mendiari, arren, didala belar.

—Mendiak esaten dit emateko igitai.

—Ea, zeraren igitai?

—Errementariaren igilai.

—Joaten natzaio errementariari, arren, didala igitai

—Errementariak esaten dit emateko urdai.

—Ea, zeraren urdai?

—Txerriaren urdai.

—Joaten natzaio txerriari, arren, didala urdai.

—Exerriak esaten dit emateko ezkur.

—Ea, zeraren ezkur?

—Aritzaren ezkur.

—Joaten natzaio aritzari, arren, didala ezkur.

—Aritzak esaten dit emateko aize.

—Ea, zeraren aize?

—Itxasoko aize.

—Itxasoak neri aize, nik aize aritzari, aritzak neri ezkur, nik ezkur txerriari, txerriak neri urdai, nik urdai errementariari, errementariak neri igitai, nik igitai mendiari, mendiak neri belar, nik belar beiari, beiak neri esne, nik esnea jaunari, jaunak neri giltzak, nik giltzak amari, amak neri opilla.

Ai, zer mutilla !

4) AZOKAKA

Mutiko-neskako mordo bat. Zuzendariak lerroan ipiñi ondoren, esaten die; "Joan nintzan azokara, erosi nuen zakur bat". Ezkerretik naiz esku-bitik asita aurren dagon mutikoak darrai: "Joan nintzan azokara, erosi nitun zakurra ta katua"... Bigarrenak, bere txandan, beste itz bat gaiñeratu du, ta olaxe bira guztia osotu arteño.

Uts-egiten duen mutikoa bazterrean ipiñiko dute. Txapeldun, jakiña, saioan azkenengo gelditzen dana izango da. Eta oni, danak amaitu dutenean erronda zaratatsu bat egiten zaio guztien artean,

5) TXINGILKA

Amar-amabi mutiko. Amabi zotz lurrean jartzen dira, eta mutikoak zotz oien artean dabilta txingilka.

Kontuz ibilli ezik, laster datoz beera zotzok. Azkenengo zutik gelditzen dan zotzari ogei ta lau aldiz txingilka inguruak ukitu bear zaizkio, zotza bera ukitu gabe.

6) SAKUTO EGALARIA

Kordel bat eta lurrez beteriko sakuto bat bear dira. Jokolariak naibeste. Leku zabaltxo bear dan ezker, zelai nai baratzean izango dezute tokirik egokiena.

Neska-mutikoak batera jokatu. Eta "erdiko" izateko, au da, saktoa kordel batekin lotu ta erdian jarririk biran erabili bear duena izateko, nai neskato bat nai mutiko bat aukeratu.

Jokatzen dutenak korru bat osatuko dute, lurrez beteriko sakutoak murtirean duen kordela mugitzen asitakoan, saktoa ondotik igarotzen dan bakoitzean saltu bat eman bear dute. Sakutoak bere biran jokolariarn oiñak ukituko ba'litu, jokotik kanpo geldituko da olakoa. Jauzi, saltu, zapart egin bear da, jakiña, une doi-doian: ez lenago, ez geroago.

7) ZIÑUKA

Joko polita. Jokolariak aiña galleta biribil bear dira.

Gaztetxo bakoitzak, burua atzeruntz egotzita, galleta bat dauko kopeta gaiñean. Eta jokua asteko zantzua epaikariak egindakoan, jokolariak begi-klixka, ziñu ta ingrestiak egingo dituzte, galletea, beera erori gabe, arpegian zear agorantza irristatu dedin. Eskuak ezertarako ere erabili barik, galletea jaten duna da txapeldun.

Umetxoentzat oso jolasgarria da joku au. Nolako arpegi' politak jartzen dituzten, gozokia agora eraman nairik l

8) OGEI GALDE

Igarkizun-jolasa dezute au. Ta askok esku artu lezakete.

Jolasle batek, paper baten idatziko du nortzu, abere naiz gauza baten izena. Eztio iñori erakutsiko, ez esango, idatzi duna. Alaere, guztiak ezagun duten zerbait izan bear du.

Beste jolasle batek, zein abere edo notiñena dan idatzita daukan izena, igartzeko alegiñak egingo ditu. Ogei galde egin dezaizkioke bakar-bakarrik, eta berak "bai", "ez", edo "zer dakit nik" erantzungo du.

Ogei galde egin aurretik igarriko ba'lu, izen bat aukeratuko du berak, beste jolasle batek igarri bearko lukena. Jolaslari asko ba'lira, euretariko bakoitza, txandaka, itz bat igarten leiatuko litzake. Aurrenik igarriko lukena izango litzake garaille.

Errezago Igarriko derute, lenengotan beintzat, osozko itaun edo galdera bat azkeru. Esate baterako: "Abere-erreiñukoa da? Nortzu bat, gizaki bat da? Bizi da oraindik? Eaguin a! den nik?"

9) ARRI-BILLAKA

Gaia: bost aulki ta bost arri. Aulki bakoitzean arri bana jartzen dira. Aurtxo bik, begiak zapituta, aulkietan barrandari, arriak arrapatu bear dituzte. Aulki bat ukitu ta utsik aurkitzen ba'dute, ementxe utziko dute ar turiko arrietarik bat. Lau arri biltzen ditunak irabazten du.

IGOTZ

A B E S T I A K

I) ALDAPEKO SAGARRAREN

Aldapeko sagarraren adarraren puntan.
puntaren puntan
txoria zegoen kantari
txiru llru li,
txiru liru li:
nork dantzatuko ote du soiñutxo ori?

Orimendi tontorreko pagoaren puntan,
puntaren puntan
Ori'ko txoria kantari
txiru liru li,
txiru liru li:
nork dantzatuko ote du soiñutxo ori?

Aizkorri'lco tontorreko arantzaron puntan,
puntaren puntan
Erbi-iñudea dantzari
triki triki ti,
•triki triki ti:
nork dantzatuko ote du dantza arin ori?

Anboto'ko tontorreko arkaitzaren puntan,
puntaren puntan
Sorgiñak kontu-kontari,
uju uju ju,
uju uju ju:
nork ixillaziko ote du algara ori?

Aralar'ko tontorreko Larrunarri puntan,
puntaren puntan
Pernando ta bertsolari,
zuk neri ziri,
nik zuri ziri:
iñork onduko ote du ziriket ori?

Gorbeia'ko tontorreko Gurutzaren puntan,
puntaren puntan
artzaitxo bat albokari,
ñiru ñiru ñi,
ñiru ñiru ñi:
nortzuk sortua ote da soiñutxo ori?

Altobiskar tontorreko bizkarraren puntan.
puntaren puntan
Erroldan turutalari,
tutu rutu tu,
tata rata ri:
Erroldan, alperrik duzu turutots ori.

2) KOKO MIKO

Koko Miko, Koko Miko,
geldirik or, mutiko!
Koko Miko Mikotin,
kraxkliñolak kriskitin.

Koko Miko, Koko Miko,
sugea etorriko.
Miztor zorrotzak txistu,
zu nundik irentsiko.

Koko Miko, Koko Miko,
amak burua ausiko.
Sugetzarra utziko du
ondatuta betiko.

ETXANIZ'TAR NEMESI

3) MIRU MOKO LEGORRA

Txio-txio, mirua;
jan bear dit txitua.
—Nundik dabil oillua?
—Oillotegin sartua.
Klu, klu, oillo lokak,
miruaren alakak;
oillo loka azpira
igesi txitakumak.

Miru, miru, mirua,
jan nai luke txitua,
onek lokaren azpi
gorde ezpalu mokua.
Klu, klu, klu, oillo loka,
mirua da atzaparka.
Ez iriki aterik,
jan etzaitzan bizirik.

Miru, miru, mirua,
joan zaizu txitua;
eztaukazu ikusirik
zure mokau galdua.

ETXANIZ'TAR NEMES'

4) XURIKO, MEHETEGI'KO ZAKURRA

Mehetegi'ko zakurra,
zangoz, errainez makurra,
berga bat luze maturra,
larrutik hurbil hezurra,
urte guzia barura,
zeren zen toki zuhurra.

Amak ttikitik utzia,
esnerik gabe azia,
tripa errainei josia,
uliek jaten asia;
Xuriko'k bere bizia
ola derama guzia.

Mahaipetik kokoriko,
begira dago Xuriko
arto axaltto bat noizko
ote zaion eroriko,
Nausiak ematen daizko,
doan ortik, bi ostiko.

Xakur gaixos olakoz
merke azten zutelakotz
tripa utsik, triste gogoz,
plsinuz zagon egun oroz;
atzka zangoz eta besoz
nahun ez zauken kukusoz.

Sukaldean nihor, ez da;
sartzen da xakur herresta.
Erreakia zen pres-presta,
zeren zen herriko besta.
Usain, milik eta jasta
dena jaten du has-eta

Bizian gosez egohik,
iltzean sobara janik,
una Xuriko'k erranik
zer entzun dugun azkenik;
"Gose dagonaren ganik
ez daitekela lan onik".

GRAZIAN ADEMA

5) ARTZAI-ERESIA

Negua joan da,
gaur udaberri.
Zoaz egun beltza,
atoz egueldi!

Estaikian barruan
euri ta aizeak
arkitzen zidazten
ezur-mamiak.

Nere auntz ardiak
begiak uzkur,
aunzarrean eta
buruak makur.

Joaie ots-geldi
ta itusurak
illuntzen zituten
artzai egunak.

Ostosketan laster
aitzulora ni,
baiña ara tximista
nere atzeti.

Baiña orain, arcliak,
ein zilipurdi
ta eragin bizkor
zintzarriari.

ORIXE

MEZA ZERTAKO?

Ume giñela ederki geñikin, bada; orain aztu ote degu? Oraingoan umeak bakarra dakitena gogorako dizut.

"Txango mango, txalopin txalo", ta olako "letanietan", zera politak esaten giñuzen. Bai meza zer dan ere.

- Kukurruku !
- Zer diozu?
- Burua miñ.
- Nork egiñ?
- Xaxarkok.
- Xaxarko non da?
- Txuloan.
- Zertan?
- Txotxak biltzen.
- Txotxak zertako?
- Opillek erretzeko.
- Opillek zertako?
- Apezari emateko.
- Apeza zertako?
- Meza emateko.
- MEZA ZERTAKO?
- Gu ta mundu guzia
Salbatzeko.

Bai al dakizu orain Meza zertako dan?

Ez dakit oraingoxe umeai aztuaz ote dljoan au; amabi urte ontan ez dakit oitu eder ori galdu ote duen, ni erritik atera ezkerokoan, dana dala; ara ederki adierazi Meza zertako dan. Ori adiñekorik ez da lurrean. Gure Kardaberatz'ek dionez: "Jesukristo bera zuen errira etorriko ba'litz, Jainkoa izanik ere, ezin gauza aundiagorik egingo luke, Meza bat... esatea baiño".

Ikuskarri aondi orrenik ez al degu ikusi nai egonero? Beste ikuskarri naasi zikiñak ba'lira, aurki!

N. O.

MARTOLO POTOLO

Negoko gao gogor efa izugarri bat da: elur *lumak* mara-mara laiño-tatik erortzean, txuriz jazten dituzte baso, zelai ta landareak, amak oiatzian izare txuriz bere alabatxoa estaltzen duen eran. Ipar-aize indartsu batek onutza ta autza dabiltzki basoetako aritz eta pago lodi eta mardulenak Atz-ibarko muiño ederrenean dagon baserriaren ate ta leio guztiak itxi-itxiak agertzen dira; bakar-bakarrik sukaldeko leioko zirrituen artetik, noizean bein, ateratzen dan argia ikustean, ezagutzen da an norbait bizi dala. Sartu gaitezen gogamenez sukalde ontara, argi printza onek erakusten digon bidetik.

Sukalde aundi ta beltz-beltza bat, egin zanetik zuritu gabea; kevide aondi batek betetzen do bere goi guzia, kapel luze baten antzera; sukaldearen erdi-erdian soa, eta *svaren* inguruan lao urteko aur bat, luse-luze etzanda; beste sei orteko motiltxo bat lagatzetik gaztañez beterik zintzilik dagoan tartana erabilliaz; irorogeita edo irurogeita amar urteko atxo bat sukaldetik ganbarara, ta andik okuillura, etxeko zeregin guziak garaituaz.

Atxoa suondoko patata eltzeak zurezko koillaraz nastutzen ari dala, esnatzen da aurra eta galdetzen dio amonari:

—Amona, noiz afaldu bear degu?

—Laster, maitea, ez berriz lo egin; aita eta ama bestetxera juan dira ardiai jana ematera, laster etorriko dira.

(Txikienak).—Amona, ta aizeak nola txistu egiten du, nik ere ikasteko?

—Aizeak ez du txistu ori egiten; Martolo Potolo'ren anima da or txistuka ari dana.

—Amona, ta zergatik dabil or Martolo Potolo'ren anima?

—Entzun, ene maiteak; esango dizuet Martolo Potolo'ren kontua; baiñan, ia bitartean, aita ta ama etorri baiño len garbitzen degun iruen artean biar Joxe Martin'en errotara eraman bear degun artoa.

Martolo Potolo umezurtz gaxo bat. Gizagaxoa, ene maiteak, gurasoak galtzen dituen aurra; otoi zazute beti Ama Birjiña zuek aunditu arte zuen gurasoak il ez ditezen. Marlolo Potolo gurasorik gabe oso gaiztoa egin zan. Egun batian etorri ziran moruak erri ontara ta...

—Amona, ta zer dira moruak?

—Moruak, ene maitla, gure katu buztan motza bezelako gizon beltz-beltz eta gaiztoak dira. Etorri ziran moruak erri ontara iibeltzaren 20'an, gaurko egunean, eta arrapatu zuten Martolo Potolo eta eraman zuten elizara. Eliza nagusian zegon gurutze aundi bat, Jesus Gurutz iltzatuarekin; agindu zioten moruak Martolo Potolo'ri arrika austeko gurutze ura, bestela bera ilko zutela-ta. Martolo Potolo gaiztoa bai zan, ez iltzeagatik ausi zuen arrika Gurutze eder ura, eta atera zan elizatik etxera joateko. Moruak, errian gaitz asko egin ondoren, artu zuten elizan ausitako Jesus Gurutz iltzatuaren burua urrezkoa zalako, eta joan ziran beren errira. Gaur bezela egun artan giro gaiztoa egiten zuen eta ipar-aize izugarria zebillen. Martolo Potolo etxeruntz zijoan; baiñan bertan sartu baiño len, oizpiñarri izugarri bat erori zan zerutik eta kiskaldu zuen Martolo Potolo. Martolo Potolo'ren gogoa Jaungoikoaren gana joan zan, baiñan Jaungoikoak esan zion: etzuela artuko, moruak eraman zuten Jesus Gurutz iltzatuaren burua bere tokira ekarri arte. Ordutik negarrez dabil alde batetik bestera Martolo Potolo'ren anima; eta, urtero, gaurko egunarekin etortzen da erri ontara, moruak Jesus'en burua ekarri duten ikustera; eta, ez dutela ekarrj ikustean, negarrez ibiltzen da gau guzian. Ez dezute entzuten I Txistu bildurgarri ori da Martolo Potolo'ren negarra.

—Eta moruak noiz etorriko dira?

—Ez dakit, maite; baiñan etortzen diranean arrapatzen ba'zaituzte, ez gauza gaiztorik egin Martolo Potolo'k bezela. Askoz obe da iltzea ark egin zuena egin baiño. Ara, ba-datoz aita ta ama; afaldu dezagun pakian.

ATXARAN

TABAKOAREN JATORRIA

Igarleak, egurastutzera joan zan goiz batez, suge bat aurkitu zuen, otzez kikil, lurrean narraz. Errukiarren eskuetan artuta, kolkoan sartu zuen, berotu zedin. Sugeak, beroak bizkortu zuenean, Igarleari onela itz egin zion:

—Adi zazu, Jainkozko Igarle, adi zazu. Ozkatu egin bear zaitut.

—Ozkatu ! Zer dala-ta? —itandu zion Mahoma'k.

—Zure endak nerea jazartzen duelako.

—Ez al dio, bestera, suge-endak gizendari guda gorria egiten? Orren esker gabea izango aiz? Antzi al zaik, neri zor didakala bizia?

—Eskerraki, eskerrak!, gizarteko txatxukeria! Nik zu osorik utzi ezker, laster zerorrek edo zure endakoren batek erango nindukezute. Ala Jainkoa ! Usigi bear zaitut!

—Jainkoarren zin egin dekan ezker, eztiak nik ezer egingo, ik ire eskintsari ori austeko.

Au esanez, Igarleak eskua sugearen muturrera urbildu zuen. Ozkatu zuen marraztiak; baiñan besteak, sakia ezpaiñez muxtatuz, zitala lurrera egotzi zuen. Zorne lurra iretsitako une artan belarki bat erne zan, urintzat sugearen zitala ta Igarlearen errukia dituena. Belar onen izena tabakoa da.

AZKUE (R. M.)

B A S A U N T Z A

Arratsalde ederra eta orduantxe zetorren Kiko, mutiko sudur gorria ikastolatik. Amona zai zeukan etxeke atarian, ogi artean mokau gozoa prest zeukala. Kiko'k bere gosea paketu zuanean, galde egin zion amonari:

—Amona, Larrondoneko Ixio'ri zergatik esaten diote "tatarra"?

—Txikia dalako. Zuk eztiuzu orrela esan bear, ordea. Bere izenez bai-zik. Gizonak, beiak baiño txikiagoak dira, baiña ala ere gizonak beiak baiño geiago merezi du gure beglramena. Ezta, beraz, aundi-txikiz *neurtu* bear mutilla.

—Pello aundia da, baiña ezer eztaki eskolan; Ixio'k berriz, guziak baiño geiago daki.

—Bai, ba; ta orregatik besteak aren inbidiz, aren bekaitzez bizi dira. Zuk ikasi asko, Kiko, baiña beñ ere ez bekaitzik izan iñori. Bekaitza, inbiria, oso piztf txarra baita. Ara, zer gerta zitzaion bein ori dala-ta Basauntzari.

—Ipuia, amona?

—Bai, ipuia au ere, baiña asko erakusten duan ipuia.

—Zer gerta zitzaion Basauntzari?

—Zaude, zaude. Pollki poliki jakingo dezu guzia.

Eta amona, arpegi ximurrean irria zuala asi zan onela kontatzen:

Bein batean... beste leku askotan bezela, mendi aldeko erritxo batean, ama iru alabekin bizi omen zan. Alabak, Erroxe, Argi ta Ixaxkun zituzten izenak. Irurak egun batean etxe atarian josten ari ziran. Amak azkar bukatu nai zuan lana, ta onela esan zien alabatxoei:

—Lenengo bukatzen duana, igo dedilla ganbarara ta an jan dezala nai aiña ogi ta ezti.

Aurrena, Erroxa'k, alaba zaarrenak bukatu zuan bere lana... Igo zan, ba, ganbarara ta an Basauntza arkitu zuan. Onek, orroia egiriaz esan zion:

Ni naiz mencliko Basauntza,
pareka jaten ditut nik,
neskatillak oso-osorik.

Erroxa'k etzion sinistu ta urreratu zitzaionean, Basauntzak zanpa! —ta irentsi zuan oso-osorik...

Zai ta zai, ta Erroxatxorik etzan agiri. Amak bigarren alabari esan zion:

—Argitxo, zoaz ganbarara. Bestela, Erroxak ezti guztia jango du.

Igo zan, ba, Argitxo ganbarara ta an Basauntza arkitu zuan. Onek orroika esan zion:

Ni naiz mendlko Basauntza,
pareka jaten ditut nik,
neskatillak oso-osorik,

Argitxo'k ere etzion sinistu ta urreratu zitzaionean —zanpa!—, ta oso-osorik irentsi zuan...

Zai ta zai ta Argitxorik etzan agiri. Amak irugarren aiabari dio:
—Ixaxkun, zoaz ganbarara. Bestela, zure bi aizpak ezirik gabe utziko zaituzte.

Igo zan, ba, Ixaxkun eta ganbaran Basauntza arkitu zuan. Onek esaten dio orroeka:

Ni naiz mendiko Basauntza,
pareka jaten ditut nik,
neskatiliak oso-osorik.

Ixaxkun izututa jetxi zan bereala ta amari kontatu zion entzuna; baiña amak etzion sinistu ta esaten dio:

—Neroni igoko naiz ta ikusiko dezu nola ganbaran iñor ez dagoen.
Igo zan, ba, ama tan ganbaran Basauntza arkitu zuan. Onek diotsa:

Ni naiz mendiko Basauntza,
pareka jaten ditut nik,
neskatillak oso-osorik.

Amak etzion sinistu ta urreralu zitzaionean —zanpa!—, ta irentsi zuan oso-osorik... Ixaxkun atarira irten zan eta an zegoen negarrez. Ontan, etxe aurrean igaro zan txingurria:

—Ixaxkun, zergatik ari zera negarrez?

—Ganbaran dagoen Basauntzak, gure ama ta aizpeak jan ditualako

—Nik garbituko det Basauntz ori. Ikusiko dezu.

Txingurria igo zan ganbarara ta orra nun arkitzen duan Basauntza Onek orroeka esaten dio beti bezela:

Ni naiz mendiko Basauntza,
pareka jaten ditut nik,
neskatillak oso-osorik.

Txingurriak, moko arroturik, erantzuten dio:

Eta ni naiz txingurria,
txingurri ziztatzaillea;
mokoka asten ba-naiz, bertan
ikasiko dezu dantzan.

Besterik gabe, txingurria auntzari bere ille artean izkutatu zaio, ta anketan gora igotzen da belarri zuloraiño. An asten da moko ta moño... Basauntzaren dantza ta ikara! Ezin egon geldirik eta bere larrian joan da leiora ta bota du bere burua kalera.

An gelditu zan lertuta, sabela irikita. Sabel urratutik orra nun ateratzen diran ama ta bi alabak oso-osorik, Basauntzak irentsi bezela. Bereala alkar besarkatu ta asi ziran beren artean Basauntz illaren inguru jira-biran kantari:

Lertu adi, Basauntza;
joan adi aruntza.
Bitartean guk dantza.
Egin zak ik arrantza.

Ama-alabak etzekiten zer egin txingurriari, beren esker ona agertzeko, ta an ari ziran beren artean:

—Zer emango ote diogu Txingurriari?

Erroxak esan zuan:

—Anega bat gari emango diogu, ama.

Txingurriak ori entzun zuanean esaten dio:

—Eskerrik asko, baiña nere zorroak ez du ainbestentzako lekurik. Ezta nere errotak ere ainbeste eiotzeko arririk.

Orduan bigarren alabak esan zuan:

—Imillaun bat emango diogu.

Txingurriak berriro dio:

—Ezin eraman nik, ordea. Ez du nere zorroak ainbestentzako lekurik. Ezta nere errotak ere ainbeste eiotzeko arririk.

Orduan Ixaxkun'ek diotsa:

—Aletxo bat emango diogu.

Ta orduan txingurriak pozik erantzun zion:

—Ori bai, eraman dezaket nere zorroan, eta eio nere errotan.

—Eta guziak dantzan asi ziran Basauntzaren inguruan:

Lertu zaigu Basauntza,
urratu du buzkantza.
Bitartean guk dantza.
Egin beza arrantza.

ETXANIZ'tar NEMESI

JAUNIK ETZUAN BIRIBILKIA

Ampere, oso jakintsu ta kristau ona zan. Askotan bera lagunekin eztabaida bat baiño geiago izan oi omen zituan. Bein auek onela zioten:

—Ez, Ampere, jakin zak mundu onek asiera ta amairik ez duela. Ez dakik, ba, bera berez dituan indarrez pizkaka aldatu dala?

—Orduan izar oiek?... eguzkia?... eta lur au?... Auek guziak ere berez sortu al dituk?

—Bai, jauna, bai, izadiak ortarako ba dizkik indar bereziak.

—Baiña norengandik zeuzkak ba indar oriek?... Eta ain ederki nork banatu dizkit goi-alde oietan?

—Ba, beaiek bere almenez, bere indarrez.

Itzaldi onen ondoren, bakoitza bere etxera joan zan. Ampere'k, ordea, bein baten Kircher jesuitak egiñiko parregarrikeri bat, beste egunerako gertu zien. Bere lantokian goitik zintzilika biribilki edo bola polit bat ipiñi zuan.

Urrengo egunean lagunak etorri zitzaizkion, eta sartu orduko begi-begi goitik zintzilika zeukan biribilki polit arekin jo zuten.

—Zer dek ori, Ampere?

Eta Ampere'k, uskeri bat balitz bezeja, etzion jaramonik egin.

—Or, ordea, zertarako jarri dek biribilki ori?

—Nik?... nik jarri al diat, ba? Nik ez diat orrekin zer ikusirik. Jarri duanari galdetu.

—Nork ipiñi dik, ba, or?

—Iñork ere ez..., berez etorri ta bere indarrez zegok or.

—Gaur, jolas-gura aiz...

—Gaur..., beti, gizon. Nik etzekiat zergatik arritzen zeraten. Egiz biribilki ori or iñork ez dik ezarri... Bakarrik etorri ta ara or bere almenez.

—Nola leike ori?

—Ba, bere indarrez..., orregatik izutu?... Atzo zeuk, izarrak, eguzkia, illargia ta lur au dana... berez egin eta bakoitza bere tokian gelditu zirala... eta gaur biribilki xiztrin ori or zintzilika berez jarri danik ez dezute siñisten. Eta ori or ipiñi duanaren billa zabilzate.

Ba... biribilki ori, nik jarri ba'diat, izarrak, eguzkia ta lur au Jaungoikoak. Zuek ere Jaungoikoak egin zaitue... Bai, azkarregiak askotan zora-

kerietarako, ta ain buru gabeak Jaunaren gauzetarako. Berriro ez gero neri oneiako zorakeriakin etorri l Jaungoikoa bai da ta Berak egñiak dira gauz guztiak.

SOLUXE, I. L.

UXO ERGELAK

Uxo eder batzuek zapelaitzagandik itzuli zebiltzan, eta eren ego ariñen bidez, eriotzatik gorde oi ziran. Baiñan egun batez, zapeiaitz maltzurra uxotegira joan zitzairen. Uxoak zalapartaka asi ziran, ta orduan zapelaitzak esan zien:

—Zergatik, ordea, zeon biziara orren larri ta asalda daramazute? Beti bildurraz, beti zotinka, ta nik ezer ez egitea, zeoi ain erreza zaitzue. Gauza txiki bat bide jartzea, nalkoa dezute.

—Zer, zapelaitz jauna, zer? —galdetu zion uxu txuri lerdan batek.

—Zer? Ni zeon errege autatu nazazute, ta kito l Orduan, nik, nai ta naiez, maite, gorde ta elikatu bear zaitzudet.

Baiezkoa eman zioten uxuak, eta lenbiziko egunean, jai eder bat uxotegian egin omen zuten. Zapelaitza, ordea, lo bat eginda, lengo iraille ta gaizto azaldu zitzairen; eta goizean bat, eguardian bi, ta illunabarrean iru uxu ziplotzen asi zan. A zer naigabe ta negarra l

Azkeneko bi uxuak konkortu ta bildurraz zeudelarik, il baiño lenago batak ala *omen* zion besteari:

—Geona den errua, geona ta geonal... Bi lepo izanda ere, biak eba-kitzea merezi diñagu.

Ez da etsaia etxean sartu bear.

ELURMENDI

Ona etxe-egazti ikusiena, ugariena ta etekintsuena: oilloa. Aragia, oillo zarren bat ezpada, samurra du ta zuri-zuria, gaiñera eio-erreza ta osasuntsua. Amaika diru ateratzen dute gure baserritarrak oillo-arrautzaz!

Basetxetan atarian izaten da oillategia: ota du izena oillategi onek. Egur batzuek ikusiko dituzu atari askotan zoko batean bilduta: ara ota, oillategia.

Ama ona da oilloa, eztu iñuderik etxean nai. Beraren umeak eta gaiñera iñorenak ere azten ditu. Eztezu iñoiz ikusi amaloka bat, klo-klo eginda, txito-elia ta gaiñera sei-zazpi bilio (atamuke) atzean dituela? Emakume batek kantatzen irakasten dio beraren aurrari. Oilloak, eztaki-ta, eztio beraren umeari kantatzen irakasten.

Oillaskoen maisu oillarra izaten da. Oillandak elukete kantatzen ikasiko. Zergatik ote da oilloa ain maitagarri ta oillarra ain gorrotogarri izatea? Dillarra artoa, buru-eritxia, dalako. Oilloak eztu orkatzik, oillarrak dituen bezela. Oilloaren lumak margo illa dute, oillarrarenak margo miña. Oilloak mokoka jarkitzen dira, oillarrak orkazka. Ikusi izango dezu, umetxo, oillar-auskaren bat? Bein ikusi ba'dezu, etzaitz joan bigarrenez ikustera.

AZKUE (R. M.)

APRIKA'KO BASOETAN

Gertaera arrigarriak jazo ori dira Aprika'ko basoetan. An animali, abere bildurgarri asko daudena, jakiña da. Auetako bat tximiñu edo "gorila" izenez duena; tximiñuaren antza daukan arren, lau edo bost bidar aundiago balda. An bizi diranak bildur ikaraz jartzen ditu. Berez, ordea, ezta onen bildurgarri. Gertaera onek esango digu zergatik.

Europar bat, eiztari ona izanik, ba-zijoan bein, ez dakit zer arrapatzera, basoruntz; eta, bidea obeto egitearren, txalupa bat artu ta asi zan errekan gora barruruntz. Utzi zun gero txalupa, ondoen iritzi zitzaion to-

kian, eta sartu zan zuaitz artera, ta ibilli ta ibilli, bidea galdu zun. Aren larritasuna l Txalupa aldera joan nai, ta gero ta geiago arengandik aldent'u.

Illuntzean, ala ere, errekatxo bat aurkitu zun; ta, ari jarraituz, txalupa billatuko zulakoan, lasaitu zan pixkat. Baiña oso nekaturik zegoen eta etzin zan lo egiteko, bideari jarraitzea urrengo egunerako utziaz. Lo ederra egin zun bere arpegi gaiñean. Zabaldu zun gizajoak begi bat zer zan ikusteko, ta aren ikara bizia bere begi aurrean tximiñu aundi bat ikusirik. Berari begira ta usainka zegoan abere izugarria!

Europarrak, ostera, geldi-geldi egon ezkeru, joan egingo zala uste zun. Baiña buruko illeak, ere lastu egin zitzaizkion, abere ura bere aldamenean lasai-lasai exeritzen ikusirik. Zer egin? Geldi egon bertan abere ari jateko gogoia etorri arte? Ez orixe l Ausardi aundiz asi zan, poliki-poliki, altxatzen: burua lenbizi, jartzeraiño ondoren, eta azkenik, ezer etziola egiten ikusiaz, jeiki zan. Bai laister andik aldegin ere l

Tximifiu aundia, berriz, zurturik zegola zirudin, tximiñu zuri antzeko bat ikustean.

BIZARDUN

A Z A B U R U A

Bitor eta Patxi, baratza eder baten aurretik zijoazela, an ertzean azaburu ikaragarri batzuk ikusiaz, erdi-zurtuta gelditu ziran. Bitor ziñezkoa zan, Patxi berriz guztizko arroputza.

—Izugarriak dituk —zion Bitor'ek—; ez diat iñoiz ikusi andiagorik.

—Bai zera! Ori ez dek ezer —erantzun bion Patxi'k—. Amerika aldean askozaz andiagoak ere ba-dituk. Aurreko bereterretxe ori baiño azaburu andiagoa ikusi nian bein nik.

Bitor'ek, perzkillea zanez, esan zion bereala:

—Gogortxua dek ori ! Baiñan nik esan bear diat entzuteko bat. Orain amar urte inguru bereter-etxe ondoan aurkitzen dan eleiza baiño pertz andiago bat egiten lagundu niokan nere nagusiari.

—Baiñan, gizona l —jardetsi zion Patxi'k—; zertarako ukan pertz izugarri ori?

—Ba, ire azaburua egosteko.

Bitor'en erantzuera egokiak naskatu zuen Patxi, ta apal-apaiki bere ekandu gaizkorra ezagutuaz, onela zion Bitor'i:

—Ire gogokizuna ulertzen diat. Ba-zekiat gezurra igandik ontio urruti ibliten dala, ta gaur egi-bidez itz egin ez ba'det, nere irrigarriz izan dek. Ongi egin dek. Nere zentzabidez gaur erakutsi didakan esakun au e'aaít aztuko: "Gezurrak, gezur t'erdi".

GIZONAREN GORPUTZA

Zugatzak bezela, gizonak ere goian burua, erdi-inguruan soíña ia bealdean oiñak ditu.

1) Aurrena aztertu dezagun BURUA. Buru-ezurrak kaskarra edo gara du izena. Ezur au gogorra baita, gaitz izaten da zulafzen. Kaskar-bsrranean garunak tolesturik bezela dauzkagu. Larrua ere, burukoa, beso naiz istar-larrua baiño zaillago da. Buru-iarrua iilez estalia agitz egoten da. Buru-soillak txapelaz estaltzen dute buru-larrua.

Buruan ditugun zentzunik goratsuenak: ikusmena begietan, entzumena belarrietan, sudurrean sumoa, mingaiñean gozamena.

Musua edo aurpegia du izena buruaren aurre-aldeak. Bekokia, lokiak, masailak eta kokotza eztitu iñork estaltzen, iñauteri-egunetan baizik. Zertarako ote dira bizarra ta betilleak? Belarri ta sudur-zuloetan ere illeak ermetzen dira.

2) EZURRAK. Buruan eta oiñetan bezela, soíñean ere ezurrak, ziriñak, euskarriak eta ontzixkoak ditu gizonak. Ezurrik andiena, zabaiena beintzat, buru- ezurra da: kaskarra. Ezur luzeenak istar-ezurra, besatzaki'a ta bernazakia dirudite. Saiets-ezurrak luzexkoak dira, istarrekoak bezen luzeak ez,

Bi ezur alkartzen diran unea, txokoa da. Ona emen txoko ezagunenak: belauntxokoa, lepatxokoa, besatxokoa ta beatzokoa. Eskubiturra ta txorkatilla ere txokoak dira: eskubiturra esku ta beso artean dago; oin ta berna bitartean txorkatilla. Berreun ta geiago omen dira gizonaren ezur ta exurrak. Ezurruksaren tajua ematen diote eriotzari, eskuan sega zorrotz bat dueia,

3) ZIRIÑAK. Belarkiak bezela gu ere ezoak gera. Gorputza, igartu ezkerro, illotz egiten da ta illerrira zerraldoan eramaten dute. Gure barruneko ezotasun sdo zirin ezagunenak, auetxek dira:

Tgo. TXUA, beste izenez TXISTUA. Agotik aterazien degu au, batez ere gauza gazia (esaterako, gibeli gordiña) jaten degunean.

2'n. BILDERRA, beste izenez ADURRA. LERDEA, bese izenez ZARAU-TSA, bilder antzekoa> da, lodiago izatea !

3'n. GORROA, biriketatik ateratzen dan lerre iguingarria.

4'n. IZERDIA, zirin oni esker dakigu, gure gorputza bae bat bezelakoa dala, txuloduna. Egun beroetan eta !an neketsuetan izerdia mara-mara bekoki ta loktetatik erortzen zaigu.

5'n. Sudurraren erpin-erpiñean agertzen dan tantoak izen asko ditu: zinzarria, dindirria... ta abar.

6'n. Sudurretakoa da MUKIA edo muskilla ere. Aurrak eztakite au kentzen.

7'n. AAKURRAK (batzuen izketan, PISTAK) begietatik ateratzen dira.

8'n. URBERDEAK gibeletik ateratzen dira.

9'n. BEAZTUNA ere gibelesko ziriña da.

10'n. GARNUA. Maskuria (puxika) deritzaion sakei-mota batean sortzen da zirin au. Atxeterrak (sendalariak) garnua ikertuz igartzsn dute maiz eri baiek duen gaitza.

11'n. ODOLA. Orratz bat sar ezazu naiz beso naiz istarretik eta bereaiaxe agiri izango da gorri au.

12'n. ZORNEA. Aria bezela irtetzen da andiisuetatik eta saldar ori-oritik.

13'n. KAKERIA. Nork esango luke? Ezotasun auxe da euskaldun askoren itzetan "zirin" bakarra. Izen zakar ori luzarokoari ematen zaio. Bereala joaten dana PIRRI-PIRRiA izendatzen degu.

14'n. UGATXIZA. Pusletan sortzen da zirin urtsu au.

4) EUSKARRIAK ETA ONTZIXKOAK. Azterlaria ba'nintz, itz geiago emango nituke. SIETSA ezurrak eta zozkoak itsasteko izpi-mordoa omen da. !ZP!A, aragiaren ariak dute izen au. ZOZKOA; indartsu batez esaten da "zozkotsua da", "zozko ederrak ditu".

Odola batetik besiera gorputzean ibiltzeko odisko memeak dauzkagu: txikienak, meenak, ZAIÑAK dira; larrixeagoak, ZANGAITZAK. Biotzera duie jokera odol-tanto guztiak. Bularrak, biriken bitartez aize emanda, garbitzen du odola.

AZKUE (R. M.)

Igel baiek bere osiñetik zezenak alkar-adarka ikusi omen zituen.

—Ai, au lana! —oiuka zebillen igela, osin-putzuaren baztar ta izkin guztian—. Ai, au lana! Zezenak zalaiean adarka ari dituk!

Beste igel batek erantzun omen zion:

—Dabiltzala! Guri zer ziguk?... Toki oneko kontuakin ator!... Babo-zarra, ixilik ago, ta etzak onenbeste asaldatu gure txoko buztintxo au.

Ori esanda ere, igel bildurtri ura oiuka ta oiuka zebillen, betiko zantz-
tzoakin:

—Ai, au lana! Zezenak adarka zebiltzik.

Igel bizardun bat atera zitzaion esanik:

—Zezenak dauden tokira botako aut! Adarka zebiltzikalako, zeren bil-
dur aiz?

—Jauna —erantzun zuen orduan igel apalak—, adarka dabiltzalarik, gure osiñera inguratuko dira, ta oien jatzarrak gogorraldirik ba'du, nai ta naiez, bat edo beste putzura datorkigu, ta orduan bere oin aundi ta zakkarraz gu zapalduko gaitu.

—Ago ixillik, ergela —erantzun zion igel jaunak.

Baiñan igel bildurtriak susmur zuena, gertatu omen zan.

Oar guziak aztertzea, on da.

ELURMENDI

EGUZKI IZAN NAI

Gillermo etxe oneko mutilla zan. Baiña aitaren eskuetan urregorri ugari zebilela ta arrokeri-odolak geiegi puztu zuan. Bein bere aitarekin asarratu ta eskua jaso etzion ba!

Aita aspalditik Gillermo'kin etzegon ain pozik ere ta orain bere arrokeri lotsagabea ikusiaz, esan zion: —Seme okerra!, gaur bertan etxe onetatik atera bear aiz, eta nere begien aurrean geiago ez akit agertu. Oraindaño

iretzat aita, baiña emendk aurrera jaun izango nauk. Ik lan-egñiaz irabazten dekana, "Bela" delten dloten jatetxera ardo ta ogiz sarituko diat, baiña gaiñerakoan eure galñ.

Egun mordoxkak iges-egin du au gertau zanetik eta oraln Txiribiri'ko ltxas-ertzean, Gillermo arroputz galant ura, beste bere antzekoekin, arri-Jotzen ari zan. Bal, ba, aragi ta ogiz galñera beste zerbalt jan nai ba'zuan, lan egin bear gizajoak!

Jo ta jo ta jo... beti arri-jotzen... Eguzkiak ere bere buru galña jo ta jo ta jo... beroz klskaltzen. Gillermo izerdi-patsetan. Gizajoa etzegon ez nai bezin ondo l Orduan besoak zabaldu ta eguzkiarl begiraturlk: "A!, eguzkl nor izan ote litzake!"

Mutillak!, ezta munduaren jabe izan balitz ere! Bertan gizon batek erten eta Gillermo'ri bizkarrean takateko bat egn eta: "Eguzki izan nai al dek?", esan zlon. "Eguzki izatearren zer eskelntzen dek? Ni Ganelua guztiz altsua nauk eta bertan eguzki egingo aut".

Gillermo'k berari: —Eguzkl izatearren ala? Ditudanak bal.

Ganeluak: —Eguzki izango aiz, ba.

Eta Gillermo eguzki biurtu zan. Arena zan poza, arena! Goizean erten zuan eta, ura atseñial... Arratsaldean, mend-bera galtzen zan, eta guziak begi-illun !

Bai orixe, oralndk alakorikl... Egun aietan bai itz biguin ugari izan zituala! Bizitzari eutsi ezinda zebiltzan agure xarrak, enparantzako aulkietan jarri ta berari begira, ez daklt zenbat maitekeri esaten zizkioten; mutll koskorak ere an zebiltzan burruka ta zillpurdika, eguzkl ederra aurrez aurre gaiñean zutela; baserritarrak ere bei-talde makalak belardietan zabaldu ta eguzkl ederrari eskerrak egiten zizkloten. Ura zan, ura!

Baiña Gillermo bera klskaltzen... eta bekaitz, arrokeri ta ikusi eziñez josia bai zegon, eta eklñ zion purrustaka ta bere aotik labe gorltuaren arnasa gorla baiño ere goriagoa zerlon. Txiribiri'ko arri-jotzailleak an arl ziran kisk eta kask, eta eskuak burura eramanaz alkarri zioten: —Mutillak!, au dek berua au!; oraingoan urtzen ez baldñ ba'gera... Eguzkl petrala! Emakume liraiñak ere, matrallleko narru plña geiogl erretzen ziela ta, etxetik oiñ-muturra ateratzeko ere bildur ziran. Nekazariak ere or nunbalt; ziotenez, bada, aspaldietan ez omen zuten alako legorterik ezagutu. Baiña gizonak pizkortu ta elelzara Jaunar! euria eskatzera joaten asi ziran; eta Jaungolkoak beren otoitzak bai azkar entzun ere!

Odei beltzak zeru-sapai garbira makalka-makalka erten eta zatika, an-emenka, ebaki ta laister josi zuten arabaki beltzez zeru urdiña. Giller

mo-eguzkia ere an gelditu bear izan zuan odei azpian. Baiña oso asarre zegon, benetan. Orduantxe bai gorrotoz bete zala l Eguzki izpiak zorroztu zituan, aurreko galeraziak kentzearren, baiña iñolaz ere ezin: odeiak orduan ta beltzago ta lodiago.

Antxen bai bekozko illunez eta barru guziak minberaz erreta, deadar egin zuala: —.Al, naigo nitek odei ba'nintz!

Ganbelua etorri zitzaion: —Odei izan nal al dek? Odei izango aiz.

Eta Gillermo odei ikusi zan. Orduan bal seaska-aurtxoa baiño ere xamurrago erabili zutela! Emakume zarrak ere gazte-gazte eginda ikusi omen ziran; andereiño urte ta aragi ariñak, ien ezin ba beroz egon, eta orain aizea ederki askorik artzen omen zuten: auxe bera Indiano ta Amerikano zar morduak ere. Erriko gazte taldeak ere, lan, ondoan, itzalpe goxoz lenagoko bero-erdaiñak izaten zituan. Baita orl gauza arrigarria! Labaldeko oiMo talde txuria ere, oillarraren ondoren, belar-izpi ta arripiñei mokoka, sorroetan gora te bera zebillen.

Baiña Gillermo bekaitz, arrokeri ta ikusi-eziñez josia zegon, eta bere kolkorako zion: —la, mutillak!; oraingoan beintzat uretan mundu erdia galdu bear diat. Ekaltz beltza dardartu ta dantzatu bear diet goi-be aldietan. Au dek sasoi!... Aiek ziran tximist okerrak!... Aiek trumoiak! Zeru-lurrak uretan bat egin zirala esan bear. Ibaiak ujolde aundiz zijozen: errekek mendi bera arrapatzen zuten guzia eramanaz: soroak ere putzutan... Etzan giro antxe!

Erriak kanpaiak jo ta asi ziran Jaunaren laguntza eske, la belaxe aizeak odeiak bazterreratu ta zerua urdin-urdin agertu zan.

Gillermo'k aizea bera baiño geiago zala ta oso asarre esan zuan: —Al, nizea ba'nintz! Odei izatea zorakeria dek.

Ganbelua etorri zan eta galdetu zion: —Aizea izan nai al dek?... Aize izango aiz.

Gillermo aize blurtu zan. Batek baiño geiagok eskerrak egin zizkion ekaitzaren ondoren ain atze biguiña atarira etorri zitzaielako. Txoriak zabaldu ziran zugaitzez zugaitz eta iñundiko txlotxoak egin ziluen: ume koskorak ere karraxika pozez zebiltzan bai. Enparantza guziak jentez bete

ziran. Etxekoandreak leioak iriki aize biguiña leio-betean, etxe barruan zabaldu zedin.

Gillermo'k, ordea, bekaitz, arrokeri ta ikusi-ezin aundikoa zan, eta onela zion: —Nere dek indarra! Nik aidean dana jaso neikek. Ia ba, altza peMipe! Aupa, jo ta ebakitzera! Ekin, beti aize biguiña izatea zorakeria dek eta orain aize zakarra izan bear neuk!... Ekaitza bezelakorik etzegok... Ia!... fuuu... fiiii... fffuuufa... fliss... flasssum... Au dek indarra! Begira, txapelak egan ikasi ditek!, aterkiak ere betik gora begira; zugaitzak ere larri dituk eta... fffuuufla... bidetako autsak ere an zijoaztik eta... Orain itxasoa astindu bear diat...

Itxasora jetxi zan, ba..., ta itxasoak:

—Nork agindu dik besteren etxean jaun fzateko? Ua emendik!; ni ondo natxagok neure etxean eta etorri aizen tokira joan adi.

Gillermo'ri onelakoakin, etzegon mutil txarra! Itxasoari eraso zion, ba...; baiña iSxasoa bare-bare. Orduantxe deadar egin zuan: —Alan dek; aizea izatea utsa dek. Nik itxaso izan nai nikek...

Ganbelua etorri zan eta esan zion: —Itxaso izan nai al dek?... Itxaso izango aiz, ba...

Gillermo itxaso biurtu zan. Alde guzietatik ikustera joaten zitzaizkion. Umeak oiñ-utsik ondarretan jolasean... Urreratzen ziran olatuak edo uifiak geiago ezinda iltzen ziran muturretaraíño esanaz: —Itxasoa, ni arrapatu ezetz!... ezetz! Zai-zai egoten ziran, eta itxasoak urari bultz pitin bat geiago egiten zion eta oiñ txuri txikiak, apar txuriz bustitzen zizkien. Gizon-ema-kumeak ere bere besoetan aruntz eta onuntz txorabio goxoan erabiltzen zituan.

Bajña Guillermo-itxasoa bekaitzez, arrokeriz eta ikusi-eziñez josia zegon, eta bereak egiteko asmotan, ekin zion:

—Ze arrano!; ni emen gizon eta emakume lotsagabeen morroi egin-da?... egon adi pixka batean! Ura bestia! Amorrauta olatu edo uifiak mendi bezin aundiak bildu ta, bits zuria zeriota, an zijoazen orruka goitik bera. An aita-semeak arrantzan ari ziran txalupa urperatu, emen gizon eta emakumez josia zetorren itxas-ontzia irintxi; aruntzago jo ta kaia puskatu, onuntzago urreratzen zitzaionari atzaparrak bota. Oraindik, alako ekaitzik aspaldietan ez beintzat!.. Pozik zegon benetan Guillermo! Eta atsegiñez zoraturta bezela zion: —bai, bai..., oorriak ikusi bear dituzute!, baztarrak jo ta kea egitea bezin gauza egokiagorik!...

Ba-zebillen, ba, arro-arrorik alderdiak ikusten, eta... or zegon bere koska! Arako ura nor da? edo an zer zegok? Nere asarrearen aurrean nor-bait zutik?... Or nauk!, laister aldegin bearko dek... la ortik, aitz potor ori! Ik ere eureak laister egingo dituk... Eta zezen basatiak bezela eraso zion. Lenengoz danbateko izugarria... Gero bestea... ptxas!... ptxas!... Aitz txokotea zutik... plan!... brun! brun!... bau!... brun!... baaa! Aitza, ordea, geldi-geldi... Urez bustitzen zan, baiña olatu guziak lertu ta apar zuri eginda bialtzen zituan.

Aztarka ugari ibilli izan zuan itxasoak aitz-mutur joka! Guzia alperrik! Aitza geiago zan.

Gillermo'k orduan, orruka; —Benetan, aitza ni baiño geiago dek! A!, aitza ba'nintz!

Ganbelua etorri zan eta esan zion: —Aitza izan nai dek?... Aitza izan-go aiz, ba!

* *

Gillermo aitz biurtu zan. Eta ikustekoa zegon ba arroputz galant uraxe! Itxasoari bildurrik ez, aizeari gutxio, eguzkia beretzat izango ez ba'litz bezela!... Au dek bizitzea!... Ni aiña nor gero? Eguzkia gizona baiño geiago, odeiak eguzkia baiño, aizea odeiak baiño; itxasoa aizea baiño, itxasoa ordea nere oiñetan apal-apal egon bear.

Onela ari zan bere artean eta bizkar gaiñean... pinnn!... pinnn!... pinnn! Guillermo-aitzak, egunero ots piñ ori entzuten zuan eta zer izango ote zan erne zegoan... Pinn!, pinn!... pinn!... Zer ote dek au? Punn!... punn!... punn!..., baiña zein ari da nere bizkar gaiñak killimatzen?... Pinn!... pinn!... pinn!... Zer ari ote dituk?... Eta pin!... pin!... goitik zulo-giñen; eta... pik... pik... pik!... arri ateratzen. Eta pan!... pan... pan... aitz pusketak kentzen. Eta pak... pak... pak... arri-jotzailleak bere zatia puskatzen.

Gillermo'k begi andi-biribillak goi aldera bildu ta gizon bi, bata zulo-giñen eta bestea arri-ataratzen, ari ez zaizkion ba!!... Beraz, ori ere bai! Aitz potor izatea ere uts?... Gizonak nere bizkarrak txikitzen? Glzon izan nai nitek.

Ganbelua etorri zan eta esan zion: —Beaz gizon izan nai e?...

Eta Guillermo'k malkua zeriola: —Bai benetan, olek ni baiño geiago dira-ta, oien antzekua izan nai nuke.

Ganbeluak Guillermo'ri: —Arri-jotzaille izango aiz ba! Eta len izan in-tzan ber bera aiz; ire arrokeriaren zorakeria ta ire bekaitzaren kalteak eta

ire ikusi eziñak zer ikarri dikan ikasi zak. Len izan nai ez zana, berriro izango aiz! Eta eguzki, odei, aize, itxaso ta aitz izan ondoren, arri-jotzeko besterik ez aizela jakin zak; batez ere ire gurasoekiko egin-bearrak ondo berdintzen ez ba'dituk, errukiorra aiz benetan. Zeozer izan nai ba'dek, be-kaitzik ez izan, ezta gorrotorik, ezta ikusi-eziñik, bai ordea zintzotasuna ta maitetasun egiazkoa.

Ume ta ume ez zeratenok, Ganbelua'ren erakutsiak ikasi ta egin.

SISTIA

OILLO TXURIARENA

Zuk eztezu jango, arata;
zuk ere ez, antzar.
Nik gari-alea lurrean sar;
nik errotara ekar.
Nik oretuta labean
erre su ta gar.
Ogi txuria neretzat
eta nere txitoentzat.

ETXANIZ'tar NEAAESI

PELLO TA IXTEBE

Jantzi zarpailtsuz erdi-estaliak zeramazkiten beren sointxuak; eta ne-gu-erdi-erdi baitzan, otzez dardarka zioazen; gosez ilko ez ba'ziran, erririk erri ogi-billa ibilli bear... Gizaxoak! Amarik etzuten; bi illabete inguru ziran aingerutxo aiek umezurtz zirala. Aita, barriz, txanpon-billa Australia

alde jun zan urte batzuk zirala, baiño aurtxo gaxo alek etzekiten nundik nora zebillen, ezta aita zeukatenik ere, tolesgabeak baitziran oraindik. Len alpatu degun neguko arratsalde illun eta beltz bat zan. Gauerako Urbietan urixka txikira iritxi nai zuten, baiña oraindik baserritxo ura oso urruti zegon, eta gaba gaiñean zuten.

—Ta, gaba eltzen ba'zaigu, nola irltxi gu Urbietan'raiño? —galdetzen zuen Ixtebe'k.

—Orixe berbera oldozten nijoan ni ere —erantzun zion Pello'k.

—Nik ba-dakit zer egin —jardetsi zuen Ixtebe'k.

—Zer?...

—Esango dizut. Ikusten dezu an goiko aldean bide-ertzean dagon etxe ura?

—Bai, ta baselizatxoa dala maiz aitu genion gure amatxo zanari. Etzera oroitzen?

—Bai, baselizatxoa da; baiño gaur gure lotegia izango da neski. Antxen atarian, Zeruko Amari baimena eskafu ondoren eta Berari otoi oginda gero, lo egingo degu gaur. Ongi a! derizkiozu, Pello?

—Ederki oldoztua —erantzun zion Pello'k.

Onela izketan aurrera jarraitu zuten bi aingeru lirain aiek. Ogi kuskur gogor puxka bat atera zuen Ixtebe-k sorbalda gaiñean zeraman zorro txiki batetik, efa...

—Nai dezu? esanaz, Pello'ri eskeindu zion,

—Geigo eztaukazu? Ori baiño ez ba'dezu, jan zerorrek guzia —erantzun zion Pello'k.

—Ez, auxe baizik ez dago zorroan, baiño au zerorrek jan bear dezu —zion Ixtebe'k.

—Ez, ori jan zerorrek, oso nekatuta bait-zijoaz gizajo ori...

Eztabaida ontan zebiltzala, agure zarfxo baf alderatu zitzairen; eta, maitero aqurtu ondoren, Jainkoaren izenean zerbaite eskatu zien.

—Ogi kuskur auxe baizik eztegu, eta gu ere gosez erdi-ilda gaude, baiño, tori, Jainkoaren izenean eskatu bait-dezu, ta ian zazu. Gurekin zer egin Jainkoak berak erabakiko du. Ta, au esanaz batera, aitonari eman zioten ogi puxka ura.

—Eskerrik asko, aurtxo maitagarriak, Jaunak onetsiko al zaituzte orain eta beti.

—Alaxen —erantzun zuten bi aurtxoak batera. Ta bakoitzak bere bi-deari jarraitu zion: aguretxoa Arbide urirontz abiatu zan, aurtxoak berriz Urbietan'ronfz.

Ikusi dezu nolako maitagarri agertu zaigun aitonatxo ori? —esan zuen Pello'k.

—Gizaxoa! —jardetsi zion besteak—, gosez gu bezela erdi-idea ta janiziz gu baiño ere errukarriago, oiñutsik, galtzak txit puskatuta, a[kon]darik gabe...

—Zer esaten ari zera, ltxebe? Ta ori guziori oartu ta ezer ere esan ez?...

—Lotsa izan det beraren aurrean ezer esateko; baiño deituko diot berriz, nai ba'dezu, oraindik urrean degu-ta... Eta esan ta egin, aguretxoaren billa abiatu zan.

—Goazen biok, goazen biok —esanda Pello ere berakln jun zan aguretxoaren billa. Ba-zijoazen bi gotzon lirain eta tolesgabe aiek len ainbests *nñkez* ibillia zeukaten bidetik zear aguretxoaren billa; aitonatxo ura, ordea, etzan iñondikan ageri; begiratu gora ta bera, ta aitonatxua ezin idoro...

—Nora jo ote du? —zioten gure aurtxoak. Ondo zekiten aurtxo aiek aitona ura ezin zitekela ain aguro ibilli, zarra ematen baitzuan; orregatik une baten gelditu egin ziran eta, oso nekatuta zeudela-ta, bids ertzean exeri.

—Baiñan, noraiño jun zitekean aitonatxo maitagarri ura, ain zartxoa izanik? —zioten aurtxo gaxoak—; otso gaiztoren batek irentsu ote du, ba? Ala dirudi beintzat.

—Otso aundi ta beldugarriak ugari omen dira mendi oietan —esan zun ltxebe'k.

—Bein baten zu ta ni bezelako aurtxo bi iruntsi omen zitun otso zatar batek —jardetsi zion besteak—. Gurasoen baimenik gabe atera omcn ziran mendira ta bidetik aldendu zira'ako edo eztaikit nik zergatrk galdu egin omen ziran mendlan, eta eztaikit nik zer gertatu zan, baiño aurtxo aiek beintzat otso gaiztoren batek irentsi zitun jantzi ta guzti, geigo iñork etzitun ikusi ta... Izan diteke orretariko pizti zarren bafek aitona gizajo ura irentsitzea, ez derizkiozu?

—Bai, Pello, orixe gertatu da noski, aitonatxo gaxoa otsorcn batek irentsi du.

Eta orrelan, izketan eta izketan, gaba eldu zitzaian; nora jo etzekitela, negarrari eman zioten aurtxo errukigarri aiek; oraindik txikiak baitziran!

Beldugarri zetorren gaba ta iñoiz baiño ikaragarriago izango zala zirudin; egundo baiño beltzago, egundo baiño illunago ageri zan ortzea. Gizon bulartsuentzat ere neguko gau beltzak beldugarri izan oi dira; ta Pello ta ltxebe aurtxo umezurtz errukarri aientzat ere beldugarri izan zan negu erdiko gau illun ta itun ura. Goiko aldetik erraldoi aundi bat zirudin mendia zekusten, beeko aldetik ere zuaizti ederrez beteriko basoak; alde

guzietan sasiz, arantzez, otez ta lutzakiz jantziriko tokiak baizik etziran ageri; lurralde aiek abere basatientzako bakarrik egiñak ziruditen. Eskui aldean, baiña oso urruti, mendi tartean poliki gordeta, bezela, beren erritxo kutuna zekusten, eta antxe eliza baiño goraxeago beren etxe maitagarria..., eta ara begiratuaz bakarrik ainbeste oroipen itun; bertantxe il bait-zan beran amatxo biotzekoa, eta oroipenakin batera penakin biotzak taupadaka, mal-koak ezin gorde ta negarrari eman zioten berriz ere aur errukarri aiek.

Gizaxoak I Aurrean zeukaten Urbietara zijoan gurdil-bidea, baiñan Urbietara ere oso urruti zegon, eta gaiñera bidean galduko ote ziran beldurra zuten. Antxe goraxeago zuaizti eder baten ertzean zegon len aitatu dogun baselizatxoa, baiño bide puska ori ibiltzeko ere adorerik etzuten gotzon lirain aiek... Zer egin? Gizaxoak! Beren erritxoa ain urruti egon ez balitz! Artzain-txabola edo bordatxoren bat urrean euki ba'lute! Baiño, bai zera! Gogorapen guziok ames gozoak baizik etziran. Ez Arbide'rontz, ez Urbietarontz, ez baselizara, ez artzai-txabolarik, ez ezerez... Gau beitz, illun, beldurgarria antxe bertan igaro bear nai ta naiez.

Elur tantoak *erortzen* asi ziran *orduan*, eta berez gau otza zana oraindik otzago izaten asi zan elurragatik. Aur gaxoak nora jo etzekitela, negarrez, alkarri muxuka, otzez dardarka, gosez il-bearrean... Orrela egon ziran alditxo baten zer egin etzekitela. Noizbait, ordea, nekatuak zeudelako edo lo-gurea ere izan zuten, eta alboan zeukaten aritzpean zegon sasi tarte batean lo egiteko asmoa artu zuten. Bear ere ba-zuten gizajoak, ain nekap tuak bai zeuden! Baiño, zerekin estali ere etzuten eta ain gaxo egonik ziran noski gau artan; baiña, alan ta guzti ere, antxe efan ziran biak elkarren ondoan, bata bestea berotu nairik. Artean elurra ugari ari zan, eta baso, mendi ta zelaiak zuritzen. Aurtxo aiek gordeta zeuden tokitxoan etzan oraindik elur-tantorik bat baizik erori, zuaizt aundi baten azpian zegolako. Pozik zeuden, bada, aurtxoak ain toki egokia idoro zutelakoan; baiño gizajoak etzekiten nun zeuden ere. Ta nola jakingo zuten aurtxo tolesgabe aiek nun zeuden, galbidea zer dan ere ez bait-zekiten oraindik. Ta galbidea antxc zegon, ain polita, ain egokia iduritu zitzairen tokian bertan.

Antxe zegoan, bai, beren etsai gaiztoa, eta toki zaindua iduritu zitzaiena olso beldurgarri baten kabiko atea baizik etzan. Eta an zegoan bera barrenen oso pozik, batez ere giz-aragi-usaia nabaifu zuenian. Nozbait ordea, ateraiño ere irten zan bere afaria izan bear zun arrapakiña nolakoa zan ikustera; ta aren poza usotxo xamur bi ematen zutela ikusi zuenian. "A ze afari ederra gaurkoa —zion barrenerako—; biak batera irentsiko nituzke, baiño bat gaurko afaria izango da ta bestea bigarko bazkaria:

eranegun gabean jan nuen arkumetxoa baiño goxoagoak daudeia derizkiot. A nolako afaria nere gaurkoa, ta nolako bazkaria bigarkoa!" Onela izketan ari zan bere barranean otso gaizto ura ta afalordua noiz iritxiko zai geldi zegoan isats gaiñean exerita.

Bi aurtxoak goiz eta gabeko otoiak egunero egin oi zituzten, beren amatxo maiteak oitura eder ori izketan ikasi zutenerako irakatsi bait-zien. Erdi-lo zeudenian gogoratu zitzaion Ixtebe'ri otoitz batere egin gabe etzan zirala ta Pello-ri esan zion:

—Gaur ez degun otoitzik esan, Pello, la orregaitik ezin degu lorik eglñ.

—Egia da, Ixtebe. Belaunikatu gaitezen eta otoi dezagun biok batera.

Esan ta egin, nagiak botarik belaunikatu ziran; beren eskutxoak baturik, begiak gora jasoaz, otoika asi ziran. "Zeruko Erregin eta gure Ama maitea —zioten—, emen gauzkazu gu bi ume errukarriok; umezurtz gera, amarik ez degu lurrian, zerorrek eraman baitzenigun zure ondora guk ain maite genuen amatxo; aitarik ez degu ezagutzen, seniderik ere ez, bakarrik gaude ta iñork ez du gure ardurarik artzen. Orregaitik, gaurdanik, zu izango zera gure Ama, zu gure aita, zu gure senide, zu gure oro; zure ardurapean jartzen gera; artu gaitzazu zure semetzat... Lo egiteko toki egokirik arkitu ez degulako, ementxe sasi tartean neguko gau beltz au igaro bearrean gaude; zaitu gaitzazu zuk gaitz guzietatik". Eta "Aitaren" poliki eginda, berriro etzan ziran. Berealaxe ta bat-batean loak artu zitun.

Umezurtz errukarriak lo zeuden. Pello irribarrez, zeruko aingeruekin ames gozoan. Ixtebe, ordea, negarrez, amets beldurgarrian. Pello bere amatxo zanakin izketan ari zan zeruko jauregi bikaiñean. An zegoan egon ere berd amatxo aingeru artean, zorionez inguratuta, pozez beterik. Pello'k ikusi zuenerako ezagutu zuan bere amatxo ta laisterka bere ondora jun zan laztan-muxuak ematera. Amatok ere ezagutu zuen bere semetxoa ta muxuka jan bear zuela firudin. Pello'ren poza ! Nolako itz xamurrak esaten zizkion amatxok! Nolako ipui politak edestu!... Ixtebe gizajoa ere ametsetan ari zan, baiñan bere ametsa oso beldurgarria zan. Otso aundi zatar bat mendian beera zetorrela ikusi zuen, eta gero bere alboan aoa zabaldua anai biak irentsi nairik zegoela iduritu zitzaion.

Artean elurra ugari ari zan, eta beltz-illuna zirudin gaba argitzen asi zan. Ikusgarri zeuden inguru aietako baso ta mendiak. Goiko aldeak nat beeko aldeak, eskuikoak naiz ezkerrekoak, orok txuri-txuri ageri ziran. An beian zegoan arana, ta goian ageri ziran landak guziak maindire edo izare zuri-zuri ta zabal-zabal bat ematen zuten. Ain otza izan ez ba'litz, gaba polita; baiño negu erdi-erdia izanda, berez otza ta ituna izan bear neguko

eragiten baitzien. Gizagaxoak I Orduak aurrera zijoazten, ta gau-erdia urrean zan. Aurtxoak oraindik lo, oraindik bakoitza bere amesean; Pello bare amatxokin zeruan, Ixtebe ordea otso beldurgarriaren ondoan. Baiña amesa zirudina egi biurtu zan.

Pello otzaren oizaz ormatuta, antxe il zan. Eta ain ona, ain garbia, ain tolesgabea baitzan, zuzen-zuzen bere amatxoren albora aingeru txui-iek in jostatzero igo zan. Zorionsua bera! Lentxeago amesa zana egi gozo-gozon itzuli zitzaion. Lentxeago amesetan ikusi zitun aingeru txuriak, eta batoz ere bere amatxo, antxe ikusten zitun egitan. Aren poza! Ixtebe, ordca, oraindik bere ames beldurgarrian, pizti zatar ura bere albotik kendu eziñik. Ta nola kenduko zuen, ba, berak amesetan ekosan otsoa egitan antxe bere ondoan baitzegon? Gizaxoa I Noizbait jeiki zan aurtxoak amesetan bere alboan ikusten zuen otso aundi ura ta bera irentsitera zijoala iruditu zitzaion Ixtebe'ri. Ta esnatu zan gizajoa karraxika ta deadarka andik joan nairik; baiño ames gezurrezkoa zirudiña egl bizi-bizia zan. Amesetan menditik beera zetorrela iduritu zitzaion otsoa egiazkoa zan eta antxe zegon aoa zabalik ortzak erakusten; eta jeikirik aur gaxoengana abiatu zan. Gaiztoa!

—Pello, Pello —oiuka asi zan, baiño Pello'k etzion erantzufen. Ixtebe, faera esnatu nairik, igitzen asi zitzaion, baiño Pello'k zirkiñik ere ez. lida zegoan! Igarri zuen Ixtebe'k bere anaitxoa ilda zegoala, ta bere gaiñera erori zan zoratuta ta saminduta. Ba zijoan otsoa aurtxoan gorputzak irentsitzera, baiño orduantxe agertu zan aurtxoan zaindaria. Len ikusi degun aitonatxoa zan zaindari ori. Etzetorren bakarrik, bere alboan zetorren andre eder bat ere; aizkora zorrotz bat zekarren eskuan.

—Ez izan beldurrik, Ixtebe —esan zion—; enazu ezagutzen? Zuk eta Pello'k len lagundu diozuten aitonatxoa naiz ni. Len aitonatxo bat bezela jantzita ikusi ba'nazute ere, ez naiz ni aitona, Joseba donea naiz ni, ta len zuek egin didazuten laguntzaren ordaiña zueri ematera natorkizute. Zure anaitxoa lentxuago jun da zerura, neronek eraman det, eta antxe dago bere amatxoren ondoan poz-pozik. Pello'ri eman diotan sari bikaiña, aundi ederra izan ba'da, zuretzako daukadana ezta txikiagoa izango noski. Or zure aurrean daukazun otso gaiztoa su-leizeko txerren madarikatua da ta zuek biok betiko sutara eramatera etorri da. Baiña etzaituzte eramango. ez, neronek kenduko diot gogo ori...

Eta aizkora zorrotzakin lepoa ebaki zion otsoari, lurrean bere gorpua zerraldo uizirik; bers barrenen zegoan txerrena, orde, lurrean bertan zuio aundi bat egiiiiaz, bertan sartu eta andik su-leizeraifio aguro jetxi zan.

Ixtebe, berriz, Joseba donea lagun zula, Zerura igo zan. Berakin zijoan Zeryetako Erregin ederra ere, Ixtebe'k lentxuago Amatzat autu baitzuen, semeari laguntzera jun zan Ama on ura Joseba bere senar txit maiteakin. Bidean zijoaztela aingeru pilla bat eta aingeruen artean Pello bere anaitxoa zetorren. Gero beste aingeru pilla bat eta aien erdian erregin bat bezela bere amatxo zana. Ura bai poza ! Ta ementxe bukatu zan aurtxo polit oien bitzta lurrean eta orduart asi zan beren egiazko bitzta zeruan.

BARBIN, K. O,

LAN EDERRA!

-Aizak, aizak, Manuel;
gaztelaniaz ik
nere ustez ederki
mintzatzen ba-dakik.

-Pixka bat.— Esan zadak
nik nai nukeena.
Ta mintz ortan nola
deritzak dozena?

M. A. IÑARRA

S U K A L D E A N

Atari zabalak ikusten ditugu basetxeetan, kalekoetan medar-medarrak. Goazen edozein baserritara, lugiñak nola bizi diran jakitera. Beren bizi-tokiak, ataritik barrunera sartuta, toki edatsu bat daukate geienak: eskaratza.

Zoko batera ba'goaz, sukalde andi bat ikusiko degu. Suburuan, erdi inguruan, kate beltz bat, laratza; larazetik zinzilika pertza naiz mazkelo bat, esnea egosteko. Bi edo iru eltze, txingar ta illeti artean, ageri izaten dira. Irakiten asten danean, gaiñez egiten du saldak naiz esneak. Orduko asten da etxeko andrea ogia txikitzen, zukua egiteko.

Sutondoan bearren diran gauzak auek dira: egurra, illetiak egiteko; txingarra egiteko, ikatza; aragia errelzeko, burduntzia; salda ateratzeko, burduntzalia. Baserritarrak eztute txaliñik bear izaten. Maiaren erdi-erdian erratillu bat jarri ta bertatik jaten dute —jaten zuten— bazkaldar ta apal-darrak, maikideak.

AZKUE (R. M.)

URREZKO LARROSONDOA

Larrosondo zoragarri ura, baratza baten zugaitzez eta liliz bildua zegon. Larrosaondo onetako lore jabeak, berakin zuan miñ guzien sendagaia.

Alako baten, Erregeari seme-alabatxoak gaxotu zitzaizkion eta sendangilleak etziran gauza aurrera zetorren eriotzari atzera bultz egiteko.

Orduan emazteak Erregeari onelan: —Gure umeak oso gaizki dagoz. Urrezko larrosaondotik, bada, larrosa bat ekarrerazi bear da.

Erregeak: —Nork ekarriko zigun, ordea? Ba dakiñ, ene biotzeko orrek, lorategi orretara zartzen diranak, betiko galtzen dirala.

Emazteak: —Etzaiok ardura. Agintza baten bitartez, jakiñeraziko dek, larrosa ori dakarkiguna, mutilla bada, Errege alabarekin, neskatilla bada, Errege semearekin ezkonduko dala. Eta gure seme-alabak aiñ onak eta apalak diralako, lagun asko ditxie, ta orregaitik laister di'agu emen talde eder bat, larrosa ekarri naian.

Erregeak: —Bai, baiña asko galduko ditun.

Emazteak: —Ez. Burruntxali jakitunak esan du, galdu ez ditezen, gauzak garbi berak esango dizkiela.

lErregeak: —Ondo zegon; gure umien lagun guziei ots egitera nijoakin, bada: ia nortzuk ekarri nai duten.

Benetan, ia larrosa ura nork ekarri nai zuan bando bat jo ta laister zituan bere etxian irurogei mutil-neska biurri, oiñ-arjn eta urduriak. Erregeak tartzeka ogei aukeratu zituan. Orduan Burruntxali, erri ariako irakaste zar-jakintsua etorri zan. Umien aurrean jarri, okotzian beera zijoakion bizar zuria igortzi, urrezko betaurrekoak sudur gaiñean ipiñi, bere ille luziei atzera egin, gaiñetik beera jantzi luze bat bota, txapel moko-luzea bururatu ta... onelan esan zien:

—Ene umetxuok, larrosa artu nai ba'dezue, orain esatera nijoakizuena entzun eta egin. Ara baratza orretara joateko, eskubiko bideari ekin eta "Jaungoikoaren naia" esaten duan atez aurrera jo. Beti, ordea, aurrera ta gora begira Joan bear zerate, atzera ta aldamenetara begiratzeko. Bestela, begiratu uanean, galdu ta aranondo biurtuko zerate. Aditzen dezue? Esanak txintxo bete. BiaJtzen zaituenerako joan eta larrosa ekarri ordukoxe, Errege seme-alabak sendatuko dira.

Txotxak atera zituen eta lenengoa Jokin'entzat. Jokin oso bildurkea zan, baiña arroxkua, kasketa gogor eta itz miñik eraman eziñekoa. Amak orregaitik amaika aldiz, asarrea erakutsi zion, baiña Jokin'i ardura gutxi.

Bideari ekin zion, ba..., ta beste guziak bidetik begira zituala, aurrera zijoan... jun eta joan... zuzen, zuzen, zuzen... Larrosa ondoraiñotu zan eta aldameneko zugaitz artetik deadarka asi zitzaizkion: "Zorua!, txepela!, txokilla!... astua!... matrail-aundi !... sudur-luze!... begi-larri!"

Jokin'ek geigo ezin iraun eta atzera begiratu zuan, alako izenak bidaltzen zizkiona nor ote zan ikustearren. Baiña bat-batean artu ta bide-ezkerrera eraman zuten. Antxe aranondo biurturik daukazute. Jokin etzan ber-etorri.

Gero bigarrena bidali zuten. Neskatilla zan bera; neskatil polita ala ere! Urrea bezin gorriska, krabeliñaren antzera apañña; baiña bai txan-txangorria bezin arroxka ere! Lepotik zintzilika pitxi ederdun katea; oiñetakoak ere Paris'en azken-azkenetarik azaldu ziran ipurtarroak; illea ere oraingo eran motz-motza; gonak belaunean gora igesika. Bai ederra zijoala! Bai arroxkua! Bere amak alperrik jardun oi zion, ain buru-ariña ez izateko ta abar esaten; guzia alperrik zitzaion.

Bide gora ba zijoan gure Maitena; uso txuria bai zirudin polit ark! Begiak ezin igerri, lurrik ere ikutzen zuan: ura zan benetan neskatil ariña! Ba-zijoan aurrera, aurrera, larrosari begira zuzen, zuzen. Urreratu zan ba prduantxe, ta bidal ertzetik, abots gozo-biguñez asi zitzaizkion: "Ene, begira

neskatilaren ederra! Ori ille gorria!... ori jantzia!... ori pitxidun kolilarea!... oriek belarrietakoak!... Illargia bezin aderra da bera!... Adi ezan, neskatilla!, larrosa bat ba'eunake!... bai lora bat ortxe bular gaiñean ipintzeko! Nik emango diñat... Aizan, neskatilla!..."

Maitena'k geiago ezin zuan; berari ain eztsitu ta maiteki itz egiten ziona ikusi nai ta, ai ene!... begiak aldamenera iges egin zioten... Eldu zioten orduantxe ta bertan aranondo biurtu zuten. Maitena gajoa!, ain polita bera ta!

* * *

Beste bat; irugarrena, bigarrena ez dator eta. Irugarrena Peli zan. Jokin bildurkea zan bezela, Peli txotx ikara batek bildurtzen zuan.

Peli'k ekin zion bide gora. Ba-zijoan baiña bildurrez, otz-ikaraz zijoan. Oraindik eun oinkada etzituan egin eta bere ondoan izugarrizko deadarra entzun zuan: "Ori emen !... eman orri!, eman !, maki ada bat orri !... zazt!..."

Peli'k, bildurrez jota, atzera begiratu zuan, eta bertan, rast!, esku beltz batek eldu ta aranondo biurtu zuan.

Gero, laugarrena joan zan. lñes zuan bere izena. lñes'i siñiserazi zioten emakumeak ludi onetan duan eginkizunik aundiena, dantza egitea zala. Orregatik, beti dantzan zegon. Soiñua entzun orduko, an zan lñes oiñak aidian zituala.

Sartu zan, ba, bidera ta alderdi guzietatik soiñu jotzen. An duntziñea, emen danboliñak txiruliruli... txirulirula .. eta lñes'ek esanak oso azturik, ekin dio dantzari... ta lenengo jira ariña egiterakoan, antxe aidian aranondo biurtuta gelditu zan.

Gero bosgarrena. Luis biurri mutil gaizioa etzan, baiña bere ondoan txakurren bat ikusi orduko, arri koskorra eskuetan, an zijoakion atzetik. Luis'i bada, bide ertzetik txakur bat xaxatu zioten eta Luis'ek arria jaso ta burua ausi nai ziola ta jirau zan... eta bertan aranondo egin zan au ere.

Orrelan, batzuek onegatik eta bestiak arakoagatik, emeretzi galdu ziran. Erregea malkoz eta emaztea negar-zotiñez, seme-alabak iltzera zijoazelako; iriorik ez bai zekarren larrosarik.

Oraintxe ogeigarrena baiño etzan gelditzen. Bera Sabintxo zan.

Sabintxo ez polrta ta ez itxusia, ez azkarra ta ez motela, ez gorriska ta ez zurriska. Danetatik erdizka zeukan. Baiña oso bildurgabea ta paketsua, biotz aundikoa ta ageria, oso zintzoa ta gurasoakaz maitekorra bera.

Sabintxo'ri, bada, bere astia eldu zitzaion eta bere aurretiko emere-tziak ez etorriarren, iñundik bMdurgabe zegon. Ura poza zeukana joan eta urrezko larrosa ekartzeko!

—Baiña, mutil, bestiak ez dituk etorri —esaten zioten.

Berak, ordea: —Esanak etzituelako egingo, noski.

Sabintxo bere amak oso maitia zuan, eta urrezko larrosa bere semeak ekarriko zualako uste osoan zan. Bere ordua egin zitzaionean, otsegin eta esan zion:

—Ene Sabintxo, ez aztu Burruntxali irakasleak esandakoagaz; ezer-gatik ere batera ta bestera ez begiratu; ezta dedarka joko autela eta beste izen txarrez otsegiten ba'didate ere. Beti aurrera ta gora begira. I beti mutil txintxoia rzan aiz eta orain ere alaxen izan akit. Orrelan urrezko larrosa ekarrko dek eta gero Erregearen etxian izango arz. Joan akit, bada, zeruko Jaunaren onetsiz.

Sabintxo'k amari parretsu musu eman zion, eta "Aitaren" egiñaz, bide aurrera jo zun, rau... rau... rau... rakataplau... rau...

Ene Jaungoiko maitea! Bidean ertzetik esan zizkietenak! "Erua! betoker! Sabin tirulero!, txorikuma!, txepela!" Gero eskubitik: "Polit ori, eder ori!, ator jolasera!, ara nun pillota!, or gozua!" Ezkerretik: "II egin-gol augu! Eman orri, lotsagabe orri!" Batzuetan dedar-irrintzi bildurgarriak egiten zizkieten ezkerretik. Eskubitik, berriz, abesti ta soiñu politak. Ango algara ta jolas egitea! Deadar egiten zion: "Sabintxo, Sabintxo, ortik ez adi joan; emendik, eskubira jo ezak..., i urrutiegira ua..."

Baiña Sabintxo'ri amaren esana zetorkion: "Ene Sabintxo, beti aurrera ta gora begiratu!... Ire ama ta irakaslien esanak egin... Ori guzia gezurra dek... Ez begiratu".

Sabintxo'k aurrera ta gora baiño etzuan begiratzen ta bat-batean, zazt!, lorategi eder baten erdian arkitu zan. Erdi-erdian zegoan "Urrezko larro-saondo". Eskuak luzatu, aietako bi ebaki ta berriro lengo bidetik, gora ta aurrera begira, etxeruntz ba-zijoan.

Baiña orduan ere, ezkerretik: —Lapurra, nik ilko aut; ez dek Jarrosarik eramango; eman orri zigorkada bat; ortlk iges baiño len ebai ori!...

Sabintxo, ala ere, aurrera begira.

Gero eskubitik: —Ezkerrekuei ez begira; lenen ator onuntz; larrosa oietako bat eman ezaiguk. Bategaz asko zaik, beste ori guretzat; ez ari zorua izan. Bat ematen ez baldin ba'diguk, biak kenduko dizkiagu.

Sabintxo, ordea, aurrera begira..., an urruti bide ertzean ama zai zeu-kala ikusi zuan, eta begiak beragan zituala... an... an... an... amaren besoetara erori zan; larrosa biak bere eskuetan, bai ederrak!

Amak bere semetxoa Erregiarengana eraman eta larrosa biak eman zizkion. Seme-albatxoak sendatu ziran, eta Luistxo gero Erregearen alboko egin zuten. Ura ama-semearen poza l

SISTIA

A L D I A

Urteak amabi il ditu: ilbeltza, otsailla, jorrailla, loraila edo maiatza; garagarrilla ta uzta; daguenilla ta garoilla; urria, azaroa ta neguilla edo lotazilla. Ona urtearen lau urtezaroak: uda, udazkena, negua ta udaberria. Illebeta bakoitzak lau aste ta egun batzuek ditu. Aste bakoitzak zazpi egun: astelena, asteartea, asteazkena ta osteguna, ostirala, larunbata ta igandea.

Gure egunetan baiño jai geiago ziran orain eun bat urte. Oraingoxe Aita santuak ere jaiegun batzuek kendu dizkigu.

Neguan eguzkia, nagi dalako edo, berandu jaikitzen da ta gero egunak labur-labur izan bear. Illargia ere neguan, otz dalako bear bada, odeiz erdi-estalarik ibiltzen da izarpean.

Orenik (erlojurik) etzanean, euskaldun zarrak, gure asabak, onelaxe negurtzen zuten aldia: goizaldea, goiza, goizlana, goizerdia, goizberandua; eguerdi aurrea, eguerdia, eguerdi-ondoa; arratsaldea, arratsalderdia, arratsalde apala; illuntzea, arratsa, gaua, gaulena, gauerdia, gauberandua, egun-sentia ta berriz goizaldea.

AZKUE (R. M.)

LORE MAITIA!

Zelaiko txuri, txuria,
maitagarria,
arretaz zaukat nik txit gorclia,
Lore maitia !

Zuri negira ni naiz poztutzen,
egun onaz naiz gogoratutzen
eta pensatzen,
nola denbora dontsuzkuak
diran pasatzen.

Lore maitia! Maitagarria!
txuri, txuria !
Negarrez dago nere begia..
maiko ezta !

Zertako dezu, lore maitia,
intz goiztarraren tanto garbia
dizdizaria,
nere malkoak bustitzen badu
zure orria?

B. ETXEGARAI

DIK ETA ERRALDOIA

(Iparralde errietako ipuiña)

Egun guztia kantuan igaro oi zuan Dik'ek. Kantuan eta leku batetik bestera ariñeketan. Basoa geien atsegin zitzaion, eta ez zion iñori iñoiz kalterik egiten.

Igande goiz batean, erraldoi bat ikusi zuan basoan, eta beriala igerrri zion bera arrapatu nai zuala.

Dik, zugatz aundi baten atzean ezkutatu zan, baiña erraldoiak ikusi zuan, eta arrapatu ere bai. Eta buruz bera, ankatxuetatik txintxilika bere etxera eraman zuan. Dik'eri, odol guztiak burura jo zioten eta ez zekian ez nor zan bera, ez nun zegoan.

Erraldoiak, burnizko ariakin egindako kartzela baten sartu zuan, eta jatekoa ipiñi zion ontzi batean.

Biaramon goizean erraldoiak amorru aundia artu zuan Dik'ek ezer ez zuala jan ikusi zuanean, eta kartzelatik alera, ta gogorkeri aundiz aoa irekiaz ta jatekoa sartu zion. Dik gixajoa ito ez zanean!

Urrengo egunean, berdin; Dik'ek ez zuan ezer jan nai ta estuasun aundiak igaro erazi zizkion jatekoa aotik nai ba'zuan ta nai ez ba'zuan sartzen. Dik'ek, zeukan larritasunakin arnasarik ere ezin artu.

Gero, erraldoiak agindu zion' kanta zezala. Baiña, nola kantatuko zuan, bada, ikara batean, ikara batean dar-dar eta biotza saltaka zeukalarik? Nola zeikean erraldoi gaiztoak ori ez aitutzia?

Orduan, erraldoiak, artu ankatxo bietatik eta zapi zar bat bezelaxe astindu zuan. Eta Dik ilda gelditu zah.

Umetxo maiteak: Ez al diozute Dik'i txoritxo baten antzik artzen? Eta erraldoiari, txoritxoak kabian arrapatu, kaiolan sartu, ta bitzta txarra ematen dioten mutiltxo gaiztoena?

JULENE AZPEITIA

EULIA TA MANDOA

Euli bat gurdi baten alkian exeri zan, eta gurdi aurrean zijoan mandoari arguriotan (zarataka) ekin zion:

—Zeihen nagi abillen, mandotzarra!,,. Aguroago ibiltzen ez al dakik? Baidok gero, nere eztenak lepoa ez ote dikan zulatzen!...

Orduan mandoak erantzun omen zion:

—Ixilik agokit, euli txatxarra! Ire itzek eta atari aizea berdiñak zaizkidak... Zigor aundia eskuan daraman gizonari ta nere bizkarra ebaintzen zidakanari, orretxeri bildur natxiok, ez iri, lurrean ageri etzaizen maxkar orri. Abolori-ardaiak utzi itzak, eta noiz "arre" noiz "iso" ba-zekiadala, jakin ezak.

Ipui onek parragarri utzi ditzake, almenik gabe abo aundi diranak.

ELURMENDI

T X O R ! A K

Soro eder batian zebiltzan txoriak,
lodi, itsusi, eder, aundi ta txikiak;
denak zebiltzan a'ngo gauz onenak jaten,
azi, lore, alea, janik ziran joaten.

Burrioiak zituen garbitzen baztarrak,
jaten zituen pizti ta xonorro txarrak.

Besteak ikusirik burrioia orla,
denak batean egin zioten an burla,
esanaz: —Tonto txarra, orla zikiñak jar
izanikan alea nai aiña aukeran.'

Denak ari zirala nor bere asmoan
entzun zuten sutanpa beraren auzoan;
igeska denak presaz nola asi ziran,
uste gabe gelditu zinaden sarean.

Sare aundien jabe ta nekazariak
jaso zituzten preso an ziran guztiak
esanaz: —Kalte dute egin soroari,
lepoa biurtuko diegu denari,

Orcluan burrioak dio indarrakin:
—Jaunak, oiek guztiak kalte clute egin;
denak aritu dira ale onak jaten,
baiñan ni ari nintzan baztarrak garbitzen.

Ontzat arturik aren esana guztia,
ari bakarrik laja zioten bizia.

Gure artean ere ori da gertatzen,
gaizkilleak ba'dira sarean erortzen;
kulpa gaberik bada tartean arkitzen,
iustizien indarrak dio lagundutzen.

J. ARTOLA

NEKATUTZEN EZ DANA, UTSA DA!

Kastor-aundi, andaluz bat zan. Gizajoak lanik ez eta larri zan sabela nola bete jakin eziñik. Benetan sabela ere poltzia bezin ximurra zeukan.

Bein miñak aztutzearren, edo aize gozoz asetzekotan, etxetik atera zan, eta masti baten langille-taldea ikusi zun. Belaxe nagusiarengana jo zun:

—Nagusi jauna, zure langilletako bat izan nai al nazu?

—Ez, len ere geigi ditut.

—Ara, ni bezelako langillerik iñor ez dezu.

—I baiño obeaguak ere bai, arroxko.

—Baiña nik oietako iñork ez duan gauza bat det.

—Zer dek, ba, bestiak ez duten ori?

—Ori ere galdetu?... Baaa... ni jo ta jo egon arren, beiñere ez naiz nekatutzen.

—Arrapazak!... la, mutil, itzak atxurrera. Or atxur ori ta ekin.

Kastor-aundik eltzen dio atxorrari *eta*, *aren* arnaska ta zalaparta!, jo ta kia egiten zun!... lanian ba-zekian bai. Nagusiari ondo iruditu ziztaion eta aldegin zun, mastiaren beste alderdiak ikustera. Andik geroxiago berriro etorri zan eta, ura astuaren arantza!.. Kastor-aundi, intxaur itzalpe

gozoan, lo etzegon ba! Eta beste guztiak lanian! Nagusiak ikusi zuan; bekokia trumoi-laiñoz estal zitzaien eta kolkorako: —Orrek lengua izan bear dik!... Nekatutzen etzana!... Eta, urreraturik, oiñ-muturrez bultz-egin eta esnatzen du; lotan bai zegon!

—Adi ezazu, arroxku!... —Jummm! Kastor-aundiak esnatutzerakuan: -Zer da?

—Zer dan? Zu etzera, ba, iñoiz nekatutzen etzerana? Orain nola zagoz, ba, or itzalpean etzanda?

—Arraia! Ez al dakizu, ba, onela egingo ez ba'nu, beste guztiak bezelaxe nekatuko nintzakela? Ni beñere ez naiz nekatutzen.

—Beraz, zu ez?... Ni bai, ordea. Eta zutzaz nekatu, edo obetuago, aspertu naiz; ia bada, beste alde batera! Eup!, ala emendik!...; orrela gutxiago nekatuko zera.

Umetxuok: zuek nekatu arteraiño lan egin, baiña goizegi ez nekatu. Azkar nekatzen diranak eta nekeari eutsi ezin diotenak, utsak dira!

SOLUXE

GOZONAREN ESTALKI TA APAINGARRIAK

Abereak eztu estalkirik bear otzari jarkitzeko: bakoitzak bere illea aski du. Gizona (gure artean beintzat) otzez ilko litzake, estalkirik jantzikiko ezpalu.

Estalki auek irutarikoak dira: burukoak, soiiiekoak eta oiñetakoak. Burukoen izenak geienak dira arrotzak: txapela, kapela, txota, txanoa, marmota: aurren burukoa da au. Emakumeak, ezkondata gero, zapia erabiltzen zuten buruan.

Soiñekoen izenak ere batzuek, gutxienez, erderazkoak dira: soingaiñekoa, jakea, koratilloa, txamarra, txartesa, prakak, gona, goruntz, besana, gerriko, mendel. Apaingarriztat tatarra ere erabiltzen dute gizon askok.

Baserritxoetan, alkateak gotzaiña (obispua) datorrenean, jartzen du tatarra; zeatzago esateko, alabak jartzen dio.

AZKUE (R.M .)

Txangurruak itz egin
zuten batzarrean
aurreka ibilli obe
ez ote zutean.

Alzeraka ibiltzea
ez da egokia;
parregarria baizik
ta lotsagarri'a.

—Nork bere umeari
—danak esan zuten—
erakutsi bezaio
aurrerontz ibiltzen;
eman danoi oitura au
jaioten danetik,
utzi gabe egiten
atzeruntz oinkadik.

Biaramon goizetik
omen dira asten
umetxoai aurrerontz
ibilli-erazten,
atzaparrak biguiñak
zituzten artean
aurrerontz eragiñaz
atzerontz ordean.

Ari dira ba onela
ziñez gurasoak
egunoro zuzentzen
umeen pausoak;
baiña alperrik egiten
dute alegiña;
ezin garaitu dute
semetxoen griña.

Atzerontz ikustean
aita eta ama,
ikusteak umea
atzetik darama,
Argatik txangurruak
gaur ere dabilta
beti atzerontz, arre,
sokagille gisa;
esaten digutela:

—"Ez esan ez, egin
nai ba-diok besteri
edozer eragin".

ITURRIAGA

EMAZTE ZINDOEN EREDU

Alakoa izan zan Godolen deuna, Buloñe'ko aldean jaioa. Bertulf zeri-
tzan gizon batekin ezkondu zan, baiña ezkon-jaiak bukatu ezkeroz, gizon
gaiztuak alde egin zion. Eta, bere amaren itzei on emaner, morroi zital bati
bear bearrezko janaria ezpa-zan, emazte gixaxuari besterik eman etzezaion
agindurik, etxetik iges zijoan.

Emaztea gosez iltzeko asmoa zeukan nunbait, eta oraindik bizirik zegola jakiñaz, janari aren erdia ere kendu zion. Baiña emazte gixaxua ixillik, eta ez-eukiei alegiñez lagunduaz, bere lan eta maikoak Jaungoikoari eskeiñi zizkion.

Eriotza gertu zetorkiola igerri, ta gurasoengana itzuli bear izan zuan, Godolen deun arek. Flandre'ko konde jaunak, eta Noyon'eko obispuak gauza beren eskuz erabilli, ta Bertulf biotzgea bere emaztearengana ekarri zuten. Gizon gaiztuak, ordea, bi aizkide beltzekin alkartu, emaztea errekatxo batean ito, ta ito-berria oiean utzi zuen. Godolen eztiak, berriz, bizirik zegonean Jainkoari senarraren alde otoi egin zion bezela, ildakoan zeru goitik zain nai izan zuen. Ara nola.

Bertulf bigarrenez ezkondu zan. Alaba jaio zitzaion. Baiña itsua! Bein batean itsu txikiak, Godolen deuna ito zuten errekako urarekin igurtzi zituen bere begiak, eta bertan mirariz iriki zitzaizkion.

Aita gaixtua, mirari ura jakin zuenean, biotzetik damutu, konbentu bat egin, eta bere gaiztakeri guztiak negar eta nekez garbitu naiean, Winnok deunaren etxean, praille sartu zan.

LARDIZABAL A., L. L.

LEOIA TA ASTOA

Leoi aundi ta indartsu batek asto bat artu omen zuen eiztarilagun Leoiak esan omen zion:

—Ik egintzak, onako ontan, arrantz aundi la luzea, ta ni, aruntzago, zeletan egongo nak. Marru egintzak; nik esatean, ordea.

Jarri zan, bada, leoia berak ondo ezagutzen zuen iganbide batean, ta andik eman omen zion astoari arrantz egiteko manua. Baita astoak ederki egin ere!

Basoan zan eiza guzia asaldatu zan, ta astoa gibelalde itzita, leoia zegon zulo-zulora zetorren. Etziran noski onen agin ta zintzurak alper egon Ura jate ta txikitzea !...

Amaitu zan eiza, ta astoa ba-dator arro-arro leoiarengana...

—Eup!..., zer deritzazu, leoi jauna, nere marruaren almena?

Leoiak erantzun omen zion:

—Bapo, motel, bapo! Astoa infzala jakin ez ba'nik, neronek ere bilturtuta, itzul egingo nikan.

Usfe gabeko kemenak astoak izan lezazkike,

ELURMENDI

TRUMOI-EGUNETARAKO

Trumoi, tximista ta oiñaztarri egunetan, asko ilten dira urtero; beraz, kontuan ibilli bear da. Ona olako egunefarako onu edo konfseju batzuk.

1. Etxean ba'zagoz, atera ez urten.

2. Etxe barruan, ate ta leioak itxita euki; tximini ondora ez urreratu. Soiñeko bustiakaz etzaite egon, ezta leku bustietara joan be.

3. Kanpoan zagozanean, zugatz azpian etzaite gorde; ezta txabola-pean be, inguruan beste gauzarik ez ba'dago beintzat.

4. Arkaitz zuloak guztiz arrisksuak dira.

5. Tren eta automobfletan, leioak eta ateak ondo itxi.

OILLAXKO NARRAXKO

Amona jostari ari zan bere billobatxoekin:

—Ara, ba, aurrok, etzendukete asmatuko noren ipuia kontatuko di-zuedan. Joxeba sudur-pinportak bota zuan:

—Azeri anka okerrarena.

Anetxo perkaxa jaiki zan esanaz:

—Akio Makiorena.

IzBskun azitxoak erantsi zuan:

—Bei adar bakarrarena.

Amonak parre-irri gozoz ebaki zituan guzien esanak:

—Ezta urrik eman ere! Gaur, Oillaxko Narraxko'rena kontatuko dizuet.

Anetxo txaloka asi zan, ziola:

—Ai, bai polita!

Joxebak eten zion itza:

—Bai izen itxusia!

Izaskun'ek ostera:

—Esan, esan, amona!

Amonak beatza ezpaifetara eraman da ixil-arazi zituan umeok:

—Burua nastu bear didazue, umeok... Tira, exeri nere inguruan eta ixo guziok!

Oillaxko Narraxko, egunero ateratzen zan baratzean barrena, zer billatuko. Arratsalde aretan ere, moko garbitu, bizpauru aztarka egin eta amari ezer esateke, atera zan zugaizpera... Ta zijoala zijoala... —Kask!— eta zugaitz batetik eroritako aran batek jo du buruan. Aren bildurra! Eman zion igesari, esanaz:

—Zerua pitzatu da ta ba dator lurrera.

Erregeri ba-noa lenbailen esatera.

Joan da joan, joan da joan bidean, orra nun arkitzen duan oillo Morroillo:

—Nora zoaz, Oillasko Narraxko?

Onek erantzuten dio:

—Zerua pitzatu da ba-dator lurrera.

Erregeri ba-noa lenbailen esatera.

Oillo Morroillo'k ori entzunaz, dio:

—Ni ere zurekin noa Erregeri itzegitera.

'Joan da joan biak, joan da joan, orra nun arkitzen auntz Bixer, adar oker:

—Nora zoazte, Oillaxko Narraxko ta Oillo Morroillo?

—Zerua pitzatu da ta ba-dator lurrera.

Erregeri ba-goaz lenbailen esatera.

—Ni ere zuekin noa Erregeri itzegitera.

Joan da joan, joan da joan, eta orra nun arkitzen duten Adari Madari:

—Nora zoazte Oillaxko Narraxko, Oillo Morroillo ta Auntz Bixer Adar Oker?

—Zerua pitzatu da ta ba-dator lurrera.

Erregeri ba-goaz lenbailen esatera.

—Ni ere zuekin noa Erregeri itzegitera.

Joan da joan, joan da joan, orra nun arkitzen duten Arata Marata:

—Nora zoazte Oillasko Narraxko, Oillo Morroillo, Auntz Bixer Adar Oker eta Adart Madari?

—Zerua pitzatu da ta ba-dator lurrera.

Erregeri ba-goaz lenbailen esatera.

—Ni ere zuekin noa Erregeri itzegitera.

Joan da joan bostok, joan da joan, eta orra nun arkitzen duten Basaurde Lantzurde:

—Nora zoazte Oillaxko Narraxko, Oillo Morroillo, Auntz Bixer Adar Oker, Adari Madari' ta Arata Marata?

—Zerua pitzatu da ta ba-dator lurrera.

Erregeri ba goaz lenbailen esatera.

—Ni ere zuekin noa Erregeri itzegitera.

Joan da joan seirak, joan da joan Oillaxko Narraxko, Oillo Morroillo, Auntz Bixer Adar Oker, Adari Madari, Arata Marata ta Basaurde Lantzurde... Alako batean jo zuten Errege-Etxeko atean:

—Errege Jaun, entzun zazu: Zerua pitzatu zaigu.

Lenbailen konpondu zazu; bestela galduko gaitu.

Erregek begiak zabaldu zituan eta eskua estuta zion Oillasko Narraxko'ri, Oillo Morroillo'ri, Auntz Bixer Adar Oker'i, Adari Madari'ri, Arata Marata'ri ta Basaurde Lantzurde'ri ta esan zien:

—Eskerrik asko zuri, ta zuri, ta zuri, ta zuri, ta zuri, ta zuri.

Eta sakeletik atera ta bakoitzari urrezko xentimo bana eman zion. Aiek urrea sakelean sartu ta pozaren pozez asi dira kantari. An dijoaz bidean bera Oillaxko Narraxko, Oillo Morroillo, Auntz Bixer Adar Oker, Adari Madari, Arata Marata ta Basaurde Lantzurde kantuz aidea urratzen:


Zerurik ez da eroriko,
Erregek dio eutsiko.
Ba-degu xentimo bana,
Goazen amarengana.

Ta arrazkero erriko aur **guziak** kanlatzen dute jira-biraka **dabiltzala;**

Oillaxko Narraxko,
Oillo Morroillo,
Auntz Bixer
Aclar Oker,
Adari Madari,
Arata Marata,
Basaurde Lantzurde
Erregerengana joanda
aberastuta daude.

ETXANIZ'tar NEMESI

ORRILLA



GEMINI

• V-21 • VI-21.

BIKIAK.—Or mutiko (Gemini) bi, praka-motz, jake-lodi, matrail borobil, ule-kizkur. Burua euskal txapelez estalduta daukie. Alkar maite izanik be, setati agertzen yakuz emen, esku artean daukien jostaiUua bakotxak beretu nairik. Aurrez aurre dagozan gauza bi adierazten dauskue oneik.

Zeru-gerrian irugarren ezaugarri dira. Ta eguzkia orrillaren 21'tik bagiUaren 20'rarte dabil euron esparru zear. Ekliptikan, barriz, 60'tik 90°ra aurkitzen dira. Kastor ta Polux izarrak be ementxe daukaguz.

Garai ontan izadiak aldi barri, oso jator bat dau. Arito'n asi zan udalena, suaren zigorpean, bizitz-indar-ler zoragarrian; Zezen'ean lurra nagusi, landarak errotu ta abereak mamintzen baitira. Bikien garadan, ostera, aizeak eta eguratsak gauza guzti orrein ugaltzea ta garaitzea zaintzen dabe. Bilci oneik, beraz, muker ditugu, baiña bizikor.

J O L A S A K

1) KIRIKETAN

Amoroto, nire erritxo polita, Markiña, Aulesti, Ondarru ta Lekeitio bitartean aurkitzen da; mendi gaiñean oso lirain jarria, Urregarai'ko atxak eta Nabarniz'ko mendi-sailla ditu atzetik, aurrez-aurre ostera Kantauri itxa-soa esku mendean.

Erritxo ontan be —nun ez?— ba-dira ume-jolas barregarriak. Gazte giñala ortan jardun oi genduan, ikasketa aurretik eta ostean.

Jolas onetan lo eglu bear izaten eban batek, besteak urrin joaten ziran artean. Lodun ori nor izango zan jakiteko, guk onela esaten genduan:

"Kikuri. bikuri lakirikon,
zinko binko larikon."

Jolas-lagunak sei ba'gintzazan, bost bidar esaten genduzan itz orreik. "Larikon" esan eta ikutua zanak baztarrean geratu bear eban, eta bost gelditzen giñan.

Barriro be "kikuri bikuri" asirik, "larikon"era eldu ta ikutua zana banaturik, lau gelditzen giñan; gero, iru, bi... ta azkenean bat. Eta auxe zan lo egin bear ebana.

Loduna onela autetsi ondoren, alkar arrapatzeko jokua asi oi genduan.

2) OTZ ALA BERO?

Mutiko nai neskato mordoia. Jolaskideen artean zotz-egin billaketan nor asi.

Au gelatik edo eskaratzetik kanpora doan bitartean, besteak titara edo antzeko gauza txiki bat ezkutatuko dabe. Titarea ezta iñoiz be gordeko arasa edo beste gauzakiren baten barruan, ez azpian.

Gorde ondoren, billatzaileari dei egiten! yako; eta au titare billa dabilen artean, enparauak jarrita egongo dira ingurua egiñik.

Billatzailea titara ondora eltzean, onela ots egingo dautsoe: "Bero!" Geiago urreratu ba'dadi, onela: "Beroago!" Eta oindiño bertaragoa eltzen ba'da, onela: "Erreko az!" Baiña, urrin ba'lego, onela ots-egingo: "Otz!" edo "Otzago!" edo "Uituko az!"

Gordetako trtarea aurkitu dagianean, jolaskideekaz alkartuko da, ta beste batek egingo dau billatzaile.

Atsegingarriago egin daikegu jolas au, gordetako titaretik urrago ala urriñago dabilenean, pianua nai beste jogailu bat gogorrago nai bigunago joaz.

3) AMAR ZOTZAK

Amar zotz, edo taket txiki, bear dira ontarako. Taketok lurreean zutik ipiñi, iru ertz egiten dabezala. Zelaitxo baten egokitzen d'ira ondoen, leku garbia izanik beintzat.

Iru metrotik lez bota eurekana pelotatxo bat. Txanda bakotxean iru pelota, edo pelota bera iru aldiz jarraian, bota daikezue. Lurrera erasten diran zotz edo taketak, barriro jaso bear dozuez eta, beste lagun batek txandea artu orduko, bere lekuan jarri ostera be.

Pelotatxoaz jota erasten dan zotz edo taket bakotxagaitik, puntu bat irabazten da. Jokolari bakotxak amar txanda egindakoa, bat-banatzen dira bakotxak irabazitako puntuak.

Pelotea ezta egundo be saltoka jaurti bear, narrasean baiño. Ortarako balio dau tenispelota batek, naiz algodoi-aril batek, naiz zapizko biribil batek.

4) BUSTI ALA LEGORKA

Aur-jolas au oso antxiñakoa dogu: erromarrak eurak be, txikitan, onela jokatu oi eben, guk Bizkaia'n "busti ala legor" eta Gipuzkoa'n "ogi ala ardo" esaten dautsogunari areik "caput aut navis" esanik.

Arri txiki bati alde bat bustitzen yako, urez nai txistuz. Alderdi bustiari "busti" (ardo) deritxogu, ta busti eztanari "legor" (ogi).

Lagun batek diño: "Busti ala legor?" Besteak, bata naiz bestea eskazten dau. Orduan lenengoak goraka jaurtzen dau arria.

5) PELOTAKA

Zer bear dan: txistu bat eta pelota bat.

Jolaslariak inguru edo bira bat osotuten dabe, jolaskide bat erdian daukiela. Zuzendariak txistukada bat emon bei, pelotea alik eta goren jaurtirik. Ontan mutiko guztiak iges doaz, erdikoak pelotea artzen dauan bitartean. Artu-alean, zuzendariak beste txistu-ots bi emongo ditu, jokolari bakotxa ots-otsean gelditu ta bakotxa bere lekuan loturik.

Erdikoak, au da, pelotea eskuan daukanak, bere lekutik alde egiteke, lagun bat jo bear dau pelotea jaurtita. Orrela ba'dagi, jotakoak artu bear dau aren tokia, eta beste jokolari guztiak barriro ingurua egiñik, jokua ber-asten da. Jaurtzailleak, baiña, iñor joterik lortuko ezpaleu, erdlan jarraitu bearko dau, jokua len lez aurrera eroanik.

6) AUSKADAKA

Nai aiña jokolari ta epaikari bat. Eta jokolari bakoixarentzat sagar bat naiz madari bat, ail ta guzti.

Sagar edo madari onei aritxo bat lotzen yake aillean. Eta ondoren, zugatz batetik bestera naiz taket bitan soka bat jarten da zearka, naikoa gogor, teink egitean ez austeko eran. Soka ontan dingilizka ipinten dira sagarrak, uneka-uneka.

Jokolarik gero, eskuak sorbaldan dabezala, erreskadan jarten dira, bako-
txa bere sagar edo madariaren aurrez-aurre. Epaikari egiten dauanak
asteko agindutakoan, bako-
txak bere sagarra jan naiko dau eskuekaz ikutu
barik. Sokatik be ez dabez askatu bear.

Beera bota barik jatera eltzen dana dozue txapel-
dun.

7) GA(UR DALA

Ekandu zarra da gure artean San Juan bezperan sua egitea. Ez dakigu
noiztikoa ta zegaitik dan, baiña egun orretan toki gitxi geratuko dira
etxe-inguru edo solo-barrenen baten sutzar galanta egin barik.

Umeak —baita nagusiak be— zerbait kanta oi dabe sugar inguruan
bi'raka. Zornotza aldean au entzuna dot:

Gaur dala, biar dala Doniane,
Etzi San Juan biaramone,
Gure soloan lapurrik ez;
Ba'dagoz bere, erre beitez.

8) LAPIKO APURTZEA

Soka bat taket batetik bestera. Soka orretan, lotuta, lapiko bat ipinten
da dindil. Lapikoa, iñoiz gozokiz beterik egon oi da, iñoiz utsik edo urez
beterik.

Mutiko bati begiak lotzen yakoz, ikusi ez dagian. Orrela, makil naiz
aga luze bategaz, lapikoa apurtzen aleginduko da. Sokea, bitartean luzetu
ta nasaitu egin bear da. Mutikoak utsean emoten ditun makiilakadak iku-
sita, ikusleak barre-algara ederrak egin daroez.

9) DIRU-BILLA

Jarri mai gaiñean mazkelu andi bat sopaz beterik. Mazkelu orren
barruan ogerleko batzuk. Mutiko mordoia mai inguruan sopea jan nairik
baiña koillararakaz batak besteari emonda jan bear da.

Barruko dirua nok atara, leiaketa polita sortzen da,

IGOTZ

A B E S T I A K

1) KIRIKIRIKEN

Ez da gauz erreza,
kiri-kiri-ken,
kiri-kiri-ken,
ez da gauz erreza
ama gezurtatzen.

Kiri-kiri-ken-du
dana jakiten du
kiri-kiriikik,
zelan ba-dakik?
Kiri kiri-ko-ko-ko,
atxikiñak esateio
kiri-kiri-ko, ko-ko-ko,
dan-dan-dana esateio.

Eskola-igesi,
kiri-kiri-kaiz,
kiri-kiri-kaiz,
eskola-igesi
ortik joaten ba'naiz,
Kiri-kiri-ken-du...

Eztia ontzitik
kiri-kiri-ket,
kiri-kiri-ket,
eztia ontzitik
atzaz osten ba'det,

Kiri-kiri-ken-du..
Kaiera igari
kiri-kiri-ket,
kiri-kiri-ket,
kaiera igari
iges eiten ba'det,
Kiri-kiri-ken-du..
Otoitzak eiteke

kiri-kiri-ken,
kiri-kiri-ken,
otoitzak eiteke
ba'naz lotaritzen,
Kiri-kiri-ken-du.,

Mutillok burrukan
kiri-kiri-ka,
kiri-kiri-ka,
mutillok burrukan
ibiltzen ba'gera
Kiri-kiri-ken-do...

2) MARTINTXO

Martintxo! Martintxo!
gure pittirrintxo!
Martintxo ! Martintxo!
oraindik txikitxo.

Egunez lo eginda,
negarrez gabero.
Martintxo! Martintxo!
gure artabero.
Martintxo!...

Amaren bularretik
xurgatzen du goxo.
Martintxo! Martintxo!
gure arkakoxo.
Martintxo!...

Amari loa kentzen
mutilla da oso.
Martintxo! Martintxo!
mutiko maiñoso.
Martintxo!...

ETXANIZ'tar NEMESI

3) PANDERO ZARRA

Pandero zarraren otsak
alaitzen ditu biotzak,
alaitzen ditu biotzak,
gure gazte jendeari
kenduz dantzarako lotsak.

Pandero zarra ta alboka,
biak ari dira joka,
biak ari dira joka.
Gazte jendeak or dauka
bere biotzen azoka.

Begira, begira dantzari.
Begira soifui joilleari.
Begira begi bietatik
darion negar malkoari.

ETXANIZ'tar NEMESI

4) ARRANTZALIAK

Arrantzaliak baru-ausita
kanpora doiaz zintzorik;
betoz guztiak osasunagaz
eta iñor bere ez gaisorik.

Otzaratxu bat,
otzaratxu bi,
arraiña dator
portura beti:
besigu, lebatz, sardina ta atun,
eta beste asko ganeti.

Errira datoz ipar aldetik
belak betean ontziak:
ondo dirudi egun argitan
belan dabillen ontziak.

Berrogei arratz besigu dakaz
txalupa andiak egiñak,
ogeta amar bat txikerrak, eta
laroegi lebatz potiñak.

Ogerleko bat egin dau bertan
besigu arroi guztiak;
eta amar lauko t'erdi libreak
lebatz amuan josiak.

E. M. AZKUE

5) ALBISTA ARIÑA

Mitxeleta ñabarra
lora billa amesti !
Alantxe gura neuke
ibilli nik beti.
Landa ta zelaietan
aize epel ereti,
nabillen ni be egazka,
laiño ta eguzki.
Mitxeleta albistari
zatozke zerutik,
udalena zu bage
nirezako utsik.

ERKIAGA'tar EUSEBI

6) MAIATZEKO KANTEA

Landak zidar diran unian
gogai au ba-juat airian!

Lora-erditze leuna dauko
euri-maitale zan latxiñak.
Eta irustatzak, apez-antzo,
buruban daukez purpulentak.
Gari goitti eta arto musker
nok jariok ainbeste atzon?
Sasitzak eurek zein eder!
Baiña gogai au ezin-egon!

Landak zidar diran unian
gogai au ba-juat airian !

Samurki dabilzan axiok
kantari dirautse bidian:
"Tori usaiñezko egalok
latsak laztandu dagizuzan".
Ta begi-zabal dan loreak:
"Ago beti neure maitale;
oraintxe dira maietz-pestak
ta abarrak dagoz txinta-zale".

Landak zidar diran unian
gogai au ba-juat airian!

Beretzat eztago zugatzik
naiz ta loren eztegu-iduri.
Sagardi orrek zer dagik
ezkonbarri bat legez zuri?
Neure gogai au egaz dua
oianok baiño urrunago.
Naikun bixi batek darua
ta atxillotuko daunik eztago.

Landak zidar diran unian
gogai au ba-juat airian !

Baiña zeure balkoi ondolik
dardar igarotzen danian,
mauak irri-dagitse pozik.
Egal-otsak dabilzan airian !
Orduban bai geratzen dala
zauritu dan uso bat legez!
Maiatzeko elai apala
txirrika dabil zeure ederrez!

Landak zidar diran unian
gogai au ba-juat airian !

LAUAXETA

BIZARRAK LOA KENDU

Nundikoa zan? Txori-erri aldekoa? Arratia aldekoa? Markiña aldekoa? Irurogeta emeretzi urte ebazan aguretxuak bere bizar zuri luzeakaz. Zazpi urtedun bilobatxu bat eukan.

—Aitite —diñotso neskatoak—, berorrek zelan lo egiten dau oian?

—Zelan egingo yonat, ba: begiak itxita.

—Ez, eztot ori esan gura; bizarra zelan eta non ipinten daun esan gura dot.

—Bizarra zelan eta non ipinten dodan?

—Bai, aitite: mantapean ala manta gaiñean.

—Auxa don urterria! Ba, etxakiñat; egundo ez non konturatu.

Artega egoan agurea lobatxuak esan eutsonaz, eta artegago lotara joan zanean. Ogeratu zan, ta... a estukurea! Ogeta bederatzi urteari olako pentsamentu barik ogeratu zan, eta mukur batek baiño zirkin gitxiagogaz lo egin be bai.

Ez ekian bizarra zelan ipirii: ala mantapean ala manta gaiñean. Eta agure gizajoa, bere bizar zuri ederra nun eta zelan ipiñi ez ekiala, orra non dagoan gau oso-osoan loak artu ezinda. Zorioneko bizarrak loa ostu eutson gau atan beintzat.

EMAKUME ALPERRA

Bakar-bakarrik bizi zan, gurasoak itxi eutsena jaten. Bearrik ez eban iñoiz egin: ez lurrik atxurtu ta azirik erein, ez aririk irun ta aldagarririk garbitu, ez autsik kendu ta sastarrik batu, ez egurrik ta surik piztu. Uratan iturrira, egarriak itoko ezpa-eban; eta gosez ilgo ezpazan, auzora jateako zerbaiten billa. Onetxek zirean lñasi'k bere gorputzarl emoten eutsazan neke bakarrak. Gurasoakandiko dirua eralgi ebanean, zati baten doarik jaten emoten eutsen auzoetakoak. Alango baten aspertu zirean eta emakume al-pertzarrak, solora ta ostera ez astearren, lurpera bizirik eroan egiela agindu eban. Andetan eroela, inguruetakoko emakume bat aurkitu eben.

—Nor il da? —itaun eutsen eroaleai.
 —Guk dakigula iñor ez, arean.
 —Illoe utsaz al zoaze?
 —Iñasi alper daroagu.
 —Bizirik?
 —Beronek gura dau-ta...
 —Arto-anega batzuk neuk emongo dautsadaz bizi al izan dadin; ta aurt etxera.
 —Iñasi: arto-anega batzuk emoteko gertu daukazu emen zeure ezagun bat.
 —Eiota ala eio barik? —itandu eban il-oekoak.
 —Ene andrea, eio barik emoteari gilxi deritxazu?
 —Arto orrek neuk eiotakoak ba'dira, gordezuz ondo zeure kutxetan; aurreFa, gizonak, obira (sepulturara) eldu arte.

AZKUE (R. M.)

MUSLARI AMORRATUA

Amoroto'n ba-zan bein musulari amorratu bat. Garizuma eltzean, domeka batez, oitura zala-ta, sakristira joan zan txarteletara. Abadeak, urte atan dotriñan zelan ebi'llen jakin nairik, itaune au egin eutson:

—Zenbat dira Jaungoikoaren Legeko Aginduak?
 —Zazpi, jauna.
 —Aginduak itanduten dautzut, Aginduak.
 —Zazpi, jauna.
 —Iru geiago.
 —Or dago I —diño musulariak, deadar anditan.

TXAKURRAK ETA AZERIA

Txakur-talde batek bein, bidez ebiltzala, leoi-narru bat aurkitu eben baso egalean. Aren poza I Danak artazika, albagiñak alkarri erakutsi ta poz-eztitan, narrua banatzera joiazan.

Ain zuzen, orduantxe etorren mendian beera azeri bat. Eta txakur geldoen poz-artaziak ikusirik, arek dirautse: "Alan be, leoia bera bizirik ba'litz, zuen ortzak baiño latzago nunbait aren atzaparrak."

BIZITZAKO GOIZA

Zu, Malentxo liraiña, biotz-soin gazte:
Uda murgil orduko zurbil-kolkoan,
urdin-orizko lotik iratzar zaite
ta jolastu alaez egun osoan.

Gogapen larri, edo sorgin-amesik
oraindiño ez dozu begi aurrean.
Ekin orrelal, bizitz-urak, goizetik,
zerua dizdiztuko dautzu barnean.

Orain, bizi-naieak odsi zakarraz
gogo-eguna biur baiño len sarkor,
orain, goizez, ez aitzu Goiko Aretzaz:
gurari leial oro Ak bai-dautzu sor.

Orrela, negar-zelai au igaro usu,
edozein dala zure oiñatz-zidorra;
ta, naita urteen astunez indarra meetu,
esku eder zenduke Jainko samurra.

OTARRI

Dabid erregearen eritxiz "Ereslarl gaillen" dan Jainkoak, arrabita bat dauka: oso andia bera, ta giza-erraiak ditu ari. Arrabita (biolin) orl lipar (momentu) apur baten be eztago geldl, ez motel ez ixll. Jotzaille kemen-suaren eskua be eztago iñoiz geldlrik.

Eguzkitik eguzkira, kantuz ta ereska daukoz Jaunak bere izaki ta gauza guztiak. Lizunaren erraiak, jakiña, soiñu orbandua atera oi dabe; atsegin-zalearenak, abere ta piztien gurgur-otsa lakoxe oiuz zakarra; zikoitzarenak ozta-ozta entzuten dira; arropuzarenak, leza sakoneko arriaren antzera dira. Zlndoarenak, ostera, leiar ikara lez dirudie; nekatuarenak, aize meak itxas gain antzo, eres-ots ugaritsua dabe, Intziratikl alaraoraiñoioa.

Eta Jotzaillearen eskua, noznai, geldi baizen samur dabil bakoitzaren gain. Kai'n'ek ots ba'dagi, zeruak katillu antzera birrintzen dira; Booz'ek kanta ba'dagi, oso ezta da-ta, gari meta jagiak gogora dakarz; Job'ek oiuz ezkeru, glza-aragizkoak bai'litzan, dardar-kuku dagie izarrak. Job deuna bera, barriz, gogoratzen urruma gozotan, eder Itzuli yakon oiñaze-errekearl be-gira dago.

Ereslariak ondo entzun daroaz erne ebazan arlmen intzlrak, noiz goibel ta gogo-jausi, noiz sutsu ta atseginkor. Miñetik ederrera jauzi (saltu) dagianean, barre baizen sarri malko betsaln urdiñetan.

Eta arrabita ez da iñofz be ixiltzen; Jotzaillea ba ezta egundo nekatzen; ezta adi dagozan zeruak be eztera aspertzen.

Lur azala edegi daroan gizonak ez daki, noizka ukatu oi dauan Jaunak, errai-zokoan jotan dauanik; semea emon daroan amak be ezta, bere oiuz biziak urdiña zauritu ta une orretan aren aria odolezko danik.

Jainko-zaleak, bai, ba-daki, ta berak bakarrik, ta soiñu ori entzunik, geiago emotearren, zeruko zelaietan azken barik kanta al izateko, bere zauriak sakonago zarrastu oi ditu. Zori ontsua bera, soiñu ixil orren ezkutuz jaubetu dalako.

IGOTZ

A M E S A K

Munduan beti dago
gizona amesetan:
gabaz zorakerian,
egunaz benetan.

E. M. AZKUE

L I L I A

Koldobike'k eta, eukien lorategi baten, ezpel landaraz inguratuta, lili eder marduia, lerdan ta zuri-zuri agertzen zan.

Lili aren neurrira eltzen ez zan neskatotxo, goiz baten lora ain ederrai begira egoan. Inontzez beterik, eguzkiaren lenengo izpi'ak, diz-dizka bere orrietan ebiltzan, arri-bitxiz beterik bai litzan.

Pozez eta esker onez beterik, eguzki, inontz eta loren Egilleaganantz bere begiak jaso zituan.

Gurasoak, euren alabatxoaren ontasuna oartu eben eta ixilka alkarri esan eutsen: "Eder eta zoragarri lora orren antzera, bera be errugetasun lili bat ete da?"

Baiña urtea amaitu baiño len, Koldobike i1 zan, eta lilia barrero loratu zanean, bere ama naigabetuak, beren alabatzaz gogoratuta, negarrari emon eutson.

Orduan aitzak esan eutson: —Oraingo lili *edee* au oraindiño baratzeko ertz baten landaratxo zalarik, aldatzeko atara nebanean, gure Koldobike'k atsekabe andia artu eban, tamala zala esanaz. Baiña gero, lilia lur obero aldatuaz baratzaren apaingarri biurtu zanean, Koldobike pozez bete zan, eta aldatu nebalako eskerrak egin eustazan. Ama samur orrek, ba, ez egizu negarrik egin; ori egin bearrean poztu zaitetz, lurretik aldatua izan arren, ba, zeruan gotzonen artean, diz-diz ez ete dau egiten?

Ludi galdutik urruti,
gure lili garbia,
Jaunak berak aldatu dau
donokien erdira,
baratz eder ta betiko
edertasun tokira.

SCHMID-MANTEROLA

IGARKIZUNAK

Euskal mendietako
arbola bat bi-a,
eta iru ta laua
arotzaren geia,
erromeri lekua
da barriz guztia:
igarten ez ba'dozu,
etzara zolia.
URKIOLA

TXINDURRI NAGIA

Udako arratsaldea zan. Txixarrak kanta-kantari ziarduen; itariak, barre ta zantzo, poz-giro epelean, garia ebaten.

Antxe bertan, gari-solo alboan, txiñurri talde bat bizi zan. Eta, daki-zunez, txiñurri-pilloetan, kanpotik lur-meta andia euki arren, guk ez dogu barruan gordeta daukien ezer ikusten; baiña an ez da ezertxo be palta. Zomorro txiki oneik bai dirala azkar eta eratsuak! Luzaro egon oi gara, ta atsegiñez, eurai begira.

Uda atan txiñurri-pilloetako ate guztiak edegi ziran; baita bertako biztanle guztiak urten be, negu osoan iñondik ibilli barik igaro eben ezker, mundua zear txango polit batzuk egiñik, bertan zeir jazo zan ikus-miñez erreta. Eguzkia dirdirka ikusi eben, arnari umotuz astun zugatzak eta urrezko gariburuz beteta soloak. Pozez jauzika ipiñi ebazan onek.

—Ederra, oso ederra! —iñoen gazteenak esku-joka, adur-txango ta askatasun zale.

—Tira, ez egizue zarata larregi atara, dana elduko da-ta. Orain, len-len egin bear dozuena auxe: aletegietako zokondo ta bazter guztiak gar-

bitu, gari barria sartu daigun; arazo au amaitutakoan, egln zeinkie ibillaldi bat or landa ta soloetatik zear; baina, orain ekin guztiok lanari.

—Bai, bai, pozik egingo dogu; goazen bertatik.

Txiñurri guztiak, amantal luzeak jantzi ta euren amatxoen ondoan jarri ziran lanean, "uri" osoa garbitu ta txukuntzen; bakoitza bere egoitzean, danak daukie ba euren etxetxo garbi ta ondo atondua, eta epe luzea bertan igaro bear izan arren, ez yake ezertxo be palta.

Egiñalean iñarduen guztiak, "Baltzizka" eritxon batek izan ezik: au bere uriko atean geratu zan. Lur-zotal artetik begira ta beso biak gurutzaturik, andik igaroten ziran bere laguntxoak ikusi bai, baiña arei lagundu ta bearrik egiteko asmorik ez eban antza; besteak bai, benetan txiñurriak ziralako, bakoitzak bere amatxori laguntzen eutsan, garbiketa-lana al baita eta ariñen amaiturik, solo-muna ta landa zear urten edo besterik ezean, mats-adar nai geriza zugatzen batera igon eta an oigetako asmoz.

"Baltzizka" egoan ate aurretik bateren bat igaroten zan bakoitzean, ezer egiteke ikusirik, esaten eutsoen:

—Gaixorik al ago, "Baltzizka"?

—Ez, ez!

—Zergaitik ez don, ba, eure etxea pizkat garbitzen, premifian dagon ezkerro?

—Gero egingo dot! —erantzun oi eban txiñurri nagiak, ikustokitik zirkiñik egiteke.

"Baltzizka", bada, amesfari zenduan, cta an inguruko etxerik ederre-
nean biziko zala uste eban; leku eguzkitsuan, ziñez; etxea garbitu, garia batu ta aletegiak nok bete izango eban, urrean; orretarako morroi-taldea izango eban, eta ez eukan zetan arduratu ta buruko miñez ibilli. Ames onek lilluratuta ebillen aurreko udatik; orduan, bada, lagunakaz janari billa joanik, bedartza baten galdu zan, eta andik urtetako estu ta larri, beste "uri" batera jo eban, eta areik bai eroiela bizi nasai ta eroso!

Egun batzuen buruan garbiketa amaitu zan, eta txiñurri guztiak, andi ta txiki, "uriko" ate nagusian alkartu ziran. Erregiñak, geriza lore txortaz egindako bakaulki ederrean jesarrita, onela itz egin eutsen:

—Ene alabak: Beste urteetan lez, eldu yaku negurako jateko batzeko garaia, ots, bakoitzak zeuen sukaldeetako zorionerako lan egiteko garaia. Zoaze bakean, eta gazteenak bioaz zarren atzetik, oneik bai-daukie zentzun eta sen geiago, ta eurok erakutsiko dautzue, zer egin... Labore ta ale batzean, zur jokatu: garia dozue onena, ta zomorro, zizka-mizka ta onelako mizkeririk, ezer bez,

—Gora gure erregiña!

—Gora!!

Alkar besarkatu poz-zorionez gaiñezka, ta joan ziran batzuk emendik eta beste batzuk andik; eta, andrazkoak ziran ezkeru, barbaro biziz autuan joiazan.

"Baltzizka", urtetako erregiñaren baiezkua euki ebanekoxe, bere amets-etxerako bidea artu ta solo ta ortuetara zuzendu ziran beste lagunakandik banandu zan.

—Etzatoz gugaz? —itandu eutsoen.

—Ez, lagunak, ez.

Eta, espaz ez, baiña errukiz, zumardi zabalean zear ikusi eben urrin-zen; eta, ostondu zanean, etziran geiago aregaz gogoratu.

"Baltzizka", etxeko burdin sare ondora eldu zanekoxe, poz-eztitan jarri zan eta bere kautan iñoan:

—Kontxo, au bai etxe polita!... Emen bai ni ederto! Eskaratzean zokondotxo bat neureztat, eta ementxe ederto baiño edertoago, negu guztian bero-berotan. Orain larraiñera umetxoakaz, eta lurrean jausten izten dabezan ogi-mirriñakaz janarituko naz; orrela ez dot izango, ara ta ona, zama astuna lepoan dodala ibilli bearrik. Igali-zugatzetara be igongo naz, ta nai-beste sagar, makatz, muxika, geriza ta abar jan be bai. Ni zori ontsua!... Ni're lagunak, bai txatxalak!

Sartu zan etxean eta bertan isats (eskoba) andi bat' aurkitu eban, oso zikiña; ar'tu ta larraiñera eroan eban; arazo ortan, orraitino, dana loitu zan autsez ta amarauez. Ordun, udea al bait ondoen emotea erabagi eban, etxe-barrua negurako itxirik: igali-zugatzetara joan, baiña an be ez eban idoro ames egindako zoriona. Zugatzak zainduta egozan azajetik pike itsaskorrez, eta euretatik gora igon naita, ia-ia bizia galdu eban. Ezta etxakon errez umetxoak arratsaldekoa egiten ebenean ogi-mirriñak batzea be; ba-ziran an inguruan txakur andi batzuk, benetako bildurra sartzen eutsoenak; eta oneik joaten ziranean, oilloak urtetan eben, aurkitzen eben guztia baturik. Baltzizka'k arin egin bear izaten eban pikopean ez jausteko.

Eldu ziran udazkeneko euriak. Txiñurrien urian bazan barbailla, zarata ta iskidurik naiko. Ango joan-etorri zolia! Aletegiak goiraiño beterik, eta bideak bedar ebagibari ezez usaintsu. Euretatik asko abar batzen ebiltzan eskaratzerako eta alderdi guztietatik talde andiak eltzen ziran egu-nero; eta, arrasti baten, aizeak gogor jotan ebala ta ofza geitzen asi, erre-geñak artu eban uri ateko giltza ta atea iztera joian andikiro.

Orduantxe konturatu ziran "Baltzizka" palta zala. Beraren billa joan nai izan eben batzuk, baiña erregiñak zergaitik iges egin eban ba-ekialako, ez eban iñor be erriskuan ipiñi gura, ta "krisk-krask" zarratu eban atea, giltz astuna bere gerritik d'ingilizka jarririk.

Bitartean, "Baltzizka"-k, arreta andiz, arako etxeko eskaratzean sartu al izan eban; baiña, au bai baltza!, a etzan bizitea. Gose zanean, bere zokondo illunetik urten nai izaten eban, ogi-pizkat billatzeko; baiña txakurrak, edo neskamearen isatsak, edo umeak bildur-aldi izugarriak emoten eutsezan. Geiago: bein etxeko jaunak bere oinpean erabilli eban, zapaltzeko arrisku anditan.

"Baltzizka" ondo damututa egoan egiñaz, bere "uriko" etxetxo gogoan ebalarik. Egun areitan, an bai jai ederrak, negu-asiera zala-ta! A bai zoriona! Danak joan oi ziran enparantza nagusira, ezin-etsizko pozetan dantzatu ta abestuteko.

Bein baten, errira biurtzea erabagi eban, eta erregiñari parkeskatu. Baita egin be. Beatz gaiñetan etxetik urtenik, otzez abailduta, egun batzuk bidean egin ondoren, eldu zan "txiñurrien urira" eta ate nagusian ots egin eban, negar-garrasika.

Erregiñaren aurrean belaunikotu zanean, guztiak errukitu yakoan. Ain igar, ain txarto jantzia, ain zikin egoan!

Erregiñak parkatu eutson. Beste lagunak, bakoitzak al ebana, soiñekoak-eta emon eutsoezan, etxetxo atondu ta garbitzen lagundu ta, azkenez, bazkari ederra gertau. Ordutik aurrera oso zorionsua izan zan; ez eban geiago egi biurtu eziriekoko amesik egin, ona ta langillea izan baiño,

IGOTZ

GURE ARIMEA

Jaunak gizonari arima bat emon dautso; arima orrek adimena dau. Adimen ori arimearen izatetik berez sortzen da, zugatz-adarrak zugatz ondolik berez sortzen direan lez; augaitik adimenaren erro ta sustraia arimea ber-bera da, edo obeto esateko, arimearen izatea. Ta zugatz-adarrak zugatz ondoaren antzekoak izan oi direan lez —zugatz ondolik berez datozenak

izan ezkeru, ez eztituak—, gure adimena be arimearen antzekoa da, adimena arimearen izatetik berez datorren almena da ta. Arimearen izatea zelakoa izan, adimenaren izatea alakoa izango da, zugatz ondo zelakoa dan, zugatz-adarra be alakoa izaten da-ta.

Gure adimena arimearen izatetik berez sortzen ba'da, adimenari izakeran yagokozan osotasunak, arimeak euki bear, osotasun orreik euren erro ta sustraia arimearen izatean dauke-ta. Augaitik, "adimena izakeran zelakoa izan, arimea be izakeran gitxienez alakoa" dala esan geinke, zugatz-adarra —berez etorria danean— izakeran zeiaikoa, zugatz ondo be izakeran alakoa izaten da-ta.

Beraz, arimearen izate, izakera ta osotasuna ezagutzeko, adimena bere bide egoki ta ezin ohea yaku; adimenaren izatea ta osotasuna ezagutu ezkeru, arimearen izate ta osotasuna be ezagutuko doguz.

—Bai, ondo dago. Baiña, zelan ezagutu adimen orren izate ta osotasuna, adimen ori iñoiz ikutu edo ikusi ezpa'dogu? Or yagok untzea, or!!

—Adimena begiakaz eztogu iñoiz ikusi edo ikutu, ta ikusiko be ez. Nik Jaungoikoa be eztot iñoiz ikusi, baiña Jaungoikoa zer dan faa-dakit, eta zuok be bai.

—Zelan ezagutu, ba, adimenaren izate ta osotasuna?

—Errez. Gorpuzdun gauzak, begrz ikusiagaz be ezagutu leikez, gorputz bakoak ostera begiz ezin ezagutu geinkez, baiña bai euren "egirietatik", edo "egiteetatik". Norbait zoroa ala zentzun aundiko gizona dala zelan ezagutzen dozu?

—Gizon orren "egirietatik".

—Norbait aso azkarra ala kirten aundra dan itanduten ba'dautzue, zer erantzuten dozu?

—Gizon a buru onekoa da; bai, oso azkarra. Gizon orrek gauzak ondo pentsetan ditu; gatxak izanarren be, ederto ta arin egin; auxe ta auxe esaten dau; era onetan gauzak ikusten ditu.

—Ara zelan eta nundik zeuk be gizonaren adimena zeiaikoa dan ezagutzen dozun. Neuk be, bide orrikeri jarraituta, adimenaren izate ta osotasunak atzalduko dautzudaz. Bide au ona ta ziburra da: Egiñak egillearen almena ta indarra darakusguz; egiña zelakoa, egillearen almena be alakoa; zelakoa almena, alakoa egillearen izatea be, almena izatetik zuzen datorrelako, ta egiña almeneiik. Au ulertu dagizun, adibide errez bat ipriñiko dautzu:

—Gizon batek ezetara be jaso ezin dauan amabi arroako arritzarra, zergaitik beste batek errez jasoten dau?

—Amabi arroako arri ori jasoteko bear dan almen eta indarra besoetan daukalako.

—Nundik eta zergaitik dauko indar ori?

—Gizon orren gorputz eta izakerea sendo ta gogorrek direalako; gorputz sendo ta gogorra ezpa'leu, indar ori be eleuke eukiko; indar ori euki ezik, amabi arroako arrlrik be ezin jaso. Ara zelan arri ori jasotzeak, gizon orrek besoetako indar eta almena erakusten dauskun, eta besoetako indar eta almenak bere gorputzaren izakera sendo-gogorra.

—Zein eta zelakoa da gure adimenaren "egiña"?

Gure adimenak, izatea dauan edozer gogoratu ta ulertzea, egite berrizko ta bikaiña da benetan, bikaiñik ezer ba'dago. Ulertzen dauzan gauzak alkarrekin dauken zer-ikusia be ezagutzen dau; gauzak euren artean dauken zer-ikusia ezagutzetik, batzuk besteetarako bide direala errez atara leike; batzuk besteetarako bide direala jakiteak, gauza orreik bata besteekin alkartzera berez daroa; alkarkuntza onelatik Jakintza-gaietan gauza barriak ezagutzera eltzen da, zeregiñetan aurrerantza aundiak egitera be bai.

—Gizonaren adimenak gorpuzdun gauzak gogoratu ta ulertzen dauz; baiña gorputz-bakoak be gorpuzdun gauzak lez ulertzen ditu.

Gorputz bako gauzak zer eta zeintzuk direan, itanduten ba'daustazu, luzera, zabalera, ta sakonik eztabenak direala erantzungo dautzut; esaterako: Jaungoikoa, egiteari yagokon ontasuna...

Gure adimenak, Jaungoikoa zer dan *ezagulu* leike, egiteari yagokon ontasuna be bai, ta gorputz-bako beste gauza asko ta asko.

Gure adimenaren egin eta egikera oneitatik, adimenaren izate ta osotasuna ezagutu geinkez. Ara zelan:

—Gure adimenak gorputz-bako gauzak ulertzen ba'ditu, adimena bere gorpuzdun zeozer ezin izan leiteke, gorputza dan gauzeak gorputz eztanik ezin ulertu leike-ta.

Adimena gorputz bako ba'da, arimea be gorputz bako izan bear, aditnena zelakoa, arimea alakoa dala len esan d'ogu-ta.

—Gure adimenak gorputz-bako gauzak ulertzen ba'ditu, gizonaren gorputza gauza orreik ulertzeko bide ta laguntza egokia ezin izan leiteke, gorpuzdun gauzak gorputz-bakoakin zer ikusirik be eztauke-ta; euren izakeran alkarren aurkakoak dira; ta alkarren aurkako bi bata bestearentzat bide ta laguntza ezin izan daitezke.

—Gorputza gauza orreik ulertzeko bide ta laguntza egokia ezpa'da, adimenak gorputz barik be gauzak ulertu leikez; ta gorputz barik ulertu al izan ezkeru, gorputz barik be izatea euki leike; gorputz barik be bizi lei-

teke; gorputz barik be adimena len lez adimen izan daiteke, egikerea zelakoa izan, izatea be alakoa dala ikusi dogu-ta.

—Orain gogoratu zaite "adimena zelakoa, arimea be alakoa" dala; beste aldetik, adimenak gorputz barik ulertu, izatea euki daikela: bizi daitekela ikusi dozu; beraz, arimeak be gorputz barik izatea euki leike: gorputz barik be arimea len lez arima izan eta bizi daiteke.

ARRATZU

KRISKITIN KROSKITIN

Bilbotar batzuk, Kataluñia aldeko batzukaz etozan su-burdi baten. Oneik euron berbetan, ekin ta ekin etozan, Bilbotarren jakiñeza gogotan artu barik.

Bilbotarrak, gogaldi txarraz entzuten eben Kataluñiarren autua. Euretatik batek, gogait egin ebanean, lagunai esan eutsen: eurak be, euskeraz berbetan ezjakin arren, ez ebela orregaitik kikildu bear.

Asi zirean ekiezan kanta ta eresi guztien berbak esaten. Batak "Agur nere biotzeko", besteak "Artolak dauko", besteak "Gernika'ko arbola": ekianak ekiana.

Kataluñiarrak, arpegi mukerra ipiñiaz, ixildu ta bilbotarrai begira egozan. Oneik sei edo zazpi bidar esan ebezan ekiezan berbak; eta guztiak ixildu bear ebanean, bilbotar batek, asarratuta legez, jarrilekuari ukabilkada andi bat emonaz,

"Eta kriskitin kroskltin
arrasa krabellin"

esan eban.

BIDEKURUTZE'KO MUTILLA

Bein baten, Bidekurutze'ko mutilla, aizkora zorrotz bat eskuan ebala, zugatza iñausiteko asmuagaz, basorantza jua zan. Eta, basora eldu ta beriala, pago andi baten ganera igonik, zugatzaren adarrik sendoena azkoriaz

joten asi zan; berak oiñak ezarrita eukozan zugatz-adarra (enengo ebagi biar ebala otu yakon, baiña...

Orretan marduala, basoaren erdiko bidean glzon txiki-txiki bat otoz-otoan agertu zan. Gizon txikia, asto zar baten ganean abestuten alai-alai etorran. Bideztl ezezagun arek, Bidekurutze'ko mutilla beraz oiñak ezarrita eukozan adarra ebagiten ikusi ebanian, barre egiñaz bere kolkorako esan eban: —Kokolo tzar orrek, bere oin-azpiko egurra ebagiten darogoiok, ba, ta... Olan jarraltzen balok, laster dok jausi...

Eta, bere begiak maitasunez zugatzera zuzenduaz, ondo gurez, esan euison:

—Mutil... Ori, zugatz adar ori jausten dan unean, eu bere jauslko az... Abil, ba, arduraz.

Zugatz ganian iñausketa gogorrean ebillan mutillak itz orrek entzun ebazanian, barre-zantzuak egin ebazan. Eta irri ta barre asko eginda gero, gizon txiklari destaiñez esan eutson:

—Jausi?... Bal zera! Jausiko nazala igarteko aztru ala Igarlaren bat ete az eu?... Olako gauzarik etxuat nik siñistuten...

—Ez, enok aztrua ta ez igarlea be. Baiña, aztrua ta igarlea ez nazan arren, or zugatz ganian abillan lez ba'abil... azkenengo azkorakadia emotiagaz batean jausiko azala igarteko lain argi ba-yeukat buruan. Beraz, zugatz adarragaz batian jausiko azala barriro diñoat.

—I az kokoiua!... Ori bere esan? Nok siñistu ba-llegok, orraltk...

Eta ori esanik, Bidekurutze'ko mutillak, bere arloan len baiño garra-tzago ekln eban; azkoraketa errimean ebillan. Eta, ekin eta ekin, alako baten bere oin azpiko adarra lokatu egin zan, eta "karrak" ots zolia egiñaz, lurrera. Eta, adarragaz batean, mutillaren gorputzak be lurrean ots egin eban, zartada gogorra artuten ebalarik.

Orduan Ikaratu zan mutilla; bidetik igaro zan gizonaren esana osoan bete zalako, bildurrez Jarri zan. Eta, berari itz egin eutson gizona igarlaren bat izango zala-ta, aren atzetik bidez-bide ekin eutson.

—Arraioa!... Gizon txiki orrek Igarri egln yaustak —esan eban— Igarlaren bat edo, izan bear yok berak. Irre ta barre egin dautsadan arren bere billa juango nok, eta txarto esanaren "parkaziñoa" damuz betarik eskatuko dausat... Glzon ori, nor ete da? Jausiko nazala igarri daustan ezker, biar bada... noz ilgo nazan be igarri al izango yok eta... Ori, ori ba'nekik!..

Ibilli ta ibilli eglnda gero, alako baten, gizon txikla bide ertzeko landa baten atsedenduten egoala, aurkliu eban. Itzalez ia bildurrez urreraturlk, itz iamaltsuz esan eutson:

zarealakoan nago. Len, zugatzetik jausiko nazala esan daustazunean, irri ta barre egin dautzut, eta ezertxu be ez dautzut siñistu, zure esanak aizearen putzak izango zirealakoan. Orain, baiña, guztia siñisten dot, zeure esanak osoan betetu diralako... Ori igarri dozun ezkerro, barriz, orain besie gauza bat be igarriko dozulakoan nago... Itxaron pizkaten, ba, itaun garrantzitsu bat egin bear dautzut-eta. Noz ilgo nazan jakin gura neuke... Noz ilgo naz, ba?...

—Gauza guztiak parkatuta daukozak, mutil —erantzun eutson gizon txikiak—. Baiña... bakik gero, itaun azartu bat egin daustakela bertan? Norbera noz ilgo dan jakitea, zer dala uste dok?... Baiña, tirok!, tirok!, itxaron egik apurtxu baten; ire itaun azartuak erantzuna laster izango yok eta.

Gerotxuago, gizon txikiak, bere astoa erakutsita, esan eutson:

—Eutso, asto au euretzat. Euretzaکو lagunik onena berau dok, izan be. Eu noz ilgo azan jakin gura ba'dok, barriz, ua asto onegaz mendirik mendi ta bide asko igarota gero, astuak atzeko iru eztul egiten duazanean, ire azkena izango dok.

Mutilla, gizon txikiak esan eutsonaz ikeratu zan. Olan da be, bere astua aurrean ebalá, mendia gora abiau zan.

Apurtxu baten ibillita gero, mendi barrenean, astuak eztul bat egin eban, eta goratxuago barriz, beste eztul bat. Bigarren eztulak gure mutilla "lautorrien" ikeran imiñi eban. Eta irugarren eztulá entzun ebanean, Bidekurutze'ko mutilla, bere azkena orduantxe izango zala-ta, bildurraren bildurrez ikeratuta, konorte barik jausi zan.

Olan egoala, bertatik lau gizon igaro ziran; eta bidearen erdian mutilla konorte bartk ikustean, ildakoren bat zala uste izan eben. Eta, lau gizon areik, Bidekurutze'ko mutilla, ilda egoalakoan, sorba'detan artuta erruki andiz eroan eben.

Lau gizonok, mutillagaz mendia bera joiazala, bide-kurutze batera eldu ziran. Bertan lau bide egozan. Eta gizon bik bide batetik juan gura izan eben, eta besteak, osterá, beste bide batetik. Zein bideri jarraitu ebatzi eziñik ebiltzala, gizonok, eztabaida garratzian asita, asarre gogorrean asi ziran.

Orduan, ildakotzat egoan mutillak, bere arpegi zurbilla bat-batez gora jasorik, eskuagaz alboko bide bat erakutsiaz, abots tamaltsuz esan eutsen:

—Ni, bizirik nengoanean, ortixik bidetik juaten nintzan.

Mutillaren abots ituna entzun ebenean, lau gizonak gelduta geratu ziran. Eta, ildakoak itz egin eutsoela-ta, "gorpua" bertan-bera bidearen erdian itxirik, anka-joko errimean egin eben.

"Bidekurutze" mutilla be, bere burua bakarrik ikustean, bildurrez ari-ñeketan asl zan: bera eroan eben gizonak arrapau gurarik, tximista lez juan zan, nozipein didarka esaten ebalarik: "Or nozue, or nozue".

Ieta bidez bide aringa juanik, gizon eta mutil, mendi barrenean aienatu ziran.

MAÑARIKO

ERLAMIA

Erle guztien agintari ta nagusi erlamia (erregiña) da; beste guztiak bere menpean daukoz. Erle langillea baiño aundiagoa ta erlemandoa baiño txikiago yatzu. Sabel ta atzealde andiak daukoz ta ego txikiak.

Erregiña au, beste erregiña egiteko arrautzak ipiñi barik il ba'dadi, er'lelangilleak, aren ordea ekarteko ustez, arrautza-giñan jarten dira; baiña arrautzotatik erlemandoak baiño eztra jaioten, eta azkenez, amorratuta, erle-mando guztiak ilten dabez, ta erlepilloa ondatu. Erregiñarik eztaben erlauntzai, edo erregiña barri bat ipiñi bear yake, edo erle-langille guztiak erregiñadun erlauntzera aldatu.

Erlamia, arrautzak ipiñita gero ilten ba'da, erle langilleak arrautza batzuen gelak anditu ta zorro antzera jarten dabez, erregiña jaio daiten; erle langilleak janari sendoak emoten dautsez arrautzoi, ta orrela dator erregiña. Bi jaio ezketiño, lenengo jaio dan erregiñak eztenka ilten dau bestea.

Erregiñak, jaio ta amar bat egunera, eguzki danean erlauntzetik urten, ondo ezagutu dagien edo erlauntz alboan egazka ibilli ta gero, beti gora ta gora, egazkada itzela egiten dau: jarrai yoakoz erle-mandoak. Oneitatik asko ta asko, erlamiari jarraitu eziñik, ondatuten dira; indartsuena, laiñoz gora, erlamiagaz nastekatzen da, ta gero il. Erlamia, ama eginda, bere erlauntzera dator zuzen, an arrautzak ipiñi ta ipiñi, iñoiz be bertatik urten barik.

Neguan eztao erlamiak arrautzarik ipinten; udabarrian, oster, bi milaraiño ipinten dabezan egunak be ba-ditu.

Egia, eztao erlamiak bere erlauntzetik geiago urtengo; baiña erlakumea jaioten danean, erlama zarrak, erregiña gaztea jαιο aurretik, erlepillo edo erlekumeakaz urteten dau.

ARAMAYO

TONTOLAPIKO

Gipuzkoa'n, Goierri'ko erri baten bizi ziran ama-seeak. Ama alarguna, eta semea ain zan zentzunbako ta burubakoa, erriko jente guztiak Tontolapiko ipiñi eutsoan ezizena.

Baiña amak, gauza jakifia, bere semea besteak ez lakoa zala uste eban eta orregaitik egun baten Azpeiti'ko azokara bialdu eban koipe gazearen billa.

Gure mutikoa joan zan Azpeiti'ra ta erosi eban libra erdi koipe gaza ta dendan emon eutsoen legez buruaren gaiñean ipiñi, txapela patrikeran gorde ta bere errirantz asi zan.

Bero andia zan egun aretan, San Bartolome eguna, ta gure Tontolapiko burutik bera koipea eriola, arpegia, belarriak eta alkondara danak koipez betetan etorren.

Etxera eldu zanean, buru gaiñean paper zati bat besterik ez ekarren. Amak esan eutson: —Baiña, mutil, nun dok ba koipe gaza?

—Ama, buru gaiñean ekarri dot. Zuk ur-suilla ekarten doron lez, eta urtu egin yat.

—Ene seme, ontzitxo bat eroan bear uan, eta bideko iturrietan preskatuaz ekarri.

—Bai, ama, urrengoan onelan egingo dot, bada.

Beste egun baten, amak bialdo eban gatz-billa. Artu eban gatza katillo baten eta bideko iturri ta putzu-zulo guztietan sartuaz, sartuaz, gatzik bage eldu zan etxera. Bidean ortu yakon.

Amak esan eutson zelan ekarri bear zan gatz. Eta urrengo martitzen baten Azpeiti'ko azokara bialdu eban txarrikume bat erosten. Pañelu andi

batten batu ta kolkoan sartu eban txarrikumea, ta, bai aberetxu au, bai bera, naikoa lanagaz eldu ziran etxera. Mutikoa arnasik artu eziñik ta txarrikumea txakur amorratua baiño geiago aginka.

—Baiña, semetxo, txarrikumea anka batetik sokagaz lotuta, astiro astiro ekarri bear uan —esan eutson amak.

—Bai, ama, urrengoan olan egingo dot, ba.

Eta urrengoan lurrezko lapiko barri bat erosten bialdu eban amak, eta Tontolapikok sokatxo bat lotu eutson kirten batetik eia lapikoa arrastaka ebala etorri zan. Baiña etxeratu baiño askoz lenago sokatik lapiko-kirtena bakarrik eroan. Lapikoa apurtu zan Azpeiti'tik urtenda kilometro erdi baiño lenago.

Tontolapiko gizajoaren amak etsi eban bere semeak buruan argirik ez ebala, eta ez eban geiago iñoiz ezetara bialdu.

JULENE-AZPEITIA

IRAKATSI EDERRA

Gizon batek bere auzokoari, solotik, arta-buruak ostuten eutsazan. Bein baten, ostutera joiala, zortzi urteko semetxua lagun eroan eban. Aitak semeari zorroa emon eta egal guztietara begiak 'luzatu ebazan, baten-batek ikusten ete eban bildurrez. Etzan iñor agiri, ta ormatik jatsi ta arta-buruakaz zorroa betetan asi zan.

—Aita —diñotsa semetxuak—, alde batera ez dozula begiratu uste dot.

—Nora ez? —bildurtuta erantzuten dau aitak; eta zorroa itxirik, egal guztietara begiratzen dau.

—Gora ez dozu begiratu —dirautso semeak—; eta irakasliak esaten dauskunez, Jaungoikoak goitik ikusten gaitu.

Aitak, umetxuaren esanera, artoa bertan itxi ta etzan geiago ostutera joan.

IPOTX TRISKARIA

Urriñeko errialde baten, Errosaure izeneko gatzetxu polit bat bizi zan. Entzuten zanez, oso ona, beargiña ta arduratsua zan. Ama, bere alabeagaz arrotuta egoan, eta Errosaure'k gauza guztiak egin al ebazala uste eban.

—Nire alabak daukan trebetasunagaz, galtzua be urre biurtuko leukel
—esan eban egun batean, arropuztuta.

Ordoantxe, Erregea joian andik zear, eta orrelako esakerea entzonda, ama-alaben aurrean gelditu zan.

—Neugaz jauregira etorri bear dozoe —esan eutsan Errosaure'ri. Zure amak diñona egia ba'da, eta kortako galtzoa orre-gorri biurtzen ba'daustazo, sari eder bat emongo daotzut: gure errialdeko printzesea zeo izango zara. Baiña, gozurra ba'litz, eriotzarako gertao zaitez.

Errosaore jauregira eroan eta kortan bakarrik itxi eben. Gaxoa negarrez asi zan. Galtzua (lastoa) zelan biurtu urre? Ezin leitekena zan! Ala ta be, Erregeak garbi adierazo eutsan, arean, agindutakoa betetzen ez ba'eban, zelako nekeak izango ebazan. Errosaure errukarria!

Estua'ldirik andianean, mai gairiean jauzkalari (triskari) ipotx bat agertu zan, eta esan eutsan:

—Ez geiago negarrik egin, Printzesa orrek. Eta olaxe izango zarielako deitzen dautzut orrela. Ez negarrik egin.

—Ba-dakizu zer jazoten yatan, Ipotx?

—Jakingo ez dot ba! Begira: galtzu ori guztia laster orrea izango da. Eta, arritota, kortako galtzo dana orre biurtzen ikusi eban Errosaore'k. Baiña, kontorako ordoko, Ipotxa aienaio (aldendo) zan.

Erregek, pozaren pozez, Errosaore Printzesa izendatu eban, eta galtzuz betetako beste gela andi batera eroanaz, onela esan eutsan neskatillari:

—Au dana urre biurtuta ikusiko ba'neu, neugaz ezkondu eta zeo izango ziriake emengo Erregiña. Oslean, ba-dakizu zer jazoko yatzun...; len esan daotzut.

An, bakartasunean, zenbat negar egin ete eban Errosaure doakabeak! Orretan, Ipotx Triskaria agertu yakon barriro:

—Erregiña !, ze olaxe izango zarielako deitzen dautzut orrela.

Len lez, galtzu guztia urre biorto eban..., baiña aldendu baiño lenago, oar *au* egin eotsan:

—Iru gabetan, erreskadan, zeu ikusten etorriko naiatzu, eta ze izen dotan itaondoko daotzot. Atzanean, nire izena asmatzen ez ba'dozu, orduan, ni izango naz zure biziaren jabe.

Errosaure, bai, Erregegaz ezkondu zan; baiña.. Ipotxa alai ebillen, lenengo bi gabetan bere izena igarri ez eotsalako. Amaika izen aitatu eotsazan, baiña alperrik!

Atzeneko gaba zan: ordoantxe amaitoten zan garaia. Zer jazo leitekion gogoratota, Errosaore negarrez ortzen egoan.

Baiña, Erregiñaren laguntzaille bat basoan ezkutauta egoala, Ipotx baten barre zantzoak entzun ebazan, auxe esaten ebala: "Erregiñak ez dau, ba, bein be jakingo "Ipotx Triskaria" dala nire izena. Je, je, je!

Laguntzailleak dana esan eutsan Erregiñeari.

Irugarren gabeen aurkeztu yakon Ipotxa, eta bat-batean Errosaure'k esan be bai: "Zu 'Ipotx Triskaria zara!"

Olako amorrua artu eban gizontxoak eta... plast!, aidean lertu ta ke apur bat besterik etzan geratu.

Arrezkero, zoriontasunez beterik, beti pozik bizi izan zan Errosaure.

OÑATIBIA'tar JON

ARTZAIN GAZTEA

Artzain gaztea
zauri gorritan,
inka bizitan
daukagu.
Esaizu, arren:
txoriak kantuz...
errekak saltuz...
zer dozu?

Uda eltzean
oro kantari;
artzaiña orla
negarrez?

Miñez josita
muiño ertzean,
geriza-pean
zotiñez !

Maitasunaren
dirdai zuria
—oso bizia!—
barnean,

ai-ene baten
orra nun dogun,
gau eta egun
guztian.

Lizarrak sakon
intziraz dira;
ostoz aizea,

orobat:
artzaiña ikusiz
negar-jario,
ai-otsak eio
arentzat.

Ixillik, arren !.
txori ta muiño,
bedar ta pago:
ixillik!

Artzain gaztea
orrela ikusiz,
maitasun-dardaiz
mindurik...

IGOTZ

GAZTAI-JATUN BIKAIÑA

Galdako'ko baserritar bat Bilbo'ko zazpi kaletako fondatxu baten sartu zan, bazkari ona egiteko asmoz. Bere artean iñoan:

—Gaur, orraitio, ondo bete bear yoat narrua; sekulako bazkaria egingo yoat. Txala orretarako saldu yoat, ez dana Pantxike'ri emoteko.

Oldoztu ta egin. Ondo be ondo bazkaldu eban gure gizontxoak. Azkenean, gaztai eder andi bat eukan bere aurrean; neskameak osoa itxi eutson azpil (plater) baten, gero berak artutakoan, besteai be emoteko. Andik laster ba dator neskea, ta diñotsa:

—Ta gaztaia? Nun dago gaztaia?

—Gaztaia nun dagoan? Barruan, nun egongo da ba?

—Baiña bakarrik jan dozu ala?

—Ez, neskatilla, ogiaz jan dot,

JOXEPA-REN LARRIAK

Otxandio'tik Aramaio bitartean dago San Migel'en izeneko eleizatxo bat, inguru guztian etxe bat edo baiño eztauala. Baserri ori bakartade osoan dago, uritik urrintxo. Ori dala-ta, lenagoko aldietan beintzat, ango baserritarrak urietako bizimoduaren barri andirik ez eukien.

Mezarik be urtean bein baiño ez eukien: San Migel egunez. Onango egun baten abadeak, baserri orretarako bidea artu baiño len, gozozaletxo zalako edo, beintzat txokolatea artzen oituta egoalako, ontzi bi txokolate artu zituan aldean, meza ostean jateko.

San Migel'era eldu ta sakristauanera jo dau lenengo-lenengo; sakristau andreari ba-diiiotso:

—Joxepa, txokolatea egiten ba-dakizu?

Joxepa'k, ezbaika, ezbaika: —Bai..., jauna.

—Orra, ba, ontza bi. Meza ostean agertuko naz.

eta asi da goxaria ateraten. Lenengo edari apur bat barauskarri. Gero... Gero, txokolatari begira egoan abadea, baiña txokolaterik etzan agiri. Alango baten abadeak, Juze eritxita:

—Joxepa, txolcolate ori noz ekarteko zara?

—Ai, abade jauna: berori estu ta artega dago, ezta? Baiña neuk be aldean diiut neure estu ta larriak.

—Zer, ba?

—Txokolate ori ezin dot iñun aurkitu.

—Ez ete dautzu, gero, mutikoren batek ostu?

—Ez, jauna, ez; ba-dakit non sartu dodan; baiña, ze demontre!, ezta agiri, jauna. Ba-nabil burruntzaliaz arakatu ta arakatu, baiña ezin dautsat eldu. Onango angilarik!

—Nun sartu dozu, ba, Joxepa?

—Aza-lapikoan, jauna.

—Aza-lapikoan? Ai, Joxepa, Joxepa! Eztozu zeure bizian txokolaterik asko artu zeuk, orraitio.

Goiz orrelan abadea txokolate-goxari barik gelditu zan, baiña barre gozatsu egin eban Joxepa'ren lepotik. Txokolatea? Olango mizkcririk sekula jan bakoak ziran San Migel'en egun orretararte. Egun orretan artu eutsen usain apurtxo bat lenengoko aldiz. Non da aza-lapikoko zaldan...

AKESOLO

OTSOA TA BILDOTSA

Otsoa ta bildotsa, baktotxa bere aldetik, erreka baten ura edaten jarri ziran. Goiko aldean edaten eban otsoak beeko aldean egoan bildotsari onela esan eutson:

—Zer dala-ta, ura loitu daustazu, edaten nengoan bitartean?

—Eztakit zelan izan leiken ori —erantzun eutson bildotsak—, erreka ura zeure aldetik neurera datoreta.

—Ez ain arln biraorik esan —erantzun eutson otsoak, blldotsaren esanari jaramonik egin baga.

—Nik eztoz biraorik esan —jarraitu eban blldotsak.

—Jakin bear dozuna da —esan eutson otsoak, blldotsa ilteko atxakia topau gurarik—, orain sei illabete edo, zure aitak iraindu nInduala.

—Eta niri zer, aldi atan jalo barik nengoan eta?

—Ezta ardura. Zeuk kitatu bearko daustazu oraintxe aitaren zorra. Eta otsoak, orixe esanda beste barik, blldots gaxua II eban.

Gogo dongeai ezin leikioe egirik, edo gauza zuzenik esan, eurentzako indarra baiño beste legerik eztago-ta.

AMILGAIN

ARTEA TA INGEA

Inge (kañabera) me-me baten lepotik arte sendoak barre egiten eban. Eta, erruki antzera, auxe iñotsan:

—Zeu zara makala, inge errukarria! Zegaitik etzagoz beti zuzen ta tente, neu egoten nazan lez, aizerlk txlkienagaz be burua makurtu barik? Beglratu niri: burua odeietaraiño jasoten dot, eta eztoz ezergaitik beaur makurtzen. Ekaitz gogorrenari be aurpegia emoten dausat.

Orixe esanda gerotxuago, aize-bolada ikaragarria eldu zan. Eta ingeak, burua makurtu bakarrik egin eban; arte arroak, ostera, lurra jo bear izan eban.

* * *

Au sarri jazoten da: arroak eratsi ta ezereztuak diran bitartean, apalak erraz-erraz igesi oi dabe arriskuetaik.

ESOPO-AMILGAIN

Z I G U T X

Ipiñaburu, nok ez dau ezagun? Gorbei barrenean dago, gaur be, etxe zuriz inguratuta, kezka izpirik bage. Beiñola ba-ziran an bertan be baso ta oian ederrak, arte, agin, areitz, pago ta lerrez ugari. Gaur, zori txarrez, billois samar daukazuz inguru areik. An goratxoago, ba-ziran artzain txabolak, eta ez gitxi.

Onako txabola baten sendi lander bat bizi zan. Aita, gazte oraindik, Lekanda'ko arkaitz erpiñean artzain ebillelarik, arri koloka baten laprast egin eta jausirik, zauritu zan: andik laster il zan gaixoa. Benetako zoritxarra sendi txiki arentzat.

Emaztea bakarrik geratu zan, Zigutx eritxon seme kaskarragaz. Makala zan seme au, ta oso bildurtia: eskolara be ez eban joan gura, maixuak bildur emoten eutsola-ta. Auzoko iñogaz ez eukon artu-emonik. Amaren albotik alde barik, su-bazterrean egon oi zan geienez, negu ta uda. Edozer zaratak dardarka jarten eban.

Ama, uda goieneko arrasti baten, egurretara joan zan goi-aldeko basora. Oraindik etzan eldu negua, baiña urte atan otz andia egiten eban, eta edurrez estalduta egozan inguru-mari guztiak. Abar-sorta andia lepoan ebal, etxeruntz etorrelarik, onela iñoan:

—Jauna, lagun zakidaz. Ni ilgo ba'nintz, zer egingo leuke munduan bakarrik nire Zigutx gaixoak?

Arratsalde atan lo geratu zan Zigutx bere agin-zurezko oge txikian, beti lez, bere amarenaren ondoan. Ezin amatxoren albotik urrindu, bildur bait-zan.

Gau bitartean, alan be, umeak oartzeka, amaren biotza betiko eten zan; eriotzak atzartean estutu eutson eta ez eban geiago taupadarik egin.

Zigutx orrela bakar-bakarrik gelditu zan munduan; baiña ez luzaro, amaren eriotzatik *urtego* egunean, ba, Agiñalde'ko ikazkin bat etorri yakon, bere sendikoak bizi ziran basoko txabolara eroateko.

Etxe barrian nai eben guztientzat egoan lana; ta Zigutx'ek be, nai-ta-ez, aizkora bat artu ta oienara zuzendu bear zur-ebaten. Bera baiño andiagoo zan aizkorea emon eutsen, eta tresna astun ori lepoan, basora zan beste ikazkiñakaz batera.

Oso makala zan-eta, ez eban iñoiz be amaitzen emoten eutsoen biarra; eta, arrats beran, etxerakoan, barda bategaz zigortzen eban ugazabak, bape erruki barik.

Zigutx'ek ez eukan nok zaindu ta aldezturik, eta ikazkiñen semeak eurak be muxinga ta ixeka (burle) sarri ibilli oi yakozan, baita bein baiño gelagotan, aizkora andia lepoan ebalarik ikusten ebenean, arrika egin be.

Egun batean, beti lez oianera joiaia, egundo ibilli bako blde zldorretik jolalako, galdu zan gure Zigutx gaztea, ta itsumustuan otso ikaragarri bat gaz topo egiñik, Mda lez geratu zan lurrean luze: zintzur zabaletik agin-errezkada bi erakusten ebazan piztiak.

—Ene Jainko, lagun zakidaz! —oiu egin eban Zigutx'ek, Izugarrizko eriotz;lkaraz.

Bertatik gauza arrigarri bat jazo zan: otsoak, Zigutx'l samatik oratu ta astiñaldl gogor batzuk emon eutsozan, baiña ezetariko miñik emon bage. Gaztetxoari agin bl jausi yakozan bakar-bakarrik zelaira.

Beglen itxi-edegi baten, piztiak mutilla bertan ltxlrik, ariñago eziñean mendi-gora joan zan igesi; Zigutx, oster, sor ta lor, Izuaren izuz alboetara beglra, bizirik ala illik ete egoan.

Baiña orren ondoren, beste zerbait jazo zan, arrigarriagoa oralndik: iñoiz izan ez eban langoxe sendotasuna oartzen eban Zigutx'ek bere kautan; bildurrik be ez eban lñundlk, joana zan antza. Alzkorea gora jaso nai izan eban, len onen astuna yakona, ta errez-errez jaso eban. Zelaira jausi-aglñetan ba-zan nunbait sorglnkeriren bat, oraln berez-berez ltzali ta osoan uxa-tu zana.

Zigutx etzan itzull geiago ikazkiñaren etxera. Gorbei aldeko oianera joan zan, azke ta jarei, txori baten antzera, aizkorea blzkar-gain. Sorgln-lillurapanezko sareetatik libre,ernal, zangar ta sendo biurtu zan: agln bl jausl arren, esku bi eukoza orain bata baiño bestea indartsuagoak.

Ibilli ta ibilli, erreka egal bat egoan etxetxo batera eldu zan azkenez, eta aren jaube eglñik, bertan bizi izateko asmoa artu eban.

Ta antxe asl zan bizi izaten, bakarrik bai, baiña osasuntsu ta sendo. Errekan artzen ebazan arraiñak ziran bere janarl; erreka au, Gorbei sarkaldean jaio ta Murgi-aldera doiana zan, eta ugari beti be edozein arraln-muetaz. Beste batzuetan, ltxina blurri ta ezkututsuan ilten ebazan abere ta plzti-okelez janaritzen zan.

Basatl zala, arek eukan indarra! Iru edo lau aizkora-zartaz erasten ebazan, bape nekatu barlk, oianeko tantalrik andienak be. Sarritan, an Inguruko ikazkiñai lagutzen eutsen euren arazoan, arrituta itxirik guztiak. Ain zan andla bere beso indartsuetako kemen-adorea, bizitasuna i

Udazken baten, Berretin azpiko artzain aldra bat etorri yakon lagunta-sun billa; otso batzuk agurtu ziran, antza, an inguruan eta triskantza andiak egin eutsiezan artaldeetan. Askotxo ziralako, etzan iñor azartzen arei kontra egiten.

—Ez bildurtu —dirautse Zigutx'ek—; neu joango naz, ta neuk emongo dautsiet merezia.

Eta, Aldamin barrenetik zear, arako bidea artu eban. Gorbei andikal-deko arabar erritxueta, batez be artzaiñen artean, ba-zan bildur-ikara naikoa: etzan iñor agiri. Arkortak itxirik, baita etxeetako atea be langa sendoakaz; jente leioetatik begira. Zigutx i'kustean, onela deadar egitsoen:

—Errukarria! Zatituko dabe! Iskillurik be ez daroa ta!

Zigutx eldu zan azkenik Berretin azpiko pagadi usira. An ziran nun-bait iru otso, agin zorrotz eta erpamakur, ango artzaiñak ikusi zituenaz.

Laster agertu ziran oneik, otz-kirriska, Zigutx susmau ebenean. Etzan gure gaztea bape ikaratu. Lenengo eldu yakona, lepazurretik oratu ta bere esku sendoen artean itto eban. Bigarrenari aurreko anketatik eldu ta "krak" ausi eutsozan oneik, adar legorak bai'litzan. Irugarrena, beste biak baiño txikiagoa, naiko errez menderatu eban, ots-otsean burua biurtzen eutsolarik.

Iru piztien gorpu illak narras, artzain auzunera itzuli zan Zigutx. An-goak ikusi ebenean, pozez beterik, txabola ateetatik begira, gogotsu txalotu eben.

Iru otsoen narruak, garaipenezko agiri antzera, auzune erdi erdian taket andi batetik eskegi ebezan; aragia, barriz, burduntzi zorrotzetan erre eben zelai zabaJean.

Bertatik, erretzailleen inguruan batu ziranen artean, beiñola bere lepotik barre ta arrika egin eutsoen ikazkin-semeak ezagutu ebazan Zigutx'ek. Ezer esan bage, besoak gurutzaturfk, euren aurrean jarri zan, ben-ben...

—Erruki zaitetz gutaz —oiu egin eben ikazkin-semeak, bere oiñetan auzpez, beste auzotar guztiak aldenduten ziran bitartean.

—Jagi zaiteze! —diñotse orduan Zigutx'ek. Ondoren, an geratzen z'i'ra-nakana zuzendurik, esan eutsen:

—Oneik barre egin eben ederto nire lepotik, baita arrika be egin eustien, ni makal eta gaixo nengoalarik. Orain zigortu neikez, baiña ez dot gura. Zigorrik onena auxe: eurok baiño makalago bat joak emoten dautsen lotsa gorria.

—Gora, gora Zigutx! —deadar egin eben ikazkin eta auzotar guztiak, pozez jauzika (saltoka); aulago baten bizkar barre egin eben ikazkin-semeak, ostera, an egozan alboan lotsaren lotsaz gorriturik.

Egun atan jai osoa egin zan ikazkin eta artzain-txaboletan, eta arrezkero Zigutx guztiz maitatua izan zan bazter guztietan, sendotasun berarizkoa ez-eze biotz errukior maitatia be erakutsi ebalako.

IGOTZ

B A S O - L O R E

—Ardiak larreratu al dozan?

—Bai.

—Galtzeta egin al don?

—Bai.

—Beiak kortaratu al dozan?

—Bai.

—Egurra txikitu al don?; babak garandu al dozan?; txarriarentzat zukua, artale ta gaztaiñak atondu al dozan?

Itaune guztiai Baso-lore'k baietz erantzuten eutsela ama ordeak ikusi ebanean, asarrearen asarez sututa, esan eutson:

—Alper ori!... ta orain ezer egin barik andereño bat lez ago? Errira oa, ta jostorratz batzuk ekarri egizan. Mai gaiñean dozan txakur aundi bi.

Baso-lorek bere eskutxo baltzeranean dirua artu eban. Oskiak (oiñe-takoak) ipiñi ta erriruntz joaten abiatu zan.

Illunkadea etorri etorran..., eta neskatillea ariñika oan; belutu baiño len zeregiña egiteko. Otoz-otoan lora zuri-gorri bat oartu eban. Lorearen ederra! Eten barik joian errekatxo baten ertzeko muna baten egoan. Baso-lore, ortoztuta, ariñika joan zan. Len ikusi eban lorearen ondoan usain eta lurrin gozoa erioten beste lora batzuk be ba-ziran. Neskatilleak, urduri-urduri, lora moztu ta biltzen iñarduan, asti aundirik ez eban eta!...

Guenez, lora-sorta ikusgarri bat eskuan ebala itzultzen asi zan... Bat-batean garraxF zoli bat egin eban... Txakur aundi biak galdu egin ebazan! Ara> ta ona, batera ta bestera, atzera ta aurrera bazter guziak arakatu ebazan bere diru billa. Baiña alperrik; ez ebazan aurkitu. Orain zelan joango zan etxera?; zelan azartu bere ama-ordearen arpegi muker eta agirakak entzuten?...

Ibai ertzean leza bat egoan; an eta emen zugatz zarbatzu ugari ziran. Baso-lore zugatz baten ondoan etzinda larri-larri, negar baten egoan. Bildu eban lora-txorta lurtean egoan ixil-ixillik... Bitartean gau aizetsua etorri zan.

Baso-lore'k zegaitik bere eskuz estall dauz begiak? Atsotxo tximur bat, urtearen zamak makurtutako atsotxo bat, beragana datorrela bere begi lausotuak dakuse. Gero, bat-batean, aizeak orbela otsak eragin dauz. Berak, baiña, atsoak itz dagiola uste dau:

—Neskatilla, zer egiten don?

—Ama-ordeak emon eustazan txakur aundi biak galdu dodaz eta etxera joaten ez naz azartzen, jo egingo nau-ta.

—A, bai!..., ezagutzen aunat. I Baso-lore az, e?

—Bai.

—Gaxoal... Negarrik ez egin; lora orreik artu ta neukin ator,

—Nora?

—Eure etxera.

—Ez!, jo egingo nau-ta.

Atsoak begi errukitsuz begiratu eutson; gero abots biguñaz esan eutson:

—Orduan ator neukin, ume maite ori, jolas zoragarriak izango dozan. eta Illitxo pitxiak... eta urrezko soiñekoak euretzako dodanaz.

Neskatilla samurrak eskeiñ maitagarri orreik entzutean, zer egin ez ekian.

—Ni lora lamiña non —jarraitu eban atsoak—. Gura don neukin etorri?... Neure alabak eure zain yagozan aspaldian.

Gero bazter illunean aren lamiñ alabak ikusten ebazala begi lausotuak dirautsoe.

—Maite sunat... eure azbegi ederrak atse non. Gura ta gurez neukin eroango aunat...

Ori esanda, atsoak bere atzamarrak luzatzean Baso-lore oratuteko... neskatileak, izututa, ulu zantzo zolia egin eban... Bat batean, iges egiteko saltu egitean, leza zear neskatilea jausi zan,

Gero, leza ondoan baso-lorak emoten ebazan landare bat erne zan eta bere azpian neskatilearen erestuna idoro ean... Aren beste barririk ez zan izan.

Ibai ertzeko leza ondoan, udabarriak agur dagitson baso-lora landara mardul bat zutunik dago. Erriko semeak "landara gelgarria" deritxoe. Ibai ertzeko muna artan, bat-batean erne ei zan... Eta arrezkero, udabarri' oro baso-lora zuri-gorriak izaten dauz... ZAITEGI'tar JOKIN

ZEIN NAGIAGO

Nagusi batek iru seme eukazan, irurak bardin maite ebazan eta ez ekian nor izentau bere eriotza osterako Nagusitzarako.

Ilteko garaia eldu yakonean, deitu ebazan oe aurrera ta dirautse: "Seme maifeok, adierazo nai dautzuedan zer bat yaukat barruan old'oztuta: zuon artean nagiena, axe izango dok nire ostean Nagusi".

Ta erantzun eutsan zarrenak: "Olan Nagusitzea neurea da; ni ba, nagiagoa naz nagiagoa! Oian lo natzanean, begietara tantakaden bat jausi ba'dakit, eztoz kenduten lotan jarraitutearren".

Erantzun eutsan bigarrenak: "Aita, Nagusitzea neurea da; nagiagoa naz nagiagoa! Sutondoan berotuten nagoanean, lenago izten dodaz beatzak erretan, bernak atzeratu baiño".

Esan eutsan irugarrenak: "Aita, Nagusitzea neurea da; ni bai, banaz nagia! Urkatu bear ba'nindue eta sokea saman ba'neunka ta norbaitek sokea ebagiteko aiztoa eskura emongo ba'leust be, lenago itxiko neunke neure burua urkatuten, eskua sokaraiño jaso baiño".

Aitak, au entzun ebanean, esan eutsan: "Kontxol, i langorik etxagok, mutil; eu izango az Nagusi".

GRIMM-LEGOALDI

A R B I A

Nekazari apal batek arbi ikaragarri bat atera eban bere baratzetik. Erri atan etzan iñoiz ikusi andiagorik.

—Alkate jaunari eskiñi dautsot —esan eban nekazariak—. Lugintzaille da ta atsegiñez artuko dau.

Eroan eutson, ba; eta endoreak (alkateak), guztizko abegi ona egiñik, bere atsegiña erakutsi eutson; baita, bere laguntza aldezko arreta ta ardurea goraldu ondoren, amaseiko bat emon be,

Nekazariaren auzoan lugin aberats eta zeken bal bizi zan. Onek, endoreak arbi-eskeintza nekazariari zelan ordaindu eutson jakiñik, bekaitzez beteta onan iñoan bere artean:

dau emongo txal bat eskiñi ezkeru?

Jatsi zan, ba, abeltegira; eldu eutson txalari, eta eroan eutson alkateari. Baiña alkateak, zekenaren asmoak ulertuaz, uko egin eutson. Alan be, etzan a orregaitik atzeratu, ta ekin ta ekin jarraitu eban bere oparia eskintzen.

Gogaitu zan endore jauna zekenaren jardunketaz eta esan eutson:

—Tira, ba; ainbeste alegintzen zarean ezkeru, itxi egidazu txal ori. Eskertzen zaitut, eta ain oparotsu neugaz agertu zarealako, ni be ez naz zugaz gitxiago izango. Orrela, bada, zure txal-saneurria baiño askozaz geiago ordatnuteko oparia emon bear dautzut.

Eta beriala eskiñi eutson nekazariaren arbi andia, aberats zekena lotsaz itxirik.

Urkoari bekaitzez begiratzen dautsonak,
izango ditu bere gaiñ neke ta miñak.

E T A G E R O ?

Bidez-bide ebillela, Asis'tar Prantzisko Deunak idoro eban bein aurrez-aurre biar baiño geixago ludiko gauza txatxarrak maite ebazan igeltzero bat.

—Kaixo, igeltzero anaia! Nora zoiaz ain goizetik? —itanduten deutso Asis'tarrak.

—Lanera, aita, lanera! —asarre xamar ta arpegi illunaz erantzuten deutso besteak.

—Eta zertarako egiten dozu lana?

—Zertarako izango da ba, txanponak irabazteko baiño?

—Eta txanpon orreik zertarako dozuz?

—Arranua! Lapikokua erosteko.

—Eta zertarako jaten dozu?

—Barruak eskatu egiten dau bere garaietan da... Biarko emon! Bestela niriak egin dau. Etxian be bost seme-aliaba, aoa zabalik, neure zain gelditu dira-ta...

—Eta zertarako bizi gora dozu?

—Ba, semeak azi ta bizibide bikain bana emonez, neure atsuagaz zartzaro on-on bat izateko itxaropen bakar bakarra dot.

—Eta gero? Gerorako?...

—Gero... jum!...

Igeltzero gizajuak uste eban itaune guzti areik praille (lekaide) txolln baten barritxukeriak izango ziViala, baiño igarri eban laister bururatu gura eutsala... geroko bizeitza!

"Gero —aurrera jarraituaz difio Prantzisko deunak—, gero, edo betiko zerua edo betiko zoritxarra! Gero... edo guztia irabazi edo guztia galdu! Ene igeltzero anaia: zer irabazten dau gizonak ludi guzti-guztla beretzakotuz be, gero... azkenean, bere burua betirako galduten ba'dau? Zeuk beintzat, laztan orrek, brlla egizu lenbizi Jaungoikuaren naia ta beste gauza guztiak emongo yatzuz. Begira zelan Zeruko Aitak zelaietako txori ta loretxuak zainduten dauzan; ez ete zara, bada, zeu oneik baiño askoz geixago?"

Burdin gorl bategaz bezelaxe biotzaren erdi-erdian ezarri eutsazan ederto egi gozo oneik igeltzero ttattarrari. Andik aurrera, gerorakoei gaieago begiraturik, txiintxo-txintxo bizi izan ei zan.

ZUBIAGA'tar M, M.

MIIN GAIZTOA

Ona ta maratza zan Mari, auzokoak iñoenez; baiña ba-eban, edonok lez, bere akats eta griña txarra: auzoko iñortxori be baketan ezin itxi. Orratz me bat lakoxe miifia ebalako, edonor eta edozer arakatu, marra-marra erabilli, txarto esan eta orraztu bear. Oitura gaizto au atera ezker, ez eban besterik, Baiña miin-maratillatxo...

Goiz gorri batean, kalera urtetako bere alabatxoagaz batera jantzi ta apaintzen ziarduala, umetxoak diñotsa:

—Begira, amatxo, gauza bat eskatu gura neuskizu.

—Zer gura don, alaba?

—Baiña, lotsa naz.

—Esan egidan bertatik.

—Ba... miiña ikusi gura neuskizu.

—Miiña niri ikusi? Zoratu egin yan ala? Papao alakoa.

—Ez dozu nai? Tira, amatxo, erakutsi egidazu mesedez.

—Eta zer dala-ta orren zale, nire miiña ikusteko?

—Atzo zertxobait entzun neban, bai...

—Zer entzun indunan?

—Tira... atzo goizean ikertu genduzan zure lagun batzuk esaten eben...

—Zer esaten eben?

—Suge miiña zeunkala zuk...; eta nik, suge-miiña zelakoa dan jakin nai neuke.

Au entzunaz, matraillak anpolai bi lez gorritu yakozan amari. Lotsatu be egin zan apur bat. Alan eta guzti, barre-algaraka, miiña atera eban.

—Zoro-txaldana, aiko emen...; ikusi egin, naitara.

Ondoren, bal'ña, etzangutik urtenik arin-arin, negarrari emon eutsan, bere kolkorako iñoala:

—Ikasbide latza, benetan; baiña ondo datorkit. Aurrerantzean, ez dot iñor berbaz irainduko, ez dot iñor ezetsiko.

IGOTZ

BEDARRAK ETA EGAZTIAK

Egipto aldetik Nazaret'era
Jesus itzuli zanean,
Ikusi ebazan ormatik gora
Teillaturako bidean
Bere ortuko bedarrak, eta
Zabaldurik bere aoan
Irribarretxu gozo-gozoa
Dirautso modu onetan:
—Nora zoaze ain gora zuek?
Txoriak or teillatuan
Egotokia euki daroe,
Zuek emen baratzean.

Txori politik sumau dabe-ta,
Jarten yakoz bere oiñetan,

Euren burutxu ispillatuak
Makurturik bere aurrean,
Parkeska egin dabezelako
Kabitxuak bere gelan.
—Parkatzen dot bai, neure egaztiak,
Eguna zabaldu orduan
Nire Amatrixori goiz-toberea
Ba'deutsazue kantetan,
Bideko kurutz ganetik dala,
Nai dala zugatz ganetan,
Pago buruan basa-usuak,
Larratrixoriak otatzen.

VERDAGUER-KIRIKIÑO

A S E E Z I Ñ A

Jaungoiko altsuak, dakigunez, ezerezetik atera ebazan munduko gauza ta izaki guztiak. Bide batez, bakotxari toki berezia ipiñi ta izentatu be bai. Orretarako izaki guztiak, txiki ta andi, leku baten batu ta bakotxari nun bizi nai eban, itandu eutson.

Leoi ta elepanteak, eurentzako egokiena oiana ta basamortua zala erantzun eben; zaldiak barruti ta bedartzak aukeratu ebazan; lumare edo beieak itxaso sakona eban eder; arranoak, zeru oztin zabaia; auntzak, txara ta sasi arteak; ardiak, baso ta zelaia; kaskailluak, ibai ta errekak; ugaraxu ta igelak, oxin ta zingira apakintsuak; zozo ta birigarroak, beresi ta esparruak; oilloak, gari-soloak; katuak, sabaia.

Gizonari be itandu eutson, ia zein leku nai eban. Eta, a zelako mutilla ! Ludi osoa eskatu eban beretzat. Eta, gero, oneri be gitxi eritxon. Giza-biotza bai arro ta ase-eziña!

IGOTZ

K I R K U R

Aldikada baten, euskal erritxo bateko auzunean, triskantza ta oker ikagarriak egiten asi zan zazpi burudun erensugea: bizi zan arpetik urtenda, sola, landa, etxe ta bizidunak ondatzen ebazan. Aotik sua eriola ebillen, eta iñok gogor egiten ba'eutson, aren errukarria !

Au ikusirik, erri atako ta inguruetako gazteak, taldeka batu ziran, a-erio bildurgarri ari arpegia emoteko. Baserritar, ikasle, gudari ta gaiñerako gazte guztiak, euren arazo eta egikizunak albora itxiaz, ezpatak artu ebezan gaizkin ari buruak moztuteko. Bat ez beste guztiak; gazte arlote bat zan au, erriko lagunak barre-aritzat erabilli oi ebena. Patxi eritxon, eta etxeke bear ariñak baiño ez ebazan egin oi, lan gogorretarako aulegia zan eta. Oillo kirkur antzera, sarri epeletan egoten zalako, "Kirkur" ezizena jarri eutsoen.

Gasteen gurasoak euren semeen biotzak adoretzen alegintzen ziran; baktokak bereari itzik erne ta bizigarrienak esanik. Goiz baten bere aitak dei egin eutson Kirkur'i. "Seme! —bota eutson—, bai, ba-dakit, izatez zara zu il samarra, odol zurikoa, ta ez dautzu orrek izten zeure lsgunakaz batera erensugearen kontra burrukatzen be; baiña ba-daukot zeozer nik zure aulkeri ori uxatuteko. Itz zorakor bat da, oraindik iñori be nik esan bakoa; onixek biurtuko zaitu zu azpira-eziña. Erensugearen aurrean berau esanik, erensugea ikara barik geldi-geldi geratuko yatzu; zuri kalterik txikerrena egiteko be ezta gauza izango. Orduan zuk, arenganaturik... "zast"! ebagiozu burua. Eztau geiago ikerarik egingo".

Eta, makurturik, belarrira esan eutson itz zoragillea. Ezta errez esatekoa gure Kirkur gaztearen poza. Izan be, orain besteak aiña izango zan! Ez eutsen geiago koldar zanik arpegira botako. Esan eta egin, ezpata bat eskuan artu ta baso tringuan sartu zan arerio ikaragarriaren billa.

An egoan erensugea, ta an ebiltzan beste gazteak be ari bururen bat ezpataz eratxi nairik. Baiña erensugea azkarra zan, eta errez makurtzen zan ezpatarien zartakopean; odola atera arren, ez eutson iñok be bururik ebagi. Burrukea, ostera, ikaragarria zan. Gazte guztiak iñarduen leia bizian! An zan Kirkur be; lenengotan odol otzak jo eban alderik alde, ta igesari emotekotan egon zan. Baiña, bertatik bere buruaren jabe egiñaz, esan eban itz zoragillea ta, gezi bat baizen arin, ederto sastatu eutson sugeari zazpi buruetatik bat. Ekin eta ekin, arratsalde baten lau bururaiño moztu eulsozan.

Illuntze atan, erriratu ziran gazte burrukalarien artean, Kirkur etorren alai ta pozkorren. Garaitza andiaren ezaugarri lez, eskuan ekazan erensugearen lau buru. Erritar guztiak artu eben txalo ta gora-ots beroan. Aren poza! Berak beste ez eban iñok egin; erriaren salbagille zan. Kantu, soiñu ta txapliuz, amaika zorion opa izan eutsoen! Ara ta ona begira, garaipenez asetua, irribartsu ebillen Kirkur.

Omenaldi oneik amaitu ondoren, etxerako biñdea artu eban; eta ara joiala, bere aitak irribarre gozoz diñotsa:

—Seme, gauza bat esan bear dautzut: egia esateko ordua dala, uste dot. Emon neutzun itz zoragillea, barritsu baten aotiko zera besterik etzan; ez eban iñundik be susterrik. Baiña, ikusi dozu; zeure burua ezagutzeko egoki ta ederra izan yatzu, zeure barrenera begiratu ta indar-uste barriz jazteko, sekulakoa. Erensugeari kendu dautsazuzan buruak zeure trebetasunari, adoreari zor dautsazuz. Zure egite arrigarriak, zeure zeureak dituzu. Pozik nago, seme!

IGOTZ

POSPOLIÑA TA OLO-BURUA

Uri batean *izen* andiko margolari bat bizi zan. Margazki (kuadru) askoren artean, bat egin eban batez be, danen eritxiz, oso zoragarri ta txukuna: Porpoliña olo-buru gaiñean. Uritar guztiak ikusi egien, areto zabal argitsu agiri'an ipiñi eben margazki-laukia.

Olangoetan oi danez, an zan erri osoa, laukia ikusi-miñez: (ander ta aberats, jakitun eta ez jakin, uriko ta baserritar. Baita erregea bera be. Kuadru a sarigarri zan, guztiak ao batean iñoenez; eta erregeak, margolari (pintore) aipatu aren izena geiagoan goratzeko, sari eder bat eskiñi eutson egindako lanaren ordaiñez.

Baiña, laukia ikustera joan zan emakume baserritar bat etzan besteen eritxikoa. "Margazkia —iñoan— ez da sarigarri". "Zer dala-ta ez?" —itandu eutsoen. —"Ondo egiña ez dalako; ba-ditu orrek bere utsak: Olo-burua, txoria gain jartean, makurtu egin oi da, ta or zutik dakusgu; au ondo ete dago?"

Egia zan emakumeak iñoana. Ta, aren oarkizuna ontzat arturik, margolariarentzat zan saria berari emon eutsoen.

IGOTZ

BERRIATU'KO TXANBOLIN

Ezizenak diñoskuna: txistulari zan ta noizean bein zapatari be bai, eta ganera emaztedun ta txakur zakar jatun andi baten jaube. Txakurra opizio bagakoa zan. Eskaratzean zer jan andirik ez ta sarri joan oi zan laba ondora labaldi bakotxean sei bidar gitxienez. Txanbolin'en emazteari (Txanboliñesa zan Berriatu'n eukan izena) askotan mauta-mauta jan eutsan txakurrak labarako gertu eukan arto-orea. Ikustekoa izaten zan alako egunetan txakur jatunaren ugazabandrea. Txakurra etxetik kendu egin bearko zala ta baietz ta baietz ta baietz. Alako baten Txanbolin'i berbatxu onek urten eutsen, emaztearen pozgarritzkoak:

—Bilbora eroango yonagu, norbaiti saltzeko.

Eldu zan egun ori. Auzoko gizon bat eta txakurra bide lagun zituala, an joian gure Txanbolin goizalde baten Markiña'n zear Bilbora. Bere asmoz azokara joan zirean bere lagun biak, gizona ta txakurra, au ede bategaz ak lotuta eroala. Ordu betegarrenean edo, ba-dator Txanbolin, beste bat ba'litzan, merkatarri antzera. Bere erritarrari, ezagutzen ez ebanen irudia eginda, itandu eutsan:

—Zegan dozu txakur au?

—Iru amaseikogan.

—Orrenbestel

—Lauzuri ezta merkeago.

Txanbolin'ek unamatxu bat (sokatxu bat) sakeletik atara ta txakurra ardura andiz negurto eban. An batera ta bestera ebiltzan nun-ze-barri batzuk ikusguraz urreratu ekioezan. Txanbolin'ek orduan saltzailleari:

—Txakur ederra da, guztizko ederra —esan eutsan—. Nik, barriz, amaseiko bi baiño eztaukadaz aldean eta etxera noa irugarrenaren billa.

Txanbolin'ek alde ebaneko, ango nun-ze-barri aren arteko batzuk txakurdunari, urreratu ta erosi gurarik legez, berbetan asi yakazan:

—Zetarako da berau? Erbitan edo ba-daki?

—Ez, baiña onen jaubea zapatari ta txanbolin da ta, errietara doune-tan, kartolak txakurrari bizkarrean ezarri ta tanboliña alde batean, bestean zapata-pareak eroaten izan dautsoz, txistua buztanpean sartuta.

Txakurraren gaitasun oneik entzunda, ikusguren arteko batek, kokoloak alakoak, katanarrutik iru amaseiko gorri eder atarata, txakurdunari banan-banan eskura emon eutsazan.

AZKUE (R. M.)

LAPRAMENDI'KO ATSOA

Markiña'n zear itxasora doan errekeak Artibai dau izena, baita ango auzune bati orrela deritxo. Bein, auzo ontan atso bat, zar samarra, bizi ei zan. Sorgiña berau, esaten ebenez, eta Lapramendi'ko atsoa eritxoan.

Artibai'ko auzoan, Txabin'en etxean, senar-emazte bi bizi ziran. Emaztea goru'lari ederren bat zan, eta bein baiño sarriago, apal ostean, gizona oera

joanda gero be, goruetan geratzen zan gogor. Gau guztietan suburuko lara-tzean agertzen yakon katu zuri andi bat; eta, xpx, xpx! esaten eutsanean, uleak arro-arro eginda ta puzka, eltzera egingo ba leu lez jartzen yakon: gaiñera berba egin eta goruetan itxi ez.

Emazteak esaten dautso gizonari jazoten yakona. Urrengo gabean gizona goruetan geratu zan, emaztea oera bialduta gero. Eta or, oster a be non agertzen dan esandako katua laratzean bera. Onela ekin dautso barriketan: "Bixarrak eta goruetan?" Gizonak dirautso: "Katua ta barriketan?" Gizonak sueteko illintia artu ta jo dau katu ori lepazurrean; tximistea lez iges egin eban suburuko laratzean gora.

Biaramon goizean, non entzuten dan Artibai'ko auzunan, Lapramendi'ko atsoa, elexakoak eraginda, gerria ausirik txarto dagoala.

NORUEGA'tar BATEK MARKIÑA'n BATUA

BIZKOR ETA ERBIA

Basoz baso ebillan bein Bizkor, eize edo kaza-txakurra; ibilli ta ibilli, erbi-lorratza susmau eban sasi arte batean: baita aren abia laster aurkitu be. Beresi, zelai, troka ta mendi zear guztiz bizkor jarraitu eutson luzaroan; baiña erbiak izan, antza, berna-azurretan arintasun geiago. Bizkor azkar zolia beintzat bost arrako surragaz itxi eban: aren ondoren, tximista lakoxe as-trapaladan, egiñalak egin arren, ezin oratu.

Auntz-zaiiña zan bere nagusia, ta orretan ziarduan. Bizkor erbi atzean ikusirik, pozez gaiñeztu yakon biotza, bazkaritan okela gozo-guria eukiko ebala uste izanik. Baiña, txakurra erbi barik etorrela-ta, oso naibagetu zan gaixoa. Ots dagio, ba, Bizkor'i, esanaz: —"Zer ikusi yoat, maite? Nik uste naioan, or zear Joan dokan erbi anka-motza baiño askozaz bizkorragoa intzala... baiña ez dok orrela".

"Oker zagoz, nagusi —erantzun eutsan txakurrak—; ez dira gauza bardiñak, nire eritxiz, zuri bazkaria guritzearren sasi arte zear ta mendi-aldapaz arinka, izerdi patsetan nekatuta geratzea, ta zure bizia arduraz zaindu ta gordetea".

Bakotxak bere taiuan gauzak artu bear dauz.


IGOTZ

A R T O A

Mexiko da artoaren jaioterria, ta orregaitik bero-zalea dogu bera. Gure lurraldeetan, udaldi inguruan dira <landara onen azte ta batzea. Artoa bero-zalea da, baiña baita ur-zalea be. Eta, orregaitik, Euskalerrria aukerakoa da landara onentzako. Lurrari indarra kentzen ei dautso; baiña, abere ta ganadua dagoan tokian, polito zuzenduten da oker ori simaurraren bitartez.

Artoak be, beste landara batzuk lez, bere gexo ta zomorroak ba-ditu. Detano saldea sasoz erabilli ezkeru, kalte oneik asko urritu legikez.

BAGILLA



CANCER • VI-22 • VII-22.

ZANGURRU.—Txutxurrutxu (Cancer) au, kapela luzangaz estalita, arro dabilkigu ur barruan igeri. Kantauriko itxas-ertzetan ugari da, baita gure erreka la ibaietan be. Jateko guztiz gozoak dira, ondo ipinten jakin ezkeru.

Zodiakoko laugarren ezaugarria dogu ar-emeen arleko batasuna adierazten dauan erpe-matxarda sendo au. Eguzkia, bagillaren 21'tik garillaren 22'arte dabil bira onetan; ekliptika barruan, ostera, 90'tik 120'rakoa artzen dau.

Ur-maskurrak, guztiz emokor izanik, oskol baten babespean bizi dira geienez. Aldi-arloan, barriz, garau ta aleen osotze beiiena, barren biziak landaren izpi-eunai kemenik zabal giarrena ezarten dautsen sasoia esan nai dau. Sorpena, eio-bitartea, ama indarren garaitza,

1) ZAPOKA

Mutiko bat itsutu ta makurtuta dagoala, jagunak bizkarrean jotzen dute txapelakin; eta makurtua jo dutenen billa asten da astrapaladan.

Norbait arrapatzen duenean, nor dan esan bear du.

—Itsu-kapelu, nun dek andrea? —esaten du.

—Billa bestea —erantzuten diote aiek.

2) EREZTUN BILLA

Jolasten dutenak beian exeritzen dira, bira egiñik. Euretari bat erdian jarriko da.

Eretzuna zotz luze baten sartuta, jolaslarien atzetik igaroko da. Ba-koitzak esku batez estaliko du ta urrengo jolasleaganaiño igaroko du, edo antzez orrela dagi beintzat.

Erdian exeririk dagoanak, nork daukan igarri bearko du. Igarri ba'dagj eretzun-jabe dan jolasleak artuko du aren tokia.

Joku-zuzendariak zerrenda bat osotuko du, onelako itzak: "Pozkor", "arritu", "asarre", "oldozkor", "lo", "ittun", "geldo", "negarti", "men".

Jokolariak arpegia estalduko dute esku biakin oratuko duten zapiz. Zuzendariaren zantzura, arpegiak estalgetu ta esaten zaitoten! arpegikera erakutsi bearko dute betartean.

"Arrituarena" egiteko esan ezker, izu-arpegia jarriko dute. "Oldozkor" esaten ba zaie, pentsatzen dagonaren betartea, ta orrela beti, joju-zuzendariak eskatuari dagokionez. Estali ta estalgetu, estali ta estalgetu, eskatzen dan ziñua egiñik.

Ondoen dagianak irabaziko du, ta olakoak antzokirako ere trebetasun aundia lortuko.

4) TXINAR JOLASA

Bear dana: aurtara edo eskukada bat garbantzuz naiz indaba.

Txinarrak onela jolasten zuten urrean, eta ernegarria da izan ere. Jolaslariak euren eskuetan zenbat garbantzuz gordetzeti dituzten igartzea besterik ezta. Zenbaki' osoa esan dutenak jokotik kanpo gelditzen dira; eta emen, beste jokoetatik aurkaz aurkatzean, orain bat eta gero beste bat artetik kenduz, atzenengo gelditzen dana, ots, azpiratua txalotzen da.

Oboa egiñik jartzen dira jolasleak, eta bakoitzak bere sakelean bost garbantzuz eukiko ditu geinera jota. "Joku!" entzuketan, bakoitzak, nai ditun bete garbantzuz gordeta dauzkan eskuia luzatuko du, ondo itxia. Adibidez, sei baldin ba'dira jokatzeko dutenak, eta eurretatik denak gorenera jota ere, ezin diteke esan edo aldarrikatu 30'tik gorako zenbakirik. Baiña, ortik beerantzuz, edozein zenbaki izan dalteke zoritsu.

Jokaldi bakoitzean, eskuak sakelera itzultzen dira joku-zenbaki berriak artuz naiz uzteko. Azken gelditzen diran biren arteko burruka guztiz ernegarria dezute.

5) OIANEKOA

Ingurua egiñaz zelaian jartzen dira aurtxoak. Zuzendariak ematen die bakoitzari, edo aurtxoak berak aukeratzen dute, landara, zugaitz lore, igali, abere, pizti naiz beste oian edo basarte kutsua duen gauza baten izena.

Ordoren diño: "Orain bost galde egingo dizkiot bakoitzari. 1) Askotaz azken zera, ala gutxi? 2) Lorarik ba-dezu, ala ez? 3) Zein margoko zera? 4) Ostorik ba-dezu, ala ez? 5) Jatekoa al zera?" Galdera auek iVu naiz lau bidar egitea, obe.

Orain aurtxoak eurak, txandaka, alkarri egingo dizkiote galde berdiñak. Bakoitzak zera erantzun bearke do, eman zaion izenari dagokionez.

Uts dagianak, uts bakoitzeko "sari" bat eman bear du. Eta jokua atzanean "nekeak" bete. Bost galderai zeatz eta meatz erantzun egokia ematen diena, izadia ezagutu ta maite dulako, txapeldun izango da.

6) SAKU BIZIAK

Saku batzuk izango dituzute etxean: paperezkoak ba'dira, obe.

Bildu itzazute lau edo bost, asmaketa-sena piztu-erazi ta esnatzeko joku eder bat antolatu dezazuten.

Jokatzen dutenak zortzi izatea egoki zaizue, zuzendaria bera ere barne arturik. Zotzean aterako dituzute Joku-zuzendaria, sakuz estaliko diranak eta auetan zer dagon igarriko dutenak.

Au danau egindakoan, sakuz estalita nor dagon asmatu bear dutenak, gelako egal batera joango dira. Zuzendariak berak egokituko ditu besteak bekoz-bekoko muturrean, eta sakuekin osoro estaltzen ditularik, esango du: "Oraintxe estali det Martintxo, eta, ezertariko iruzurrik izan eztedin, berberak esango dizute barrutik bere izena". Enparauekin ere orobat egingen du, alik eta ondoen estalirik saku barrukoak.

Zuzendariak ara ta ona, iru edo laU bidar, aldatuko ditu sakuak, Igarleak begira egon arren, berdin da. Saku-barrenekoak, alaere, ez dute tutik atera bear, ez mintzoz, ez irriz, ez algaraz.

Nor irabazle? Jolaskide bakoitza zein sakutan dagon, utsik egiteke, esaten dona.

7) LAU ERRO-PUNTUAK

Atarian naiz larrañean lau erro-puntuak (Ipar, Ego, Sortalde, Sarkalde) klarionez marratzen dira, aturreko lau ertz edo ormetara begira. Zelaian jolastuten baldin ba'da, zugaitz batzuk artu ditezke ortarako.

Jokolariak, jokua asteko, erdi-erdian egokituko dira. Eta erropuntu bat zuzendariak aipatu-unean, aurtxoak izentaturiko puntu artaruntz laster egin bear dute, artez eta gogotsu.

Zuzenbidean uts dagiana jokotik at gelditzen da.

8) OILLAR-BURRUKA

Umetxo biren artean asmatu dezakezute joko au.

Joko-aldi guztian, zutik dagoz auek, oin bat aidean eta besoak gurutzatuta dituztela. Bakoitza, lurrean marraturiko obo batean dago; eta jokua onetan datza: batak bestea obotik atera bear du bultzaka, naiz oin jasoa beian ipiñi dezan ekuru edo oreka galdu eragifiik.

9) TXOKOKA

Etxe inguruan jolastu dezakezute onela; baita zelai baten ere, an urrean zagaitz batzuk euki ezkeru beintzat. Lau txoko faear dira, naiz lau zugaitz. Bost jokolari bear dira geienik.

Lau neskato naiz mutiko lau txokoetan egokitu. Boskarrena erdian daukazute. Txokoetakoak, txoko batetik bestera aldtzen saiatzen diran bitartean, erdikoak arrapatu naiko ditu. Eta bateren bat arrapatzen baldin ba'du, onek artu bearko du erdikoaren tokia.

10) BARATZAIÑA TA LAPURRA

Jolasleen artean baratzaiña ta lapurra aukeratu lendabizi. Egin lerro zabal biribil bat; lerro onen barrua izango da baratza. Lapurra onen erdian egokituko da; baratzaiña, berriz, lerro ortatik landa. Beste mutikoak, es kuetatik elduta, ingurua egingo dute.

Baratzaiñak, ordun, lapurñoari: "Nork utzi dik ene baratzean sartzzen?" —"Iñork ere ez", esango du besteak.

Baratzaiñak ordun lapurrari erasoko dio, obo-gain sartu ta irten. Baiña erasoten dion bitartean, besteak dagian oro egin bearko du. Lapurra narras ba'dabil esku ta oin gain, berak ere orobat egingo du; edo txingilka saltu egingo du, lapurrak orrela ba'ldin ba'dagi.

Asko iraun ba'legi arrapatu eziñik, bost miñutu esaterako, inguruan bere lekua artuko du ta lapurrak beste baratzain bat autetsiko. Baratzaiñak arrapatzen ba'du, lapur biurtuko da ta baratzain berri bat izentatuko du.

IGOTZ

A B E S T I A K

1) OGI TXURIA

Zuk eztezu jango, arata;
zuk ere ez, antzar.
Nik gari-alea lurrean sar,
nik errotara ekar.

Nik oretu ta labean
erre su ta gar.
Ogi txuria neretzat
eta nere txitoentzat.

ETXANIZ'tar NEMESI

2) MONJA TXURIARENA

Oraingo aldian esango degu
monja txurien kantua,
kanta kantari kantako degu
monja txurien kantua:
La-ra-la, doran-donian-don,
la-ra-)a, doran-donian-don.

Batzuek:

Ama, ekatzu jantzi txuria
monja nai det-eta nik.

Besteak:

Monja txuriak Txina'n dira;
batel bat dijoa Pasai'tik.

La-ra-la...

Batzuek:

Ama, ekatzu jantzi beltza,
monja nai det-eta nik.

Besteak:

Monja beltzak Mendaro'n dira,
ez dakit ango biderik.

La-ra-la...

Batzuek:

Ama, ekatzu jantzi urdiña,
monja nai det-eta nik.

Besteak:

Monja urdiñak Begoña'n dira,
ez dakit ango biderik.

La-ra-la...

Batzuek:

Agur, amatxo, agur betiko;
ama, ez egin negarrik.

Besteak:

Agur, alaba, agur betiko;
errezatu nigatik.

La-ra-la...

Danok:

Batel txuri bat Txina'ra doa
monja txuriz beterik,
monja txuriz beterik, eta
izar eder bat gidari...

La-ra-la...

M. LEKUONA

3) AINGERUARENA

Mendi azala goiz argiz zillar
egun atari denean;
lotan zegoen baso itzala
txori soiñuz esnatzean;
mendi gaillurra eguzkiaren
laztan beroz gorritzean...
nere gogoan zaitudala, Ama,
asten naiz ni otoitzean.

Eguzki jaunak, urre ta sutan,
galda jaia duanean;
zeru gaillurra argi bizitan
irabazi ondorean;
egun erdian, lana utzita,
itzal gose naizenean...
kanpai otsera, Ama lazтана,
berriz zaitut biotzean.

Arratsaldera, egun argia
logaletzen zaigunean;
eguzki jaunak argi opilla
lotara daramanean;
illunabarra, Ama Maria,
laiño gorrian galtzean...
nere lanari agur egiñaz,
otoi dagizut pakean.

Gau amak lurra maindire beltzez
izkututzen digunsan;
sasi ta lore, illunpe bildur
kuxkurtzen zaizkigunean;
txori soiñurik, Ama Maria,
basoak ez duanean...
Zuri otoika lo artzen det nik,
Ama, zure magalean.

ETXANIZ'tar NEMESI

4) PARADISU'KO ATEAN

Paradisu'ko atean,
abere danak batean,
pozik zebiltzan beren izenak
Adan'engandik artzean:
Paradisu'ko atean,
abere danak batean.

-Ia orain, **kukurruku**, zuk izena nola dozu?
-Esango dizut berealaxe, **oillarra** esan didazu.
-Ondo dago, **kukurruku** zuk izena orla dezu.

-Nola da berriz zurea, **kurrin-kurrinka** nerea?
-Esango diot berealaxe, nerea, Jauna, **urdea**.
-Ondo dago, jauniurdea, orrelaxe da zurea.

-Etorri ona, **kakarl**; nola esan dizut zuri?
-Esango dizut berealaxe, **oilloa** esan dit neri.
-Ondo dago, **kakakarl**, orlaxe esan dizut zuri.

-Ondo da, "lepo-gizena", orla da zure izena.

-Esne ta adardun gurea, nola dezu zuk zurea?

-Esango diot berealaxe, **beia** da, Jauna, nerea.

-Esne ta ad'ardun gurea, orla dezu zuk zurea.

-Belarri-luze, mukizu, ia zuk bai al dakizu?

-Neri... ai, Jauna, aztu... aztu... aztu... egin zait; parkatu l

-Ondo dago, **jaun mukizu;** "astua" zera gaurtik zu.

Paradisuko...

MANUEL LEKUONA

5) ETXE POXPOLA

An urrin etxe poxpola, ola, ola l
Tximinitik gora kea dariola, ola, ola l
Gaintxoan arbola zelai erdian,
Erreka pol-pola etxe atarian:

**Tralala, tara, tralala,
Dana txiki-txiki-txikia orra.**

Jo atexkoko txiliña, ola, ola !
Sutondoan kuzkur lo-lotan mitxiña, ola, ola!
Sutan danboliña gaztain erretzen,
Lapikoa gal-gal babak egosten:

Tralala, tara...

Ba-dator etxeko-andrea, ola, ola!
Begitxoak ñirñir, aoan irria, ola, ola!
Zuri-zuri illea ta bur-zapia,
Zuri-gorri umea jaio-berria:

Tralala, tara...

Magaltxoan estutzen du, ola, ola!
Urrumakatzen du, urrumakatzen du, ola, ola!
"Gure txikitxoa, egizu lo, lo,
Lo, lo txikitxo bat, apapa gero:
Tralala, tara...

B I L A G U N

Mendiz mendi zioazen lagun bi ta artz izugarri bat aurkitu zuten. Bietatik ariñena arbola batera igon zan; bestea, lurrean etziñik, illan moduan gelditu zan. Urreratu zan piztia ta usain egin zion gizonari; baiña onek etzuen arnasarik ematen, ta alde egin zuen piztiak.

Orduan beste gizona, arbolatik jetxirik, lagunari galdezka joan zitzaion:

—Zer esan dizu artzak belarrira?

—Bere laguna bakarrik uzten duana kobarde baf dala esan dit.

PIPA TXARRAREN IPUIA

Pipa onaren ipuia guziok dakizute. Patxi'k, ordea, txarrarena oso ondo ezaguturik zeukan. Beñera etzitzaion aztu.

Patxi'ren aita gizon begiratu zan eta beti pipa >luzean arretzen zuan. Aitari Patxi oso maitia zitzaion, baiña ala ere, agindurik zeukan berak baimena eman arte ez erretzeko.

Eta Patxi'k orregatikantxe, pipakada batzuk botatzeko izugarritzko go-go zeukan, ia ori zer zan ikustearren edo. Bein, aita lo zegon bitartean, mai gaiñean utzitako zigarro pillo ondora oiñ-muturka urreratu zan, eskua

arduraz luzatu ta ikaraz, baiña ausarti, zigarro aietako bat kendu zion... bat bakarrik; eta gero ezkutuan erre zuan. Arek benetan txorabiatu, goraka eragin zion, baiña ala ere etzitzaion damu izan.

Beste baten bost ere kendu zizkion, baiña aita ezagutu ere bai. Eta orduan zaparrada. Bein aita pipari ari zitzaion, baiña betazalai eutsi eziñik, loak artu zuan; pipa mai gaiñean kea zeriola zegon... Orduantxe bai etsaia-rentzat egoaldia!... Patxi ixil-ixil urreratu... eskua luzatu... azkar-azkarrik pipa jaso... bi pipakada atera... ta joan zan. Baiña orduantxe aita esnatu ta guzia asmatu, igesika zioan Patxi'ri otsegin zion: —Jarri akit.

Bere pipa artu, goraiño bele, irri maite bategar Patxi'ri begiratu ta esan zion: —Orain erreko dek, nere seme, aitaren baimenik gabe erretzeko alako gogo aundiak ditukan ezker—.

Pipa piztu, goi-goiraño bete ta esaten dio:

—Erre ezak.

—Osoa?

—Bai, osorik; azkenerarte; pipa osoa erretzen ez dakiana, ezer erretzeko ez dek-eta.

Eta osorik erre-erazi zion. Patxi'k pipa osoa erre baiño len, munduaren azkena etorriko zitzaioa uste izan zuan... Bai ordu txarra irintsi bear izan zuela!... Gutxienez amar urtean geio erretzeko gogoak joan zitzaizkion.

Gurasuak gauzaren bat agintzen dizutenean, zintzo-zintzo egin. Beaiak jakingo dute zer ari diran; eta ez aurrean, ez atzean gezurrer ibilli.

SOLUXE, I. L.

A U N D I T U A

Mutil koskor bi, jolasean zebiltzala, sarri oi diran bezela, ezereza-gatik aserrartu ziran. Itzetatik egiñera jo zuten, eta ukabiikada ederrak eman zizkion batak besteari arpegian. Irugarren batek, ara urbildurik, banandu zituan; eta zartakorik aundienak artu zituanak, begietatik sua zeriola, esan zion paketzaillari:

—Ez, ba; au eztek olan geldituko...

—Ez; ori biarko aundituta daukak —erantzun zion paketzaillak

I N T X A U R R A

Intxuardi eder bateko itzalian (kerizpetan), jolasean ari ziran mutil koxkor bik intxaur bat aurkitu zuten.

—Nerea dek —zion lñaki'k—; nik ikusi diat lenbizi.

—Ez—erantzun zion Txomiñ'ek—; neretzat izango dek, neronek arrapatu detalako.

inkimako ta burruka izugarria sorlu zan beriala, bien artean. Len bizi itz-goraz, gero aserrez ta azkenez burruka. Onetan ari zirala, beste mutil indartsuago bat eldu zan ta burrukari bien artean, onela itz egin zuen:

—Tira, adiskideak; geldi! Nik erabakiko dizuet auzi ori.

Eta, intxaurra erdibituaz, jarraitu zuen:

—Oskol, azal erdi au lenbizi intxaurra ikusi duenarentzat; eta beste erdia lenbizi arrapatu duenarentzat. Mamia neri dagokit epai-saritzat.

Au izaten da auzi guztlen amai:
Malmuzkeri asko ta onura gutxi.

ONATX, ERLETXOAK

Muiñorantza doa Josutxo, kantari,
belarritan zintzil bi-iruna gerezi.
Mutil xalagorik !,.. Zeren billa ote?
Kilkerrak, marmari, agur dagiote.

Baiño,.. oar!; beeko eultzaren burrunba l
Erle.danak, leitsu, ager-ixkutuka..
Zer gerta zaie, ba, Joseph-en erleai?
Lore bat ikusi rnuifora, poz-dirdai...

Egalda zaio bat; ezarri da tente
ezpain-marrubian —arrosa arek uste—.
Zizta du ta, enel, odol-tanta atera;
kukuluan miztuta, berriz egatu da.

Egun gutxi buru, Joseph ezti billa...
Baño... zer da an? Jesus I Eultzeko iskanbilla !
Erle danak itsu, zoro, norabage
ninitik zerbaitek eutsiko bailie.

Ta abaraska urrean, izarño bezela,
urrin-jarioka, ñirñir, odol-tanta !
—Arrigarri bai aul... —ta artuz abaraska
poz-ttuttuli jo du Andra Mirengana.

Baiña Andra Miren-en sen zorrotz-argia!
Ikusi orduko barrendu guzia...
Josutxo deitu du; laztan dio gero
ta aberaska bera jaten emon dio...

Sagara-muiñoan, Josu gorde zaigu;
Onatx, erletxoak, **Lore** ori miztu!

LORAMENDI

PIPO, KONEJUTXU ARROA

Bazan bein, baso unguru batean, Koneju famili bat. Antxe zeukaten kabi-etxea, ta antxe bizi famili oso-oso: aita, ama ta iru seme-alaba: Pipo, konejutxu "arroa"; Nini, konejutxu "argia", ta Doni, konejutxu "negartia",

Aitak, egunerokoak ikusten zituan, itzalpean eserita; amak, eguzkitara ipintzen zituan semeen jantzi'ak, Eta iru seme-alabak jolas egiten zuten.

Pipo, konejutxu arroak, jolasa utzi, ta aitari esaten dio:

—Aita, basora joan nai det, ango animaliak ikustera. Aundia egin naiz, eta urrutira joateko amesa det.

Dar-dar egin zuan aitak, pipea eskuetatik lurrera erori zitzaion, eta egunerokoa ere, zalapartan, ai'zeak kendu zion. Ama ere biVdurtu egin zan oso. Anai-arrebak etzuten geiago jolasik egin.

—Zer esaten dezu, ene koxkor? —otsegin zion aitak—. Basora joan? Arrisku aundiak ditu basoak, eta animali gaiztoak bizi dira an. Ez al dakizu Otso gaiztoak, koneju gaixoak jan egiten ditula?

—Etzaitetz, nere semetxo, etzaitetz joan —esan zion amak, erdi negarrez.

—Etzaitetz joan, anai maite —ekin zion baita Nini, konejutxu argiak ere.

—Etzera joango, ez orratio! —esan zun oso asarre aitak—; etzera joango! —esan zion bigarren aldiz ere, asarre bizian.

Bazkaldu ondoren, Koneju gurasoak lo egitera joan ziran, eta iru Konejutxuak, jolasetara.

—Aitak ez nau ikusten, eta iges egingo det basora, animaliak-eta ikustera.

—Etzaitetz joan, anai maitel Basoko animaliak gaiztoak omen dira, ta jan egingo zaituela, esan du aitak!

—Eeezz! Ai, aiii! —esan zuan Doni, konejutxu negartiak, besterik esaten etzekian-da.

—Ba-noa! Ni aundi naiz eta kementsua!

Ta bere gauzatxoak artu, ta alde egin zuan basora.

Kantu kantari ta arro zijoan Pipo konejutxua, basotik zear.

—Nun zerate, basoko animaliak?

Erantzunik ez. Eta aurrera zijoan, oiuka:

—Basoko animaliak, nun zerate?

Erantzunik ez. Gau egin zanean, bildurtu egin zan, eta deadar egiten zuan:

—Nun zerate, basoko animaliak?

—Emen gera. Zer nai dek? Nor aiz i?

Otso gosetia zan erantzun ziona.

—Ja, ja! —pentsatu zuan Otsoak—; konejutxua dek! Gaurko apartako!

—Pipo, konejutxu kementsua naiz, eta zuek ikustera etorri naiz. Baiña, basoko animaliak okerrak zeratela, esan dit aitak.

—Bai zera! Umeak bildurtzeko esaten diran gezurrak!... Ja, ja, ja!
Zatoz nerekin.

Eta lagun on bezela, Otsoak bere kabira eraman zuan.

—Zergatik goaz orren azkar? Nora goaz? —galdegin zion Pipo arroak, bildurrez eta dar-darka.

—Nere emazte, Otso gosekilla ezagutu bear dezu, ta bere bost semeak. Aiek dituzte ortzak, aiek!... Ja, ja, ja!

—Jolas egin al izango degu danok batera? Ez didate kalterik egingo, ezta?

Ordun agertu ziran bost otso-kumeak, eta pozik esaten zuten, bere aita ta Pipo konejutxu arroa ikustean:

—Gaur bai izango degula janari goxoa!

—Nik kutxilloa zorroztu, ta zuk, emazte Otso gosekilla, gerlu ezazu eltze aundi bat —esan zion Otso gosetiak bere emazteari.

Orduntxe konturatu zan Pipo Konejutxu arroa, jan egin nai zutela, ta bereala, bere gauzatxoak utzirik, igeska asi zan, etxetik irtenaz damuturlik.

Iges zijoan Pipo Konejutxua, alik eta laisterren igeska. Baiña, zori-txarra! Arri baten kontra jo zuan, eta ipurdiz gora, lurrera erori; ta-gaiñera min artu zuan ankan.

Bereala arrapatu zuan Otso gosetiak.

—Ja, ja, ja! —esan zion—; arrapatu zaitut!

Jaso zuan eskuan zeraman labana, Konejutxua iltzeko asmotan..., baiña, pum!, tiro bat. Eta bereala Otsoa ilda erori zan. Inguru aietan zebillan elztari bat zan.

Pipo, Konejutxu arroa, ankan min zeukala, eldu zan, pixkaka-pixkaka, bere kabiraiño.

Danak poztu ziran oso, berriz Pipo konejutxua etxean ikustean. Sendagarri bat jarri zion amak anka zaurituan, eta galdegin zioten:

—Nun izan zera? Zer ikusi dezu? Nork egin dizu pupua ankan? Txintxo-txintxo izango al zera emetik aurrera? Ez al dezu geiago etxetik iges egingo?

—Bai! Ona izango naiz. Eztet geiago igesik egingo. Arrazoia du aitak: basoko animaliak oso okerrak dira.

—Baiiii! Ai, aiii! —esaten zuen Doni Konejutxu negartiak, 'besterik esaten etzekian-da,

BERNABE SALIZ

SAGUAK ZILLARRA JATEN

Orain esatera nuana ezta Euskalerrian gertatua, beste leku batean baizik.

Gizon bat, ibillaldi luze bat egitera juan bear zuan, eta juan baiño len auzoko gizonari esan zion:

—Etxetik eta erritik, urrutira juan bearrean naiz, denbora asko egin bearko det noski kanpotik, eta zillar zati aundi bat gordeko al dirazu zeure etxean, ni etorri bitartean?

—Bai, gizona; ekarri zazu nai dezunean, eta emen billatuko dezu, etortzen zeranean.

Gure gizona juan zan kanpora, ta iru illabete kanpotik eginda etxeratu zanean, juan zan auzoko etxera, bere zillar puskaren billa, baiña auzokoak esan zion: —Ara, ezin neikezu zure zillar zatiak biurtu, saguak jan zitzaizaten da.

—Saguak zillarra jan?

—Bai, gizona, zearo jan ere. Zokondo baten gorde nuan, zu juan ziñanean, eta urrengo egun batean oroitutako nintzenerako, dana jana zuten.

Gizonak ez zuen geiago ezer esan, eta auzokoak, oso poz aundiaz, bazkaltzera etortzeko esan zion.

Gizonak, etxetik erten zuanean, ate aurrean, auzokoen seme txikia billatu zuen jolasean, eta bere etxera eraman zuan. Giltzapean ipiñi, eta auzoen etxera biurtu zan bazkaltzera. Auzoa guztiz larritua billatu zuan semetxoa galdu zitzaiolako, eta beriala galdetu zion:

—Nere semetxoan berririk al dezu? Ikusi al dezu iñon?

—Bai, ikusi det ba; nik emendik erten detanean, arrano batek zerman egazka, bere mokotik txintxilika, odeietarantz.

—Arranoak umea eraman? Ezin leiken gauza da ori. Nun ikusi da, ba, arranoak umeak eramaten?

—Saguak, zillar puskak jaten dituzten lekuan, arritzekua al da, ba arranoak mutiltxo bat eramatea?

Auzoak, era batera igerri zion dana gizonari, eta esan zion: —Arzazu zeure zillarra, eta ekatzu nere semea.

Eta biak bazkaldu zuten poz aundiarekin: bata, bere zillar zatien jabe berriro zalako, eta besteak, bere semea aurkitu zualako.

JULENE AZPEITIA

D A B I D

Leoi ta artzekin, arkume ta bildotx otxanekin bezela jolas-egin oi zun, gazte zalarik.

(Eccl. XLVII-3)

UMETXO: —Dabid izen ori entzutean, ez dakit *zer* ote darabilzun zuk zure baru barruan: bear bada, zure errian ezagun-errementaria edo.

Neri izan orrek, Dabid izen motx orrek, bi ipintzen dizkit buruan: bi Dabid izeneko ezagun bai nitun ume nintzalarik; bata ogei urteko Dabid gaztea, euskaldun utsa, pelotan ariña, beso-luzea, bizkar-zabala; bigarren ori zuk ere entzunik dezu noski, ta bein entzunik izan ba'dezu, aztu zaizunik ezin uste; neri, beintzat, oraindio etzait aztu.

Zein degu, bada, b'garren ori? Aspalditxokoa, Lege-Zarreko Dabid artzai indartsua; leioekin eta artzekin, arkume ta bildotx otxanekin bezela jolas-egin oi zuan Dabid artzai indartsua.

Nere irakurle: zu ni baiño zarrago edo azkarrago izan ezkeru, Dabid erregeren bizitz apurtxo auek, nik bezin ederki ta nik baiño obeki jakin arren, Dabid ortara noazu, *nere* erriko beso-luzea, pelotari ariña, oraingoa bere soroko lan goxoan lagarik.

II

Surge, unge eum.

Errege egin zak.

(I, Reg. XVI-12)

Ba-zan, ba, Samuel izeneko Igarlea (gertaerak gertatu baiño egun batzu edo urte biatzu len, Jaungoikoaren bidez asmatu ta "igartzen" zutenak ziran "igarleak"; ta aspaldingo artan naiko Igarle zendun: atetako bat Samuel); ba-zan, ba, Samuel izeneko Igarlea; errege berriz Saul, gaiztoa,

zekena Jaungoikoari eskeiñi bear lioken guztia, eskeiñi etxiona; beraz Jaungoikoak etzuan Saul maite, ta onen ordez Belen'go Dabid artzaia Errege egitekotan zegoan, ta Dabid errege egin zun.

Nolatan baiña? Samuel izeneko Igarlearen bidez.

JAUNGOIKOAK: —Oraindikan negar ta negar zer abil or Samuel? Kendu nian Saul, maite ez nialako; joan ari aren ordez besteren baten billa.

SAMUEL'ek: —Noruntz noazu, Jauna?

JAUNGOIKOAK: —Joan akit Belen'en barrura, antxen dek geroko Errege berria ta.

Samuel izeneko Igarlea Belen'en barrura zan, eta Isai gizon ona arkitu zuan.

SAMUEL'ek: —Jauna, Isai Belen'darra ote dezu Israel Erregeko?

JAUNGOIKOAK: —Ez det Isai Erregeko, bere semetako bat baizik.

Samuel izeneko Igarlea ba-dijoakigu bada, ta itz auetan dio Isai gizon onari:

SAMUEL'ek: —Isai, semerik bai al dezu?

ISAI'k: —Jaunari eskerrak ba-ditut; ikusi nai zenituzke ala?

SAMUEL'ek: —Bana-banaka nai nituzke; ekarri zaizkidazu, ba, Isai!

Semien ekarri bitartean, ustutako idi-adarrean olio ixuri, txai guri bat Jaunaki eskeiñi, ta otoitz egin zun Igarleak; geroxe Eliab ikusi zun, ederra den-dena; ta ao-barruko itx ixillez, "Jauna, au dezu begiko Errege", esan zun.

JAUNGOIKOAK: —Ori ez dek Errege izango: ederra dek, argia dek; gizonak, atekoak eta azalekoak besterik ez dute ikusten; nik biotzekoa ta barrukoa; ta Eliab ez dezu Errege izango.

Etorri zan Abinadab.

Eta Igarleak: "Ez dek au ere".

Etorri zan ondoren Sama.

Eta Igarleak: "Ez dek au ere".

Ekarri zion Isai'k zazpi seme mordotxo.

Eta Igarleak: "Auetan iñor ez dek Jaunaren gogoko. Isasi, besteren bat ez ote dezu?"

Eta Isai'k, erantzunik: "Ba-det bestetxo bat; nere koskorrena arizaingoan dezu ta urrutitxo, Samuel".

Eta Samuel izeneko Igarleak: "Joan eta ekarri bereala: artzaintxoaren etorri arte ez degu nik eta zuek ezertxo jango ta".

Joan ziran eta, mendian artaldea lagarik, etorri zan Dabid artzaitxo; ederra zan: buru-gorrixkea, begi-argia.

Irakurle: ez ote zaitzu atsegintsu, Dabid artzaitxoaren Errege egite ori? Baietz diozu, ta nik ere baietz. Saul'ek, berriz, zer zion? Ezertxo ere ez, jakin etzualako; jakin izan balu, illeraziko luke alik lasterren.

Erodes errege gaizto ark ere, Jesus Aur jaio berria, Errege zalarik jakiñ ala il nai izan zun, baiña Jesus'ek beatz-tartekotik iges egin zion.

Dabid ere artzaingoan zebillen berriro.

Baiña, arrezkero, Dabid Erregetxoa, Jaunaren gogoko Erregea, eder ura, buru-gorrixka ura, ardi-tartean ibilli al izan bada beti? Ez orixe; nai baiño len, Erregearekin ibilli bearra etorri zitzaion. Nundik ori? Txistulari bikaiña zalako ortik. Ara nundik.

Providete ergo mihi aliquem bene
psallentem.

Soiñulari bikaiñen bat ekarri neri

(I, Reg. XVI-17)

Saul gaiztotu zanetik, illun zebillen beti, poz-argirik gabea.

Morroi batek bein auetan itz egin zion: "Ene Errege jauna!, itun eta illun zabMtza; nai ote zenuke txistulariren bat zurekin izan? Soiñu ederra, itunentzat poza, illunentzat argia da. Errege!, nik soiñulari gaztetxo bat oso lagun artua det, ederra da, buru-gorrixkea, indartsua, gudetan bildur-garria, on-ona, ta Jaungoikoaren gogokoa; beraz nai zenuke nere lagun ori?

Saul betillunak Isai'ri mandatari bidez dio: "Dabid artzaitxo soiñularia igorri zaidazu jauregira".

Isai'k igorririk, Saul'en ondora zan Dabid, ogiz betetako astoaz, ardoz bete pitxarraz, ta auntzoaz.

Saul'ek maiteki ta biotz argiz artu zun Dabid.

Geroztik Saul illunaren illuna ba-zijoan... ta poza ta argia zerion nundik naitlk Saul'i.

Irakurle: Dabid erregetxo ta poz ekarle ori, Jesus Ume ta Errege izan bear zun artarik antzeratua zenun; beraz, Jesus'en urrundik illun izango gera; Jesus urren degularik, denok alai ta pozik. Illun ta itun, ta nekez edo miñez gaudenean, goazen Jesus'engana, ta Jesus'en itzak poz-poz egin-go gaitue.

GARINGO

ZURE SUKALDEA MAITE EZAZU

Norberaren etxekoa, atariko baño obe da. Aragoes batek oso lotsa-gabeko lagun bat ba-zuan; beti etxe barruan eta sukaldetik iñolaz alde egin-erazo eziñik ibilli oi zan.

Eta bein bestetan bezela bazelorkion. Aragoesak orduan emazteari dio: —Katariñe, Ojenio datorkigunean, nik atetik atarira salto, jaust egin-eraziko zionat eta bertan atea itxi ezaion. Gaur erakutsiko zi'onat betiko. Zikin alena !

Ojenio'k barrura egin zuan eta, gaur ere beste egunetan bezela, bertan jateko ustez zetorren. Eta aragoesa bekozkoz zegon eta jatordua baño len, Ojenio'ri dio: —Ojenio, jateko gogoa egin dezagun, ia ariñago nor dan ikusi bear diagu; ik galtzen ba'dek, ez dek bazkalduko. Lenen ni Jauskatuko nauk.

Esan ta egin. Aragoesak beria egin zuan eta atez barrena, metro baten luze ere osta-osta egin ruan.

"Orain ik egik", Ojenio'ri esan zion, eta atean bertan atarira buruz jarri-erazi zuan.

Ojenio'k beria egin zuan atari alderuntz eta bi metro luze egin zituan Orduantxe Katariñe'k atia itxi zion, senarrak aginduta neukanez.

Ojenio'k atera egin ela otsegiñaz: —Eup!, eup!, nik irabazi dizut. Nik metro 'luze ta zuk bat orrortxe. Atea iriki ezaidazu.

Eta aragoesak barrutik: —A lagun zarra!, atarian bi metro baifio, barruan bat egitia obe dek. Ia, ire Antonia'kin jatera etxeruntz joan ari; nik Katariñe'kin, Elenatxo ta Kepatxo'kin oso pozik bai nagok.

Eta Ojenio gizajoak lotsatu askorik, etxera joan bear izan zuan. Katarriñe, Elenatxo ta Kapatxo aitaren asmaketaz parrez lertzen, leiotfk begira zeuden.

Aitak bazkaltzen zeudela esan zien: —Semetxuok, beti etxe barruan bizi izaten oitu. Ez izan ori bezela zikin-alenak. Etxeko ogi' errea obe, auzoko eper zango-gorria baiño. Beti etxian bizi, etxeokak maite ta pozez biziko zerate.

SOLUXE, I. L.

ZAKURRA TA OTSOA

Goseak otso bat menditik beruntz erakarri zuen. Baserri batera iritxi zan, ta ate ondoan zakur gizen bat, katean lotuta, ikusi zuen. Alkarri agur eginda, autuan asi ziran, ta otsoak zakurrari esan omen zion:

—Motel, nola ago orren lodi? non idorotzen dek azkurria? Zer egiten dek orren korputz mardula izateko? Ementxe nenbillek ba ni, i baiño indartsu, baiñan ez orren gizen ta betea.

Zakurrak erantzun omert zion:

—Edorrek ere, neronek bezela *errez*, sabela bete ezakek. Neronen nagusiari lotu adi, ta onen mai ugariak lodituko au.

—Ta nagusiari, zer egin bear ote ziokat?

—Gauza gutxi, motel. Atea ondo zaitu, lapurrik etxe-barrubean sartu etzakikan.

—Ori besterik ez ba'dek, ba-nijoakiyok! Askoz obego zaidak teillapean guri guri bizi, basoan ta lekorean otzak eta goseak ibilli baiño.

—Ator, ator. Nagusiarekin itunaegin ezakek.

Ba-zijoazen biak ukullutik nagusi geletarontz, ta bitartean otsoak igarri zion zakurrari, katea zarra-zarra lepotik bera zeramala.

—Motel, zer dek katetzar ori? —galdetu zion otsoak.

—Lotuta natxiok! Eguna dalako ! Gaba ba'litz, aska utziko nintxiotekek, Lotupena guixien gutxien dek. Sabela bero izan ezkeru, la ogitik ugari, ta lukainkak osoka, ta okelak otarka, etzidatek ajolik ematen ez lokarri ta ez kateak.

—Baiñan, ik nai izan ezkeru, utziko ditek noski katerik gabeko ibiltal-
diak egiten !...

—A!, ez!... ez!... Ori gauza zaila dek.

Orduan otsoak:

—Gorde, gorde iretzat, nagusiaren okela ta lukainkak. Ni ba-natxiak.
Ez diat mai onik bear, lotuta egotekotan. Naiago diat askatua, naiz oianeko
e'lurrak eortzi.

Katerik gabe ibiltzea, maitagarria da.

ELURMENDI

K O K O D R I L O A K

Zuek orain bezela, ni txikia nintzanean esan zidaten pizti oiek oso ikara-
garriak zirala; ta geienetan Nilo-ibaian, "Barzelona" ondoan dagon Nilo'n
bizitzen zirala.

—Zer dio, aitona?

—Zer? Ez al dek kokodrilo konturik nai edo?

—Bai!, baiño Nilo Barzelona'n dagola edo esan bai du.

—Ez orregatik, aitona; beorrek gure maisu zarrak baiño geiago dakiela-
ko edo.

—Nik Bizkarrondo jaunak baiño geiago dakitela? Baneki ez fitzake ez
zuen aiton zar au aitxurretan eta ibilliko. Ainbeste kontu baldin ba'dakit
nik, zergatik uste dezute dala?

—Buru azkarrekoa dalako, apike.

—Eskerrik asko, Joxe Ramon; aspaldi artan orrelakoxea nitxokean;
baiño urteak urte dituk, eta i ere zartu egiten ba'aiz, burua auldu egingo
zaik.

—Aitona: ezagun da beorren burua.

—Zer! Zer! Burutik egiña nagola edo...

—Ez, jauna, ez orrelakorik pentsatu. Beorrek uts aunci bat esan bai
digu...

—Esan, enetxoak, utsak beti zuzendu bear dira-ta.

—Nilo ibaia Barzelona aldian dagola edo esan bai du.

—Nik esan al det ori?

—Bai, jauna, arestian esan du; ta Egito'tik Kataiüña aldera ekarri izan du Nilo ibaia. Gaur zortzi Jose ta Faraon'en "Bakas gordos eta flakos" kontuetan geunden, eta ba-dakizkigu Nilo'ren berriak.

—Motellak!, etzaudete zuek "Bakas gordos eta flakos" txarrak. Orixen, orixen dek euskaldun gixaxoen lepotik par egitea. Zergatik etzazute kondaira deuna euskeraz erakutsi bear? "Bakas gordos eta flakos" norbaitek entzuten ba'dizute, esango du ez dakizutela ez euskera, ezta erdera ere. Utzi zagun gai nazkagarri au, eta, Egito aldeko Nilo ibai zabaleko Jakob, Jose, Moises eta aspaldi artako deun arrigarriak gurtu ondoan, goazen aurrera: kokodrilo asko omen dago Nilo ibaian.

—Eta itxusiak bezin ikaragarriak deritzairkigu guri.

—Ezta, ordea, kokodriloa orrenbestekoa; oso bildurtia omen da. Esaten ba'dizutet kokodriloak asko, jan ondoan ere urdaillean arri koskorrak eta sartu egiten dituztela...

—Beraz, usoak eta bezelaxen, aitona. Ta, zergatik ori?

—Ez diet oraindik berai galdetu izan; ta zerbaitengandik izango da noski; baiño ez uste izan nolanaiko arriak diranik, aztunak eta aundi xamarrak omen dira-ta. Barau aundiak ere egiten omen dituzte; ta egia baldin ba'da, iru illabete ta geiago ere jan gabe egoten dira; esan zuek orain, orduan zer jateko gogoia izango ote duten.

—Zenbat arrautz uste dezute kokodrilo onek jartzen dituala?

—Zer! Oilloak bezela arrautzetik alerutzen al da kokodriloa?

—Bai; ta zenbat arrautz uste dezute jartzen dituela? Asmatu!

—Esan beza beorrek; beorrek esanda aguduago jakingo degu-ta.

—Ogeitik euneraiño arrautz jartzen ditu.

—Ene!

—Ta eun urte baiño geiago bizitzen di'ra; elefanteak baiño gutxiaao, ordea. Goi aldian 27 ortz ditu; ta bei-aldian ere beste ainbeste; ezta ba arritzekoa gizonak izkilluakin ibiltzen ikustea. Egitotarrak diote ez dirala alderdi artako kokodriloak bildurgarriak; izutiak dirala ta. Kokodriloak aberien bat jatekotan txerria ian nai izaten dute; ez dira, beraz, IVlaimetarrak bezelakoak, ez bai dute auek txerrikirik jan nai izaten, debekatua daukela-ta.

—Eta, nola arrapatzen dituzte txerriak? Urean bizi ezkeru, ez bai duto' nolanai txerrik opatuko noski.

—Baiño, ez aztu itxas-txerriak ere ba-daudenik; itxaso barrenenean ibilli ezkeru, naiko txerri i'gerika ikusten bai da; ta kokodriloak zelatan

egoten diran ezkeru, txerri talden bai ikusi orduko, txerri aiek oso arloteak eta aziunak dira-ta, kokodriloak oso errax arrapaizen dituzte.

—Itxasoan ere txerriak bizi! Guk eixekoak urera eramateko ain esiu ibilli ta, orain esan aitonak itxasoan ere ba-dirala txerriak. Ez dute, noski, legorrik ikusi naiko.

—Ez; legorrera orduko kokodriloen bat zelatan egongo zaiela jakingo bai-dute.

Eta arrapatu al diiezke kokodriloak zakurrakin?

—Bai zera! Auek ere aien atzaparretan aurki eroriko lirake-ta. Emakumeak ere aldera juaen diranean, kokodriloen bildurrez kontuz omen dabilta.

LEZO'KO JOSEBA A.

TXITXARRA ETA TXINGURRIA

Iduritzan zitzaion urrikigarria
Txitxarrari auzoan zuen txingurria,
Zeren ikusten zuen lertutzen lanean
Denbora pixkatxo bat ondutzen zanean.

Askotan esan zion, ez irriz, benetan..
"Ez diat lanik egin nere egunetan;
Eta uste diat nik, nere mutikoa,
Lan egiten duena dala txit astoa.

"Zer, ibilli bear dek beti arrastakan,
Ezin gari-ale bat karraiaturikan,
Erori eta altxa, beti gira-bira,
Eramateagatik ale bat kabira?

Txingurriak jakiñik, gurasoatik,
Ezin biziko zala egin bage lanik,
Txitxarraren esanik etzuen aditu,
Eta bere lanari oi zion segitu.

Bitartean txitxarra zijoan pasatzen
Uda guzti-guztia sasian kantatzen;
Baiña gaizki jo zion soiñua kukuak,
Uda joan eta zuen atzeman neguak,
Eta nolabait duen kopet itsusia,
Joan ziran txitxar kanta eta erausia,
Zeren bukaturlan udako aizea,
Otzat ekarri zuen berekin gosea.

Txitxarra gelditu zan argala, umilla,
Este zimurtuakin eta erdi-illa.
Oroitzen da auzoan ba-dala zer jana,
Dijoa arrastakan txingurrigana.

Eta esaten dio doi-doi argalez:
"Adiskidea, dizut eskatzen, mesedez,
Zure gordaidutika pixkatxo bat zerjan
Nolabait negu beltz au igaro dezadan".

Ikusi zuenean ain argal txitxarra,
txingurriak egiñaz gogoikan farra,
"Ola ! —esaten dio— zu onontz, txitxarrai
Kantari ona zera, beargille txarra.

"Uda igaro dezu erausian, kantan,
Ni nenbillen artean lertzen lan eta lan
Eta orain nal dezu txingurri nekeak
Bete ditzaten txitxar alferren esteak?

"Ez, ez orrelakorik; on da ikustea
Zer dan mundu onetan alfer izatea.
Ni len nekatu eta ba-noa jatera,
Zu geldi egon zera, zoaz kantatzera".

Lagundu bear zaio beargilleari,
Ez ordea beifere jende alferrari.

ITURRIAGA

SASI TARTEKO TXIO.MIÑA

Lertxun eta makal-pean etzan eta urrelxindorren txirru-pirrutxi aiatsuak entzutea, oi zeihen atsegingarria! Euzko ibar-ordeka, mendi-aranetan abesten ari dan larratxoriaren txio alai ta samurren, oiartzuna bederen, entzutea, oi zeihen atsegingarria!

Ez uste, ordea, neroni dagokidala ori egikaritzea; lan arlo ori ni baiño buru azkarragoak dagikete. Nik, berriz, abesti alaitsu pozkarri olen ordez, aur baten loa urrukatu zuten txio-mi'n eta negar zotifei durunda eragingo diet.

Au miña! Sasi tarteko txio miña ia ezin da entzun, motel illuna da-ta; baiña amarentzat blzi-bizia, argi ta garbi entzuten dualako.

Ala ere, neronek al dedan giñoan ekingo diot, bere adl latza aditu deza-zutentzat. Bein baiño geiagotan, ordea, bere negarrak entzun nituan garrastasan eta samintasunez azaltzen, blotzak anu edo uko egingo dit. Eta obe lzango dala uste det, bestela batek baiño geiagog lagun on antzu negar d-gikezute.

Zuen eta nere oldearen arabera Joseba'ren —bere izena ori ez izan arren, orrela ipiñiko diogu— blzkera ondasun eta ogasunez jortlsua lzango zan. Baiña gure asabak ziotenez, "anblolako supitak, eglak". Au da, "esaera zarrak gezurrik ez". Eta oietako esaera batek dio: "esanak gugan, egiñak Jainkoagan".

Joseba ta bere etxekoei auxe gertatu zaien. Beraz, etxe onen gaiñean abe edo zoritxar beltz-izugarria, arrano ega zabal-zabala bezela ezarri zan. Zoritxarra, oi zeifñen naskagarria aizen (Baiña, Joseba'ren biotzean, batez ere, azaro onean larri-neke azia erein zuan Jaungoikoak; argatik, soro ontan gogoz erne, txlt ugari azi ta uzta eder-mardula izan zuan zeruko Jaunak.

Ziñez, beste gazte askok, ainbeste zoritxar etzituzten jasan eta egari al izango. Bai, ostera, erkinduta, ta okilduta geldiiuko ziran.

Joseba'k, ordea, nora joten zuan neke oien oldarra ibitzeko? Zeren bidez bere biotza irozoizen zuan? Neke gorri samiñen gonburua jasan eta arintzeko, Josu'ren Biotzaren babes eta gorkura Joaten ol zan, txiki-ixiki-landik bere amak orrela erakutsi ziolako. Gu ere, Biotz ontan sar gaitezen eta emengo naigabe-zoritxarrak egonarriz Jasan eta besie biziizan batez ere zori on okiiuan biziko gera.

Joseba'ren aurtzaroa guixi gora-bera besteena bezelakoa izan zan. Baiña Jostaillurik, goxorik, soiñeko ta oiñeiako berririk etzitan izan, bere aita ta amak asko ta asko maite arren, beartsuak ziran-eta.

Aro ontan, esan dedanez, gertakari ai'pagarririk eizaion gertatu. Emendik aurrera, ordea, urte guixiren epean, aisekabe garratzak, geriakari mingarriak, kairamilla neskagarri izugarriak ikusi bear zituan.

Aita ia ama bizi ziran. Aitak Jateko ozta-ozta irabazieni zuan. Udako ostegun baiean zan; etxean abarrik ez su egiteko, ta aparia egin bear. Joseba auzoko lagun baiekin abar-sendorra ekartzera basora abiatu zan. Joseba errukigarriak amaika urte edo ziiuan, eia bere adiñeko mutiko urduri-maiutsak Jolasean pilloia lekuan-eia utzita, bera mendira Joan bear. Bero samiñak erkiiuak abar tokira eldu ziran. Lagunak zugaitzetara igo ta abar igarrak Jalki-erazita, Joseba'ri botatzen zizkion; onek, izerdi patseian egon arren, bildu ta sendorra bienizako egiten zuan. Baserritarren baten uluak edo, abere Joale otsa edo entzutean, Joseba'k esaten zion: "Aizak, pixka baten ago ixillik. Orrelako zaraiarik eizaik atera-ta gero nare-nare Jarrai".

Alakoren baten sendorra egiteko naikoa zuiela-ta, garaia zala-ia laguna zugaiiz galñean atssdeten; Joseba lotzen arl zan, eta bere kolkorako esaien zuan: "Etxera Joan eta ama, au ikuslean, ene!, nola poztuko dan!"

Zer agitu, gertatu zaien, ordea? Oldozkai pozorrek gertakari belizak omeni darakarzki; auxe berbera gertatu zaien. Bat-batean, ustekabe, ikazkin biurri-txolin bat agertu, bere zakurra axaxaka. "Arranopola, zertan ari aiz?"

Josebatxo beldur-larritu, sendorrek bertan-bera utzita, ama! esanaz, antxintxika asi zan. Zakurrak, ordea, atzitu ta bere anka artean aburitu ta erori zan. Ama! esaten jarrai zuan, eta eztakit zenbakarren oiuan ixildu zan.

Ikazkin anker ori, olen ori, ire abarrak ez izan eta orrelako beldur-larrian ume gaxo oriek jpiñi! Ireak izanda ere, zer? Abar batzugatik ori egin! Ireak ez dituk, ordea. Baiña, urtikan!, aipatu diña ez da-ta. Joseba'ri, ostera, begira dezaiozun. Negar-zotinka, utsik etxeratu bear. Bidean ze-edo-zer arkilu ta etxera jo zuan; baiña itun, oso ltun, gaxoa. Amak bereaia, zurguak igotzean, zerbait gertatu zaiola ezagutu zion.

Amaika gorriago ikusi bear zituan! Beste orrelako gertakariren bat kenduta, aurtzarroan gauza aundirik itzuan izan; gutxi ta urri jan eta al zuan baiño lan geiago egiteak, ordea, aunditzen etzion utzi ta beti argal aul xamarran izan nere Joseba.

II

Udako argi ta alaitasuna bere eder-gaiakin batera, igaro dira. Udazkeneko arratsalde baten zan. Joseba Ikastolara, ta aita jana irabazteko, burniolara joan eta gogor lanean ari zan. Baiña orrelako baten lan egiteko tresna aundiak oiña moztu zion. Olako sendagilleak zerbait egin eta zalpurdi batean etxeratu zuten. Amari, au ikustean zorabiatuta, ondoez batek eman zion. Baiña gertakari samm oiek ikusteko oituta zegoan eta, ain oiñazetsua izan arren, bereala konortea izan zuan. Bitartean auzoko emakume bat erriko ikastolara Joseba etxera erakartzera joan zan. Joseba eskier eta naroro bere ikasgaiak esaten ari zan. —"Joseba, etxera joateko"—. Atera irten zan, eta andreak esan zion: —"Ator etxera"—. —"Zertako, ordea?" —"Azkar ator, zertako bidean esango diat eta".

Abiatu zart, ba, ta ezer esan baiño Jen etxe aurrean zalpurdia ikusi zuan. —"Zer gertatu da?"—"Aitak min artu dik". Gauza aundirik etzan arritu; ezer geiago etzion esan eta. Etxeko guziak ixil-ixillik zeuden; arritu zan, baiña aita ikusten etzioten utzi, Apal aurrean berez ibilli baten Elgoibar'era

aita eramaten zuten. Sendatuko ote zan etzekiten. Biaramonean itxaropen bat bai zula esan zuten. Joseba ta, Josu'ren Biotzari laguntza eske. Egun batzuek igazita, apal ondoan, agurtza beti bezela esan eta ordutxe berriak eldu. —"Zer berri degu?" —"Aita il da".

Etxeko guziak negarrari eman. Au nekea! Jauna, Jauna, noiz arte? Bai, negarrezko ibarrean gaude. Zure naia, ordea, onetsia bedi.

III

Udazken bertan, andik ogei egunera edo zan. Joseba'k nunbaiten lan egin nai zuan; ezin baiña izan, amairu urte bezelatsu zituan eta. Artzain bat artaldearekin errira etorri. Morroi bat nai omen zuan eta eztakit nundik nora amak jakin, baiña semea bidaltzeko beldurra zuan: asko, bai, maitatzen zuan eta! Ala ere, semeari esan zion: "Artzain bat or omen dago ta lagunen bat bear omen du".

Joseba'k bera joango zala zartadan erantzun zion. Bere errira eldu ta itzultzekotan amak utzi zion. Baiña, gero erraz morroitzan jarraitzeko bai-mena izan zuan Joseba'k.

Jai-egunetarako janzkirik etzitula-ta, amak besterik ezin erosita, aita zanaren janzkiak eraratuta igorri zizkion. Joseba'k zer egiten zuan, ordea? Itulan, bei-zaintzan, abereak eradaten eta baserrietan mutikoak egiten dituzten zurru-burru ta egikizunetan aritzen zan. Beraz, Joseba pozik bizkera berrian ziardun, amari zerbait igorritzeko irabazten zuen eta.

Gaiñera, baserri bizkera berez atsegingarria zitzaion; soroan edo alo-rean simaur-pillak kea zerieta banatu-ta, okuilluan bei mardulei azpigarri berriak jarri-ta. Ardiak, batez ere, ausnarrean ikustea, oi zeihen pozkarri zitzaion!

Luzaro, ordea, etzaion iraungo.

Negua zan. Ilbeltzeko illunabarrean elurra mara mara ari zala basora moxal-zaldi urrizak billa etxejaunakin joan bear. Aruntz eta onuntz ibilli ziran; jo gora, jo bera, jp zuzenka, jo zearka, ta ezer etzuten arkitu. Goi-amilkorrak, ordeka laprast-korrek eta limurikorrek igarota, ezer etzuten arkitu. Otza, ordea, ezurretaraiño sartu zitzaion, eta gaba zan. Dana ixil-ixillik, zuri-zuri dana.

eginda zan txabola. Ataka igarota, taarne-bazterrean etzauntza zegoan, txi-llar eta orbelaz eginda. Joseba gaxoa antxe etzan zan eta burusiaz estali zan. Gau zuri ura, Josebatxo'rentzat, oi zeñen beltza zan ! Arto-zerra aundi samurrik gabe, gaztaiña errerik gabe, gosez erkitua zegoan. Etxejaunak, gaiñera, ipuirik etzion esan; ixil-ixillik berriz zetzan. Joseba, beraz, ez lo bai lo zezan; itun, oso itun; eta bere oldez bere amatzaz oroitu zan. Bere biziko otzagaitik, lorik ezin eginda, uzkur-uzkur, Joseba, bere amatzaz oldozten ari zan.

Nere iritziz, arako euzko olerkariaren olerki ura Joseba'ren gogo egokera oni erazkoa zaio-ta, emen ezarriko det.

Aldi zoruntsu baten nere aur-seaskaren
gaiñean illargiak diz-diz eglten zun.

Lili-pillpif Samurra baiño naretsuago
nenguan, ba, zu ene ama ondo-ondoan.

Orduan ene ama zu ondoan zeuden-ta
zein epel, zein bigunki musu zemadaten !

Orain, baiña, bakarrik loakartzea nai det;
negarrak edo, ordea, ez didate, ez, uzten.

Bakar-bakarrik nago loakartzea nairik;
ortzi izartsuan dager iNargi ederra,

Aldi artan zu, ene ama, nere ondoan;
ortzi izartsu ta illargik diz-diz eiten zuten,

Orain beren izpiak oartu eta zutzaz,
biotzeko amatxo, gomutaratzen naiz,

Garbi-garbia nago, baiño otz geiegi daukat;
noiz berriz alkartuko al gera ba, amatxo?

Zugandik urrutira joan bearra izan nun,
eta ordutik ama eztitut, ez, aantzi.

Ama, zure ondoko egun zoragarriak,
zure musu bigunak gogoratzen ai naiz.

Bakar-bakarrik nago emen; oi zeñen urrun
nere ama dagoan! Beraz, ezin lo ein!

Len-bai-len lo artzeko eresiak abestu,
nik gogoratu arren, ezin det lo ein-ta,

Ortzi izartsuan dager illargia diz-diz;
aldi artan zu, ene ama, ner'ondoan.

Illargiren izpiak oartzen zutzaz, bai,
gogoratzen naiz, ama zure abestitzaz.

Len-bai-len alkartuko al gera, or, amatxo!
nere aur-seaskaren ondoan noiz, ama?

Ixil-ixillik atoz, nere aur-seaskaren
ondora etortzen oi ziñan bezelaxe.

Bai, ernai ta irri-parrez abestu lo-eresik
otz geiegi daukat-ta emen erbestean.

Ortzi izartsuan dager ill-bete izpi ederraz
ta nik negarrez t'otzik loakartu nai det.

Goizean, argia ataka irriñartetik txaboia barrena sartzen asi zan. Bere izpiak Joseba'ren arpegian jo zuan; ez, noski, amaren musu laztanan biguntasunez, ilbeltzeko argi otza zan-eta.

Etxejaunak eta Joseba'k goiz artantxe moxalak arkitu zituzten eta pozik etxeratzen asi ziran.

Une artantxe bere ama ere bere Joseba'tzaz oldozten ari zala, uste zuan bezela, jakin ba'zuan, ai ura poza!

Aita il zanetik amari eroso batzuk ematen zioten. Eta gau artantxe, eroso gogor batek eman eta M zan ama; ta bere azkenengoetako oldozkia bere semeataz izan zan.

Biramonean, etxakandreak Joseba'ri esan zion: "Jai-egunetako janzkiak ipiñi itzak eta goazemak, ama il dek eta". Negar egin Joseba'k. Au

nekea I Lan oiek noiz arte nere gain burrunbarazi bear dituzu, Jauna? Ez al ditut ikusi bear, ezta murtxatu ere ogasunaren ezta ta gentzaren mami goxoa? Baiña, Jauna, zure naia egin bedi! Ama!, noiz alkartuko al gera?

ZAITEGI'far JOKIN

SU-LEIZEAN

Mutil lotsagabe petral bat, jaiegun batez, aitortegi ondoan zegoen. Txanda eldu zitzaionean, apaizaren aurrean belaunikatuta, asi zan bata baiño bestea gizenago ogenak (pekatuak) aitortzen.

Apaizak, arrituta, arima-beltz aren aitormena etenez, esan zuen:

—Ez ote zaigu, oriek entzunda, goiburua gure gaiñera eroriko?

—Oraindiño geldi dago, beintzat —erantzunez, berriz ere ba-zerraion geroago garratzagoak aitortzen.

Apaizak, ikaraz bezela:

—Mutil, su-leizeko atarian ago.

—Ni atarian ba'nago, su-leize barrunean dago berori —jardetsi zion ao-gorriak.

AZKUE (R. M.)

BENETAKO ZORIOMA

Peru ta Iñaki senar-emazte beartsuak izan arren, oso iangilleak ziran; bere txistai eta baratz-puxka txukunki zainduaz bizi ziran; gau batean, apai ondoren, su ondoan zeudela, zion Peru'k:

—Ai, enetxo!, nere lur xispil onen ordeztu Bordaberri'ko Erramun'er, **soro** zabalak, nereak ba'liral...

—Ta nik, etxe xastai onen ordez, Praxkiñaxi'n baserri'ko ederraren jabea ba'nintz... —karraxtu zuan Iñaxi'k.

—Eta nere ukulluan dagon asto ustel orren ordez, Epelde'ko Mikel'en mando sendoa ba'neuka!... —jarrai zuan Peru'k.

—Eta auzoko Joxpa'k il doan bezelako zerri gizen bat ba'genduke etxean..., a zer negu epela igaroko genuen !

—Nola orlako amets goxoak ez dire gure eskuetara jexten! —dear egin zuan Iñaxi'k.

Senar-emazte oien oiur negartiak entzunaz, ke-zulotik sukalde barrena azaldu zan sorgin okotz-luze bat, esanaz: "Aberastusanaren sorgiña naiz: zuen negar eta naiak entzun ditut eta zuek kontent biortzera natorkizute...; iru gauz emango dizkizutet: bata Pero'k nai duana, bestea Iñaxi'rentzat; eta biok elkartorik erabakitzen dezuten gaoza irugarrena".

Ori esanik, su-txinpart gain, ke-zuloan gora irrixtu zan sorgiña.

Peru ta Iñaxi'ren poza ! Elkar begira, itzik ezin markaxtuaz egon ziraden gutxienez ordu bete.

Ori esanik, su-txinpart gain, ke-zuloan gora irrixtu san sorgiña.

Peru ta Iñaxi'ren poza! Elkar begira, itzik ezin markaxtuaz egon ziraden gotxienez ordu bete.

—Gaur izandu naiz beko dend'an eta zein odolki goxoak ikosi ditudan! Ai, orlakotxe batzok ba'genitu! —zion Iñaxi'k. Eta, arrigarria!, itz oiek esan bezin laister, mai' gaiñean agertu ziran ludi ontan izan litezken odolki luze potxoluenak.

Iñaxi, aoa otsoak bezela irikirik; Peru, berriz, exerlekua atzera bota ta ixkin batetik bestera asarre dabM, esanaz: "Emakume lardax alena!, urrez etxea bete genezakena orra odolki ziki'n batekin asetu... Sudur aundi ortatik zintzilika ezarriko al zaizu arranotan !..."

Eta ori esanik, bat-batean orra Iñaxi'ren sudurretik zintzilika gelditu odolkiak.

—Txatxu deabrua —zion karraxika Iñaxi'k—. Senar biotz gogorra benetan: ni buru arin izandu ba'naiz, urrearen ordez odolki naian, zuk egin dezu ateraldi egokiagoa noski; nola kendu muturretik bera dauzkadan janari beltz oek? Aa, a, a!...

—Orra bi eskaera negargarriak —zion Peru'k—; irugarrena elkaturik erabaki dezagun, (ñaxi maitea: azto ditzagun *une* illun oek eta asma dezagun eskaera egoki bat.

—Egokia? —dio Iñaxi'k—; nere sodurra len zegoan bezela gelditu dedilla, arren; besterik ez det nai.

—Eta etxea? —dio Peru'k.

—Ez det nai.

—Eta soroak?

—Ez soro, ez zelairik: odolki oek urrutiratzea baizik.

—Baiña, emakumea, zer diozu? Erotu ai zera? Ez abere, ez etxe, ez zelai, len aiña izan bear al degu, beartsu, txiro, ondasun guztiak eskutaratu zaizkigun ezkeroz?

—Ez dio ajolik: len aiña izan ezkeroz, kontent naiz...

—Ene, bada, Jesus maitea! Len aiña!... Len aiña etxetxo ergel ontan, lur zatitxo xastal baten jabe..., ala izan bedi! —negartu zan Peru gizajoa, esku arteari burua artu ta su bazterrean etzanik.

Sorgiña agertu zan, irriparez, ke-zulotik sukalde barrena, esanaz. "Zein motelak diran gizonen buru-mamiak! Beren naiak bete ezkeroz, zoriontasuna eskutartu zaiela uste dute gizajoak!"

Amets eta usteak beterik ez da zoriona arkitzen; ez amets ez uste, ta ez nafrik izatea da benetako zoriona.

Txindi asko duan gizona aberatsa da; txindiaren atzetik jarraika ez dabilen gizona bai zorionsua!

ENDOIA

ARRATOI BATZAILLEA

Urte asko dira au gertatu zala Alemania'ko Hameln izena duan erri batean.

Erri orretako biztanleak ezin burutu zuten arratoiak begi biak atera bear zizkielako. Ipar aldetik zetozen errira, baiña millaka, talde aundietan; bideak eta lurra zearo estaltzen zituzten eta beltz-beltz ikusten ziran. Erriko gari guztia jan bear zuten eta, arin sendagaia ipiñi ezik, Hameln'eko biztanle guztiak goseak il bear zituan. Alakorik ez!

Ekarri zituzten Breme'tik itxasontzi bat bete katu, baiña alperrik. Milla iltzen ba'zituzten, amar milla etortzen ziran, eta lengoak baiño gosetiagoak

punta zorrotza, eta alkateari eskeiñi zion erria arratoi bat ere gabe utzitzea, eun diruagaitik. Alkate ta beste erriko jauntxoak pozik ikusi zuten gizona eta baietz esan zioten.

Gizon arrotz onek atera zuan sakeletik txistu bat, juan plazaren erdira, eleizaren aurrera (eleizako ateari sorbalda emanaz) eta asi zan txistua jotzen: musika arrotz bat jotzen zuan, alemanak iñoiz entzun ez zuten eresia.

Eta soiñu au entzuteaz batera ara nun datozen, ganbaretatik, okoilluetatik, teillatuetatik, orma zuloetatik, leku guztietatik, saltaka postuan bezela sagu ta arratoiak, millaka dana soiñu-jotzailliengana.

Ao, beti soiñu joaz, arratoi guztiak atzetik zitularik, Weser ibairantz juan zan; eta eldu zanean, oiñetakoak kendu ta uretan sartu zan. Baita bere ondoren-amein'eko arratoi guztiak ere; eta danak an ito ziran.

Gizon arrotza Errlko Etxera juan zan bere cun diruren billa, baiña alkate ta jauntxoak ikusirik erriko arratoi danak garbitu zirala ta gizon arengaitik ez zitzaiotela ardurarik, esan zioten amar diru besterik ez ziotela ematen, eta nai zuan lekura jokatzeko.

Gizonak esan zien, itza zala, eta berak bete zuan bezela berea, bete zezatela beraek ere ta eun diruak emateko, bestela ori baiño garestiago kokratuko zuala bere lana.

Alkate ta jauntxoak nai aiña parre egin zioten eta kalera atera zuten "arratoi batzaillea" esanaz; eta kali'etako mutil koskor guztiak ere "arratoi batzaille", "arratoi batzaille" deituaz jarraitu zioten Ate Berriraiño.

Urrengo ostiralean, eguardiko amabietan, plazaren erdian agertu zan gizon arrotza, berriz ere; oraingoan txapel gorri-gorri bat buruan zuala.

Atera zuan sakeletik txistu bat, ez lengoa, beste bat baizik, eta soiñua jotzen asi zanean, erri guztiko umeak, sei urtetik amabost bitartekoak in guratu zitzaizkion eta danak atzetik zituala erden zan erritik.

Hameln'eko biztanleak jarrai zioten Koppenberg izena duan mendiraiño, gauH estalita dagon leize zulo baten ondora arte. Soiñu-jotzaillea leize zuloan sartu zan eta ume danak berakin. Denbora apur baten entzun zan oraindik soiñua, baiña gutxituaz, gutxituaz, ixildu zan ziara. Eta ez zan geiago entzun.

Ume danak leiza zuloan ezkutatu ziran eta ez dira geiago agertu. Eta euren berririk ez da iñoiz izan.

JULENE AZPEITIA

ERREGE GAIZTOA

Ene billobatxo kutun-kutuneri ipui bat esan nai nieke. Beraz... dan... dan!... atea jo ondoren, baimena zuoi; arren, ez nazazute atarian utzi, doillor biotz gabeak ate-joka datorkion eskalea utzi oi duan lez, bekoki illun eta itz garratzakin.

Baimena bai-detala? Anei esker!

Astera nioakizute, ba, ta ia ixillik ta arreta aundiz entzuten dezuten, ene billobatxo txintxo oi'ek, e?

Aspaldi, oso aspaldi, Bakaldun gaizto bat bizi omen zan jauregi zora-garri batean, aneika asko gudari ta eunkaka morroi-neskamerekin.

Biotz gabea ta arroxko utsa zan bera. Bere mendeko lurraldetar guztiak beti bildurrez bizi ziran. Izan ere ez bai-zan gutxiotarako. Bakaldunaren aurka itz erdi bat aitatzea naikoa zan eriotz ikaragarri bat irabazteko.

Asko ta asko il-arazi zituan: batzuek bizi-bizirik surtaratuz eta beste asko ai'zkorakin txiki-txiki egiñaz. Bakaldun arroaren algarak gozoak izan oi ziran era auetako eriotz ikusle zan bakoitzean. Gaiztoa alena !

Eizerako oso zaletsu zalako, ainbat eriotz geiago ba zan bere mendekoen artean. Eizeratzen zan bakoitzean bildur-ikara oso-osea zabald'u oi zan bere zaitzaille ziran gudarien artean eta auen etxeetan.

Zergaitik bildurtzen ziran? Ba ara:

Bere ustez, eiztari ona izan arren, egiz kirten uts zan beste geienetan lez gai onetan ere, eta eizaratu ezker eiza ekartzea bear-bearrekoa zala ta igeska zebiltzan abere ta egaztiakiko kale bakoitzean, bere aginduz, aurrez aurre geldi ta apal ipiñi-arazten zuan gudari gizarajoari danbada batekin kentzen zion bizia.

Ba-ziran egunak, eiz-gurdia gudari-gorputz utsez bete-bete eginda etxeratzen zana. Zenbat negar txiroen etxeetan ! Ama gaxoak! Ixillik negar egiten zuten, baiña, aita ezin ixillik egorc ordia Bakaldun gaiztoari atsegin etzaizkan itz bi badere esan gabe. Biotz-biotzez maite duan semea eiz-gurdi'an il otzik baso-piztiak lez ekarri duan arro-gaiztoatzaz, nola ez ba birau-kutsudun itz ugariak esan?

Ixillik egon-ezin onek eriotz ikaragarria ekarkielak jakinda ere, ezin barreren gorde. Orregatik eiz-gurdian eiz-orde zetozen gudarien aita geienak egun berean su otz illun biurtu oi ziran.

Negarra, enetxuak, negarra zan lurralde artako ibaitan beruntz, zotinka, zijuan ur gaxi-garratza.

Gure Bakaldun biotz gabe au oso asarre esnatu zan goiz batez, eta irureon godari lagun zitoala, eizera irten zuan eiz-gurdi aundiena bete bete ekartzeko usteetan. Bera kopet-illun eta arroj ba'zizjuan ere, apal ta bildurti ziran gudari errukarriak.

Otsotara zijuazten, baiña nagusiak otsoak baiño errexago il oi zituala bere mendekoak eta eiz-gurdia eurak bete bearko zutela ba-zekiten. Eriotz-bidean sartu zirala kontuan jaosi ziran, ba, ta bildorrak lagunduta, aldezketa luze baten ondoren, gudari bateri iges egitea bururatu zitzaion bere lagunakin batera, basoan abere gaizto artean, bakar-bakarrik, euren jaun biotz gogorra utziaz. Esan zien, ba, ixil-mixilka laguneri bere asmoa eta guztiak ontzat artu' zuten.

—Otsoak jango al ditek, ba f —zioten denak ao batez. Gaixtoa izaki dakizuten bezela euren jauna, ta ezin ba maite izan. Orretxegatik opa zioten abere-janari izatea gaizto ta arroa zalako.

Gudari guztiak elkartu ziran, ba, iges egiteko; eta otso-kume baten atzetik danbada batez il naiean, zerbait urrutiratu zanean gudariengandik, auek zai zeuden eta tximista lez iges egin zioten, or konpon adi! esanda.

Bakaldiuna oso nekez jausi zan bakarrik zegoala, ta arro-gaiztoa ba'zan ere, bildurtu zaigu. Eguzkiak ere uko dagio bere argi eder goxoa. Illunpe ta bakardadea ez-ezaguna izaki, Bakaldun odol-zalearentzat, ta orra nun degun bildur-ikaraz adarrarekin orruka laguntza eske. Ez alperrik! Nork lagundu lezaioke Errege ankerrari bere gudariak ere, or konpon! esanda iges juan ba'zaizka? Ez du, ba, iñork entzuten bere adar-soiñua: entzunda ere alperperrik litzake.

Madarikatu baten antzera birauka ta deadarka ari da erotu bearrean batera ta bestera, inpernutarren zalapartakin. Esku artean zekarzkin eizizkilluak galdu ditu: otso-marruak belarri barruan darabilzki: igesi nai luke, baiña ez du ezer ikusten eta azkenik zugaVtz batera igo da, otsoak bizirik jan ez dezaten.

Gaba aurrera dijoa: bildurti ta lo-gura da gure erregea. Loaren aurka indarka ari danian otso bikain bat azaldu zaio zugaitz ipurdi'raiño. Marru izugarriakin laguneri deika degu otsoa, janari ederra arkitu duala-ta. Laister entzun diote: ogeitik gora dira zugaitzean gora igo naiean saltoka dabiltzan otsoak. Larrf da oraintxe erregea. Loak oso menderato du, ta begiak itxi bezin laister otso amorratu artea eroriko da.

Begi-zabalean amesgille, otsoak notin biurtu zaizka. Aurrez aurre ditu berak il arazitako guztiak, kabilla goian dutela zuzentza eske. Otso-marruak ildakoen beraganako birau mingarriak dira.

—Ator, ator gure atzaparretan ito ta zistrikatzera, madarikatu ori! Madarikatua bai milla bider ire izate guttia ! Zuzentza-egarririk igahatuak gaituk: ator, ba, arro zirtzil ori, zuzentza egin dezagun !

—Barkatu ! —dio Bakaldunak, deadar aundi' batekin.

—Ez, ez; iretzat ez dek errukirik!

—Zer egin bear dezute, ba, nerekin?

—Ito! il, birrindu!

—Ez, ez; utzi neri!

Ametsak utzi duanean, otsoak dakuski berriro. Orai'n, ordia, langille dira: zugaitz ipurdian atzamarka lurra ateratzen ari dira, zugaitzakin batera janaria ere erori dedin. Bi'ldurrez il bearrean da errege gaiztoa.

Zugaitzak balantz dagi. Beriala erori bearrean da. Otsoak lur asko atera diote eta zutik egoteko kemen gabetzeko zorion da. Gaizto izanaren damuz, eta urre-urreean duan eriolz ikaragarriaren bildurrez malkoz busti zaizka bi begiak.

Jainkoak malkoa maite du, damuzkoa danean batez ere, eta kupitu da. Zortzi urteko neskatxo bat bialdu dio argi-ontzian argi —izpi batekin. Ikusi du aruntza datorrela ta: "Ago or geldi, otsoak zeudek-ela!" deadar egiten dio, nor eta zertara datorren jakin-min orde, erruki osoz.

—Ez bildur izan, Bakaldun jauna, otsoak ez didate miñik egiten da —erantzuten dio poxpolintxoak, abots eztsuakin.

—Nor aiz eta zertara ator?

—Zure billa, jauna. Jetxi zaite eta goazen.

—Otsoak, ordia!,,.

—Nere ondoan ez dago ezeren bildurrik. Atoz, ba.

Bildurtu antzean jetxi *da*, *ha*, otso artera, ta... arri'garria!, otso guztiak otxan-otxan kukildu ta begira dauzka. Umetxoari esku emanda ba-dijoa apalki Bakaldun jauna otso artetik iges. Eguzkiak aurpegia azaldu duanerako iritxi dira Bakal-jauregira. Negarrez zegon bakaldun-emaztea, pozik da senarra bizirik ikustean. Umetxoari, besarkada maitekor bat eman ondoren, zernai sari aukera dezala dio.

—Ene errege jaun eta erregin-andrea, biar nere aita maite-maitea bizirik erretzeko agindua dago, eta neretzat saririk ederrena, agindu ori purrukatu eta etxera, amatxokin eta nerekin bizi izatera etortzen uztea litzake. Orixe besterik ez nuke nai. Arren, ba, erruki zaite nere aitatxotzaz, ona da-ta!

—Bai, ona da zure aita ! —dio negarti errege jaunak—. Onak izan diranik il-erazi ditudan guztiak, baiña ni... a!, ni gaixtoa, oso gaixtoa izan nair

—Orduan, aitatxo ez da biar surtan erreko, e?

—Ez, maite, ez. Aurrerantzean zu nerekin izan zeran bezela ni ere nere mendeko guztiakin on-ona izango naiz. Gutarrak ez dute geigo malkorik ixuriko. Au poza l, esanaz, xalto bat eginda, erregeari' okotzian muxu bat ematen d!o poxpolintxuak aitatxo ez dutela ilko jakitean. Bakaldunak beste muxutxo batekin erantzuten dio, eta gero magalean artuta, otsoak zergatik kosk egiten ez dioten jakin-naia azaltzen dio umetxoari.

—Ara, jauna: Aitatxo, amatxo ta ni an geure etxean bizi giñan; eta goiz batean ni —txikia nintzala artian— errira nentorren etxerako gauza-txoa erostera, eta bidean otso bat ikusi nuan zaurituta ta antsika. Ni errukitu nitzan, bai, ta soiñean neraman mantaltxoakin estali' ta etxera eraman nuan asto gaiñean poliki-pcliki. Amatok gero katillu batean egon oi zan ezti antzeko gauza batekin igurtzi zion zauria ta poz-pozik basoratu zan berriro. Arrezkero otso guztiak ezagutzen naute, ta asko maite naute gaiñera. Nik ere bai eurak.

Orduan, ez naiz aurrerantzian otso-eiztari izango. Zuk maite dezun guztiak maite izan nai det —dio erregeak.

—Orretarako, jauna, ona izan bear dezu.

—Bai, gaixtoa izana damu naiz. Jainkoak zure bitartez egoki azaldu dit bide okerretik nebillela. Orain, ba, zure aitakin batera espetxeratuta eriotzaren zai dauden guztiak aterako ditut eta espetxe guztiak txiroen bizileku bihurtuko ditut. Zure aita, amatxokin ta zurekin emen nere jauregi eder onetan biziko da. Zorionekoak izango zerate ba zuek eta nere mendeko lurraldetar guztiak.

Gizon gaizto bat ON biurtu zalako, len negarti zan erria zorioneko egin zan.

Onak izan zaitezte, ba, ene kutuntxoak, eta zoriona gaiñezka izango **dezute.**

AMONATXO

A R R A I Ñ A K

Izaki auek ere zentzundunak dira, baiñan ez tute besteak bezela asnasa artzen. Abere ta egaztiak orretarako biriak dauzkate. Arraiñak zakatzetatik artzen dute atsa (asnasa).

Batzuek itsasoan bizi dira, beste batzuek ibai ta latsetan, erreketan. Ugariak dira euliak, txingurriak, sagu ta arratoiak; arraiñak, ordea, ugariago.

Itsas-barruneko izaki guztiak eztira arraiñak, abereak ere badira: balea, zerea ta izurdea. Jaki-mota asko ateratzen ditu arrantzaleak itsasotik.

Arralnkiak eztu, gizona elikatzeko, aragiak duen onura ta indarra. Gibelia, makaillaua, sardiña ta bokarta dira ugarienak. Gozoena, askoren aorako, legatza da. Neguan erroselak (bisiguak) atxitzen dituzte gure arrantzaleak: arrain gozoa au ere. "Santa Katalina noiz da? bisigutako goiz da", esaten dute izpazterrean, itsasondoko errietan'. Udan eztago bisigurik. Udako arraiñik onuratsuen auna da: bata egalaburra, ez ain ona; bestea, egaluzea.

Ona ibaietako ta erreketako arrain ezagunenak: izokiña, arrankaria (amu-arraiña) aingira ta ezkalua. Naiz itsaso naiz ibai-arraiñak, batzuek sarek atxitzen dira, besteak amuz. Lenagoko bale-zaleak arpoiz iltzen zituzten baleak.

AZKUE (R. M.)

OILLOA TA URREZKO ERRASTUNA

Oillo bat, pika ta pika, simaurretan zebillela, urrezko errastuna azaldu zitzaion. Kosk egin, ta alper alperrik: arria baiño gogorragoa txestatu zoen.

—Zer arraie!... Ederra aiz, ba!... —esan omen zion—. Dizdiatzen dek eguzkiak ain, ta jateko ez akit ezer, gorri ta borobil ori. Zillargille batek arrapatu izan baldin ba'u, i, toki egokian izango intzan, ta bera ondo ta ondo..., baiñan nik arrapatu audalako, ez i ondo, ta ez ni.

Bakoitza bere tokian danean, guzia ondo.

ELURMENDI

'Lagun txarren egiñak
ez egin".

Iturriberri kalean abere guzietara ain makurra zan Ganbara jaunak iru tximiño polit zeuzkan. Tximiñuen izenak Lala, Lili ta Lulu. Lala txurizkaz, Lili gorrizkaz ta Lulu orlegiz jantzi oi zituan.

Mutikondo guzientzat atsegingarriak izan eta beraiek iñoiz parrerik ez arren, b&ste askori ler-eragiten zien. Tximiñuek bizi ziran etxeari buruz, tximiñoen lagun aundia zan Artola txorotia bizi zan. Tximiñuak askotan Artola'ren lantegira jetxi oi ziran eta Artola'kin izketan egiten ote zuten ere ba-nago. Artola, ordea, belaxe aspertu zan. Tximiñuek, bada, Artola'k ontzat artu zitualako edo, tresna guziak naspillatzen zizkieten. Bidea azkar ikasi zuten gero!

Lala'k bein egiten ari zan oiñetako polit bat artu, ta tximiñu alen ark ortzaka ta ortzakaz zeero apurtu zion.

Lili'k alakoan kola-ontziari atzeman eta Artola'k eldu nai zionerako kuik!, kuik! eta uriari gora an ziak eta baziak, lenengo biztokiko balkoiraiño. Artola'k fntxaur-alea beatzetan jasteko alperrik deitzen zion; Lili balkoi barnian jolasti jarri, ta kolaz burniak igurtzitzen ekin zion. Artola'k gora egin zuan, baiña balkoira orduko, Lili, kola-ontzia galtzarpean, bigarren bizitzara igo, ta an ere, kofaz baztar guziak igurtzi ta igurtzi. Artola'k asarreago jotzen du gora, ta balkoia iriki ala, Lili'k, kola-ontzia galtzarpean, irugarren bizitzara jo zuan eta xipuaz kola zabaltzen an ere; eta Artola'k an bertara igo zuanian, Lili'k zearka begiratu ta, kuik!, kola-ontzia an ziak goitik bera..., ta kuik!, kuik!, kuik! egiñaz, ba-dijoa tellatu zear tapa tapa...

Bitartean Lulu etzan geldirik; sartu zan lantegira ta usmaka ta jolasian, tresna guziak banatu ta beste batzuk mai azpian eta apala zarrrian ezkufatu zizkion.

Iturriberri'ko umekondo guziak ler egin bear tximiño aiekin; Artola ordea, zeero lotsaturik zeukaten.

Eta Artola Ganbara'ren etxera Joan eta orrela itzegin zion: —Ganbara jauna, sari onez egin ezazu tximiño oiek ez ditezela geio nere lantegira azaldu;

bestela!... Zure alabatuak bezin maitiak dituzula dakidalako, adierazten dizut ori.

Eta Ganbara'k: —Ene jauna, okerrik ezin egin dezaketen nere tximiño oiei miñk ez diezu egingo, irri ta poz-aldi ugaririk bai dakarkigute-ta, Baiña nere ajolaz, geio ez dizuela galeraziko.

Eta Artola'k dio: —Orrela bedi, Ganbara jauna; ni nere lanaz bizitza egin bear det eta zure tximiñuak guzia atzekoz-aurrera jartzen didate.

Baiña tximiñuak len bezela tximiñukeriak egiten zituen, zapatagille gijajoari guzia naspillatuaz. Etzuan gauza onik egiten gure Artola'k; erosleak minkurti ta asarti; arek, oiñetakoak estuegiak zeuzkala; onek, lasaiegiak eta oiñetatik ateratzen zitzaizkiola...

Artola'k, ala ere, buru gutxitxo zeukan eta tximiñuak esku asko ta iges zegioten uriari buruz, eta iñolaz ere ezin zintzotu, ezin urrindu.

Amaika aldiz zigortzeko eskuratu nairik izan zan, baiña iñolaz ezin. Uela beti albulan jota ebaitzeko, baiña tximiñuak arnasaren ikara baiño etzioten lagatzen. Egunero ate buruan geldiro jarri ta Artola'ri begira, kiñu ta kiñu, arek egin guzia egiñaz.

Ara, ba: Artola'ren burutapenak egun osoan oiñetako artetik etzuan aldegiten, baiña alako baten izan zuan bidezko gogorapen argirik.

Tximiñuak, berak egin guzia alakotutzen zutela ikusi zun. Eta maillukaz, ura astotxo!, bekokiari zartako bat eman etzion ba!..., Orren oitu-eza zan bidezko gogorapenetara!

Eta bere baitan: —Egiña zegok. Tximiño abek nik egin al guzia alakotu edo eginko dute. Biar Lala arrapau ta atzekoaldeak berotuko zizkioat ba! Eta benetan, asteartean —aldi artin zapatagilleak 'lanik ez bai zuten egiten—, Lala azaldu oi zan ate sarreran, aulki bat ipiñi zuan Artola'k; aulki gaiñean orcfuan, beste galtzerdi ta esku-zorro pare batere ipiñi zuan. Lala azaldu zan, ba... Artola'k maiteki agurtu zuan. Aldi laburren buru, Artola berberak galtzerdiak eta esku-zorroak sartzen ekin zuan.

Alajaiña!... Lala'k au ikusi ordukoxe, esku-zorroak arto ta beatzeratu; galtzerdi aundiak eta karabiñeruenak bezelako esku-zorro lodiak. Gero, bere galtzerdrak jaso ta oiñeiaratu zituan. Ordauntxe Artola'k uelakin eraso zion tximiñuari.

biziena bai eman ziola !

—Kuik !, kuik!... —zion Lala'k.

—Kuiktaua, kuiktaua, kuiktaua! —zion Artola'k, uela dantzatuaz—
gogoan izango dek nere uela. Etorri akit beriz ere!

Eta galtzerdi ta esku-zorruak erantziatz, bialdu zun; demoniñuak ezikan ! eraman zuan aretxek uriari zear abiada ederrik.

Nun degu Lill? Orrek ere zigorraren premia ba-dik, ba... Tximiñu arraia ! Artola'k, kola-ontziarekin gertautakoa etzeukan ez azturik... A, eskuratuko ba'lu !

Tximiñuak oi dutenez, Lili ere oso litxarrerua zala ba-zekian, ba, gure Artola'k. Zu'lodun kutxa bat jartzen du ate muturrian. Txulo arfan bere esku bakarra, osta-osta sartu zezaken. Barrukaldetik iru intxaur-ale ta naranja bat jartzen ditu.

Lili'k lapurretan marka egiña zuan, Artola'ri jaki guziak lapurturik. Zapatagille axari ura, joan zan ba kutxara ta Lili atetik berari begiraka. Kutxa zulora sartzen du eskua; intxaur-ale bat atera ta azalak tximiñuari bota ondoren, jan zun. Artola'k bi ta irutan eskua sartu ta tximiñuari adarra jotzearren, azalak ari bota ondoren, azkenengo intxaur-alea jan zun...

Kutxa barrenian naranja bakarra baiño etzegon. Eta naranja bakarrakin, kutxa ate buruan utzirik, Artola lanerako e6o, jarri zan. Lili bildur antzean, intxaurren asmoz kutxa ondoratu zan eta eskua ere zuloari bera eman zion. Zeozer arkitu naian zebilela, naranja bakarrakin jotzen du; eskupeatu... Bairia zuloari bera ain errez joan zan eskua gorakuan naranja eskupeko zualarik, inolaz ere ezin atera. Ura lanbidea !

Artola'rentzat orduantxe sasoi ona benetan! Aguro jeiki, uela aidian dantzatu ta izugarrizko iru ale eman zizkion...

—Kuik!, kuik !, kuik ! —zion Lili'k.

—Kuiktaua, Kuiktaua, kuiktaua! —erantzun zion Artola'k—. Ar zak lapur alen orrek ! Kola ontzia gogora ezak ! Or dek eure ontzia !

Eta Lili gaxua, kutxa zarrakin igesi eziñik: kuik!, kuik!, kuik!... negarrez, oluka zapatagille zarraren zirti-zartak jasoaz.

gortxoa bai zan!

Lulu'k beste bi lagunen berririk etzualako edo, egunero zenulen Artola'ren lantegian berari adarra jotzekotan.

Artola'k, ziñez, Lulu onitxi zion gorrotorik biziena; ortzaka ta ortazakaz iru oiñetako pare apurtu bai zizkion.

'Aldi baten, xipua, oiñetako berri bat eta mailluka lapurtu ta galtzarperaturik tellatura igo zun. Artola betik ozka, baiña Lulu'k an goitik egiñalako indarrez, buru gaiñera bota nai izan zizkion. Ez aldegitokotan illik zenuten gure Artola.

Onitxi bai ziola benetako gorrotoa!

Iñolaz ezin, ordea, arrapatu. Tranpa guziak ezagunak zituan-eta. Ala ere izugarria izan zan gertu zion zigorra!

Tximiño txepelari bizitza kentzeko asmoa artu zun gura Artola'k.

Galtzertien mai gaiñean, alderdi bietatik ondo zorrotutako labaiña bat jarri zun. Eta Lulu'k jolasgura aundia zeukan alako egun baten, Artola urrutitik asi zaio imintzioka. Artola'ren imintzio bakoitzak, Lulu'k ere alakotzearren, egiñalak egiten zituan. Ederki alare! Gure zapatagilleari barrenalde guziak pozak killimatzen zizkion. Artola'k, azkenez, artzen du labana ta lepo gaiñeraturik, izugarritzko iru zarrastada egin zituan, amutsa ta ebaki-eziña zan alderdiz, ordea. Eta parreti tximiñuari begiraka, berak ere beste ainbat egin zezala adierazi naiaz. Orren maite zuan!

Artola'k parreka, len baiño gogozago artzen du berriro labaiña... ta tximiñuari begiraka gelditu zan, Lulu'k... orixe berbera... Artola'k, orduan, aizeari iru daztateko egin zizkion, labaiña kaltegarria dantzatuaz. Lulu'k baldarkeriz bederik, orixe bera... Guenez, Artola'k lepa zaiñ zear labaiña irristatu zun, amutsa zan alderdiz ordea beti.

Lulu'k orixe ere egin zun, baiña kuiktau aren labaifia, alderdi bietatik zan zorrotza, neguko ipar-aizea bezin zorrotza gaiñera, ta lepape beltx artarik izugarritzko odol-iturria atera zan. Kuik! kurrixka izugarria egiñaz, bildurturik uriari zearka, egiñalean igesein zun; lenengo biztokiko balkoiraiño eldu zan, baiña, burnizkoa balitz bezela, odol usturik andik lurrera erori zan... Lulu gaxua!... Artola'ren gorrotoa ikaragarria izan zan!...

m

Zuek bada, nere laguntxuok, tximiñu oien irakaskizunak ondo ikasi. Aspergarriak ez izan. Baiña batez ere lagun txarrendandik utikan! Oiek egindakoak ez alakotu edo eglñ, negargarri baliteke-ta. Zuen lagunen egin-kizun guziak ontzat ez artu. Oker bidetik aldegin nai-ezta, zikinkerietan murgiltzen ba'dira, zuek beintzat bide oietara ez jo. Lala'k ere galtzerdi ta esku-zorroak jantzi zituan eta gero ezin igesi.

Intxaur-ale txastar bat jatearren, mundu onetako gizon gaiztuen gil-tapean erori bear ba'dezue, ez sartu eskurik; sartu ba'dezute, ordea, ta eskua ateratzeko naranja lagatzea bearrezko ba'zaizue, utzi lenbailen, Jain-koaren legea ausi baiño len.

Lagunak pekatu-labanaz, zerutar bizia kentzeko esaten ba'dizue, beraiek erail ditezen utzi, baiña zuek gogoaren edo animaren txuria pekatu odolez ez zikindu.

Tximiñu oien antzekoak ez izan.

SISTIYA

AMA OILLO LOKA

Ai, gure Ama Oillo loka! Zer du gaixoak?... Negarrez ari da ta mal-koak begietatik irten eta matraillean bera dijoazkio etengabeko arian.

—Ai nere zoritxarra Kloklo Kloklo...

Baiña begira! Or dator Ontza jauna, gabeko nagusia. Ez al-dezue ent-zuten aren ulua? ...Uuu!... Uuu... Ama Oillo loka, gure Andre Kloklo negarrez ikusi ta biotza bigundu zaio Ontzari. Ez da gitxiagorako. Zer ote *du* Ama Lokak? Entzun, entzun:

—Andre Kloklo, zer dezu orrela negar egiteko?

—Ai, nere Ontza jauna! Munduan ez da iñor ni baiño zoritxarrekoa gorik! Kloklo, Kloklo.

—Zorigaitz aundiren bat dezu, iñolaz ere, zure barrua orrela samurtzeko

—Ez dakizu ongi, Ontza jauna! Gaur arte, ez naiz konturatu, baiña... gaur goizean, oetik jaikitzerakoan, asi naiz eguneroko nere kantua bota nairik beti bezela, ta... nere zori beltza! Lengo egunetako kakaraza galdua

nuan. Nere alzpa guziak, betiko doiñuan kantatzen dute, ta nik galdu det lengo eztarria, eguneroko bere kakaraza alaiarekin!

—Zorigaitz negargarria dezu, Andre Kloklo, ta nolatan izan da ori?

—Neronek ere ba al dakit, ba? Goiza zoragarri sortu da ta nere txita guziak belar artean aztarka asiak ziran. Asi naiz, nere umetxoei deika ta... alakorik!... Ai, nere kakaraz ederra! Galdu det nere eztarria ta bein ere ezingo det berritu, lengo oillo jatorraren kakaraz zoragarri eta aiai ura.

—Ezbear aundia orixe, alabatxo. Baiña, zer egingo dezu? Negar? Zertarako? Negarrez ezpaudu ezer konpontzen. Zaude, zaude... Zerbait asma-tuko det. Begira, ba det nik lagun bat, oso azti aundia dana, ta aritxi gal-detuko diot zer egin dezakegun.

Ta besterik gabe, joan zan andik Ontza jauna, ta Ama Kloklo, pixka bat lasaiago gelditu zan. Urrengo illargia sortu zan, eta kukuprakak zelaian dilin-dalan zebiltzan aizetan. Egun uraxe aukeratu zuan Ontzak, Ama Kloklo ikustera etortzeko:

—Uuu! Uuu!... Oso pozik nator Ama Kloklo zuregana. Uuu! Uuu!... Nere lagun Azti arek zure gaitzaren sendabidea esan bai-dit eta oso errez sendatuko zera. Uuu! Uuu!...

—Kloklo, Kloklo!... A ze poza ematen didazun! la ba, nola senda nindeken.

—Uuu! Uuu!... Nere lagun Aztiak dionez, naikoa dezu orretarako egu-nero aste osoan zuk egiten dezun arrautzatxo oietako bat jatea baraurik. Uuu! Uuu!... Besterik gabe zure kakaraza lengo edertasunera aldatuko da.

—Kloklo, Kloklo!... Eskerrik asko neregatik artu dituzun lanengatik. Biartik ikusiko det zer egin dezakedan. Kloklo, Kloklo!

Agertu zan urrengo eguna. Goizetik zoragarria zetorren egualdia. Sa-kelak osin inguruetan an ari ziran:

—Kliklo, kliklo!

Txoriak, txio-txio bizian zebiltzan aideko eltxoak arrapatzen. Txitak osin ondoan belar artean jan billa aztarka ari ziran, Arata ama bere umee-kin jolasten ari zan bitartean. Begiratu zien bere txitei, efa biotzak palast egin zion:

—Kloklo, Kloklo!... Nola egin nezake Ontzaren lagunak esan didana? Ortarako nere umetxo bat galdu bearko nuke. Ezin det ori egin. Ezin det! Kloklo, Kloklo!

Bere ama biotzak etzion alako gogorkeririk egiten utziko. Ikusi zuan berak egindako arrautzatxoa ia bere artean au esan zuan:

—Kloklo, Kloklo!... Onena, gauzak dauden bezela lagatzea izango det, Nere kakaraza berritzae baiño obe izango det, ume bat geiago izatea. Bai orixe! Kloklo, Kloklo!

Ta besterik pentsatzeke, oetik salto egin zuan eta iñoiz baiño azkarrago ta pozago lbilli zan goiz argi artan.

Ontza berriro etorri zitzaionean, eta oillo Amaren eztarri itxia ikusi zuanean, arrltuta gelditu zan.

—Uuu! Uuu!... Baiña, zer entzuten det, Ama Kloklo? Oraindik ez al zera sendatu? Uuu! Uuu!... Nere lagunak dakianarekin, ez da bein ere bere esanik galtzen eta. Uuu! Uuu!... nola diteke oraingoan zurekin ez asmatua?

—Kloklo, Kloklo!... Ai, nere Ontza jauna!... Sendaketa ori egiteko, nere umeak il bear nituan, eta Kloklo, Kloklo!... ez det ortarako biotzik. Naiago det onelaxe nere eztarria galduta ikusi, nere umeak ondaiu baiño. Nere txiki maiteok! Kloklo, Kloklo!

—Ori aldegu orain? Beno, beno!... Uuu! Uuu!... Beriro nere lagunari galdetuko diot zer egin diteken, eta beste sendagairen bat izango du zure-izako, Uuu! Uuu!...

Joan zan Ontza bere lagunarengana ta bazekarren beste sendagai baten barria:

—Uuu! Uuu!... Ara, Ama Kioklo. Esan dit emateko zure txita oietako bat; arekin egingo dizula edari goxo bat. Uuu! Uuu!... Besterik gabe, zure eztarriko gaitza sendatuko zaizu. Ain zuzen ere, ba-dezu txita oien artean elbarri bat, ozta-ozta dabiliena. Txita eri orregatik, zer zaizu?... Uuu! Uuu!... Neronek eramango diot nere lagun Aztiari.

—Kloklo, Kloklo!... Ai, ez, ez! Nere Ontza jauna. Ori ez iñola ere! Gaixo ori! Kloklo, Kloklo!... Nola ilko degu, ba, nere kakaraza edertzeagatik bakarrik? Begiraiezu nere umei, nola dauden nik berotutako kabian... Kloklo, Kloklo!... Eta txita eria ere, nolako poliki dagpen bere aizpatxoen berotasunean. Biotzik ez nuke izango gaixo ori galduko ba-nu. Naiago det *nere* eztarriko gaitzarekin iraun. Nere txiki gaixoa! Kloklo, Kioklo!

PM

Eta arrazkero, Ama Kloklo, Kloklo, zorionsu bizi izan zan, bere ez-tarriko gaitzaren kezkarik gabe. Bere Klokio arekin berarenganaten baitzitan bere txita maiteak.

—Txikiok, zatozte ! Kloklo, Kloklo!... Zatozte amagana ! Kloklo, Kloklo!

ETXANIZ'tar NEMESI

KRIXPIN ETA JOSETXO

Alako lagunik!... Biak gosea ta jateko gogoia baiño aikartuagoak. Krixpin errekarra, Josetxo ere errekarra. Krixpin sagarretarra, Josetxo ere sagarretarra. Eskolara alkarrekin, eta piper egitea ere, berdin.

Egun artan ere... piper egin zuten:

—Gaur nora joango gaituk, Krixpin.

—Gaur masusta biltzera ta jatera, Josetxo.

—Ta ikastola?

—Ikastolara? Ze ikastola, gero? Eguzki eder onekin, ala ere? Putzura ikastola !

Krixpiñek erabaki zuan bezela, Josetxok ere bide bera artu zuan. Eta andik pixka batera, an ari ziran mutiko biak sasi artean eskua luzatu ta masustarik elduenak aukeratzen eta jaten.

Ederrenean zeudela, Josetxo deadarka asi zitzaion aruntzatxoago zegoen Krixpiñi:

—Krixpin ! Krixpin ! Zer da ura?

—Ura? Aize-putza —erantzun zion Krixpiñ'ek atzera begiratu gabe.

Baiña masusta ederrenari eltzera zijoala, orra nun aditzen duan egundoko orru ikaragarria... Zer izango ta artz beltz aundi bat zetorki'en gaiñera. Mutiko bien ikara ta anka joka ! An dijoaz biak igesi estratan bera.

Krixpin aundiago izan baiña ta aurea artu ta zugaitz batera igo zan artzaren igesi. Josetxok ere lerrenak egin zituan, baiña artza geroago ta urbillago ikusten zuan. Aren karraxi ta deadar larriak!:

—Krixpin ! Krixpin ! Ago pixka bat!... Lagundu zaidak !

Gure Josetxok etzeukan iges egiterik. Eta bere estuasunean, besterik eziñean, lurrean etzan eta ildakoaren itxura egiten gelditu zan.

Artza urreratu zitzaion eta an zebilkion usaika. Bitartean Josetxo an zegoen bere artekoak esaten eta arnasari eusten:

—Jesus ! Lagundu Jauna ! Ai, ama !

Krixpin zugaitzetik bere lagun txikiari ezertan laguntzen etziola, an zegoen begira. Josetxo, berriz, bildurrez ikaraz, lurrean artzaren amas beroa bere musuan artzen:

—Nere Jesukristo Jauna...

Etsi zuan bere buruaz.

Artzak, mutikoa illa zegoeiakoan, alde egin zion azkenean eta izkutatu zan basoan barrena... Orduan jetxi zan Krixpin zugaitzetik, eta bere [agunarengana urbilduaz diotsa:

—Ai, Josetxo! Ederretik libratu gaituk gaur oraintxe!

—Bai, Krixpin. Ura ikara artzak jan bear nindualakoan ! Ura dardarra ! Ez nauk alperrik ari iri laguntza eske.

—Nola lagunduko nian, ba, Josetxo? AAakillarik ere ez nian eskuan eta nola uxatu artz aundi ori?... Aizak, Josetxo, ta artza ainbeste denboran ire belarrira zerbait esaten ari zala iruditu zaidak.

—Bai, Krixpin eta arek berea bota dik alde egin baiño len.

—Egia? Zer esan dik, ba?

—Ixil-ixillik belarrira onela kanta zidak:

Kontura adl ta entzun:
Ez dek lagun ona,
adiskideari iges
egiten diona.

ETXANIZ'tar NEMESI

GARILLA



LEO•VII-23•VIII-23.

f^m

LEOI.—Ona emen leoia (Leo), «nor ni aña» esaten antza. Arro ta lerdan, dan lez; soin-eder, gria nahasi. Gure mendietaraiño ezta eltzen, baiña iñoiz, emen lez, atsegin dau euskal txapela.

Zeru-gerriko bosgarren ezaugarria dogu, ta eguzHak bere ibillaldian garillaren 23'tik dagonillaren 22'ra zearkatzen dau, zut eta galdatsu. Igifzen dan ekliptikan, barriz, 12'tik 150'ra luzatzen da.

Guretzat, izadiko urte-biran, landara ugaltzearen erpiña esan nai dau Leoi ezau-garri onek. Garil-agostuan, izan be, erabateko osotzera e'ldu dira barazki ta ale-laboreak, urrezko garaiaren astunpean. Izadi indarra, leoiarena lez, bere goren guztikoan daukagu.

1) TXANTXARI TA EREZTUNAK

Txantxarl, ziba ta tronpo dana bat. Erezkunak, barriz, Jurrean egiten diran inguru edo oboak dira. Obo oneik errez marraztu z6inkiez klarion edo zotz bategaz: zotz orri ipiñi egixozue kirtenean kordeltxo bat, eta mutur onegaz beste kordel-muturra obo erdian ezkerzag tinko daukazuela errez egin zeinkie sei bat ereztuneko ingurua. Larraiflean naiz zelaian, jokatu leiteke onela.

Erezkunak gero ta txikiagoak dira, azaletik erdirantza; baita bestera be egin leikez, erditik asita. Ortarako, au da, inguru txikiena egiteko, artu ogei zentimetroko kordeltxoa, ta orrela marraztu lenengo birea. Eta inguru onen biran marraztu ondoren beste bost, bakotxean amar zentimetro geiago kordeltxoari emonik. Zenbatu gero ereztunak andienetik asi ta txikieneraiño, ots, batetik seira.

Jokua asten dauan umetxoak, erditik urren jaurtzen dau bere txantxaria. Txantxariaren puntea gelditzen dan ereztunaren zenbakiak iragartzen dauzan beste puntu irabaziko ditu. Erezkun au bere izen-asierako izkiakaz marrazuko dau.

Beste jokolari baten tronpo-puntea aurretik izen-izkiz marrazuta da-goan ereztunean gelditzen ba'da, orrek eztau puntu bat be irabaziko. Naiz puntuak irabazi ez, jokua txandaka eroan bear da, ereztun guztiak izen-izkiz marraztu artegiño. Nor txapeldun? Bere izen-izkiz zenbatuta ereztunik geien daukazana, nunbait.

2) LAPURKA

Joku zelai zabal bat. Egal baten marraturik "espetxea". Onela gauzak atondu ostean, talde bitan banantzen dira umeak: "txinelak" eta "lapurrak", lapurrak txinelak baiño geiago dirala beti.

Lapurrak eta txinelak aukeratzeko, au kantatu oi dabe toki batzuetan:

Mikelño bai, Iñaki ez,
txutxupeta, txutxupeta,
beste au ez, beste au bai.

Atzenengo "bai" jaurri dakiona "lapur" izaten da; gero "txinel", gero barriro "lapur", eta olaxe.

Zuzendariak txalo jo ondorean, lapurrak ara ta ona doaz iges, txinelak atzetik jarraika dituela. Lapurren bat ikutua danean, gelditu egin bear dau, eta txinelak espetxera daroa. Espetxetuak azkatu leikez lapur bat espetxean sartu al izan ezker; orixegaitik txinelak ondo Jagon bear dabez euren espetxe ta atxillotuak.

Lapur guztiak preso artutakoan, amaitzen da jokuak.

Ondoren bestera egin daike: lengo jokuan lapur iran diranak txinel egin daglela, ta txinel izar diranak lapur, beti be lapurrak geiago izanik. Eta bigarren epe ostean, talde irabazlea aldarrikatzen da, epe bietan talde bakotzak egin dauan denporea gogoan euklaz.

3) TXAPEL-ZULOKA

"Busti ala legor" en antzekoa da. Mutikoak jokatu oi dabs.

Txapel bat goi-gora jaurtzen dabe, txanpon bat ba'litza.

Zabal dagoan alderdiari "zulo" derltxe, ta beste aldeari "txapel".

Gora bota ta igarten dabenak puntu bat irabazten dau. Eta azkenenan, puntu guztiak bat-banatutakoan, geien daukana dozu txapeldun.

4) ZER ETE?

Jolas bikaiña ziskuan zer daroazun jakiteko.

Jolaslari batek ziskua igaro oi dau, eta besteak aren barrutik bakotzak gauza bat artuko dabe, baiña lagunak zer dan ez jakiteko moduan.

Lenengo atera dauanak, eskuan daukan gauzea zelakoa dan azaldu ta adierazoko dautse. Onen ezkerrean jarrita dagoan jolaslariak, alegiñak egingo ditu zer dan igarteko. Kristalezko bolatxo bat ba'litz, lenengoak onela emongo dauz aren zeaztasunak: "Gauza gogor eta biribilla da". Bigarren jolaslariak igarri ezpa-dagi, geiago onako adierazpen bat emon dagio: "Jolasteko be balia dau". Eta oraindik be igarri ezik, onela susma-bidea emongo dau-tso: "Bere izenak lau izki daukoz".

Irugarren aldiz be, igarri' ezik, urrengo jolaslariari itanduten yako. Ta era onetan jarraitzen dau jokuak, jokolari bakotxak gauza bat azaldu ta adierazo arte beintzat.

Joku oni piper geiago ezarteko, lenengo igarten dauan jolasleari amar puntu emoten yakoz; bost, bigarren adierazpen-aldian igarten dauanari, eta puntu bat irugarrenean igarten dauanari. Punturik geien batzen dauazana dozue irabazle.

5) FUTBOL ITSUKA

Onetarako baloi bat eta begiak lotzeko zapi bat bear dira. Jolaslariak bost edo sei'.

Bidean artez ta zuzen ibilteko sena ta zentzuna dau oiñarri joku onek. Sen onek, gaiñera, gora andia dauka gure bizitzan; beronek zuzentzen gaitu, ba, gabaz etxea argi barik dagonean, ate-egal bategaz surra edo musturrak apurtu ez dagiguzan.

Jolaslariak, txandaka, baloiari ostikadak emoten saiatuko dira, baiña begiak itsututa daukiezala. Ostikolariari begiak zapiz estali ondoren, eskua kaz naiz oiñakaz alegiñak eqin daikez onek baloia nun dagoan jakiteko. Gero, zortzi-amar pausu, oinkada atzeraturik, baloia kementsu aidean zear Jaurtzen saiatuko da.

Besteak bitartean geldi-geldi egongo dira euren lekueian. Eta txanda eltzean, beste ainbeste egingo dabe. Dana dala, garbi jokatu bear da kirol -oiñarri auxe dalako.

6) SARTZIOLAKA

Mutikoen jolasa. Zelai bedar zeetsuan egin oi da, geienik.

Zotzak sartzen dira lurrean, eta gero, lurretik zirkin egiteke agiñakaz atera bear dira. Zeiñek geiago, eta zeñek ariñago.

7) PAUSU-LASTERKA

Zelal bat izan dalteke laster-lekua. Lasterkariak naibeste, bai txikiak bai andlak. Zuzendari bat bear da.

Ibiltariak, karrera ontan, oln biak alkarri dautsela, ezingo dabez banandu lurrean; banaduten dabezanak uts dagl.

Arlñeketa au, luze samarra izan daiteke. Tokia laburra nai estua ba'litz, txango bi edo iru emon leikiez zelaian.

S) IRU OIN-GAIÑEKA

Lasterketa ontan lagun bat bear da. Azken onen berna ezkerre bere bikotearen eskumako bernari lotuta joan bearko dau.

Ibilten asi aurretik ikusi ondo, alkarri ondo lotuta zoazen; lokia jausi edo nasaituko ba'litz, bada, denoora nalkoa galduko zeunkie bera barrlro lotzen. Eta aldia gauza bikairia izan.

Orretarako zabalune egokirik ba'dozue, lau naiz bost bikotek batera arin egin lelkee. Baiña beti esandako eran bernak loturik dabezala.

9) ZEZIN ALA URDAIKA

Nainun dozue burtigun, pertika edo beste ol azitxoren bat. Olakoen gaiñean jolastu oi dabe mutikoak eta neskatoak, gora ta beera.

Pertlka ertzean, bata aurrean eta bestea atzean, jarten dlra pertika orl goraka erabilteko. Pertikakoak "zezin" ba'diño; gora ta gora erabllten dabe; "urdai" ba'diño, beera ta beera.

IGOTZ

ABESTIAK

1) TUN, KURRUN, KUTTUN

Tun, kurrun, kutun, kuturi
Kutun, kurrun, kutuna.
Tun, kurrun, kutun, kutun,
Kutun, kurrun, kutuna.
Jo! Jo!

2) BINBILI BONBOLO

Binbili, bonboio, sendo lo;
Akerra Prantzia'n ba'lego:
Akerrak kanta, idiak dantza,
Auntzak danboliña jo.

3) OINTXOAK

Oi, aurtxuon oin txikiok,
otzaren otzak ain more!
Nola zauzkate orren gorririk
Izanikan Jainko lore?

Oi, aurtxuon oin txikiok,
arri zorrotzetan miñez!
Ain ondatuak elur zapaldu
eta lokatza zikiñez!

Gizon itxuak ez daki
zuen ointxoak jo-ala,
nolatan lurra argizko lorez
apaintzen dan bereala;

ta nola zuen oinpeak
zapaltzen duan tokian,
usaituago zabaldu oi dan
akara udaberrian.

Bide zuzenetan zear
zoazten ezkerro, izan
kemen aundiko gizon azkarrak,
bikaiñak zeraten gisan.

Oi, aurtxuon oin txikiok,
bi arri bitxi minduak !
Nola dijoaz zuek ikusi
gabe bidez jende itxuak?

G. MISTRAL-ETXANIZ

4) IKUSTEN DUZU

Ikusten dozu goizian,
egun argitzen darian,
menditxo baten gaiñian,
etxe zuritxo, txiki polit bat
lau aitz aundiren erdian,
iturritxo bat aldian,
txakur zuri bat atian:
antxe bizi naiz bakian.

5) EUSKAUDUN JAIO NINTZAN

Euskaldun jaio nintzan,
euskaldun azi,
euskera utsik amak
eustan irakatsi;
Euskera maite-maite,
zabiltz nsugaz beti:
Euskera il ezkeru,
ez dot gura bizi.

F. ARRESE-BEITIA

6) PRAKAR ZAR

Praka zar txikitxoa,
zuloz betekoa,
arkondara ere
bere antzekoa;
mendan izan arren
edurra naikoa,
auxe da Imanol'ek
daukon soiñekoa,

7) AGUR ENE ERRIARI

Urrundik ikusten dut, ikusten mendia,
Beraren gibelean baitut nik erria;
Jadanik dut aditzen, zorion aundia !
Ezkillu maitearen asperen ezta.

Ezkillia, zer ote duk ik egun esaten?
Urrutira zer berri ote duk bialtzen?
Mendiak edoipetik ditek erantzuten,
Ik esana zerura ditek elarazten.

Landako langillea, artzai mendikoa,
Iturriko bidean doan neskatoa,
Aditurik, ezkillia, ire poz goxoa,
Otoizten asi dituk Ama Zerukoa.

Nik ere dut otoizten Birjiña Maria,
Baserrietan galdu-aurren gidaria;
Neretzat, otoi, dezan iritxi grazia
Pakean arkitzeko nik egun Erria.

Mendiak utzi ditut urruti atzean,
Erria dut ikusten jadanik aldean.
Zer duk, ene biotza, saltoka barnean?
Ote duk uts-egingo errira eltzean?

Agur, agur, erria! Agur, sor-lekua!
Agur, nere aurreko leku maitatua!
Jainkoak aditurik aur baten oiua,
Iregana duk aur bat egun urrundua.

ELIZANBURU

8) GERNIKA'KO ARBOLA

Gernika'ko Arbola da bedeinkatua,
Euskaldunen artean guztiz maitatua.
Eman ta zabal zazu munduan frutua;
Adoratzen zaitugu, Arbola santua (bis).

iPARRAGIRRE

ADISKIDE TXIKIAK

—Ola, Zip! Zer daukazu? Zegaitik oiu ta alakok?

—Ai, ene laguntxo; zuk ba'zenki, gain etorri yatan zoritxarra!

—Zer jazo yatzu, ba?

—Bakarrik nago, bakar-bakarrik munduan!

—Bakarrik? Eta zer dala-ta?

—Entzun egidazu, Lumazuri. Eizari batek il daust aita; ama, oster, laklo baten jausi da, ta anaitxoak biotz bako umeren batek ostu daustaz.

—Gixajo alakoa! Ta zu, zelan zagoz bizirik?

—Estu ta larri ibilli naz iges egiteko. Ta orain, zer egin neike bakarrik mundu zabalean, inoren laguntza barik, nok jagon barik, egaz egin eta jana-ria batzen nok erakutsi ez dodala? Oba litzakidan analen bidea...

—Ene Zip txikia, ene biotzeko lagun, ez egidak burua galdu; izan usta ona Jaunagan, oiñazedun guztien aita samurra bai dozu. Oraindik biziko zara, zorionak irri egingo dautzu gozatsu: gaur asten zara biziten.

—Lumazuri maite, zure itzak atsegingarril yataz, asko biztu ta indar-tzen nabe: biotz illunean, barriri sortu yat itxaropen argia.

—Neugaz etorriko zara, ta neure sendiko egin; seme antzera zainduko zaltut; baita egaz eglten eta alerik onenak billatzen erakutsi be egingo dautzut.

—Zein ona zarean, maite! Baiña, zelan ordainduko dautzut *on* egite au?

—Ezegaz bez, ene Zip laztan. On egiten dogunean, ez dogu ordainsariak zirikatuta egin bear...

* * *

Onetan, txori umezurtzak, maitez, bere moko txikia urreratu eban adiskidearenagaz batzeraño. Eguzkia, barriz, mendi ostean jagi zan, argi ta abes-titz blei-blei, bere urrezko adar goriz adiskide blak mosutzen ebazala.

M. IGOTZ

AINGERU ARRI-EROATAILLEA

Aritxiña, Berriz errian, bertako biztanleak eleiza eder bat egitea erabagi eben. Eta egun batean, orratarako gaiak ugari batuta, inguru aretako argiñik onenak, eleiza barria al bait lasterren jasoteko orma sendoak egiten asi ziran, bertan arri pillo audiak pillatuten ebezalarik.

Biaramon goizean, beargiñak euren lanetara joan ziranean, aurre-egunean eurak egiñiko lan guztia osoan gauzeztuta ikusi eben; egin eben lanen aztarrenik, arean be, ez eben ikusi. Ori zala-ta, bertan pilliatuta egon ziran arri pilloak bertatik aldentuta ikustean, ezin geiagoan tamaldu ziran. Gauza bakan orrek arrituta, argingizonak alkarrerri esaten eutsoen:

—Zer arrano jazo dok emen?... Sorgiñak, pamerialak ala ze denganiño ibilli ete dok, bertan, ara-onaka?... Lan egiñaren aztarrenik be etxoagu ikusten... Atzo ekarri genduzan arri pilloak, nun ete yagozak?

Eta olako itzak esanda gero, alako baten, aldenduriko arriak, erriko zelai-une baten, alderrezkan polito-polito imiñita egozala, aurkitu ebezan. Orrenbestegaz gure gizonok, ikarearen ikaraz, ule'zutik jarri ziran. "Nor edo zer ibilli ete dok!" esaten eben. Eta gerotxoago, pizkat adoreturikoan, arriak eta abar nok edo zer eroan ete ebazan jakin guraz, etxerik etxe itaunka ibilli ziran.

Gangoiti basetxera eldu ziranean, bairia, bertako neskatilla batek, gabeko amabietan, burdi baten zarateagaz batera, "Aurrera, zuri bellegie" didarra entzun ebala esan eutsien.

Ori entzunik, gizonak neskatillari, gabeko amabietan, bere gelako leiuan zur eta adi egon zeitiala, arren egin eutsoen; bear bada, aldenduriko arriak burdi aretan eroanak izango zirala-ta. Neskatilleak baietz erantzun eutsen.

Urrengo egunean, gizonak aurkituriko arriak eta abar, atzera lengo lekura eroanda, barriro eleiza barria egiten asi ziran. Eta egun guztian, jateko lain asti ostaz artuta, lanean eten barik ekin eben.

Esan eta egin, gau atan, Gangoiti basetxeko neskatillea, argiñen esanari jaramonda, bere gelako leiuan begi ta belarri zur eta adi, zer igaroko zan ikusten jarri zan. Onetan, gabeko amabi-amabietan, illargiaren argitan, an urrintxoan, burdi bakan bat etorralla oartu eban. Burdiak, etorri ta etorri, Gangoiti aldera egiten eban beti. Ta astiro-astiro urreratuaz, etxe ondora eldu zanean, arriz beteriko burdi andi bat, bei zuri-gorri ederrak ekarrela ikusi eban. Eta bei zuri-gorrien ondoan, aingeri liran bat be oinkada legunetz etorralai ikaraz ikusi eban.

Gangoiti basetxiaren ondotik igarokeran, barriz, bere esku legunekar beiak mokorrean gozaro joten ebazala, didar aundiz esan eban; "Aurrera, zurie-bellegi'o... begira dagonari begiak urten begio!"

Ta aingeruak didar egin eban une-unean, Gangoiti'ko neskatillari ezke rreko begia bere lekutik urtenda soloko bedartzara jausi egin yakon. Ori jazo zanean, neskatilleak negarrez asita, didar baten ekin eban. Aingeru zuriak, baiña, "aurrera, zurie-bellegio" eten barik esanaz, bape jaramon ba-

rik, bere burdi ta guzti aurrera jarraitu eban; eta arriak aurreragoko egu-
nean eroan ebazan lekura eroan arte, etzan geratu be egin. Gangoiti basetxe
neskatillea ikusgura larregiaz leiotik begira egon zalako, Aingeruak begi bat
kenduaz zigortu eban.

Jazorikoaren barri errian zabaldu zanean, berritzar guztiak osoan arritu-
ta geratu ziran. Eta Aingeruak arriak eroaniko lekuan Jaungoikoak eleizea
egitea gura ebala-ta, bertan eleizea egin eben. Eta egiñiko eleiza barria Jau-
naren Igokundeari opaldu eutsoen, erritar guztien guraria osoan beterik.

MAÑARIKO

ELIRI! IPAR! EDUR!

Euri! euri ! jor ail-euri !
liliak lorán guri:
bei-ezpan ori, bioltxo urdin,
zelai guztiak bardin.
Euri ! euri ! jorrail-euri !
Illiak lorán guri.

Ipar! ipar! urril-ipar !
zugatz-ostoak igar.
Ekaitzak basoan orru,
ate itxi ta sar barru.
Ipar! ipar! urril-ipar!
zugatz-ostoak igar.

Edur! edur! edur garbi !
soioa ik jantzi dok zuri.
Zain neguz azi ereiña,
el ez dedin gaizkiña.
Edur ! edur! edur garbi !
soioa ik jantzi dok zuri.

Asmo artezez irurak
baltzen dauskuz Jaunak.
Euri! ipar! edur! iru,
gu alaitzera eldu.

IGOTZ

INTXAURRA

Zugaiz zaleak gara benetan, baiña bide-ertzean naiz sasi ondoetan, begikoenetakoa, intxaurrondoa yakula esan bear.

Solo inguru ta onakoetan, zugatz onek bere susterrez ta kerizpez errez egin oi dau kalte; baiña amaikatxo bazter ba-ditugu gure artean, gaur be, intxaur-ondoentzako egokiako eziñezkoak.

Laster datorrena da intxaurra, ta ikusmenerako be dotore ta alaitsua dogu. Igali au gozo indartsua da. Gabonetan intxaur-xaltza barik, baserrietan batez be, ez gagoz ondo. Baiña, ostein be, arratsalde erdiruntz eztira txarrak intxaur garaun batzuk.

PERRA GALDUA

Lugin bat, bere seme Txomintxu lagun ebala, urira joan zan. Ordu erdi lez bidez billi ondorean, aitag perra bat ikusi eban bide-ertzean, eta semeari onela diñotsa:

—Begira, seme: or perra bat zelaian; jaso ta gorde egik sakelean.

—Ba! —ots egin eban Txomi'ntxu'k; orratarako makurtuz ez daukat zetan nekatu.

Aitak ez eutson zerixo bat be esan; berak, makurturik, perrea jaso ta ziskuan sartu eban. Eta urrengo auzunean su-arotz bati saldu eutson txakur aundi bitan; diru orregaz, ostera, kerexak erosi ebazan.

Onela, bidean jarri ziran barriro be. Eguzkia galda-galda; etzan iñun be ez etxerik, ez basorik, ez iturrik ikusten. Txomintxu egarriz itota joian, nekez baiño aitari jarraitu eziñik.

Aitak orduan, semea onen estu ikusiaz, berez lez, kerexa bat lurrean jausten itxi eban. Txomintxu'k, beingoan makurturik, urrea bai'litzan lez jaso ta ezetarako asti barik aoratu eban. Miñutu batzuk geroago aitak bigarren kerexa-alea jausten itxi eban; Txomin'ek lera bardiñez au be jaso ta iruntsi. Ta orrelaxe azkenengoa jaso arte.

Atzena iruntsi ebanean, aita biurtu yakon, au zirautsola:

—Ara, seme, ez eukan ainbeste bidar zetan makurtu, kerexak jasoteko, bein baten makurtu ba'ntza ta perra galdua jaso.

IGOTZ

KANDIDA TA PELIPATXO

Jazorikoa da. Nun eta noz? Itaun orrei erantzun bearrik ez dago. Bizkai'ko erritxo baten izan zala esatea naiko da, oraindiño urte asko ez dirala.

Txoragarrizko erritxo orretan basetxe txiki bat dago mendi magal baten, zugatzartetik erdi-ki'ñuka. Baiña, gertaera au jazo zanean, gau baltza zan eta etxe orren kiñurik etzan iñundik agiri.

Apari lapikotxoari zorrak ordaindu ondoren, lotara joan dira nasai-nasai. Kandida ta amabi urte inguruko bere alaba Pelipatxo. Bakar-bakarrak dagoz etxean. Gaberoi-inguruan, adar-otsak entzuten dabez azpiko ukulluan; baiña adar-otsok ez dauke zer ikusirik. Pelipatxo ibilli da illunkeran beiak lotu ta gobernetan, eta eskola orretan oraindiño asi-barri danez, ezta arri-tzekoa beiren bati katea ondo ezarri barik edo itxi izatea; batez be ukullua, ukullurik geienen antzera, illun samarra izan ezkeru.

Bere albokoari erremuskada batzuk egiñik, jatsi da ama kortara; lotu dau beia ta ba-dator eskillarak gora, oillarrak irugarrenez kukurruku egin arte beintzat, loaldi gozo bat egiteko asmOz. Gorengo maillaraiño eltzean,

ate ta oin-otsak nabaiizen dauz bere atzean. "Ze domoniño ete dabil gaur gurean?" agin-loka artean esanaz, atzerantza begiratzen dau. Begiratuaz batera bildurgarrizko "Ai ene!" zorrotz bat jaurtitzen dau. Zer ikusi ete dau, ba? Erdi-illuntasunean buelto zuri bat bere jarrai eskillarak gora. Sorgin edo pantasmaren bat? ez dakit; nik iñorenean zer ikusirik ez daukat, eta or konpon eurak!

Eskillara-burukoaren "Ai ene!" ori entzutean, beste "ai ene!" zorrotz eta zoliago bategaz erantzuten dautso eskillara-oiñetakoak. Eta bertan geratzen dira biak, goikoa ta bekkoa, bildurrak josita lez, geldi-geldi, Marti-inguruko katu biren antzera bata-besteari karraxika ta begira-begi'ra txingarrak lakoxe begiakaz. Iñok bildur-ikararik iioz izan ba'dau, eskillara orretako biak bai beintzat gabardi' orretan.

Zer ete dagi bitartean Pelipatxo'k?

Noz-edo noz estualditik zerbait beraganatu danean:

—Nor da? —deadar egiten dau goikoak, asarre.

—Nor? Ni? —darantzutso azpikoak.

—Bai, zeu!

—Nor izango naz, ba, ama? Neu, Pelipa!

—I az? Oondiño olakorik! Ik artu biozan artzekoak!

Baiña ez, ezer ez eutson egin. Zer eta zelan jazo adierazo eutsonean, barreka joan ziran biak barriro kabira; oraingoan inguruetakoa oillar guztiak kukurruku egin arte.

Pelipatxo zelan eta zegaitik agertu zan eskillara oiñetan jakin nai izango dozu, bear bada, zuk be, irakurle. Oso erreza da; gaez bildur emon oi dauskuen gauzarik geienen antzera, ezetariko misterio bakoa.

Beiaren adar-otsak itxartu ebenean, egarri zala bururatu yakon, eta ama ukulluko zeregiñean ebillan bitartean ur- txurrutada bat egitera jatsi zan sukaldera; jatsi be, egi osoa esan bearrean gagozanez, azpiko gona zuri utsetan. Egin-egiñean, ama eskillarak gora etorrala agertu zan bera be eskillara-oiñetan. Amaren "Ai ene!" entzutean, bildurgarrizko zerbait ikusi izango ebalakoan, ai-eneka ta karraxika asi zan bera be, ikaraturik. Eta or dozu, irakurle, misterio guztia.

ARTADI, K. O.

ZAZPI URRE-TXINDIAK

Bein, Ixidor eritxon baserritar zintzo bat bizi zan, Zornotza'tik laster dagoan Garaitondo auzunean. Gizon ona benetan, Jainko-zalea, bere eginkizunak ondo ta zeatz bete oi ebazana. Igandero meza entzun, eta Jaunari eskilñitako egun itzalgarri onetan ez eban bearrik egiten; eta gauzak ederto yoakozan. Asarre zan, au ikusirik, auzoko Peru; onek ba, domeka izan arren, askotan lan egin oi eban premiña aundi barik. Au zala-ta, azkenez, Ixidor zindoari ixeka egiteraiño eldu zan. Onek dirautsa:

—Zazpi urre-txindi aidean daukadazala egizu, ta bidean noala gizon bat aurkitu ta euretatik sei ari emon dautsadazala; au egin ba'nengi, zer esango zenduke?

—Zar esango neuken? Osoan esku zabala zareala, ta zu bidean aurkituaz zorion ain galanta izan dauan gizonak, esker ona zor dautzula.

—Ederto; baiña egizu barrero be: gizon orrek, au ta guzti, oratu ta bera bota nabela ta neuretzat gorde neban urrea be ostu egin daustala; zer esango zeunke orduan?

—Gaizto ta esker txarreko alakoa I Zugatz batetik esegitea be gitxi litzake biurri arentzat.

—Begira, ba, adiskide, zeurea dozu edesti au: zeu zara gizon gaizkin ori. Sei egun emon dautzuz Jaunakj lan egiteko, bizia irabazi dagizun. Bereztat egun bat gorde dau bakar-bakarrik; eta bera deunkiro bete ta gorde dagizula eskatzen dautzu. Zuk, ostera, egin dautzuzan esker eta mesede guztiakaitik esker ona erakutsi ta gauza guztietan bere gurari donea egin bearrean, egun bakar ori be ostu egiten dautsazu. Gizon gaiztoarena egiten ez dozunik ez daustazu esan ta ukatuko.

Peru'k ontzat artu ebazan Ixidor' zintzoaren esan-oarrak; eta pekatu ta uts-egiñaz oso damuturik, aurrerantzean igandez lan egiteari laga eutson. Gaiñera, egun bikain ori zintzoro zaintzen asi zanetik, bere etxe ta lur gaiñera onespen bereziak erakarten ebazala, egizkoa zan. Poza ta atsegiña etxean; soloetan, barriz, uzta ugari.

IGOTZ

UOABARRIA

Eguzkia izpi gori,
kimatan zugatza;
lorez dago zelaian
txiribita aratza.

Txoriak diño xintaz:
"Eldu da udabarri;
umetxo ule kiskurra,
atera ta ikusi".

IGOTZ

PROMETEU TA SUA

Sua beti be arrigarria iduritu yake gizasemeai. Bere jatorria ezkutu-miesaz estalia agertu izan yaku gizaldietan zear; eta berau azaidu ta adierazteko, antxiña be antxiña ipuin ta orrelako asko asmau ziran. Orreitako bat dogu Prometeu'ren i'puiña.

Gerkarrak diñoenari jarraituz, Erraldoien arteko zan Prometeu. Atlas ta Tifon'en anaia ei zan, baiña alde onegaz: oneik euren indar zakarreen jarten eben dana; Prometeu'k, ostera, zentzundunago ta errazoizkoago egin oi ebazan gauza guztiak. Mi'nerbe'k, origaitik, gaitz guztiak uxatzeko lakoxe doaiz jantzi eban, azeriaren maltzurkeriz, erbiaren bildur-ikaraz, errege-aatearen goi-naieiz, katamotzaren eraso zakarrez ta leoiaren indarrez apaindurik. Gizonak, alan be, ez dltu beti doai oneik egokiro erabilli, ta orrela zeruak sarri zigorkatu bear izan dauz.

IPrometeu'k mesede asko ta andiak egin eusezan lenengo gizonai. Oneik oraindik arpe ta artzuloetan bizi zirala, berak erakutsi eutsen lenengo zugatz-enborrakaz ta gero buztinerre ta arrilloakaz etxeak egiten; abereak be, berak lenengoz, ezi, buztartu ta gizonaren lagun egin ebazan; berak erakutsi eutsen landa ta soloetako osa-bedarren indarra; berak atara eutson lurrari erraixetan eukon burdiña, urre ta zidarra; berak asmau ebazan ontzi branka zabalak itxasoa zearkatzeko.

Au ta geiago emon eutsen Prometeu'k gizasemeai; baiña etziran zorionsu oindiñokarren. Aldiaren asieran ezagutu eben sua, baiña Jupiter'ek

geroago, euren erru ta gaiztakeriakaitik, kendu egi'n eutsen. Alperrik dei egian Prometeu'k, gizadiaren onerako, ortzitar asarratuaren aurrean.

—Jupiter aita, Olinpu'ko nagusi I —esaten eutson—; mesede asko egin dautsedaz gizonai, baiña zer balio dabe oneik bearrezkoena dauen barik izten ba'dozuz? Oso txarto bizi da gizadia surik baga: zelan berotuko dira neguan? Su barik, zelan bigundu jaki gordiñak? Gabez zelan ikusi'ko dabe, euren egon-lekuetan surik egin ezik? Zelan uxatuko dabez pizti ankerrak?

Onelako oi u garratzean luzaro jardun arren, ez eban ezer jadesten: erruki bagako, aitz antzeko biurtu zan Jupiter'en biotza; ez eutson entzun gura. Eta onegaz, oso naigabetua geratu zan Prometeu. Zer egin? Asmo gaizto bat artu eban: Jupiter'i sua ostu.

Jupiter'ek, bera bizi zan Olinpu-mendian eukan sua, ondo gordeta; baiña Prometeu'k, egun baten, Olinpu'ra igon eban. Minerbe'k, jakituriaren jainkosak lagundurik, ara igon ta su-txingar bat ostu ta mundura ekarri eban zuzi-enbor baten muturrean. Gizonak, ostera, sua izan ebenetik askoz obeto bizi ziran, okelea erre, neguz gorputzak berotu, pizti gaiztoak uxatu ta oletan burdiñea egiten asirik.

Prometeu'k sua ostu ebalak jakitean, Olinpu osoa asaldatu ta naspilazo zan. Ango zarata ta iskanbilla I "Sua! Jainkoena bakarrik dan sua, Prometeu'k, gi'zonen zaindariak ostu dausku! Zigorra! Zigorra orri!" ifioen danak batera. Ta orrela jardun eben egunetan.

Jupiter'ek, beraz, ez eban zigor barik itxiko lapurreta ori, ta glzon azarria nekeraztea erabagi eban, merezia emonaz. Asarre bizitan, bada, Vulkan su-arotzari dei egiñik, onela esan eutson:

—Zoaz, errementari guren ori, ta egizu nik esana: artu egizuz lagun Indarra ta Zakarra, eta Prometeu, su-lapurra, eroan egizu Lurreko mendirik garaienera.

Indarrak eta Zakarrak, bada, Prometeu, gizonen ongille zintzoa, azpiratu ta Kaukaso deritxon mendira eroan eben. An, naibage bizitan egoan Vulkan gizasemeai ainbeste on eta mesede egiñikoa oiñazetan jarri bear ebalak ta. Zotin artean onela iñotsan:

—Neketsua yat, ongille andi, zu katez atxari lotzea. Ementxe egon bearro dozu iñoren arpegirik ikusi bage ta iñoren abotsik entzuteke. Gaba datorke gain ta urrengo goiza urratu, orrela urteetan... ta neke-miñak abailduko zaitu etenbage. Egunero, arrano andi bat etorriko yatzu, ase-eziña, saietseko aragia puskatu ta esteak atarako dautzuz. Eta, zergaitik au? Jainko-ariko izanik, gizonak larregi maite izan zenduzalako. Orixegaitik...

Negar eglan Vulkan'ek oneik esaten. Eta Indarrak ots egin eutson:
—Negar, Vulkan? Zer dala-ta? Ez al dakizu onek zeruko sua ostu ebala gizonai emoteko? Bete egizu Jupiter'ek agindua, gaizkin orren soifia aitz malkartsuari loturik.

Orduan Vulkan'ek, atxari josita eukon kateaz, iru bira Prometeu'ri emonik, esku ta oiñak, samea ta gerria oso estu lotuta geratu zanean, Indarrak esan eban:

—Jainko guzurti, orrela ikasiko dok goikoen gauzak lotsaz begiratzen. Betoz orain, ire seme ilkorrak, i estuasun ontatik onez ateratzen.

Eta Vulkan, Indarra ta Zakarra, euren eginkizuna beterik, urrindu ziran leku bakar areitatik.

An geratu zan bakarrik Prometeu zorigaiztokoa, betiko atxillo, egu-nero erraiak jaten joaten yakon arrano saloberak oiñazetua. Aren ulu ta negarrak inguru guztietara eltzen ziran, saminkiro. Diñoenez, alan be, Itxasoa'ren iru alabak, ots, Itxas-neskatxak sarritan joan oi yakozan errukitsu, eresi gozoz inguratu ta euren soiñeko luzeak dantza ederretan ataraten eben aizeaz aren gorputza eguzkiaren izpi latzetatik arindurik.

—Or dozu, Prometeu —iñotsoen Itxas-alabak— gizakiai bguntzearren merezi dozun ordain-saria. Nok ausiko ditu zure kate astun gogorrak?

Urte askotan egon zan gaxoa neke-oiñaze izugarriak i'kusten. Alan be, beruntz begiratu ta kea ikusten ebanean, pozez beterik esan oi eban: "Gizadia ba-doa aurrera, gero ta aurrerago".

Egun baten, atenez, Erkul eritxon erraldoi azkar indartsuak il eban arranoa, urrezko azkon bategaz; kateak be ausi eutsozan, eta Prometeu'k azke ikusi eban bere burua.

IGOTZ

ALPERRA TA FIÑA

Lagun ez dlan izakera bi
daukaguz emen munduan;
bata da fiña, bestia alperra,
beti alkarraz autuan.
Egi andl au ©uki daglgun
aztu bagarlk goguan;
alperra eztala txarto izango
fiñak dabiltzan lekuan.

Alperra beti atxaki billa
nundik lanai iges eirigo;
ta fiña, barriz, bizkor lanera
nun opla Irabaziko,
janagaz baiño bere lanagaz
gogoratzen da geiago;
alperra, barrlz, malrako gertu
nok jaterl emon ba'lego.

Lege txiki bat jarriko neuke
guztion onuragarri;
lege au da, ba, janik ez emon
lanik gura ez dabenari;
era onetan ainbeste alper
ez genduke eingo ikusi,
eta danontzat izango geunke
naikua arto ta ogi.

Alperkeria dogu munduan
gose guztien sustraia;
lan egitetik yatorku, barriz,
zoriona ta ogia.
Alds batera itxi dagigun
betiko alperkeria,
gural ba'dogu alkar arteko
zoriona ta bakia.

ENBEITA'tar BALENDIN

ZAZPI ELAITXO

Zazpi elaitxo, egaz nekatuta edo, etxe alboko ari gaiñean dagoz zabu-
-zabuka. Koldo txikia arei begira. Aitak diñotsa:

—Zer dagie zazpi elaitxok, urrutizkin-ari gaiñean jarrita?

—Eguzkia artu!

—Ez, ba... Zer dagie?... Zazpi, mutil, zazpi?

LARRETXE'KO SORGIÑA

Ai, ene! Nori igesegin dautso agotik ustegabeen itz gaiztoak? Ez al
dau oartu izleak entzuleen begietan dardaratu dan ikara? Ingurukoen go-
goan bildurrikara larria sortarazi nai ezpa'dozue, uxatu arin ezpanetatik
Larretxe'ko sorgiñaren izena. Beiñola aurraroan gure loaldiak amaika aldiz
naigabetu zituan izena da. Lozorroa biziki larritzen euskuna. Olakoetan
oiñaze bizian eta biotz-neke zulagarrian ibilli oi dira ames-iduriak. Bereolan
igitzen dira, kezkapen larri, Dostoiewsky aipatuak margozten ditun giza
-irudiak.

Landugabeak ditu ormak. Bata bestearen gain orpoka jarriak arkaitzak. Noizpait guda-gaztelu izana. Gaur, ordea, larrak eta untzak ai'en-luzeka jantzen dautsoe bizkarra. Leio-zurak eta ate-oiak erdi-usteldu yakoz. Saretu dira oro leiondoetako leiarrak. Ekaitzaldian aizeak zirrituetan zinkurin dagi negarka. Saguzarrak eta armiarma-sareak dira marandioetan nagusi.

Etxealde aberatsa izana da aintzina Larretxe. Artalde ugariak morrozten zituen negu-aldietan inguruko otadiak. Etxeburuko belardietan ere bei-talde ikusgarriak larratzen ziran zintzarriei' dilindalan eragiñaz.

Orra, ordea, zelan sartu zan etxepean zorigaitz izugarria ustegabe. Urtearen buruan etxeko biztanle guztiak makurtu eutsoen eriotzari burua. Bat-batean joan ziran nagusi ta bost seme-alaba sendokoteak. A izan zan eriotzaren ostubear galgarria! Amona zarra bakarrik lotu zan etxean.

Ba-zan, arrezkero, erri aldean marmarra ta jarduna atergabe. Edestl bildurgarriak jalkitzen zituen errikoak or emen, urrekoai belarrira ixi'lka mintzoa ixuriz. Larretxe'ra urreratzean, gizon sendo ta bulartsuai ere biotz taupadak etetzen yakezan bat-batean. Zurrun ti'nkutzen ziran. Ezkerraldeko piñudia gaberdian zearkatzean, bidaztiak asperen ituna entzun ebana nun-bait? Eleiz-dorrea ontzak auspo-otsa ta oiua egiela? Ixi! Au bildurra! Larretxe'ko sorgiña dabil erratz-gaiñean egazka. Sartu zadize arin etxe barrura. Zaindu zuen aurren ioa. Atso gaizkilleak begiz jotzen dauna, urren-go egunean ilgo da. Txinpart gorriak argizatzen ditue sorgiñaren begi-zuloak. Erne ezpa'zabiltze, gaiñera, ogean atzemango ditu umetxoak eta zanpatuko ere. Uuuu!... Au bildurra ! Au ikara!

Gabez Larretxe'ra zerbait urreratzen ausartu diranak, entzun izan ditue, barriz, ots erdiragarriak! Pertz-ots, burruntzali-tangateko, ijiji ta iskanbil erogarriak. An biltzen baitira gau-jolasetara inguru areitako sorgin zar biurri ta tximadunak. An egosi ta maniatzen ditue laratz-pertzetan gizon eta emakumeak zorarazteko nastekari arrigarriak. An galtzen ditue igortz-kai ezaugabeak. Gaberdian kabidetik karrasika ta oiuka irtengo dira, emakumeen eta umetxoan loaldiak kezkatuz.

Egun batez, orratio, zentzunbakoarena izan zan nire txepelkeria. Mutiko zorabiatua nintzan, agian. Txorikume bati arrika jarraiz, Larretxe'ko etxe azpira iritxi nintzan eroki.. Errekondoko sarats ondoan kuzkurturik arri koskorra jaurtitzeko nengoalarik, itzotsa entzun neban sorbalda aldetik. Norbait ondoratu yatan nik oartu gabe. Itzuli' neban burua. Zutundu nintzan. Aaa!... Larretxe'ko sorgiña! Aitzoz sabela urratu izan ba'leuste, ez

neban biozpetik karrasi garratzagorik jaurtingo. Eztarrian ito yatan, ordea, mintzoa. Kordegabe erori nintzan eta buruaz lurra jo.

Zoralditik esnatu nintzanean, Larretxe'ko oge bigun batean oartu neban neure burua. Jaungoikoaren izena! Sorgiña egokidan begira begi erne. Begiak zabaldu ordukoxe, aurpegitxoan laztanduz, jaulki eustan:

—Ez izan bildurrik, umetxo. Ez dautzut nik gaitzik egingo. Guzur uts dira erriko mingain gaiztoak ixurtzen dituen zitalkeriak.

Au esanaz gero, katilutxo epel bat urreratu eustan ezpanetara. Larranbillo-ura zurrutatzeke agindu eustan. Zorabioak aldenarazteke egokia dala edari ori. Bildurrez gairiditurik neukan artean gogoa. Joan zan, orratio, len go larria. Ikusmiñak zirikatatu nindun une aretan. Orra oartu nevana.

Begi urdin ederrak zitun Larretxe'ko amonatxoak. Ez txingarrrik begi mnietan.' Ezta ere surik begi zuloetan. Are gitxiago, barriz, begiratu errerik. Artillea bezain zuri buruko illeak. Matraillak zurbil. Zimurrez zearkatuak. Astiro ta mintzo dardarka mintzatu zan. Artu neban luzatu eustan katilutxoa ta ban aurki txukatu ere. Ixuri eutson, nunbait, atsotxu begikoak larranbillo urari gozakia oparo. Izaten al dabe, ba, sorgiñak edariak gozatzeko gozakirik? Bai, itxuraz. Biotz onekoa iduri yatan Larretxe'ko amonatxo ortz gabea.

Asia zan ordurako mendietan bera illunabarra jaisten. Eta burua ta matraillak esku zimurragaz laztanduz, esan eustan barriro atsotxuak:

—Zoaz arin etxera, eguna zearo illundu baiño len. Kezkatuko litzakez zure etxekoak ara garairako elduko ezpa'ziña. Ez esan, orratio, iñori emen izan zaranik. Betiko galdua zarala usteko dabe, bestela. Ez siñestu or nitzaz esaten dituen biotz-gabekeriak. Ez dautsot egundo iñori kalterik egi'n. Jaungoikoaren zigorra da. Bizitza latza nirea, benetan. Etorri zaitez nai dozun guztietan etxe onetara. Zure amonatxoak baiño ere maitekigo zainduko zaitut. Maitasunaren egarri naiz, ba, eta gizadiak gorroto utsa itzultzen daust. Agur!

Laiño baltz lodiak txanoz jantzi eben garai aretan Anboto mendiaren gandorra. Eleiz-torreko joaleak burdin-burrumba geldia zabaldu eben erriaren gain. Gau-otoia entzun zan eleiza inguratzen daben etheen teillatupeetan. Aurki asiko dira ontzak auspo-oska ta oiuka. Bereala dardartuko ditu aize-aldiak ildegiko zugaitz jeikien adaburuak. Eta errilo biztanleak ao batez begi-ikaraka esango dabe: "Larrefxe'ko sorgin gaizkillea dabil or egazka. Sartu gadizan etxe barrura. Zaindu daiguzan umetxoak". Eta giltzaz eta atakaz estutuko ditue atadiko atepak eta maratillaz leioak.

BARRENSORO

ESKEKO GAXUA

Umezurtz errukarri,
ezeuki, txirua,
aterik ate dabil
eskian gaxua.
Erdi-billoxik dago
eta oln-utsian,
otzak illik, dardaraz
negu gogorrian.

Negu gogorra bai-da,
edurra goietan.
Txistuka ipar-axia
ibar-larraetan.
Zeure anaia da-ta,
zeure urko laguna:
guztion Aita, barriz,
goiko Jaun on-ona.

Beronen izenian
ukarra deskatzu;
ez eiozu. "ez" esan,
ez, arren, ukatu.

INEKUE

BEDAR BIKAIÑA

Birgite ta Paule baserritar mirabeak, otzarakada bana arnari buruan zituezala joiazan.

Birgite'k etenbako espa ta mormoxetan ziarduan; Paule, ostera, bide guztian barrez eta jolaserako gogoaz joian.

Eta Bergite'k esan eutson: —Olan barre egiteko gogoa zelan daukozu? Zure otzarakadea nirea baiño arifiagoa ez da, eta ni baiño indartsuago be, etzara ba.

Paule'k erantzun eutson: —A, nik neure otzarakadan zama (karga) guztia arintzen daustan bedarra ipiñi dot, eta orregaitik igarri barik daroat.

—Orraitiok —erantzun eutson Bergite'k—, bedar orrek guztiz bikaiña izan bear dau. Neuk be daroadan zama edo otzarakada au arintzeko, bedar ori eukitearren, ez dakit zer emongo neuken be...

Paule'k erantzun eutsan; —Zama guztiak arintlu ta neke guzti'ak go zatuteko indarra daukan bedarraren izena auxe da: "Eruapena".

Zama astunena
arindukozu,
Eroapenagaz
artzen ba'dozu.

SCHMID-MANTEROLA

ARGI-ONTZI BIAK

Martin mutil gazteak, izatez oso zolia zalako, adorez ta kementsu ekion lanean. Umetatik aitaren alboan ibilli oi zan, arazo guztietan maratz eta arduraz. Ezkontzea otu yakonean, aitak, ain leiala zalako, ogasun andia emon eutsan, diru, bei ta solo. Baiña bakarrean lan egiten asi zan unetik, txarto joekozan gixajoari gauzak; aitaren antzeko begi ta eskurik unetik, txarto joakozan gixajoari gauzak; aitaren antzeko begi ta eskurik izan ez garatzetan, nunbait.

Aita ba-yoako gau batean ikustera, ta semeak dirautsa: —Ene aita, zuk zer egin zenduan dirutza ain galanta batzeko? Emon zeustana ta neure lanez egunero irabazten dodana, ez yataz naiko zorrak ordaindu ta egu-neango bearrizanak betetako.

Ez eutsan aitak, ezer erantzun; baiña sukaldea argitxeko mai gaiñean eukazan argi-ontzi bietatik bat artu ta itzali (amatau) egin eban, semeari diñotsola: —Seme, nik bearrezko yatana baiño ez neban erabilten; argontzi bat naikoa danean, bi zetako ixio?

IGOTZ

AREITZA

Zugatz-mueta ederra, benetan. Bere garaiz ebagi ezkerro, au da, berrogetamar urtetik irurogetamarrera, ezagutzen diran zugatz-enbor guztietan zurik eder-bikaiña berak dauko. Iraunkorra dozu, lur ta aize ta ur. Diño-

nez, zomorrerik ez dago areitzaren biotza zulotu ta jateko lain danik, beste zur guztietan arin edo geldí egin oi dabenez.

Itxas-ontziak egiteko asko be asko erabilten da areitz zura, ta anixiña-aintxiñatik erabilli be. Beste gauza askotan be bardin, indarra ta sendotasuna bear izan ezkeró.

Bere aztea zenbateraiño elizen dan, eztau oindiño ifiok ezagutzen. Batzuk uste dabe irureun edo lareun urtean bai. Areiiz asko neurri ikaragarrian azi dira, ta gizaldi askotan iraon zutunik. Gure errietako sakonetan ba-dira orrelako areiiz-tantaiak, bata baiño bestea ederragoak. Tamalez, alan be, gitxituaz doaz, oraingo baserritarrak, asaba ta aurretikoak jarri ebezanak aizkoraz bota ta barririk ipiñi ez, bai dagie.

Ezkurra da areitzaren arnaria. Tintea egiteko erabilli oi dan "likiiza" be, areitzak emona dogu: fa bere azikera oso arrigarri. Euliak lenen, zulo txiki bat dagi areitz-orrian; ondoren arrautza bat ipinten dau bertan. Arrautza onen inguruan pelotatxo bat azten da; arrautzea pelota barruan berotu ta gero, arrauiza-mueta bardiñeko eulia dator. Euli onek pelota anizeko azala zulotu ta egaz dagi kanpora.

Basoko "errege" deritxogu areitzari, ia zuzen emona dao izen aipagarri ori; beti sendo, tinko, jagia ta lurrari itsatsia ba-dirau: ekaitz-aizeak setati erason arren, beti tente ta zut, eder ta garai. Beraz, baso-oianetako nagusi dogo.

IGOTZ

BEI GORRIA

Bakalderri baten, bakalduna (errege) ta bakaldun emazia bizi ziran. Eta alaba bat baiño ez euken, "Miren" eritxona. Bakaldun-emaztea il zanian, erregea barríro ezkondu zan "Yagiño" izena eukan andreagaz. Ezkontza ontatik iru alaba urten ziran. Nagusienak begi bai bakarrik eukan; bigarrena begi bigaz jaio zan, ta irugarrena irugaz.

Amordiak ez eban maite Miren neskatillea.

Bein, jantzi zar ta loiagaz jantzi, ogi-zati gogorra emon eia basora bidaldu eban, bei gorri bat zaintzen. Miren bakaldungeiak, beia artu ta

landa batera eruan eban. Orixe eginda, beiaeren belarri batetik sartu ta bestetik urten zan, bertan ondo jan, edan, garbitu ta apainduta gero.

Bakaldungei bati dagokion itxura polit onegaz, egun guztian egon zan beia zainduten. Eta eguzkia ostendu zanian, Miren'ek jantzi apaindua eran-tzi, lengo jantzi zar-urratua jantzi ta etxera bigurtu zan beia-gaz. Ogi-zati gogorra eskaratzeko arasan gorde eban.

Ori ikusita, amordiak koikorako esan eban: "Zer jango ete yonan?"

Biaramonian Yagiño'k emon eutsan alaba-ordiarri lengo ogi-zati go-gorra, ta basora bidaldu eban, beia zaintzen. Baiña alaba nagusiari, begi bat bakarrik eukanari, agindu eutsan, lagunduteko arazo orretan aitzordia. Eta etxetik urten baiño lenago esan eutsan:

—Ikusi biar dogu zer jaten ete zer edaten daun Miren'ek, emoten dauksadan ogia ikutu barik eta ondo asetuta etxera etorten da-ta.

Neskatilla biok basora elduta, Miren'ek esan eutsan aitzordiari:

—Erdi, aizatxue maitia. Jesarri nire orduan eta burua nire belaumen ganian jarri, orraztu gura zaitut eta.

Eta aitzak burua ezarri eban Miren'en belaun ganian. Orduan onek orraztuten asi ta esan eutsan:

—Ez begiratu iñora, aizta maitia. Itxi zure begitxua. Lo egizu, ene aizta laztana, lo egizu.

Aiztea lotan geratu zanian, Miren zutunik jarri, bei ondora eldu, ta onen belarri batetik sartu zan, ondo janda, ondo edanda ta jantzita bes-tetik urtetako. Egun guzti atan ederto apainduta egon zan, beia zaintzen eben bitartian.

Illuntzia eldu zanian, Miren'ek janzkia aldatu ta aiztea iratzartu eban, oni esanaz:

—Jagi, aizatxue, jagi zaitez. Ordua da, onezkero, etxera bigurtzeko.

"Au don tamala! —barrurako esan eban neskatilleak—. Egun guztian lotan egon non, eta etxonat ikusi Miren'ek zer jan eta zer edan yonan. Oin etxakiñak zer esan amari?"

Etxera eldu ta Yagiño'k itaundu eutsan alabari:

—Zer jan eta zer edan dau Mfren'ek?

—Nik eztoz ezer ikusi, ama.

Amak agiraka egin eutsan neskatilleari. Eta biaramonian bigarren ala bea bidaldu eban, begi bi eukazana.

—Zuaz, alabatxu, ta ondo begiratu zer jaten eta zer edaten daun Miren'ek.

Basora elduta, onek esan eutsan aitzordiari:

—Erdu ona. Jesarri nire onduan eta burua nire belaunen ganian jarri, kopetea orraztu gura dautzut-eta.

Aiztak burua ezarri ebanian Miren'en belaun ganian, onek esan eutsan:

—Itxi egizu begi bat. Itxi egizu bestia be. Lo, aizta maitia, lo.

Aiztea begiak itxi ta lotan geratu zan gaberarte. Ezin ezer ikusi, ba. Irugarren egunian, Yagiño'k beste alabea bidaldu eban, iru begi eukazana, beroni esanaz:

—Begiratu ondo zer jatan eta zer edaten daun Miren'ek, niri esateko gero.

Neskatilla biak eldu ziran larrera, beia zaindu biar eben tokira, ta Miren'ek aitzordiari esan eutsan:

—Gura ete dozu, orraztu ta kopetak egin dagitzudazan?

—Bai, aitzatxu.

—Orrezkero, nire onduan jesarri ta burua ipiñi nire belaunen ganian, Orixe eginda, Miren'ek esan eutsan:

—Itxi egizu, maitloi, begi bat. Itxi bestia. Lo egin, ene laztana.

Baiña irugarren begia aitzu eban. Orixe dala-ta, begi bi lotan egozan, baiña irugarrenak ikusten eban Miren'ek egiten eban guztia.

Au bei ondora eldu ta belarri batetik sartu zan, ondo janda, ondo edanda ta ondo jantzita bestetik urteteko.

Eguzkia ostendu ta Miren'ek jantzia aldatu ta aiztea iratzartu eban.

—Jagi zaitez, aitzatxu, etxera bigurtzeko ordua da-ta.

Etxera eldu ta Miren'ek ezkutau eban ogi-zati gogorra eskaratzeko maian.

—Zer jan dau Miren'ek? —amak itaundu eutsan alabari.

Alabeak edestu eutsan amari ikusi eban guztia. Amak orduan, eskatseiñari deitu ta agindu eutsan beia ilteko berialako baten, Eskatseiñak egin eban Erregiñak agindu eutsana, baiña Miren bakaldungeiak esan eutsan:

—Zu, eskatsein, emon egistazu beiaren buztana.

Eskatseiñak emon eutsan. Berak artu ta lurrean landatu eban. Aldi gitxf barru, zugazño polita agiri izan zan, arnari gozo-gozuakin. Zugazño onetan fxori alaiak ebiltzan, txorrotxio politik egiten.

"Iban" izena eukan mutil bakaldungei batek entzun eban Miren bakaldungeia oso ona ta polita zala. Orixe zala-ta, bein amordiari aurkeztu yakon, Eta mai ganian azpil (plater) andi bat ipiñlrik, esan eutsan:

—Azpil au arnariz beteko daustan neskatillea, neugaz ezkonduko da. Amak alaba nagusia bidaldu eban arnari billa. Baiña txoriak ez eben izten zugazñora urreratzen. Eta berak eukan begi bakarra atara gura izan eutsaen. Beste alaba biak bidaldu ebazan; baiña oneik be ezin arnarirlk artu.

Ibilli ta ibilli. Miren bakaldugeiak juan biar izan eban. Eta zugazñora urreratu ta arnaria artuten asi zanian, txoriak lagunduten eutsaen. Berak igali bat artzen eban bitartian, txoriak bi edo iru botaten eutsaezan azpillera. Aide baten bete zan platera.

Miren'ek, orduan, azpilla mai ganian imiñi ta burua makurtu eban Iban'en aurrian. Eztegua gertau ta ezkondu ziran. Orregaitik jai aundiak euki ebezan. Eta luzaro ta zoriontsu bizi izan ziran.

AFANASIEV-ALTUNA

ANKA BATEKO EGAZTIA

Italia'ko gizon eukitsu batek bere adiskide bategandik obari edo erre-galutzat kulinka (itxas-txori) andi eder bat artu ei eban bein. Artu ta bereala ots egin eutsan eskaratz edo sukaldeko otseiñari, ainbat ariñen ta ondoen erreta maira ekarteko esanaz. Otseiñari, erreten eukan artean, biotza samurtu ta urdailla eskean asi yakazan; eta, etorkizunari begiratu barik, anka bat berentzat gorde ta anka bakarraz eroan eban urrengo bazkal-orduan egazti ed'erra.

Ona emen euren artean euki eben itaune-erantzuna.

—Ta? Bigarren ankea nun dau kulinka onek?

—Anka-bakarra izan da. Onetariko egaztiak anka bakarrak izaten dira.

—Ba ete? Biar goizean biok joango gara itxas-ertzera, kulinkaren baztuk ibilliko dira-ta.

Urrengo egunean ugazaba-otseiñak alkarregaz joan zirean itxas ondora, ta luzaroegei itxaroten egon baga, agertu zirean sei edo zazpi kulinka ta eurakandik urrunegi barik gosa (kokatu) zirean. Ain zuzen bere, anka bat egazpian gordeta egozan. Otseiñak orduan, pozarren, esan eban:

—Ugazaba, aor bada kulinkak, guztiak dira anka-bakarrak.

—Bai, e? Oraintxe ikusiko dogu. lxxxo! lxxxo!
 Au entzueran kulinka guztiak asi zirean egaz, eta bakotzak anka biña erakutsi eben.
 —Bat eta bat zenbat dira?
 —Bi, jauna.
 —Anka-bakarrak dira kulinkak?
 —Zegaitik ez eutsan gure kulinkeari "ixxo" esan? Bigarren ankea, baldin ba'eukan, orduantxe erakutsiko eban ak bere.
 —Urrengoan ankabakarrik ba'dakardazu, "ixxo" ezango dot; baiña zeure anka biak erakutsi ta kalera bidea artuteko izango da.

AZKUE (R. M.)

ABERE BATZUEN BIZITZA

Aramua (armiarma, miarma) zazpi urte bizi da, gitxi gora-bera.
 Erbia ta untxia (konejua), zazpitik zortzira.
 Auntza, oilloa, txonta, kanarioa ta larrakilloa (kirkirra), amar urte.
 Ardia, amabi; azeria ta arranoa, amabost.
 Urretxindorra, amasei; katua ta idia, amazortzitik ogeira.
 Otsoa, beia, basauntza, urdea (txarria) ta karramarroa, ogeitik oge-
 ta bira.
 Txakurra, txardantxilloa ta zaldia, ogetabost.
 Astoa ta zezena, ogetamar.
 Saia, berrogei; sai ta erroi batzuk, baita bizi dira berreun urte be;
 nun ta zelan dan.
 Ganbelua, berrogetamar.
 Antzarra ta legoia, irurogei urte.
 Ibai-musker edo kokodriloa ta elefantea, azkenez, berreun urtetik gora
 bizi dira, euren erreka ta oian itsu nasietan.
 Abere ta egazti geienak ezkertiak dira: bai atzaparka bai ostikoka,
 ezkerrez egin oi dabe.

MUTIL BABA-LASTOA

Seme bakar bat, sei urtekoa, baba-lastoak legez gazterik, eta, seme bakar geienen antzera, mizka azia, nunbait bizi zan. Bere amak gauza andiak esan eroazan semeagaitik: burutsua zala, argia ta guztizko burutasun onetakoa.

Eldu bat edo ikustaldi bat egm eutsen senar-emazteai, bein, euren adiskide batek. Emaztea aida baten asi zan, bere semea au zala ta ori zala, au ekiala ta bestea ekiala, esaten.

Deitu eutsan kanpoko aren aurrera; ta itandu eutsan: "Txotxo, zeinbat Jaungoiko dagoz?" Mutil baba-lastoak, atz bi aoan sartuta, arpegi muker-mukerraz, "bi" erantzun eban.

Amak, orduan, besteari: "Aor bada,ATEGAITIK baiño eztau uts egin".

ZUBIGANEAN

Zubiganean nago
urari begira,
ibaieko urak gaur
eguzki-dirdira;
ontzia egotzi dot
uraren erdira,
onen iges-bearra
ukatu eziña.

Zubiganean nago
ontziari so-ka,
aize ta tirainpean
urgaiña koloka;
ene ontzi maitea
urduri alboka,
dakustan bitartean
begiontzat poza.

Zubiganean nago;
ontzia urrundu da,
begiok lasterrean
ezkutuzko muga;
ontzian joan barik
emen geratuta
arimatxu neureak
naiago legorra.

ERKIAGA'tar EUSEBI

AIZKORA-OTSAK

Aizkora-otsak dira
baso-ezkutuan:
gizakiren bat dar-dar
aiaka estutan.
Erasten diardue
mendiko pagoak;
gizaldietan zutik
egozan enborrak.

Areitzak eta urkiak
or doaz lurrera;
ta eurakin daroe
geritza otz-bera.
Penaz dakusku gure
zugatzen iltzea !
Ez da izan bardin gure
maitasun-galtzea?

KEREXETA'tar JAIME

DIRA, DIRAI

Dira, dira, zezenak dira,
buztena motza,
adar zorrotza...
arrapatzen ba'zaitu (bis),
bertan, bertan, ilgo zaitu !

BAT ETA BI

Bat eta bi,
iru eta lau.
Amak uretan
sartu nau.
Bi ta bi, lau ta
beste bi, sei.
Amak etxetik
egin dit dei.

Sei ta lau, amar;
ta amar, ogei.
Nork kontu egin
lore auei?
Ogei bosteko,
eun zuzen.
Gure bildotsak
denak gizen.

ETXANIZ'tar NEMESI

ZAARTU NAI EZ

Kosanton eta Kosepiñasi, larogeia urtetik gorako senar-emaztiak, Jaungoikoak alan gura izanik, ia irurogei urte zirauen alkarregaz bizi izaten, maitetsu ta eztsu, batez be azkeneko urtietan, ain neketsu aziriko seme-alabak bakotxa bere ogipidian, edo ezkondua ta bizitza onetako neke ta lorrai aurre emoteko gauza zirala ikusirik.

Nekez iortu eikien ludi onetan au baiño ondasun obarik, eta zorion ori Goikuari zor eutsela ezagaturik, oraindiño gordin asko aurkituten ziran agura-atsotxuok ez eben gogait-egiten Jaunari eskerrak egiten.

—Zetarako eskatu Jaungoikuari ondasun geiago? —iñuan Kosanton'ek, seme-alabaz eta illobaz maian inguraturik, bere larogei' ta irugarren urterrena ospatuten iñarduala—. Egin doguz guk portu onetan gure zeregin guztiak, eta Emanuel'ek "ara gorako" deitu gura dagiskunian, "errola" kaltzarpien eta untziazen azpiak garbituta, itxasorako gertu egotia baiño etxagoku.

Baiña Jaungoikuaren erabagiak burua makurturik ontzat artuteko gertu egon arren, gizasemia beti gizaseme, ta ala ta guzti be, bizi gura oraindiño. Entzun, ostantzian, Kosepañasi'k, txurrun-plinplantxu aldia eldueran, zer opa deuten guztiai:

—Tira, ene umetxuak; gaur urte bete barru be, Jaungoikuak lagun, etxeko guztiok aulan batu gaitetzala!

—Zer? —jardetsi eutson Josanton'ek—. Larogetaz urtiak bizi ta oraindiño be zartu egin gura dozu, ala, andria?

—Nik dakit, ba?... Zartu edo...

—Oker diñarduzu, ba, andria; zarra ezin zartu leiteke. Txapeia zelan txapeldu ziñei, ta oillarra zelan oillartu? Eginda dagona eztago zetan barru egin.

—Ixi, barritsu ori! Urtatxu batzuk geiago bizi izatia, zegaitik eztoz gura izango, ba? Edo, zelan itz egin biar dogu zure aurrian, zirikatzaillie ori?

—Esaizu olan, andria. Baiña zartuteko asmuetan ba'zenbiltzezan, oker ziñarduan. Gu zarrok, entzun ondol, lurpian izan ezik, ezin "sartu" gin-tekezelako.

—A... jai ! Ba-dakizu gero, Kosanton, aguratxu leberra urten dauskuzala zeuk?

—Orren damu dozu, ala, andratxua?

—Ez, txikitto, urte askotan!

—Baita zuri bel

OTXOLUA

OTSO URDIÑA

Otso bat, bein, margo (kolore) urdiñezko urez betetako upelera jausi zan. Eta lenengotan estualdi ederra artu eban, burua andik ateratea ez yakon errez be izan eta. Zelan edo alan, azkenik lortu eban upel ondolik urtetea; ta berealaxe lengo basoetara jo eban barriro.

Beste pizti ta abereak, alan ikusi ebenean, ikaraz ziran, ez ekien ba zer jazo yakon; danak, banan-banan, bere jantzi urdiñean ikustera joan yakozan. Aren bildur ta lau-orria ! Taiu atako piztirik ez eben, iñoiz begiztu.

Otsoak, alan be, maltzur samar bestei diñotse: —"Pizti-mota berezizat naukazue, ezta? Baita, izan be. Orrela, ni zuon buru izatea zuzen da". Ta, otsoak ez-ezik, basurde, leoi, tximiño, azeri ta abar, buruak makurtu ta berari agur egitera etorri ziran; bera bai zan guztien jaun.

Otsoak, barriz, laster susmau eben errege barriaren azalpean euren antz eta irudia; ta euretan batek, ausartsu, diño: —"Neuk dirautzuedana egin ba'dagigu, laster igarriko dogu bere doillorkeria. Gaberdi alderuntz, guztiok alarauka asiko gara bere urrean, eta arteko baldin ba'dogu —orrela nik uste-berori be alarauka asiko yaku, ta laster asi be".

Asmatu ta egm. Gaberdi-gaberdian, ez lenago ez geroago, danak batera zarata ta iskanbil utsean jarri ziran. Baita errege aizua be laster zan bere odolekoen jarrai.

Eta, au entzukeran, oian usu zear pizti guztiak aJkarren leian egiñoiko barre-argara, itzala izan zan benetan.

Ezin egin, azur,
aragiari agur.

IGOTZ

OITUREAREN INDARRA

Iñaki ta Kepa etxe baten bizi ziran: bata lenengo etxe oiñean eta bestea bigarreanean. Iñaki gizon ona, otzana ta ekandu onekua zan. Eguneko ordu guztiak zintzo-zi'ntzo erabillirik, zeregin bakotxa bere orduan betetan eban: gabeko amar-amarretan oera juan eta goxeko seiretan jagi. Zortzi orduko lua biar-biarrekua yakon, berak iñuanez; bestelan, buruko miña ta kezka ugari.

Urte askotan atsegiñez ta paketsu bizi izan zan gure gtzona, bigarren oiñian, bera lez, amarretan oeratzan zan jauparia bizi izan zan artian. Baiña abadiak alde egin ondoren, zorioneko Kepa-Matraka etorri yakon goiko oiñera! Eta, kitu!: zortzi orduko lorik ezin lortu. Zer dala-ta, baiña?

Kepa'k Iñaki'ren antzik ez eban: gizon urduri ta jokolari'a zan, bai?, ta oeratzeko orduak ez eutsaen ardurarik emoten: gaberdiko amabiak, geienetan, etxetik kanpau arrapetan eben. Baiña ori bakarrik izan ba'litz...

Iñaki'ri Kepa berandu etxeratiak ez eutsan ardurarik emoten: etxera etorten zan orduan itxartu-biarrek bai, ostera.

—Kepa orrek bizitza kendu biar daust —Iñaki'k esaten eban—. Nire gela ganian bizi da, bai?, ta oera juaten danetan, geienian ordu bata, iratzartuten nau. Eta nire zortzi orduai, kaxo, mutil!

—Zer erabilten ete dau, ba, zo iratzartuteko?

—Erabili ezer ez, bota bai ostera.

—Zer bota, baiña?

—"Botak": oiñetako zapata traskillak.

—Nundik? Leiotik, ala?

—Bai, zereko leiotik! Esan dautzut nire ganian daukala lo-gelea. Eta oeratzekuan, zutik, jesarteko asti barik, ankia jaso (altzau) egiten dau, "drast"!' zapatak atara ta, "daunba"!' lurrera bota.

—A, bai!... ta zu daunbada orrek iratzartuten zaitu...

—Iratzartu bakarrik? Ni ordu orretan lorik gozoenian eta amesetan egoten naz, eta bat-bateko itxartutiak biotza taupadaka jartzen daust. Juan dan astian, larunbatian, etxeko guztiok larri ibtlli giñian.

—Zer ba?

—Ara. Gau atan, lapurrak etxe barruan zirala-ta, amesetan asi nin tzan. Kepa'k, betiko moduan, "daunba"!' zapata bota eban. Ene bada! Nik uste izan neban Japurak atia bota ebela. Eta asi nintzan didarka: "Lapurrak!, lapurrak!" Alaba ta neskamia, didarrok entzunaz, ikaratu ziran

Atan arek be garrasika asi ziran. Alakorik I Auzoko guztiak zalapartaka ta... ezer ez, nire amesak bakarrik, Kepa'ren zapata-daunbadak lardazkatutako amesak. la zenbat kalte etorri leiken daunbada batetik!

—Alantxe da, izan be! Izualdi orreik biotzari kaltegarri yakoz, bai?, ta barriro jazo eztabidin, Kepa'ri oiñetakuak ataratzian kontuz ibilteko esan biarko dautsazu.

Kepa'ri juan yakozan, ba, mesede ori, arren, eskatzen. Onek ontzat artu eban, eta baietz, kontuz ibilliko zala abindu eutsen: aurrerantzian ez ebala iñok noiz oeratzten ete zan igarriko.

Urrengo gaba eldu zan. Gure Kepa amabi ta erdietan etxeratu zan. Joko-etxian diru asko galduta, gauza asko buruan erabiltzan. Eta, jakia. Iñaki'ri emon eutsan itzaz aitzu ta betiko moduan, ankia jaso, zapatari eldu, "drast"! alera ta "daunba"! lurrera bota eban. Bat-batian gogartu zan, eta:

—Ene bada! —kolkorako esan eban—. Zer egin ete yuat? Iñaki'k zer esango yaustak? Arraio pola! Um!...

Beste zapata ixil-ixillik atera, oe ondoan ezarri ta oean sartu zan.

Lenengo zapataren otsak iratzartu eban Iñaki geuria.

—Ai, ene Jaungua! Emen yabilk barriro Kepa kirten ori... Tira! Bota egik, len-bai-len, bigarren zapata ori... Ez, ba, etxok ondiño bigarrena kendu... Noiz arraio botako ete yok? Zapata bategaz bakarrik etzuan, bada, etorriko... ba, ba!... Lo egin daigun.

Izara artian sartu zan. Baiña alperrik: gure Iñaki gaxua ezin luak artu. Jira ta bira, bigarren zapata burutik kendu eziñik, ordu erdia igazi yakon, eta, asperturik, neskamiari dei egin eutsan:

—Pantzeskeeee!...

—Zer gura?

—Zer, goiko Kepa kirten orren zapata-otsa eztozo entzon?

—Bai, jauna, orain ordu erdi edo...

—Bigarrena ez, ostera?

—Ez, jauna.

—Ba, zuaz gora, bai?, ta nire parter esaiozu, bigarren zapatearen daunbada entzon barik, *ezingo* dodala lorik egin, eta bola dagiala ainbat ariñen.

AMILGAIN

GURE BOST ZENTZUNAK

Gizonok gorputr eta arima gara, ots, soin eta gogo. Gizonaren solña, Jainkoak lur-apurrez egina da; arimeaa, barriz, bere antz-lrudira sortua: arimeak bizi galtu, solñez auts, ez gara besterik.

Gure gorputz edo soiñak ba-ditu bere zentzunak, eta bosteraño izan be);

1) Ikusmena; 2) entzumena; 3) usaimena; 4) gozamina, ta 5) Ikumena.

1) Munduko gauzak begien blder ikusten doguz; begirik ezpa'geunke, ezin ezelan be Ikusi aitarlk, ez amarlk, ez anairik, ez lorarlk, ez mendirik; itxaso, izar, zelai ta beste eder guztiak be, begien bitartez dakusguz. Ikusmenari esker, ba-daklgu gauzak zelakoak diran, zuriak ala baltzak, gorriak ala urdlñak; baita urrin ala ur dagozan be. Itsu gaixoak bal errukarri!

2) Giza-soiñaren len-zatian, au da, buruan, belarriak daukaguz, otsak eta zaratak eta oluak entzuteko. Belarriz entzuten dltugu, bai, Itzak, garra-xiak, deadar ta Intziri estuak. Belarri, barik ezin ezer aditu ta entzun; ezin banatu zein ots dan atseglñ, ez zeln yakun atsekabe. Jainkoari eskerka, ma kur gaklozan zentzun ain ederra emon eusskulako.

3) Usaimena dogu Irugarren zentzuna; sudur bidez, artzen dltugu usaiñak. Madari, sagar ta igall mota guztien usain gozoak, zelako atseglña emon oi dauskuen! Eta baratzean erne ta garatu egiten diran lora ta lillak? Surrak argi diñosku zer yakun on eta zer kaltegarri, aizearen bitartez batez be: usain txarreko aizea kaltegarri da gure osasunarentzat. Txakurrak, urrlñetik, somatzen dau bere nagusia. Abere ta piztl askok, guk baiño ernai ta 7oliago dabe usaimena.

4) Gauzen gozoa, agoz ta batez be ago sabaiaren bitartez, artzen dogu. Mertxlka bat ikusi genglike, balta bere usalña artu be, balña bere gozoa artzeko, bere zatltxo bat belntzat agoan sartu bear. Gauzak zer diran agoz txastatu ta ikusi daroaguz: orrela eztia gozoa da, ozplña garratza, itxas-ura gazia.

5) Gauzak bigun ala gogor diran jakiteko, eskuz ikutzen doguz, Eta, izan be, gure inguruetako gauzak, batzuk legun dira, beste batzuk lakar Baiña ikumena ez daukagu eskuetan bakarrik; gorputz guztian dogu noski Otzak eta beroak, esaterako, gorputz guztlan dardar eragiten dausku. Oiña kaz be, gogorra ta blguna laster lgarten dogu zein ta zer dan.

Bost zentzunok, barriz, arimearen leio besterik ez dira.

IGOTZ

LURRA TA ITXASOA

Gau batean —illargi betea, zerua izar— ondartza gorrian onelako kexu otsa entzun zan:

—I bai eder, oi lur, lorez, usaiñez, umez ta txoriz gaiñezka I Ni, ostera, beglra zelako itxuran !

Orrela itz egian itxas-barruak. Gau ixillean, beste aots batek, ondar ondoko lurrarenak, erantzun eutsan:

—Ederra i, itxas-barru ezkututsua ! Ik kantatzen dok bizitzaren eresi betikorra, ur mugabakoz goxoro kulunkatua! Leiarra baiño dirditsuago dozak ire ur orreik, lorak baiño usaintsuago. Ni, ostera, begira...

Jainkoak negar-intziri biak entzun ebazan, eta itz bakar bat esan. Bertatik illundu zan zerua ta itxasoa zakar be zakar nastu. Gero, gau ikaragarrian, abarrots gordiña entzun zan urriñera; lurrak dardar, azpi-ikara biur indartsuak astindua; leza izugarria edegi ta bertatik amildu ziVan urak, orru ta muxinka.

Orrela, tokt aretan, lurra urez beteta geratu zan, eta itxas-barrua, ziku ta legor.

Gizaldiak joan gizaldiak etorri, itxasoa arraiñez ta bidutziz gizendu zan, ta lurra loraz estali! Baiña ona, ozkarbi zoragarri baten, arako antxiñakoan lez, berbaz daukagu lurra, ondar ondoan, atsekabe gorritan diño-alarik:

—Dongea az, olatuak ostu daustazak, eta ibarrak argi bage itxi; eguzki-galdatan penaz naukak, eta euri otz-pean ai-eneka...

Beste aots batek, itxas-ondoarenak, oso itun eta goibel, erantzun eutson:

—I bai azala donge ta biotz bakoa, umeak eta lorak ostu daustazan eta,

Aots biak negar-zotin luzean eo ziran. Jai'noak entzun ebazan atsekabe-ulu oneik be, ta parkatu nai eutsen. Illundu zan zerua ta itxasoa besteetan baiño garratzago orruaka asi zan; lurra edegi ta urak euren lekura itzuli ziran, itxas-ondoa legor itxirik.

Egun aretatik —aldien gauan galdutik nosk!—, ondartza ondoan lo datzan lurrak eta itxas-barrenetan ames dagianak, ez dabe geiago itzik egin, Jainkoaren jakituria goretsi ta Aren dirdlra iragarteko izan ezik.

IGOTZ

UGARASU-ERREGEA

Norberak gura eban guztia jazoten zan antxiñako aldi zoragarrietan, Bakaldun (errege) bat bizi zan, eta alaba guztiak ederrak eukazan; gazteena, orraitio, askozaz ederragoa. Eguzkia bera be, ainbeste bidar ikusita euki arren, aren arpegia ikusten eban bakotxean, lilluratuta geldituten zan.

Errege-jauregi ondoan oian (baso) andia egoan, eta oianean sarespes baten, oxin (pozu) sakona.

Sargori zan egun baten errege alabatxo au oianera joan zan, eta oxin-ertzean jesarrita, gogaituta be ba-egoan-eta, sakelean eroian urrezko bolatxo aterarik, berau gorantza bota ta barriro eskuan arturik, olgetan asi zan; bolatxo auxe zan bere olgetakorik maiteena.

Onango baten, baiña, bolatxo eskuan artu bearrean, uts egin eban; lurrera jausi yakon eta bilin-bolaka oxin barrura sartu zan.

Neskatxo joranez jarrai yakon begiakaz; baiña laster ondatu zan. Oxiña, barriz, sakon-sakona zan, ondarra iñok ikusi eziteko aiña sakona.

Orduan negarrari emon eutsan errege-alabeak, eta geroago ta garraztazo egiten eban negar, eta bere bolatxoak emoten eutsan tamalagaitik ezin iñondik iñora poztu. Eta onan aieneka ziarduala, norbaitek ots egin eutsan: "Zer don errege-alaborrek, atxak be errukituko litzakezan negarrokaz?"

Begiratu eban deia etorkion alderdirantza, ta bere buruto lodi-iguin-garria uretatik aterata, ugaraxu bat ikusi eban. "Ai ene! —erantzun eutsan neskatoak; oxinera jausi yatan neure urrezko bolatxoagaitik naukazu negarrez".

—"Ago ixillik, eta ez negarrik egin —erantzun eutsan ugaraxuak—; ire negarrok legortuteko bidea bayakiñat-eta. Baiña, zer emoten daustan jostailua atzera ekartearren"? —"Zeuk gura dozuna, ugaraxu laztana —diñotsa neskatileak—; neure jantziak, neure bitxiak, neure urre-arriak eta baita aldean daroadan burestun (koro) auxe be".

Ugaraxuak jardetsi (erantzun) eutsan: —"Etxonadaz bear ire jantziak, ire bitxiak, ire urre-arriak eta ire urrezko burestun ori. Baiña nire izan nai ba'don, eure lagun eta jolaskide izan bear yonat, maian eure ondoan jezarri, eure urrezko azpillatik (plateretik) jan, eure edan-ontzitik edan eta eure oian lo egin. Auxe guzti au agindutekotan, oraintxe berton urperatu ta urrezko bolatxo aterako daunat":

—"Ondo dago —dirautso neskatoak—; neure urrezko bolatxo atzera ekartekotan, gura dozun guzti-guzti ori aginduten dautsut". Baiña bere kol-

ugaraxu zintzoak!"

Ugaraxuak, agintza au artu ebaneko, sartu eban urpean burua, ondatu zan ondarreraño eta gerotxoago, uger etorrela, barriro agertu zan. Agoan ekarren bolatxoa eta oxin-ertzeko bedartzara jaurilt eban.

Errege-alabea poz-pezik jarri zan bere jostaillua barriro ikusirik; artu eban, ba, ta ariñeketan eta kriskitinka itzuli zan etxera. "Itxaron, itxaron —iñotsan zarataz ugaraxuak atzetik—, eroan nagin neu be eugaz; ezin ñeinken nik ik baizen arin egin-eta". Baiña zer etorkion bere "krak krak" alik indarlsuen egiletik? Errege-alabeak ez eutsan jaramonik egiten. Ariñeketan etxera joan eta beingoan aitzu zan ugaraxu errukarriaz. Gaxo onsk atzera bere oxifera sartu bear izan eban.

Urrengo egunean, neskatoak aita-erregegaz eta errege-otseiñakaz maian bazkaiten ziarduala ta bere urrezko azpilletatik jaten ebala, atxurdiñezko (marmolezko)mailletatik gora zeozer "plisti-plasta, plisti-plasta" etorren, eta gora eldu zanean, jo atea ta ots egin eban: —"Errege-alaba gazteena, zabafdu egistan atea".

Joan zan, ba, arin atera ia nor ete zan ikusten. Atea zabaldu ebanean, baiña, arako ugaraxu zala ikusi eban; itxi eban bat-batera ta indartsu atea, jearri zan barriro maian; baiña oso larri ta artega agiri zan. Biotza tau-padaka indartsu ebilkiola, igarri eutsan erregek, eta itandu eutsan: —Zer dala-ta az orren bildur ta ikara, ene alabatxo? Erraldoen bat ete yagon atean, eta beragaz eroan gura ete au?"

—"Ez —erantzun eutsan—, ezta erraldorik, ugaraxu zikin bat baiño". —"Eta zer bear yon ugaraxu orrek?" —"Aita, ene aitaxo! Atzo oianean, oxin ondoan jesarrita nengoala la olgetan niarduala, urrezko bolatxoa ure tara jausi yatan. Agaitik negarrez nekiola, ugaraxu orrek atzera atera eustan, ta bolatxoa atera eustalako, neure lagun izango zala aglndu neutsan. Eneban uste, baiña, bere uretatik urtengo ebanik. Orain atean dago ta neugana etorri gura dau".

Onetan jo eban barriro ugaraxuak atea ta zarataz asi zan: —"Errege-alaba gazteena, zabal egistan. Eztakin atzo oxifeko ur ozkirri ondoan agindu eustana ala? Errege-alaba gazteena, zabal egistan". Au entzunik, erreagak esan eutsan: —"Agindutakoa bete bear don. Oa, ba, ta zabal egion". Joan zan, ba, neskatoa, zabaldu eutsan atea ta orduan ugaraxua "plisti-plasta, plisti-plasta" aulkiraiño joan yakon. Eta esan eutsan neskatoari: —"Jaso nagin altzora". Neskatoak ez eutsan alangorik egin nai arik eta erregek

agindu eutsan arte. Baiña ugaraxuak auki ganean egon zaneko, mai ganean egon gurea agertu eban, eta orduan esan eutsan errege-alabeari: —"Ekarri orrago eure urrezko azpiltxo ori, biok batera jan daigun". Guztia egin eban neskatileak, baiña argi ikusten yakon ez ebana gogo onez egiten.

Ugaraxuak oso gogoz jan eban, baiña agokada bakotza saman geldituten yakon. Ta atzanean esan eban: —"Ondo bete-bete eginda gelditu non-eta, abainduta ñagon-eta, eroan nagin eure etzangura (kuartura), egin ondo eure oetxoa, ta bertan biok lo egingo yonagu". Errege alabak entzunik, negarrari emon eutsan. Ain bildur andia eutsan eta ukututeko be iguin emoten eutsan ugaraxu otz-zikiñak, bere oetxo garbi-ederrean lo egin bear ebala l Alangorik!

Baiña errege asarratu yakon eta esan eutsan: —"Bearrean engoanean lagun ekiñana ezton emetik atxiña ezetsiko gero". Orduan eldu eutsan ugaraxuari atzamar bigaz, jaso eban gora ta bazter baten itxi eban. Baiña bere oian sartu zanean, etorri yakon ugaraxua ta esan eutsan: "Ebainduta ñagon-eta, neuk be ik baizen ondo lo egin gura yonat. Jaso nagin gora, ostantzean aitari esango yauisanat".

Osoan samin-samindu zan neskatoa; artu eban ugaraxua ta indar guztiagaz ormearen aurka egotzi (bota) eban, zirautsala: —"Oraintxe artuko dok atsedena, ugaraxu zikin orrek".

Baiña lurrera jausi zana etzan izan ugaraxua, begi eder ta alaidun errege-seme baiño. Pozik artu eban errege-alabeak, aitak be nai eban letxe, mutil gazte mazala lagun eta senartzat. Orduan errege-semeak zelan atso sorgin batek antz-aldatu eban adierazo eutsan eta zelan errege-alabeak berak bakarrik arako oxiñetik atera zeikean eta zelan biaramonean bere bakal derrira (erreñura) joango zirean.

Gau atan ederto egin eben biok lo, ta urrengo goxean eguzkia jagi zaneko, zortzi zaldi zuridun zalpurdia (kotxea) eldu zan jaureqi aurrera. Zaldiok buruan sai-egaki (luma) zuriak ekarrezan eta urrezko katez lotuta etozen, eta zalpurdian Errege gaztearen otseña, Otxoa zintzoa. Otxoa zintzoak min andia artu eban ugazaba ugaraxutu zanean, eta biotzak goibel-indarrez estanda ez egion, iru burdiñezko katez lotu-erazo eban. Zalpurdia. Errege gaztea ta aren emazte liraiña bakalderriratuteko etorri zan. Igon eben, ba, biok batera, Otxoa zintzoak lagunduta, eta, zaldiak zaintzen ebalak, poz-pozik joian gizon zintzoa, ugazabak bere giz-antza birrartu ebalako,

Bide-ario bat ibili ziranean, karrakada bat entzun eban Erregek, eta dirautso Otxoa'ri: —"Otxoa, zalpurdia apurtu ete dok?" —"Ez, jauna;

zalpurdia ez, neure biotzeko kate bat baiño. Berau oso minduta neukan zu oxifanean zengozala, zu ugaraxu eginda zengozala-ta".

Beste birritan entzun zan bidean alango karrakadea, ta benetan Erregeri zalpurdia apurtu zala eritxon; etzan, baiña, alangorik. Ugazaba azke (libre) ta zorioneko ikusteazko pozak Otxoa zintzoari apurtu eutsazan biotzeko ka-teen otsak baiño.

GRIMM-LEGOALDI

IZKIRIMIRIAK

Itziartxo'k iru urte ditu. Izekoa dendara joan da. Zer ekarriko ete dau andik? Itziartxo oso zaletsu dago, arek gauzaz beteriko otzaratxoa zabaldu ta bertako zer guztiak atara ditun bitartean. Azkenean, jostailu bi, oso polit eta bardiñak, agertu dira; alde auxe bakar-bakarrik: bata gorria ta bestea urdiña izatea. Izekoak itanduten dautso:

—Ona, Itziartxo, gura dozuna artu; bat zeuretzat eta beste neba-toarentzat dira. Zein gura dozu?

Eta Itziartxo'k, bai ta ezka ibilli barik:

—Neure nebarena nai dot.

Antxiñako Aristenes jakintsuari itandu eutsoen bein:

—Zer dala uste dozu gizonaren bizitzan bearrezkoena?

Arek erantzun ei eban:

—Alperriko gauzak aztuten ikastea.

ANAI BIAK

Jerosolim lur iandua zan. Anai bik erabillen orain Jaunaren txadona (elizea) daukon lur zatia. Bata ezkondua ta seme-alaba ugariduna zan; bestia ezkongea ta bere buruaz bakarrik bizi zana. Biok, erdi bana, landuten eben amagandik artutako lurra.

Gari-biltzaldia —gari batuteko aldia— eldu zanian, bakoetak bere eskutak egin ebazan; eta soluan bertan pillo bardin bitan itxi ebezan. Gaba elduta, ezkongee eguan anaiari asmo ona otu yakon. "Anaiak —kolkorako esan eban— emazte ta seme-alaba ugari alikatu (jaten emon) biar dauz. Ezta bidezkoa, ba, anai biok gari-meta bardiñak artutia. Ixil-ixillik juanda, neure pillotik eskuta batzuk artu ta beriari ezarri biarko dauz. Ezta igarriko ta onetara ezin ezetzik esan". Otu yakon letxe egin eban.

Gau atan bertan beste anaiak, umiak ogeratu ta emaztiari iñotsan:

—Ene anaia oindiño gaztia da, iñoren lagun barik. Lanetan nok urgazi (lagundu) ez dauka; atsekabietan nok atsegingu bez. Ezta bidezkoa, ba, guk berak beste gari artzia. Guazan eta ixil-ixillik gari-eskuta batzuk ezarri daioguzan bere metari. Ezta igarriko ta ezin ezetzik esan.

Otu ta egin.

* * *

Urrengo goxian, anai biok solora juan ziranian, gelduta (miratuta) lotu ziran gari-metak bardin ikusita. Ez batak ez bestiak ezin igarri ori.

Etziran, oraitiño, aspertu. Urrengo gabetan be ekin eutsaen batak bestiari eskutak ezartziari. Baiña gari pilluak beti bardin, anai biak gari-eskutak alkarri emoten eutsaezan eta.

Gau baten biok zain geratu ziran, jazoten zana jakiteko, ta batak bestiari gari-eskutak eruaten eutsazala, biok alkarregaz topo-eginda, ikaratuta lotu ziran.

Anai areik ziran anai zinduak!

U'tar M.

ILLUNTZEKO IZARRA

Udako arrasti garbietan neskame-taldea etorri dator, zugatz orritsuak eguzki mosuari arerio egiten yakozan tokira.

Umiak pozik bertan jolas dagie, lurra be arri koskor barik leun-leuna da-ta. Loraz guztia josita dagon arren, ume areik baxen politik ezin aurkitu daiteke, apaingarririk politenak gaztaruaren begiak eta ezpanak diralako.

Arrip arro, garozko burestunez sortuten diran lora-kumien albuana, edertasun erdia galduten dabe. Umien jolas politik ikusten aguriak be parkera

eiduten dira, bai?, eta abar-puntan abestuten diñarduen txorien txintak, arein barriak baizen atsegingarri ez yakez.

Gudariakaz berba egiten dagozan neskamiak baiño ardura geiagoz neskatotxo batzuk euren andrakillak jaboten dabez. Beste batzuk barriz, arro arro, andereñuan eran egurastuten dira. Parke-erdian iturri ozkirrak, bere antzar agotlk ura dariola, lora-jai inguruan dagi. Ume guztiak, eurek legetxe garbia dalako edo, ura maite izaten dabe, ta ertzian oiñak bustirik dabiltz.

—Eta zuk ez dozu olgetan? —mutua zan gaztetxuari otsein batek itandu eutson. Gaxua l Onduan jolastuten diran umieri jaramonik egin barik, beti gora begira jarleku baten dager.

—Orrek aingeruak ikusi gura dauz eta —buruari alborantza eraglñez, neskati batek erantzun eutson.

—Ez, izarrak atrapau gura leukez, eta orregaitik gora begira dago —eskuan txirria eukon mutillak esan eban.

—Aita diruduna dan ezketiño, erosl dagiozala —neska politak iñuan. Eta guztiak ben-ben, "erosi dagiozala" erantzun eben.

Mutuxua gexorik datzan gelan artega sartu eta urten guztiak dabiz.

—Zer ete yaukok? —otseiñak bata besteriari ditauntse.

Sendagilliak, jo gora ta jo bera, ezin igarri. Bai ba, biotzian sustraia euki daroian gexotasuna ain errez igarri ezta egiten eta. Miñik latzenak, mingotzenak eta sumingorrenak biotzian euren arantzea barrenduten dabe, baiña bere odolezko larrosa minduak ez doguzalako ikusten edo, gitxien asmatuak izaten dira.

Umia datzan gelako leio erdi idigitik zeru oztñeko izar ederra ikusten da. Lorontzian lora polita egarriz itoten dago eta illuntzeko izarrari negarrez dirautso: "Izar orrek, gaur gabean ezpada be, altzo legortura ur tanta bat ez al daustak ixuriko?"

—Lora polit orrek, beste lora bat be neure egarriz or txakian yaukat, bai?, eta itxadon egin biarko daustak.

Izarrak dizdira maitekorra txakira bidaldu dabelako, mututxuak barre-lrri dagi eta eskua, izara zuri artetik atarata, zelairantza zuzenduten dau.

—Liliak eskatuten dauz —bere amak yoranez esan eban—; eta otselntadja lora-billa arin juan zan. Zelako moltzua ekarri eben ! Sorkaldeko erregiñak baizen dotore jantzitako larrosa gorriak, iparraldeko edurra baizen zuri diran zitoriak, txakia usaiñez usaindu eben. Besartada bat magnoli izoztu gela erdian batek jaurti eban, bestiak lillipa belllegitan 'amaika...

—Ona emen lorarik ederrenak —samurki aitak iñotson. Mututxuak barriz, eskua kanporantza luzatuten eban.

Txoriak zugatz punta-puntan abesti polita abesten ebalako, "orrek txoriak gura dauz" aitak esan eban, eta otsein guztiak txori-billa jua ziran

Izarrak zeru garbian dizdiz maitati egian, zerutik jatsiten diran aingueruen maikua bai'litzan...

Otseiñak txoritan zer ekarri ete eben! Txoriak, baiña, umiari etxako zan atsegin. Goxeko garuaz bustitako igaliak ekarri eutsoezan, baita bitxi politak be, urrezko zapatak eta ziilarrezko jantziak; mututxua, baiña gexorik eguan.

Illuntzian zeru oztziñean izar garbia agertuten zanian, begi iilak piztuten yakozan. Sendagillak batuta ikusi arren, ilgo zalakua esan eben. Iñok zer zan jakin ez arren, txarto eguan umia.

—Maitia, zer daukok? —aitak itaundu eutson—. Gura dozuna eskatu egik eta berton dakuskek.

Umian soñia indargetu zan, eta bere begiak legortu. Zeruko izar ederrak dizdiz egian maitati...

Aita diruduna izan arren, izar ederra ezin atrapau, eta aren zaiian bizi iran ran omia il egin zan. Leio erdi zabaletik bere urrezko erria barrenduten dau izarrak, eta begi leiartuan dizdira dagi. Bizirik jadetsi ez ebana, ilda gero jaso eban!

LAUAXETA

KEPA DEUNA ETA MUSIKERUAK

Nok eztaki zeruko artzaiña Kepa deuna dala? Egun baten, jostari bere lanetan zala, musiku aidra bat sartu yakon urriñengo aretora (salara). Ain zuzen be, areto berberaxe izan zan lrukoitz Deunak beraldekuakaz batzarrak egiten ebazan aretua. Ori zala-ta, ba, Kepa deunak, txukun eta garbi eukan, lastertxo egin biar eben batzaldirako gertautu.

Arritu zan baiña Kepa deuna, berak ez ekiala, ain txukunik eukan aretuan ereslariak durundotsian iñarduela susmau ebanian, eta jazoten za-

naren barri jakiteko beriala eurakanatu zan, eta nortzuk ziran ikusi ebanian, ikaratuta dardaraz esan ebn:

—Ene badatxua!; musikuak zeruan, eta Goiko Jaunaren Bakaulkian bertan, artezkaria !...

Kepa deunak ori ezin eukian olan itxi, eta arnasarik artzeko be asti barik, andik beriala urten egiela agindu eutsien. Baiña, nora urten! Ezta ezer esan ba'eutsoen be; ereslariak, ba, "pron... pron... piri... piri... txinba... txinba... pun...datxin... datxin... txin... dara... ra... ra... rata... txun...". Kepa deunak inotsenari jaramonge, euren turut eta abarri puzka ekiñalian jarraitu eutsen eta.

Ereslarien lotsa-bakokeria ikusita, Kepa deunak bere buruko ule banakak atara biar ebazan, lotsa bako areik andik zelan bidaldu asmu ezinda.

Esturaldi onetan zala, Paul deuna eldu yakon, eta Kepa asarre zala igarri ebanian, esan eutson:

—Asarre, Kepa, asarre?

—Zelan ez, mutil? Eztok ezer entzuten, ala? Eta zer egin zaratatsu orreri dagozan lekutik alde eragiteko?

—Zer egin? —bizi-bizi eginda darantzutso Paul deunak—. I az kaikua, Kepa ! Euk gura ba'dok gura, ba, txakurrak aurretik daruen erbia baizen azkar dozak ereslari guzti orreik aretotik ataz, bakaulkian jesarrita daguana aurrengo dala.

—Zelan, baiña, zelan, Paul?

—Txonitz (sermoi) garratz bat bertan egiten asita.

Esan eta egin. Kepa deuna asi zan, ba, Kistar-ikastia azalduten, eta gure "musikuok" be bai areto nausitik ataz iges-igeska, artezkari jauna aurretik ebela. Alako anka-jokorik!...

Ludian nai dabenak
bizi jolasean,
ezin leike edan urik
Jaunan oxiñean.

ZIDORRA

ZURTASUN-AGAKA

- 1) Esku arteko gauzetan zabiltz beti arduratsu.
- 2) Ona da arin ibiltea, baiña larregi estutu barik.
- 3) Jaunagan ustetsu zaite, baiña zeu be ez alper bizi.
- 4) Zuzen jokatuaz ez bildur izan; bal, ostera, oker ba'zabiltza.
- 5) Arpegi alaiz eroan neke, lor ta atsekabeak.
- 6) Emakume arin-zoroena dozu, azaluts izatea.
- 7) Urrindu, al dala, lagun gaiztoekandik.
- 8) Arduraz zaindu zeure izen ona.
- 9) Iñor iraindurik, zeure burua iraintzen dozu.
- 10) On-bide ondoan sortu oi da zorion-lilia.
- 11) Guzurra beti ta non-nai iguingarri.
- 12) Adiskide txarragaz baiño, bakarrik obeto.
- 13) Zarean baiño geiagotzat, ez euki zeure burua.
- 14) Zabiltz beti eratsu ta adeiz.
- 15) Zorrak ordaindu, al bait ariñen, ta ar-emonetan ez izan nagi.
- 16) Neskagarri da, beti be, adiskideak diñoena guzurtzat artzea.
- 17] Gurasoen onu-esanak jaso ta ontzat artu egizuz.
- 18) Izakerari baiño len diruari amor egin.
- 19) Aldendu, alegiñez, geiegi kerietatik.
- 20) Opor-aldietan be jardun zerbaiten, batez be zeure adimena obeamotzen.
- 21) Bizi noznai, alik eta neurritsuen.
- 22) Guztiz orniduak izatea errez ez yakun ezkerro, al bait eta akatsik gitxienez bizi gaitzean, beintzat.

IGOTZ

DAGONILLA



VIRGO*VIII-23*IX



NESKATX.—Euskal neskatz (Virgo) au, zapart azarri baten zero-erdiraiño igonik, dotorerik asko agiri yaku emen, loratxo bi eskuetan ditula. Lore zabal orreik bere edertasunaren iduri dira, urrean.

Zeru-gerrian seigarren ezaugarria da, ta dagoniUaren 23'tik iraillaren 22'raiño-koa artzen dau. Izarki arauz, eMiptika luzeran 150'tik 180'ra aurkitzen da.

Galburu eldu dindillak, bedar-batze ta itaiteak, or azian ezkutaturiko bizia egi hiurturik. Aurrerantzean, negu amairarte, besterako bidez, garautii azira, mokorrelik soillera egingo dabe izadiko gauza guztiak. Lur sabelera barriro, gero andik indartsuago kemen bizitan jagiteko.

JOLASAK

1) PATATA-DANTZA

Jokorako esku artzen duten blkoteak alña patata bear dlra.

Jokalarl, ordea, nai dlan beste blkote ta dantza-zuzendaria.

Parlantz uontan sartu nal duten blkoteak, al dala beintzat, iru bat metroko inguru-blra osotuko dute. Zuzendarlari dagokio blkote banatze au; bikote bakoitzari onek eman bear dio patata bat, jolas bitartean nola euki bear duen adlerazorlk.

Jolasaren arau ta legeak oso errezak dira: bikote bakoltzak, bere eskuak guretzetuta sorbaldan dauzkatela, bekoiakin eutsl bear dlo euren patatari. Blkote guztiak era ontan jarri ondoren, dantza-zuzendariak dantza asteko aglndua ematen du; ortaz denak dantzatzen dute zerbait, olatu dantza adblblez.

Zur bego zuzendaria, ta baztertu bitza dantza bitartean patatea galdu nalz erortzen uzten dutenak; miñutu batzuen buruan denak baztertu bear izango dltu, garalle nortzuk diran esanaz.

Irabazle auk ere, beren trebetasuna geiago erakutsl nai izan ezkeru, berriez egin lezakete beste saio bat, dantza gaitzago baten, gaurko "twist" nalz "yenka" jokuan lelaturik.

2) PARRAT EDO TOKEAN

Ezta bear gauza aundirik, txanpon batzuk geienez.

Jokolariak, sei edo zazpi.

Egin lerro bat lurrean naiz arean. Iru bat metrotik, gero, bota jokolari bakoitzak, bata bestearen atzetik edo batera, bere txanpona, burni-zatia edo kanika.

Nor irabazle? Lerroari ikutu, naiz onen ertzera gelen urbiltzen dana.

3) EULI ITSUKA

Zer bear dan: txistu bat.

Jokolariak: nai beste.

Jokolari guztiak zapiz estalita dauzkate begiak. Txistua jotzen du batek, arat-onat dabillela; besteak ura atzeman nai dutc. Atzeman dunak txistua ere berea du, ta aren tokia artzen du erdian.

Orrela ari dirala, epailariak, berak nai duenean, etetzen du jokua, ta txistu-jabe dana ateratzen da garaiile; eta onek, atzera gelditu diranei olako penitentzi bat ezarten die.

4) SAKU-KARRERA

Bear dana: jokolari ainbat saku —alderdi batetik josiriko buruko, paperezko naiz; plastikozkoak—, eta zinta bat.

Jokolariak: nai beste; askotxo ba'litzaz ta danentzako beste saku ez, talde bi'tan banatuko dira. Epailari bat ere bear da.

Lerroz lerro ipiñiko dira lasterkariak, saku barruan sartu ta bi eskuekin gerri inguruan sakuari eutsirik. Auetan bi, al bait eta urruti'en, besteen aurrez aurre jarriko, muga bezela egiñik, eskuetan zinta bat dutela. Jokua asteko zantzua eman ostean, denak dioaz saku barruan urrats aundika. Laster egiterakoan, zoztorren bat jarri naiz norbaiti bultz eragin diona, epailleak bazter utziko du.

Mugara lenbizi irixten dana, uraxe dezu garallle,

5) ERAGIOZU

Naiz Bizkaia'n, naiz Gipuzkoa'n naiz mugaz andik, toki askotan jolastu oi dira umetxoak esku eraginka. Jolas onetarako naikoa dira bost-amar ume, talde bitan lerrotuta bezela.

Eskutxoai eragin bitartean, zeozer abestu oi dute. Ona Azkue jaunak, Ziburu'n bilduta, bere Erri-kantutegian dakarrena:

"Eragiozu eskutoari,
eskuto tiki poliñoari,
lanik batari, gero bertzeari,
eskuto tiki poliñoari".

6) AURKAKOA

Ume-pillo bat, eta zuzendaria.

Umetxoak, zuzendariak egiten ditun zirkin eta igiera guztiak egin bear dituzte, baiña bestetara: zuzendariak ezkerreko eskua jaso edo altxatzen ba'du, aurtxoak eskubikoa jaso bear du; zuzendariak burua eskubira ma-kurtzen ba'du, umetxoak ezkerrera, eta abar.

Jokuan uts dagian umetxoak puntu bat galtzen du. Eta iru puntu galdu dituanak, jokua laga bear.

7) PELOTA-KARRERA

Bear dana: Jokolari bakoitzarentzat pelota bana. Kare-koxkorra, edo-ta taket bat. Karea, kaleak marratzeko, toki itxian jolastu ezkerro; taketa, berriz, autsean edo ondarrean lerrotzeko, kanpoan jokatu ezkerro. Zenbat jokolari ainbat kale marratzu bear dira. Naibestek esku artu dezakete jolas ontan.

Irteera ta muga ditu joko-lekuak. Irteera-marran daude jokolariak, bakoitzak aurrean pelota bat duela. Epailleak emaniko irten-zantzuaz batera,

jokolariak buruakin sakatu bear dio d'agokion peloteari, bakoitzari aurretiaz izentaturiko kale edo lerro artetik irtetzen utzi gabe.

Ate ta muga bitartean, lau kale egin zenitzake, esate baterako: 1, 2, 3, ta 4 zenbakikin.

Jakiña: ariñen mugara eltzen dana dezu irabazle.

8) IGAROBIDEA

Bear dana: sokatxo bat.

Bi umek sokatxo bat daukate, goi xamar.

Beste aurrak lasterka igaro bear soka orren azpitik, baiña ikutu gabe. Iñork ikutu ba'legio, olakoak galdu du ta bazterrera dioa.

Jolaslari denak igaro ondoren, beerago jartzen da soka, igarobidea estutu ta jokua zailagotu dedin.

Azken gelditzen danak irabazten du.

9) ERRE-ERREKA

Dcstaillu au neska mutillak nastean, naiz neskatoak eta mutikoak barka jolastu lezakete.

Batek loak artua egiten du; esna daudenak, bitartean, au abesten diote:

Iru ta iru sei,
iru bederatzi,
amar emeretzi,
bat kenduta
bi egotzi;
bat ogei, bi berrogei,
iru irurogei, lau laurogei,
bosteun kuku.

Lo dagoanak, "kuku" entzutean, esnatu ta besteen billa asi bear du. Ezkutuan dagoan batek, esnatuari atzetik ikututa, "txirimilla korte" esan ezker, lengoak berriz ere "itsu" izan bear du. Eta berriro asten dira kantari:

Iru ta iru sei...

IGOTZ

A B E S T I A K

1) BASERRITARRAK

1

Baserritarrak gera gu,
ezin netzake ukatu (bis).
Baiña kaletarrak bezin ongi (bis)
soiñua jotzen degu (bis).

Kalian dira bi gauzak
neri gustatzen zaidanak (bis);
ardotxo txuri goxo eta (bis)
opil koxkor biguñak (bis).

2) LIMOSMATXO BAT

1

Mutil koxkor bat itsu aurreko
zuela aldiamenian,
gizon buru-soil, bizar zuri bat
bi makuluren gaiñian,
kale (i) ertzian ikusi nuen
iñora ezin joanian;
ta bera nor zan jakin naiean
ingunatu nintzanian,
limosnatxu bat eskatu zidan
Jainkuaren izenian.

Zerbait emanaz galdetu nion,
al zan modu onenian,
ja'iotzetikan al zeukan ala
gaitzak artua mendian.
Erantzun zidan: —Ez, semia, ez,
nik indarra nuenian,
ez nuen uste iritxitzerik
onetara azkenian...
Gaur limosna bat eskatutzen det.
Jainkuaren izenian.

Eta jarraitu zuen esanaz:
—Lengo gerrate denian,
ni aurren xamar ibiltzen nintzan
beti edo ge'enian;
nekatu gabe aisa igoaz
aldapil luzienian;
etzan burura asko etortzen
gu ala gabiltzanian...
gero limosna eskatutzerik
Jainkuaren izenian.

Odolak bero eta burua
arrua daganian,
edozein eran sartutzen da bat
alako itsumenian;
atsekabe ta negar samiñak
ba-datoz ondorenian;
nola erabait batek bizia
utzitzen ez duenian...
limosnako bat eskatu biar
Jainkuaren izenian.

P. M. OTAÑO

3) NERE AITAK AMARI

1

Nere aitak amari
gona gorria ekarri (bis).
Berriz ere maiteko dio
nere amak aitari.
Nere aitak amari
gona gorria ekarri.

Gona gorri gorria
zazpi jostunek josia (bis).
Berriz ere maiteko dio
nere amak aitari.
Nere aitak amari
gona gorria ekarri.

4) ORRA OR GOIKO

Orra or goiko ariztitxu baten
kukuak umiak egin yozak aurten;
kukuak egin, amillotxak janr
axe bere kukuaren zoritzarra zan.
Lalaralala, lala... t, a.

Amilotx ari kukuak dirautso:
"Eztauat itxiko gaur azur bat oso"
Ume-jaleak erantzunentzat
diño: "Ire ardurarik etxaukat".
Lalaralala, lala... t. a.

OILLOTXO TXURIA

Oi, oillotxo txuria!
Oillotxo jostuna!
Josi ta josi 'aren
lan egun astuna.

Norentzat ari zera,
oillotxo txuria?
Nere txitoarentzat
egiten jantzia.

Sasi artean dauka
egoa lotua.
Nork askatuko ote du
ankatxo nastua?

Negar ta negar dago
malkotan urtua.
Malkota'n gelditu da,
gaixoa, itxutua.

Nun da nere aria?
Nun det jostarratza?
Iñork eztu entzuten
aren dei garratza.

Zabiltza jira-bira
itzul-inguruan;
arkituko dituzu
saskitxo onduan.

Itzul-inguru dabil
oillotxo txuria.
Txorabiotan galdu
bear du burua.

ETXANIZ'TAR NEMESI

SU ONDOAN

Aita-semeak.—Seme: Zintzoagoa ezpaiz, belarrondoko bat artuko dek.

—Aita: ez orrelakorik. Ez dezu ikusten zu beste pixukoa zeralarik,
Ukabilkari' Bazpatzak baztertuko zaitula!...

Nola esan?—Etxeko andrea: nola esan bear det, "bazkaria gertu da-
go", ala "bazkaria maiean dago"?

—Atzo bezelakoa ba'da, "bazkaria errea dago" esan zenezake.

Aurren esanak.—Maramatxo apain-apain bat oparitzat artu duan nex-
ka batek ona zer dion bere; amari:

—Amatxo, ni ezin ninteke onekin ibilli, bere neskamea dirudit eta,

Inbiriya.—Joxe Pello lasai utsa da. Lanetik ere bidali egin dute. Berak
esango digu zergatik.

—Zer gertatu zaik, Joxe Pello?

—Ba! Zea... kontramaixua...
—Zer izan dezute, ba?
—Ba-dakizute kontramaixuak zer diran. Beñere ez dute lanik egiten. Eskuak bizkarrean, ara-onera ibilli besterik ez dute egiten...
—Eta zer?
—Inbiriya! Norbait sartzen zanean, ni artzen omen nindun kontramaitzat. Esan: bezela, inbiriya!, besterik ez, inbiriya!

Txirringariak.—Andaluzi'ko txirringari batek besteari:
—Zuk? Zaude ixillik, gizona. Nik abiada ikaragarriak ibiltzen ditut. Neronek egiten dedan itzala ere atzean uzten det beintzat.

ON EGIÑAREN SARIA

IVlikel, ura zan mutilla, gorputz egoki mardula, udaberria bezin eder ta alaia; osasuna bern'z saltzeko ere bai.

Sakela ere etzuan utsik, gurasoak txintxo-txintxo egindako diruz ongi betea, ta ederki kostata egindako txanponak izan arren, etzion orrek Mikel'i kezkik ematen.

Kezkak? Bai zera; lasai zebillen gure mutilla. Uri nagusira bialdu zuten gurasoak legegizon egiteko Eskubide (Derecho) ta legeak ikastera.

Ogei urte, ta sasof artan liburuei begira ta irakasleei edo maixuei buru-belarri jarri ta ariko al zan ba? Ederki eman ere, mendiko moxal ta beste abereak bezela azke, irrintzi alai egiiiiaz zebillen Mikel beste askoren antzera; zertako estutu? Idaztiak, liburuak eta eskolak maixuentzat utzi ta bapo dabil bera, nurt da nere gogoia, an da nere zangoa.

Udaberria aurrera zijoan eta azterketak asi ziran, eta gure Mikel'i ere eldu zitzaion bere ordua, ta orra nun dezuten aztertzaileen aurrean.

—Zer gertatzen zan Erromatarren artean sendiko buroa, aita iltzen zanean? —galdetu zioten.

—Etxeko guzien atsekabe bide zala —erantzun zion Mikel'ek.

—Eta "Furia Caninia" legeaz, zer diozu?

—Lenbizikoz oraintxe entzun detala —jardetsi zion gure mutillak.

Urte artako kurkubita edo kalabazik guriena Mikel'entzat Tzan zala esan bearrik ba ete degu? Ludi ontan, obeto esanda, gizadi artean maiz dakusgun gertarien berri, sustraien arrazoirik ez dezake gi'zonak askotan eman, ezkutan daude beretzat, nola edo zergatik gertatu dan eztaki, gizonen iritzi ta arabera ez baitira izan. Zergatik ori? Orren berri Jaungoikoak bakarrik daki: geienetan edo beti otoitzen bidez Goikoagandik iritxi dan esker bereziren bat dala bide izan da noski.

Gure Mikel'i ere ikutu zion eguna eldu zan, eta bidekatua zebillen mutilla bide zuzeneratu. Egun batez joan zitzaion bere etxera ezagun aundi bat, aspaldi ikusi ez eta agur bat egitera. Etxe artako tokirik agerienean ikusi zun bixitari orrek alako gauz arrigarri bat. Leiarrezko ontziño polit batean zillarrezko diru bat, ogerlekoa, pitxirik ederrenen antzera. Ain toki agirian eta ikusgarrikeri aundiena bezela diru bat ikusteak arrituta, jakin-miñak eragiñik, zer esan nai zuan galdetu zion Mikel'i.

—Ni zuzendu ninduan aingerua da ori —erantzun zion Mikel'ek—; eta ona emen gertari ura. Beste askotan bezela, gau batean, berandu, etxera nijoala kale bazter batean mutiko bat negarrez nabaitu nuan, eta ni ajolakabea ta lasaia izan arren, bi'otza ona eman zidan Jaungoikoak, eta orduan ezaguera, juizioa baiño zuzenago zebillen eta ordu artako mutikoaren negar-zotiñak ikutu ta urduri galdetu nion:

—Mutiko, zer duk negarrez aritzeko?

—Txozketa (loteria) txartel saltzen ibilli oi naiz, eta ogerleko txarra sartu didate ta onekin etxera joango ba'nintz, aitak txikituko ninduke; orra nere zoritxarra ta negar bidea.

—Ixo, mutiko, ta ez estutu, duro bat gora bera, berdin duk neretzat; to amar liberako urretxiki'a, ta ekatzak duro bat, eta oa etxera.

Mutiko, Mikel'i esker ona erakutsita, pozik abiatu zan etxeruntz.

Mikel, berriz, eguna lasai edo alperkerian igaro ba'zuan ere, azken ona eman eta mutikoak eman zion duroa sakelñoan sartu ta alai zijoa etxera.

Ara baiño len, ordea, ate bazter batetik atera zitzaizkion bi lapur, zituanak kentzeko asmotan. Aldemekoari eman zion bera-ziarkakoakin lurrera pirillaka bota zuan; bitartean, ordea, besteak zeraman aizko ikaragarri batekin erraietan eman nai izan zion aitzokada izugarri bat, baita al zuan indar guziz jo ere. Orduan lurrera erori zan, ta beste onek igesari eman zioten egiiial guzian.

Mikel'ek nabaitu zuan erraietan aitzokadaren indarra; ez ordea miñik eta odolik, ta bereala: gabeko uri'zaiñei deika asi zan: oek etorri ta entzun zuten esan dan gertaria, ta

—Nun jo zaitu? —galdetu zioten.

—Emen sakeiño (boltsillo) gaiñean.

—Gorputzera ezta eldu aiztoa, baiña bai txalekoa ederki zulatu.

Ta orduan atera zuan sakelñoan zeraman duroa, ta... arrigarria l, erdi-erdian afzto muturrak nun jo zuan ederki ageri zan. Diru zabal aretxek atera zuan Mikel eriotzatik; duro uraxe izan zan erraietara bete-betean zijoan aitzokada arto zuana. Urretxikia egon ba'litz aren toklan, zer gertatuko ote zan?

—Orra zergatik daukatan —esan zion Mikel'ek bixitariari— diru ori tokirik agirienean, urrezko bitxirik ederrena ba'litz bezela. Orixe izan zan ni argitu ninduen, bide txarretik oneratu, zuzendu ninduna; ordutik ikaste-txeak ikasle bat, *nere* gurasoak seme bat eta aberriak gizon bat ba-zuten. Nere seme ta oiñordekoen oroigarri ta ikasbide izango da beti; Jaungoikoak bide askotatik deitzen digu ta Ondasun guzien Iturburuak onegiña nola saritzen duan ikasteko gertari baten agiria.

Irakurle, zuk ere ikasi, guziok ikasi dezagun.

GOIKOLA'KO TXORIA

GARI-BURU TA MATS-MORDAK

Jesus Seintxua
Juan da mastira...
Zer nai ete dau?
Zer dakar etxera?
Odol darion
Mats-mordo ederra.

Jesus Seintxua
Juan da solora...
Zer billatzen dau?
Zertara juan da?
Galburutxu bat
Artu dau eskura

Itanclu eutson
Etxean Mania'k:
—Zer dakazu or,
Ene Semetxua?
—Aurkitu clodan
Gauzarik onena:
Eukaristiko
Ogi ta ardua.

URTSUIA

BARKA IZKIGUZU

Basoko ixMtasunean zorionez bizi zan ama alargun bat.

Seme bakar bat zeukan bere bakartadea gozatzeko; landak eta artaldeak, zaitzeko. Seme zintzo ta maitagarria. Senarra zeruratu zanetik ura zan lurreko bere atsegirv guzia, arek ematen zition alaitsunik gozoenak negar erri onetan.

Illunabar batean aitzokadaz josia arkitu zuen. Bere indar guziak bilduta, gelara eraman zuen gaixoa. Bekoki ta bularra igortzi zition. Be'in eta berriz eskuak mugituaz, dei egin zion. Dena alperrik I Semea illik zegon.

Zenbat eta zein gogoeta illunak etorri ziran andre atsekabetuaren burura I Nere semea beti Jaungoikoaren lagun zan. Deusengatik etzuen iraindu nai izaten. Bai, gaurgero bere aita berrlro ikusi du. Nere senar gaixo ura ere bere siñismentari zintzq zalako, aitzoz il zidaten. Zergaitik il ote didate, ordea, seme maite au? Ola luzaki jarraitu zuen, semeagandik begiak aldatzeke, malkoak maiz txukatuaz.

Bitartean iltzaillea, erri-zaien igesi, nola etzekiela etxe artara sartu zan. Non zegon oartuaz, bat-batean atzera egin zun. Ezbai egonta, azkenian emakume aren aurrean belauniko jarririk, negarrez eta Jesus'en izenian barkazio ta babesa eskatu zizkion. Eta ama on arek ezin barkapena ukatu, Jesus'en izenean eskatu ezkeru; ta begiak zerura goraturik: "Barkatzen diot, Jauna —esan zuen—, zerbaiten zure antza artzeko"; ta bereala, jaikirik, altzegiko tokirik illunenean gorde zuen.

Lasterxe erri-zaiak aren bilia eldu ziren. Naiz ta etxeko zoko guziak arduraz ikustatu, etzuten iltzaillea arkitu. Amak arrisko artatik lenbailen ateratzearren, bertze tokitan billatu obe zutela esan zien.

Erri-zaiak urrundutzean, joaten zaio ama zindo ura ta: "Tori —esaten dio, dirua emanez—, ar zazu au ta zaltegiko zaldi ura. Zoaz. Iges egizu ta Jaungoikoak oparo onetsi ditzala zure ibilketak". Gero semearen animaren alde otoitzean eta bere naigabea lasaitzen jarraitu zuen, etsaiari biotzez barkaturik.

Onela urteak joan ziran, eta alako batean bere aurrean goitasun eta pozez beterik bere semearen iltzaillea ikusten du, esaten diola: "Ene ama, ama ona! Balekizu zenbateko zoriona iritxi zenidan eta zenbateko naigabetik atera ninduzun! Nola aintza eman! Bereala ikusiko dezu Jaungoikoak zuretzat gertu daukan saria". Au esan eta aienatu zan.

Ama alarguna laster joan zan semeakin Jaingokoa goratzera. Zenbatek al izanen degu emakume arek bezin ongi" "barka izkiguzu gure zorrak, guk geren zorduneri barkatzen diegun bezala", esatea?

MODESTO A. K. O.

TXAKUR OILLO-JALEA

Maritxu'ren o'illoak ondatuz zijozzen,
baiño aien lapurrik iñon etzen agertzen:
oillo guziak janik, oillarna gelditu zen;
baiñan orna goiz batez buru ta lumak lurren,

Zein dan oillo lapurra laxter bear da ikusi;
baiñan o'illorik gabe, ori nolaz ikasi?
—Auxen oillar-itxura! Au bear dut erosi;
lapurrari nik ortzak baietz onekin ausi!

Oillategi atean jarri oillar-itxura
t'oillategi atzean izkutatu da bera:
ordu laurden buruko bere etxeko txakurra
saltoka posta dator oillar ura jatera.

Auxen bai dala lana! Geren txakurra al da
nere oillo jalea? Neronek ikusita
ezin siñetsiz nago. Geren txakurra, bada,
"otsoa ardi-zai" gendun, t'okerragorrik ezta!

ISKIÑOSO ARROA

Iskiñoso bat zugatzaren mutur batean zegoen, ostutako gazta aboan zeukala. Antitxek iragan zan axenia, ta maltzur au itz goxo-goxoak esaten asl zitzaion:

—Ori da txori ederra zerana!... Anak lirain, lepoa biribil, egoak beltz e'ta leun, gorputza panpox, mokoa polit, oj txoni ederral... baiñan ez dezu aboan beste txorien kemenik. Soiñua ba'zendu, eder-ederren, txora-txonagarrien txor'ia ziñake! Iskiñosuari orduan, barrengo maratillak krak egin zion, ta beste txori askok bezela soiñua ba-zuela aitortu nairik, aboa iriki zuen, ta gazta abotik jautsi zitzaion.

Azpiko maltzurnak, axeriak, etzion par gutxi egin; ta gazta jaso ta basoan ezkutatu zan, gazteri txingarnak kentzera.

Arrokeria bide dala, edozer gazta galdu liteke

ELURMENDI

PERUTXO AAKUR

A ze mutiko taldea dabillen ikastola aurrean jolasean. Aien ardailla ta iskanbilla eztira txikiak. Irakaslea atetik begira dute. Alako batean ordua entzun da kanpantorreko ordularian eta Maixuak dei eglñ die mutiko biurriei bere txiliñakin:

makilla oiek eta sartu ikastolara... Baiña nun da Perutxo? Gaixorik al da?
Aitortxok bildurrez erantzuten dio:
—Kabi-billa joan da.
—Kabi-billa? Ai biurrikumea! Okerren bat gertatzen ezpazaio, pozik egon diteke.

Bitartean Perutxo, ikastolara etorri bearrean, an dijoa baso-aldera kabi usaian. Ikusi nola dijoan izkutuka kale-kantoietan bere burua gordeaz.

Alakotxea da Perutxo Makur, okerra ziara. Etxean beti ardaillan, istilluka ibilli oi-da. Aitak ikastolara bialtzen ba'du, Perutxo erre kara joango da Igari egitera. Amak erre kaura joateko esaten ba'dio, an dijoa kalean barrena ta txakurrei isatsetik ontzi zarren bat lotu ta errian barrena bialduko ditu zarata dari'ela. Ta gaur ere, ikastolara joan bearrean, basoruntz abitzen da ixil-ixillik. Bere poza kantuz ustutzen du:

"Egunero igandea ba'litza,
ai, gure poza ! Ai, gure poza !
Zelaietan bildul<o genituzke
milla larrosa, milla larrosa."

Perutxo'ri esan bear orduantxe eskolara joateko. Ortarakotxe zegoen ! Baiña zein dator ezkerreko bidetik?... Anton, Perutxoren aitaren laguna. Mutikoa estutu da. Ikusten ba'd'u, aitarengana eramango du ta gero etxean izango dira kontuak!

Arbola atze batean gorde da mutiko biurria Anton igaro arte, ta an dago geldirik zer gerta bildurrez... Orreatik! Pasa da!... Perutxo atera da ta ba-dijoa txistu joka bidean. Aren esanak entzutekoak dira:

—Aitor iñoso-ta bai zozoak! Ikastolan usteltzen an egongo dira. Ni, berriz, aize ederretan eta liburu aspergarri oietatik urruti! Au dek eguna! Aren kantak basora iristen danean!:

"Ikastolarik iñun ezpalltza,
ai, gure jaia ! Ai, gure jaia !
Nexka-mutikoz beteko lirake
kale ta kaia; kale ta kaia,

Maixu denak gaiixotuko ba'lira,
ai, gure dantza ! Ai, gure dantza !
AAundu guzian entzungo litzake
gure arrantza; gure arrantza."

Perutxo'ren poza bere piperreta artan ! Baso guzia beretzat eta txorien kantak nun-nai. Bereala jo du begiz zugaitz bat:

—Pago ortantxe egon bear du kabi batek. Ba-noa igotzera.

Geiagorik gabe, an dijoa mutiko biurria zugaitz adarretara. Antxe ikusten du kabi polit bat eta besterik gabe itxu-itxu eskua nun sartzen duanik ere begiratzeke, luzatzen du bere eskuia arrautzarik ba ote dan ikusi nairik. Baiña... zer da ura?... Gauza legun bat mugitzen asten zaio ta suge baten' burua agertzen da kabi ertzera.

Perutxo'ren kurrixkak basoa esnatu zuan:

—Ai ene ! Sugea ! Sugea ! Kosk egin dit!

Asi da arrantza batean igesi. Zer gerta zan?... Sugetzar miztordun bat arrautzak jatera goia egon kabian eta orratx gure mutikoa aren eldua-rekin larri garraxika. Eskerrak Perutxo'ren aita an inguruetan zebillenari egurretan! Arek entzun ditu Perutxo'ren deadarrak eta an dator bere semearenak d'irala igarrita:

—Zer dek deabru orrek ! Eskolatik piper eginda emen al-ebillean? Nik konponduko aut!

—Aita!... Aita!... Sugeak eldu dit. Aiii !, enee!

—Ez uan besterik merezi oker orrek ! Orain al dituk negarrak?

Artu zuan aita mutikoa ta azkar-azkar erriko sendagillearengana eraman zuan. Onek egin zizkion lenbiziko sendaketak eta an joan zan Perutxo etxera, burua ongi makurtuta, erriko mutiko ta nexkak ondoren zituala. Urrengo egunean Maixuak ederki erakutsi zien, ikastolatik igesi dabilenak ezuala azkenerako gauza onik. Eta jolasera atera ziranean, denak soka eginda, asi ziran jira-biraka eskuak elkarri emanaz kantari:

"Beti jai ba'litz, nork irabaziko
luke ogia; luke ogia?
goseak l'aster ondatuko luke
gure bizia; gure bizia.

Ikastolarik gabe ba'genitu
gure erriak; gure erriak;
besapizti biurtuko linake
gizon guziak; gizon guziak.

Ur guziak agortuko ba'lira,
ai, gure miña; ai, gure miña!
Nork garbituko ote liguke gure
musu zikiña; musu zikiña."

Ta bere eskua luzaro lotuta erabili ondoren, sendatu zan noizbait gure Perutxo Makur. Eta andik aurrera etzuan bein ere piperretarik egn. Ala ba'zan, sartu dedi'lla kalabazan.

ETXANIZ'tar NEMESI

PERU KAZKARROA

Peru burutu ezindako mutilla zan. Beti bere lagunekin asarratuta. Oso zan asarrekoa, ta lagunak emen edo an, bere nala egin bear zuten. Orregatik gutxi arkitu oi zituan. Gurasuak alperrik egiten zioten errietan; iñorgatik etzizaion ajolik.

—Neri iñork ez dlt adarrik jotzen! —Ori izaten zan bere erantzunik maitiena.

Orra, gero ta eutsi eziñagoa, azi zan. Etxeko mirabeak bildur zioten. "Zu ero bat zera!" "Zu txokilla!"... "Zuek ezertarako ez zeratel"... Auek ziran bere itzik gogokenak.

Baiña, bein, Pellipe izeneko morroi bat etorri zitzaion; eta Pellipe au ezerk *etzuan* bildurtzen; ezertan ere etzion Peru'ri erantzuten, eta beti' ixil-ixillik ondo iruditzen zitzaiona egiten zun. Peru'k ikaragarriak bota, eta berak esaten zun: —Pss! jotzen ez naukan bitartean!... Ire itz arro guziak ez ditek, ez nere buruko ille bat ere dantzatuko! Itoko aiz, bai, ainbeste deadar egiten; nik egin bear detana egin, eta or konpon!

Zaratarik aundlenak, ordea, bazkari bitartean atera oi zitoan. Batian baratzan jan nai zuela; bestian, andiko intxaurren-peatan; askotan toki baten jartzen zan, eta oso asarre beste batera aidatutzeko agintzen zun.

Bein maia eSxe barruan oso txukun jarri zioten. Pero etorri zan, eta itxoraz oso asarre. Jarri zan, ba, ez "Aitaren" eta beste ezer gabe; zapi txuria lepotik zintzilika ipiñi ta zopia artzen du; aora jaso ta imintzio miketxa egin ondoren, deadarka esan zon:

—Emen ezin ieike jan!... au adarra jotzia da!

Eta artzen du platera ta an zeak, kataplun! leiotik baratzara; arto zopa-ontzia ta, kataplun! leiotik bera.

Pellipe'k gozia ixillik entzun zion, baiña orain onelako txepelkeria ikusirik, aurrera da ta itrik egiteke, bere eginkizona ba'litz bezela, artzen dito beste platerak eta, an zioztik, kataplunba! baratzara..., eta ogia eta ardua ela beste mairako guziak! kataplunba! baratzara. Ao guzia, ezer izan ez ba'litz bezela, oso paketso ta azkar egin zon.

Pero arritorik gelditu zan, eta esan zion:

—Baiña, zu zer ari zera?...

—Barkatu, jauna —eranzun zion Pellipe'k—, nik baratzan jan naiko zuela uste nuan eta azkar egitearren, gauzak aruntz aldatzan ari nintzan.

Ara, Peru'ri, Pellipe'ren a'ldi onek eta egin zuan astakeria afn paketso egiteak, parre gora eman zion. Eta morroi arek adierazi nai ziona, belaxe asmatu zun. Eta bere mirabeei esan zien:

—Jaunak, barkatu; lkusi det kaiku izugarria naizela. Zozendoko naiz.

Arrezkero, oso bestera egin zoan. Oraindik bein edo beste asarrato zan, baiña ain sarritan ez. Andik geroago, oso otzana egin zan. Goziak maite zuten.

la ba, mutillak, ez kazkarroak izan!,.. Asarre zeratenian, arpegi itxusiago jartzen dezote!... eta gauzatan puskatzen dezute!..., baiña batez ere lagunetan galtzen dezute!...

SOLUXE

AIZPA ZARTXO BI

Aizpa zartxo bi bizi ziran bakar-bakarrik baserri baten. Gau batean gaixotu omen zan bata, ta esan omen zion besteari:

—Maiñasi, jaiki zaite; ez nago ongi, ta manzanillen ura egin bear didazu.

—Baiño, nola egiten da?

—Nola? Egosi zazu ura loreak barrenean dituela.

—Ta lore ta guzti ekarriko al dizut?

—Ez, emakumea; ura bakarrik katilluan, salda bezela.

Joan omen zan gure Maiñasi sukaldera, ta an egotaldi on bat egin ondorean, suari puzka ta puzka, agertu omen zan aizporen oe aurrean, lurrezko katiliu andi sopaz bete-betea eskuetan zuela.

—Baiña, Maiñasi, manzanillen ura sopakin? —esaten dio oekoak.

—Ez didazu esan, ba, salda bezela? —dio besteak—. Noiz artzen dezu salda, gatz, olio ta sopa gabe?

AZKUE (R. M.)

GEZURRAK GEZURRA SARIA

Bein batez, Goizerri aldeko errege aberats batek bere mendekoen artean adiskide bat autatu nai zuen. Baiña etzuen nolanaiko adiskidea nai; gizon zuur, zintzo ta asko-ikusia, ta batez ere beti egia esango zion bat nai zuen berexi.

Bear bezelako adiskide ori billatzeko, bere errian ziran bost gizon jakintsuenak beregana etorri-arazi ta esan zien: —"Gizon maiteak, zuen agotik egia bat entzutekp deitu zaituztet. Ona emen bost izarrarri eder auek! Urrez ederki jantzi ditut eta auek izango dira zuen ordain-saria. Esan zaidazue zintzoki, zer iduri zaitzuen nere ahalaz eta nere ospe ta omenaz".

Izar-arri aiek guziz eder ta aundiak ziran, izan ere. Gizon aietako lauek esan zuten beren baitan: "Arri eder oiek guretzat izango dira segurki, baldin erregea gora aupatu egiten ba'dugu". Eta alaxe, asi ziran erregea al zuten gorena aupatzen ta aipatzen, bere jaurgoa (erreñua) ain edatua zala, ta egundaiño etzala lurraren gaiñean ura bezelako gizonik agertu; ta olako beste zurikeri asko esan zizkioten. Jainkoa bera goraiatzeko agindu ba'litzaie, etzuten noski artaz aunditasun geiago esan izango.

Erregek lau izar-arri artu ta lausengari aiei bana eman ta etxera bidali zituen. Gero boskarren gizonari buruz, esan zion: "Eta zu zergatik zaude

ixiilik? Zergatik ez duzu nere ahalaz ezer esaten? Ots, mintza zaite zu ere ta esan zaidazu zere iritzia. Zer iduri' zaitzu?"

Gizonak erantzun zion: "Errege jauna, ona emen nere iritzia: Aurrena, zure ahal ori Jainkoak zaintzeko eman dizun ondasun bat duzu, eta Jainko berak eskatuko dizu noizpait kontu zorrotza, ondasun ori ongi edo gaizki zaindu duzun. Gaiñera, ez uste izan, erri asko menderatzean ta aberastasun aundien jabe izatean dagola egiazko omen ta ospea, ez; orrelako ospe ta omena mengel, utsal, ilaun ta iraupen gutxikoa duzu. Agintari baten eginbideak zintzo betetzean dago egiazko omena. Orregatik zure ahal guziaz saia zaite, zure mendekoak zoriontsu egiten, orixe baita zoriontsu izateko bide bakarra".

Erregea poztu zan biziki erantzun ortaz. "Auxe da nik bear dudan adiskidea" esan zuen bere baitarako; eta gero, onela mintzatu zitzaion gizonari: "Ederki esana ! Zuri ez dizut ala ere boskarren izar-arri au emango, bai ordea onek baiño geiago balio duen zerbait: nere adiskidetasuna. Geldi zaite nerekin, zu izango zera nere adiskide ta nere barrukoa, zu zera nik billatzen nuen gizon egi-esalea".

Biaramonean, lau gizon lausengari aiek etorri ziran erregeagana ta esan zioten: "Jauna, ederra sartu dizute! Izar-arri auenj saltzailleak iruzur (trampa) egin dizu. Auek ez dira izar-arriak, kristal puska txukunduak besterik ez dira".

—Ez orixe —erantzun zien erregeak irriparez—; saltzailleak ez dit iruzur egin; nik ez nion ari izar-arriak eskatu, kristal-puska txukunduak eskatu nizkion ta alakoak saldu dizkit berak. Zuek gezurrezko gorai-pamena eman zenidaten, ta nik ordaiñez gezurrezko izar-arriak eman dizkitzuet; gezurra gezurrez ordaindu dizuet. Zoazte ixil-ixilik etxera, geiagoko errenkurarik atera gabe; gezurrezko zurikeriari gezurrezko ordain-saria zor zaio, ta ez besterik".

Ori esanez, bidali zituen andik lau gizonak.

URTSUIA

lpar-aizea legun,
gaua dago izar:
zugandik urrun, kezkaz
egiten dut negar.

Eresi bat dagizut
zuretzat bakarrik:
negar malkoz gafiñezka,
ametez beterik.

Gaueko izarpean
ba-doa egarin:
zure biotz barrua
du kabi maitemin.

ZAITEGI'tar JOKIM

NEKAZARIA TA IDISKO GAZTEA

Nekazari baserriko batek zedukan idlisko mardo, baiña alper ta ezi gabea. Uste izan zuen jabeak askiko zala ezitzeko uztartzea idi paketsu ta bearrera oituarekin. Ikusi zuenean idliskoak lepoa gatigu, asi zan orroaz, ostikoka, indarka, ta bota zuen uztarria ugalak urraturik. Ikusirik nekazariak idiskoaren uzutasun ta ezi ezlña, lotu ziozkan oliñak, ebaki ere bai adar biak zorrotzak zeuden aldetik, ala adar motzekln iñori gaitzlk egin etzegion. Uztartu zuen berriz. Idliskoak urratu zituen lokarriak, ateratzen zuen lur autsa jabeari itxuerazitzeko bezela. An ziran putzak, an ostikoak, an orroak, an aoko pitsa ! Aserratu zitzalon nekazariari, ta dliotsa:

—Idlisko zoratua: eglñ diat alegiña ezitzeko ire arrotsauna; ez ziangok iretzat ez uztarri, ez ugal sendorik; laguna galtzeko asko aiz; lotsarik

gordetzen ez diok jaten ematen dianari. Alperrik izango dira nere neke berriak; berdin ez zia gok iretzat ezibiderik. Bada nik kenduko diat betiko ta laster, ere arrotasuna; eramango aut aragitegira, ta epaillaren maillu gogorak beratuko cfik burua.

Ipui onsk dio, gazte uzu, natu txar, ta aziera gaiztokoak, berandu, nekez, ta askotan iñoiz ere ezi ezin dirala. Zigortada, agirika ta beldurgarri guziak alperrak dirala. Idiskoa gorpuztu, mardotu, ta zezendu bada, jaikiko da jabe berarerik kontra. Onelako gizasemeak bakarrik ezi oi dira, edo pre-sondegi gogorretan edo obeto, urkabean. Ala bada txikitxotatik eman bear da aziera ona, aurtxoak zigortxoak ikusita beldurtzen diranean. Orregatikan.

Gaizto gogortuaren ezibidea
Da urkabera eramatea.

BIZENTA MOGEL

J A K I N G A R R I A K

1. —Zenbat metro daukate Aitzgorri'k eta Ernio'k?
—Aitzgorri'k, 1.544; Ernio'k, 1.072 metro.
2. —Zenbat erri dira Euskalerra'ko zazpi probintzietan?
—712.
3. —Zenbat euskaldun gera?
Jaiotzez, zortzi milloi edo, mundu zabalean.
4. —Zenbatek egiten degu euskeraz?
—Atzo, milloi bat inguruk. Gaur...

ARZALLUZ'tar MIKE,

OSTATU ESKE

Bein batean ba-ziran senar-emazte batzuek, eta bazuten seme bat eta alaba bat. Baso ondoko etxe txikitxo batean bizi ziran. Gizona egur egiten aritzen zan, eta ola ateratzen zuen, nekez bada ere, guzientzako bizibidea

Abendu-arrats batez, guraso ta umeak sukaldean eseriak zeuden goxoki, beren aparitxoak egiten. Kanpoan elurra ari zuen gogorik, eta aize zakarrak etxeko pareten kontra botatzen zuen azkar elurra. Beingoan norbai tek jo zuen "kax-kax" Jeioan, eta mintzura ezti batek otsegin zuen karrikatik: "Aif Zuen etxe ortara sartzen utzi nazazuel Aurtxo gaxo bat nauzue jatekorik ez aterberik eztut, goseak eta otzak il beldur naiz. Ai!, utzi nazazue sartzen !"

Etxeko bi aurrak, Mikel ta Maritxu, alkitik zartadan txutitu ta atea zabaldu ta esan zioten: "Sar zaite, aurtxo gaxo ori ! Gu gerok ere beartsuak gera, ezer gutxi dugu, baiña ala ere zuk baiño geiago bai. Dugun pixka ortatik pozik emango dizugu zuri". Aurtxo arrotza sartu zan barnera, su ondoan jarri ta bere gorputz kikildua berotu zuen. Etxeko aurrak jatera eman ta gero esan zioten: "Nekaturik zaude noski, gaxo ori; atoz, gure oetxoan etzan zaite, guk sukaldeko zizailluan egingo dugu lo".

Aurtxoak esan zien: "Eskerrik asko! *Nere* aita zerukoak d'izuela ordain'du !"

Eraman zuten bera beren gelara, oean sartu ta poliki estali zuten, birtartean beren baitan gogoeta auxe egiñez: "Gu ederki bizi gera argatik, gaxo onen aldean ! Guk sukalde ta oe beroa ba-dugu beintzat; aurtxo onek berriz ori ere eztu; zerua aterbetzat ta lurra oetzat besterik eztu".

Gurasoak lotara ziranean, Mikel ta Maritxu ere etzan ziran sukaldeko zizailluan eta alkarri esan zioten: "Pozik al dago orain aur arrotz ori, alako oe guri beroa duelako! Gau on!"

Bi aurrak lokartu ziran; baiña andik bizpairu orduren buruan Maritxu esnatu zan, ta bere anaia poliki iratzarri ondoan, esan zion: "Mikel, itzar adi, itzar! Entzun, zein soifnu goxoa dan gure leio aurrean!" Mikel'ek bere begiak igortzi zituen ongi esnatzeko, eta adi adi jarri zan. Baiki, soifnu ta kanta goxoak entzun zituen beren etxe aurrean. Eta garbi-garbi aditu zituzten onako itz auek:

Aur sandua, agur dagitzugu
soiñu ezHz
ta eresiz!
Aur sandua, goxoki lo zaude,
bitartean
emen gaude
gu zure zai gau beltzean !
Oi, bai dala doatsua, zuri
ostatua
eman dizun
etxe ori !:
zorionez beteko da !

Bi aurrak ori entzutean, poz-ikaratu ziran; jaiki ta leiora atera ziran, kanpoan zer ote zan ikusteko. Eta ara zer ikusi zuten: Eguzki alfean zerua gorri-gorri zegoen, eta beren etxe aurrean aur-multzu bat, beren eskuetan urrezko musika-soñuak zituztela. Ikuski'zun ortaz arriturik leiotik kanpora begira zeudela, norbaitek ukitu zituen bizkarrean; burua atzera itzuli zuten, eta ara l, aurtxo arrotz ura beren aurrean zeukaten.

Len ez bezelako itxura zuen orain ordea; urrezko soiñeko dizdiz bat zuen jantzia, buruan koroe eder bat zeraman, eta onela mintzatu zitzaien:

"Jesus Aurtxoa nauzue, munduan barna nabil ara-ona. Lagun-abarreko aur bat nintzalako ustean, gaur ostatu eman didazute; nik, ordaiñez, zorionez beteko zaituztet bizi zeraten arte ta gero sekula guzian. Eta kristau gaxo onbear bati ongi egiten dioten guziak, neri Jainko Aur beartsu oni egiten didate; eta nik emango diet ordain-saria gero zeruan".

URTSUIA

LAGUN GAIZTOAK

Leonardo Vinci nor zan bai al dakizue?... Ez? Entzun, ba, ta berari gertau zitzaion zertxo bat esango dizuet.

Italiarra zan bera: bizitza, margozten edo pintatzen igarotzen zitzaion. Berak egindako gauzetatik ederrenetako bat "Kristo'ren azken-aparia" da. Baiñan au egiten ari zala, ara zer gertatu zitzaion.

ori egiten ari zala, bi arpegi nola margoztu iñola ere ezin asmatu;' Kristoren edertasuna, ta Judas'en tankera itxusia zapran ezin ezarri.

Orduantxe, Leonardo ainbeste gora-beraz nekatuta ibillaldirxo bat egi-tera atera zan.

Ba-zijoan, ba, Jesukristoren edertasuna nola azaldu asmatu eziñik, eta... begiak jaso... ta aurrez aurre mutil gazte bat. Gazte aren arpegia apaltasun, otzantasun eta beste edertasunez apaindua ikusi zuan. Leonardo'k esaten dio:

—Sari onez, gazte, nai al zenuke pixkabat itxaron, nere buruan egin eziñik darabillkiten margo edo pintura baten zuzengaitzat nai zaitut-eta?

—Bai, jauna, ori besterik ez ba'da beintzat.

Leonardo'k gazte aren arpegi edertasunik egokienak Jesukristoren iru-dirako aukeratu ondoren, pozik etxeratu zan.

Onela errex amaitu zuan Jesukristoren irudia; baiña urte guziko lan egitez oso nekatua omen zegon, eta udara erritik urrun igaro zuan. Udazkenean, berriro etxeratu ta ekin zion bere lengo lanari. Orain Judas'i ekin bear!

Arratsalde bat zan: ibillaldi bat egiteko asmoz atera zan eta orduerdi barru bide baztarrean, gizon itzal bat... Urreratu zan eta lurrean zentzu gabe gazte mozkor bat. Berei aotik apar beltza... eta bere soin guzitik usai zikiria... buruko illeak nastuta ta narraxki. Uraxe bai zala griña-txardun giza-irudi benetakoa!

Leonardo'k ikusi ta bat-batean bere buruan Judas'en irudia egin zitzaion. Artu zuan, ba, besoetan eta etxeratu zuan, Gero, Judas'en irudirako gazte aren arpegia aztertzen ari zan; baiña, ara nundik-nora arpegi uraxe zan len berak Kristo'ren begitartea eratutzeko zuzengaitzat artu zuana.

Auxe bera gazteari adierazi zion eta orduan gazte begi-ezkelak erantzun zion deadarrez: "Ai I, lagun gaiztoak txartu ta galdu naute". Gero Leonardo Vinci'ri bere izakeraren sorburu negargarria azaldu zlon eta arrezkero bere gaiztakerien zorrak, bizitz on bat egiñaz ordaindu zituan.

Lagun gaiztoengandik iges egin, bestela laster galduko dezue zuen oiña ta baita zuen gogo edo anima ere. Iges, bai iges, egunen batean negarrez ikusi nai ez ba'zerate.

SOLUXE

IGELAK ETA EGUZKIA

Txanda luze batean, eguzkiak kixkali bear zituen bazter guziak. Beroaldi zakarrak ziran ordunixe. Nork irozo? Alderdi guzitan, jendea beroaren errenkuraz zebillen. Osiñak eta iturriak igar, ta igelak azkeneko asnasa emateko zori txarrean zeuden noski!. Ontan eguzkiaren eztaiak gatzigatu ziran.

Aibista zabaldu zanean, igel guziak marruka asi ziran. Eguzkiak galdetu omen zien:

—Zer da? Zerk jarri zaituzte orrenbesteko karraxietan?

—Zerk? —erantzun omen zion igel batek—. Oraindik ere zureak geigo? Zure bero kixkalgarrak ito ta lertu bear gaitu. Emen gaude asnasa ezin arturik. Zure bakarreko indarra ozta-ozta daramagu, ta orain ezkontzea otu al zaizu? Semeak izaten dituzunerako, bizirik jaiuak gaude! Guetako guziak zeon paderetan txigortuko gero noski.

Gaizkille batek gaitz bat; gaizkillearen sendiak, lau gutxinaz.

EULRMENDI

TXARDIN SALTZAILLEA

(DESDE SANTURCE A BILBAO bezela abestu liteke)

Treiñerua itxasotik,
goizlan goiz aldera,
txardiñaz bete-beterik
etortzen zaigu kaiera.
Otarretxua gaiñezka,
asten naiz indar guziaz
kale zear deadarrez:
Txardin bizi-bizia !

Nere txardiñak,
zillar urdiñak,
itxas gizonen
atsegiña !

Ikus zazu, andretxoa;
auxe da txardin bizia !
Amazazpi errialian,
ez dala ez garestia.
Arraultze bat, e? Zer da, ba?
Zer duzu, ene maitia?
Amar errial ordainduta...
Sabela gosiak !

Nere txardiñak,
zillar urdiñak,
sukaldekoen
atsegiña!

Jetxi zaitetze laisterka,
jetxi, etxeko andreak;
etxean negarrez ditut
utzita nere umeak...
Errial baten gora-berak,
lenago bezarin pobreak
uzten gaitu, zoritxarrez,
txardin-saltzailleak !

Nere txardiñak,
zillar urdiñak,
saltzaillearen
atsegiña !

Txardiña-txardiñ !, oiuka,
txardiña bizi-bizia !,
gora ezagun guziok
euskaldunaren erria,
itxaso ertzian degun
arnantzailien kabia:
indar guzietz dezagun
Gora Kantauria !

Nere txardiñak,
zillar urdiñak,
Kantauria'ko
atsegiña !

—Zenbatean?...

—Atoz, konponduko gera;
auxen bai dela aukera !

—Errialian?...

—Zer errial ta errial ondo.

Xurra zerala ezagun do:
arrantzaliak egundu
dirurik ez du egingo.

(Andre mutur-motz alena,
merkea nai du bestena !)

—Zortzian!, baiña bizi-bizia.

—Ez, ez errial bi *nere* eskeiñia.

—Ez zait bada neri komeni;
beste bat arte, andre Eujeni.

Txardin biria,
eder-ederra !
Nere txardiñak,
zillar urdiñak!

—Zenbatean?

—Atoz, konponduko gera.
Zu zeralako, ogeian.

—Ondo; ba-nator abian.

(Auxen bai dala maukera !)

SEKRETARIO JAUNAK TXERRIA IL

Amezketako Sekretarioak, Gabon aurreko egun batean txerri aundi bat il zuan, eta egun berean deltu zion Fernando'ri eta esan zion: —Aizu, Fernando; zu, gizon argia zera ta gauza bat esan bear didazu. Txerri aundi bat il degu eta neuk, urtearen buruan, odolki ta lukainka ta txerri-sari asko artzen ditut, eta ba-dakizu, neuk ere orain eman egin bear...

—Bai, jauna, artuak emanakin sabore.

—Bai, baiña, nik eman gabe pasa nai nuke; neuk artu ditudan etxe danetara bialtzen asten ba'naiz, txerri gabe geldituko naiz-ta.

—Ez eman iñori ezer, eta kito.

—Bai, baiña, ez nuke erritarrakin gaizki gelditu nai ordea. Orregaitik deitu dizut, eta zuk asmatuko dezula, uste det zerbait, iñori ezer eman gabe danakin adisklde gelditzeko modua.

Eta Fernando'k erantzun zion: —Asmatu ez? Bai, jauna, bai, asmatuko degu. Erraz ala ere. Ara: orain, berialaxe —goizeko zazpirak ziran— exeki beza txerria soka bategaz, goiko balkoitik, eta egun guztian ala euki, erri guztiak ikusi dezan; illuntzian ere ez artu presa aundirik sartzeko, eta zazpirak aldian ixrl-ixillik sartu barrura eta gero, txerria txintxilika egon dan lekutik ostu egin dutela esan, eta mund'u guztiak siñistuko dio. Nola ez bada?

—Aizu, arrazoa daukazu; orrelaxe egingo degu.

—Bai, jauna, bai; ez dauka orretara iñori erregalorik eman bearrik, eta datorren urtean ere, iñork ekartzen dizkion erregaluak artu, eta... aurrera.

Fernando'k esanda bezela, txerria exeki zuten balkoitik, eta egun guztian an egon zan. Bien bitartean, sukaldean, odolkiak eta buzkantza egiten jardun zuten, pozik, iñori ezer eman gabe libratuko zirala-ta, Sekretarioaren emaztea, guztiz zekena bai zan. Al izan ba'zuan, tximinitik gora zijoan kea ere gord'e egingo zuan, emakume arek. Bere burutazioa izan zan txarria il ta iñori ezer eman gabe libratzea.

Ara, ordea, zer gertatu zan. Zazpirak baiño lentxoago, Fernando etorri zan bere etxetik, aiztoakin; ebaki zuan soka, ta txarria bizkarrean artu ta iñork ikusi gabe, ta etxeakoak ezer entzun gabe, bere etxera eraman zuan txerria. Gau illuna zan guztiz. Orduango zazpirak zazpiretan izaten ziran eta ez orain bezela seirak.

Sekretarioanean txerria sartzeko asmoak artu ziranean... txerririk ez. Asi ziran arrantzaka, lapurrak eldu zirala-ta, txerria eraman zutela ta orroa batean; baiña... txerria palta.

Pernando'k, txerria etxeratu zuanean, esan zion emazteari: —Aur txikia eraman ezazu zeure aizpa Ana Prantziska'nera, eta arin etorri. Emaztea etorri zanerako Pernando'k txerria seaskan ipiñ zuan eta ondo estalduta, sukalde bazterrera eraman eta emazteari esan zion: —Zu emen egon ni etorri artean, seaskari eragiñaz eta aurrari kantatuaz. Au esanda, Sekretarioan etxera juan zan. Atetik aurrera igaro baiño len, onek esan zion: —Pernando, txerria ostu digute.

Eta Pernando'k, serio-serio: —Ederki esaten du, jauna, ederki esaten du. Orrela esaten ba'du, siñistuko diote.

—Baiña, Pernando, ez naiz txantxetan ari; benetan ari naiz, txerria eraman egin digute.

—Orrela, orrela esan faear du, egia ba'litzake bezelaxe.

Azkenez, Sekretarioak esan zion: —Pernando, nik zure etxean srtu-erten bat egin nai nuke ba—. Sekretarioak pentsatu zuan bera izan ote zan.

—Bai, Jauna, bai; berorrek nai duanean, orain bertan nai baldin ba'du. Guazen, baiña aguazilla ere bear degu, bai dakit zertara dijoan da.

Irurak *Pernando'n* etxera eldu riranean, andrea, seaskari eragiñaz aurrari kantatzen zegoan.

Nere aurtxo polita,
Zeruan zer berri?
Zeruan berri onak
Orain eta beti.

Etxe guztia ikusi zuten, okoillu ta ganbara eta sapaia ere bai; baita etxe inguruak ere, bakoitzak parol banarekin, baiña txerririk ez zuten aurkitu.

Eta Pernando'k, agur agiterakoan, Sekretarioari esan zi'on: —Eta, Don Belantzio jauna, urrengo txerria iltzen duanean, ez gero neri ezertarako deitu, ez naiz juango ta.

JULENE AZPEITIA

OSTROPEKO SAGARRA

Amaren magalpeko neska txiki arek lo egiten zuan gela aurrean, amaika aldiz sagar-ale mardulez bete-beterik lkusi izandako errege-sagarrondo bat ba-zan. Sagarrondoak arek urte askotxo zituan; adarrak ere zabal eta aundiak.

Sagarrondo onek, bada, urtero beste bere lagunak buru-arin eta esku-utsik izan arren, beti bere besoak aztuntasunez be-bera eratxiak izan oi zituan. Baiña, nolako aleak ematen zituan gero!

Etxeko Juan txikik eta Toniasatxo'k bazekien amak etzuala nai sagarrondo ari ikutzerik ere. Aiek ere, Jaungoikoak Adan'i bezela, esanda zeukaten beste guzietatik jan zezazkiela, baiña errege-sagarrondo ari geldirik uzteko.

Jakiña, sagar aiek oso aundiak eta ederrak bai ziran! Gaiñera, lasto artean illabete bat edo beste egon ondoren, aiek izaten zuten usain goxoa! Norbait etxera zetorrela?.. errege-sagar-aleak aurrean jarri, ta gizon arek edo emakumea ba'zan berdin, alearen aundia edo usaiñaren biguña edo goxoaren xamurra, zer geiago goratu asmatu eziñik izaten ziran.

Etxeko bikotx politikak ere ba-zekian bai aien berri. Juan gaiztok, bein baiño geiagotan, ganbarara artara edo ontara bialtzen zutenean, abi txuloa aspalditik zekian nun zegon, eta ixilka-mixilka ta oin-muturka lastopean ixil-ixil eta geldi-geidi lotan zeuden bere sagar maitiegana urreratzen zan... gerría makurtu, lastoa gaiñetik kendu ta andik zetorkion usain goxoak ao zabalka laga oi zuan. Gero ganbara zabalari begi beltz aiekin jira egin... eskua luzatu... sagar-ale mardulari eldu ta, txirrist... bat-batean eskutik praktako zuloan bera... Sagar aren utsuna, aruntzagokoaz estali ta ezer gertatu ez ba'litz bezela, tapa tapa esandakoa egitera joaten zan.

Baiña sagarrak oraindik adarretan zintzilika zeudela?... Juan galztori, ale aiek ikustean, mingaiña ao-sapaian eta ortzak ere biguntzen zitzalzkiola deritzat.

Begi zorrotzez iñork begiratzen zion ikusi, arri biribil bat eskupetu ta txistuka ba-zijoan. Urreratzen zanean, alerik ederrenari maiteki kiñu egin... eskua jaso, arriak iges egin eta lurrera dingili-dangala txorta ta guzi zetorkion sagarra artu ta iturri-bide gora urrutiratzen zan; geroxeago etzan sagar orixaren aztarrenik izaten.

Tomasatxo'k, etxeko neska txikienak ere maite zituan ba sagar aietxek. Gaiñera, bere lo-gela aurrean azi ta bizi etzan, ba, bere sagarrondo maitea?

ale eder-askoak eman izan zizkion.,

Bein errege-sagarrondoa oso motz zegon sagarrik gabe, aurreko egunean bildu zizkieten-da. Batutzen ari ziran bitartean, Tomasatxo'ren begi argi txikiak pozik ikusi zuten ale aundi ta eder bat benetan, ostrope ezkutuan zegoala. Aitaren eskua etzan, ba, beragandik urruti izan, baiña azkenean Tomasatxo'k ikusitako sagarra ixil-ixillik eta poz-pozik ostropean gelditu zan<

Tomasatxo'k aitari ezer ere elzion esan. Geroago, bere anai Juan'i esateko gogoak egin zitzaizkion, baiña baezpare, beretzako nai zuan sagar uraxe ta mingaiña giltzapean jarri zuan.

Egun artan Tomasatxo'k ostropeko sagarraren edertsuna gogoratuaz, loak artu zuan eta gero, ostropeko sagarra bere eskuetan amari zeramakiola ames egin ere bai. Ene, bai ederra zala, errege-sagarrondo aren ostropeko sagarral

Goizean eguzkia bere oe txuriraiño etorri zitzaicnean, esnatu ta laisterka leioratu zan, ostropeko sagarra ere lotan zegon edo arrapatu ote zuten ikusteko.

Leioa iriki, ta... sagarrari begiratzeko astirik ere etzuan izan. Aurrez aurre ta begiz begi iturrira uretara zijoan berc amarekin jo zuan:

—Baiña, zer dabilkin or? —esan zion amak.

—Ama, sagar ori artuko al didazu? —galdetu zion, leiotik esku txuria atera ta ostropeko sagarra erakutsi naian.

—Ia, txorakeriak utzi ta agudo jazten aizenan, iturriko orak jaso bear ditun-da.

Andik ordu laurden batera, esku banatan txarroka ura zekarrela, neka-neka eginda, errege-sagarrondb azpian gelditu zan. Beso bat sagarrondo gerri-jiran, eta gora begira. Bai, antxe zegon sagar-alea. Bera bezela ura ere gau guzian lotan egon zan. Ames ere egin ote zuan? Tomasatxo'ri iñoiz bezin aundi-ori ta eder zeritzaion.

Orrela zegoala gora begira, etxe atzetik aita zetorrela ikusi zuan, Tomasatxo'k aita ikusi orduko, berari begira esen zion:

—Aita, gauza bat artuko al didazu?

—Ze gauza den ori?

—Ara, artuko didazu, ba... orko sagar ori?

—Or etzegon sagarrrik, neska.

—Bai, bat an nun dagon ostropean.

Aitari, bere alaba txikia alan ikusita, biotza bera-bera egin; zitzaien. Joan zan, ba, artu ta eman zion ostropeko sagar-ale aundia. Tomasatxo'k bsre eskuetan gabeko amets osoa zeramala ta pozik laisterka amarengana joan zan.

—Emen, ama, aitak artu dit —esanaz, sagarrari amaren mantalera erortzen utzi zion.

Laister etorri zan Juan txiki ere ta Tomasatxo'ri erdia eskatu zion. Amak bere magalpeko alabaren biotza ezagutu nairik:

—Biontzat orduan, e?...

Tomasatxo'k: —Bai, biontzat... erdibana.

Amak erdibitu zuan eta... Jesus!... ar aundi bat barruan. Neskatoari naska egiten zion onelako mamuak, eta arrituta galdetu zuan:

—Baiña, ama, ori nola leike, azalean zulorik ez, eta alan ere barrua arrak jota?...

Amak ere zer erantzun ezin asmatu zuan, eta sukalde txokoan gosaltzen zegoen etxeko seme zarrenak, esan zien:

—Nik, oraindik aspaldi ez dala, apaiz jakintsu bati entzun nion gai onezaz beraz. Sagarrondoak loraz dagozanean, batez ere euria egiten ba'du, lora barrua omen zaio arrari tokirik egokiena arrautsak egiteko ta antxe ipintzen omen ditu; gero arrautza oriek sagar barruan gelditzen dira ta, ordua danean, jαιο ta... or ar beltzak sagar barruan, azaletik zulorik egin gabe.

Tomasatxo'k bere ames-sagarra etzuan jaterik izan, baiña amak aren orde z apalpean zeukan aundi ta ederragoa ordaiñez eman zion.

Amak, ostropeko sagar erdi-bitua eskuetan zuala, seme-alabari begira:

—Ene biotzekuok: sagar onek gauz asko erakusten dizkitzue. Zenbat ote daude azalez ondo, baiña barrendik arrak jota? Askok ataria txukun, baiña barruak ustelduta. Asko kanpotik ondo jantziak, barrutik ordea arrez josiak. Arrak nundik sartzen dfran? Ara, nere semetxuok: askok gurasoen esanik ez dute egiten eta gero xirri-xarra ar beltzak barruan; besteak lagun txarrekin ibiltzen dira ta kisk eta kask arrak biotzean; ez gutxi ere, toki gaiztoetara ba-dijoaz, ta etxeratzekoan, ar beltz-aundiak barruak jaten. Zenbat dauden arrak jota!

Ikasi, bada, ostropeko sagarraren erakutsiak.

SISTIA

IXAKA ARTZAINTXOA

Pozik zebillen egun artan Ixaka artzaintzoa. Bere lagun?k ere nabaitu zioten bere barreneko poza, baiño etzekiten zergatik *zan* Ixaka'ren poz ori.

—Zergaitik abil ain pozik gaur, Ixaka? —galdetu zioten—. iñoiz eztiagu ikusi ez nabaitu ire arpegiarf gaur bezelako pozik.

—Neronek ere etzekiat, mutillak, zer gertatzen zaidan —esan zun parrez ixaka'k.

—Oso gazte aiz, oraindik aurtxo bat, baiño neskatxa liraiñen bat sartu dala ire biotzean egingo nitek —esan zun beste lagon batek.

—Bai zera!..., eztiat uste olakorik —zion besteak.

Eta guziak parre zegiten Ixaka'ren lepotik. Guziak ere alai ta pozik zebiltzan egun artan, inguruetakoa landak elurrez txuri-txuri egon arren. Aien artean, artzai artean geienetan gerta oi danez, etzan bat ere gaiztoa; guziak ziran biotz oneko mutillak, guztiak Jainko bildurpean aziak; orregaitik Ixaka'ren lepotik parre naikoa egin arren, etzan aretan itz txar bat ere aitu. Nai zutena zesaten guziak, baiño beren esan guziakin etzuten iñor iraindu. Olako mutillak bear genituzke gaurko'egun zorigaiztokoetan!

—Ez dek aitzen, Ixaka, ire poza dala ta ez dala mutil oiek desatena? —galdetu zion Matias zeritzan artzai zarrenak.

—Bai, mutil, aitu dizkiat nire lepotik parre egin nairik esan dituzten gauza guziak; batek ere ez dik, ordea, igerri nondik datorren nire gaurko poz eta alaitasuna.

—Nondik edo zergatik dek, ba? —galdetu zion ordun Matias'ek.

—Esan zak ba, aguro, gu agoa zabalik euki gabe —jardetsi zion beste batek.

—Bai, mutillak, bai. Zuek nere arpegian dakusazuten poza barren —barrendik zetork. Gaur goizean nere artaldeakin mendik zear nentorrela, emen dik urxamar, andre zpragarri bat aurkitu diat bidean. Bere aroitasunak eta batez ere bere edertasunak lilluratuta, txoraturik utzi natxiok. Eztiat egundo ere andre berdiñik ikusi, ezta ikusiko ere, nire ustez. Gizon on bat zetorren berakin, bere senarra noski. Bideak galduta edo zebiltzala iduritu zaidak, eta orregaitik berai itz egitera urreratu nauk.

—Egun on, gazte —esan zidatek, nik ere "egun on" erantzunik.

—Nondik zatozte ta nora zoazte, jaunak? —galdetu nik orduan. Ta ona emen beren erantzuna:

—Nazaretarrak gera, baiño gure aitonak Belen'tarrak baitziran, gu ere Belen'eraño etorri bear, Erroma'ko Kaisar'en aginduak betetzera. Belen'go uritxoan senide asko ditugu; senide oien etxeetan abegi onez artuko ginduzten usteakin etxe oietara' jo degu, gure uste oiek ordea ustel irten zaizkigu, eta Belen'go uri guztian atear itxi dizkigule, gure senidetasuna ta odola ukatuaz. Belen'dik gatoz eta etxe zarren bat edo txabol oietakoren bat nun dagoen, esaiguzu, arren. Guk Israel'go Jainkoarengan jarri degu gure itxaropen osoa, ta guregan ardura berak artuko duela deritzaigu; baiño zuk ere lagundu al ba'diguzu, jaunak sarituko zaitu. Bestela ementxe elurtzan lo egin bearko degu gabean, eta otzak ilgo gaitu.

—Ez, jaunak, etzerate otzez ilko —esan diet—. Antxe eskui aldeko muiño aren guenian dago nire aitonaren txabola zartxo bat, eta antxe igaroko dezute gaurko gaba. Biar goizean elduko naiz ara zuen billa, andik nere gura-soen etxera eramatera.

—Eskerrik asko, gazte, —esanda, nere aitonaren txabolara abiatu dira. Orduntxe asi da *nsre* poza, ta barrena, batez ere biotza, poz orrekin belebeterik nabaitu det. Zuek an egon baiziñaten ere, berdin gertatuko zitzaizuten, nere ustez.

—Ordun, biar goizean, andre zoragarri orren edertasuna erakutsi bearko diguk, Ixaka, ez dek ola? —galdetu zion Matias artzai zarrenak.

—Bai, mutillak, etorri nai dezutenok, eta ikusi iñoiz ikusi ez dezuten edertasuna.

Pixkanaka-pixkanaka illuntzen ari zan, eta gaba ere laster eldu zan. Belen uritxoa paketsu zegoan, biztanleak eta oien senideak lotaratu ziranean. Inguru guziak elurrez txuri-txuri ageri ziran, eta landa aiek maindire zabal-zuri bat zematzen. Gure artzaintxoak ere beren artaldeak txabolaratu ustean loak artu zitun. Oro ageri zan txuri ta paketsu. Muiño gueneko txabol zarrean argi txiki bat ageri zan; an zeudenak etzeuden >b noski. Goizean Ixaka'k mendi bidea arkitu zitun senar-emazteak ziran an zeudenak. Oso nekatuak baitzeuden ere, Jainko aurrean belaunikatuta otoika ari ziran andre zoragarria ta bere senar ona. Onctan zeudela gaberdia iritxi zan; ta bat batean ortze ta lurra argi argi agertu ziran. Inguru aiek txit argi ta zuri zeuden, batez ere muiño azpiko txabol zarra; esan zitekean eguerdiko amabi-ama-
biak zirala ta eguzkia bere gorenko maillan zegoala.

ederrari begira. Gutxien uste zuanian, andre ederraren aurrean eguzkia baiño argiago zan Aurtxo bat agertu zan. Artu zuen andre ederrak eta lastoz beterik zegon askatxo baten jarri zuen Aurtxo berria. Aurtxo ederraren argiaz inguru guztiak argitu ziran eta ortzean aingeru txuri ederrak egaka agertu ziran abesti gozoak abesten. Olako gauza ederrakin gure lxaka txoratu egin zan eta pozaren pozez esnatu ere bai. Orduko, bere lagunak esnatuta zeuden; argi txuriak eta aingeruen abesti xamurrak esnatu zituzten, egi gozoak baitziran lxaka'k ametsetan ikusiriko gauz eder guziak.

—Esnatu zaitetzte, jeiki zaitetzte, poztu zaitetzte —esan zien aingeru aietako batek—; etorri baita zuen asabai aginduriko Mesias. Poztu zaitetzte, artzaiak, jaio baitzaizute ainbeste gizaldiz itxaro diozuien Azkalea. Joan zaitetzte an eskuiko aldean dagon muiño azpiko txabol zarrera, ta antxe idoroko dezute abere artean, askatxo baten, lasto batzuen gaiñean zapitxo batzuekin batu... Joan ara ta gurtu zazute.

Eta itzok esan ostean aingeru txuria, berriz ere, beste lagunen artera egatu zan. Eta berriro entzun zuten artzaitxoak aingeruen abesti xamurra: "Alntza Jainkoari Zeru goietan, eta gentza izan bedi biotz oneko gizonentzat..."

—Nik ametsetan ikusi detan Aurtxoagatik dirala gauz eder guziok ingo nitek —esan zien lxaka'k—; eta nik atzo goizean idoro nitun andre ederra ta gizona aur orren guraso zorionsak dirala ere jokaturiko nitek —jardetsi zuen.

—Eraman gaitzak ba, aguro, Aurtxo eder ori ikustera —esan zion batek.

—Baita atzo ainbeste aldiz aitaturiko andre zoragarri ori ere ikusi bear diagu —beste batek.

—Bai, mutillak, nik ondo zekizkiat arako bideak —esan zien lxaka'k—; baiño zer eramango diagu Aurtxo berriari eskeintzeko? —galdetu zien beste lagunei.

—Gure arkume polit-biguñenak —erantzun zun Matias artzai-buruak.

—Ederki oldoztu dek, Matias —esan zun lxaka'k—. Billatu di'tzagun bakoitzak gure arkume ederrenak eta eraman ditzagun Aur Mesias'eri eskeintzeko.

Eta esan ta egin; bakoitzak arkume ederrenak idoro ta berezi ostean, muiño gueneko txabol zarreko bidea artu zuten, ta lxaka gaztea bi'de-erakusle zalarik, laster iritxi ziran txabolaraiño. Antxe zeuden Andre zoragarri ta

zien izenean Ixaka'k esan zion: "Emen gatozkitzu gu artzai gazte lander-
txoak; Zu omen zera Jainko-Semea; Zu omen zera gure Egiiea. Emen gauz-
kazu, ba, gu zure aurrean zerbaï't zuri eskeindu nairik; oso txiroak geranez
ezin degu gauz aundirik eskeindu. Artu itzatzu arkumetxo auek; gure ar-
taldetako polit-biguñenak dira; artu ba, Aur Mesias, eta arkumetxo auekin
batera artu gure biotzak ere. Besterik ezin dizugu eman.

Ordun Aurtxoak, bere eskutxoak gora jasota, bere onespena eman zi-
en. Ementxe bukatu da nere ipuitxo. Andik aurrera beti zoriontsu bizi izan
ziran gure artzaitxoak; eta bizitz onaren ostean, Mesias'en jauregi-zerura jun
ziran, irabaziriko saria artutzerara.

BARBIN, K.O.

ZAPATAGILLEA SENDAGILLE

Zapatagille erdipordiko bat goseak zorritua zegoan. Ezin zuen bere bizi-
biderik atera; ain oker egiten zituen, noski, oski ta zapaten antolaketak.
Lanik ez, ta astelen asko, mirritzen, mirritzen zijoan. Bere erritik alde
eginda, beste urrutiko batean sendagille jarri omen zan. Asmatzen zituen
belartzuko, ore-txaplata ta edari gozo ta garratzen bidez, ospe aundia iritxi
zuen. Gaxo zeuden geienak beregana zetozen, sendatuko ziralakotz benezko
iritzietan. Ontan, erri artako erregea gaxo jarri zan, ta jakiña, zapatagille
sendagillea erregearen jauregira deitu zuten. Gezurrezko sendagillea bai zan,
ta gizarajoa, jauregian sartu orduko, bi'ldurrezko zankoen dardarrak astindu
zuen. Au lana! Ura izerdi otza zetorkion! Barrengo zusmur gaizto batek
asmatuko ez ote zuenan bekain itxusia azaldu zion, ta zapatagille errukarria,
ezin asmatu, motel ta tolelka zebMlen. Agertu zan erregearen aurrean, ta
argizaia baiño txuriago jarri omen zan, ikararen ikaraz.

Erregeak:

—Txilborrean det min!.. Zure sendakaiak artu baiño len, or, mai
txiki ortan dagon ura, zedorrek, aurretik, edan bear dezu...

—Jauna!... Jauna!! Jaun...a!!!... Ni es naiz sendagillea..,

—Zer zera, bacfa?

—Jauna! Jauna!!... Ni... ni... —ta, txorabiuak elduta, zapatagillea zilipurdika erori zan.

Erregearen morroiak eldu zioten; alki batean ixiri-azi, ta erregeak etzekien zer egin.

Nai ta naiez, egiazko sendagillea ekarri-azi zuten, ta onetxek jarri zitu-
tuen gauzak tentuki ta garbi.

Bere kontura ba-zetorren zapatagillea, ta egiazko sendagillea ikusi zuanean, barkapen eske asi omen zan, ta erregeak galdetu omen zion:

—Ez al zera zu, alako sendagille entzun ori?

—Bai, ta ez, jauna. Ni naiz abotan pspetsu nabillena, baiian barrendik ez naiz zapatagille zapartsu bat baiño.

Gerora jakin ziran beste berri asko: zapatagille badaezpadakoa zala: astelene indarrak asteartekoak gutxitzen zizkiola, ta abar...

Giltzapean sartu zuten beti-betiko, erregeak auxe zesan-da: zenbat, bear baiño lenago, bidali ote ditu...

Erregeak, andik laxter, mendekoai idazki au jarri omen zien:

"Erritarrak: Gauza txarra da buruaren tokian, anak erabiltzea; bai-
ñan askoz txarrago, noski, oiñetakoak egiten ez dakienen mendean zanko,
urdal, biotz, buru ta oiñetatik goragoko gauzak arduratzea. Amaika ba-
-zegok nere erreñuetan..."

"Ipui onek ez du azalkairik bear.

ELURMENDI

MIRAGARRIZKO ARRESIA

Bi errik gudu (gerra) izugarria zuten elkarrekin. Bi erri aien artean ba-zegon basetxe bat eta ango jendeak beti ikaretan bizi ziran, gudua asi ezkeru.

Gau batez, ala ere, bestetan baiño beldurrago ziran; etsaia urbilduz zijoan; zerua goibel illun zegoen ta ondoko mendietan piztutako sugarren dirditaz gorri'tzen zan, odola zirudiela. Gaiñera negua zan, egualdi otza, aizea ta elurra ari zuen gogorki. Baserritar gaxoak beldurrez darda zeu-

den, noiz etorriko ote ziran etsaiak, beren etxea bipiltzera ta berak negu-
biotzean etxetik kanpo bidaltzera.

Etzuten gau artan logale aundirik somatu. Aiton-amonak, aita-amak
ta seme-alabak gela aundian bildurik esna egon ziran gau guzian ta Jau-
nari eskatzen zioten biotzez, estura artatik ongi atera zitzan.

Amona eliza-liburu batefik irakurtzen ari zan. Liburu artan ba-zegon
"gudualdian (gerra-denboran) esateko otoitz bat", eta otoitz artan onako
itz auk: "Jainkoak goratu dezala arresi sendo bat, etsaiak bizitegi onta-
tik lekutzeko, urrunarazteko".

Etxeko nausi gazteak gogoz ta jaieraz entzun zuen otoitz ori, baiña
argatik esan zuen bere baitarako: "Jainkoari arresi bat goratu dezan es-
katzea, ez ote da gero geiegi eskatzea".

Bitartean, gaua igaro zan ta etsaien soldadu bakar bat ere etzan etxean
azaldu. Etxeko guziak arriturik zeuden, zer gertatu ote zan bada. Biaramon
goizean ikasi zuten gertatua. Argitu orduko kanpora atera nai izan zuten,
ezer ageri ote zan begiratzera; eta, gauzaren arrigarria!, arresi bat, elurrez-
ko esi bat arkitu zuten ate aurrean. Aizeak elurra zurrunbillotu ta bildu
izan zuen, eta ain xuxen ere etsaiak etorri bear zuten aldetik aien etxe
aurrean multzutu zuen arresi baten irudian, jendeak ezi'n sartzeko moduan.

Guziak arritu ziran eta Jainkoari eskerrak eman zizkioten. Amonak,
berriz, esan zuen: "Orra, ziñez eta egiaz Jainkoak arresi bat goratu digu,
etsaiak gure bizitegi ontatik urrunarazteko. Bai egia dala arako erran ura:

"Jainkoagan ustea duenak
Eztu zeren beldur izan."

URTSUIA

ERESI BERRIA

Bai. Aspaldi ontan egun berriak amets genituen. Neguko bustiro otzak
ozminduak eta motelduak genduzkan. Baiñan jaso kopet illunak, jaso ia
biotz eroriak. Eldu zaizkigu egun berri oiek, urratu zaigu urtearen goiz
ederra. Udaberri liraiña alderatu da l

Gaurtandik gero ta ederrago dakuskigu mendi-ibarrak, gero ta alaiago baso ta landak, gero ta garbiago, apaiñago zeru-sapaia. Zuaitz-adarren mo-teak lertu diranetik, nagiak atera-ta, apainketa guran dabil oro. Len-lenen baratzetako baba landa usai gozo bigun-biguna zabaltzen asi da...

Eta, jakiña. Errietako egonaldi gogorra pozik utzi dute gure artzaiek. Benetan, artaldeak mendi aldera ba-doaztela ikusi ezkeru, egualdi onen jabe gerala dasakegu alegian. Bada, zein gure artzaiek bezin egualdi onen ezagutzaille zurragoa, giro guztien usainka dabiltzanez beti? Ba-daramaz-kite artaldeak iarre berrietara, mendietako ibilketakin garbitu ta bizkortu ditezen; eta laster dantzukegu arkume-taldeen zalaparta bizia...

Pagodiak, berriz, ostu berri makalez Jantzi dirala-ta, joko dute baserri-tarrak ostoketak egitera. Nork ez dakit zein atsegin zaien beiei ostu berria? Negu luzean jan bear izan dituzten lasto ta belar legorrak aspertuak zeuz- katen, eta ez da arritzekoa ostu berri edo paoxa ezea ganbelan ikusi ez- kero, mauska-mauska jateko leia bizian ba'dabiltz...

Bizitzaren eresi berria zelai naroetan bazkatzera deitzen zaigu. Bil gai- tezen denok bazkari ortan.

GAZTELUNTZ

OILLO TA EIZE-ZAKUR BATEN KONTUA

Zakurrak beti zaunkaka ta oilloa berriz karrankaka. Eduardo nere lagun aundi bat zan, eta ba-zituen etxean mota guzi'etako abere-egaztiak, batez ere indi-oilloak, aateak, antzarak; eta era guzietako egazti txoriak. Bein batean oilloaz eta jardukitzen ari giñala, esan zidan:

—Ez dago usotegia baiño toki zikiñagorik.

—Eduardo —erantzun nion—, eta usoa baiño gauza garbiagorik berriz?

—Ederki esan dezu, Iturria; usoak garbi-garbiak dira, elurra diru- dite; usotegia berriz? Bertan sartu bear detanean, oso loitzen naiz.

—Eta oilloaz, zer didazu, Eduardo?

—Oilloak? Begira erbi-zakur au; nik asko nai ba'diot, onek ere or- daiñez nere oilloak asko maite ditu; batez ere asko maite du oillo moiño- dun ura. Amezketa'tik ekarria da, ta daraman illabete ontan arraultz asko iartzen dizkio zakurrari.

—Arraultzak zakurrari? Nola ote?

—Bai! Bai!, Iturria. Egon zaitez nerekin zortzi egun, eta arritu egingo zera. Guazen oillo aren kabia ikustera.

Juan giñan Eduardo ta ni ta, bai al dakizu non zeukan oillo arek kabia?

—Zulo batean, noski?

—Ez! Zakurrak lo egiten zuan saskian.

—Atoz, atoz orain, Iturria —esan zidan Eduardo'k—. Ikusten al dezu nola *dagon* zakurra patxada aundian etzanda? Oilloa oraintxe dijoa arraultzak jartzera, ta ikusiko dezu, nola oilloa ikusi orduko, nola aterako dan zakurra.

Zakurrak ikusi zuen oflloa, ta ikusi-ala atera zan saskitik, eta oilloa bertan sartu egin zan; andik ordu laurden batera edo, atera zan berriz oilloa; ta karrankaka asi orduko ezagutu zuen zakurrak oilloak arraultza jarri zuela; ta, saskira juanaz, arraultza jan egin zuen. Biaramonean ori bera gertatu zan, eta zakurra pozaren pozez!; ain garesti zeuden arraultzak oso merke, "utsean" jaten zituen eta. Ikusi ez ba'nu, ez nuen siñistuko. Esango ba'nuke orain oilloak eruapen (pazientzi) aundikoak dirala, gezurren bat esango al nuke? Bada ogei ta bat gau ta egun arraultzen gaiñean mugitu gabe egoteko eruapen aundia izan bear da apika.

—Orduan txitak ateratzeko, ainbeste egun bear al dira?

—Ala diote; ta naiz antzara-arraultzak, naiz txorienak, naiz eperrenak oiiloari jarri ta guzti-guztiak bereak ba'lira bezela, umeak ateratzeko dau dela, orduan gero ta ardura geiago edukitzen omen du; ta oraindik jai ez diran umien piu-piuak guk entzuten ez ba'ditugu ere, amak entzuten omen ditu. Orduan klokak mokoakin "krask" arraultzak autsi ta txita gaixoak argi ikusten dute; ta ura orduan klokak artzen duen poz atsegiña! Ba-dirudi mundu guziari erakutsi nai dizkiola, ta "klo", "klo", "kloka" bazter guzietara daramazki, "au famili ederra!" esanaz bezela.

—Aizak: azkeneko klokak zenbat ume atera zituen?

—Ogei, aitona. Ezagun da, aitona, eguerriak eta gabonak gaiñean ditugula, indi-oilloak eta indi-oillarrak ba-datoz eta,

—Ba-datoz ez, Joxe Austin, ba-dakarzkite; ez, ordea, guretzako, bear tsuak gaituk eta.

LEZG'ko JOSEBA A.

IRU ANTZIKURRAK

Ikastetxean zegoan neskato gaztetxo batek nai bezelako antzikurra (is-pillua) etzuan nunbait, eta bere amari idatzi zion: "Nere ama maitea, nere apatn-gelarako antzikur eder-eder bat nai nuke, ta bedorri arren eskatzen diot. Uste det bedorrek bialduko didala; arren, zai bai nago. Esker milla biotzekoak ematen diozkat".

Urrengo egunean artu zuen amaren idazkia; irekita, irakurri zuen: "Nere alaba maitea, eskatu didazun antzikurra bialduko dizut. Ordea, antzikur bakarra ez ezik, iru bialduko dizkizut. Lenengoan ikusiko dezun "zer zeran"; bigarreanean "zer" izango zeran"; eta, azkenekoz, irugarrena "zer izan bear dezun".

Idazkia irakurri ta neskato aren buru austeak, amak aditzera zer eman nai ote zion asmatu eziñik! Zer egin? Itxon egin bearke. Alajaiña!, ez lan erreza noski amabost urteko neskatxarentzat! Or dago egunai, orduai, uneai begi'ra, beti zai.

Azkenik, irureun urte zenirudioten iru egun barru, kutxatxo polit bat ba-datorkio. Bere gelara azkar baiño azkarrago ba darama ta lasterka idikitzen au. Dar-dar biotzak eragiten dio. Zer ikusi bear ote zuen?... Antzikur eder-eder bat dakus, eta amak ziotsanez, "zer dan" erakusten dio antzikurrak: neskatz gazte, polit, ederra; bere gaztaroko esker ederkun zoragarriak.

"Oi, zein maitatia dan nere amatxo!" neskatzak diotsa, ta pozaren pozez muin eta muin aztzikurrari egiten dio.

Baiña, zer ote dakar bigarren loturak?... Larri ta leiatsu idikita, orra... buru-ezurra arkitzen du... "zer izango zan" erakusten dion antzikurra. Igerri dio amak zer esan nai dion, eta begira-begira ixil-ixillik dago.

Irugarren lotura eskuan du. Larri da idikitzeke; bildurrez badere, askatuta, idikitzen du.

"O, zer poza!" ots egiten du begien aurrean ikustean Maria Sortzez garbiaren iduri eder bikaiña. "Ara emen "zer izan bear naizen"; bai, ta nere Ama laztan onen laguntzarekin izango naiz noski".

Auspez, belauniko erorita, otoitz egiten dio.

J. B.

ARTZAI ZORITSUA

Artzai mutil gazte bat, udaberriko goiz ditzikor baten, mendi-bizkar orlegi (berde) ta loretsuan bere arditxoak zainduaz, alaiki ta gozaro arkitzen zan. Une-oroko abesti ta soñu joteaz erakusten zuen bere barrengo atsegin ugaria.

Alakoren baten urreratu zitzalon an inguruan eizatzen zebillen laterri-jauralaria (enperadorea), ta onginaiz onela itz cgin zion:

—Alaitsu arkitzen zaitut, gazte.

Artzaiak, nori itz egiten zion jakin gabe, erantzun zion:

—Bai, ta nola ez? Gure jauralaria bera ere ez ni baifio aberatsagoa.

—Benetan? —zion arriturik jaurlarlak—. Jakin bear det non dltuzun aberaski oiek.

—Bai, bal. Ara —jarraitu zlon artzaiak—: ortze urdin ortan agertzen zalgun eguzkl diztlkorak jaurlarl jaunarentzat bezin argi bialtzen du nere-tzat ere. Mendi ta zelai, ibar ta soroak, bakoitzasun gabe ematen dizkigute urrin ta usai goxozko ostail ta loreak. Nere esku ta besoak ez nituzke emango berreun mllla laurlekogatik, ta nere beglak erosteko ez dira askl jaurlariaren aberaski guziak. Nai detan aiña jaten det, edan ere bai; zer jantzl ba-det, eta urtero lansaritzat ematen didate bear detan aiña dlru. Gaiñera, Jaungoikoaren adlkide naiz. Ez al naiz, bada, jauralaria bezin aberatsa?

Jaurlariak, irri-parrez artzaiari begiratuaz, ta nor zan jakin-erazi ondoren, onela erantzun zion:

Bai, artzai zoritsua: izpidean ago. Ire jaurlariak ere orrela uste dik Iraun dezaikela urte askotan zorionezko alaltasun orrek.

Barrengo alaitasunez
bizi dan otseiña
jaurlari jauna baiñon
aberatsagoa da.

JULENE AZPEITIA

Lore yalkia
goi-baratzetik,
zitu ilkia
sabel garbitik...
Lo, eneño, lo altzoan
asto-idien abaro.
Lo

Elur-izara
zuri mendian,
izar-ikara
goi-zabalean...
Lo, eneño, lo altzoan;
mendi-goian elurgiro.
Lo!

Itxi niniak
itxi, ederra.
Zure begiak
zelan nigarra?...
Lo, ñimiño, lo altzoan;
emanen daitzut bi goxo
Lo!

Goitik ba-dator
aingeru-balde,
begi ameskor
zureen zale...
Lokartu, ba, lo altzoan
goitar egoen abarc,
Lo!

—Ene ederrak
lo dagi:
begi-izarrak
itzali...
Ots, geldi !
baldin ots eragitera
negar egingo
ostera—
Lol

GAZTELU

GAZTETU NAI EZ

—Nai du likusi, jauna, gauza arrigarria,
gizon zar-borratuB gazteeingarria?

Zartzera gure illea galtzen degu gerez:
ordea, jaio-iten da nere ukendu-bidez,

—Alper-alperrik zabiltz, enaiz gaztetuko:
zure ukendu guziak nitzat kaltetako!

—Sumatu beza, jauna, onek dun urriña !
Beroi lako jaunentzat beraniz egiña !

Langiilen aurrerako b'izar-bigoteak
nagusi egiten du... bildurra orrek berak..

—Noizbait ere ixil zaitez, itzontzi tekela !
Ta ikusi ukendurik bear ez detala !

ARTETXE'KO LOREA

Erri politik iñun bada Goizueta deritzaiona bat. Euskel-Erriko erri geienak bezela mendiz zearo inguratuta, bere landa ta soroak belarrez eta arto edo gariz txit jantzita ikusiko ditugu udaldian, jantzi garbi, txurikin ordea neguan. Neronek ez dazagut Goizueta uritxoa, emen edestu nai detana ipuintxo bat baizik ezpaita; baiño nere irudimenean dagon bezela jarriko det nik ipuiko Goizueta, eta len esan detan bezelako urixka txiki bat zan Goizueta ori.

gabe etzan batere geldituko Goizueta'n. Orain entzun oi di'tugun itz zakar, itxusi ta naskagarririk ez biraorik etzan aitatuko Goizuetarren artean, ezta beste erri txiki' askotan ere.

Aldiak eta ozte edo jendea asko aidatu zaizkigu ordutik ona, zoritxarrez ordea. Baiña oldozpen itun oek alde batera utzi ta guazen gure arira, guazen gure ipuira. Garomendi (garo edo ire asko baitzan mendi artan) deitzen zioten Goizuetarrak Inguruko mendirik aundienari.

Mendi ederra. Arizti, pagadi, gaztañadi ta beste mota guzietako zugazti ugarienak antxe ziran. Zugaztipetan ziran zelaiak eta zugazti artean ain ugariak ziran landa orlegiak makiñat bei, idi, zaldi, beor ta beste abereen gose asele izan dira l Ura zan mentlia ta ura mendiaren edertasuna! Makiñat jolasaldi ta makiñat pozaldi izan dute Goizuetarrak Garomendi'ko zelai ederretan ! Baiño iñor baiño geiago poztu oi zana Artetxe'ko Maiñaxi neskatx lirain gaztea noski,

Goizueta'n neskatx ederrik asko ba'zan ere, Maiñaxi bezelako beste bat jaiotzeko zegon oraindik. Eta soln-edertasunean lenengoa ba'zan, gogo ta biotz edertasunean ere lenengoa zala esan zeikean. Ona ta apala, otxsna ta esangiña etxean gurasoekin eta anai-aizpekin; eleiz-zalea, otoizalea, autor-tzalea ta jaunartze-zalea itz batean. Jainko maitale txintxoa; eta lagun urko-arekin, berriz, txit biotz onekoa ta errukitsua. Len esan degun Garomendi aundiaren barrenen arkaitz aundi baten azpian gordeta bezela dago Artetxe baserria, edo obeto esateko, basetxea.

Orain Artetxe dagon tokian eta inguruan artadi eder bat omen zan len, baiño udagoieneko astelen goiz batez dena sutan erretzen agertu omen zan. Egiñalak eginda ere, ezin itzali izan zuten su ikaragarri ura, ta zearo erre ta ondatu omen zan artadi eder ura, Garomendia'n zan artadi bakarra. Andik egun batzuetara toki eder aien jabeari bertan etxe berri bat egitea otu zitzaion, eta oldoztu zuena esan eta esana egin, urte bete baiño lenago bere asmo ori egizko basetxe eder biuriturik zegoan; eta Artadi izenaz deitzen zioten leku apaiña baserri-etxe eder baten oiñarri ta aulkia zan.


Antxe zegoan zutik bere arpegi zuri zabala Goizueta'ra begira ba'lu bezela, ta gaiñeko arkaitz gordelekutzat zuela. "Zer izen jarriko diogu? —galdetu zion, bertara bizi izatera aldatu ziranean, Kontxesi'k bere senarra ri—. —Nere ustez, Etxeberri izenik politena —jardetsi zion berak gero—. —Ez erantzun zun Anastasio etxejaun eta jabeak—; Artetxe deituko diogu

gaurdanik bertatik asita... Eta Artetxe izenakin geiditu zan Artadi'n Anas-taxio'k egindako etxe berri'a.

Eta Artetxe'ko soro ta landa izatera aldatu ziran lengo artadi ederra ta bere inguruko zelai ta landa ederrak. Eta "Artetxe'ko iturria" izena jarri zioten arkaitzpean sortzen zan iturritxo politari. Eta antxe bizi zan gure Maiñaxi ona. Artetxe'ko baratzen bost lore ziran, ederrena, usaitsuena, gu riena AAaiñaxi zan, nire ustez.

BARBIN, K. O

IRAILA



IRAILA

LIBRA • IX-24 • X-23.

AZTAGA.—Aztakin (Libra) gauzak pisetako erabilten da. Era askotako aztakin edo pixuak ezagutzen doguz. Emen daukazu bat gure baserrietan, eta batez be gure errotariak, eurrez erabili oi dabena.

Izar urtearen erdira eldu garealako nunbait, auxe dogu zero-gerriko zazpigarren ezaugarria, irailaren 23'tik urrillaren 23'rairño luzatzen dana; ekliptikan, barriz, 180'tik 210'ra dabil eguzkia, udazkeneko mugan edo ekinozioan sarturik: egunak eta gabak bardiñak dira emen, baiña aztakiñeko ontzitxoak eztira bardin makurtzen: len argiruntz gentozan, egotik iparrera; orain lurbira illunerantza goaz, iparretik egora. Eguzkia indar galduz...

Igaliak, frutuak, umotu ta jausi dira; zugatz ostoak be oritu ta lurrera yakuz. Izadiak bere edertasunak erantzi ditu, barnerantza sartu ta bere kautan kiribildurik. Ixil-bizitz orren ondoren, ostera be, indar barriz gaiñezka agertuko yaku. Aztakiiak neurria, bardintasuna, denduna esan nai dau. Aztaga, beraz, egoki datorkigu urte aro au bereizteko,

J O L A S A K

1) ASTEA

Arri biribil bat, eta bost edo sei jolaslari.

Baratz, zumardi naiz parke baten aldia emoteko, berebiziko jolasa nes-katoentzat. Etxean be egin leikena da; baiña amak ez dautzue beti, umetxoak, etxe barrua karez zikintzen itxiko.

Asteko egun guztien izenak lurrean idazten dira, lerro bitan: Astelena, martitzena ta eguastena, bean asi ta gorantza, alderdi batetik; domekea, zapatua ta barikua, bestetik; seiron guanean, barriz, eguena.

Marrazki au lurrean osotu ondoren, jolaslari bakotzak eskumako beatz-muturraz, ezkerreko oiña aidean daukala, arri-koxkor bati bultz eragingo dautso, asteko egun bakotxeko unetxoan sar dadin. Unetxo ontatik ezin daike aldendu, ezta alderdi biak banatzen dauazan lerroa zapaldu be.

Onako utseren bat egin daroanak puntu bat galtzen dau. "Eguen" deritxon une edo bitartean bakarrik atsedendu daike.

2) ARA TA ONA

Joko-lekua onela atonduten da: zelai edo areto baten, egin belan maki-llatxoz edo karez lerro bat, bost-sei metrokoa. Onen alderdi batean egokitzen dira, gero, jokatu nai daben guztiak.

Epaikariak "ara" diñoanean, mutikoak bestaldera igaro bear dabe lerro gaiñetik; "ona" diñoanean, barriz, dagozan lekuan geldi irauten dabe.

Ziur be ziur, asko izango dira uts dagienak; epaikariak batez be, agin-duak arin samar emonik, zerbait nastuten ba'ditu.

3) ESKU AZPIKA

Neskatoen naiz mutikoen jolasa, gure artean oso ezaguna. Askoren artean egin daiteke.

Dana dalako ori esku baten barruan arturik, esku biak izten dira. Orrela eskuak daukazala, jokolariak diño: "Uts ala bete",

Lagunak igarri bear dabe zein dan eskua betea ta zein utsa.

4) KATUARI TXINTXILLA IPIÑI

Zer bear dan: Kartoi andi baten katu bat marraztuta; txintxil edo txinxarri bat, orratz bat eta zinta bat.

Katua marraztuta daroian kartoia orman esegi leike, edo tximutxa batzukaz josi, baita zelozko zinta muturrez itsatsi be.

Antzetzoki onen aurrean jarriko dira banan-banan jolastuko diran mutiko naiz neskatoak. Zapi batez begiak estaltzen yakoz lenengo jolaslariari; eskua-kaz bira batzuk emon ondoren, pizkat durduritu daiten; azkenez txintxilla ipinten yako eskuan, orratzagaz zinteari korapilloturik.

Jolaslariak, une ontatik, kartoian margozturiko katua nun dagoan asmaubear dau. Eta ez yako errez izango katuari bear yakon lekuan txintxilla ipintea. Inguruko gaztetxoak, barriz, barre egingo dautsoe nasai, nun jarri asmaueziñik orren estu begi-itsutua ikusirik.

5) PELOTA GORDEKA

Onetarako pelota bat, naiz arrikoskor bat, naiz sagartxo bat naikoa da.

Ume-mordoa inguruka edo oboan jarten da, alkarren ondo-ondoan, bata-bestearen artean zirrikiturik itxi bage.

Euretarik bat erdian dago. Oboan dagozanak sorbalda ostetik, eskuz esku, pelota bat igaroten dabe. Erdikoak bitartean pelota au nundik nora dabilen igarri bear dau.

Igarri-ala, deadar dagi: "Geldi!" Pelotea beingoan geldi geratzen da.

Erdikoak orduan eskuz izentatu bear dau, bere ustez zein umek daukan pelotea. Igarri ba'dagi, pelotea euki dauan ume orrek artuko dau igarlearen tokia. Bestela, jokuak aurrera darrai.

6) TXIO-TXIOKA

Jolasa asteko zugatz-ondo bat, esaterako, aukeratzen da. Mutiko bat, begiak itxita, ondo orretan gordeko da eta onek berrogetamar kontetan dauazan bitartean, besteak ezkutatu egingo dira zokondoren baten.

Berrogetamarrok kontatu ondoren, ots dagi: "Emen nago. Bat, bi, iru". Eta kukuka dagozan lagunen billa asiko da. Bateren bat ikusitakoan, bere izenez dei egingo dautso, esanik: "Jontxo ikusten dot". Edo beste edozein.

Au entzunik, danak astrapaladan mugara joko dabe an gordetako. Ara lenengo eltzen danak deadar egingo dau: "Txio!" Baiña aren jazarlea ariñago eldu ba'ledi, ikusitako jolaslariak artu bearko dau leku ori, jokoan jarraitu dagien. Eta orrelaxe, aspertu arte.

7) SARI-BILLA

Zer bear dan: pare bat dozena puxika, olezko edo kartoizko esi bat eta paper gogor batzuk. Zeinbat nai jokolari.

Bein-beiñeko esiarte baten sartzen dira puxika edo globu guztiak. Eskumendean oltxo batzuk ez ba'daukazuez, ostera, zoaze baratzer ta ango ondarra naiz arriak yatzuez gai egoki esiarte ori egiteko.

Puxika bakotxa puztu aurretik onen barruan sartu bear dozue "zigorra" idatzita daukan paper-zatia. Zigor oneik izan daitezke naiz gure itxas-bazterretako iru ugarteren izenak esan, naiz euskal dantzaren bat dantzatu, naiz euneariño kontatu, naiz loak artuarena egin, ta abar. Ondoen egiten dauanarentzat sariak be ipiñi zeink'ez.

Joku-zuzendariak esi barruko puxikak nastu ondoren, jokolariak orratz bategaz, berak naien dauana zizatuko dau; eta au aize barik geratzean, berberak jasoko dau puxika barruan egoan paper-zatia. Eta an difotsana bete bear-ko *dau* alik eta zeatzen.

8) KATU IRRILARIA

Ume koskor pilloa inguruan; eurotarik bat, katuarena dagiana, erdian. Erdiko onek, laguntxoan aurrean makurtuaz, miauka, kiñuka ta arpegian puzka, laguntxo orri irribarre eragin naita lerrenak egingo ditu.

Laguntxoak barre ba'dagi, onek artzen dau katuaren; lekua; ez ba'legi, beste bati barre eragiten saiatuko da, len lez puzka ta miauka.

Katu bizar luze marrulariaren aurrean ben-ben ta seriotasun andlan irauten dauana dozu irabazle.

9) APOKA

Mutiko jolasa. Onetarako, idi-apatx edo "apo" bat erdian ipinten da, lurrean egindako "potxillo" deritxon txolo barruan. Onen inguruan begirale bost edo sei mutil, oboan, makillak eskuetan dabezala; aldizka apoa jc bear dabe makillakaz.

Apoa makillaka edo kinkinka jaurtiten danean, bat, eskuan makillarik ez daukan bat, au da, ekartzaillea, apo-billa doa.

Idi-apatxik eukeran ez dagonean, trokot edo egur-koskor bat euki leike potxilloan.

IGOTZ

A B E S T I A K

1) ATOR, ATOR, MUTIL

Ator, ator, mutil, etxera !
gazta'ña zimelak jatera;
Gabon-gaba ospatuteko
aitaren ta amaren onduan.
Ikusiko dok aita barreka,
ama be poz-atsegiñez.

Eragiok, mutil,
aurreko danboliñ orri
gaztaiñak *erre* artian (bis)
txipli, txapla, pun !
Gabon-gaba pozik
igaro daigun.

2) GOIKO MENDIAN

Goiko mendian
edurra dago,
errekaldian izotza.
Neu zeugandik
azke nago ta
pozik daukot
biotza.

Aize guria
lore artean
pozez gaiñezka daukagu.
Esku biak
txipli-txapla
nai dogu guk
jolastu.

3) LORA POLITA

Lora polita ontzian
begiratzen dodanian,
orduan Z'aukat, ene mai'tia,
neure goguan.

Txori polita kaiolan
barruratzen dodanian,
a'il, orduantxe zaukat, maitia,
neure goguan.

Mutikotxua ikastolan
il-illik sartzen danian,
zeure gomuta bizi-bizi.a
daukat goguan.

Atxia motxia perolipan,
nire semea errotan;
errotara niñoiala
topa neban asto bat,
kenclu neutsan buztan bat,
ipiñi neutsan beste bat:
errota txikiñak "klin klan".

Atxia motxia perolina,
nire semea errotan;
errotara niñoiala
topa neban erbi bat,
kendu neutsan begi bat,
ipiñi neutsan barri bat:
erreka txikiñak "plist plast"

5) **BOGA, BOGA!**

Boga, boga, mariñela,
mariñela !
Juan bear dogu urrutira,
urrutira,
bai Indietara, bai Indietara.
Ez dot nik ikusiko
zure plai ederra,
plai ederra !
Agur, Ondarroa'ko
itxaso bazterra ! (bis)
Mariñela ! Boga!... Mariñela !

SAGUA, UGARAZUA TA MIRUA

Zingira loratsu baten, urrun ta bakar, sagua ta ugaraxua pozik ederre-
nean bizi ei ziran. Baiña, arrokeri zitalak sarri itsutu oi gaitu-ta, laster
sortu zan eztabaida izaki baketsu arein artean be: toki areitan bakotxak
bere zatia euki nai.

—Neu non lur-indarraren jabe —iñoan saguak.

—Eta ni itxas-indarrarena —erantzun ugaraxuak.

Ibai ertzeko kañabera mutur-zorrotzen bitarlez, burruka latza sortu eben alkarren artean, bako txak bere eskubideak zaintzeko. Ta ziur bai ziur, zingirako urak odolez gorrituko ziran, miru batek, zer jazoten zan jakinik, arein arteko zaratotsa amaitu ez ba'leu. Amaitu eban, bai, zingiratar bien arteko zalaparta, baiña azken garratzez gero: burrukalari biak erpe artean estutu ta aparti galanta izan eban gau atan arein okelaz.

Kalterik bai dautsozu
egin gura iñori,
apika izango yatzu
zure ondamendi.

IGOTZ

TXORIA KAIOLAN

Goiz atan itxi eban lenengoz abia. Egaizkada labur zakartxu bat eginda, bera abia dingilizka eguan zugatz adar baten jarri zan. Amea, eltxuak arrapazten urtenda, ikusten eban an, urrun, mendiak eta ortziak alkar mosu emoten daben lekuan. Bera izan zan anditxua. Arrezkero lumatuta be ba-eguan. Laster jakingo eban bere burua alikatuteko janaria billatzen... Eta orduan berak bai egaizkadak!

Loraz estaldiriko lats (erreka) ertzeraiño jatsita, ur garden garbian sartu ta igeri, ta gero lumatxuak arrotu eguzkitan. Zugatz-buru ganera barriro igon ata andik mendiak baiño arago egaiz. A! Eguak lumatuta eukiteak emoten daun azkatasun ederra! Beria da bizia, abien estutasuna itxita! Orretara oldoztuten eguala, pozez txioka asi zan.

Bat-batez bere atzian zaratia susmau eban. Arantza begiratu ta une atan izugarrizko esku batek arrapauta, gora jaso eban txori gaxuori. Esku arek berarizko toki baten sartu eban txoria. Illuntxu egon zan, baiña bai epela ta biguna be. Mutillen kolkuan eguan. Luzarotxu egon zan an, geldigeldirik, amasea artzeko be bildur zala. Gaixuari betikotasuna iruditzen ya kon astia.

Azkenez, arrapau eban eskutzar berberak kolkotik atarata, burdiñari lodidun espetxe baten aurrian imiñi eban. Atia zabaldu, eskuto arek txori gaxuari barrurantz eragin eta bere atzian atia itxi zan. An bai eukazan janaria ta ura. Baiña zelako janaria! Etxakon berari bape atsegin. Eta atsegin izanda be, ukuturik be ez eutson egingo.

Aren ituna ! Larrr eguan espetxe atan. Loruak zatitu ta andik iges egiteko egiten ebezan alegin guztiak alperrikuak izan ziran. Ezin, ezin ausi! Betiko galdu eban azkatasuna! agur betiko bere gurariak sortu euzan amets zoragarriak! Ez eban iñoz ortzi-zear egaz egingo, ezta loraz inguraturiko errekatik urik edango be. Betiko espetxetua... Mtia al ba'litz! Bizitz a baiño gurago eban eriotzea !

Berak ondo ezaguturiko txio bat entzunda, burua biziro jaso eban, ta an bere ama maitia ! Berarentzako mokua janariz betia ebala, abira bigurtu zsn, baiña ez eban umia idoro. Tamalez beterik asi zan umia billatzen, eta jopu bat eginda espetxeratua 'aurkitu eban. Euren mokuak (pikuak) alkartuta, amak laztandu eban eta barriro juan zan egazka.

Laster bigurtu zan ostera be, ta umiari mosu emoten duala, pikuen barruan janari bakana sartu eutson. Beste batzutan lez, etzan a eltxua izan, bedar baten azia baiño. Juan zan ama ta txori gaxua kaiolako zotz baten gani'an, sediazko kirikiñotxu baten antzez, luma guztiak arrotuta lotu zan.

Biaramonian, txoria arrapau eban mutillak bera ikusten juan zanian, idoro eban kaiolako loruan (burdin arian) bere ankatxu gogortuaz gora, begiak itxita ta pikotxua erdi' zabalik... llda eguan.

Tamalez il zan?Ez, maite-maiterik eban amak zitala emon eulson. Gurago eban semia iltea, jopua (iñoren mendeko) ikustia baiño.

UTARSUS

EPERREN ABIA

Mutiko bik, mendi bazterrean egoan garitza baten, eper abia idoro eben, eta arrautzen gain egoan amea arrapatzea lortu be bai.

—Ik arrautzak artu egizak —iñotson nausienak besteari—; nik eperra gordeko yoat. Arrautzak eperrak beste balio yabek.

Eta gazteenak erantzun eutson:

—Ori egia ba'dok, eutsoz arrautzok eta ekak eper ori.

Orduan eztadaidan asi ziran, eta azkenez alkarri uleetatik tiraka be bai. Burrukan ziarctuen artean, nausienari eperrak eskuetatik iges eutson, eta gazteenak, uste barik arrautzak zapaldu zituan. Eta ezer barik gelditu zirala ikusirik, baketu ta alkarri esan eutsen:

—Zuzen yegoan, bai, gure aita ekin da eki'n egi au esaten yauskuanean:

Gogaldu sarri aldiak beti
irakatsi daun egia:
"Galdu dan oillo ederra baiño
arrautza bat dok obea".

SCHMID-MANTEROLA

EZETZ JAKINI!

I. AMARAUA TA AMAREUNA

—"Amaraua", zer dan ba-dakizu?

—Zortzi ankako mamu bat. Eztauko egorik: buru txikia ta sabel-zorro andia. Bere zortzi anak gorputz guztia baiño amar bider andiago dira. Orregaitik aguro ibilten da. Amarauak, etxeko orma-kanteletan, sabai ta kortetako goi-buruetan eta piñudietan jaio,bizi ta lan egin daroe. Sabel-zorroa koipe edo moku antzeko morokillez beterik daukie; ta beti be, morokil ori atera ta eun zuria, euliak arrapetako, eoten dabe. Sare orren izena "amareuna" da.

"Ezetz igarri": —Amarauak noiz egin ta noiz kentzen dabe euren ama-reuna? Zergaitik eta zetarako?

—Egin, egualdi ona datorrenean egin daroe. Kendu, barriz, egualdi txarra agertzerakoan.

—Egin, euliak arrapetako egiten dabe. Kendu euli'rik ez dabelako: amarauak euli zaleak dira.

II. KIRRIKILLOEN KIRRIKI-SOIÑUA

Kirrikilloak udabarrian, landetan, satorren antzera lurrean zuloa egiten dabe. Ortxe lurpean jaio ta bizi dira. Gure mutikoak, bedar iuze bat artu ta "zir-zir" egiñaz kanpora ateratzen dabez, baita buruko txapel barruan sartu, etxera eroanl ta kaiolan euki be, oso arduratsu. Aza ta uraza orri-zatiak emoten dautsez jateko. Baltzak izan oi dira, ta ego-aldeak bata-beste-ari igortziaz, "kirri-kirri" soiñua joten dabe. Euren etxean —zulo barruan— ez dabe iñoiz soiñurtk joten; orretarako, landako eguzkitara urteten dira.

"Ezetz igarri": 1) Ze egunetan soiñua joten dabe? 2) Kirrikillo bi, bata-bestearen ondoan soiñu joten egon arren, bateri bakarrik zergaitik entzuten yako?

—Giro ona danean, egoakaz soiñua aterateko, egoak legor euki bear dabez.

—Emeak ez dabe soiñurik joten. Arrak emearen ondoan, emea zora-zteko, soiñua io oi dau. Mutil ezkongaiak, neskeen leiopean tobera joten, kirrikilloengandik ikasi eben.

III. TXIMISTEA TA TRUMOIA

Eguraldi txarra danean trumoiak joten dau, ta tximistea ikusten da. "Trumioia", ortzean, zeru-azpian, alde batetik bestera durundu baten igaroten danean, gure erriak esan oi dau: "Aingeruak boletan dabiltza". Baiña "tximistea" agertzen danean goian diz-dizka, "Aitarean" eginda, etxe barruan sartzen da. Nik, gazte nintzala, ez neban etxera joan gura izaten, eta amandreak bein esan eustan: "Goiezak I Ez dok ikusi denganiñoak zelan zintz egin dauan? Laster dok emen!"

Odei artean trumoiak joten dabenean, zergaitik lenengo tximistearen argia ikusi daroagu ta geroago trumoiaren otsa entzun?

—Nik uste neban, zerbait ikasi arteraiño beintzat, ori' zaia, begiak bel-larriak baiño zoliagoak diralako. Baiña, jakintzak diñoanez, bestera dozu: argia otsa baiño zoliago izan nunbait. Biak, tximista ta otsa, toki batean efa bat-batera sortzen dira; baiña "argiak" (tximistek) aguroago egiten dau ta "otsa" (durundua) atzeratuta geratzen da; au da: guganaiño otsa beranduago eitzen da.

IV. ONTZIA ITXAS GANEAN

Itxasoan doiaz ontzi andi bi. Bata "olez" beterik, bestea "orioz" ganekza. Itxas erdian doiazala, asarratu yake itxasoa ta olatuak zakar asten dira irakiten. Laiñoa alde guztietatik, irristua ta trumoia. Izugarrizko ekaitz eta ur-jasa beingo batean jagi da.

"Ezelz igarri": —Ontzi bietatik zeñek dauko arrisku geiago? Zergaitik?

—Zuk, bear bada, "olez" beterik doanak arrisku gitxiago daukala uste izango dozu, ola (egurra) ez bait-da urperatzen. Baiña ez da egia. Olatuek artzen ba'dauz olak, gora-beraka erabilliko ditu, orbela irudi. Ez dozu iñoiz ikusi, itxasoa asarre danean, ur-ontzia naiz-ta andia izan, olatuen mende gora-beraka? Itxasoa bare dala, gizona luzaro egon daiteke ol baten ganean; asarre danean, barriz, olak dagizan gora berakaz ezin ol ganean iraun.

Eta bestera, "orioa" itxas ganean zabaldu ezkeru, olatuak bigundu egi-ten dira ta itxasoa baretu. Orioa dagoan itxas-aldean ezta olaturik jagiten. Origaitik, orioz beterik doian ontziak arrisku gitxiago dauko ekaitz aldian.

V. GALTZAIRUA, IDIA TA KAPOIA

Edozeñek daki zertzuk diran "galtzairua", "idia" ta "kapoia". "Galtzairuz" egiten dira tramankulurik geienak: atxur, aizkora, golde...; "idiaz" egin daroetz baserritarrak lanik geienak: burdiak erabilli, goldaketan eta burgiñaren egin...; "kapoiak" emoten dabez Gabon gaberako okelarik onenak. Errenteruak or ibilli oi dira kapoi azten, euren ugazabari, errentiaz batera, emoteko. "Galtzairua" burdiña da, "idia" lau ankako aberea ta "kapoia" egaztia. Alan eta guzti be, irurak, bata-bestien antza gauza baten dabe.

—Zertan?

—Izadiak berez ez dao emoten ez "kapoirik", ez "idirik", ez "galtzairurik". Gizonak egiñak dira irurok: oillaskoaz "kapoia", zekorraz "idia" ta burdiñeaz "galtzairua". Or alkarren artean d'aben antza.

GOTZON A.

OILLARRA TA BITXIA

Or oillar buru-zut bat, bere ustez txit jakituna. Egazti enda ortako guztiak lez, sastegian dabil azterka ta azterka, janari billa. Onako baten zerbait aurkitu dau. Zer ete? Bitxi bat, zikin artean dfrdirka. Begira eta-gokio, ta oso arriturik, diñotsa;

—I errenen, bitxi eder? Ez al dozak munduan, eundaka ta eundaka, i aldean eroatearren, diru-mordo andiak emongo leukiezanak? Baiña, gaixo, nik ez aut ezertarako bear. Ar biurtu ta janari ba'intzaklt, orduan bai nik poza !

Bitxiak zer balio
oillarrak ez daki,
ezta txepel-kaikuak
liburuan barri.

IGOTZ

IBAN ETA ELENE

Erri aundi bateko bakaldnnak (erregeak) seme alaba bi eukazan. Semeak "Iban" eban izena, "Elene" alabeak. Bakalduna il zanian, seme-alabok umezurtz geratu ziran, ez euken seniderik eta. Orregaitik erabagi eben etxea laga ta ludi zear juan».

Ibilten asi ziran, eta etziran gelditu, eguzkiaren izpi beruak kiskaltzen asi arte. Orduan, arnasa oska, alde guztiefara begira jarri ziran, ez zugatzik, ez gerizperik ikusten ez ebela. Aran lau-lau atan erreka bat ikusi eben gero; erreka onduan idi batzuk egozan.

—Egarri naz —Iban'ek esan eban.

—Ez urik edan, neba maitia. Edaten ba'dozu, zekor biurtuko zara —esan eutsan Elene'k.

Iban, ixilduta, barriro ibilten asi zan.

Ibilli ta ibilli, ibai batera eldu ziran. Ibai onduan zaldi batzuk egozan.

—Oi, Elene! Ezin geiago ibilli, egarri aundia dot-eta —Iban'ek esan eban.

~Ez urik edan, maitia. Edaten ba'dozu, moxal biurtuko zara.

Iban ixildu ta barriro ibilten asi zan.

Ibilli ta ibilli, beste erreka batera eldu ziran. Erreka onduan ardiak egozan.

—Oi, Elenel Egarrri-egarrri naz.

—Ez urik edan, neba maitia. Edaten ba'dozu, arkume biurtuko zara.

Iban ixildu ta barriro ibilten asi zan.

Ibilli ta ibilli, beste erreka batera eldu ziran. Erreka onduan urdiak edo txarriak egozan.

—Oi, Elene! Ezin geiago ibilli, egarrri aundia dot eta —Iban'ek esan eban.

—Ez urik edan, neba maitia. Edaten ba'dozu, txarrikume biurtuko zara.

Iban ixildu ta barriro ibilten asi zan.

Ibilli ta ibilli, eguzkia goi-goi eguan eta bere izpiak erre ta kiskaltzen ebazan gure ume biak. Izerditan eta arnasarik artu-eziñik, alde guztietara begiratzen eben. Baiña alperrik: ez eben etxerik, ez txabolarik ikusten. Azkenian, iturri bat oartu eben. Iturri onduan auntsak egozan.

—Oi, Elene! Egarrriak illik nago. Oin, naitaez, edan biarko dot.

—Jaungoikuarren, Ibantxu, ez urik edan, edaten ba'dozu, auntszume biurtuko zara-ta.

Baiña mutillak, arrebari jaramonik egin barik, iturriko ura, danga danga, edan eban.

Orixe egin eta auntszume biurtu zan.

—Beee!, beee!, beee! —esanaz batera, arrebearen aurrian, saltoka ta ariñeketan asi zan. Elene'k, intziriz ta negarrez, zedazko kordela artu ta samatik lotu eutsan. Ori eginda, beragaz eruan eban.

Bein, auntszunia, arrebearen onduan saltoka ta pozik ibillala, Bakaldunaren baratzean sartu zan. Morroiak, neskatillea ta auntszunia ikusi ta bakaldunari eldu yakozan, esaten:

—Zu, Bakaldun: jauregiko baratzian neskatilla bat dago, zedazko loki edo kordelagaz lotuta daukan auntszume bategaz. Neskatilloi eder-ederra da. Ezin ederragorik izan.

Bakaldunak esan eutsen, neskatilleari itaunduteko nor ete zan. Morroiak Elene'ri urreratu yakozan eta itaundu eutsaen ia nor ete zan eta nundik etorran. Eta berak guztia edestu eutsen, esanaz:

—Ni ta nire nebea bakaldugei gintzazan. Gurasuak ilda, ume zurtz lotu giñian, eta seniderik ezkeukan eta, etxia laga ta mundu ziar juan gintzazan. Nebiak, egarriz illik, iturri batetiko ura edan eban, eta berialako baten auntszume bigurtu zan.

Morroiak bakaldunari esan eutsaen entzun eben guztia, ta onek agfndu eutsen Elene berari ekarteko. Bakalduna arrituta lotu zan, Elene zan ederra ikusi ebanian, eta erabagi eban berarekin ezkondu. Otu ta egin: aldi gitxi barru blok ezkondu ta ondo ta pozik bizi ziran.

Auntzumia beti eurekin egoten zan. Egunez baratzian ibilten zan, ta gabez, jauregiko ogoki politian io egiten eban. Eta jateko, bakaldun eta emaztiaren onduan jesarten zan.

Bsin, bakalduna eiz-egtten joiala, sorgin batek Elene'ri gexotuerazo eutsan. Bakaldun-emaztia argaldu ta guztiz zurbildu zan: argizaia baizen zuri arpegia eukan. Jauregian eta baratzian dana ittun eguan; lorak zimeldu, zugatzetako orriak oritu, bedarrak legortu egin ziran. Ene! A zan ittuna !

Bakaldunak, etxera bigurtu ta emazti ain argal eta zurbil ikusi ebanian, itaundu eutsan:

—Zer jazoten yatzu? Gexorik zagoz, ala?

—Bai, gexo-samar nago —emaztiak erantzun eban.

Biaramonean bakalduna eizara barrero jua zan, Elene oian lotuten zala. Atso sorgiñak, berau ikusten etorri ta esan eutsan:

—Osatu gura ete dozu?

—Bai.

—Orretarako, itxas-ondora jua zazpi egunetan; eta, goizaldian eta illuntzian, bertoko ura edan.

Bakaldun-emaztia, arrastia eldua, itxaso ertzera jua zan. An egua sorgiña bere begira. Eta bat-batez, neskatillea oratu, samatik dingillizka arri aundia ezarri ta itxasora jaurti eban. Elene beriala ondoraiu zan.

Auntzumia, zer jazoko ete zan bildurrez, itxasorantz abiau zan. Eta arrebea ur barruan ikusita, negarrez ta zotiñez asi zan.

Sorgiña, bitartian, bakaldun-emaztiaren janzkiak jantzi ta jauregira jua zan, morroiak aginduten. Bakalduna etxera bigurtu zanian, ezer igarri barik, asko poztu zan emaztiaren itxura ona ikusita. Apalordua eldu ta jaten asi baiño lenago, bakaldunak itaundu eban:

—Nun ete dago auntzumia?

—Obeto gagoz bera barik —sorgiñak erantzun eban. Morroiak agindu dautset etxian sartzen ez izteko, usain txarra dauka-ta.

Biaramonian, bakalduna eiz egiten jua zan. Sorgiñak, orduan, auntzumia artu ta astiñaldi gogorra emon eutsan, esanaz:

—Itxon, itxon pizkat, madarikatu ori, Bakalduna datorrenian, zeu ilteko esango dautsat.

gura ikusi neure aurrian.

Bakalduna errukitu zan, baiña sorgiña mor-mor eguan eta, Mteko agindu eban.

Gerotxuago auntsuak igarri eban aitsuak zorrotz-zorrotz egozala berari bizitza kentzeko. Eta, bakaldunaga juanda, esan eutsan:

—Jaunoi: itxi nagizu itxaso ondora juaten, bertako ura edan eta sabela garbitzeko.

Bakaldunak baietz esanda, auntsuak ariñeketan abiau zan itxasorantz. Bertora elduta, oi u egin eban:

—Elenetxu, ene arrega maitia: itxaso ertzera urten zadi. Onezkero sua egin dabe; galdarak ur irakiñez baterik dagoz, ta aitsuak zorrotz dabez neu ilteko. Ene errukarria!

Elene'k erantzun eutsan:

—Ibantxu, neure neba maitioi: samatik dingillizka daukadan arria azunegia da; itxaso-bedarrak biurtu yataz oiñetan; ondar oriak meta andia nire bular gaiñian egin dau; suge ankerrak biotzeko odol guztia edoski (txupau) daust.

Auntsuak, negar baten, jauregia biurtu zan.

Eguerdian, bakaldunagana juanda, barriro esan eutsan:

—Jaunoi: itxi nagizu itxaso ondora juaten, bertako ura edan eta sabela garbitzeko.

Bakaldunak baietz esanda, auntsuak ariñeketa baten itxasorantz abiau zan. Bertora elduta, oi u egin eban:

—Elenetxu, ene arrega maitia: itxaso ertzera urten zadi. Onezkero sua egin dabe; galdarak ur irakiñez baterik dagoz, ta aitsuak zorrotz dabez neu ilteko. Ene errukarria!

Elene'k erantzun eutsan:

—Ibantxu, neure neba maitioi: samatik dingillizka daukadan arria azunegia da; itxaso-bedarrak biurtu yataz oiñetan; ondar oriak meta andia nire bular gaiñian egin dau; suge ankerrak biotzeko odol guztia edoski daust.

Auntsuak, negar baten, jauregia biurtu zan barriro. Orcfuan bakaldunak kolkorako esan eban: "Zer dala-ta, auntsuak gurako ete yok itxaso ertzera juan?"

Orixe oldoztu ta irugarrenez agertu yakon auntsuak, bet! lez, esaten:

—Jaunoi: itxi nagizu itxaso ondora. juaten, bertako ura edan eta sabela garbitzeko,

Bakaldunak baietz esan eutsan. Baiña ikusteko zetan joian, bere atzetik juan zan. Itxaso ertzera elduta, auntsumiak oiuegin eban:

—Elenetxu, ene arreba maitla: itxaso ertzera urten zadi. Onezkero sua egin dabe; galdarak ur irakiñez beterik dagoz, ta aiztuak zorroztu dabez neu ilteko. Ene errukarria!

Elene'k erantzun eutsan:

—Ibantxu, neure neba maitioi: samatik dingillizka daukadan arria az-tunegia da; itxaso-bedarrak biortu yataz oiñetan; ondar oriak meta aundia nire buiar gaiñian egin dau; suge ankerrak biotzeko odol guztia edoski daust.

Baiña auntsumia arren eta arren aguan. Abots bigun eta itzalagaz dei egiten eutsan. Orduan Elene, alegin aundia eginda, itxaso barrutik azalera igon zan. Ur ganian egualarik, bakaldunak besuetan artu, samatik dingillizka eukan arri aztuna kendu, itxaso ertzera atera ta akaraz ta errukiz itaundu eutsan:

—Zer jazo yatzu, baiña?

Elene'k dana edestu eutsan.

Bakalduna ta auntsumia asko poztu ziran. Eta, beste barik, irurok alkarrekin jauregira blurtu be bai. Bat-batez jauregiko baratzeko zugatzetan adar ta orri barriak *erne*, landarak loratu ta jauregi-inguruetako gauza guztiak piztu ta alaitu ziran.

Bakaldunak agindu eban sorgiña ilteko. Sutzarra (su aundia) eginda, bertan *erre* ta il zan. Ordutik *aurrera* bakalduna, emaztia *ta* auntsumia (beti auntsume izan zana) bakian eta zorion aundian bizi ziran.

AFANASIEV-ALTUNA

IRU ADISKIDEAK

Urte batzuk goiti, oso zorionsu bere aberrian, errege bat bizi zan. Zorionak, lagun asko geureganatuten dauzela, zetan esan bez, egunero daku-sgun egia bai da: errege oneri be eldu yakozan ba iru adiskide. Batez be lenengo biak begikotzat eukozan. Aientzat beti esku zabala.

Leku guztietan bere alboan eroiazan. Irugarrena ez yakon ain begininikoa, oster. Onetzaz aztuta erregea sarri egoan.

Alako batean, erria asaldatu yakon eta ugarte batera errege gaixua erbestetu eben. Ugarte a zan ikeragarria! Ez egoan ezer jateko be. Bere larrialdian baiña erregeak uste eban, oso maite ebazan lagunak, adiskide-tasuna bide, lagun egitera etorriko zireala. Beragandik ainbat mesede artu ebenak, erbestera jarraituko eutsoela. Irriñarte argi onek alaitu eroian apur bat. Zorionean batu yakun adiskideagan, i'zan be, nok ustetsiko dau?

Adiskide batek, ba, erregearen zoritxarra ikusi ebanean, iges egin eban; besteak, barriz, kairaiño lagundu arren, ugarteko bakartasuna zala-ta, arin bai arin itxi eban bertan bera.

—Non dira nire adiskide zintzoak? —iñoan erregeak—. Non euren abintza ederrak? Au larritasuna!, bakarrik bizi bearko, neure zoritxarrean, beste adiskidea bada amesetan be eztot uste nigana etorriko danik. Ainbat mesede artu eroiezanak laga ka, zer ez dagike besteak?

Alan be, adiskide auxe, erregearen lorra jakitean, irain guztiak alde batera itxirik, lagun egitera joan yakon.

Au bai zala au, egizko adiskidea!

Antzera, gizon guztiok iru adiskide daroaguz bizitran. Eta eriotzea datorrenean, iru lagun orreik, zer ete dagie? Diruak, gizonaren adiskiderik begikoenak, laster bai laster aldo dagio; aideak, bigarren adiskideak, obiraiño lagunduten ba'dautso be, arin etxera itzuliten dira.

Irugarren adiskidea, egin onak yakuz; geienean onetz aztuta dabiltz gizonak. Baiña, ba-dator eriotzea, bai?, eta adiskide onek bakar-bakarrik beste ludira lagunduten dautso. Onek zoritxarrean jarraituten dau.

Au bai dala benetako adiskidea!

BASARAZ, I. L.

EGUZKIA TA EURIA

Ekaitz aldi ta eurite baten, mutiko batzuk euren artean mormoxetan ziarduen:

—Ene Jaungoikoa ! Zer dala-ta eguzkiak beti argi ez ete dau egiten?

Aldi gitxi barru bai zirudian, Jaungoikoak euren eskariak entzun zituala: Illa askotan, ba, ortzean (zeruan) (aiño txikienik ez zan agertu.

Eta leorte ain luzeak, solo, zelai ta baratzetan kalte andiak egin zituan. Baratzean, landara eta lorak igertzen ziran, eta gurari biziz itxaroten eben liñoa be, ontza batzuk baiño etzan azi.

Eta amak esan eutsen: —Ointxe igarriko dozue, euria, eguzkia bairio bearrian gitxiagokoa ez dala. Jaungoikoaren jakiturizko erabagi onetatik, ikaskizun auxe beti atera egizue: Beti alaitasun eta atsegiiiez bizitea ez da egoki, baita eroapen ta jakituria lortuteko, neke ta atsekabeak igarotea egoki daia.

Gogaldu daigun beti, Jaun-jakituria,
pozez arturik beti bere guraria;
eguraldi *ona* lez ekaitz ta euria,
pozez gauza alai'a, naiz atsekabea.

SCHMID-MANTEROLA

BARRUETA-TORREKO ORTULAU

Urteak dira esaten noana jazo zala. JVIarkia'n, Barrueta-Torreko jaunak ortulau azkar bat eukan. Ortu arazoetan aurrera ba'zan, ortu ingurura madari-usaiñean etozan mutil gazteai anka jokoa eragiteko be etzan makala,

Batzuetan, anka jasotea baiño txarragoa zan gazteen saria. Bestela esan beiskue Barrueta'runtz, madari-sasoian, jokerea euken markiañar mutillek, madarien ordezt, baten baiño sarriago, lepoa ondo berotuta ekarri ebenak.

Gauero-gauero igaroten zituen ortulauak orduren batzuk madaripeen baten ezkutauta. Eta ara lapurretan etozenai narruko galantak emonda, kentzen eutsen ostera etorteko gogoia.

Bein, orraitio, Markiña'ko mutil bik lakatz ederra sakatu eutsoen ortulau orri. Gau baten kate-zar aundi batzuk artuta eldu diran biak Barruetako ortuaren ormetara; ba-ekien ortulaua madaripean egongo zala, oi eban legez; baiña gaba illun-illuna, eskua begien aurrean ikusi eziñekoa zan-eta, ixil-ixillik batak goiko orma ganera ta besteak bekoarenera urten eben. Bertatik eta itzaltsu asi ziran alkar berbetan.

GOIKOAK: —"Satanas".

BEKOAK: —"Zer biok, Barrabas?"

GOIKOAK: —"Or madaripean dagon gizonori eroaik inpernura ta-tarraz".

Emen asten da bekoa, kateakaz, zaparrada baten "zirrin-zarran, zirrin zarran".

ORTULAUAK: —"Koiñe! Zer dok au? Deabruak neu eroatera yatozak!"

Ba-zan ankotsa madaripetik etxera. Orduan jatsi ziran mutil biak ortura, jan eben nai beste madari ta, kolkoak ondo beteta, Markiña'ra joan ziran, adurra dariola ta barrez ortulauaren lepotik.

NORUEGAR BATEK MARKIÑA'n BATUA

GIZONAREN AZKATASUNA

Senean dagoan gizonak aukeramena berea dau. Ta aukeramena, au edo beste gauza aukeratzeko almena da-ta, gizona ain zuzen be, almen ori daukalako da azke edo libre.

Azkaiasuna, ostera, urre ta zidarrez ezin erosi, urre ta zidar guztiak baiño obe ta ederrago bai da. Zein maitagarri dan gizonaren almen bikain au, antxiñako ipuin onek adi-erazien dausku ederto.

Bein baten, illunabarrez, txakurrak eta otsoak alkar iopo egin ei eben bide-kurutzean. Batak besteari "kaixio lagun" esan ta gero, oisoak txakurrari onela dirautso:

—Mutil, ire lodien lodial, narrua betean ago; uleak be argi "brist brist" egiten dauske; zelan arrano gizendu az orrenbesteraño? I baiño indartsu ta bizkorragoa nok, baiña gosez naiabilk, gizona zer dan be ez dakidala, azur eta azal uts.

—Nire zeregiña egin nai' ba'dok, gizendu al izango az i be —diñotsa txakurrak.

—Ze zeregin?

—Atezain egon, ta gabaz ugazabaren etxea, lapurrekandik zaindu.

—Ori baiño ez ba'dok, orretarako gertu naiagok neu be. Orain rñendi ta oianetan aize ta euriz, edur ta izotzez bizikera latza yaroat. Zeinbat atsegiñago teillapean bizi, ta alper ta nagi, jatekoz ase.

—Ator, ba, neugaz.

Nagusiaren aretoruntz alkarregaz doazala, idi-narruz egindako ustaia dakus otsoak txakurraren saman, eta au diñotsa:

—Adiskide, zer dok ori?

—Ezer bez.

—Ezer ez doala? Esaidak, arren, zer daroak saman?

—Gaizto antza be ba-yaukadala-ta, loto egiten naioek, egunez atsedena arturik, gabaz itzar egoteko. Illunabarrean azkatzen naioek, eta emetik zear ibiltzen nok. Janaria, neuk eskatu barik ekarten yaustiek: ugazabak bere maiko azur ela ondakiñak, otseiñak barriz ogi-lautak eta jaki gizenak.

—Ondo yagok, baiña esaidak: ona nai ara joateko gogoa datorkanean, ori egiteko azkatasunik ba ete daukak?

—Orixe ez, geienik beintzat.

—Orduan, agur I Goretsi doazan zorion guztiok euretzat itxita, ni ba-naioak lengo bizibidera, azke ta *neure* eskuko ez nazala errege be etxoat izan gura-ta.

Azkatasuna
doe bikaiña,
ik zonionsu
dagik gizona !

IGOTZ

GANTZUGAILLUA TA GANTZUTZAILLEAK

Mauruak eta kristiñauak alkar ilten ibilten ziran aldian, sorgin batek arein aldea artu eban. Gaur legez, Araba'ko nai zelai nai mendi artean eunka mauruak ilda ba'etzazan, urrengo goizerako guztiak biztuta barrero kristiñauen aurka jagiten ziran. Alako gauetan, sorgin bat, lapiko andi bat gantzugailluz (ubientuz) ondo betea kaltzerpean ebala, zelai ta troka areitan gizonik gizon ibilten zan eta atz bi lapikoan sartu ta illikoen zauriak igortzi ta beste bagarik, lotatik legez jagi oi ziran mauruak. Iñoz ez eukan gantzutzaille onen barririk.

Bein Zaukulanda'n (eztakit nik Zaukulanda non dagon) triskantza andia egin eben gutarrak arerioen artean, baiña beste garaitza batzuen anztzera arratsalde atakoa bere, alperrekoa izango ete eben bildurrak jota egozan. Gitxien uste ebela, nagosien artean sartu zan mutil gazte ta errutsu baizen burutsu bat.

—Gizonak —esan eutsen garaitzailleai—, zuek lo zatzazen arlean neu egongo naz Zaukulanda'n itzarrik eta neure kontura illok iltea.

Gabardi inguruan atso ule-zuri bat bere lapiko ta guzti agertu zan. Lenengo aurkitu eban illaren aurrean makurtu ta lapikoan atz bi sartu ta gantzugailluz zauriak igortzi ta bat-batera mauru illa biztu ta jagi zan. Mutillak au ikusita, ixil-ixillik joanaz, "sast-sast" bere igun zorrotza gudarari biztuari lenengo ta sorgin biztutzailleari gero ondo sartuta, biak il ebazan. Aisoaren ondoan lapikotzarra ikusita (ordurarte illunagaitik ez eban ikusi al izan), aren bidez illak biztuten ete ebazan jakin gurarik, bere atz bi antxe sartu ta zauriak gantzutu eutsazan atsoari. Arriturik eta erruturik, mutillak orduan bere iguna jasota eukala.

—Enagik il, mutil, enagik il —esan eutsan sorgin biztuak—. Bizirik itxi ba'nagik, gantzugaillu ori zezaz ta zelan egiten dan irakatsiko dauat.

Mutillak, ez entzun egin, sastada bat edo bi emonda, an itxi eban sorglña arnasarik ez arima bagarik.

Ez eben gure gudarariak siñistu nai mutil adoretuaren egitsari ederra.

—Ezetz? —zirautsen berak—. Ezetz? Il neu zeuek eta gero arduraz atz bi lapikoan sartu ta bertako bazi orregaz bazitu, igortzi ta gantzutu nagizue. Baietz ta baeitz, egiteko ta egiteko.

Mutillari atsegin egitearren, sastada batez il eben, ta minutugarrenean biztu be bai.

Gero Zaukalanda'n ilda etzazan kristiñau gudamutillak, eguna zabaldu orduko, sorgiñaren gantzugaillari eskerrak, biztu ta bizkor-bizkorrik jagi ziran guztiak.

AZKUE (R. M.)

OILLAR ZURRA

(AMAICA GABETAKO IPUIÑA)

Bere aberien izkerea ulertuten eban nekazari aberatsa bizi ei zan. Baiña, almen ori emon eutsanak, beste iñori ez irakastekotan emon ei eutsan, ostantzean bertan ilgo zala-ta.

Bein, kortan alkarren onduan egozan idiari ta astuari autu edo al-karritz auxe entzun eutsen:

—Eu bai zoruntsua azala, adizkide! —lirautsan astuari idiak—. Egunean-egunean otseñak garbitu ta ikuzi egiten au; eta edateko ur garbia ta jateko garagarra eurrez izaten dozak. Gure nagosiak ibillaldiren bat egin gura yokanean axe eruatia dok ire lan bakarra. Niri, barriz, guztiz bestera jazoten yatak! Goxean goiz goldiari lotu ia egun osuan lurra urratuten jardun biarra izaten yuat; eta auldurik egon arren, ekin biar, morroia aida ta aida atzetik akuluka etorten dok-eta. Goxetik illuntzerarte <lan eta lan jardunda gero, jateko galtzu-pillotxua besterik etxostek emoten, eta bera zikiña, lurrik kendu be etxotsek egiten eta. Lo egiteko, barriz, noxean bein baiño etxostek azpigarririk iminten. Eure zoriona opa izango etxuak, ba?

Astuak idiari gura eban guztia esaten itxita gero, onan jardetsi eutsan:

—Tenteltzarra azala esate yuek gizonak, eta egia esan be! Ezetariko eragozkairik iminteki, eruan gura aben edonora juaten az; eure lanak lorra besterik eztausk emoten; eta lan orren emokuna eskarronik erakusten ez dauskanarentzat izaten dok. Eztok ik kemenik, indar aundia bai, baiña. Aska onduan lotu gura abenean, zegaitik eztok gogor egiten? Zegaitik eztok eure aserria adarka ta orruka erakusten? Zegaz edonori bildurra eragin euki arren, alperrik dok eure almen ori. Bedar txarra ta galtzu zikiña

emoten dauskezanean, ez jan: usain egin eta itxi. Esan dauskadan au egiten ba'dok, egikera barri orren ondore onak laster nabaituko dozak, eta neuri be eskarrona agertuko daustak.

—Eure esana ziero beteko yuat, ba: ikusiko dok! —erantzun eutsan idiak.

Autu onen izpirik ez eban galdu nekazariak, dana aitu eban.

Biaramon goizean, mutillak idia buztartu ta solora eruan eban goldaketan. (diak egun guztiko lana ondo egin eban; gabean, barriz, mutillak aso ondoan lotu gura izan ebanean, bestetan lez otzan-otzan egon barik, orruka atzera egin eban, eta burua jatsi be bai, adarka egin gura bai'leban, astuak esan eutson letxe.

Urrengo egunean be, otseiña idia lanera atarateko kortaratu zan; baiña, askako bedar-galtzuak ikutu barik egozan eta idia be etzanik arnasoska ekusan eta, eri (gexorik) egualakoan, idia lan egiteko etzala gauza iragarri eutsan nagosiari. Asto malmutzaren onuak ekarri eban ondoria ikusita, baserritarrak astua zigortutea erabagi eban. Eta, "idi orde z astua lotu goldiari ta goldaketan gogor eragin", esan eutsan mutillari.

Astuak nai-ta-ez egun osoan goldaketan jardun bearra izan eban; eta ekanduta ez egualako, nekiaren nekiaz gorriak ikusi bear izan ebazan. Gainera amaikatxu zartada artu ebazan eta, etxeratu zanean, zutunik be ezin zan egon.

Artian idia poz pozik: askako guztia janda gero, egun osuan atsedean izan zan. Astuaren onuak ekarri eutson zorionaz pozarren eguan, egon be; orregaitik, astua etxeratu zanean, bere eskarrona gogoz erakutsi eutson. Astuak tautik ez eutsan jardetsi. Ez ba, jazo yakonaz sumin be sumin eguan-eta.

—Ni izan nazan buru-ariña! —gogartuten eban astuak—. Neure erruz etorri yat, zifnez, zoritxar au! Bizikera ederra zan niria: opa legikezan guztia emoten eusten. Orain, orde z, ez da txikia nire lorra! Esturaldi ontatik urteko itzulbiderik asmetan ez ba'dot, egin dau niriak!

Au esanda bertan aska ondoan zerra(do jausi zan; aunaturik eguan, benetan. Etxeko jaunak astua larri ta idia barriz ondo egozala jakin ebanean, euron autua entzun gura izan eban eta, apalostian, emaztia lagun ebala, aberien urrean jesarri zan. Autua onan asi eban astuak:

—Esastak, lagun zar orrek: mutillak jatekoa yakarkianean, zer egiteko asmua dok?

—Euk esan eustakana egiten jarraituko yuat, ba —erantzun eutsan idiak—; usain egingo yuat eta ezer jan' ez, gexorik bai naiengokan.

—Ez egin olakorik, bizi gora ba'az! Ori ba'dagikek egln yok euriak: ointsu gure nagosiari eutzaz itz egiten entzun yotseat, eta esan yokanaz ikaratuta geratu nok.

—Ene! Zer entzun dautsok, ba? Argi ta garbi esastak, arren adizkide on orrek.

—Nagosiak auxe iñotsan otseiñari: Gure idl au jateko ta zutunlk ego-teko be gauza ez dan ezkerro, biar iltea oba izango da; bere okeleaz txlroal sorosiko dautsegu ta narruaz abarkak egln. Deltu, ba, biar arakiñari. Orlxe esan yotsean nagosiak morroiari. Orregaitlk, ez dok lenguan lez jardun biar oinguan, ostera balño: bedarrak eta galtzua askaratutian, bertan jagi adike ta jangale aundia erakutsirik, irunsi egikezak. Auxe dok egiz malte audan onen onua. Bestelan jardun ezkerro, Ira azken ordua or dokala eglk.

Astuak esan eutsanaz ikeratuta eguan idia ta aren esana bestetako gertu zan. Nagoslak, barriz, dana aitu eban eta barre-algaraz egon be ezin zan.

—Zer da ori? —esan eutson emaztiak—. Zergaitik da olako barre-gura ori?

—Ene emaztetxu —erantzun eutsan glzonak—, neu barreka lkustiaz naiko dozu.

—Ezta! Edozelan be, zegaitlk barre egltan dozun jakln gura dot.

—Ezin ba, ene emaztetxu! Astuak idiari esan daotsanagaitik barre da-gidala besterik ezin dautzut esan: besterlk agertutia gebenduta dot eta.

—Eta berori agertutia nok eragozten daotzu, ba?

—Agertuko ba'leutzut, bertan ilgo nlnztake.

—Bai zera! Zok ixeka (burle) egin gora daustazu! —jardetsi eban emakumiak—. Esan daustazun ori ezin lel egia lzan. Zegaitlk barre egin dozun ezpa'diñostazu, ta sstoak idlari esan dautsana agertu, ezkara, zñez, alkarregaz blzko.

Ori esanda, emaztia etxeratu ta antxe zokuan gau osuan negarrez lo barik egon zan. Senarra, barriz, oeratu zan; eta blaramonean emaztlaren ai-ene ta negarrak amaituten etzirala ikusiki, maitero onan itz egln eutsan:

—Ene emazte malte ori: etzadl olan atsekabetu; etzan orrenbestera-ko arlua ta. Aiztu ta ez izan bere ardurarik: biotz-lotzez deskatzut.

—Ez, ezelan be ezin naz aztu; eta nlre jakin-gurea asetu arte, ne-garrez iraungo dot.

—Baiña, zeure burukeri orri amor-eglngo ba'leusklot, blzia galdu egin leokedaJa ez daotzut esan, ba?

—Jazoko dana jazoko dala, nlk jakln gura dot eta eztot atzera egingo.

—Tira ba l Ba-dakit zuri atzera eragiteko biderik eztagona ta zeure seta orrek nai-ta-ez eriotza ekarriko dautzun ezkeru, seme-alabai dei egingo dautset, il-orduko ikusi zagiezantzat.

Seme-alabak, altaglñarrebak eta emaztlaren beste senide guztiak batu ebazan gizonak eta jazoten zana atzaldu eutsen.

Gizonaren esanaz arduretan geratu ziran danak; eta bere leluari izteko, arren, eskatzen eutsaen emaztlari. Alperrik; atzeratu baiño gurago ebala iltea erantzuten eban. Bere gurasuak bakarrik be, itz egin eutsaen: garrantzi bako gauzea zala, umekerla zala, lotsagarria zala, ta abar. Ez eben ezer jadetsi. Seme-alabak amaren itxukeriagaitik negar egien, bai negar. Senarrak, barriz, emaztia malte eban eta zer egin ez eklan. ilten ltxiko ete eban, ba? Bere burua galdu arren, ixlllekua esatia ez ete zan oba? Bai, esan biarko eutsan...

Lenago, baiña, bere abere-egaztia azken ikertalditxua egin gura-ta, etxetik urten eta ate onduan jesarri zan gure glzona. Abere-egaztlak, txakurra ta ollarra ta berrogetamar oillo ziran. Nagosia ate onduan jesarrita eguala, txakurra oillarganatu zan, eta onan itz egiten eutsala entzun eban gizonak:

—Eztok lotsa apurrik be, oillar orrek! Etxeko guztiak itun be itun yagozak; eu, barriz, olloakaz jostaketan l

—Zer jazo dok, ba —jardetsi eban ollarrak asarre amar—, egunero egiten yuadana gaur be ez egin biar izateko?

—Gure jaubla estu ta larri yagokala eztaik ala? Senarraren ixilieko zera jakin gurarik emaztiak negar ta negar daragoia, bai?, ta agertuko ba'leuskio, senarra il egingo ei litzakek. Senarrak emaztia malte yok, eta beronen ai-ene ta negarrak estuturik yagok. Amor egingo ete yautsokan bildurrak galagozak danok etxlan; eu bakarrik jostaketan.

—Gure jaubia dokan zuntzun bakua ! —erantzun eban ollarrak—. Emazte bat baiño izan ez, ta bera eziteko be gauza ez l Nik berrogetamar oillo yuadaz, ba, ta danak neure gurea egiten yuek. Gizon orrek bere burua estutuko ba'laieuek, esturaldi ortatik urteteko bidea idoroko leukiek.

—Zer egin biarko laieuek, ba?

—Ara: emaztia negarrez yagokan gelara sartu ta bardeaz ondo astinduko ba'laleuek, negar egitez aspertuki litzakek.

Oillarrak iñuana entzun ebaneko, baserritarra jagi ta emaztia eguan gelaratu zan, itxi eban barrutik atea, ta astindu eban, bai astindu, andera setatia. Laster asi zan parkamen-eske ta geldituteko arrenka, jakin-gurea amaitu yakola-ta. Orduan gizonak be bere zereglña amaitu ta atea zabaldu

Arrezkero, emaztiak ezetan be ez eban jakin-gurarik erakusten; eta zorontsu bizi izan ziran. Jaubiak txakurra ta oillarra ondo sariztu ebezan, eta arrezkero abere-egaztiak bakotxa bere irabazi-arauz erabilten ebazan.

Bai ba: goiz edo berandu bakotxak beria artu darua: onak saria ta gaiztuak zigorra.

NABARRIZTARRA

L O T S E A

Aizea, ura ta iotsa alkarren adiskide andiak ei ziran, beti alkarregaz ebiltzanak. Eta bein, aizea ta ura bakarrik aurkitu ziran batean, aizeak itandu eutsan urari:

—Nun ete dogu gure adiskide lotsa?

—Ez dakit nik nun geratu dan.

—Guazen bere billa,

Eta an doaz biak galdutakoaren billa. Aizeak, mendi bizkar ta sakosta-trokak arakatzen ditu leia bizian; urak, barriz, ibar ta erreka zulo guztiak garbitzen ditu aren aztarren billa.

Luzarotxo orrela jardun ondorean, aizeak urari:

—Aurkitu al dozu?

—Errastorik be ez —urak erantzun.

—Guazen goi aldera.

Ta aizea ba-doa burrundara utsean gora ta gora, zeru urdin aldera. Ura be, len-lena laiño-izpi ta gero odei illun egiñik, an dabil alde batetik bestera, aspertu barik.

Aurkitu bearrez ia oso abaildu ta nekaturik, urak dirautso aizeari;

—Gure adiskide maitea aurkitu al dozu?

—Jo ta astindu ditut baztarrak, baiña bere lorratzik be ez: alperrik gabilta...

Onek esan nai dau: lotsea, bein galdu ezkero, ez dala geiago aurkitzen.

IGOTZ

LUGIÑA, ARTZA TA AZERIA

Lugiña basoani eguan, Janian. Alako baten, artz batek, beragana elduta, esan eutsan:

—Zu, lugin, il bear zaitut.

—Enagizu il —erantzun eban lugiñak—. Nik arbiak ereIn eta gero, erdibituko doguz. Niretzat sustarrak artuko dodaz. Zuretzat orriak izango dira.

Artza, baietz esanda, mendira juan zan,

Arbiak batuteko aldia eldu zan. Lugiña asi zan arbiak ateraten. Orduan artza agertu yakon, berai egokiona artzeko asmoz.

—Kaxo, lugin! Orain arbiak bilduten dozuzan ezker, agindu zeustana betetako ordua eldu da —artzak esan eutsan.

—Bai, ta pozik be, lagun zarra. Gura ba'dozu, etxera eruango dautzut toketan yatzuna.

—Bai, eruan, ba.

Urrengo egunian luginak artzari eruan eutsan burdibete arbi-orri. Artza pozik lotu zan, arbien orriak, jateko onak zira'lakuan.

Baiña beste bein, lugiñak bete eban burdia benetako arbiakin. Eta alboko urirantz zuzendu zan, eurok saltzeko ustez.

Bidean artzagaz topo-egin eban, eta onek esan eutsan:

—Kaxo, mutil! Nora zuaz?

—Alboko uri nagusira nua, arbien sustarrok saltzeko asmoz.

—Tira, ba. Baiña itxi nagizu arbi-sustarrok zelako gustua dauken txas-tetan (probetan).

Lugiñak, gura-ta-ez, arbi bat emon bear izan eutsan. Artzak berau osorik janda, amurru biziz esan eutsan.

—Alde ortik, madarikatu ori! Guztiz atzipetu nozu. Arbien sustarrak, orriak baiño obiaki dira. Barriro ereiten dozuzanian, sustarrak emongo daustazuz. Zuretzat orriak izango dira.

—Tira, ba.

Eta iugiñak, arbiak erein bearrian, garia erein eban. Garia bildutako sasoiak eldu zanian, galburuak beretzat artu, garauak banan-banan kendu, errotara eruan eta urun zuriederraz ogi gozoak egin ebazan. Artzari garien sustarrak bidaldu eutsazan.

Onek, igarri ebanian, lugiñak bere lepotik barre egiten ebaia, amurruz orru egin eban:

—Zu, ziztriñoi, asarre nago. Etzaitetz egurretan basora juan, an ikusten ba'zaitut ilgo zaitut eta!

Lugiira etxera biurtu zan, eta sutarako egurrik ez eukan arren, etzan *azartu here* billa mendira juaten. Etxeko zuzulu (lanka) ta upa guztien zura erre eban. Baiña ori amaituta, mendira juan bear egurretan, nai-ta-ez.

Ara elduta, azeria agerto yakon.

—Zer jazoten yatzu —onek itaundu eutsan—. Zer dala-ta zabiliz orren estu ta astiro?

—Bildur naz ia artza topetan dodan, neugaz asarre dagolako. Esan daust ilgo naula, emen ikusten ba'nau.

—Ez estutu, gizona: neuk gaizkatuko zaut. Baiña esan bear daustazu, orren orde (truke) zer emongo daustazun.

Lugiñak, azeri aurrean burua makartu ta esan eutsan:

—Esku-zabala izango naz zurekin. Arrisku onetan lagun egiten ba'daustazu, amabiko bat oillo emongo dautzut.

—Tira. Artzaren bildurrik ez izan. Biar dozun egur guztia ebagi ta bitartean ni oiuka ta garrasika asiko naz, eiztariak etorri dirala adirazoteko. Artzak itauntzen ba'dautzu zer esan gura daben oiua ta ga.rراسi orreik, esan egiozu eiztariak dabiltzala, otso ta artzen atzetik.

Lugiña egurretan asi zan, eta beriala agertu yakon artza, arin-arinda etorrana.

—Zu, lagun zarra. Zer esan gura dabe oiua ta garrasi orreik? —artzak itaundu eutsan gure gizonari.

Eiztariak dira, otsuak eta artzak ilten etorri' diranak.

—Ene bada ! Ez esan emen nagonik. Zaindu ta jabon nagizu burdi-azpian, arrapau ez nagien.

Bitartean, sasi-ostean oiuka ta garrasika eguan azeriak lugiñari esan eutsan:

—Kaxo-mutil! Ikusi ete dozu emen artzik?

—Ez, eztof ikusi.

—Burdi azpian daukazuna, zer da ba?

—Zugatz-enbor andia.

-Zugalzenborra ba'iitz, elitzake burdi azpian egongo, burdi ganian eta loki bategaz lotuta baiño.

Orduan artzak, ixM-ixillik, lugiñari esan eutsan:

—Jarri nagizu, ainbat ariñen, burdi ganian, eta lotu sendo lokiagaz.

Ez eban lugiñak besterik gura. Artza burdi ganian imiñi, kordelagaz sendo lotu ta asi yakon aizkoreagaz zartada andiak buru-buruan joten, il arte.

Beriala azeriak eldu ta lugiñari esan eutsan:

—Artza nun dago?

—Ilda oraingo.

—Tira, ba. Orain bete biar dozu abindu daustazuna.

—Baita pozpozik be. Etxera etorri ta an emongo dautzudaz amabi oilluak.

Lugiña burdi ganian jarri ta etxerantz abidu zan. Azeria aurretik joian, ariñeketan. Etxera elduta, lugiñak txakurrai dei egin eutsen, azeria arrapau egientzat. Baiña au, orixe igarrita, basora juan ta zulo sakon baten ezkutau zan. Arnasea artuta gero, asi zan itaunduten:

—Neure begiorrek: zer egin ete dozue ariñeketan nentorran bitartian?

—Bideari ondo begiratu, edozegaz topo-eginda, lurrera jausi' etzadin.

—Eta zuek, neure belarriok?

—Adi-adi egon gara, ia txakurrak urreratzen ete ziran igarteko.

—Eta zuek, ene oiñok?

—Alik ariñen etorri gara, txakurrak arrapau etzagiazan.

—Eta zeuk, ene buztan orrek, zer egin ete dozu?

—Ni zure anka artera sartuten nintzan, neugaz topo-eginda, lurrera jausi ta atzetik etozan txakurrak oratu ta agiñak sartu egitzuezan.

—A, zitaloi I Artuko dozu irabazi dozun zigorra.

Eta buztana zulotik atarata, atan (kanpuan) egozan txakurrak deitu ebazan, esanaz:

—Txakurrak agiñakaz buztana oratu, kanpo aldera sakatu (tiratu) ta azeria, oso-osorik, atara eben.

Etzan betekada makala izan gure txakurrok egin ebena!

AFANASIEV-ALTUNA

Senar-emazte bi, zarrak eta txiro-txiruak ziran. Bein baiño geiagotan ogi-apurrik be ez eben eukiten. Bein basora juan ziran, ezkurak batu ta etxera eruateko, zeozer jan bear eben eta. Jaten egozarian, atsuari ezkur bat jausi yakon txabola azpian eguan lezara edo zuiora. Andik laster, ezkurra erne ta landaratxu bat agertu zan beian egozan ol arteti'k. Emaztiak orl ikusita, senarrari esan eutsan:

—Zu, Kepandone, zer dauksgu gaur jateko?

—Itxon pizkat —onek erantzun eutsan—. Ikusi biar dot errota-arri onek zelan egiten daben lana.

Eurok artuta eioten lez asi zan. Eta batlbaten, pastelak eurrez urteten asi ziran. Agure-atsuak pozik jarri ta sekulako betekadia egin eben.

Bein zaldun bat txabola ondolik igaro ta barrura sartu zan.

—Egunon, aizkidiak. Ezingo dausiazue jatekorik emon?

—Zer emongo dautzugu, baiña? Pastelak gura ete dozuz? —atsuak esan eutsan.

Eta errota-arriak artuta, eioten asi zan. Eta aide baten urten ziran ugari pastel gozuak. Zaldunak betekada galanta egin eban. Eta gero atsuari esan eutsan:

—Errota-arri onek saldu biar daustazuz.

—Ez, ezin leike ori —atsuak erantzun eutsan.

Orduan zaldunak, iñartsiz (enbiriz) ostu eutsazan.

Agure-atsuak ori igarri ebenian, guztiz itundu ta atsekabetu ziran.

—Itxon pizkat —urrezko gandardun oillarrak esan eutsen—. Bere atzetik juango naz, egazka, ta atrapauko dot.

Eta egaiz-egrtzen asi zan. Zaldunaren jauregira eidu, ate ganian jarri ta abestuten eban:

—Moko, moko, ura edan.

Eta, pizka-pizkaka, oxiñeko *ur* guztia edan eban. Beriala zaldunaren jauregira egaiz-eginda, txeigo aldian jarri ta abesten asi zan:

—Kikirriki! Eup, zaldunoi ! Atzera emoistazuz ostu dauskuzuzan errota-arriak.

Zaldunak, asarrez, eskatseiñari esan eutsan oillarra arrapau ta laba gorian sartzeko. Eskatseiñak oillarra artu ta laban sartu eban. Baiña bertan egualarik, au esaten asi zan;

—Moko, moko, ura bota.

Eta bota eban uragaz su guztia itzali eban. Barriro egaiz-egin eban. Ta zaldunaren jauregira sarturik, irugarrenez abestu eban:

—Kikirriki ! Eup, zaldunoi! Atzera emoistazuz ostu dauskuzuzan erro-ta-arriak.

Une atan zalduna aizkfdiakin eguan jai aundia egiten, eta oneik, oillarraren abestia entzunda, ikaratu ta etxetik kanpora urten ziran.

Zalduna euren atzetik juan zan, ezer etzala ta atzera etorteko esanaz. Baiña urrezko gangardun oillarra, bitartian, errota arriak artu fa egaizka agure-atsuen txabolara juan zan. Oneik benetan poztu ta andik aurrera bakian ta zoriontsu bizi izan ziran, errota-arriakin zer jan bai euken eta.

AFANASIEV-ALTUNA

EUSEBIO MARIA AZKUE

Euskal koblakari bikain au —R. M. Azkue zanaren aita— Lekeitio'ko urian jaio zan 1813'garren urteko jorraillaren 13'an.

Ume-ikasbideak Zamudio'n egin ebazan, guraso ta senideen lagundian bizi zala; gero, mutil azitxoan zan garaian, Bilbao'ra aldaturik, San Franzisko'ren agindupeko semeaki'n jabetu zan latin izkuntzaz ta pilosopiaz. Ontan ziarduala, Karlos V-garrenaren guda sortu zan, ta arek be, liburuak itxi ta su-iskilluak artu bear.

Guda amaitu zanean, itxas-gizon izan naiak eroan-azo eban Ferrol deritxon urira, eta oso arreta andiz orretarako ikaskizunak jarraituaz, Pilloto izatera eldu zan. Izen onekin urte batzuk urean igaroaz, Bermeo'ra biurtu zan eta emen itxas-ezaupideak erakusteari jardun eutson.

Ondoren, lanbide berean jardun eban Munduka'n be; eta, atzenik, bere erritar Jose Jabier Uribarren, gitxi lango erri Imaitaleak itxas-gizonen-tzakako ikastetxea Lekeitio'n sortu ebanean, 1861'an, leku aretako erakusle

edo maisu izateko deitu eutson Azkue'ri. Arazo ontan iñsrduala il zan, 1873'ko azaroaren 13'an.

Zelako irakaslea izan zan jakiteko, ez daukagu azterren eske urrin joan bearrik. Or Bermeo, Munduka ta Lekeitio; ortitxeik urten eben batez be bere ikasle izandako itxas-gizonak argi ta trebeak, eta asko be asko izan ziran Eusebio zanaren erakuskizunagaz baliaturik, diru pillo galantak eskuratu ebezanak.

Euskal olerkari errimea zan. Asko idatzi eban or eta emen. Osoan maite eban euskera te euskal erriko gauza guztiak. 1896'an, Bilbao'n argi-tara emon zan bere olerki liburu eder "Parnasorako bi'idea" d'eritxon neur-titz-idazti joria.

AMARAUN BAT

Koronel bat, garbia ta garbi-zalea, sarri joaten zan gualtegi edo kuar-telera zokondo ta zirkillu guztiak zearo-zearo aratuten ebazala.

Agiraka garraizak egiten ebazan sastarrik eta autsik eta amaraunik eta beste edozelango zikinkeririk txikarrena ikusten ebanean.

Beraren ardura andi onek guztizko arduratsu egin ebazan gualtegi atako lagunak. Onen artean ofiziale bat egoan burutsua ta barregarria. Onek bem, aaztuta ala berariz ez dakigu, amaraun edo parasma-metxa (armiar,ma-sare) galanta eukan orma-zoko baten. Eldu zan koronela ta amarauna ikusirik, besoa luzatu ta, amaraunari luzarotxo begiratuta, ilan-du eban:

—Eta ori?

—Ori? Badaki nire koronelak, onelango etxeetan zauri asko izaten direala; batean baioneta-zauria, bestean bala-zauria... Zauriak osatuteko, beti eukiten dogu amaraun bat.

AZKUE (R. M.)

ESKALE TXIKIA

Txomintxo mutil koxkorra zan, inguru-minguruko zidor ta bideak ezin obeto ekizana. Txubil eskale zarrak, beragaz erabilli eban luzaro, ara ta ona eskean; baiña eskatzen besterik ez eutsan erakutsi: eskatu ta eskatu beti. Mutikoak aita deitzen eutson arren, ez ekian aita ebanik, ezta bere sendiko zanik be. Alan eta guzti, beste olakorik ez eban ezagutu-ta pozarren ebilien aren ondoan.

Erriren batera eltzen ziranean, Txomi'ntxo, kale zear limosnatan ibilli ondoren, errementari, arotz edo burdigillearenean egon oi zan, naiko luzaro; arein antzeko ogibide bat pozik ikasiko eukean berak be. Zelako atsegifñez maillukatu burdin goria junguda gaiñean, edo erredizak eta burdiak egin! Txubil'i itanduten eutsan noizik-bein, zergaitik ezin eikean berak ogibide bat ikasi; baiña zarrak beti erantzun bera:

—Egunero ez ete dok jaten? Zertarako lan egin?

Eta mutikoak agin arteko marmar-jardun au entzun oi eutsan:

—Gaurko mutikoak, iñoiz be, ez dagoz pozik.

Egun batean, jente txiroa bizi zan erri bat, batetik bestera, ibilli ostean, zentimu batzuk besterik ez eban batu Txomintxo'k. Beti lez, errementarianean sartu zan, zelan lan egiten eban ikusteko asmuz; eta errementariak, aldarte (umore) onekoa zan-eta, itandu eutson:

—Lan egingo eunkek, txiki?

—Bai, Jauna! —erantzun mutikoak.

Ator ona. Tresnak itxiko dauadaz, eta eurok erabilten erakutsi.

Txomintxo'k, poz-pozik, lanari ekin eutson; orduak eta orduak, igarri barik joan yakozan. Txubfl, artega, mutikoa agertzen ez yakolako; aren billa joan zan azkenik. Aurkitu ebanean, esan eutson:

—Zer dagik or? Alor bereala.

Txominlxo'k, agur egin eutson errementariari; bidez joiazala, zarrak asarre:

—Nik egindako mesedeak orrela ordaintzen daustazak? Eure legea dokan lez, ethez etxe eskale ibilli bearrean, alperrik galdu daroak denpora.

—Erri guztian ibilli naz, aita —diñotsa Txomintxo'k—, baiña auxe besterik ez daustie emon.

—Atxakiak atxaki, muti!! Arrastfan joango az barriro, ta goizean aiña ba'dakarstak, gogoratuko az nirekin.

itxita idoro ebazan, lan ordua zalako, eta ia esatekorik ez eban batu. Augaitik etzan azartzen, ez errementariaren lantegian sartzen, ez eskale zarraren etxera biurtzen. Zer egin? Bide ertzean jarri zan, eta, ezin bestean, negarrari emon. Ba-ekian ez zana errudun, baiña zigorraren bildur zan. Ogi-bide bat jakin-ezak eta teillape baten bizi-ezak, zelako miña emotsan ! Zoragarri benetan, erriko beste mutikoen antzera bizi al izatea ! Bertatik esku-txo guri baten igurtzi gozoa oar (senti) eban bizkar gainean, abots ezti batek galdetzen eutsola:

—Esan, umetxo; zer jazoten yatzu?

Txomintxo'k, burua jasorik, berc sasoiko neskato bat ikusi eban. Errurkiz eukon begira; aren begiak, urdiñak ziran oso; ezin ederragoak iruditu yakozan, batez be negarrez egoan ez-ezagun baterenganako maitasunez be-teak ziralako. Txit dotore jantzia egoan, eta ortik konturatu zan beingoan etzala errikoa, atzerritarra baiño. Txomintxo'ri, gizontzat eukan bere burua ta, ez yakon ondo jausi arek negarrez ikustea. Eta erantzun eban:

—Ezer bere ez.

Neskatoaren begiak maitekorrago biurtu ziran oraindik, eta lengo abots ezti berberak daragoio:

—Bai, mutil, zeozer ba-dozu. Ezerezarren iñok ez dagi negarrik.

Maite eban biotz bat aurkitu ebala-ta, maitasuna iñoiz ezagutu ez eban Txomintxo'k negarrari ekin eutson barrien barri, zotin aundika. Ta orrelaxe, intzirika, azaldu eutson zein zan bere negar-zio ta susterra.

Amaitzean, neskatoak:

—Erdi neugaz.

Txomintxo, ustetsu, aren jarrai. Biotz ongille aren alboan, bai pozkor! Baratzean egon yakon zain, neskatoa etxe barruratu zan bitartean. Itsu-lapiko bategaz biurtu zan. Txomintxo'ren aurrean apurtu eban berau, arri bategaz jota; txanpon-pillo itzala barreia zan zelaian. EskaTe txikia, sor ta lor, etzan azartzen areik batzen; baiña neskatoak, arrena, oi:

—Lagundu egidazu batzen. Zeuretzat dira.

Eskaleak, egundo ez bait-eban ainbeste diru batean ikusi, itaun:

—Danak?

—Bai, dan-danak.

Txomintxo'ri ez yakon, urrean, eratsu ta jasekoa iruditu ainbeste diru artzea, ta are geiago itaun oraindiñok:

—Eta zu, ezer barik geratuko zara?

—Eta zer! Danau zan gozotarako, eta ni ondo nago gozoki barik be.

Txomintxo'k, agur egiterakoan, neskatoari agertu gura iran eutsan, zelan edo alan, mosutxo bategaz be bai, zenbateraiño maite eban. Baiña ain garbi ta txukun joian a, ta bera ain zikin! Etzan azarfu. Berba baf ebagi eben bakarrik bere ezipanak, biotz erdi-erdian jaioa:

—Eskerrik asko. Eta, neskatoak ez entzuteko moduan, ixilka, marmar: Zeozelan odaindu gura neuskio, ba, egin daustan mesedea.

Txubil'ek, Txomintxo'ren eskutik diru-mordba artutakoan, difio:

—Ikusten dok, alper-ontzi? Denpora alperrik galdu ez ba'endu, zenbat batuko euan gaur goizean be!

Egia azaldu eutson umeak, baiña eskaleak siñistu nai ez.

—Ez, ez! Erri onetan diru asko yagok, eta berton geratuko gaituk beste egun batean be.

Biaramon goizez, errirako bidea artu eban Txomintxo'k; eta an ikusi eban aurreko eguneko neskatoa, bere nebatxo urte gitxikoagaz olgetan. Osin batetik ura atera ta barriro bota, auxe zan arein jolasa. Eskale txikia urreratu yakon neskatoari, eskerrak emotekotan; baiña unetxo atan, ura artzeko makurtu zan beste txikia, ta "plaust"! uretara jausi. Ezin azkarra-go, murgildu zan osifeko uretan gure Txomintxo be, ela, egiñalak egin ondoren, atara al izan eban umetxoa, bere arrebatxo naigabetuari emonik. Txomintxo ba-joian joan bertatik, baiña ez eutson itxi adiskide txikiaren amak, esanar:

—Ezin zeintekez joan erri'an zear, orrela bustirik. Erdu, maite; neuk emongo dautzudaz jantzi zikuak.

Umeak, bere ustez, ez eban ezer merezi. Pozarren egoan, aldi-erantziz, ainbat lagundu eutson neskatoagaitik zerbait egin ebalako. Andik laster, beribil aDain-dizditsu bat geratu zan etxe aurrean; umetxoen aita etorren bertan. Zer jazo zan jakin ebanean, nor zan itandu eutson Txomintxo'ri, eta nundik etorren; eta onek egia azaldu eutsan, oso-osorik, jazo zan erara.

—Askotxo egin dok guaaitlek —esan eutson zaldunak—, eta zeoretan lagundu gura neuskik. Gogoko litzakik errementaritzaz?

—O, bai, guztiz gogoko!

Aitak, Txubil'en billa bialdu eban bat; eskekoa eldu zanean, itandu eulson:

—Senide al doru Txomintxo'?

—Bai... ba-dakizu... tira.

Zaldunak ziskutik diru-paper aundi bat atara ta esan eutson:

—Nik gizon egingo neunke mutiko au, gizon baliotsu. Zeuretzat diru-paper au, Txomintxo neure mendean izten ba'dozu.

—Milla laurleko? —oiu Txubil'ek—. Zeuretzat ume ori. Umezurtza zan, eta neuk zaindu izan dot oraiñarte; baiña esker txarreko bat dozu: alperrik galdu oi eustan denporea, eskean bialtzen nebanean.

Aldendu zan eskalea, ta Txomintxo'k bere begiratzailleai:

—Onak zuek, guztiz onak! Ezingo dautzuet iñoiz ordaindu, bear lez, dagistazuen mesedea.

—Asko zor dautzugu, mutiko: geure semetxoaren bizia. Jainkoak jarri zInduzan, bera onez aiarateko bidean.

—Eta zuen alaba nirean. Aren maitasunari esker, gaur emen naz. Iru umeak, anai bai'litzan, besarkatu ziran; eta Txomintxo'k, orain arpegia garbi eukala-ta, mosu bigun bat ezarri eutson bere ongilluari, ezkerreko matraillan.

IGOTZ

ERLEAK ETA LORAK

Erleak loratetik ezti gozoa artzen dabe.

—Nik ondo dakit ori; baiña erleak lorai ze mesede ekarri leikeoe?

—Lorak, abereak lez, batzuk eme ta beste batzuk ar dira. Orregaitik, aleak eta frutua emoteko, oporatu, bata-besteagaz batu egin bear izaten dabe. Au dala-ta, toki baten ereiñotz bat bakarra ba'da, ez dau lorarik emongo, ezta urretxak be bat bakarrik dagoanean. Ar-emeak, bata-besteagandik urrin aurkitzen diranean, aizeak eroan oi dau ar-iriiiia, ta dan oporutzen dira. Baiña, batzuetan, bata-besteagandik oso urrin egoten dira ta aizeak ezin eroan izaten dau ar-iriñik. Onetarako Jainkoak erleak ipiñi dauz. Erlak, lorarik lora dabiltzanean, eurak kontuan jausi barik, anketan lora baten askazia artu ta b'esteari eroaten dautso.

Erleak loretatik ezti gozoa artzen dabe, ta lorak, erleakandik, geitzeko ta ugarltzeko laguntasuna. Onen gaiñera, erleak eta batez be txoriak, eurak

igarri barik, alde baten artzen dabezan aziak, anketan edo egoetan eroan eta beste toki batzuetan ereiten dabez. Jainkoak, onetariko ereilleak jarri ebazan munduan.

GOTZON A.

AGO-BHLARRIAK

Andiki sendiko gazte ta arro antustek, bera baiño zarrago ziran batzukaz etenbako barriketan ziarduan.

Aretatik zarrenak au oarturik, esan eutson:

—Ene seme, Egilleak belarri bi, baiña ago bakarra emon eutzun; eta onek adierazten dau, itz gitxiago egin eta entzun geiago egin bear dozula.

Itz asko egin eta
entzuteztabena,
gogaikarria bai da,
ez baiña ikastuna.

Beste gazte aberats andiki batek otsein bat etxetik jaurti egin eban, arazo baten zintzoa ez zala izan uste izan ebalako; eta bere burua zuritzeko astirik be ez eutsan emon. Baiña, gauzak ondo aztertuta, otseiña errubako zala agertu zan. Orduan bere aitak esan eutson gazteari:

—Jaungoikoak, belarri bi emon dautzuz; batagaz salatariari entzun bear dautsozu, baiña besteagaz salatua izan danari be bai.

Zurtasunak eskatzen dau
bieri entzutea,
iñoz be emon ez dajzun
epai kaltegarria.

SCHMID-MANTEROLA

TXARRIZAIÑA

Beiñola Errege gai guztiz txiro bat bizi zan. Bere erreñua txiki-txikia ran. Baiña, txikia zan arren, ezkondu al izateko naiko andia ba-zan; ta gure Errege-gaiak, afn zuzen be, emazte bat billatu gura eban.

Enperadorearen alabari gogoz esango eutson: "Nigaz ezkondu gura dozu?", ta bildur barik esan leikeon; bere izena, ba, inguru guzti areitan ospetsua zan, eta amaikatxo Errege-gaiek baietz erantzungo eutsoen aren eskabideari.

Baiña, Enperadorearen alaba !

Entzun zer jazo zan.

Gure Errege-gaiaren aitaren illobi gaiñean larrosoño bat egoan. Zelako polita! Bost urterik baten bakarrik loratuten zan. Ta orduan bere, larrosa bat baiño ez eban emoten. Baiña, zelako larrosa polita! Bere usain gozoa artu ezker, kezka ta neke guztiak aztuten ziran. Urretxindor bat be ba-zan, ederto absstuten ebana; bere eztarritik soiñu politenak urteten ziran. Enperadorearen alabak, euron entzutea ba-eban eta larrosa ta urretxindorra lortu gura ebazan. Errege-gaiak zidarrezko kutxa eder bitan sartu ta bialdu eutsozan.

Enperadoreak bere aurretik eroan-azo ebazan Errege-gaia andragoiakaz egoan gela andi' batera. Kutxa biok ikustean, txaloka asi zan, zoraturik.

—Katu txiki bat baiño etzan! —oiu egin eban berak.

Ta, ara, larrosoñoa atara eban lenengoa.

—Auxe larrosoño zoragarria ! —egin eben andragoiak.

—Zoragarria ez-eze, arrigarriro egiña be bada! —esan eban Enperadoreak.

Erregin-gaiak orduan, usalña artuz, ia negar egiteko zorian asi zan:

—Ene, aita ! Ez da eskuz egiña, egizko larrosoño bat da !

—Bai —esan eben jauregitarrak—, egizko larrosoño da !

Enperadoreak jardetsi eban:

—Joan baiño len ikusi dagigun zer dagoan beste kutxa orretan.

Ta, ara, urretxindorra agertu zan. Ain gozorik abestuten asi zan bera, ta txarto esaterik ez egoan.

—Zoragarria! Arrigarria! —esan eben prantsesez andragoiak. Bada prantsesez ba ekien, bata bestek bairio txartoago.

—Txori onek Enperatrizareneko musika-soiñua gogoratzen daust —esan eban jauregitar zar batek—. Soiñu berbera da.

—Bai, benetan —esan eban Enperadoreak. Eta umetxu bat legez negarrez asi zan.

—Gatxa egiten yat egizko urretxindorra dala siñistutea —esan eban Erregin-gaiak.

—Bai, arrazoa da —esan eban ekarri ebanek.

—Ondo da ! Joan daitela egaz ! —iñoan berak; eta ez eutson ezelan be, Errege-gaiari sartzen itzi.

Beronek, baiña, ez eban usterik galdu. Arpegia baltzitu, txapela begietaraiño sartu ta errenarena egiñaz aurkeztu zan.

—Egunon, jauna ! —esan eban—. Gazteiuhan morroi sartu ete neinteke?

—Eskabide asko daukodaz —erantzun eutson Enperadoreak—. Alan be, txarrizain baten bearrean naz, ondo ba'yatortzu.

Errege-gaiak onartu eban txarrizain izatea. Gela zantar bat emon eutsoen, txarrikortaren ondoan; goizetik gabera bearrari ekin eutson, ta lenengo gaberako lapiko txukun bat eginda eukan, dana kanpai txikitxuez beteta. Sutan ipiñiaz batean arako, antxiñako doixtar soiñua jotzen eban:

"Ach! du lieber Augustin,
Alles ist vaek, vaek, vaek!"

Baiña, ara be gauza arrigarriagoa: lapiko-lurranean atzamarra ipiñi ta erri'ko sutondo guztietan prestetan egozan jatekoak usmatzen ziran. Larrosa bat baiño zerbait geiago ba-zan!

Erregin-gaia bere ohorezko andrazkoak lagun ebazala, andik pasietan igaro zan. Soiñua entzun eta zoraturik gelditu zan, berak be baekian soiñu a jotzen-da.

Ach ! du lieber Augustin !

Egia esan, geiago jotzen ez ekian ta atzamar bakar bategaz jotzen eban.

—Auxe da nik dakidan soiñua —esan eban—. Txarrizain au ezta memelo bat. Itandu dagioela zenbatean daukan salgai bere jogailua.

Andereño bat kortan sartu zan, oiñetako batzuk artuta.

—Zegan saltzen dozu lapikoa? —esan eutson.

—Erregin-gaiaren amar mosuren truke.

—Jaungoiko maite! —oiu egin eban andereñoak.

—Merkeago ez —esan eban txarrizaiñak.

—Zer diño? —itandu eban Erregin-gaiak.

—Lotsa naz barrero esaten —erantzun eban andrazkoak—. Izugarria da!

—Aopean esan egidazu —gaiñeratu eutson Erregin-gaiak.

Orduan andrazkoak bota eutson arek esana.

—Zantarra alakoa! —deadar egin eban Erregin-gaiak. Eta andik alden du zan.

Amar pausu emon ebazaneke, kanpaiak asi ziran gozo-gozo joten:

Ach! du lieber Augustin,

Alles ist vaek, vaek, vaek!

—Zoaze, ia nire andrazkoen amar mosu gura dauzan.

—Ez, eskerrik asko! —esan eban txarrizaiñak—. Erregin-gaiaren amar mosu; osterantzean, lapikoa neuretzat gordeko dot.

—Gizon au dan buru-gogorra! —bota eban Erregin-gaiak—. Dana dala, jarri zaiteze nire inguruan iñok ikusi ez nagian.

Andrazkoak aren inguruan jarri ziran, gonak zabalduaz; txarrizaiñak amar mosuak artu ebazan eta Erregin-gaiak lapikoa.

Danak zoratu bearrean ebiltzan. Arratsalde guztian lapikoari soiñu eragiten ibilli ziran. Erriko supazter guztietan zabaldu zan barria. Jauregiko gela-zaiñak eta zapatariak egun atan jan ebena be jakin zan. Erregin-gaiaren andragoi lagunak pozaren pozez saltoka ta txaloka iñarduen.

—Orain ba-dakigu nork jango dituan zukua, arrautz-opilla, morokilla edo okela! Arrigarria da gero!

—Olantxe da —esan eban jauregiko arduradun nagusiak.

—Kontuz, gero; ez zaiteze barriketan asi —esan eutsen Erregin-gaiak—, Enperadorearen alaba nozue-ta.

—Eguno bere ez olakorik! —iñoen danak batera.

Txarrizaiñak, guztiak egizko txarrizaintzat joten eben Errege-gaiak, ez eban egunik igaroten zer edo zer barri asmatu barik.

Karraka polit bat landu eban. Jira-biraka ibilli ezker, valsak, polkak eta, munduko dantza soiñu guztiak joten zituan.

—Zeiñen ederra! —esan eban Erregin-gaiak, andik igarotzean—. Iñoiz bere ez dot olako gauza ederrik aditu. Zoaze ia zenbat balio dauan karrakak; baiña, oraingoan, ez dautsodala mosurik emongo, ezfa urrik *emon* be.

—Oraingoan eun mosu eskatzen dauz —esan eban sartu zan andragoiak.

—Burutik egin yako! —iñoan Erregin gaiak.

Ta alde egin eban. Baiña... amar pausu emon orduko gelditu zan.

—Artea biztu egin bear da —esan eban—; Enperadorearen alaba naz. Esaiozue amar mosu emongo dautsodazala, atzo lez. Enparauak nire ohorezko andrazkoengandik jasoko dauzala.

—Ganorabako orreri mosurik emon? —esan eban andragoiak.

—Ta zer? —erantzun eutson Erregin-gaiak—; nik neuk ondo deritxot. Zuek nire menpeko zarie, ezer baiño len! Jana ta ordaiña nigandik daukazuez!

Andragoia txarri-zaiñarengana atzera biurtu zan.

—Erregin-gaiaren eun mosu —esan eutson txarrizaiñak—. Bestela, bakoitzak bere ondasuna beretzat gorde dagiala.

—Joan zaitze nire aurretik —gaiñeratu eban Erregin-gaiak.

Andragoiak ingurua egin, ta asi zan txarrizaiña mosuak artzen.

—Zer gertatzen da or, txarrikorta ondoan? —esan eban Enperadoreak bere balkoitik.

Begiak igortzi ta betaurrekoak ipiñirik, esan eban:

—A!, andragoiak dira, olgetan dabiltzanak! Ba-noa ia zer dagoan.

Oiñetakoa ipiñi ta an zan berealakoan.

Ara eldukeran astiro-asiiro urreratu zan. Baiña alperrik. Andragoiak naiko lana eben; mosuak zenbatu, mutillak agindutakoak baiño geiago artu ez egizan.

Enperadorea ez eben ikusi. Beraren beatz-puntetan urreratu zan.

—Zer da or? —itandu eban.

Ta oiñetako arturik asi zan andrazkoai astiñaldi ederra emoten.

Txarrizaiña larogei ta seigarren mosuan egoan.

—Alde emetik! —deadar egin eban Enperadoreak, asarez,

Txarrizaiña ta Erregin-gaia erreñutik kanpora bota ebezan.

Euria ibaika jausten zan. Erregin-gaia negarrez asi zan.

—Nire zori txarreko! —oiu egin eban—. Erregegai zintzoa ez da nigaz ezkondu!

Txarrizaiña arbola baten ostean ostendu zan; arpegi baltzitua garbitu, bere jantzi zarpaillak kendu ta Erregin-gaiarengana biurtu zan Errege-gai jantzita.

—Nire erreñua erakustera etorri niaitzu ! —esan eutson—. Errege-gai zintzo bat ez dozu gura fzan, larrosa ta urretxindorra bere ez dozuz onartu ta, uskeri bategaitik, txarrizain bat laztandu dozu. Utikan...

Berealaxe bere aginterri aldera artu ta atea sendo bai sendo itxi eban. Erregin-gaia alperrik etorri yakon abestuten:

Ach! du lieber Augustin,
Alles ist vaek, vaek !...

Errege-gaiak ez eutson aterik zabaldu.

ANDERSEN-DIRAUKET

URREZKO BIOTZA

Gaizka deritxon mutii gaztea arotzia ikasten dabil.

Egun batean, beste askotan legez, amak gosaltzeko aurreko gaubean otzara baten barruan imiñiriko ogia ta gaztaia artuta, goiz-goizetik etxetik urten, etat an doa gure mutikoa, txairo-txairo, kalean zear bere egingorantza.

Kaletik olan arro-arro doala, eskean ibiltan dan mutil gizajo bat aurkitzen dau bertan. Urrezko biotz ederraren jaube da gure Gaizka zintzoa, ta bere gosariaren otzaratxo zabaldurik, olde oso-osoarekin iminten dauz ogi-gaztaiok mutiko gosetiaren eskuetan, eta "eutsi ta jan egizu" esanaz, aurrera doa bere bidean.

Ezer jan barik gelditzen da mutilla eguerdirarte, baiña bere barruan ekuratasun samar-samurra nabaitzen dau; on egiteak gogoari dakarkion bake gozoa; lur onetako diru guztiarekin erosi ezin leiteken naretasun maitekorra.

Bere goizeko lana amaituta gero, mutil onartsua etxeratzen danean, ba-daki amak, aurretiaz norbaitek esanda, bere semeak egin dauan onaroa, ta laztan samur batekin ordaintzen dau onen egitada biozkorra.

Beti beti da ederra ta txalogarria onaroa; baiña, norberak premiñaz bear dauana iñorentzat emoteraiñokoa danean, lurbira zabalean izan leiteken onbiderik neurri gabeena da, benetan.

ARRUGAIN

BIZKAI'KO MENDIAK

Grbea, Anboto, Oiz, Illunzar,
Sollube eta Bizkargi,
Blzkai-gane ta Ganekogorta,
Sabigain ta Pagasarri;
Euren artian zenbatu ala
ainbat epatako mendi:
Blzkaia'k mendiz apa'induriko
gaztelu zar bat cfirudi.

Mendi gaNñetik ikusten dira
aran, baso ta zelaiak,
uri, baserni, lugintza *eder*,
erreak eta ibaiak;
zonagarrizko abestietan
txiroliroka txoriak:
benetan dira atsegingarri
Bizkai'ko gure mendiak.

Mendi goietan kurutza deuna,
ermitatxoak ugari,
egun sentiko argia Jaunak
lenen damotse eurari.
Asaba zarnak jarriak dira
siñismenen ezaugarri,
zer ikasia damoskular'ik
beian bizi garanori.

Mendi ganeko bake bizitzaz
ondo ausnartzen ba'dogu,
beian ez dogun 'anako zerbait
mendian izango dogu.
Euskera zarrak mendian dauka
lenengo bere jar-leku:
mendi-zaliak iza'n gaitezana,
garbi joka nai ba'dogu.

B. ENBEITA

LORAK LOTEKIAN?

Eskolan ibilli giñanean maixuak esan euskun: "Gabaz ez dozue lote-
gian lorarik euki bear". Gero be, askotan, bardin entzun dogu: "Gabaz
lorak, atera, egunez barrura".

—Zergaitik ori?

—Begira: Gabaz, lo dagoanak eta lorak, kedarra dariola egoten dira;
ta, egunez, guk arnaseaz batera jaurtitzen dogun kedarra lorak batu ta
loteglak garbitu egiien dabez.

Kedarra zitala da. Ezetz egon kea dagoan tokian estulik egin barik? Eta luzaro egoten ba'zara, laster ito be egingo zara.


Kea—eta kedarra geiago— gure birikietara sartzen danean, lodiagoa dalako, aize biguna ateraten dau; ta ez deusku atsa ateraten izten. Eta cri atara barik, ostera, ezin gaitেকেz bizi. Gure odola biotzean garbitu zan-gorrien bidez gorputz guztiko ondarrak batzen eta gorpuzkia indartzen joaten da. Gorpuzkia indartu ta ondarrak batzen dabezanean, barriro ondarrak birikietara botaten dauz, eta birikiak, euren sarean, alde batera batu ta agotik ateraten dauz.

Oneik ondarrok barriro zan gorrietatik zear gorpuzkietara joango ez ba'iitzakez, gorputz guztia zitalduta itxiko leukie.

Lapikuak irakiten dauanean be, bardin egiten dau: lurrun bitartez zitala atera, eta lapikoko janarietan, gauzea garbi (zital barik) itxi. Janari guztiak jangaiak izateko, zitala aJde batera itxi bear dabe.

AITA GOTZON

SKILM



Eloki-

SCORPIO • X-24 • XI-22.

LUPU.—Lur azalean ba-dira mamurru iguingarriak, baita oso politak be. Orrialde ontako au itsusi ta motza dogu benetan. Lurrean ibilli oi da simaur ta saskara artean. Bere begitzar illunakaz, egaztiak eurak be ikaratan jarten ditu.

Eta antxiñakoak auxe aukeratu eben, egin-egiñean, zeru-gerriko zortzigarren ezaugarritzat. Eguzkia urrillaren 24'tik azilJaren 22'rarte dabil beroren zabaleran, bere ekJiptikako 210'tik 240'raiñoko zabaleran.

Lupu (Scorpio) au zeru-gerriko illobi dala esan da iñoiz. Eta izatez be, antxi-iiako esaera ta idurikizun oneik ba dabe egirik naikoa. Aldi onetan, ain zuzen, kanpotiko erak urturik, barruko usteltze ta zati-banatzez gauzaen balioa estaldu egin oi da. Baiña, ez ikaratu; penix egazia lez, bizia barriro berbere eriotzatik ernc ta jagiko da.

JOLASAK

1) GAINXOKA

Aterpe bat. Bertan jarleku, aulki naiz gaintxo batzuk daude. Askoren artean egin dezake jolas au.

Gaztetxo bat erdian egokitzen dan bitartean, beste guztiak gaintxoren baten artuko dute lekua. Oin osoakin ikutu bear dute gaintxo ori.

Gain batetik bestera norbait aldatzerakoan, eskuakin ikutu egin bear dio orri; ikutua baldin ba'da, erdikoaren lekua artu bearko du ikutuak.

2) ERBIAK ETA ZAKURRAK

Talde bitan sailkatzen dira jokatu nai dutenak. Talde bata erbiena da, ta zakurrena, bestea.

Erb! bakoitzak zaku txikiño bana eramango du, paper-zatiz beteta. Aurrenik, bost miñutu emango zaizkie irtetzeko; laisterka irtengo dira, ta bidez dabilzan bitartean, paper-puskak lagako dituzte erortzen.

Era ontan dioztela lorratz edo aztarna utziko dute ondotik, gero zakurrak somatu bear dutena noski. Alaz ere, jarraika datoztenai iruzur egiteko, gezurrezko paper puskek utzi litzakete,

Irten-unetik amabost miñutura, zakurrak ez dakiten eta irten-tokitik urre xamar egon bear dun muga batera joko dute erbiak. Zakurren batek atzeman aurretik muga ori iritxi ezker, irabazia dute jokua.

3) AISTA, TXIPIRITONAI

Izen au, ots, "txipiritona", aintziñako irrada edo dantza batena degu. Askoren artean dantzatu oi da, ta dantzatu bitartean, abestiak izentatzen ditun jantziak kentzen dira: txamarreta, koratilloa, garrikoa ta atorra.

Aista!, txipiritona, txipiritona,
ona, txipirifona.

Aista !, bataren gaitza bestearen ona,
altziñeko orrek kendu dezala, txipiritona !
Aista !, kendu dezala txamarret ori.

Bigarren orrek kendu dezala, txipiritona!
Aista!, kendu dezala koratillo ori.

Irugarren orrek kendu dezala, txipiritona!
Aista!, kendu dezala garriko ori.

Laugarren orrek kendu dezala, txipiritona !
Aista!, kendu dezala atorra ori.

4) URA, MESEDEZ

Bear dana: bikote bakoitzarentzat, botella (bonbil) bat urez beteta, ta beste bat, utsik. Jokolariak nai aiña, aiere beti pareka.

Jokolariak beti ezkerreko oiñari ezkerreko eskuz eutsiko diole, eskuman batak botella utsa ta besteak urez betea daramazkitera.

Botella utsa daramanak dio: "Ura, mesedez", eta, beti errenka, botella betea daramarengana dijoa. Alkartzerakoan, eta biotarik batek ere oiñak askatu bage, botella utsa urez betetzen saiatuko dira biak, ur-ttanttarik ere

beera erortzeke. Ontzi utsa urez betetze au ongien dagian bikoteak irabaziko du jokua.

Jolaskera au zaillagotu nai izan ezkeru, zapi batekin begiak itxi lezaizkiekete.

5) ZAPIA

Jolaslarien arteko bat aukeratzen da zapia erori dezan. Besteak alkarri bekoz beko ingurua egingo dute, baiña bata besteari eskutik eldu gabe ta alkarri begiratzeke.

Zapi-erortzaillea guzti oien atzetik ibilliko da, zapia eskuan duela; eta inguruari blra bat ematen dion bitartean, onela esango du:'

Zapi musker, zapi gorritxu,
zapi txuri: esango al dezue
aur auetatik zein doan uzu?
Zapi txuri, esango al cliguzu?
Zu etzera, ezta zu... ezta zu...

Bi edo irutan esango du au, eta bertatik jolaslari baten atzekaldean zapia utziko du erortzen, onela esanaz: "Zure zera!" Onela izentaturiko jokolaria makurtu egingo da zapia artzeko, eta ondoren atxintxika joango da lenbizikoaren atzetik.

Lenengo au, bigarrenak ikutu aurretik, onek utzitako tokira eltzen baldin ba'da, aren lekua artu bearko du oboan, eta zapia eskuan daramanak egin bearko du zapi-jagole. Baiña obo ingurura orduko besteak ikutzen ba'dio, berriz ere berak artu bearko du zapia.

6) ASTO-ASTOKA

Era onetan mutillak olgetan dira bakarrik, neskatiak ez.

Mutil bi buztartuta lez jarten dira; beste batek, auen bitartean, burua makurtu ta sartzen du. Laugarren batek oni gerri-gaiñera fgotzen dio.

Jolas ontan beatzak izen auek dituzte: "txorro" lodienak, "morro" urrengoak, "piko" erdikoak, "tallo" eraztundunak eta "kex" txikiak.

'Asto gaiñean dagoanak, beatz bat goratu ta esan bear du: "Txorro, morro, piko, tallo, kex". Azpian dagoanak erantzun bear du, "txorro" nair "morro" naiz besteren bat aipatuz. Asmatzen ba'du, goikoa beera, asto izatera dator; beekoa aren gaiñera doa. Asmatzen ez ba'du, asmatu arte asto izan bear du.

7) SOKA-TIRA

Lau metroko soka bat bear da. Jokolariak zortzi, amar nai amabi talde bitan banandurik, eta zuzendaria.

Bi taldeok jarri bitza zuzendariak indar berdin xamarrean, ez kan-kailluak alde batetik eta mekoak bestetik. Bi aldeetako indarrak berdin antzera daudela, ikusgarriago izan oi da jokua.

Marra bat egin gero Jurrean, kare puskaz; edo-ta ol bat ipiñi ezau-garrizat. Talde biak sokearen bi muturretan egokituko dira, eta bietako buru egiten dutenak bi metrora bezela bata-bestegandik.

Denak eskuekin sokeari oratuta daudenean, tiratzeko zantzua egingo diete zuzendariak. Aurkakoak tatarrez eramanik lurrean dagon marra edo bana-ezaugarria zapaltzen dun taldeak galtzen du.

8) KIÑUKA

Zuzendsriaren giblean jartzen dira gaztetxoak, eta ark dagiana dagite auek ere: ibilli ba'dabil, ibilli auek ere; lasterka ba'dijoa, laisterka; oin bat naiz esku bat altxatu. Zuzendariak eman dezake zilipurdi naiz bira bat, arri gaiñera igo, arrabita jo, ta abar. Ark dagian guztia egin bear dute jokulariak, itsusi ta zozo izanda ere.

Zearo antzematzen ez dion jokolariak utziko du jokua.

Zuzendaritza, berriz, aldizka egingo dute beren artean.

9) APARIKA

Neskatoak etxe barruan nai kanpoan eratu oi dute jolas au. Etxeko nagusi bai'lira, or dabilzkigu etxeko tresna guztiakin apari ederra antolatu nairik.

IGOTZ

A B E S T I A K

1) AURRAK IKAS-ZAZUE

1

Aurra ikas-zazue eskuaraz mintzatzen,
ongi pilotan eta oneski dantzatzen... (bis)
Aire tun txikitun aire tun laire,
aire tun txikitun aire tun laire,
aire tun txikitun aire tun laire,
aire tun txikitun aire tun 'laire... Ole!

Gure katu xaarrak konserba ditzagun,
aire pollitagorik ezta sortu nehun... (bis)
aire tun txikitun...

Ez ahantz behin ere sort-erri ederra,
aren mendiak eta itsaso bazterra... (bis)
aire tun txikitun...

Bihotz leiala ere atxik aitameri
eta nunbai't goait dagon gazte maiteari... (bis)
aire tun txikitun...

Aurtxo danok alkaturik jolastutzera orain goaz. Bai i
Zoriontasuna ta poztasuna lagun degula.
Txori polita bezin ederki abestuaz, alaituaz,
Zabaltzia nai genduke zueri gure poztasuna,
Biotz guztiak beterik pozez ta atsegiñez.
Nai ba'dezute jolas onetan elkaturik joias deigun,
Nai ba'dezute abestietan elkaturik abes deigun.

3) UMEZURTZA

Kale zokoan illun da gogor euria;
ate ondoan aur bat da otzak josia.

Umezurtxoak aterpe epelik iñun ez;
Aingerutxoaren ondoan negarrez.

Ipar aizeak kale zokoan intziri;
euri ur tantak oiñazez malko itzuli.

Ama zerutik semetxoari begira:
—"Aingerutxu oi! Ekark semea zerura".

—"Aurtxo maitea, amarengana igo nai?"
Aurtxo gaixoak Aingeruari: "Ene, bai!"

Egan da egan zeruruntz Aingerutxoaren,
Egan da egan, arekin ume gaixoa.

Zeru bidean izartxoak aiengana:
—"Bai ume ederra zerura gaur dijoana!"

Zeru atean ama laztana bien zai.
Seme kuttuna bere besotan artu nai.

Kale zokoan illun da gogor euria.
Ama-semeak goian betiko zoria !

ETXANIZ'tar NEMESI

4) **BAT, BI, IRU, LAU**

1

Bat, bi, iru, lau,
bost, sei, zazpi, zortzi,
bederatzi, amar, amaika,
amabi, amairu, amaiau,
amabost, amasei, amazapi,
amazortzi, emeretzi, ogei.

Ogei, emeretzi, amazortzi,
amazapi, amasei, amabost,
amalau, amairu, amabi,
amaika, amar, baderatzi,
zortzi, zazpi, sei, bost,
lau, iru, bi, bat.

5) GORBEIA'KO GURUTZEA

(EN EL MONTE GORBEA ler abestuteko)

Gorbeia tontorreatan
Agertzen yaku
maitasunez beti,
Kristo'ren Gurutzea
bere besoak zabaldurik.
Erdi, maita, Arrati'ra,
Egin daigun arin gora,
Gurutza ori izango da
Euskal aterpsa.
Goazen danok mendira
Goazen,
Biotz-maitasunaren bila,
Ta, irrintziz, esan daigun
Zoli: "Aurrera, mutillaki"

ARRUGAIN

6) AGUR, ZUBEROA

Agur, Zuberoa,
bazter guztietako txokorik ederrena.
Agur, Aterratze,
zurekin ditut ametserik goxoenak;
biotzaren erditik
bortzetan jaiki ditadazut asperena:
zu utzi geroztik
bizi naiz tristerik, abandonaturik,
ez baita erririk

Paris ez besterik,
zu bezalakorik.
Sor-lekua utzirik gazte nintzalarik
Paris'era joan nintzan kuraiez beterik,
plazerez gose eta buruan arturik
bear nuela alegre bizi;
bortzetan geroztik negar egiten dit
Zuberoa'gatik (bis).

UDABERRI ABESTIA

Udazkenean amets
dut nik Udaberri.
—Jo danbolin soiñua
ta bigundu gerri—.
Berdeak itxaropen
mendi, baso, erri.

Itxas aize leguna
gorantzika dator.
—Jo danbolin soiñua
ta dantzatu gogor—.
Laiñoak urdiñean
itxaropen jator.

Loreak irri dagi
bere kukulluan.
—Jo ta dantza, gazteok,
danbolin soiñuan—.
Urak itxaropena
erreka puztuan.

Dena da murmur gozo,
dena margo musker.
—Soiñu ta dantza, gazte,
bizitza bai eder!—
Itxaropen girotan
lore guziak ler.

Soiñu, usai, kolore,
elkarrekin ezta.
—Jo danbolin soiñua
ta eman dantza jai—.
Irurak bildu dira
itxaropen poz zai.

ETXANIZ'TAR NEMESI

TXARDIETA, ALBANOA TA IXKIRA

Ba-zebiltzan txardieta ta albanoa urazpian, ixkira bizardun bat arrapatu naiean. Ixkirak, i'karagarrizko abiadak egiten zituen bizar ta guzti igarri; larri bai zan, bi arrai maltzur oien aldetik iges egin nairik. Ezkerrera jo ezker, albanoak arrapatu zezakean, eskubitik berriz txardietak, ta onek bildur gogorra ematen zion.

Ixkirak bere abiadetan, arren egin omen zion Jainkoari, estualdi artatik itzularazteko, ta bere arterako zesan:

—Nor arkitu ote da ni bezin larri, iñondoko itxaso azpi abetan?... Panekari trala egin oi diot; korkoi astunari errex asko itzul; krabarroka ta dontxellak zangurrua naiago dute; baiñan albano ta txardietak ni ta ni irentsi nai... au lana!...

Alegiñean oraindik ere itzulika ba-zebillen, ta uste gabean "plast", urean sartu zitzaien sare zabal bat, kai-burutik makillaz eutsia.

—Arrane-arranea!... auxe dek nere igesbidea! —esan omen zuen ixkirak.

Sartu zan sarean; albanoa ta txardieta ere bai, ta an zebiltzan, sare-barrenen, batek kosk, besteak trunk, ta irugarrena karraxika. Kai-muturrean zegon arrantzaleak igarri zuen, sare artean naspilla ba-zaia, ta ala ta ala!... jaso zuen sarea. Jakiña: ixkirak sare-zulotik errex iges egin zuen, baiñan albanoa ta txardieta an atera ziran legorrera: isats ta sabela dardarrean, ta zakatzak lertzeko zorian.

Ixkirak, bizarrak pitin bat orraztuta, naiko par egin omen zuen, or-barrenen.

Uste gabeko palastak aundi diranak sarean sartu oi ditu.

ELURMENDI

O I N T X U O K

(GABRIELA MISTRAL'en "Piececitos de niño" euskeratuta)

Oi, aurtxuon oin txikiok!
otzaren otzak ain more!
Nola zauzkate orren gorririk,
izanikan Jainko lore?

ta nola zuen oinpeak
zapal dutako tokian,
usaitsuago zabaldu oi dan
akara Udaberrian.

Oi, aurtxuon oin txikiok,
arri zorrotzetan miñez!
Ain ondatuak elur zapaldu
eta lokatza zikiñez!

Bide zuzenetan zear
zoazten ezker, izan
kemen aundiko gizon azkarrak
bikaiñiak zeraten gisan.

Gizon itxuak ez daki,
zuen ointxoak jo-ala,
nolatan lurra argizko lorez
apaintzen dan bereala;

Oi, aurtxuon oin txikiok,
bi arri bitxi munduak!
Nola dijoaz zuek ikusi
gabe bidez jende itxu.ak?

ETXANIZ'TAR NEMESI

S U O N D O A N

Sui ona.—Amar urte ba-dira gutxienean nere amagiarrebarekin itz
egin ez detala.

—Asarre al zaudete, ba?

—Bai zera ! Beti bere txanda izaten bai-da !

—Orixe ez asarretzeko bide bakarra. Orixe egingo det neronek ere.
entzun ta kito !

Andonitxo irugarren bizitzako eskail buruan negarrez dago.

—Zer dezu, ordea, onela negar egiteko? —galdetzen dio bere amak.

—Izeba erori da eskaillerak bera, ta...

—Esan dizut, ordea, lenago ere miñik ez duela artu.

—Etzuen artuko, baiño Mirentxu'k ikusi du nola erori dan ta nik ez !

Mendian.—Aize eder au, garo usai gozo au, benetan zoragarriak dira.

—Egia diozu, alaxe da ta. Zergatik ez ote dituzte uri nagusiak onelako lekuetan egiten?

Espetxeakoa.—Zaitzailleak espetxean dagonari:

—Latari aldezlaria zai daukazu. Atoz!

—Esaiozu... ez nagola emen.

Aterkia galdu.—Bada emakumetxo bat igandeoro iru etxetara joateko oitura duana. Batean aterkia galdu zitzaion eta etzan etxera iritxi zan arte aterkirik ba zunik ere gogoratu. Gogoratu zanean, iru etxetara joan bear ordea berriro nun utzi ote zuan galdezka.

Lenengoan eta bigarreanean etzioten berririk eman. Irugarrenean zuan, ordea, aterkia. Artzerakoan etxekoeri eskerrak eman bearrez onela esan omen zien:

—Etxe ontakoak beste bietakoak baiño dextengoak zerate beintzat. Aterkia nerea izan, ta eman nai ez !

AINGERU ZAITZALLEA

Gipuzkoa'ko erri txiki batean da. Neska-mutiko koxkorak, apaizak errian duen kistar-ikasfolan, beren ekitaldia egin ondorean, andik irtenda, uso txuri talde antzera, enparantza inguruan bildu dira.

Oso alai daude. Motelak, berriz, ez dira iñolaz. Erri-ikastolan gogotsu ikasten ba'dute, Kistar-lkasbidea ere olakoxe griña ta gogo biziarekin ikasten dute. Gaurko ikusgaia, ontan, aingeru zaitzailleari buruz izan da. Arduraz entzun dituzte apaizaren esan eta oar guztiak.

Oien artean ba-dira bertsolari erneak ere, iñoiz errira etorri izan diran bertsolariai entzunik, eurak ere ongi asko bertsotan dakitenak.

Lau dituzu ortarako erreztasun ikaragarriz ornituak. Eta ikastolalik irten ostean maiz egin oi dutenez, gaur ere plazako exeri-arri gaiñera igorik, onela ari dira, gaur ikasi duten aingeru zaitzailleari bertsoka:

1'go mutikoak:

Kristau guztiak izan
dezagun goguan
Jaunak ez gaituala
bakar utz munduan:
gudari argi eta
indartsu moduan,
giza bakoitzak ortxe
dabilki onduan,
lagunduko diguna
lur ontako gudan.

2'garren mutikoak:

Siñismenaren argiz
ikusten deguna
alboan dabilkigun
zerutar laguna,
korputzikan gabeko
ezpiritu duna,
bizitzaren gidari
leial ta kutuna,
Jaunak ipiñi zigun
zaitzaille biguna.

3'garren mutikoak:

Zuzen. jarraitzeko
zeru bideari,
munduan zu zaitugu
gure bidelari.
Begira gizonaren

biotz argalari:
arkitzen geranean
illunpetan larri,
erori ez gaitezen,
egiguzu argi.

4'garren mutikoak: • Illundu nairik gure
siñismen bizona, •
etsai maltzurak ere
gertuan dabilta.
Oien eraso okerra
ta oien ekaitza,
goitar argi ederrak
oiñazpira bitza:
nagusitu dedilla
zure gudaritza.

MUXIKA'tar TEODORO

O T S A 1 L L A

Zillar illunez daude beteak
zeru itunen arrats odeiak;
zillar izuna jario daude
mendi guztian iturbegiak

Lorerik ez da,
gurdi zaarrak
urratu zuten
bitxur berrian.
Odolik ez du
illunabarrak
neguko zeru
berun goitian,

Larru gorrian daucle zugatzak
otzez beterik ibai ertzean;
zeruko mugak urraturikan
beren adarrak bakardadean.

Sorgor luzean
etzanda dago
izadi ama
sortze miñetan.
Lore eta osto,
aritz ta pago...
gauza guztiak
izan naietan.

Jarraitu ama mingots ogean,
negu billoizaren lo-abaro;
jarraitu ama zillar, illunez,
otzez jantzirik, lotan luzaro.

MAITE

EZETZ ASMATU

Intxaur arbola baten amar birigarro daude.
Eiztari batek, zas!, eta lau botatzen ditu.
—Zenbat geratzen dira?
—Baterez. Besteak iges egin dute.

-Zerekin bete bear da txarrua, len baiño ariñago geratzeko?
-Zuloz.

-Gauza bat nai neuke nik jakin.
-Zer?
-Nun il biar naixen.
-Zertako?
-Araxe ez juatcko.

JON S. MARTIN

ASTOAREN SENA

Matxiñada gogor bat erri batean sorfu omen zan: "au nagusi" zioten batzuek, "beste au" beste batzuek. Astotxo bat larrean zegoen, Janetik etorri-berri, ta oraindik zamukik askatu gabe. Joan zitzaion agure bat, esanik:

—Alde egintzak, astotxo, arrapatu etzatekan.

Astoak, orduan, erantzun omen zion bare-bare:

—Agure jauna. Matxiñadan irabazten duenak, lau zamuki jarriko ote dizkit biren tokian, edo daramazkidan biak kendu?

—Ez! —esan omen zion agureak—; lengo biakfn geldiluko aiz.

Astoak ala omen dio:

—Zer ardura neri, bata edo bestea nagusi, baldin birekin ibilli bear ba'det gero ere?

Nagusi aldakuntza, askorentzat utsa.

ELURMENDI

NERE BARATZA

("Ilgora"ren sarrera)

Tori baratz-giltza,
ta jdiki atea.

Ez goldez: astiro laiaz dizut landu.
Argatik lorea sor zaitzu berandu.

Lanean ari izan nauzu goiz-goizean,
aillaudak Eguna'i agur egitean.
Ta emendik entzun ditut arratsetan
ontzaren uluak: lanean, laietan.
Ez naute, ez unatu Udako beroak,
ezta aize-falfalak, lurreko alforak
Ez naute bildurtu euri ta elurrak,
ez aize ta itzalak, neguko illundurak.
Ene baratzatik Aldi'ren gurdia
dut ikus lau urte-aroak ibillia.
Ta unera dirade jarraika, egaka
biotz-oiarzunak, ataria joka.
Ta gogoz erantzun diet, zabaldua
atea berala, **gureak** baitira.
Zu ere, irakurle, iñoiz sar ziñezke,
"Ilgora" baitago goien agertuxe.

Tori baratz-giitza
ta idiki atea.
Ez goldez: astiro laiaz dizut Jandu.
Argatik lorea sor zaitzu berandu.

ZARAIA

PATXIKO DIRUZALEA

Patxiko diruzale kalean zijoala
zerbaitxo ba-zekusan dir-dir zeriola,
Urre-zati ederra iruditurikan
jasotzera jo zuan, euriz azturikan.
Urretzat artu zuna ukitu zuneko
eskutikan bota zun, ez beraz lertzeko.
"Auxen dsbrukeria ! Naiz zapelik gabe,
bizirik nagonian, pozik ba-nagoke!"

AMBOTO'KO MARI

Antziñako denboretan Abadiño deritzan Bizkai'ko erri baten senar-emazte aberats batzuek bizi ziran jauregi edo torre aundi batean. Gaur ere zutik dago jauregi ori Muntzaraz deritzaion auzoan, eta abadiñotarrak "Muntzaraz'ko palazijua" deitzen diote. Ez da besteak bezelakoa, lau kua-droko zimenduak eta oso garai edo altua baiño. Ormak metro t'erdi inguruko lodiera dute.

Senar-emazte abek ez zuten aurrik eta jauregia ta beste ondasunak uzteko, aurrak nai zituzten, emazteak batez ere.

Egun baten emazteak birao aundi bat esan zuan, au da: "Nik alaba bat izan nai det, ogeitabat urte dituanean i'npernuko etsaiak eramango ba' du ere".

Eta alaba izan zuan, oso ume ederra ta zoragarria. Mari jarri zioten lizenez. Alaba jaio ta 'laster il zan aita.

Emezortzi urte zi'tuanean, ez zan ez Bizkaia'n, ez Euskalerra guztian, Mari bezelako neskatxik. Liraiña, egokia ta edertasun arrigarriduna: begi berdiak, illia urre kolorekoa... Aberastasunak ere bai zituan ugari, baiña iriork ez zuen nai berakin ezkondu. Bere edertasun eta izate guztiak, maite-tasunen orde, bildurra sortzen zuan.

Ogei urte bete zituan, ama estutzen ast zan. Beteko ote zan berak esan zuan maldizioa? Ai! Zer emango leuken alaba ezkontzarren! Baiña senargairik iñundik ez.

Ogeitabat urte urreratzen asi ziranean, amak bildurrez beterik kristalezko gela bat egin zion, eta etxeari burnizko atea (gaur ere "Muntzaraz'ko palazijuak" burnizko ate dauka), eta kristalezko gelatik erteten ez zion utzitzen alabari'. Baiña guzia alperrik!

Mari'k ogeitabat urte bete zituan egunean, eta une berean, inpernuko etsaiak artu eta aidian Anboto'ko leiza zulora eraman zuan., (Anboto, Abadiño'n dagoan aitz aundi bat da). Eta, arrezkero, an bizi da eta augaitik esaten diote "Anboto'ko andrea" edo "Anboto'ko Mari".

Abadiño'ko artzai zar batek esan zidan ostiral arratsalde danetan ertetzen zala iru-iruretan leiza zulotik kanpora, eta urrezko orraziakin illea orrazten duala. Berak ez duala iñoiz ikusi, baiña bere aitona ala esaten zuala, eta beste artzai batzuek ere bai. Eta bein baiño sariagotan udaberriko illuntzietan sua ta argia dariola ikusi zutela Anboto'tik Udalaiz gaillurre-ra joan da etorri egiten.

JULENE AZPEITIA

S O M A K E T A

—Aizak, soma-arazi baietz
itxua orreri
i zein aizen... apostu.
—Egiñak, duro bi.
—To orratz au, ta ua;
sar akiok eta...

Sartu zion ta itxua,
tximistez beteta,
asi zen diadarka
esanez: **Pillua,**
pikaro, lotsa gabe,
biilua, diabrua.

PASAITARRA

G I Z O N T X O A

Pospolin ura bai zala gizon txikia! Betik gora bi oiñ; zabalían ere ez zer aundirik; itzean esateko, paltrikan eraman zezakean gizontxo bat zan. Aulkian jartzzen zan eta bare oiñak kanpai mingaiña bezela beti aruntz eta onuntz... lurra beñere ez bai zuan arrapatzen; gurdiren batera igonai ba' zuan, lepora jaso bear; oraindik alako gizon kaskarrik!

Ikusten zuten guziak "Pospolin gizontzo" eta beste onelako izenez ots egiten zioten; ezagunak, ordea, askotan "Piper-min", oso odol bizia zeukalako.

Bein "Oikin" ardantegira, oi zuan bezela, joan zan eta sartu orduko bota zion Olki'k:

—Zer degu, gizontxo? Ardua?... Sagardua?... Txakoliña?...

Baiña Pospolin ipurterre jarri zan "gizontxo" esan ziolako. Gero txakolin gorri pixkabat artu ta "gizontxo" izen ura kendu bear zuala-ta, asarre, andik er ten zan.

An ziak eta baziak erdi-kale zear, eta erritik er ten baiño len, "Kaiku"-ren zapateien sartu zan.

—Zer dakarkiguzu, gizontxo? —esan zion sartzerakuan botagille gizenak.

—Ez au ta ez ura ! Oraintxe asetu naiz; beti "gizontxo" gora ta bera... Emendik aurrera izen ori kendu nai nuke, ta orpo-luze ta oiñ-azpi lodidun bota batzuen billa natorkizu.

—Ori besterik ez ba'dezu beintzat, laister audituko zaitugu, gizona!

Bi ol-pusketa botai azpian jarri zizkion eta pixkabat taiutu ondoren, esan zion: "Or azkar egin, merke ta eder askuak alare".

—Saria nola da? —galdetu zion Pospolin'ek, bota aundiak oiñetan sartuaz.

—Zu zeralako, amabi duro besterik ez.

Gizontxoak bota gain aietatik bera begiratu zuan eta munduan bera bezelakorik etregola-ta, pozik botagilleari eskerrak egiñaz: "Agur, Kaiku" esan eta abiatu zan. Botagilleak Pospolin'i: "Agur ba, gizontxo, ta ondo ibilli".

Pospolin'ek bere kolkorako: "oraindik ere izen ori? neri "gizontxo", bota aundi auen gaiñian egonda?" Ta, orain ere, oso asarre zijoan gure gizontxoa. Kale-gorakoan, bere aldamenian igarotzen ziranak zioten: "Agur, gizontxo: oiek dituk bota aliek!; emendik aurrera kontuz ibilli gero gain oietan !"

Pospolin'ek nun sartu edo zer egin ezin zuan asmatu. Orduantxe bai pozik bota berriak bateren-baten mami gurian, sartu izango zituala ! Oraindik ere bizkar, izen ori detala!... Kale-gora ba-zijoan, ba, ta txapeltegi eder bat aurrez-aurre egin zitzaion. "Orainguan beintzat gizontxo izen au kendu bearrean gaituk" zion bere baitan, txapeltegi atean kas... kas egiñaz.

Txapelgilleak, Pospolin aurrean ikusita: "Zer dakarkizu, gizontxo? —esaten dio—. Zer dakarkidan?... adarra geiegi joia! Nere belarriak "gizontxo" izen ori baiño ez dute entzuten eta oraintxe naska eginda nator. Ekarrri zaidazu, emen dezun txapelik aundiena, ia goitik zerbait auditzen naizen.

Txapelgillea jun efa luzean metro-erdi bat neurtzen zuan kastor aundia ekarrri ta buruan sartu ta atzeragoxiotik begiratu ondoren: "Oraintxe bai, Pospolin, len ain bi zerala!" —esan zion.

—Zenbat da?

—Zu zeralako, amabi duron merkia dezu.

Gizon txikiak betaurrekoz (antiojoz) gora begiratu zuan eta begietatik gora metro-erdia ba-zeramala-ta, pozik zegon gure gizontxo.

Txapelgilleak: "Agur gizontxo, ondo ibilli" esan eta aldegin zuan.

Pospolin'ek, "au dek au, oraindik ere gizontxo oska!"

Len bota aundi aiek ikusita, ikaratu ziranak, orain kastor ikaragarri aren aurrian arrituta gelditzen ziran. Arkupetan izketan zegozan mutillak, Pospolin era artan ikusita, zioten: "Alajaiñetan!, ikusi zazue gizon bat bi mendiren tartian". Gero berari: "Agur, gizontxo".

Pospolin etxeratu zanian, ispillu aurrean jarri ta bere buruari galdezen zion: "Ni ez al nauk, ba, naikua aundi! Begiz gora ere metro erdia bai, ta ala ere gizontxo an eta gizontxo emen?"

Orduan, aundia azaltzearren, bururatu zitzaiona! Zigarro erretzen asi zan. Aotik parra-parra itzik zikiñenak botatzen. An koñak zaragiak "rink" emen txakolin gorria "rau"; aruntzago ronetik txurrut eta onuntzago beltxetik "klink". Pospolin zegon mutilla! Alan da guztiz ere, ezagunak eta beiñere ezagutu etzutenak, aldamenetik igarotzerakuan: "Agur, gizontxo" esan oi zioten.

Orduan Pospolin benetan asarratu zan eta emengo jendeak bururik etzuala'ta, Erroma'ko Aita; Santuagana jotzia gogoratu etzitzaion ba! Orain-guan jakin bear omen zuan berari "gizontxo" zergatik deitzen zioten.

Bota aundiak jantzi; txapel luzea bururatu; betaurrekoak sudur gaiñeratu ta sudur-zuloetatik zigarro-kea zeriola, Prantzi'ra zijoan trenian sartu ta lenengo ekiñaldian Martzela'raiño joan zan. An jetxi eta prantses apaiñak gizontxo ura ikusita, parrez: "Adieu, petit homme", agur, gizontxo" esaten zioten. Prantsesak ere gizontxo egiñaz? Ona jarri zan ba gure Pospolin. Mutur-joka ekitia ere bururatu zitzaion, baiña prantsesak gogorak zira-la-fa... Asarre-asarre jatetxe (fonda) bafen sarfu zan, efa sartu orduko: "Ou'y a-t-il, petit homme?" (Zer degu, gizontxo?) —galdetu zioten—. "Ou allez vous?" (Nora zuaz?).

—Erroma'ra nijoa, "gizonfxo" zergatik deitzen nauten Aita Santuagandik jakitera.

—Nik ere lagunduko dizut —erantzun zion jatetxe-jabeak—. Neri ere "Xanti gixajo" esaten didate, ni ain aberatsa izan arren, eta zergatik dan jakin nai nuke.

Gizonfxoak orduan: "Goazen, ba, biok" efa Xanti'k bere morroiari: "Erroma'ra natxiak gizonfxo onekin, ia Aita Santuak neri "Xanfigixajo" zer-

gatik deitzen nauten esaten ofe didan". Efa morroiak dio: "Zure lagun nai al nauzu, jauna? Neuk ere "Juan txokil" zergatik otsegiten didafen, Aita Santuari galdetu nai nioke-ta".

Eta Irurok dihoaz, taka taka, Erroma'ra. Aita Santuak dana daki ta berak esango digu... ta jun... ta jun... ta jun... Niza'ra lenengo, gero Genoba'ra, andik mendi-bera, noizbaiten Erroma'ko urian sartu ta "Batikano"-ra Aita Santuan etxera eldu ziran.

Suiza-tar etxe-zaindari batek atera erten zien eta gizontxoarengana makurtuaz, geldetzen dio: "Zer dezu, gizontxo?" Gizontxoak: "Aita Sanfuakin egon nai nuke, ia berak neri "gizonfxo" izen au, zergatik daukadan asma-tzen didan". Gero Xanti'k: "Nik ere "Xanti gixajo", aberatsa izan arren, zergatik deitzen didaten jakin nai nuke". Gero morroiak: "Nik ere "Juan txokil" izen onen iturburua arkitu nai nuke ba".

Suizatarrak: "Ja... ja... jai, pozez Aita Sanfuari ofsegingo nioke, baiñan, orain, oso lanpetua dago, emen bada ordea, ispillu aundi bat eta aren aurrean jarri ezker, laister jakingo dezue nai dezutena".

—Goazen, bada, ispillu orretara.

Efa suizatarra aurretik efa iru gizonak afzetik, joan ziran ba ispillu aurrera.

—Or nun daukazuten ispillua. Orren aurrera atzeraka joan bear zerafe ta bertara ezker-begiz sorbalda-zear begiratu.

Gero, Xanfi'ri ofs-egiñaz, "jarri emen" esan zion. Jun zan, ba, martzellatar gizon frokotia ta jarri zan ispillu aurrean. Suizafarrak: "Zeozer ikusten dezu edo?" —"Bai, alajaiña I, ara an nun dabillen nere emaztea; amarren bat atsokin jan ta edanean ez dago ba!" Orduan suizatarrak berari: "Or, ba, nundik datorkizun zure izena. Emazfea orre'la dabilkizun bi-tartian, berriro ere esango dizue "Xanti gixajo", aberatsa ba'zera ere".

—Ia, orain, zu Juan txokil". Begiratu sorbalda zear, ezker-begiz. Zer ikusfen dezu?

—Nik erbi bat, txakur biren erdian igesika. Ura dek laisferka! Orain-txe, "Bixer": ori dek "Pofxolo". Bai zea, berandu esnafu zerafe... Erbiak iges eiñ dik.

—Or, zuri ere —suizatarrak esaten dio—, agindufakoan esanak azkar azkar egiten ez ba'dituzu, befi "Juan txokil" izango zera. Ia, orain, zu Pospolin; zu ere emen jarri; orrela, zuzen... begirafu... orrela ez... ezker-begiz... orrela. Zeozer ikusten?

—Neure itzala.

—Baiña besterik ez? Bota aundirik... kastorrik...

—Ezta, neu bakarrik eta uts-utsik gaiñera.

—Aundia edo txikia ikusten zera, ba?

—Gizontxo bat naiz, jauna.

—Or, gizontxo, zu onela zeran bitartean, izena "gizontxo" izango dezu. Bakoitzari bere saria. Emendik aurrera aundia izan nai ba'dezu, txapel eta bota aundi oiek ez izan arren, ez dizue gizontxo esango.

Or ipuia bukatu.

Zuek ere "gizontxo" izena nai ez ba'dezue, jantzi apañei ezker begiz begiratu, ta ez uste apain eta dotore jantzi arren, aundiagoak izango zera-tenik. Esanak agindutakoan azkar egin gerorako utzi gabe, bestela izentzat "Juan Txokil" eukiko dezute. Zure etxekuel, nola dabiltzan begiratzen ez ba'diezu, aberatsa izan arren, "Xanti gixajo" alde guzietan deituko zaitue.

SOLUXE

ZAKURRA OTE?

Fido. Au da zakur arrigarri baten izena. Ez al dezu egundaiño aitu? Italia'n gertatua degu.

Lucco di Ujello deritzaion errian langille on bat bizi zan. Arrobian edo irabazten zuen bere eguneroko ogia, bakarrik bizi zan-eta. Karlos Soolran deitzen zan. Eta, beiñola, arrobotik zetorrela, alako borobil bat bide ondoan dardaraka zegola Ikusi zuen. Uragandik errukituta, artu ta etxera eram zuen.

Txakurra aunditu zan eta egunero bere jaunari arrobira laguntzen zion. Geroxeago, etxea zaindu bear zuela-ta, berebillera bakarrik laguntzen zion, eta Karlos arrobotik etorri orduko an zegon berebil ondoan zai.

Nagusia bein etzan Itzuri. Txakur gizajoak alde guzietara begira, lñun etzuen aurkitzen. An zebillen txakur errukarri ura, emendik aiat, geldirik ezin egonez. Zetozten berebil guzlak usaindu ta ateei begira gelditzen zan,

automobilla kaleetan zear ezkutatu arte. Gaberdian batzuetan, baste batzuetan berantago, oraindik, etxeratzen zan, ittun, goibel, bakarrik...

Nork esan txakur gaixuaren negarrak? Etzuen lorik egiten. Edozein atots, aizeak edo egiña, entzuten ba'zuen, bereala atean zegon. Iñor etzala ikustean berriro sukaldera, muturrak lurra jotzen ziola... Emen nagusiaren abarkak milikatu eta zai egon, beti zai. Noizbait baldin ba'zetorren bere Karlos ura erakutsiko zion berak ixuritako katillu bat malko baiño geiago.

Au entzun eta etzala zakurra esatekotan nago. Gizona zirudin.

Zenbat denbora uste dezute ola egon zala? Bi egun? lau? illabete bat? Bai zera! Ez illabete, ezta urte bete ere, amalau urte luze eta mingarri giza-biotza zeukan txakur arek! Eta amalau urte oietan, egunero-egunero, ordu ber-berara an zijoan zeukan itxaropen guziakin; gaba sartu ta zuzen zetorren etxera, begiak illunduta, barrua gaberdia baiño beltzago zekarrela.

Erriko guziak ongi baiño obeki oartuak ziran zakur aretzaz. Maitagarria benetan! Eta amalaugarren urtea betetzen zan egunean, ara non dararmaten ezta nungo saloi batera, ta an ainbateko itzaldien artean jarri ere bai, txakurrari lepotik zintzilika, urrezko "medalla" bat irakurgai onekin; "Fido, zakur zintzoari".

Baiña, gizona etzanez, etzan ba olako gauzakin bere nagusiagandik aztu, ez orixe! Itzaldi eta istillu eken bitartean, beribillera ateratzeko garaia ba-zetorkion-eta, ixil-ixilla, burua makurturik, zuzen-zuzen beribillera. Orrela txakurra nork esan txakurra danik?

Gizon guziak ulertu dute abereak ere ba-daukatela beren biotza, eta aldizka-aldizka, gizonak baiño bigunagoa, alegia!

ANJEL MARI

ZURE IZARRA

—Zure izarra billatzen ba'dezu,
elduiozu, lenbailen, elduiozu.

—Ainbeste daude zeruan...

Esaidazu, jakintsua:
Nola billatu, Jainkoak
neretzat aukeratua?

—Oso galdera zailla da,
gizonak erantzuteko.
Eskatuiozu Jaunar!
Berak adierazteko.

Gaztetxo:
Zure izarra billatzen ba'dezu,
gizonen
arnetsik aundiena bete dezu.

GILBERT BECAUD
(J. M. Arzalluz'ek euskeratua)

A T E R A L D I A K

-Zer dezu negar egiteko, Kepa?

-Apaizak bi Aita Gure erreztzeko esan dit, eta bat besterik ez dakit.

—Anaia, armiarma bat dago tetxuan (sapaian).

—Zapaldu zak aguro.

—I, Jokin, atzo ez itzan etorri eskolara.

—Ez. Etxean argirik etzegen eta... anak ezin nitun billatu oiñeta
koak jartzeko.

—Zergatik ez dute mezetan emakumeak laguntzen,

—Galdetu baiño len erantzungo lutekelako.

-Aizu, Anai Xabier, polbora zenek asmatu zuan?
-Zertarako jakin nai dek?
-Zu etziñala izango didate etxean da...

—Juantxo: Zergatik eramaten dezu katua ikastolara?
—Maixuak esan digu, berandu dijoana, arratoi kuartuan sartuko dula-ta.

* * *

— I , zer ordu degu —galdetzen dio lagun bateri Fernando'k.
—Amarrak amar gutxi.
—Amarrak amar gutxi; orduan, ezer ez.

-Aita, itxasoko ura zergatik ote da gazia?
-Zergatik izango dek ba! Bere uretan bakailuak dabilzalako.

OTSOAK ETA ARTZAK

Biamonean, umeak Leonce'ren ondoan exeri ziranean, au asi zan bene-benetan.

—Adiskideok, bai dakit nere ipuiak zer izen ote duan jakin-miña dezutena: Bere izena txit izugarria da.

—Ai, nere Jaungoikoa!! —deadar egin zuan Jeanne'k.

—Ez izutu, Jeanne —esan zion Leonce'k—; nik esan bear detan ipuiko otsoak eta artzak, zorionez, emendik urruti dira; Lituania'n, Errusiari dagokion lurraldean, an bizi dira. Eta nere ipuiak "Otsoak eta Artzak" izena du. Entzun ondo eta ez galderik egin.

Margarlte'k, parrezka:

—Orixe da arpegl bakana daukazuna, orixe!

Leonce'k:

—Nik betiko arpegia daukat gaur ere.

Margerite'k:

—Ez, ez, zuk gaur oso arpegi itzala daukazu. Bai dirudi epaitu ta gaiztetsi egin bear gaituzula.

Leonce'k:

—Orixe ta bera. Nik nere edestia entzutera gaiztesten zaituztet, en tzuteko duin zeratela epaitu ondoren.

Elisabete'k:

—Ai, zer gauza polita! Entzun daiogun.

Leonce'k:

—Sendi edo pamMi bat bizizan bein Errusia'n, ego-aldeko lurralde eder eta bigun batean. Sendi au etzen ain aundia ere: aita, ama, iru seme, alaba bi, ta arreba iñozu bat zirean.

Sopie'k:

—Etzala sendi aundia diozu? Zenbatekoa bear dezu bada, orduan, aundia izateko?

Leonce'k:

—Sopie, Sopie, esan det ez ezertxo ere galdetzeko... Nik esan nai det sendi au etzala aundia Errusla'rako, alegia; lurralde onetan amabi ta amalau umedun sendiak asko izan oi dira-ta.

Henriette'k:

—Ederra astakeria !

Leonce'k:

—Ori ez da astakeria; neuk ere bai dut izeko bat Errusia'tarra, amazapi seme-alaba dituana. Guazen ba! Ixillk orain! Sendi onek Lituania'ra juan bearra izan zuan aldi luzetxo bat igarotzera, aitona zaar bat, an, gaxorik zeukatelakoz.

Jeanne'k:

—Zer gaitz zuan, ba?

Leonce'k:

—Ur-gaitza (idropesia). Sabel dana urez beteta ta andituta; eta itto egin bear. Augaitik bada Lituania'ra zijoazen; elurrak ordurako lurra estali zuan. Ipiñi zuten arako, patiñen gaiñean, sendi guztia artzen zuan zaldi'-gurdi aundia.

Henri'k:

—Zer dira patiñak, zu?

Leonce'k:

—Patiñak? Elurra ta izotza egiten dituanean, zaldi-gordiarri erruberen azpian ipintzen zaizkioten galtzairuzko gauza batzuek. Oiñetakoak bezela. Baiña es dezazutela ezer geiago ezer ere galdetu; aspertu egiten nazute bada! Ez dakit nun nintzan ere... Zaldigurdi aundia ipiñi zuten patiñen gaiñean; lotu zizkioten zortzi zaldi on eta indartsuak, eta bai zijoazen astiro-astiro, bidea luzea zalakoz eta zaldien indarrak basoa igarotzeko gorde bear. Bein basora eldu ezkeroz, zaldi-zaiñak zaldiak gogor jo bear izan zituan eta arin ibilli, otsoai, taldean elkartu ta zaldigurdia jarraitzeko astirik ez ematearren. Esan bear dizutet, bada, lurralde onetako basoak dana otsoz beteak dirala. Bat, bi, naiz iru billatzen diranean ez da ezeren bildurrik, otsoak, taldean dabilzanean bakarrik ausartzen diralakoz zaldigurdien aurka.

Eldu dira basora: zaldizaiak geldi-erazo ditu zaldiak miñutu batzuetan, eman dioe garagarra, ipiñi dizkiote ao-burniak, eta sartu dira basoan. Zaldiak arin dijoaz galapada baten, azkartasun bardiñean. Zaldizaia pozik zijoan legua erdiren bat besterik palta ez zualakoz basotik erteteko; baiña, bat-batean, urrutian, ououou!, orroa izugarria entzun zen.

—Otsoak! —deadar egin zuan zaldi-zaiak—; otsoak!!

—Jo zaldiak, Nikita —deadar egin zion nagusiak (Bogoslafe jauna zen bero izena)—; jo erruki gabe; alegindu adi basotik len-bait-len ertetera, otsoak urreratu baiño len.

Nikita'k indartsu erabilli du latigua; zaldiak ikara baten aizea bezin arin dijoaz. Baiña orroak eta uluak urreratzen datoz. Bildur izuak egoak eman dizkioe zaldieri. Nikita'k, noizean bein, atzerantz begiratzen zun. Ez zuan otsorik ikusten, baiña burua biratu zuan batean deadar egin zuan:

—Emen datoz, emen dira! Urrutira, igittu egiten dan orban beltz aundi bat dakust. Bosteun bai dira, gutxienez.

—Galduak gera! —zion Bogoslafe jaunak.

—Ez, ene nagusi maitea; gaizkatuko gera oraindik, Jaungoikoak laguntzen ba'digu. Nik bai dakit basetxe bat, emendik eun pausora. Ate aundia zabalatik ba'dago, gaizkatuak (salbatuak) gera.

Eta zaldiak indar berriaz astindurik, basetxerantz zuzendu zituan.

Ate aundia zorionez zabal-zabalik zegoan, bidaztiari arin sartzeko erraztasuna ematearren, eta onetara otsoak kalterik ezin egin izateko eran izan zitezen.

Otsoen zaunka ta orroak geroago ta urreago entzuten ziran; gauza beltz bildurgarri ura —otso taldea— aurrera zetorren.

Nikita eldu zan ordea basetxera, eta sartu zuan zaldigurdia barruan abiada izugarrian. Zaldiak, eraman zuten zalaparta eta izuan jo zuten bu-ruaz aurreko orma la bera erori ziran zortzirak. Nikita, zaldieri jaramonik egin gabe, jetxi zen zalburditik, eta arnasik artzeko asti gabe jua zan atea itxitzera. Bat itxi zuan; otsoak gaiñean ziran; bultza zion beste ate erdiari, ta bat-batean izan ziran Nikita'k morroilloa ematea ta otsoak atea ikulzeraiño urreratzea. Miñutu laurden bat geiago bear izan ba'lu, otso amorratuak barruan izango ziran.

Bogoslafe jauna, atetxoa irekiaz jetxi zan zaldi-gurditik, Nikita'ri atea itxitzen laguntzera, ta bien artean, gogor aldeztu zuten atea, otsoak, bul-tzaka, bofa ez zezaten. Orduantxe, eta ez arteraiño, arnasa artu zuten lasai xamar. Ene, ura izan zan estuasun larria!

Basetxea aundia zan, illun xamarra, goi-goian zeuzkan leio txiki-txiki batzuek, otsoak barrura ezin sartu izateko eran.

Sendi guztia, apur bat baretu zanean, danak belaunikotu ta Jaungoikoa eskertu zuten, arrixku izu artatik onez atera zitualakoz. Bereala nagusiak besarkatu zuan Nikita, eta esan zion:

—Ene adiskide, i aiz Jaungoikoaren urrengo, gaizkatu gaitukana. Eta Berak, emendik bieirik ateratzen ba'gatxibek, nik askatasuna emango diat eta baita dirua ere, iñoren mendean bizi ez adin.

Nikita belauniko jarri zan, bere nagusiaren eskuari mun egin zion, begietako malkoak esku gaiñaz legortu zituan eta zaldietara jua zan, ero-rita zeuden lekutik altxatu ta ondo ipintzera.

Abere gaxuak dar-dar zeuden ikaraz; otsoen zaunkak eman zioten bildurra, egin zuten ariñeketa, eta orma jo ta buruan artu zuten miña ainbesteraiñoakoak.

Zokondo baten zegoan lastoaz, Nikita zaldieri lo egiteko lekua anto-latzen arl zan bitartean, Bogoslafe, Nikita Zaldieri lo egiteko lekua anto-ta umeak, berriro barrura sartuta zeuden ba, an seguruago egongo zira-lakoan.

—Ikusi ezazute basetxe au —esaten zien berak—; ikusi ze gogorki ta sendo egiña dagoen. Otsoak alperrik ekingo dute atzaparka ta bultzaka; ez dute orma abetan zulorik egin si izango.

Bogoslafe andre ta umeak siñistu zuten noiz-baten, eta basetxeari bira osoa eman zioten, eta oso beratuta gelditu ziran otsoak nundik sartu etzeu-katelakoz.

—Zenbat denboran egon bearko ote degu emen? —galdetu zuan Bo-goslafe andreak.

—Ez dakit —erantzun zion senarrak—; iñolaz ere, otsoak emendik juaten ez diran bitartean, ezin erten izango degu; nik ez dakit zer oitura dituzten otsoak onela etortzen direnean. Zer uste dek ik, Nikita? Zenbat denboran egongo gaituk otsuok etxe inguruan ditugularik?

—Pertsonari jarraitu ia arrapatzen ez dituztenean, ez dakite ain laster iges egiten; denbora luzetxoan itxaroteko oitura dute. Biar ere *emen* izango ditugu otsuok, beste bidazti batzuen atzetik juaten ez ba'dira beintzat; guk izan degun baiño zori txarragodun bidazti errukarri batzuen ondoren.

—Zer uste dek, Nikita, basetxe onetan gaba igaro bearko degula?

—Bai, nagusi jauna, bai. Ni engañatu naitela, baiña ez det siñistuko biar baiño len, gure etsaiok bakean lagako digutenik. Eta biar ere...

—Eta zer egin bear diagu? Ez geuk eta ez zaldiok ez ziakagu ez zer janik, ez zer edanik.

—Barkatu, nagusi jauna, zer jana bai degu; zaldigurdiak atzean dituan kutxa biak jakiz beteak ditut, eta edaria berriz, ura beiñipein, bertan billatuko degulakoan nago. Otsoen igesi dijoazen bidaztientzat egindako basetxe abetan, ura izan dedin beti arduratu izan dira-ta. Emen ere izango da ura nun edo-nun putzuren baten.

—Bai baiña, zaldi gaxo aberi zer emango diok ba?

—Nagusi jauna, garagar saku bat bai det beintzat neure jarlekuaren azpian; baiña zaldi kottauak ez dute batere jateko gogorik. Izituak baitira! Etzateko berriz, zokondo onetan lastoa ugari dago. Ez, ez estutu, nagusi jauna ez zaigu emen ezer paltatuko ta.

Bogoslafe andre ta umeeri bildurrak iges egin zioen zerbait, eta arratsalderantz gose zirala esan zuten, eta zer-edo-zer jango leukiela.

Nikita'k atera zituan kutxatik jatekoak; zaldietatik al zan urrutien zabaldu zuan lastoa lurraren gaiñean, eraman eta ipiñi zituan alde batean ogia, okela otzak, lukainkak, opillak, ardoa ta garagardoa. Ura ere ekarri zun, zokondo batean billatu zuan putzutik aterata.

Exeri ziran lurrean, lasto gaiñean, eta gogoz jan zuten; baiña ixil-ixillik, "ez itzik eta ez lurrunik".

Bogoslafe jaunak, gelditu ziran jakiak Nikita'ri eman zizkion; baiña onek gutxer jan zun, eta arduraz gorde zituan azkenak.

—Jakiak gorde egin bearko ditugu, ez dakigu ba zer gertatu leikean. Otsoak, basetxe inguritik joateko asmorik ez ba'dute, ditugun jatekoen bear izango gera noski, eta gaiñera... nork daki ba...?

Gaba eldu zanean otso taldea geitu egin zala zirudian, orroak indar tsuagoak entzuten ziran beintzat.

Bogoslafe jaun-andreak eta euren umeak lasto gaiñean etzan ziran, euren estalklaz estalduta. Nikita ez zen etzan; berak piztu zuan sua itzali ez zedin: "egurra eman eta egurra erre", ari zen.

Gaba igaro ta eguna zabaldu zuanean, otsoen orroak gutxituak ziran. Nikita'k ipiñi zun orma kontra eskillera luze bat eta igo zan goiko leio txiki batera, ia zenbat otso ote zeuden ikusteko asmoz. Guztiz izutu zen begiratu zuanean. Otsuok euren bizi-lekutzat artuak zituzten basetxe inguruak. Elur gaiñean, or-emen etzanda zeuden alde guztietan. Eun eta ogeitairu zenbaitu zituan; beste batzuek, berriz, zugatzez beste aldetik zeudela-koz, ez ziran ondo ikusten eta ezin zenbatu. Gizon bulartsu ura oso itun jetxi zan eskilleran bera.

—Ai, Nikita, ik ez dek ezer gauza onik ikusi; eure arpegian agertzen zaik —esan zion Bogoslafe jaunak.

—Or dagoz, nagusi, eta or egongo dira... Nik esango nizuke zerbait, nagusi jauna; gauza bat egin bear degu... Zaldiak galdu bear ditugu nai-ta-naiez.

—Eta zer aurreratzen diagu, ba, zaldiak ondatuta? Zortzi zaldik ezin litekek laureun edo bosteun abere goseti oien gosea asetu. Eta zaldirik gabe, nola joango gai'tuk geu emendik?

—Ara, zaldien paltik ez dezu izango, nagusi jauna, enizun nai ba'didazu. Zaldiak ondo janda, ondo edanda daude, baita ere lo eginda. Nik kanpora bialiko ditut latiguaz jota; bi bakarrik lagako diiui barruan, ikusiko dezu zeriarako. Zaldiok izuiuko dira ezin geiago, an otsoak ikustean, eta etorri geran bidetik etxerantz asiko dira galopada bizian. Otso guztiak, berriz, euren atzetik egin alean. Urruiiratzen diranean, nik ariuko det zaldi bat eia auzoko errira joko det; eta an eskatuko ditut eskolta eta zaldi batzuek, zuek emendik eramateko. Gaur illuntzerako ni ez ba'naiz agertzen eskolia ia zaldiakin, orduan, nagusi jauna, zuk ariu beste zaldia ta erten, eia Jaungoikoaren laguntzarekin, nik baiño zori ohea izango dezu.

—Gizon ona ta biotz aundiduna! —zion Bogoslafe jaunak—. Ik as- maiu dekana ondo zio, baiña eure kaliean. Ezin nezakek ire maieiasunak eskeintzen ditana artu. Neu izango nauk lenengoz emendik eriengo duana.

—Ez, nagusi; emenixe dago, bada, arrikkurik aundiena, otso guztiak urrutiratuak ez ba'dira. Euren artean beti izan oi dira, besieak baiño ibiltari eskasagoak, eta beti azken ibiltzen diranak. Zu, nagusi zera, eta zuk etxeko andre ta umeen ondoan gelditu bear dezu. Ni, morroia naiz, eta danok gaizkatzeko alegiñak egin bearrean nago. Orrezaz gaiñetik, asmo au neurea da, eia baita ere neurea, bera egiteko eskubidea.

—Ua, ua, Nikita bulartsu oi, eta Jaungoikoak lagun daikela.

Nikita'k erantsi zuan txapela, egin zuan "Gurutze Santuaren" astiro-astiro, artu zituan sei zaldi eta ate ondora ekarri zitun.

—Nagusia, zabaldu atea apur bat.

Bogoslafe jaunak, zaldi bat igarotzeko lain atea ireki zuan. Nikita'k jo zituan latiguagaz egin alean, eta zaldiok laster erten zuten kanpora. Bai Nikita'k atea arin itxi ere, zaldiak erten zutenaz batera. Ango orroak eta marruak, ango zalapartak eta ango astrapaladak! Zer zan ura!! Alakorik!!!

Otso denak altxa ziran elur gaiñetik eta basetxe inguruan zeudenak danak bat-egin zuten zaldiakaz gosea asetzeko asmoz. Zaldi gaxuak, ostera, tximista bezin arin etorri ziran bidetik euren etxerantz, otso taldea ondoren zutelarik. Zaldiak bildurraren egoetan zijoazen eta otsoak gosearenetan.

Ixkanbilla ixildu zanean, Nikita'k igo zuen zaldi gaiñera, agurtu zuan nagusia, kendu zuan txapela, egin zuan berriro "Gurutze Santuaren" eta ondora joan zan, esanik:

—Ireki atea, nagusia, eta Jaungoikoak onetsi zaitzala, zeu, etxeko an drea ta umeok.

Bogoslafe jaunak ere egin zun "Gurutze Santuaren", zabaldu zuan atea, eta itxi ere bai, bere morroi on ark kanpora erten zuanean. Bai zeitekean Niklta gizajoak bere biziarekin ordaintzea, nagusi jaun eta sendiari zion maitetasun eta itzala.

Bogoslafe jauna zur egon zan ia ezer entzuten ote zun, baiña zaldien pausu-otsa besterik etzen entzuten; gerotxoago urrutiko zaunka ta orroa batzuek. Geroago ezer ez.

Ordu bi. igaro ziran larritasunik bizienean. Beste zaratarik ez zan geiago entzun. Irugarren ordua ere igaro zen. Ezer ere ez oraindik.

—Joan egin bear def —esan zuan Bogoslafe jaunak—; gure Nikita gizajoa otsoak jana da noski.

—Zaude oraindik —esaten zioen emazte ta umeak—; zaude beste ordu befean bedere.

Bogoslafe jaunak itxaron zuan beste ordu betean, eta zaldia gertatzen asi zan emazte ta umeen bildur ta negarrari jaramonik egin gabe.

Zaldi gaiñera igotzen asi zanean, zarata bakan batek gelditu erazo zuan, "orain ere beste otso talde bat!" esanaz.

artu zuan. Igerri zuan, ba, Nikita zetorrela esanda bezela eskoltakin.

—Ireki atea, nagusi ! —deitu zun Nikita'k, abots sendoaz.

Atea ireki zan; nagusia morrolaren besoetan erorf zan, eta anaia bai litzan besarkatu zuan.

Nikita, pozez lertu bearrean zan. Zortzi zaldi berri ta indartsu lotu zizkioten zalgurdiari; Bogoslafe sendia sartu zen barruan; Nikita exeri zan aurrean bere lekuan, eta zaldigurdiak tximista bezela erten zun, berreun zaldun inguruan eta atzetik zitularik.

Beste gora bera gabe eldu ziran aitona zaarraren etxera, eta onek, eskoltan joan ziran gizonai pattarra ta dirua eman zegioela agindu zun.

Nikita'k, egun berean artu zituan bere askatasuna ta diru-pillo aundi bat. Baiña nagusiari eskatu zion, lengo lekuan, bere etxean, morroi jarraitzeko mesedea.

—Zu, nagusi on bat zera, ta ni, zorionsua naiz zure morroi izateaz. Zer egin nentzake, bada, lanik gabe? Amaikatxo astakeri egingo nituzke lan gabe bizi bear ba'nu.

Nikita, bada, Bogoslafe jaunaren etxean gelditu zan bere bizi guztirako, ta morroi moduan baiño lagun moduan geiago erabilli zuten.

* * *

—Orra amaitu —esan zun Leonce'k, bekokia legortuaz. Ipui kontatzeak berua ematen du gero, e?

Pierre'k:

—Aizu, zeuk asmatua al da?

Leonce'k:

—Dana ez; orren antzeko ipui bat, bein irakurri egin nuan, eta gero nauk atondu det, esanaz batera,

Elisabete'k:

—Zein ederra den zure ipuia, ta baita bildurgarria ere, zeuk asieran esan dezun bezela. Baiña, nun dira ba artzak? Bat bakarrik ere ez degu ikusi.

Leonce'k:

—Ori beste ipui bat da, nere ustez. Baiña otsoena luzea izan da ta nekatu egin naiz.

Sopie'k:

—Esan egiguzu ia otsoak zaldi koittauak jan zituzten ala ez.

Leonce'k:

—Aizu, ez del pentsatu ere. Nai ta nai ez jan bear al zituzten, bada?

Jake'k:

—Ez, ez, abere gaxuak! Gaizkatu egin bear dira.

Leonce'k:

—Ezin, ordea, danak gaizkatu. Lau bakarrik eldu ziran etxera, eta beste biak ez ziran agertu. Augaitik pentsatu gentzake aiek biak otsoak jan zituztela.

Jake'k:

—Ni aserratu egingo naiz. Ipuia zeorrek asmatu dezun ezkeroz, ez daukazu seirak etxeratu zirala esatea baiño, ta kito.

Leonce'k:

Ez izan, ordea, siñistekoa. Pentsa. Bosteun otso sei zaldiren aurka. Bi bedere jan bearko dituzte.

Henriette'k:

—Ez, Leonce, ez, arren!; danak gaizkatu egizuz.

Leonce'k:

—Tira, bada. Orain beste era batera amaitzen det nere ipuia eta diot, sei zaldiok oso indartsu zeudela, Nikita'rt eskerrak, ondo zaitu zitualakoz eta ondo jaten eman; eta otsoak geitxo urreratzen ziranean, ematen zizkioten ostikadakaz matrail-ezurak apurtu la ankaz-gora botatzen zituztela, ta onetara batzuek iges egin zuela la iges egin ez zutenak basoan ilda gel-ditu zirala. Bele, buzoka ta beste onelako egaziak jan zituztela euren gorputz-illak. Uste det guztiok pozik izango zeratela ipuiaren amaiera zoriontsu onegaz.

Ume danak parre egin zuten, eta nekez etorri zitzaieten biaramona beste ipui bat entzuteko.

ROSTOPCHINE-ARRITOKIETA

E N E K O

Etxetxo batzuek zagozten uri aundi baten inguruko mendi baten atzean. "Goiatz" zeukan izena etxaide onek. Etxaidearen ondotik errekatxo bat igarrotzen zan, zugaitz askoren itzalpean. Aritzak, pagoak, piñuak, leizarrak, altzak, gorostiak eta beste zugaitz mueta edo klase asko zagozten erreka txoak igarotzen zun basoan.

Golaz'ko etxetxo batean andra-gizon batzuk bizi ziran, semetxo batekin. Semetxoak "Eneko" zun izena, eta amar urte zituan.

Aitak basoan egiten zun lana, egur ebagitzen, eta amak etxea garbitu eta gobernatzen.

Eneko'ren gurasoak onegiak ziran, eta nai zun guztia egiten zun mutikoak. Aitak dena parkatzen zion, eta amak semearen nai denak betetzen alegiñik aundienak egiten zttun.

Eneko'k ez zun eskolara joaterik nai, eta ez zun eskolarik ikasi: ez konturik egiten, ez idazten, ez irakurtzen. Txoriak iltzen eta aberiei arrika egiten bai. Aitari eta amari, eta beste errespetuzko lagunei erantzun itxusiak ematen bai, ikasi zun.

Gurasuak konturatu ziran geroago eta gaiztoagoa zetorrela semea, eta pixka bat gogor egiten asi ziran Erneko'ri; baiña alperrik: berandutxo zan.

Egun batean esan zion aitak:

—Eneko, seme maitea, bigunegiak izan gera zurekin ama ta ni; baiña gaurtikan aurrera apala izan bear dezu, eta gure esanai jaramon egin, eta ona izan, bestela zigorkatu egin bearo zaitugu.

Tun-tun aundia artu zun Eneko'k. Ez zun jaterik ere nai izan. Eta urrengo goizean, etxetikan kanpora iges egin zun. Aita eta ama konturatu ziraneko, etxetik urruti zegon.

Gurasoak negar asko egin zuten, seme maitea galdu zutejako, baiña batez ere bigunegiak izandu zirelako semearekin.

Uri aundira eldu zanean Eneko, poztu egin zan etxe politak eta jauregi ederrak ikusirik; lorategiak, arri ederreko iturriak, karrika zabal eta luzeak, automobil, tranbi eta jende askoz beterik. Ibai aundia ikusi zunean, zubi ederrarekin, pixka batean begira geditu zan. Goiaz'ko errekatxoa baiño milla bidar aundiagoa zan ibai ura l Txalupaz eta barku txikiz beterik zegon. Azkenengo zubia baiño urrutiago, itxasontzi txuri-txuri aundi bat ikusten zan.

Geien-geien gustatu zitzaiona, karrika aundi batean ikusi zun: gozoak saltzen zituzten denda bat. Ango pastelak l Baiña dirurik ez Eneko'k l Eta dirurik gabe, ez zioten eman deus ere. Goseak kili-kili, gero. Eta eskean asleko apaltasunik ez Eneko'k.

Egun bi joan ziran, eta erdi gaxorik gure mutilla. Dirurik ez, eta goseak erdi ilda. Abiatu zan goruntz, mendiruntz, polliki-polliki. Eta illun-abarrean eldu zan Goiaz'era. Megar egiten zun bidean. Etxera eldukeran, apaltzen zagozten aita eta ama. Negarrez, parka eskatu zFen, benetan damuturik,

egin zuanagatik. Gurasoak parkatu ere biotzez parkatu zioten, eta poztu egin ziran, ain damaturik semea ikusita.

Gero, eskolara egunerq joaten zan, eta irakurtzen eta idazten eta konfuak egiten ikasi zun. Aitari basoan laguntzen zion egurrak ebagitzen, eta dirua irabazten ikasi, eta amari aginduak pozik egiten zizkon. Eta afaltzen zutenean, Errosario santua erreztatzen zuten irurak, ogeratu baiño *ien*.

Eta urte askotan zorionez beterik izandu ziran, osasun onakin eta pakez.

ALTZARTE

IZKIRIMIRIAK

-Zer itz dira oiek, ume? Aitak entzungo ba'lizkitzu, zer egingo zinduke?

-Deus ez. Pozaren pozez txoratu egingo litzake; gorra baita nere aita.

Irriparrez eldu da etxera mutikoa.

—Zer gertatzen zaizu gaur, ume? —dio aitak.

—Zuk lengoan kontatu zenidana, Kolejiotik nola aurrian bialdu izan zinduten, alegia, gogoratzen nentorren.

—Benetan jazo polita izan zan, ezta?

—Bai, alajaiña! Ta orain zuk ere par ugari egin nai ba'dezu, gaur neri nola igorri didaten berealaxe edestera nijoakizu.

AMAK, ASARRE: —Nola zikindu dltuzu galtza oiek?

UMEAK, ATSEKABETUA: —Putzura erorita.

—Galtza berriekin.

—Bai, baifio oso laster erori naiz eta ez det kendutzeko astirik izan.

-Aizu, erreka ontan arrantzan ibiltzea debekatua al dago?
-Ez, jauna.
-Orduan, arraien bat arrapatzen ba'det, ez da gaiztakeria izango, ezta?
-Gaiztakeria ez, jauna, ez, miraria baizik.

Aitak, eskolatik negarrez datorren semetxoarl:

—Zer izan dek gero?

—Maixuak jo egin nau Brasil nun dagon ez nekielako.

—Ederki egiña. Urrengoan obeto begiratuko al dek gauzak nun uzten ditukan.

IVIAIXUAK: —Errege-aita il ezkeru, aren seme zaarrena zer eginda gelditzen da?

MUTIKOAK: —Umezurtz eginda, jauna.

GAU ERDIAN

Gabeko amabiak ziran; danak lo zeuden. Zein ote zan etxe artako egoiliaren etsaia? Lapurrak nun-nai arkitzen omen dira, baiñon Jainkuarl eskerrak, ba-ziran urtiak eta urtiak erri artan bat bakarra ere arkitzen etzala.

Ez al zuten bertakoak andre Maria ta Pruentzi'o sendagille jauna eza-gutzen? Erriko gaixo aieri ongi egiten baizik etzekiten da l

Zer ote zan, ba? Izan ziteken kanpotarren bat. Baiñon... Banaka banaka kanpatorreko erlojuak jo zitun amabik... alderdiko oiartzunak erantzun zion beste amabi bider, eta gero kanpuan, asieran bizela dana ixil.

Orduntxe Pruentzio jaunak entzun zitun krixketaren aurea ta atzea, ginbeleta egurrian sartzekoaren otsa; ta esnatu ta...

—Zein dabil or? —ots egin zoen.

Iñork etzion erantzun; krixketa soñua bukatu zan. Etxe guztia ixil... len bezela dana lo. Onela nagusia oieratu zan, baiñon begirik itxi gabe, loak artu gabe.

Andik gutxVra nagusiaren otsa neskameari:

—Pantxika, zein dabil or?

Ezta itzik ere; lo zegoñ eta etzuen ezertxo ere entzuten.

Bi anai, Pruentzio jaunaren seme, lotan zeuden gela batian; aitaren otsaz nunbait esnatu zan bietan zarrena, eta onela zion gazteari, ixilka:

—Aizak, Patxi... aizak... iiii?

—Ze, ze... zer da?

—Ez al dituk aitaren oiua entzun?

—Zer? Ez, motil...

—Ta orain ez al dek beste ots ori entzuten?

—Bai!...; lapurrak ote dira?

—Ala uste. Jeiki gaitzan, Patxi.

—Ez, motil, ikaratu nak gogotik; ez nak zein aigana juateko.

Ikaraz betia ezkutatu zan Patxi maindirien azpian; Txomin beste anaia ixildu; nagusia oieratu, ta, berriz asieran bezela, ixil-ixillik gelditu zan etxe guztia.

Ez litzake etxe artako iñor arrituko baten-bat lapurretara etortzia; geiegi zekiten, ba, aurreko bazkari aundian ibillitako zillar guztia oraindik giltzapean sartu gabe zegola.

Onela igaro ziran beste miñutu batzuek, dana ixillik; elbiaren buakua ere ederki entzungo litzake, esna ba'leude. Jeiki zan oslea Proentzio jauna, ta orainguan indar geiagoz ots egin zun:

—Zein dabil or, Pantxika?

Ta gelan bi anaiak:

—I, Patxi... aizak... i?

—Zer nai dek?

—Jeikiko al gera?

—Guazen, ba... aitarekin.

Altxa biak, jun aitarengana, artu eskuetan bakoitzak bere makilla, ta dana ankutsik eta maukutsik, zuri-zuri an dijoaz sukaldertz. Aldamene artan izan bear zuten lapurrak. Sartu sukaldean, ta... ate guztik itxita.

Nun dira lapurrak? Onela bata bestia begira... an dijua, ikusi ez diran bezelako saltuak ematen, izugarrizko arratoi puska bat.

—Eman !, eman ! —danak ots egin ta asi ziran malciilca bukatu arte.
Gero parra pixka bat egin, utzi makillak. eta azkenengo aldiz goi-
zeraiño danak oiera...

G.'tar P.

SAGUTXO BAT BELEN'EN

Etzenduten entzungo / bein ere oraindik,
Belen'go estalpean / au gertatu zanik.

Sagutxu bat joan zan / Jesus'en aurrera,
Munduko Jabeari / par eragitera.

Idia kanpoan zan / bizarra apaintzen;
Astua, bazter baten, / illea orrazten.

Jose'k eta Maria'k / etzuten ikusi,
Orrela geratu zan / etxeko nagusi.

Ber-bertan jarri zitun / dantzako jantziak,
Eta oiñetan metro / erdiko takoiak.

Gomazko pslota bat / baiño biziago,
Seaskaren ertzean / bote baten dago.

Belarriak ernai ta / bigoteak tente,
Dantzan asteko dago / ia derrepente.

Nerbioak lasaituz, / sudurra kiskaltzen,
Anisko zigarro bat / ari da fumatzten.

Au bukatu ondoren, / seaska gaiñean,
Asten zaigu saltoka / lertu bearrean.

Txa-txa-txa, tvvist, rock and roll, / guztiak nastuar.
Oiako dantzarikan / ez dago munduan.

Jo ta ke ari dala / gure sagutxo,
Irri-parrez jarri da / zeruko Aurtxo.

Pozez beterik dago / dantzari trebea,
Parrez egon dalako / bere Egillea.

Saltoka, an dijoa, / lur-zulokotera,
Belen'en gertatua / danai kontatzera.

Saguaren dantza au / ez dago Kredoan,
Baiña ipui-zaleak / artu gaur gogoan,

Ta Eguberrietan, / zorion osoan,
Zuen aurrai kontatu / apaldutakoan.

J. M. ARZALLUZ ANAIA, LASALLETARRA

TXERUTXO'REN JAKIN-MIÑA

Amona gaixoak ba-zuan naikoa lan ume biurri aiekin:

—Gotzon, zer abil oker ori? Utziok pakean Loretxo'ri!

Loretxo an ari da karraxika:

—Amona, nere panpiñik ez dit eman nai.

Amonak bereak eta bi egin bear izan ditu, pakeak egiteko:

—Emango al diok?... Joaten ba'nauk!

Andik pixka batera, Gotzon eta Loretxo amonaren ondoan zeuden ipui eske:

—Ara umeok! Aspertu nazue oraintxe. Ze ipui ta ze lukainka, gero? Zigorra dantzatu bear ko dizuet pakean ezpazaudete.

—Gotzon'ek beti nere gauzak kendu egiten dizkit-eta...

—Zuk ipurdiko batzuek merezi dituzu beti negarrez egon etzaitzen.

—Orain ixillik nago, amona.

—Noiz arte jakin nai nuke.

—Ipui berri bat, amona.

—Etxeko kajoi danetan eskua sartzen dezu, Loretxo; ta ori itxusi da.

—Gotzon ibiltzen da, amona.

Mutikoak laster eraso zion, esanaz:

—Kontakatillu, mingain-luze ori!

Amonak berriro pakeak egin bear izan zituan. Eta txiki biak paketu ziranean, amonaren lana ipuiak asmatzea bai-zan, onela asi zan:

—Ia, ba, geldirik biok!... Zuek eztakizue zein zan Txeru?... Ez, ba! Nola ezagutuko dezue, ain urruti bizi dan mutikoa?... Baiña umeak alde guzietan ume ta zuek bezelako gaitza zuan Txerutxo'k ere. Ikusten?... Orain ere or ari da etxeko zulo danetan eskua sartzen. Zuek bezela, okerrean.

Arek ere ba-du bere amona, ta onek dei egin dio oraintxe:

—Txerutxo!... Txeru!... Zertan ari aiz or?

Ain zuzen, orduantxe entzun da egundoko iskanbilla ta kristal apurtuen zarata-otsa. Amona sukaldetik jotokira joan danean, an arkitu ditu Txerutxo'ren lanak lurrean, eta mutikoa negarrez:

—Zer egin dek, deabru orrek? Ontzi oiek zeñek konpondu bear dizkik orain?

Orrelako gauzarik ez ikutzeko ez al-dek milla bider entzun? Egunen batean eskarmenturen bat izango dek. Ia orduan ikasten dekan geldirik egoten.

Baiña Txerutxo etzan eskarmentatzen, bein da berriz bere okerretara biurtzen. Ara... Ikusten al dezue nola dijoan ixil-ixillik gozoak dauden kutxatillara? Orain ere ba-du deabrukeriren bat buruan. Zaratarik atera gabe or dijoa ateraiño. Andik pixka bat entzuten gelditzen da... Amona sukaldetan ontziak garbitzen ari da arraskan.

Txeru'k bere artean dio:

—Oraintxe dek ordurik onena. Amona ontziak garbitzen ari da sukaldetan eta goxo bat artuko det ontzitik. Noan kutxatillara... poliki-poliki iriki ta a ze nolako goxoa artuko dedan!

Txerutxo oso gozo-zalea zan. Noiznai, azukre koskorrak eta goxokiak arrapatzen ari oi zan. Baiña, gozo-zale bezin bildurtia ere ba-zan mutikoa. Lapurra alakoa!... Ikusten al dezue nola ari dan kutxatilla irikitzen?... Baiña zer ikusten du?... Ene!...

Etxe guzia kurrixkaz ipurditik atera bear zuan ume biurriak:

—Amona!... amona!

—Zer dek, gaizto orrek? Orain ere egin al-dek egitekoren bat?

An zebillen mutikoa salto ta brinko ta negar kurrixka batean. Zer gerta zitzaion? Zera... Kutxatilla iriki zuanean eta gozoa artzeko eskua luzatzen asi, kutxatillatik xagu pixkor bat ateratzen zaio, eta izkuta-zulo billa dabilela, sartzen zaio galtzetan gora xagu ori.

Aren garraxiak! Aren ikara! Etekian nola bialdu xagu ura bere galtza barrutik:

—Xagua! Xagua galtzetan sartu zait, amona!

—Ederki egin zaik! Esaten nian egunen batean eskarmenturen bat izango uala!

Ta besterik gabe, Joan zaio amona mutikoari, askatu dizkio galtzak eta an ateratzen da tximistak egiñik gure xagutxo igesi alase azpira. Ondoren artu du mutikoa eta ipur gorrian eman dizkio —zipli-zapla— eder batzuek, atzekaldea Jen baiño gorriago uzten diola.

ETXANIZ'tar NEMESI

OILLO GORRIA

Or datorran oillo gorria, orixe da gure ipui sortzaille gaur. Begira nolako pozik datorren!... Baiña, zer dakar mokoan?... Gari ale bat, ain zuzen ere. Pozaren pozez bere kakaraza dariola dijoa: Koko-koko-koko!

Orain ikus ditzagun bide baztarrean alperrean dauden arata ta antzarra. Oillotxo gorria aiengana dijoa ta gozo-gozo itzegiñaz, galdetzen die:

—Zeñek lagundu nai dit gari-ale au ereiten, lurrean sartzen? Zuk, arata?

Arata'k nagiak atereaz, erantzun zion:

—Nik ez, beintzat.

—Ta zuk, antzarra?

—Ezta nik ere.

Orduan oillotxo gorrlak bere kakaraza jasoaz esan zien:

—Koko-koko-koko! Nerone bakarrik joango naiz alea lurrean sartzera.

Ala joan ziran egunak eta gabak eta gari-ale arek eman zuan bere ernea ta lastoa ta galboro ori-oria. Oillotxo gorriak jaso zuan galburua ta gari-aleak artuta joan zan berriro arata ta antzarrarengana, esanaz:

—Zeiñek lagundu nai dit errotara garia eramaten?

Ta aratak eta antzarrak erantzun zioten:

—Nik ez, beintzat.

—Ezta nik ere!

Orduan oillotxo gorriak esan zien:

—Neronek bakarrik eramango det. Koko-koko-koko!

Joan ziran berriro egunak eta gabak eta garia errotan eio zutenean, irin zuria eskuetan zuala joan zan oillotxo gorria arata ta antzarrarengana galdezka:

—Zeiñek lagundu nai dit iriñarekin ogia egiten?

Aiek beti bezela erantzun zioten ukoka:

—Nik ez, beintzat.

Orduan oillo gorriak erantzun zien:

—Kokoikoko-koko! Neronek bakarrik egingo det orea.

Joan ziran egunak eta gabak eta iru lo eginda gero, ogia labean erreta urre kolorekoa egin zanean, oillotxo gorria joan zan arata ta antzarrarengana, esanaz:

—Zeiñek lagundu nai dit gari-ogi ederra jaten? Zuk, arata?

Arata'k moko luatuaz bereala erantzun zion jateko pozez:

—Nik bai, beintzat, poz-pozik!

—Eta zuk, antzarra? Nai al zenduke?

—Baita nik ere!

Orduan oillotxo gorriak lepoa jasoaz eta isatsa aiei erakutsiaz, onela kantatu zien:

AT/

"Zuk eztezu jango, arata.
Zuk ere ez, antzar.
Nik gari-alea
lurrean sar.
Nik errotara ekar.
Nik oretu ta labean
erre, su ta gar.
Ogi txuria neretzat
eta nere txitoentzat."

**Ta arata ta antzarra ao-bete ortzekin utziaz, an joan zan oillo gorri lan-
gillea bere kakaraza alde guzietara zabalduaz:**

—Koko-koko-koko!
Ogi txuria neretzat
eta nere txitoentzat!

ETZANIZ'tar NEMESI

MARI POXPOLIN

Bidean kantari dijoa Mari Poxpolin, esnc-saltzaille liraiña. Barruko ametsak kanta biurtzen zaizkio. Entzuten?... Orixe da, ba, gure Mari Poxpolin esneduna. Goizero gure etxe aurretik igarotzen dana. Amak orraztu du goiz eta esan dio;

—Poxpolin ! Ar ezazu ontzia ta zoaz errira.

Ta Mari Poxpoliñ'ek egunero bezela artu du bere lurrezko ontzia ta or dijoa bidetan aurrera, zai dauzkan etxetan bere esnea banatzera.

Inguruetan ez da alako esnedun panpoxik. Ezta zintzoagorik ere. Eztu ordurik galduko ezergatik. Eta bidean dijoala, bere kontuak ateratzen ariko da... Ai, bere faei txuriaren esne ederra!... Erriko sarreran atera irtengo

zaio Antontxo Txiruli ta erosiko dio esnea txanponetan. Ta alaxe joango da, daramazkian litroak saldu arte... Txanponez, sakela astundu ta etxeratu da aberats. Entzun, entzun... Bere burutapenak mIngaiñera ateratzen zaizkio ta atzetik urreratzen ba-gatzaizkio, buruan dituan kontu denak jakingo ditugu:

—Zortzi ta bi amar eta zortzi emezortzi. Beraz, etxerakoan emezortzi pezeten txanponak eramango ditut aldean. Bi eguneko esnearekin, amabi arrautza erosiko ditut. Epelean jarri ta txitak azten dlranean, saldu ta antxumea erosi dezaket, eta gero ardiak ere bai... Esne ta artillarekin, bei baten jabe egingo naiz.. Onela bi bei lzango ditugu...

Bai, ba. Marl Poxpoliñ'ek geiketa ikastolan ikasia zeukan, eta ongi zekian bat eta bat bi zirana. Ta bi belren esnearekin eta artillarekin eta arrautzekin, zer etzitekean egin? Gauzak ongi zetoze, Errege-seme batekin ezkondu ere bal... Zer, ba?... Ez alizkion berak alako ipuietako kontuak amonari entzun?... Nolako eztaiak! Nolako jauregia! Ta bera Erregin an!... Entzun, entzun, berriz ere:

—Ta jakiña!... Eztaien ondoren, seme-alabak ekarriko dizkidate. Bana-ka, naiz biñaka bizkiak etortzen ba'dira... Seme zaarrena bururatzaille, ijlnieru egingo det. Bigarrena, eraikille, arkitekto. Munduko etxerik eta jauregirik ederrenak arek jasoko ditu... Eta zenbat diru irabaziko degun! Ura zoriona!

Artan zijoala, pozaren-pozez, saltaka asi zan nexka ta arri koxkor batean laprast egiñikan, orra nun dijoan lurrera ankaz gora gure nexka ta arekin batera esne ontzia... Ene bada ta!... Ontzia lurrezkoa izan da an gelditu zan milla puska egiña, ta esnea... ainbeste diru sortuko zion esne txurla... lurreko autsetan nastua ta zabaldua! Marl Poxpolin lurretik jaiki ta or dijoa itzulean etxera bere negar zotiñak bidean aditzen dirala:

—Ai, nere zori galdua! Onelaxe galduko da nere bizla!

An zegoen bide baztarreko sasi artean epoa, enanitua. Xiri du berak izena ta an ari da Marl Poxpoliñ'en ametsen lepotik parrez:

—Ji-ji-ji! Nun ditun ire diruak eta oillanda, arrautza ta txanponak?

Mari Poxpolin, berriz, alakoak entzunda larrituago etxera:

—Ai, gure amak ikusten nauanean!

Epo zirikalariak bere aldetik parrea etetzeke:

—Eta errege-semea ta eztaiak eta jauregia ta seme alabak?

Mari Poxpolin geroago ta zotin aundiagoetan zijoan. Eskerrak bere lagun Xipo konejutxo a bidera atera zitzaionari. Onek arindu zion barruko estuasuna, esanaz:

—Ai, Mari Poxpolin ! Orrelaxe ditun gure bizitzak: amets asko ta erdiak ustelak. Kontuan izan emendik aurrera.

Amak urrutitik ikusi zuan etxera itzultzen eta Poxpoliñ'en negar arpegia nabaitu zuanean, igarri zion okerren bat izan zuana bidean. Mari Poxpoliñ'ek bidean gertatua kontatu zion negarrez eta amak garbitu zizkion bideko autsak, baita esan ere:

—Ai, Poxpolin ! Urrengoan lurreko arri koxkorrak obeto zaitu bearko dituzu. Bestela, maiz izango dezu mundu onetan ametsa buruan eta koskorra kopetan.

ETXANIZ'tar NEMESI

AZILLA



SAGITTARIUS

XI-23-21

GEZILARI.—Auxe da zodiakoko bederatzigarren ezaugarria. Kentaur (Sagittarius) edo giza-zaldia dogu, gezi bat ari-ari ta atezuan esku artean daukalarik.

Eguzkia azillaren 23'tik lotazillaren 21'rarte dago Gezilarian, ekliptikan 240'tik 270'rako luzeera daukala. Garai ontan artzen dau, gaiñera, egora bidean dauan makurrik gorengoena. Udazkeneko atzen-aldia, nunbait. Orriak jausi ondoren, izaduan barrero egin oi da egokttasuna.

Giza-zaldi onek abere ta gogo-izatearen alkartzea gogora ei dakarsku. Gorputza ta arimea, sena ta barrena, beeko bizitza ta gora-naia. Beronek eskuetan daroan geziak, azkonak, barruko kementa adierazten dau, barrutik kanpora doan bizitasuna; barne-munduak kanpokoagaz euki nai dauan artu-emon.

J O L A S A K

1) INGURUMARIKA

Neskatoen jolasa. Zortzi-amar neskato, eskuetatik oratuta, inguru zabala egiten dabe, ta bira-biraka au abesten:

Bira, bira, kate,
zozo balkate,
Ibarrangelua'n alkate,
Bilbao'n errejidore,
gure auzoko Petratxu be
atzera bira leiteke.

"Gure auzoko" esatera eltzean, "Petratxu"ren orde, jolasean dabilzan neskato guztien izenak esan oi dira, txandaka. Izentatuak bira dagi, eta bere alboetakoai eskuak emonaz jarraitzen dau.

2) IZPILLUA

Zer bear dan: egurrezko listoi edo kartoizko zerrenda batzuekin errez egin daiketan lauki edo marku bat. Jokolariak, mutiko bi edo neskato bi.

Joko onetan sartzen diranak markuaren alderdi bietan jarriko dira, bata ezkerrean eta bestea eskumaldean. Euretatik batak izpilla-iduriarena

egingo dau, eta besteak egiazko Iduriarena. Iduri egiazkoak dagizan zirkin eta kiñu guztiak, eta batera, egin bearko ditu izpilluko iduriak be. Onerarako, zirkin guztiak astiro samar egitea, egoki da.

Jolas au guztiz ikuskarria da. Eta egiteko gatxena, izpilluko iduriarena.

3) ZISKUAN ZER?

Zisku bat eta gauza batzuk. Jokolariak, nai beste; ta zuzendari bat.

Gauza askotarako, baiña batez be ikasteko, gora ta inportantzi andikoa da zer ikusi naiz ikasi ta gero gogoan arturik eukitea. Joku onetan eskua artu, leikeen neskato ta mutlkoen artean ikosi daiteke zeintzuk diran cuki-indar bikain onen jabe.

Lenengotik, zuzendari bat aukeratuko da jokolarien artean; onek cukiko dau ziskua bere zainpean, baita onek sartuko ditu izenak idatziriko gauza guztiak beraren barruan. Izenok, jokolariak eurak jarri bearko dabez paper batean; esate baterako: orrazi bat, ari muttur bat, papsr tolesto bat, txalin bat, egutegikaj orri bat, aitzotxo bat, lora bat, eta abar.

Azkenez, banan-banan atarako ditu gauzok ziskutik, eta bakotxak esan bearko dau zein izen jarri dauan gauza bakotxean.

4) 6LOBU-ARIÑEKETA

Zortzi-amar globu aspil batean, jokolari bakotxarentzat. Oneik zeinbat gura izan daitekez.

Jokatu nai dabenak urten-lerroan egokituko dira, bakotxak bere aspilla puxika puztuz daroala.

Aurretiaz marratu bei nundik noraiño ibilli bear dan, baita elburua be.

Karrera guztia egin eta, puxika bat be galdu barik, aldirik laburrenean mugara eltzen danak irabazten dau. Ezta errez, baiña trebetasun pizkategaz eldu leiteke azkeneraiño.

5) ATZAK

Mutikoak nai neskatok jokatu leiteke, txikitxoan artean batez be.

Ezkerreko eskuko bost atzak banan-banan erkorotik asita ikutuaz, onela esaten da:

Onek amari arrautzea ostu,
onek erreten imiñi,
onek apur bat jan,
onek dana jan,
onek amari esan.

Eta orrela dabil neskato-mutiko taldea, bira biraka ta kantari.

6) ZER BARRI?

Gela bat, eta gela orretan gauza asko.

Ume aldra bat gela orretara eroanik, bertan dagozan gauza guztiak erakusten yakez onei. Miñutu bi igaro ostean, gelatik urteten dira danak. Zuzendariak, orduan, gauza batzuk euren lekuetatik aldatzen ditu.

Jokolariak barrero datoz gelara. Eta zeintzuk ald'aketa egin diran bertan esan bear dabe, abots ixillean Zuzendariari adierazorik.

Nortzuk irabazten dabe? Aldaturiko gauzarik geien adierazo daroenak.

7) IZERKA

Antxiñako jolasa. Izen asko dauz: "Erre-erreak", "kui-kuika", "kuxi-kuxika", ta gaiñetikoak.

Askoren artean jokatzen da. Mutil pilloa nai neskato aldea zelai baten. Bat orman burua dauala geratzen da, eta besteak gordetzen diran bitartean au kantetan dau:

(ru iru sei,
iru bederatzi,
amar emeretzi,
batel<in ogei,
izer bat;
begiak itsututa
izer bat.

Gero gorde diranak arrapatzera doa. Norbait arrapatzean, "izer, Miren", edo "izer, Koldo", esaten dau. Eta bigarren jausten danak, guztiak arrapatu arte ibilli bear dau. Au egindakoan, lenengo arrapatua ormara dba barrero, ta asieran lez "Iru iru sei" kantatzen asten da,

8) ADITZ-GORDEKA

Jolas ernegarria. Edozein lekutan jokatu daiteke. Gela batean, adibidez, jolaslari mordo batzen da; bat ez beste guztiak barruan dagoz. Bat ori kanpoan dago. Barrukoak aditz (berbu) bat aukeratzen dabe besteak, au da, kanpoan dagoanak igarri dagian.

Aukeratu dabenean, kanpokoari be dei egingo dautsoe ta itaunak egin. Itaunak egitean, baiña, egiazko aditzez barik, ortarako egoki dan beste baten bitartez egingo dabez. Aukeratua "abestu" baldin ba'da, "ots egin" erabilli leikie. Erantzuleak onelako itaunak egin legikeoez:

—Aizeak "ots" dagi?

—Txoriak "ots" dagie?

—Etzunda ala zutunik "ots" egiten da?

—Nik "ots" egiten dot?

—Neguz ala udaz "ots" egiten da?

—Zuk "ots" egin dozu iñoiz?

Jokolariak alik eta erantzunik laburrenak emongo dabez. "Bai", "ez", "bein edo bein", "iñoiz ez", ta olakoak. Erantrun onein bitartez berak atarako dau zein dan aukeratu daben aditza. Eta asmau dauala uste dauanean, esan begi. Iru bider uts egin ba'dagi, jokotik kanpora geratzen da.

Zuzendariak gaztetxo talde andia dauka bere Inguruan. Eta, txandaka, batak bestearen ondoren erantzun ta jarraltu bear dau.

Zuzendarlak dlño: "Azokan izan nintzan eta erosi nebazan sagarrak"; eta eskumatik asita lenengo dagoan umeak jarraitzen dau: "Arokan izan nintzan eta erosi nebazan sagarrak eta intxaurrak". Bigarrenak, bere txandan, beste itz bat ezarten dau ia orrelaxe galñerakoak.

Uts egln' dagiana, biratik ateratzen da. Eta azkenean, besteakaz batera, jai ederra egingo dautsoe irabazlearl.

IGOTZ

A B E S T I A K

1) AKERRA IKUSI DOGU

1

Akerra ikusi dogu
baratzean jaten,
makilla ikusi dogu
aker ori joten:

Makillak akerra, akerrak artoa, akerra ken,
baratzetik akerra ken; ken, ken, ken, ken.

Sua ikusi dogu
makil ori erreten,
ura ikusi dogu
su ori itzaltzen:

Urak sua, suak makilla, makillak akerra, akerrak artoa, akerrak **ken**,
baratzetik akerra ken; ken, ken, ken, ken,

ur ori edaten,
soka ikusi dogu
idi ori lotzen:

Sokak idia, idiak ura, urak sua, suak makilla, makillak akerra,
akerrak artoa, akerra ken; baratzetik akerra ken; ken, ken, ken, ken.

Sagua ikusi dogu
soka ori eteten,
katua ikusi dogu
sagu ori arrapatzen:

Katuak sagua, saguak sokea, sokeak idia, idiak ura, urak sua, suak
makilla, makillak akerra, akerrak arfoa, akerra ken; baratzetik akerra
ken; ken, ken, ken, ken.

2) ITXAS'JA LAIÑO DAGO

Itxasua laiño dago
Baiona'ko barraraiño...
Nik zu zaitut maitiago
txoriak beren umiak baiño.

Gure oroiz aita dago
laiño-pian gaberaiño...
Nik zu zaitut maitiago
arrantxuak ura baiño.

Umetxua lotan dago
irriparra ortziraiño...
Nik zu zaitut maitiagc
erletxuak loria baiño.

3) BASATXORITXU

Basa-txoritxu mustur luziak
Ez jun donoklra billa; .
Aingerutxurik biar ezkeru,
Orra or nire mutilla.
Bere musua edurra da, ta
Sua biotz ta ezpanak;
Berton urturik biziko dira
Nire bularra ta zanak.
Ai, nok leukezan urrezko orratza,
Urra-miesa ta aria,
Urrez asi ta amaituteko
Seintxu ontzako janzkia !
Larrosatxuak bost orri daukoz,
Klabeliñeak amabi;
Gure umetxua gura dabenak
Eskatu bere amari.

4) AITONAREN ESANA

Neure semian seme,
neure illoba laztana,
ezeik aitzu aitonak
irakasten dauskana.
Lensn maite egik beti
geure Jaungoikua,
eta onen urrengo
euskera geure ama.

5) MAITE

("Vuelve tu imagen bella" lez abestuteko)

Biotzaren amesak
ito guraz nabil,
barrengo maite-miña
gogoak ezin il.
Egunez eta gabaz
Maitegandik urrin,
beronen gomuteak
bakarrik narabil.
Maite, zure begiak
nere gogoan sartu ziran;

ez egizuz aldendu
bizia galdu eztagidan.
Maite, alkar gaitazan,
ez egin alde nire ondotik,
zure maitasun gabe
eztot aurkitzen zorionik.
Maite, maite, maite!

ARRUGAIN

6) BIOTZ-LILIA

Ene lilitxo, lilitxo maite,
Zergaitik orren alaitsu?
Burrin-burrunka albo yabiltzun
Listor baltza ez dakusu?

Gizaren arnas legun ezta
Jostati zure gaiñean...
Ta zuk, lilitxo, lilluraturik,
Parre alaia zengian.

Goiz dirdiratsu batez, lilitxo,
Zuri begira nenguan,
Izar urdiñak ortze-barnera
Agertu ziran orduan.

"Lilitxo maite" —niñoan neugan-
"Zu bai egitan zoruntsu !
Nok leukaken, ai! biotz-lilia,
Zu baizen garbi, baretsu !

Zein aratz eta eder zengozan
Lurrin goxoa ixuriz!...
Udabarriak esku samurrez
Apaindutako soin zuri!

Zelan zugandik begiok alde
Orren maitekor baitzara?...
Eda egizu lurrin gozoa,
Eda irri-parrez zerura".

Ba-joian Euzki erregin,
Urclin zabala gaindurik...
Ta zu, lilitxo, zelan zakust? Ai I
Baratz-ertrean... zimelik!

Begira neban neura barnera,
Ta an, igarturik, zakust zu,
Biotz-muiñeko lili!... Negarrez
Begiak yataz lausotu.

Biotz-malkoak, maite-malkoak,
Barne-lili zurillari...
Biotz-malkoak, maite-malkoak,
Zatorkidaze ugari !

ARTADI

BASAIKO-LOREA

Nabarniz edo Nabarriz-ganeko Illuntzar deritxon mendian leza bat dago, iñok sekula ondorik negurtu bagakoa. Leza onek larrez ta otaz itsutua dauko beronen agoa ta nonbait, aizeak eroaniko aziren batzuetatik erneta, basiko (basoko iko-zugatz) bat eukan lenago.

Emakume abarkadun gonagorri bat, umetxo bat eskutik ebala, igaro zan bein leza inguruan zear. Umeak, basikoaren adarretan lorea ikusita, bere berbetatxoan, auxe esan eutsan amari:

—Ama, pitxia.

—Ez, maitetxo, kaka dauko-ta.

—Pitxia, pitxia.

Au esanda, negarrari emon eutsan lenengo; gero, blaust! !, zapart eginda ota ta lar artean geratu zan ez gora ez beara egin eziñik. Amak, a ikusita, txilioka, zapart zoll egin eban. Ama ta ume, eun zearnar zati-tuaz, beste ainbeste saguzar ta belatxinga leza barrutik uxaturik, geldi-geldika, leza barruan amildu ziran.

Iñok ez daki, arrezkero, euren barririk.

AZKUE (R. M.)

AUNTZAK ETA AKERRAK

Txikiak aundikien antza artu naia, zarra da ludi onetan. Auntzak be, entzutea danez, Tzeu'gandik jaritxi eben, oso antxiña, bizar Juzea eroatea: euren ustez, itzal ta aginpide geiago eben orrela. Jakiña, orren lotsa-galdu auntzak ikusiaz, asarratu ziran akerrak; eta len baketsu bizi zan erri aretan ifundiko ezin-ikusi ta iskanbilla sartu zan bertatik.

Tzeu'k, orduan, zeozer egitearren, ontara marmar:

—Zer dautsue, akerrok, auntzak zuon apaingarria erabilli arren, euren gurari ergela iraintzeko besterik ez ba'da? Zuok beste, ez soin ez indar, ez dira sekula be izango.

Doai agirikoa
beti ezegarri;
goi-egiteak gaitu
eder jazten soilki.

IGOT2

ESAKUN SAKONAK

1. Otsoak otsoari gatxik ez, eta lapurrari lapurrak laztan,
2. Mari gurea goruetan, bear eztan orduetan.
3. Azeak berea kirtena, ta aritzak bere arikoa ezpala.
4. Lekuan lekuan maillua, gurian andiagua.
5. Topiñak galdareari, ipur baltz.
6. Zu beli bero, otz eztana bero.
7. Soldadua, amaren seme galdua.
8. Guztia nai izatea, guztia galdutea.
9. Eguzkia nora, zapiak ara.
10. Egia, askoren erregarria.
11. Goiz Jagi, goiz gose; belu jagia, loz ase.
12. Zor zarra, lor txarra.
13. Jan edan gozoa, kontu emoille gaiztoa.
14. Errementariaren etxean, zotza burduntzi.
15. Ibiltari gabian, logura goizian.

LEOI TA ARTZAIÑA

Leoi bati beiñola, baso arantzaz betean zear ebillela, elorri bat sarlu yakon ankan. Beingoan zoldu yakon eta ez ekian zer egin: min bizitan, il-urren aurkitzen zan gaixoa.

Ontan, artzain bat igaro zan andik, alan-bearrez. Leoiak, artzaiña ikusirik, buztenari eragin eutson eta ankea erakutsi maitekiro. Gizona, baiña, bildur zan; eta, jateko zerbait bota eutson arren, etzan aren on-doraiño eltzen azartu. Leoiak, ostera, ez eban jatekorik bear: miñetan eukan arantzea ataratea nai eban bakarrik. Joan zan geldi-geldiro, tatarrez artzaiñaganaiño, onek zoritxar atatik atera egian.

Kendu eutson artzaiñak oiñean sartuta eukon arantzea. Ta leoiak ez ekian zelan eskerrak egin bere ongilleari. Barruko poza erakutsi nairik, samur be samur eskuak miazkatzen eutsazan artzaiñari.

Urte batzuen buruan, segada baten jausi zan leoia, ta pizti-taldeko eriotzara epaituakaz zirkuan burrukatzera bialdu eben. Oneitako bat zan zoriitsuak orrela naita, gure artzaiña be; eta leoi gosetiari bota eutsoe-nean, arri ta belarri gelditu ziran guztiak. Leoiak, bada, ez eutson artzaiñari kalterik egin, beste piztiengandik zaindu ta beiñola lez eskuak leunkiro miazkatu baiño. Jazoten zana jakiterekoan, geiago arritu ziran ingurukoak; eta, biotz-samurturik, euren eskuko itxi ebezan biak.

On egiteak beti dakar, dagokion saria.

IGOTZ

ETXE-SAGUA TA BASO-SAGUA

Etxe aberats panparroi baten sagu bat bizi zan. Bein baten, etxetik urtenda, zelai ta basoetarantza zuzendu zan, zelako bizikerea aurkitu ete leitekean ikustera. Ibilli ta ibilli, bere antzeko beste sagu bategaz aurkitu zan. Alkarri eskuak emonda, baso-saguak bere lagunari diñotso:

—Nire bizitokira ator, ta biok batera bazkari eder bat jango joagu.

Etxe-saguak, lagunari eskerrak emonik, jarraitu eutson jantokiraiño. Eta, bereala, bere dei-lagunak, maia ipiñita, janariak atara ebazan. Baso-saguarantzat, areik ziran janariak! Urrak, gaztaiñak, intxaurrak, sagar ustelak eta onelakoak agertzen ziran maian; baiña ezti ta koipe-janariak jaten oituta egoan etxe-saguarentzat gauza areik etziran lar onak, eta bere lagunari itandu eutson:

—Adiskide, janari ugari daukok, baiña dana otza ta sabela indartzen ez dauana. Ator orain ni bizi nazan tokirantz eta ikusiko dok zelako gauzak jaten dozakan. Andiki bat nok ni ire ondoan.

Ai siñistuta, an doaz "zara-zara" sagu biak urikoaren etxera. Ara eldu ziranean, jantoki usaintsu baten sartu ziran.

Sagu biok eztarriak koipetzen eta musturrak ezitzen ebiltzala, etxeko katu ar baltza sartzen da jantoki atan. Ango irrintzia ta ankotsak orduan l Etxeko sagua, berak ezagun eban zulo baten sarturik, bere lagunari begira geratu zan. Onek ez eban ezer ikusten; arerio ain ikaragarriaren aurrean lenengoz aurkitzen zan. Aian eta guzti be, katuak erpakada bategaz berari lepoan ikutu arren, sagutxoak iges egin eta ezkutatzea lortu eban.

Katua aldendu zanezkoxe, etxe-sagua zulotik urten zan, eta bere laguna billaturik, lepotik odola eriola ta bildurrez erdi-illik aurkitu eban, eta itandu eutson:

—Katuaren geriza ikusi ordukoxe, neuk lez, zergaitik ez dok iges egin? Urrengoan zurrago ibilli.

Eta barriro be ba-doaz jaten, eta onik onenean ate-giltzaren otsa entzuten da. Berialaxe etxe-sagutxoak, ikeragarritzko saltu bat emonik, bere zulo maitera iges egin eban. Baiña non zan bere lagun gaxoa? An dabil bizitzaren itxaropen eta uste barik, koipez beteriko lapiko zar batetik urten ezinda. Atetik sartu zan neskatxa gauza askoren billa ibilli zan; baiña, zorionez, gure sagu larriaren lapikora begiratu barik urten zan. Etxe-saguak bere lagunari, ain kokoloa ta ain epela zalako, barriro be agiraka egiten eutsolarik:

—Ni naz emen —esan eutson— gudari, soldadu zarra. Onelango galzori asko igarota; azkenean malmuzkeri guztiak ikasi dodaz, eta nok arrapau ni!

Baso-saguak erantzun eutson:

—Anai maitia, zuretzako aibeste ikeraz arrapauko urdai-zati bat jatea bizikerarik onena izango da; baiña, ai nire menditxoan aurkitzen dan bakea! Angoa da niretzako bizikerarik gogokoena; an ez katurik, ez

giltz-neskatxik, eta emen ain larri ipiñi nabean onelako beste gauzarik be ezta aurkitzen. Geratu adi, ba, i emen, gura ba'dok, katuaz beti gudan; ni neure mendi maitera biurtzen nok.

Eta alkar agurturik, bakotxa lengo erako bizitzera biurtu zan.

Zer darakusku ipuin onek? Gizona, Jaunak ipiñi dauan tokian zorionekoena izango dala.

LORAINZA, K. O.

SANTIJAGOKO IZAR BIDEA

Orain bosteun urte ta geiago dirala, Prantzi'koak, Ingalaterra'koak eta ainbat beste aldeetakoak, Galizia alderuntz, Euskalerra'tik zear, egunero joan oi ziran. Erromes edo pelegrinoak ziran oneik.

Buruan kapela aundia, maxkor kontxak dingillizka, makilla luzea eskuetan, baita batzuk iñoiz kate sendoak soñean narraz eroiezala, gabaz batez be itzala ta dardarea sartzen eben euskaldunen biotzetan onelako erromesak. Banaka batzuk txar itxurakoek be izaten ziralako, ezta arri-tzekoa.

Pelegrino oneik lurrean ez eukien Santijago'rako bidea, zeruko izarretan izan ezik. Zerua oztin dagoanean, odei antzeko izpil edo orban batzuk agertzen dira zeru zabalean. Euretatik asko eztagoz beti leku batean, igarri barik, odeien antzera, estaltzen diralako, beste batzuk, barriz, geldi samar egon oi dira, ta onei izenak ezarri dautsoez izar-jakinlariak. Orain arte guztiz 5.000 oztodei inguru ezagutu dabez, baiña erabagi ta bear dan lez aztertu 400 inguru bakarrik.

Guk batez be udako gauetan ikusi oi dogun Santiago'ren bidea edo ostrallika orreitariko oztodei edo izar moltso bat baiño ezta. Sorkaldekatik sarkalderaiño, Juze da zeruan. Eta izar moltso orreri jarraiturik egin oi eben Konpostela'rako joan-etorria.

G. ARAMAIO

Asto bat zan izan izen onen jaubea, Maiñurreta eritxon errotako astca. Errotaria zikotz, esku-estu, zekcn, diru-zale utsa zan ta erdl-janean eukiten eban bere asto "Txalin". Au gosez eukiaz aurreratzen eban dirua beste alde batetik joakon: azeriak errotako oillo, oillasko ta oillanda jatetik.

Azeria galtzeko ez ekian errotariak zer egin. Bein burua onetarakoxe austen egoala, "Txalin" 'ek

—Ugazaba —esan eutsan—, neuk garbituko dodaz azeriok.

—Euk azeriok garbitu! Zelan? Geiegi yakiek patari orrek.

—Lagunen bat izango al dot eta ikuslko dogu.

Au esanaz, errotatik urtenda, lagun billa asi zan gure "Txalin Errota". Intxusa-adar baten goitxoan zozo bat ikusi eban txistua jo ta jo ziarduala.

—Gogaldi ona daukak, zozoko.

—Lau ume daukadaz bata baiño bestea ederragoak, eta gogaldi oneko egon ez? Eu, astoko, ez az txarto bizi; bizkarrean zorrotxo bat bagarik, alperreri ederrean.

—Ugazabak bialdu naiok, azeriak il bear dodazala-ta. Laguna bear yoat onetarako. Eu izango az neure lagun?

—Baia nik, lau ume azten nagoan onek, etxaukat bestetarako astirik.

—Agur, orduan.

Txiruliruli zerraion bere poza erakusten, eta sasi artetik azeria agertu yakon.

—Gogaldi ona, e, zozoko?

—Bai, negar egiteak gauza onik ez dakar ta...

—Nori kantetan diarduk euk onen gozaro, zoli ta pozik?

—Lau ume eder daukadaz.

—Lau! Bat emon bear daustak, gose nok-eta.

Biotza illik ebala ume bat emon bear izan eutsan azeriari. Urrengo egunean, beste bat. Irugarren egunean, irugarrena, ta laugarrenean ume bagarik geratu zan. Aren negarrak!

"Txalin" ibiltaldiak eginda errotarantz etorrela, zozoaren negarrak entzun ebazanean:

—Zer dok, zozoko? —itandu eutsan.

—Zer izango yoat! Azeriak neure lau umeak jan yostazak.

—Lagun egingo dostak orain azeri galgarriok galtzen?

—Bai pozik. Onetarako i, astoko, or nonbait etzungo az ta ez zirkiñik egin, ezta arnasa-otsik bere. Nik iñon diranak iri egin arren, i geldi beli, ilda atzalakoan.

Astoak, zozoaren esana eginda, zozoa lenago legez txiruliruli asi zan. Azeria eldu zan ta aln pozkor ta txiolari ikusirik,

—Zozoko, zer dok orren alegere? —itandu eutsan.

—"Txalin Errota" Il yakuk, eta ni aiegere egon ez? Ikusi gura dok?

—Ondo ilda ete yagok gero berorl?

—Ikusiko dok.

Ba-doaz, eta an egoan "Txalin", luze zangiño etzunda. Zozoa egada baten bizkarrera joan da pirri ta pirri zerbals egin eutsan. "Txalln" geldi. Beste egadatxo baten buru ganera ta pik pik begietan egin eutsan. "Txalin" arrizkoa bai'litzan. Azeria, a ikusurik,

—Gaur ezleguak yaukaguzak —esanda, lagunen billa joan zan.

Ogeta amar azerl zar ta gazte beragaz ekarri ta,

—"Txalin Errota" Il dalako, gizonak oi dabenez, aureskua egin bear joagu gaur —esan eotsen.

Pollto-polito bata bestegaz lotu ebazan cgeta amarrak.

—Orain aglñetan zerbait egin bear yausat —esanda, ba-doa azeria astoaren burura ta, zerbait ori egiteko, bere atzea musturrarl ikututen ipiñi ebaneko, oratu eutsan "Txalin" ek eta bertan zatitu eban.

Lotuta egozan ogeta amar azeriak ondorik ebazala, ba-doa "Txalin" Maiñurreta'ra, ta errotariaren gelan "dran dran" jo eban.

—Nor da? —ugazabak barrutik.

—"Txalin" nozu. Ona emen oneik.

Ugazabak bakotxa amarna errearen saldu ebazan azeriok. Aurreran-tzean, "Txalln", ugazabak anoa (janaria) geituta, nai baiño obeto ta urte askotan, oparo ta gozaro bizl izan zan.

AZKUE (R. M.)

ERBIA TA KIRIKIÑOIA

Umiak ipuin-zaleak izan oi dira. Neuri be, txiki nintzanean, ipuiñak entzutea 030 atsegin izaten yatan. Gabetan, Agurtza deuna esan ondoren, ailtaren belaunetan jarrita, poz-pozik egoten nintzan bere ezpanetatik ipulñak, gudak eta jazokun arrigarriak entzuten.

Eta nire antzera Euskalerrri'ko ume guztiak dira, oso ipuin-zale. Ona kaskar bat, onein pozgarri.

Udabarriko goizalde eder gozatsu baten, erbia lilketa egiteko ustez urten zan bere etxetxutik.

—Arraie-arrala —iñoan bere kautan—, ni bai zoriontsu. Lurralde guzti onein jabe nor? Erbi. Pago, aretx, gaztaña, intxaur, masti, sagar ta solo oneik, norenak? Erbirenak. Trokarro guztian Erbi jaunik andiena, bera aberatsena. Baiña, alan be, ez bakarra, ta bera izan bear litzakek emeko jabe bakarra. Bai orixe l Zelan kendu guzti ori nire adislcide Kirikiño'ri? Dana dala alegin egin bear yoat; naioan beragana, ia onik ezer atara al dogun.

Buztenari eraginda, pozik joian Erbi; eta bein Kirikiño'ren ate aurrean, oles dagi:

—Eup, Kirikiño!

—Nor da?

—Erbi, ire adiskidea.

—Aurrera.

—Kaixo, aspaldiko Kirikiño! Ze modu?

—Alan-alan, ba; ta eu?

—Ni ondo, Kirikiño. Baiña, orraitño, lengo batean estu aldi majoa eroan naioan. Bedartza baten etzunda nengoan lo; alako baten "txakur" deritxoenetariko bat beste anka biko andi bategaz neure billa, ta kaiku onek zoritxarrean aldatz-beera artu yoan. Baiña laster zuzendu naioan okerra, aldatz-gorea artuaz, ta "txakur" ori miiña atarata itxi naioan.

—Au be polito yagok ba, Kirikiño; norberaren etxean egon bakean eta jazarkatu: aspaldion ainbat anai il yaustiezak.

—Baiña, i zarra ta zurra izan.

—Zarra ta zurra ta bizkorra; Kirikiño azpiratzekorik eztago ondño.

—Ixilik ago.

—Ezetz? Posture bat dagiagun, nok egin ariñago aneurkin bat. Eta irabazlea, lurralde guzti onein jabe izan daitela; bestea, barriz, irabazlearen otsein.

—Ondo yagok. Baiña nik erbi-emiaren baimena bear, eta au kanpotik izan.

—Etxok ardurarik; eugandu, ba, baimena ta gaur zortzi eglngo yoagu posture ori. Beraz, iganderarte.

—Agur, agur.

Eta Erbi'k pozaren pozez, zoraturik, amesik ederrenak buruan ebazala, etxerako bidea artu eban.

Gabaz Kirikiño'k lagunari:

—Erbi izan don emen.

—Eta?

—Gorantziak Iretzat. Posture bat eglñ yonat beragaz gaur zortzirako. Zeiñek bete lenago aneurkin bat, eta Irabazlea lurralde guztl oneln jabe geratu daltela ta bestea bere errentadore lez.

—A kokoloa!; betiko papaoa !, ez dakik ba galduta daukokala; i baiño milla bider bizkorragoa bal dok?

—Itxoin, auxe esango yautsagun: lasterketa orl bide berezi bitik egin bear dala alkarren berazu ez eglteko, ta bide bien erdlan orma batek egon bear dauala. I jarriko az batian eta ni bestian, eta bere oin-otsa barrunte-tian urtetea baiño etxaukagun; eta berak etxon igarriko bi gareanik.

—Ederto oldoztuta; bizkorra ez az izango, baiña zurra bal.

Urrengo Igande goizean Erbi Kirikiño'ren atean zan.

—Eup, Kirikiño!

—Aurrera, Erbi ba'az.

—Zetan gozak, ba?

—Baietzean.

—Beraz, noz?

—Nai dokanian; baiña olantxe izan bear yok, Erbi, azke-azke arln egiteko. I blde batetik eta ni beste batetik, eta erdlan orma bat izango yoagu. Puntetik puntera zeñek lasterrago egin amabl bira, edo geiago gura ba'dok, eta amabitik geiago irabazten dauazana, axe beite Irabazle.

—Ederto, euk gura dokan lez.

—Gaioazan, ba, orra solo barrenera.

Bitartean, ixillik eta beste bide batetik, Kirikiño'ren laguna posture-tokira joan zan eta punta baten geratu.

Asi zlrn. Erbi'k, neke asko bagarlk, laster jo eban beste puntea; baiña bera baiño arintxuago agertu Kirikiño. Bigarreanean bizkorrago erabilill ebazan Erbi'k bere anakak, baiña len lez Kirikiño ariñago eldu. Arrituta

egoan Erbi, ta olan galdu ebazan zazpi bira erreskadan. Miiña atarata agoan arnasa-estuka.

—Ia ogei biratara gura eban —Erbi'k Kirikiño'ri.

—Baietz —esan eutsan Kirikiño'k.

Erbi'k len baiño lasterrago egin arren, len lez beste sei bira be galdu ebazan. Baiña amalaugarreanean, geiago ezinda, illik geratu zan bide erdlsn. Antxe amaitu zlan Erbi'ren arrokeriak. Kirikiño geratu zan garaille.

Ezer barik geratu nai ezik, norberanaz poztu bear da, ta bestearl ba kean itxi.

AITA GOIRIA, K. O.

OIÑAZTARRIA

Oiñaztarria zer efe da?

Oiñaztarria zer dan iñok eztaki zeatz; baiña oiñaztarriari jakitunak bere neurriak artu dautsez.

Oiñaztarriak guztlok bildurtzen gaitu; kalte aundiak egiten ditu, ta batzuetan talentak artuta ibiltzen da. Laiño baltzak orrueka asten diranean, laiñoetatik lurreralño, sua ta garra dariola, jausten da, bidez arrapatzen dauzan gauza guztiak kiskildu ta ondaturlk; eta, gabaz jausten danean, inguru guztia argi blzi-blziaz argitzen dau.

Batzuetan oiñaztarria, pelota baten antzera, borobilla agertzen da; beste batzuetan, menditik bera doazan errekatxoak lez, laiñoetatik lurreraiño luzeera eukiten dau; bein edo bein, sugea ieze, ormetatik eta zugatzetatik lurreralño beeratzen da; ta, eletriziak lez, bat il ta ikatz biurtu leike. Orre-gaitik oiñaztarria sua ta garra da.

Oiñaztarriaren egikerak

Bein baten, odeia zala, gizon bat zugatzpera joan zan; oiñaztarriak zugatza artu eban, baita zugatza legortu ta gizona garbitu be. Gizon onen gorputz illa, ikatza lez, baltzituta geratu zan.

Beste bein, soiñean eroiazan jantziak erre, buruko uleak kiskildu ta mutikotxoa billozik itxi eban oiñaztarriak.

Artzain bati marmiñtak urtu ta abarkak kendu eutsozan.

Oiñaztarri bat eleizara sartu zan; eta, altara ondoan suge baten antzera ibilli ostean, jaupa esaten egoan abadeari bizkarretik gora bururaiño igon eutsan; eta gero, buruan borobildu zan, abadeari buruko ule guztiak jagita ipiñirik; ondoren altera ganera jatsi, "sacra" esaten yakonen laukia urtu, altarako zapi zuri ganean "Hoc est corpus meum" idatzi, au da, sakrakoa zapian ezarri ta, azkenez, trumoi izugarrizko bategaz batera, eleizako burdinki guztiak urtu, ta iñor be il barik ezereztu zan.

III

Oiñaztarriari deitu

Oiñaztarria, geienetan, zugatz tantaietara ta etxe gaillurreiara ta tontorretan egoten diran erpiñetara jausien da.

Etxeak, teillatu ganean, edozein burdin ba'dauko, ta burdin au lurreraiño ba'dator, oiñaztarria ezta etxe onetan sartuko: burdiñatik lurrera, iñori kalterik egin barik, joango da.

Kanpoan gagozanean, oiñaztarriak or-emen jausten ba'dira, onen-onena da norbera etzun eta lur ganean luze egotea. Zutunik egon ezkeru, oiriaztarriari deitu egiten daisagu. Baiña gure inguruan zugatzik ba'dago, guk

Etxean gagozanean odeia ba'dator, etxeko leioak eta ateak iztea da onena; oiñaztarria aizeak darabil-eta.

Batez be, burdiñ gauzetara ta bustita dagozanetara joten dau.

IV

Trumoia

Oiñaztarriak laiñotik laiñora edo laiñotik lurrera, sua ta garra darioela, joan leitekez. Laiño bi burruka dagozanean, batetik besteraiño joaten da oiñaztarria, berealaxe euria parra-parra egiñik.

Iñusturia (irestu), oiñaztarriaren argitasuna da. Oiñaztarriaz batera, sua ta garra ta laiñuen orruak sortzen dira; oiñaztarriaren orruari trumoia deritxo.

Oiñaztarria ta trumoia balera sortzen dira; baiña irestua bat-batean bazter guztietara joaten da, ta trumoia astiro.

Orregaitik, irestu ta trumoi bitarteak oiñaztarria jausi dan tokiaren urrintasuna adierazoten dausku. Au da, irestua ikusiaz batera trumoia entzuten ba'dogu, oiñaztarria geure alboan jausi dan ezaugarria da. Baiña, irestua ikusi ta andik mitiutu batera bere trumoia entzun ba'dagigu, zaratea segundoko 30 metro ibilli dabillelako; $30 \times 60 = 1.800$ m., au da, gu-gandik ia bi kilometro urruti jausi da oiñaztarria.

G. ARAMAIO, K. O.

BILDURRA AGERTZAILUE

Bein antxiñatxu, Napoles'ko enparantzarik agirien baten, abade azkar bat agertu zan. Munarri baten ganera igonaz, birietako indar guztiaz deia-darka, gedarrez abia zan. Lagun-pillo andia bere inguruan batu zanean:

•—Ba-dakizue, gizonak, zetara etorri nazan ona? —esan eutsen—. Lapurrak zariela diñoē ta berba egitera nator,
—Ez, aita, ez; ori ezta egia. Gu ezkara orren laiñekoak. Orrenbat baiño gizonagoak gara.

—Alper dozue ukatutea. Lapur utsak zarie.

—Ez, ez.

—Bai, bai.

Erriko arlote ta ganorabako guztiak aoa zabalik egozan elizgizon azartuari entzuten.. Onek edu onetan jarraitu eban beronen salataldia:

—Lapurrak eztireanak jaso daiela gora eskua.

Begi-itxi-edegi baten arlote guzti arein eskuak buruen ganetik ikusten zirean.

—San Paulo zorientzua —jarraitu eban salatzaileak— ezpata andi zorrozdun San Paulo doatsua: lapurra danari "sarrast" ebagiozu goratuta daukan eskua.

Bcste begi itxi-edegi baten, esku guztiak beeratu zirean. Ezpata-bildurrak agertu eban nor nor zan.

AZKUE (R. M.)

BIOTZ-BEROTASUNA

Neure lelotik basetxe zuriz beterik dakustan zelai luze ederrean ibar orlegl bat dago. Ibar orren barrendik zelairuntz errekatxu bat jasten da, ta errekatxuaren ertzetik neure basetxerako bidea digaro.

Nire etxearen ondoan beste bat dago; azpi-oial bikain eta sut-ontzi biztu ta leiar garden-zuriz apaindua, ta bertoko leioan ume eder bat ikusi daroat sarri, ni begiak beko zelaietan dodazala nagon bitartean, bera goiko baserrira begira.

Ume ori ikusi ez dodala egun bi dira, baiña beronen ordeez ama dakust alai ta irri-barrez leiora urreratzen dala.

Joan diran egun bian leiora ezta urreratzen eta, nun dago umea? —dasatsat.

—Basetxera joan yaku —erantzuten daust,

Andra orrek bere leiotik alde egin dau, eta nik oraindiño zelaira begira diraut ume aretzaz oldozten.

Izan be, Jaunak niri emon daustan biotz au baiño biotz gogorrakoak be biguntzeko aiña min emon daike ume aren alde egiteak!

Umea begira egoten zan mendien ostean basetxe txiro txiki bat dago intxaur eta gaztaiñondo artean.

Jaio ta laster gaxotu egingo ete zan bildurrez, baserritar emakume baterl emon eutsan bere amak alogera ziztril baten orde, beronen bu-larragaz azi egian. Eta azpioial bikain eta sutontzi biztu ta leiar garden zuriz ederto apaindutako etxean jaio zan umea, alde guztietatik axe ta euria sarlizen ziran basetxe txiro batera joan zan, bizitera.

Basetxeko andera goxoak, gotzontxu arek bere ezpanak bularrsan ipiñi eutsazanekoxe, "seme" izen gozoa emon eutsan, eta bere bularraren berotasunez larrosa-margo gorria artzen ebala, eta egizko amaren altzotik jaur-tita, "ama" izen eztiitsua berari emoten eutsala ikustean, ezin esandako poz eta maitasunez bete yakon biotza.

Eder eta zoriontsu azi zan umea. "Seme" deitzen eutsen gizon eta emakumeak, eta "anai" deitzen eutsen umetxu batzuek, eta bera ittun egonean eurak be ittundu, ta bera alai zanean eurak be alaito egiten ziran, biotz batzuk egozan basetxeko intxaur eta gaztaiñondoen gerizpean.

Emakume aberatsagandik esku-bete ogerleko arlzeko urira joaten bildur zan baserritar emakumea, bere umelxua kendu egin bear eutsala iz-parragaz etxera negarrez joan bearra jazoko yakola-ta, sendiarentzako cgia irabazteko lan andiak egin bear izanarren.

Eta uda goieneko arratsalde ittunetan bere semeagaz gaztaiña batzera ioaten ziranean, eta ibar sakonean jauretxea ikosten ebanian, alkarrerri begiratuta, besarkatu egiten ziran ama-semeak.

Eta azkenean kendu egin eutsen emakume aberatsak, berak eta bere senarrak eta euren umeak, erruki izan zadilla ta euren etxea atsekabez ez egiala bete belaunikaturik eta negarrez eskatu arren.

Neurea lez intxaur eta gaztaiñondo artean dagoan etxe baten, begiak malkoz dabezela, beti eurekandik urrin dagoan ume bateetzaz itz dagie ume batzuk, eta badatorren ikusteko leiora urreratzen dlra: zugazti zear dakusenean, barriz, alaitasunezko zantzo baf dagle, ta ariñeketan beralaanata, mosu goriz betetan dabe. Emakume gaxoak laztanka, bere biotzeko "seme" diñotso, ta negarrez, bekokiko izerdia aur-oialagaz ugindu egitan dautso, eta oiñak bustirik dakarzan oaldetu: otzik euki ez dagian lotu egiten dautsoz soiñaleak, eta goseak illik egongo dala-ta, atsaria damotso.

Eta basetxea uria baiño zegaitik maiteago dauan itauntzen dautsenean:
—Urian otz andia dodalako —erantzutan dau.

Bai, biotz-berotasun, azpi-oial eta sutontzi biztuena baiña beroagoa
zareala!

TRUEBA-GETARRAI, K. O.

BASERRI-BIZITZA

Goiko mendiko bizkarrian
baserri zuri-zar batian,
zugaztitxu baten erdian,
itxasoaren bazterrian
bizi naz pozik gentz andian.

Euskal oituren babesbian,
euskerea ezpan artian,
zer jana naiko beti etxian
ta osasun ona soiñian
bizi naz pozik gentz andian.

Ikuskin onak urriñian,
iturritxo bat aldamenian,
zelai-soloak etxostian,
baratza bat etxe aurrian
bizi naz pozik gentz andian.

Jaungoikoaren bildur deunian
zorun gentz ona barrenian,
maitetasuna biotzian,
jauntxo nagusi baten antzian
bizi naz pozik gentz andian.

Usotegi bat bazterrian,
oillotegi bat beresian,
erleteri bat baratzian
erlepillez bete-betian
bizi naz pozik gentz andian.

Antxe mendiko bizkarrian
baserri andi, zar, zurian,
zugaztiren erdi-erdian,
itxasoaren bazterrian
bizi naz pozik gentz andian

AITA GOIRIA

AAMEN AU!

Murelaga'tik Lekeitio'rako errekartean Gizaburuaga deritxon auzotegi bat dago, eliza ta guztikoa. Garizumako goiz baten, bertako abadearen autortegira urreratu zan zortzi-bederatzi urteko umekondotxu bat, guztizko eragiña, azkarra ta auzotegi guztiko katuen ezaun andia. Abadeagana eldu zanean, zutunik eta ixil-ixilik egoan.

—Zer dakak, txotxo? —abadeak esan eutsan.

—Konpesetara nator.

Asi yakan abadea, eroapen andiaz, agindurik agindu barrua aztertuten. Bakar-bakarrik, katuai arrika egin ta katu-jaubeari guzurra esan eutsala, autortu eban. Au esanda mutilla ixillik, baiña esan gurarik legez, gelditu zan. Abadearen esanen esanaz autortu eban geitxuago bere ba eukala; baiña... inguruetan egozan mutil-lagunak entzungo ebela-ta, ez eban autortu nai. Arimazaiñak eroan eban elizgela edo sakristeina, ta an bere mutiltxu ingiraz egoan. Ibilli ta ibilli joan zirean txilin-torreraíño, beeko ateak ondo itxita. Antxe, iñori ez esateko berbea abadeari eskatuaz, autortu eban mutillak, "lagun batek zozo-abia bat erakutsi eutsala; bost arrautzaz egoala erakutsi eutsanean; eta arako arrautzetatik umeak urten ta luma-arrautzan egozala, ondo lumatu orduko, lagunak ez ekiala, bost zozokumeak ostu ta kolkoan ekazala, il egin yakazaea bostak".

Andik aste bete edo bira, abadeak eliz-irakastegitik, gizonen asmoak zein utsak direan adierazoteko, adibidetzat berba oneik esan ebazan: "Doiala mutil koskor bat, esaterako, abia billa; aurkitu daiala basoan eskilloso edo zozo edo birigarro baten abia umeduna; ta txori gurasoen negarrai jaramon baga, dakazala beragaz umeak; eta bidean egin daizala asmo asko: berak jaten emongo dautsela, andi eginda urren dan jai-egunean andikiren bati salduko dautsazala..., ta beste asmo asko. Gero kontu egin daigun, obeto eroatearren, kolkoan sartu dabezala mutillak beren txorikumeak; eta an arnasarik artu eziñik, ito direala. Zer aurreratu dau ume orrek, ainbeste asmo ta gogoketa egiñaz? Bada, modu onetantxe..."

Onetan jagi zan umea ta guztizko arpegiera mukerraz:

—Aamen au! —esan eban—. Ez eutsala iñori esango ta, aamen au! Esan leikioz oni gauza andiak.

Oraintxe bere angó barre-algarak entzuten nagoala uste dot.

AZKUE (R. M.)

(ARABITAR IPUIÑA)

Bein ba-zan arabitar bertsogille bat, asmotsu ta goiargiz betea, baiña baserritarra jaiotzez; egun batean, bertso mordo atera ta erregeari eroan eutsozan, eta onek, aren buru-argitasuna ta etorri ugaria ikusirik, arrera itzalgarria egin eutson.

Beste olerkariak, baiña, begitan artu eben erregea eurekaz baiño esku-zabalago aregaz izan zalako; ta errege jaunagana urreraturik, au esan eutsoen:

—Errege gure jaun, zergaitik ainbeste dedu ta ohore oneri, etorki apalekoa bait-dozu?

Erregeak erantzun eutsen:

—Zuek iraindu uste izan dozuen au, geiago goratu dozue.

Eta jauregitarren ezin ikusiak eratsitako olerkari apalak gaiñeratu eban:

—Larrosari ez datorkio iraiñik, arantzartean jaioa izan arren.

Erregeak, esku erakutsi andiakaz goraturik, agur egin eutson.

Beste bein, bertsogilla| andiki odolekoa bai, baiña txarto azitako batek, bere bertsoak erregeari eroan eutsozan. Oso txarrak bait-ziran, erregeak irakurri ebazanean, atzerazo ta jaurti zituan, eta ez eutsan saririk emon. Orduan andikiak erregeari:

—Bertsoakaitik ez ba'dabe be, neure jatorriagaitik beintzat, zeozegaz saritu bear nindukezu.

Erregeak bota eutson:

—Nor dok aita?

Arek esan eutson nor eban. Eta erregeak onela:

—Aren azia iregan endekatu dok.

Eta olerkariak:

—Sarri, o erregel, garitik erne oi da urun-lorea.

Barrero bakaldunak:

—Eure aita baiño txikiago azala erakutsi dok.

Eta orrela bialdu eban andiki a.

Irugarren bertsogille bat be erregeagana urreratu zan; aitagandik ba-serritar, baiña amagandik andiki. Ez erarik ez ganorarik ez eukana zan, eta bat be anize ta patxada brik egindako bertso batzuk aurkeztu eutsozan erregeari. Bere amak ba-eban neba bat doatsua, ta idazten ebanari gazi-ozpiña ezarten ekiana. Erregeak ez eutson ezelan bere lanagaitik olango aintzagarri zanik egin. Alan be, noren semea zan itandu eutson. Olerkariak bere aitaita artu eban aitzaki, ta erregeak sarkutzak austeraifñoko barre-algara bota eban. Aren senidartekoak itandu eutsoen:

—Zer dala-ta onen barre algara nasaia?

Eta erregeak eralgl eban:

—Bein, ipuin-liburu baten irakurri neban alegi bat, eta orain bera daukat bizi-bizi begi aurrean,

Areik galdetu eutsoen:

—Zein da alegi ori?

Eta erregeak:

—Mando jaiobarri batek, larrean, azeri bategaz topoz egin eban, eta onek, zur ta arri, itandu eutsan: "Nor zara zu?" Jainkoaren izaki bat zala, erantzun eutson mandoak. Azeriak zirika: "Aita edo amarik ba al dozu?" Mandoak dirautso: "Zaldi zangarra dot aitaita".

Mandoak bere aita astoa, abere motz alperra zalako, ezagutu nai izan ez eban lez, era berean au be lotsa da bere aita, nagi xea, autortzeko. Erregeak, orduan, olerkariagana zuzendurik, esan eutson:

—Esan egidak, mesedez, nor dokan aita.

Eta arek esan eutson nor zan. Erregeak, ba, baldar ta txarto azia zala ikusi eban, eta bere morroiai esan eutsen:

—Emon daiogun zerbait oni, bere etorkia bait-dausku iragarri, ezer aldatu bage.

IGOTZ

ZER GURAGO?

Beiñola, jaun batek zoroetxe bat ikertu eban. Eta ango bateri onelan itandu eutson:

—Zu, zegaitik ekarri zaitue ona?

—Oskiak (zapatak) abartetak baiño gurago dodazaļako.

—Baiña ori ezta ezer... Nik be gurago dodaz oskiak abarketak baiño.

—Bai, e? Eta zelan gurago dozuz... gordiņik ala prijiduta?

V. J.

EZETZ JAKIN!

Zorrotzailleak.—Gura errietan ibilten diran zorrotzailleen txirrinkolak beti zorrotzaillearen aldera ibilten dira.

—Zergaitik ez dabez ibilten besterantza?

—Osterantza erabilliko ba'lebez, txinparta guztiak zorrotzaillearen arpegira joango litzakezalako.

Lodiak eta argalak.—Andra lodiak baltz jantziten dira, ta argalak zuri.

—Zergaitik?

—Lodiak mee ta argalak lodi emon gura dabelako.

Jantzi baltzak, eguzki ta argiaren izpiak irunsi egiten dauz; eta jantzi zuriak aldendu. Orregaitik jantzi baltza daroanak, dan baiño lodiago ez dau emoten; baiña zuri jantzita dagoanak, dan baiño lodiago emon oi dau.

Zaldiak eta errekak.—Zaldiak, errekak aundiak izan arren, alde batetik bestera aldaketan dira. Baiña burua, eta batez be belarriak, urretan sartu barik.

—Zergaitik?

—Belarri-txilotik ura sar ba'dakie, konorte barik geratu ta ito egiten diralako.

Edaten dogun ura.—Udan zergaitik edaten da neguan baiño ur geiago?

—Udako bero ta legorrak, neguko otz eta bustiak baiño dei geiago dagialako. Udako bero ta legorrak, gaiñera, —begiratu lapiko batera— gure gorputzeko urak ariñago lurrunduten ditu. Gure gorpuzkiak, ur barik, laster txindurriten dira, eta bizkortasuna galdu. Tramankuluentzako orio dana, gure gorputzentzako ura da.

AITA GOTZON

SAIZAR GAZTELU-KO AZTIA

Aintxiña, oso aintxiña, bizi ei zan Txiteder errege-semea.

Goiz guztietan, iñoiz be uts egin barik, Txiteder errege-semeak leio egalera etorkon txoritxo liraiña txera ta losingaz bete oi eban, eta gero bere esku barruan jarten eutson artu bearra eban janaria. Eta orrela egunero, ta astero, ta urtero. Izen polit bat be ezarri eutson: "Muttur-goxo".

—Zer barri mundutik, Muttur-goxo? —esan eutson bein errege-semeak.

—Barri gaiztoa, oso txarra, bakalduntxo maite! —erantzun eutsan egazti liraiñak—. "Lili-urdirin" errege-alabea atxillo daukazu Saizar Gaztelu'ko torre garaian; giltzapean dauka ango azti okerrak.

Ori esan eban txoritxuak. Eta erantzunaren zain egoteke, ego-bizkor, egaztada txairoan urrindu zan andik.

Erregeieme biotz-bera guztiz goibeldu zan, ezin eban ba iñor neketan ikusi, ez modu txarrean erabillia, ta oraindik gitxiago errege-alaba errubakoa ba'zan.

Bertatik eskatu ezpatea ta bidean jartea erabagi eban. Zaldizain dotore batek "Oin-arin" ekarri eutson, zaldi zuri azkarra, abere ederra, errege-semeak maiteen ebana, beeraiño eltzen yakon buztan lerdenduna.

Igon zan erregegai gaztea Oin-arin bizkorraren gaiñera, ta joan doa bidean zear. Ordu luzeak egin ebazan joan ta joan, illun-abarrean, ezagutzen ez eban uri batera eldurik.

Uri aren sarreran, lenen-lenen ikusi ebana "Goiztar" zapataria; bere denda aurrean egoan, zapata zarrez inguratuta, zapata bati azpiak konpon-

tzen. Zapataria, ogibide apalekoa zan arren, edozer gauzatan jakitun yatzun, iñoenez.

—Esaidazu, ene gizon —itandu eutson errege-semeak, oso txeratsu ta maitekor agurtu ondoren—, Saizar Gaztelu'ra eltzeko zeln bide artu bear dot?

—Iru egun artez eta egun bat eskumara —erantzun eutson "Goiztarak", maillukeaz zapateari eragoiolarik.

—Iru egun artez, buruz buru... ta bat eskumarantza... —esan eban bere kolkorako errege-gaiak—. Ederto!

—Artuizu, ene gizon —gaiñeratu eban, urre-txanpon dizdikorrez bete riko zisku txiki bat "Goiztarri" luzatzen eutson bitartean.

Belngo baten igon zan barrlro zaldi gaiñera, ta ostatu baten billa joan zan, gaua bertan emoteko.

Errege-semea urdurl egoan, albait eta ariñen Saizar Gaztelu'ra eldu nairik. Urrengo egunean, bada, eguna argitu zaneboxe, Oin-arin'en bizkarre-ra igon barrien barri ta Goiztar'ek esandako bidea artu eban iraduz.

Lenengo eguna amaitzean, errege-gaiak oillar arro batekin topoz egin eban bidean. Oillarrak diñotsa:

—Egun on, Txilededer erregegai! Nik ezetan laguntzea nai ete dozu?

—Unada ontan, ez dakit ba zertan —erantzun errege-gaiak—. Saizar Gaztelu billa nabil, an atxilotuta dagon Lili-urdin errege-alaba ederra askatu gura neuke-ta.

—Ortarako, atara egidazu buztanetik daukadan lumarik luzeena —esan eutson oillartxo onak—. Txapelean josita zutik daroazun bitartean, zure bu-ruak ez dau arriskurik izango.

Errege-gaiak, atara eutson oillarrari buztaneko egatsa, ta bere txapelean ezarririk, bideari ekin eutson. Eta bigarren eguna amaitzean, auntz zuri eder bategaz aurkitu zan bidean; bere bizar luze diztikorrei eragiñik, esan eutson onek:

—Egun on, Txitededer erregegai! Zertan nik zuri lagunduko?

—Une onetan, ez dakit ba zertan —erantzun eban errege-gaiak—. Saizar Gaztelu billa nabil, bertan espetxe dagoan Lili-urdin errege-alaba ederra askatzeko.

—Orduan —onu au auntz txikiak—, atara egidazuz iru ule neure okotzeko bizar zuritik. Oneik aldean daroazuzan bitartean, zu lango indardunik ez da iñun be.

Atara eutsozan errege-gaiak iru ule okotz-bizar galantetik; eta, ondoren, bideari ekin eutson. Irugarren eguna amaitzean, bide ertzean egoan

leoi aundi batcgaz topoz. Lenengokoan, izu bizi zan errege-gaiaren zaldia; baiña etzan gauza andirik izan, zaldunak oso adionez ta trebe irabilli ebaiko aren ago-ugela.

—Egun on, Txiteder errege-seme ! —esan eutson oso adiguri leoiak—. Zetan ni zuri morroi natorkizu?

—Ez dakit, ba, une onetan zetan be —erantzun eban errege-semeak—. Saizar Gaztelu billa nabil, an loturik dagoan Lili-urdin, errege alaba liraiña, askatzeko.

—Olan ba'da —diñotsa leoiak—, ebagi nire atzazkaletatik bat, eta gorde egizu. Zeugaz daroazun bitartean, zagoz ziur, piztirik ez da azartuko zuri kalterik egiten.

Ebagi eban errege-gaiak leoiaren atzazkaletatik bat, eta aurrera jarraitu eban bere bidean; oraingoan, baiña, eskumarantza okertuaz, "Çoiztar" zapataria esan eutsonez.

Eta, ain zuzen, ibillaldiko laugarren eguna amaitzean, Txiteder errege-semeak begiztatu eban, muiño aldapatsu baten gaiñean, azti ospe andikoa bizi zan Saizar Gaztelu zarra. Oso bolartsu, orpo-muturrak ezarri Oin-arin'i, ta goi erpiñeraiño igonik an lurreratu zan Gaztelu'ko ate nagusiaren aurrean. Bat-batean jatxi zan goi-beerako zubia ta itxura bakanezko epo bat agertu yakon, gorri-gorri jantzia ta oiñetaraiñoko bizar luzeaz.

—Geldi, gazte ! —ots egin eban, zubia zearkatu agiñean gaztea ikusiaz—. Nok ezarri ete dautzu Gaztelu onetara etorteko indar-kemena? Ogei urte dirala, ezta emen giza-semerik sartu.

—Erregeodola daroat zanetan —erantzun eutson bakalduntxoak—; Txiteder deritxat, eta biotzak daragist Lili-urdin errege-alaba adur gaiztoko³ askatzera.

—Orrek ba'zakarz ona —abots latzez esan eban epo bizardunak—, zoaz emendik arin be arin, ona etorriaz damutu etzaiiezan.

Eta gizontxoia, zubia jasotera Joian, baiña errege-gaiak aldean eroiazan auntzxoaren iru uleak, indar oso aundia emoten eutsoenak, artu ta iru edo lau zartadaz ebagi ebazan zubiaren kate lodiak eta, zaldi gaiñean txairo, larrain nagusiraiiio urreratu zan.

Gazteluko larraiñaren erdian erdi-io egoan iru buruko erensuge eskerga basati bat. Zaldiaren oinkadak entzun ebazaneko edegi zituan bere begiak eta, zintzurretik sugarra eriola, sar-barria iruntsi nai eban nunbait. Erregegai bioztia ez zan ikaratu: leoiaren atzazkala ezker eskuan arturik, eta eskuman ezpatea, zast ! zast! zast!, iru buruak moztu eutsozan mamuari.

Ederto baiño edertoago. Erensuge izugarri a azpiratu ostean, Gaztelu'ko dorre nagusira zuzendu zan errege-semea, oso bulartsu. Zain eukan atean Biur aztia; epoak esanda jakitun egoan, bada, zelan etorren errege-gaia. Aztiak ezpata iilluratua eukan eskuan, onegaz Txiteder'i burua moztuteko asmoz. Baiña onek oillarraren luma edo egatsa txapelean josirik eroian ezkerero, aztiak ez eban lortu ezetara be a zauritzerik.

Aztiak orduan, sorginkerietan izugarri be ba-zan eta, beregan eukazan sorgin-indar bakanak erabiltea erabagi eban, erregegai gaztea birrindu naiean. Baiña alperrik ori be. Gaitz-eragin orotaz azke egoan errege-semea, aldean eroiazan on-gaillueri eskerrak: oillarraren lumea, auntztxoaren iru uleak eta leoiaren atzazkala.

Biur azti okerrak, ba, bere ezinala ikusirik, oso samindua, bere kolkora-ko esan eban: "Bizia kendu bear dausat Lili-urdin errege-alabeari". Bai, ori esan eban, eta egitera joian, errege-gaia urreratu ta lillura-senetik itxartuko ete eutsan bildurrez.

—A, gaizkin ! —ots onek, aren asmo baltza igarririk—. Ire egunen azkena eldu dok !

Ezpatea zorrotik aterarik, aztiari ta epoari eraso eutsen zurubi (eskillara) gora, dorre buruko azken erpiñeraiño. Ara ziranean, gazteak alde alde zearkatuko ebazala-ta, orma bera jaurti ebezan euren buruak aztiak eta epoak, beeko obiaren kontra birrindurik.

Arrezkerero, ezeren bildur bage, sartu zan Txiteder errege-semea torre barruan; eta bertatik begiz jo eban errege-alaba liraiña; lotan egoan, urrezko bakaulkian jesarrita, gizaldi erdi baiño geiago zanetik.

—Jaio ezkerero —ots errege-gaiak, biziro biotz-ikutua—, ez dot ikusi onako edertasunik, ezta amesetan be.

Eta aren eskumea, bakaulki besoan atsedentzen zana, mosutzerakoan, Lili-urdin'en begiak edegi ziran, une aretan bertan neskatxa bizitzara biurtu ba'litz lez.

—Goazen emendik arin be arin, erregealaba maitagarri —esan eban Txiteder errege-gaiak—. Ene zaldi Oin-arin'ek eroango gaitu neure aitaren erreñura ta bertan ezkonduko gara.

Esan eta egin. Errege'semeak bere aitaren erreñura eroan eban Lili-urdin lerdena, Saizar Gaztelu'ko azti gaizkiñaren esku artetik askatua; eta, errege-seme azkarragaz ezkondurik, aurrerantzean oso zoriontsu bizi izan ziran biak. bakalderri txiki aretan.

IGOTZ

IRU AUNTZAK

Mutiko batek iru auntz eukazan.

Egunez basuan ibiltzen ziran bedarra jaten, eta gabez kortan sartzen ebazan.

Bein euren billa joan zala, mutikuak ikusi eban arbi-solo baten egozala, landareak jan eta jan.

Alegin aundiak egin ebazan bertatik aterateko, baiña ezin.

Orduan mutikua arri baten ganian jarri ta negarrez asi zan.

Negar ta negar egoala, erbi batek eldu ta itandu eutsan:

—Zer dala-ta negar ori?

—Sartuta dagozan solotik, auntzak atera ezin dodazalako.

—Neuk aterako dodaz, ba.

Erbiak auntz ondora juan, alegiñak egin, baiña ezin atera. Orduan muti-llagana juan, beste arri baten ganian jarri ta negarrez asi zan.

Gerotxuago azeri bat urreratu yaken.

—Zer dala-ta negar ori? —erbiari itandu eutsan.

—Negar dagit, mutiko onek egiten daulako. Eta mutikuak dagi arbi-solo orretatik auntzak atera ezin dauzalako.

—Neuk aterako dodaz, ba.

Azeriak auntz ondora juan, aiegiñak egin, baiña ezin atera. Orduan mutiko eta erbiagana juan, beste arri baten ganian jani ta negarrari emon eutsan.

Gerotxuago otso bat urreratu yaken.

—Zer dala ta negar ori? —azeriari itandu eutsan.

—Erbiak egiten daulako negar egiten dot. Erbiak egiten dau mutikuak egiten daulako, ta mutikuak egiten dau arbi-solo orretatik auntzak atera ezin dauzalako.

—Neuk aterako dodaz, ba.

Otsuak auntz ondora juan, alegiñak egin, baiña ezin atera. Orduan mutiko, erbi ta azeriagana juan, beste arri baten ganian jarri ta negarrez asi zan.

Gerotxuago erle bat urreratu yaken.

—Zer dala-ta negar ori? —otsuari itandu eutsan.

—Azeriak egiten daulako, negar egiten dot nik. Azeriak egiten dau erbiak egiten daulako; erbiak egiten dau mutikuak egiten daulako, ta mutikuak egiten dau arbi-solo orretatik auntzak atera ezin dauzalako.

—Neuk aterako dodaz, ba.

Orl entzunda, mutllak, erblak, azerlak eta otsuak negarrari itxi ta erllari burla eglñ eutsaen. Zelan beronek atera bestlak atera ezln ebezan auntzak?

Erlia, baiña, arbi-solora juan eta auntzen belarrietan sartu zan. Bere salto ta dantzakaz gogait eragln eutsen. Eta orain bat eta gero bestiak, iru auntzak urten zlrñ arbi-solotlk.

Sarrl jazoten da ori: aundiak ezln dauna, txikiak eglñ.

KATUA TA AZERIA

KATUAK.—Egunon, andria. Zelan blzi?

AZERIAK.—Nor az i, katu madarikatu ori, nl lako andera andiki bati itz egiteko?

KATUAK.—Entzunda daukat zeu andera zurra ta ganora andiduna zarala. Baiña etzara txakurren eta elztarren bildur?

AZERIAK.—Ze txakur ta txakur-oste l Nik gauza asko yakldazak txakur ta eiztariakandik iges egiteko. Eta euk, katu gaxuok, zenbat dakizak?

KATUAK.—Bak bakarrik dakit. Txakurrak nire atzetik ba'daioz, zugatz batera lgon... eta kltu. An nasai-nasal ta bildur barik egoten naz. Baiña zain, ene andria, txakurrak eta eiztariak ortik datoz-ta...l

TXAKURRAK.—Gua, guau, gau ! Grrr ! Guau, guau, guau !

KATUAK.—Igon, igon, ene andria, neugaz zugatzera.

AZERIAK.—Zelan lgon, baiña, nlk etxaklat zugatzera igoten eta? Ari ñeketlan asl bearko nok. Agur, ba-naluak ortlk zear, anka-jokuan.

KATUAK.—Azeri gaxua ! Txakurrak eldu ta oratu dautsae. Azerl arro ta zentzunbakua! Ainbeste gauza jakln bearrean, zugatzetara lgoten bakarrik jakln ba leu, eleuklan blzitza galduko.

Gizonai be sarri jazoten yake azeriari jazo yakona. Biar ez doguzan gauza asko jakin eta, ostera, biar dogun gauzarik ez. Orregaitik galtzen gara ain erraz.

U'tar M.

E G U Z K I A

Bein emakume maratz bat, bere seme ta alabeagaz baratzean lan eginda, illunabarrean etxera biurtu zan. Etxean sartu ziranean, mai gainean argi bat ixiotuta ikusirik, arritu ziran.

Yorka'k izuturik esan eban:

—Etxean iñor ez ta au zelan izan leiteke? Argi au nok ixiotu ete dau?

—Nor izango zan, ba, aita izan ezik —erantzun eutson Margarite'k. Guk baratzean ekin dautsogun artean uritik etorriko zan.

Berealaxe etxea arakatzen asi ziran, eta pozez beterik alboko gela baten aurkitu eben.

Urrengo goizean zelaian bedar ebateari ekin eutsoen. Eguzkiak bere edertasun guztiak dizkizka agertzen zituan. Yorka ta Margarite bere edertasunari begira, pozez beterik egozan.

—Umeak —esan eutsen aitak—, atzo geure gelako argia neuk ixiotu nebala lan andi barik igarri zenduen. Gaur argi ederrori goietan dizkizka ikusirik, nok ixiotu daben igarriko ete zeunskioe?

Margarite'k erantzun eban:

—Ori, ziur-ziur, Jaungoiko ona da. Argirik txikerrena be berez ezin leiteke ixiotu. Beraz, eguzkia ixiotu dabena be norbait bai da.

—Egia da, izan be —erantzun eutson Yorka'k, pozez—. Eguzkia, illargia ta izarrak, bedar, lora' ta zugatzak, itz baten inguruan dekusgun guztia, bere eskuetatik urtena da.

Goian dizdiz dagian eguzkia,
Jainko altsuaren ezaupidea.

SCHMID-MANTEROLA

BESO BAGAKO ERREGIÑA

Gizon alargun batek alaba bat eban guztiz esku-zabala. Auxe zan bere ontasun askoren artean agiriena: errukia. Euren etxeko atarira eskeko askok euken jokerea artuta. Batek ez eban iñoiz andik urten eskuetan zerbait bagarik. Arrautza ta lukainkaragiñokoak ekian neskatilla onak beartsuenai emoten.

Bein atso sorgin batek ots egin eban etxe atan, ta ari bere diruaz gaiñera oparo beste zerbait emon eutsan. Atso donga eskergaiztokoa neskatilearen aitagana solora joan zan, alabea nor eban esatera:

—Ganora bako, etxekalte, ondatzaille bat da. Neuri bere, limosneaz gaiñera, arto ta lukainka-zati onetxek emon daustaz ta kontuak atara. Zuk irabazten dozuna gitxi da aren eskuetarako ta lur jo bear dozu gizagaixo orrek.

Aita kirtenak siñistu ta arik laster alabea, erromeriara bear ebala-ta, jai-eguneko jantzita, beragaz etxetik atarau eban. Basamortura elduta, zugatz batera igon eragin eutsan alabeari ta antxe, beso biak moztuta, soka batez adar artean lotuta negarrez itxi eban neskatilla errukarria.

Euria asi zan, Gudari batzuk, euren artean erregeren semea, andixek igarota aterpe billa zugatz artxen azpian atsedean egin eben. Odol-tantak jausten ikusi ta gora begiratuera emakume gazte eder bat negarrez urtoten idoro eben.

—Zer dozu? —itandu eutsen.

Emakumeak jazo zan guztia jakin eragin eutsenean, erregeren semeak bere jauregira eroan eban. Otseiñai ondo jagoteko esan eutsen. Guztiak, errukiak jota, maite-maite eben ta zoratuta lez egozan beragaz.

Erregeren semeak emaztetzat artzeko ustea erakutsi eutsan.

—Ni ezkondu ta errege izateko bategaz l Barre egingo leuke edozeiñek besa bagako bat ezkontzen dala jakitorduan.

—Eztago ardurarik.

Esan ta izan: laster ezkondu ziran.

Arik urte bete baiño lenago urrun joan bear izan eban senarrak, gerrara (gudura).

Emaztea ondo artzeko agindu eban. Lasier izan eban onek bere seingintzea. Bikiak izan ebazan: neska-mutikotxo politak. Orduantxe agertu eban barrero bere burua arako atso sorgin donga esker gaiztokoak, beso bagakoari nondik kalte egingo. Jauregikoak seme gudariari karta bat egin

eutsan "seme-alabak izan zituala", esaten. Sorgiñak, mandataria nor zan jakinda, karta au kendu ta beste bat emon eutsan. "Zure emazte besobakok katakumeak sortu ta lotsa gorritan gagoz guztiok".

Seme orrek karta au artuta: "dan moduan dala, nire emaztea ondo jagoizue", agindu eban.

Sorgiñak mandatariari bidera urten, paper au gorde ta beste bat bere eskuz bialdu eban. "Karta au artuta batera egin dituanakaz etxetik atara egikezue emakume ori" irakurri eben arrituta erregek eta ingurukoak.

—Ezin izan leite —ziñoen—. Ezta orren biotz-gogorra. Gagozan geldi bera etorri arte. Umeok, oiñez ikasi artean beintzat, etxean euki daiguzan.

Ama barriak, etxekoan motel ta illuntasuna ikusita, bein baiño geiagotan itanduten eutsen:

—Zer dozue orren Jarri ta illun egoteko?

Umetxoak oiñez ibiltan ikasi ebenean, "agindu auxe daukagu" esan eutsen, ta bera etorri orduko ume ta guzti urten bearra zara".

Jauregia itxi ebanean guztiak egozan negarrez. Eskean ebiltan besobakoko errukarria. Bere alde edozeiñek al ebana egiten eban.

Noizbait eldu zan errege jauregira (orduko il zan aita).

—Nun dira emazte ta seme-alabatxoak?

Eztagoz etxean. Guk emengo barri zeatz emon geutsan, jauna, ta etxetik atarateko berorrek agindu eban ta guk...

—Nik olakorik agindu !

—Or ei dabiz eskean erririk erri gaixoak.

Erregek bere anai bati

—Goazan erririk erri euren billa —esan eutsan.

Eta bidez ibiltan asi ziran.

Ama ta neba-arrebatxo biak errekondu baten egozala, oneik egarri zirala ta ura edatera jozala ta errekarra jausi ziran biak. Amak areik atarateko besorik ez, ta ito egin yakazan aingerutxoak. Negar ta negar egoan ama.

Onetan andratxo bat, Ama Birjiñea, eldu yakon.

—Zer dozu? —itandu eutsan.

—Seme-alabatxoak errekarra jausi ta ito yataz.

—Eukizu Jaungoikoaren siñiste andi bat. Sartu uretan esku bat ori ta bata atarako dozu.

—Nik ez euki baiña, andrea, ez eskurik ez besorik.

—Egizu neuk diñotsudana.

Gorputzari zirkin bat eraginda, beso ta eskua aiderdi baten sortu yakazan ta eurakaz semea uretatik atarau eben. Beste ainbeste ezkerreko alderdian eginda, alabatxoa gora ekarri eban. Biak bizi-bizirik eukazan. Aren poza l

Andra AAariak orduan bonbiltxo baten ur bedeinkatua emonaz,

—Zoaz or goiko zelai batera —esan eutsan—. Ur au iru bidar egotzi ta esaizu: "Aita, Semea ta Espiritu Santua: lagun zakidaz". Au esanda jauregi eder bat sortuko yatzu ta antxe bizi izango zara ezer uts eztozula. Baiña atera datorkizuzan guztiai limosna ta ostatua emon gero.

Seme-alabatxoakaz aukera guztietan bera bizi zala, bere senarra, anaia lagun ebala, batari itandu, besteari galde, jo orra ta jo ona, ebillen. Jauregiko barri ekien eskekoak asko izan arren, besobakoaren argitasunik iñok ez eutsan emoten. Jauregi ondoko urira eldu ziran anae biok.

—Iñok jakiñenean, orkoxe jauregian ondoen argitu zikaiñer —askoren aotik entzunda, araxe joan ziran.

Emazteak berak urten eutsen.

—Iñoiz ostatu billa agertzen ete yatzu, andrea, besobagako emakume eder bat umetxo bigaz?

Zertzelada guztiak itanduta, andreak erantzun eutsen:

—Zuek diñozuen ori asko ikusia ba'da, neuk bere asko ikusi dot.

Erregeak ondo begiratuta, bere artean: "Besorik ez ba'leuko, berau dala esango neuke". Gero arpegira ondo begiratuta:

—Andrea —esan eutsan— zeuk daukazu aren antz andia.

—Neu nozu.

Luzaro alkarregaz jauregi atantxe bizi izan ziran, pozez beterik. Bein urruntxotik lepoan zorro bat ekarren agura makur bat ikusi eben. Emazteak senarrari:

—Egingo neuke axe aita dodala.

—Agura ori limosnatan ebillen. Erregiñak bidera urtenda bere aolik zertzelada asko jakindakoan,

—Zuk alaba bat etzenduan? —itandu eutsan.

—Bai, baiña il zan.

—Ez, bear bada.

Agureari isilleko guztiak atara eutsazan: basoratuta zugatz baten adar artean besomozik eta lotuta alabea itxi ebala ta areik arakoak.

—Begiratu ondo. Neu naz.

Agurea parka-eske belauniko egoala,

—Zuk baiño erru gelago eukan arako atso gaiztoak —esanda, barrura sartu eban.

Agureari itxi eutsen jauregia. Eurak errege-urira bizi izatera Joan ziran

AZKUE (R. M.)

TXANTXANGORRIA

Txori au txikia dozu, ta la lurralde guztletan aurkltzen da. Abots zoli-bigunekoa da-ta, errez ezagutu dalkegu naiz udan naiz neguan. Moko (piku) me leguna dau; andi ta Illunak, beglak; Itxuraz basatiarra. Auts margozkoa daU lepoa, azpl zuria ta gorrlak bular-paparrak. Luzeeran ezta asko, andieran eta astunear bez.

Soiñu gozo ta eztsuko abeslarla dozu. Arln, samur ta atertu barlk ekltzen dautso kantaka. Urteko aro ta sasoi guztietan entzuten da or-emen bere txorro-txio leuna. Ta beti yaku atsegin ta eder, batez be negu luze solletan.

Udaldan baso, beresl, olan, zumardl ta baratzetan blzi ta abestu oi dau. Txapar artean, geienez, bereslko zokorik gordeenean egiten dau abla, orri legor, ule-luma ta zotai-zotzak eioturik. Zugatz sustrai artean edo abakl gaztetzan be, noizean noiz, ipiñi oi dau, lurretlk urre.

Negu biotzean, goseak eraglnda, glzonaren biztoklrantza egaz dagi, janari billa. Mandio ta baratz zear dakusgu, zerbalt idoro nalta. Iñolz, uste osoaz, leioetara eltzen yatxu; baita, ego blzkor, eskaratz barruraiño sartu ta maitlk jausltako ogi-mllrñak polito jaso be.

Giltzape bizi zan batek au dlñosku, txantxangorria dala-ta: "Jaungoikoaren izakiak, danak doguz on-ederrak; baiña nlk maiteen dodana, txan txangorria. Blotzean laztan dot txorl zoragarri au. Espetxean nengoala, bein, ba-neban neke-lorrik nalkoa. Txorltxo onek, alan be, poztuten ninduan; egunero abesten eustan, olndlño ogean nengoala, golz-kanta samurra, ta egun bltardean be, antxe eblklldan, blra ta mira, neure lagun samurra, ta egun bltardean be, antxe eblklldan, bira ta mira, neure lagun miñ. Zora-

garria yatan, ziñez, bere abots zerutikoa; eta, bera izan ezpa'litz, nire etxe-ko maiteak ez ebezan artuko ainbeste gorantzi, mosu ta eskumuin: bera baitzan nire geznari (mandatari) zintzo bikaiña".

Txoriño eder,
papar gorria:
alai eglzu
nire espetxia.

Abestu samur
maite-eresia,
atsegin yatan
min-abestia.

IGOTZ

AMA TA ALABORDEA

Gizon bat, alaba bakar gaztetxo baten aita zala, alargun itxi eban bere emazteak. Etxea ezin ondo erabillita, soiñeko baltzak kentzeko eguna eldu yakaneko, bigarrenez ezkontzeko asmoa izan eban. Bigarren emaztetzat bere aurrean lenengo agertu zan emakumea artu eban. Sorgiña zan berau.

Laster sorgin onegandik beste alaba bat izan eban. Bigarren au seinzarotik urtenda gaztezarora eldu orduko, il zan bere aita. Sorgiña ordutik aurrera alaba ta alabordea lagun ebazala bizi zan. Alabeari eutsan maite-tasuna baizen andia zan alabordearentzako gorrotoa ta ikusi eziña. Ezin cgoarriz eroan eban bere erraietako neskaioa itxusi, ezin itxusiago zala, ienengo emaztearen umea eder, geroago ederragoa izatea.

Bein, negu gorrian, paperezko soiñekoz jantzi ta oiñutsik maillukitara bialdu eban au, zimera bete ekarteko esanda, Otzen otzaz dardar joan zan neskato errukarria ta txabola baten iru gizon aurkitu ebazan.

—Nora oa, neskato? —itandu eutsen.

—Amak maillukitara bialdu nau.

—Maillukitara ! Dagoan otzaz ta daukanan jantziaz! Zelako ama don ori?

—Amordea dot.

—Aolan bai. Bada ortxe, txabola atzeko egurpean, ediroko (aurkituko) donaz maillukiok, zimera bete gitxienez.

AAailluki ederrez zimeratxoa bete-bete egin ebanean, eskerrak erakustsa iru gizonakana joan zan. Oneik artu ta iru bezuza egin eutsezan.

Batak:

—Esango donan itz bakotxeko urrezati bat jausiko al yan.

Besteak:

—Egunean baiño egunean ederrago izango al aiz.

Irugarrenak:

—Ildakoan aingeruak zeruan sartuko al abe.

Ettxera elduta, amordeak zimeratxoa maillukiz betea ekarrela ta bera len baiño ederrago etorrela ta urre-urtika ikusi ebanean,

—Non izan aiz, neskato? —itandu eutsan.

—Gaintxo orretxen beste aldeko txabola baten izan naiz.

—[ñor ikusi don bertan?

—Iru gizon. Eurak erakutsi dauste mailluki-lekua.

Au entzunda, bere alabea soiñeko eder lodiz jantzi ta zimeratxoa bera eskuan arrarazota,

—I, neskato —esan eutsan alabordeari—; lagun egion oni txabola ori urruntxotik ikusten dan gaintxoragiño. Ator gero eu bakarrik ettxera.

Sorgiñaren alabatxoa txabolara eldu zanean, iru gizonak an ikusita,

—Amak maillukitara bialdu nau neu bere —esan eutsen.

—Maillukitara ! Zimerakada bat ez al dozue naikoa?

Ez eutsen maillukiteglrik erakutsi. Iru bezuza bai ari bere egin eutsezan.

Batak:

—Egingo donan itz bakotxeko zapoa jausiko al yan.

Besteak:

—Egunean baiño egunean itxusiago izango al aiz.

Irugarrenak:

—Ildakoan Txerrenek eta lagunak inpernura eroango al abe.

Ettxera elduta, amak zimeratxoa utsik, zimeraduna itsusiago ta aotik zapo-urtika ikusirik, len baiño bere gorroto andiagoa artu eutsan alabordeari. Urrengo egunean otzen otzaz ibaia izoztuta (leituta) egoan. Orixe nai eban sorgiñak. Alabordea, mataza batzuk ezkuan arrarazota, ibaira eurdk jotera bidaldu eban: aurregunean legez, ortozik eta erdi billoizik, gaixoa! Ibaiondora eldu zanean eskuak mangututa, matazak indarga joten erogoiola, zaldun batek ain ederra ta ain marroiz jantzita ikusirik, erruki?rren beraganako bidea artu eban, esanik:

—Zetan diardun emen, neskato?

—Amak arizko matazok garbitzera (ikuztera) bidaldu nau,

—Dagoan otzaz ta daukanan jantzlaz l Zelako ama don ori?

—Amordea dot.

—Aolan bai. Ator neure etxera. Neure amak alabatzat artuko au betiko.

Zaldun ori errege zan ta bere emazte izatera eroan eban neskatoa. Erregeren amak bene-benetako alabeari langoxe maitetasuna eutsan erranari. Au lenengo seiña izateko egoala, beronen amorde sorgiña, barri oneik jakinda, alabea lagun ebala, araxe joan zan bizi izatera. Eztakigu sorgiñak nundik nora lortu eban jauregian sartu ta erregeña gaztearen emagin izatea. Errege ta bere ama sein barriaz baratzeko lora artean eguzkia artzen egozan bitartean, sorgiña, bere alaba zatarra lagun ebala, ama barri zoritsuaren gelan sartu zan. Au ogetik kendu ta bere orde z izara artean bere alaba zatsr zapoduna sartu eban.

Errege gelaratu zanean bere emazte ederra emakume itxusi biurturik ikusita, zer egin ez ekiala egoan. Sorgiñak lentxoago alaborde erregeña ibaira jaurtigi eban. Orduan txori bat txioka asi zan:

Txin txaun txoria,
txoritxu txilibitaria:
astoan arto-bitxia,
upan edergarria,
zalduna doa zoroa,
moroa langoa daroa.

Alantxe igarri eben benetako erregeña non egoan. Sorgiña laban erre eben, ta bere alaba zatarra barriz itxasoan irato.

AZKUE (R. M.)

ILLARGIAREN INDARRAK

Erri koskor baten kipula aziak il goran ereiten ei zituen; baita egiz, kipula landara errimiak azirik, Arrasate'ko plazan otzaretatik atera-ala saldu be. Baiña gara egiten eben laster kipulak. Zergatik?

Illargiaren indar edo deiagaitik izan bear. Azia, ereinda bertatik, ezta ernetan. Erne baiño len lurpean biztu oi da, azi erditik kirtentxo bik, batak goruntz landara izateko ta besteak beruntz sustrai egiteko urtenik.

Landara barruan odol zuria gora ta bera dabil. Ernetako garai edo sasoiaren itxasaldi egunak ba'dira, illargiak itxasoko urai lez, landara barruko odol zuriari be deitu egiten dautso ta gora, puntarunlz, jaso. Augaitik, itxasaldi egunetan (illargi barria ta illargi beteetan, batez be beren egunak sasoi onetan jazoten diranean) landara puntetan biziago dabt! odol zuri au ta ariñago ta errimeago aziten da. Baiña gara be orregaitik egiten yake.

Gauzok onela dirala-ta, il goran ezta azirik erein bear: erne egin bear dau aziak sasoi orretan, eta azi. Il barrian be ez dabe ernetan egon bear aziak, itxasaldiak ba'dira beintzat.

Erne ta astiro aziten diran landarak onelako ardurarik ez dabe; baiña baratzetako landarak arin azten dira-ta, iru edo eguneko illargiaren deiak kaltea dakartse.

Il batzuk ba-dira illargia indar barik dagona; Beren egunak ez il be-teetan ez il barrietan ez diranean, illargiaren deia edo indarra oso motela izaten da ta itxasaldirik ezta izaten, ezta landarentzako kalte aundirik be. Onelako illetan, garillean esaterako, edozcin egun dator ondo ereiteko.

Landarak moztu ta egurrak ebai, odol zuria motel dabillega-ta, il goran egin bear dira; egurrak bestelaz, erretorduan, kea ugari dabe; landarak, barriz, ebagitik odol zuria galdurik negarka dagoz.

G, ARAMAIO

A R O T Z A

Txiki-txikitatik osaba batek emeko aldeko lobatxo bat eroan eban Ba-dajoz'era, bere etxean eukiteko ustean. Osaba arek sekula ez eban oifiik ipinten eleizan eta lobeari be bera legezkoa izaten erakutsi eutsan.

Arotz ikasi eban lobeak andi egin zanean. Osabea il zan, ta biurtu zan onuntz. Bere errian danak eleizara joiazan, bear dan legez, ta bera be joan zan. Sermoigillak biotzean ikutu eutsan ta urrengo egunean konfesetara joan zan. Emakumeak baiño etzegozan, ta berak uste izan ebanean, joan zan, baiña andrak joaten direan lekutik.

—Neskatilla zara? —itandu eutsan abadeak.

—Ez, jauna.

—Ezkondua?
—Ez, jauna.
—Orduan alarguna, e?
—Ez, jauna.
—Neska zarra ete zara ba?
—Ezta.
—Zer, nestaillea etzariala eztozu esan ba?
—Ba, ez naz.
—Orduan, ezkondua edo alarguna izan bear dozu.
—Ez, jauna.
—Ba, orduan ze Jaungoikoaren "bendiziño" zara ba?
—Ni, arotza.

OTZANDIO

ILLOBI GANEAN

Illak bizi direan tokian, nok esango leuke ezer sortu ta erne ta jaio leikeala? Orregaitino, jan-edanetarako mai oparoetan baiño obeto eiikatu-ten da arimea illobietan. Eriotzeak, lurpean sorturiko lagun atsituen ganera, zerutik jatsiriko lagun bat dau an adiskiderik maiteena: egia.

Egia, bizien artean bizi ezin danean, illen artera joan oi da bizi izatera. Guzurra, odei ganera goratu ezin dan legez, lurpera ezin jatsi izaten da. Egiak, odei ganean ta lurpean daukaz bizitokirik baketsuenak. Guzurrak usain bako lora artean, atsekabe bako illeta-jantzietan, irabszi bako koroi-etan, azalean sorturiko erostetan, gorpuari illerriragiño lagun egiten dautso.

Illarri ganean sarri ipinten dau guzurrak eskua, gizona zer dan adiern-zoteko. Eta guzurra illartitzak egiten derautsan artean, egia barrutik guzur-rari barrezka egoten da. Egiak, ar artean bizi dala, aldabatera irakurten dauz berak Jaungoikoaren eskuz Bizitzako Liburuan gizon bategaitik idatziriko barriak, eta guzurrak gizonen eskuz Eriotzearen liburuetan idatzirikoak. Urrezko izkirakaz illarrietan norbaiten laudu, gorapen ta jazokizun andiak irakurten doguzanean, biotzetik burura ezbai batek igoten dau,

"egia ete da?" galdez. Gorputzak osasuna galdu eztaian otxako arimeari osasuna geitu izaten, illarriak noizik noizera jasoaz.

Guk, arimearen osasuna aintzat artu gura ba'dogu, egitez al izan ezik, gogoz edegi daigun illobi bat. Entzuen daiguzan barrutik egiak darakuskuzan irakaspenak. Ilten ikasi eztabena, alperrik bizi izan da. Jaungoikoaren beso laztantsua argirik ikusi nai eztaben begiak, oba leukee itsurik eriotzearen bess azurtsua ikusi. Jaungoikoaren dei biguna zurrik entzuh nai eztaben belarriak, oba leukee gorrik eriotzearen zemai garratzak *entzun*.

Jaungoikoaren eskudun bat bizi da emen: argi guztiak amatau, su guztiak oztu, ur guztiak agortu, dabillen guztia geratu, bizi guztiak il, izate guztiak ezereztuteko al izatea daukan eskuduna. Eriotzea dau izena. Jaungoikoak beronen eskuetan itxi dau beren oroaltasuna, lugeia betiraunean sartu eztaiten.

Okerka bizi zareenok, beste lekorik aurkitu al ba'daizue, etzaitze ona etorri: zoritxarra gosez amurraturik, ase eziñez daukazue emen. Amendixek dantzudaz goikoen poz-algarak, beekoen oiñaze-uluak eta artekoen alarauak.

Gorako zareenok, erdue len-bai-len: beerako bidean zabilzenok, itzarri zaitze pekatuaren lo-zorrotik. Biotza usteldu baga daukazuenok, alegin egizue erdikoen alarauak amaitu ta mingots orduak gozatu daitezcan gol aldean".

Egiaren irakaspenak entzun doguzan ezkerok, estaldu daigun illobia ta illartitz alperrekoak irakurri bearrean, entzun daiguzan arimen erostak

"Zure besoak, o Jaun altsua, isioriko sutzar au, gurs negarren malko suzkoak bizitu ta azkortuten dau.	Lurreko putzak ama'ta leiguz ezin doguzan su-garrak: O geure anae maite-maiteak, entzuizuz gure deadarrak".
---	--

ZEIN GURUTZE?

Bide luze ta arri-koxkorrez betean zear gizon bat joian, bizitz gurutzea bizkarrean. Eguzkiak zizt egian erraiñu gartsuz.

Illuntzean, geratu zan arnas-estuka. Ta onela arek murmurio:

—Bai astuna Jaunak emoniko gurutzea l Guztiok eroan bear dogu gurutze bat, Kristoren antzeko, ba-dakit: daroadanak ausita izten nau. Ene Jainko!, ez ete daustazu zerbait arinduko karga au?

Loak mosutu ta onen besoelan jausi zan glzona, ta or bertatik argi dirdiratsuz inguratuta. Kristo bera agertu yakon, eta samurkiro esan:

—Daroazun gurutzearen orde, beste bat nai zeunke?

—Bai, Jauna! Ez-eukia nozu ta zarra; ezin geiagoan nabil. Irurogei urte karga astun onegaz; maite dot zeure eskutik datorkidalako. Baiña, ain astuna da, Jauna... !

—Zatoz neugaz, seme —dirautso Jesus'ek; eta arpe aundi baten aurrean aurkitu zan—. Or daukazuz nire errukiak banantzen dauazan gurutze guztiak; orrexek zabaltzen dautsez gizonei Zeruko ateak; itxi emen, ate aurrean, zeure ori, ta aukeratu ondoen deritxazuna.

Bidaztia sartu zan arpean. Eta bertatik sor ta lor, munduaren asieratik gizonak eroan bear izan dauazan gurutze areik, eta oraindik, aldia amaira arte, eroan bearko ebazan areik ikuslta, ez ekian zer egin, ez zer esan. Luzaro egon zan arei begira: lepoan artu, gero itxi, barriro artu, ta azkenez laga. Bata enbidi-gurutzea zan, bestea eskertxarrekoena, au gaixoena, a biotz-minduen. Ta orrelaxe danak...

—Ez, au ez —iñoan—. Nai ta naiez aukeratu bear dot, Jauna?

—Bai, seme; lurrean gurutze bage, zeruan ez dago koroirik.

Gizon arek, biurturik, azertu ebazan barriro, au ikutu, a itxi; azkenik burua makurtu eban, adore barik. Jaunak orduan:

—Begira; an ate ondoan daukazu bat...

Eta ate ondoan dakus bat, eder yakona; jasoten dau, eta bake-asperen goxoa jaurtzen dabe aren ezpan zurbillak.

—Neure ustez, auxe eroango neunke; astun samarra da, baiña tira... Besteak latzagoak dirudie. Artu dagiket, Jauna?

—Artu egizu.

Oratzeko besoak luzatzean, garraxi aundia jaurtzen dau. Zer dala-ta? Berea zan, lengoa, arpe aurrean eroan ezinda itxi ebana.

IGOTZ

BELAMIKA TA ARDIA

Belamika ta ardia —Esopo ipuinlariak diñoanez— adiskide antzekoak ziran. Negu ta uda, otz nai bero, mendi-zelai ta larra-baso zear ebiltzan, jateko billa. Belamika, alan be, zai-zaku ta alper-ontzi berebizikoa zan;

ardia, ostera, zur ta langille. Lagun miñak bai'lirean, ardia jan billa ebillela, belamika aren gaiñean, adiskide ardiaren bizkarra moko baltzez zaurituaz benetako pozetan. Ardiak bein, orrenbeste irain ezin eroanda, oneia jaurti ei eutson bekokira:

—Txakur baten eroapena, nirea lez, beztu ta erreko ba'endu, ziur ñagok, ez eunkazak luzaro eroan al izango aren zaunka ta agin-asarreak.

Egaztiak orduan, asmo zatar, erantzun ei eutson:

—Ba-dakik zer dala-ta igon oi nazan munaetara? Beetik begiz ikusi ezin dodana, andik ikustearren; eguneroko girarteko artu-emonaz ikasi yoaf, ba, onakin latz izaten eta gaizto bizardunakaz apal, txeratsu ta xume.

Ba-dira askotxo, or-emen,
errubakoai piko
ta gaiztoal dagienak
itz eder eta mako.

IGOTZ

LOTAZILLA



CAPRICORNUS XII-22 I-20

AKER.—Baso aker (Capricornus) zangarra. Begi, bizar ta adarrez polito jantzirik. Baita, ederto, euskal txapel zabala be buru gaiñcan. Gorbeia'ko ala Aizkorri'koa ete dogu?

Dana dala, beiñola, ameslari zalako edo, saltu biurri balez izartegiraiño eldu yakun, eta gaur an daukagu zeru-gerriko amargarren ezaugarri dala. Eguzkia, lotazillaren 22'an sartzen da berton, eta urtarrillaren 22'an urte.n. Ekliptikan, 270'lik 300'raiñoko luzera dauko.

Lurrak aldi onetan, dirudienez, barrenagoturik, ondoren datorken udalenaren berbizkundera gertatzen dau antza. Norbere kautako ezkutua, zurtasun gogoa; kemen baten eragiñez laster datorken ernemiñaren arnasa.

Ezaugarri ontako eguzkia bere egon-mugan aurkitzen da; urtearen gaberdia da. Iduripen egoki-egokia. Akerra dogu, ba, abere guzlien artean igokaririk azkarrena. Gaillur-miñez dabilkigu *beti*.

1) MITXELETA

Joku onetan bear dituzu: jokolariak aiña aizekin (abaniku), erretzeko paper meea, ta ari-muttur bat.

Ariakin paper meea lotu ezazu erditik, mitxeleta itxura emanaz. Ipiñi gero inguruka biran jokatzen dutenak, bakoitza berari dagokion aizekiña eskuan duela. Era ontan egokiturik, zantzua eman-ala, aidera botatzen dute paperezko mitxeleta, eta, lurrera erori ez dedin, mitxeletari aizea ematen saiatuko dira denak; ala ere, aurrenik egokitu diran tokitik alde egin gabe. Erortzen uzten dunak galduko dizu.

Luma batekin ere egin dezake jolas *au*, Luma, berriz, amak edo txa-txak uzten ba'dizute, oian dezuten buruko batetik atera.

2) ASMAKETAN

Jolas polit *au* neskato ta mutikoentzat berebizikoa: luzaro adikor iraunazi ta oarpen-sena beren baitan azkartzen lagungarri zaie.

Atseginkorrago izan dedin, Zuzendariak ezpei geiegi gauza berdiña esan, aurrak ala nai izan ta eskaturik ere, Lenengotan amar bat gauza ipiñi litekez, ta gero ogeiraiño ugaritu.

luze batekin estaldurikan, Ondoren, aurtxoai dei egiñik, miñutu batean estalgetzen dira gauza guzti oiek, eta aldikadatxu ortan eurak ikusi bear dituzte gauzok, arretaz eta ixillik. Azkenez, paper-zati batean idatziko ditu aurtxo bakoitzak mai gaiñean ikusi ta gogoan dauzkan gauzen izenak, eta Zuzendariari eramango dizkio bere izenez izenpetuta.

Gauzarik geien gogoratzen ditunak irabaziko du.

3) ARRE-ARRE, MANDOKO

Neska-mutillak, eskuetatik alkarri elduta, bira luzea egin oi dute. Eta, irraidan dabiltzala, onela abestuten dute:

Arre, arre, mancloko,
biar Iruña'rako,
etzi Tafaila'rako.
Andik zer ekarriko?
—Zapata ta gerriko.
—Aiek zeñientzako?
—Etxean dagonentzako.

4) IZEN-ESKE

Iru atz inguruko paper-puska lodiak. Zenbat? Izenak, izki edo letrak dauzkan beste. Esaterako: MAITE ba'da, bost papertxo, izen onek bost izki dauzka-ta. Paper bakoitzean izki bat idazten da.

Jokolariak sei, zortzi naiz amar izan ditezke, talde bitan bananduta.

Alderdi batekoak, izen bakoitzari dagozkion papertxoak izkututzen dituzte etxeke zokondo ez-berdiñetan: aulkipean, oinpekoaren azpian, lorontzi ostean, eta abar. Dena egin bear da beste alderdikoak ikusi gabe.

"Gertu!" esaterakoan, ara dihoaz aurkakoak, eta autetsitako izena duten papertxo guztiak aurkitu bearko dituzte; izen ori, baiña, ez dute zein danik jakingo. Izki guztiak bildu ta izena asmatu dutela uste dutenean, izena aldarrikatuko dute ta an ikusiko da asmatu duten ala ez.

Jartzen dan izena, glzaki, abere edo gauza batena lzango, ta egundo ere ez esaera osoa naiz itz-sail bat.

Bllaketa ortan zenbat denbora egin duten gogoan artu bear da.

Ondoren beste alnbeste eglngo dute beste taldekoak ere.

5) ZEIN ABERE?

Bear dana: paper-pusketa batzuk.

Zuzendariak txapel barruan jartzen ditu, tolestuta, abere baten izena daramaten pusqueta oiek.

Jokolarl bat ateratzen da ondoren, zotz-egiñik; onek, txapeletik paper bat atera ostean, buruz irakurriko du aberearen izena, ta belngoan orman josita dindilika dagoan paper zuri zabalean marraztuko du arkatzez abere orren irudia, zirrlborro gufxi batzugin.

Antza besterik eztan marrazkl ortatik zein abere dan igartzen duenak irabazten du jokua.

6) EZUR-EZUR

Mutillen arteko jolasa. Geriza aroan batez ere, kerlza ezurra atr blren artean daukatela, au esan ol dute:

—Mami, mami... Zeiñi, zeñi?

—Neri ez ta bai beste bati.

—Zein da ona? —Ni.

—Ta txarra? —Ori.

Eta norbait "orri" botatzen zaio keriza ezurra.

7) EDONTZIA

Zer bear dan: urez beteriko edontzi bat eta paperezko txano luzanga bat. Jokolariak, berriz, sei txanoekin eta bat txano gabe.

Sei jokolariak bata bestearen auzoan jartzen dira txano mototsdunak buruan dituztelarik. Eurotatik bat urruti geratuko da, *urez* beteriko edontzia zein txanopetan gorde duten jakin ez dezan. Au da: urez beteriko edontzia edozein jokolariren buru gainean ipinten da, txanoekin estaldurik. "Gertu" esan orduan, urruti gelditu dan jokolaria beste lagun txanodunen aurrera elduko da, eta auen arpegiak arakatzen aleginduko da arreta aundiz.

Jokolari guztiak geldi-geldi egongo dira, ikerarik egiteke, edontzia noren buruan dagon igartzeko. Asmatzaille ona izan ezker, laister igarriko du; edontzia buruan daukana, bada, oso geldi egongo da naitaez, zirkiñik ere egin gabe, ura burura erori ez dakion. Arpegi lar benak, ala ere, bertatik salatuko du; origatik, ontzia buruan daukanak irriparez ta kiñuka estaldu bear du, etsaiari lorratzik eman ez dezaion,

8) ERREGINTXOKA

Polita neskatoendako. Atera zotzean erregiñ izango dan aurra. Lagunak, ogei pausora bezela, bere aurrean eratuko dira.

Auek, txandaka, galdetuko dute: "Erregin, erregintxo: zenbat pausu eman nitzake?" Erregiñak erantzungo du: "Bat, bi edo iru txindurri-, kirker-, Jegoi-, edo zangurru pausu". Labur edo luze, atzerantza edo aurreantza ematea nai ditun beste.

Neskatil bakoitza, esan zaiona egin ondoren, bego geldi bere toki berrian, urrengo txanda iritxi arte. Ta orrela dioa erregiñarengana urbilduaz.

Ara lendabizi eltzen danak artuko du erregiñaren lekua urrengo jokaldian.

9) IKUSI-MAKUSIKA

Jokolari bi naiz lauren artean.

Batek diño: "Zer ikusi?"

Besteak: "Ikusten, ikusten, ikusten, ikusteeeee... "txo", ikusitakoa, "txoria" ba'litz.

IGOTZ

A B E S T I A K

1) DRINGILIN DRON

Dringilin dron, gaur Gabon
Sabela betea daukat eta
besteak or konpon.

Mazkelo bete aza egosi,
Ori, zuri ta gorriak:
Bereaia iruntsi neutsazan
Azken-azkeneko orriak.

Dringi'lin dron...

Iru ortzeko tresnatxo batez,
Morokil-ore bailitzan,
Ezti-lapiko aundizko bati
Barrua uts-uts eifñ neutsan.

Dringilin dron...

Orrez gaiñera umore ona
Iñoiz ez bezelakoa,
Batez be zuek bezela ondo
Busti ezkerro barrua.

Dringilin dron...

Aita zar Noe'k asmatutako
Ardautxuaren goxua,
Neurrl onetan edan det eta
Poz-pozik daukat barrua.

Dringilin dron...

2) BELEN'EN SORTU ZAIGU

Belen'en sortu zaigu Jainkoa
Arratseko gaberdian;
Otzez dardaraz dago gaxua
Lasto pizkaren gaiñian.
Bero ahalez bero dezagun,
Apa emanez musuan.

3) OI, BETLEEM

Oi, Betleem !
ala egun zure garaia,
oi, Betlesm !
Ongi bai-du distiratzen !
zugandik eldu den argiak
betetzen du bazter guziak.
 Oi, Betleem !
 Oi, Betleem !

4) AUR TXIKITXO TA POLITA

Aur txikitxo ta polita
jaio yaku Betlem'en;
goazen pozez ikustera,
goazen danok len-bai-len.

Zer da bertan dakusguna?	Jantzi barik dardar dago,
Aurtxo samur polita,	Josu otz ikaragaz,
otzez dardar aska baten	nai daulako berotzea
ez dauko zer jantzi ta.	geure maitetasunaz.

G. MANTEROLA

5) ABENDUKO ILLAREN

Abenduko illaren
ogeta laurean
Jesus gure Jaubea
jaio da lurrean,
gu danok jartzearren
bizitza obean,
pekatutik atera,
zeruko bidean.

6) MESIAS SARRITAN

Mesias sarritan
agindu zana
aingeru artian
dator gugana.
"Gloria zeruan,
bakia emen"
kantari aingeruak
dagoz Belen'en.

7) BELEN'GO PORTALIAN

Belen'go portalian,
negu gogorrian,
jaio da gure Jesus
askatxo batian;
estalgia barik dago
abere artian,
guztiz altsua dana
zeru ta lurrian.

Antxe dago gure Jesus,
antxe dago, bai!
Aurtxo txikia
askan dago.
Amak esautso
lo eiteko...
Baiña Aurtxoak, begiakin,
esaten dio: "Ama, ezin!"

8) MUN DAGO, AMANDREA?

Neskatillak:

Nun dago, Amandrea,
zerorren Semea (bis),
zerutik jatsiriko
gure mesedea (bis).
Berak argittu daidan
neure arimea (bis),
ikusi daian gero
zeruko bidea (bis).

Andra Mariak;

Or, goiko munatxuan,
oiñak ortazea (bis),
geriza dagitsoen
ganeko arantzean (bis).
Antxe dago ba neure
Semetxo kutuna (bis),
antxe dago, bai, antxe
neure maitasuna.

Danak:

Agur, Jesus laztana,
Jainko ta gizona (bis),
zu beti lzango zara
gure zoriona (bis).
Zeureak gara guztiz
gorputz eta ariman (bis),
izango gara bere
bizitza guztian (bis).

9) GABON GABIAN

Gabon-gabian oituten dogu
guztiok apari ona:
besigu, lebatz, makallau-saltza,
bakoitzak berak al dauna.
Gero txurrun-plin-plan,
ardau ta palttarra,
katuak artuta,
zabu-zabuka.

AGUR JAUNAK

Agur jaunak, jaunak agur, agur t'erdi.
Danak Jainkoak eñak gera, zuek eta bai gu ere.
Agur jaunak. Agur, agur t'erdi: emen gera.
Agur jaunak I

A L D A P E K O

Aldapeko sagarraren adarraren puntan,
puntaren puntan
txoria zegoen kantari
txiru liru li
txiru liru li;
nork dantzatuko ote du soiñutxo ori?

AURTIXOA TROXATZEN

Aurtxoa troxatzen
Ama Maria...
Zer dion kantatzen
entzun zagun:
"Ez egin negarrik,
nere maitea;
ez egin negarrik,
nere kutun".
Troxatu du, eta
seaskaratzen...
Orduko eleta
entzun zagun;
'Lo egin, maite;

lotan geldi zaite;
lo egiten ba'dezu,
ama poztuko dezu.
"Lotan zaude, maite...
Naiz, esnatu zaite.
Esnarik ba'zaude zu,
ama txoratzen dezu.
"Belen'go arrosa
gaur, amaren poza,
bigar nere samiña...
Ai !, beti aur ba'ziña !
Ai !, beti aur ba'ziña!"

M. LEKUONA

J A I O T Z A

Iñaki ta Libe anai arreba gaztetxoak dira, bost-zazpi urtekoak. Egu-berri aldera, pozak zorutzen ditu. Amak erakutsita ba-dakite Aurtxo txikiari nola antolatu jaiotza leuna. Igaz bezela, or sukalde bazterrean ipiñi dute aurten ere, oso polita.

Oi zar batzukin txabola bat egin dute. Zirrikituak ere ondo itxi dizkiote, aizerik eta euririk sar ez dedin. Orolbizko mendiak eratu dituzte an-emenka: zugatzak, etxeak, errekatxoak... Zer ez? Jesus Aurra or dago askatxoan; Ama Birjiña ta Jose doatsua inguruan, baita artzai, aingeru ta ardiak ere. Dana poliki egiña.

Gauero abesten dituzte kanta zoragarriak Aurtxoaren omenez. Gaur, aitak lagunduta, au kanta dute:

Birjiña maite, lotan clago
zure *Seme* laztana...
Seaskatxo bat ipiñi zazu
gure biotzen kutunai.
Ongi bai ongi igaro ditzan
gabak eta egunak;
poliki poliki eragin zazu
egin dezan lo ona.

IGOTZ

E U S K E R A

Kontrapasa: Heuskara,
jalgi adi kanpora.
Heuskara,
jalgi adi plazara.
Heuskara,
habil mundu guzira.

BEÑAT ETXEPARE

Euskaldun gara: Euskaldun jaio nintzan,
Euskaldun azi,
Euskara utsik amak
Eustan irakatsi;
Euskara maite maite,
Zabiltz neugaz beti:
Euskara il ezkeru,
Ez dot gura bizi.

FELIPE ARRESE-BEITIA

Gure izkuntza il?: Entzun ba, nere anai maiteak,
ta ondo sartu buruan:
gure izkuntza iltzen ba'zaigu,
zertarako gera munduan?

JUAN BAXURKO

Izkuntza maitagarria: Ez da Euskera bezin izkuntza
maitagarririk munduan.
Jakiña dago deabru zarrak
nola ikasi etzuan.
Ain da santua! Ezin mintzatu
dezakete inperuan;
orreatikan denak euskeraz
kantatzen dute zeruan.

PEDRO MARI OTAÑO

Geuria lenengo: Ez dago eman zuri ez baltzik,
ez dago "politikarik":
Euskaldun orok euskera alde
egitia da bakarrik.

Ikasi daigun erdera, prantzes,
naiz inglesaren elia,
ikaste ori ontzat daukogu,
baiña lenengo GEURIA.

ENBEITA'tar KEPA

Kantari ari dira
l<anpaitxo biak;
kantari tiiin-talan
torre txoriak.
Goiz eztaietan dagon
kanpantorriak,
gogoz xurgatzen ditu
argi izpiak.

Aingerutxoak beren
josta laguna,
zerura jaso dute.
—Poz da eguna—.
Izarrez josiko da
gabaz illuna;
zeruetara baita
gure kuttuna.

Lorea galduta utsik
seaska otza.
Aren alboan miñez
gure biotza.
Aur lapur eldu zaigu
gaur eriotza.
Amaren magalera
jetxi da izotza.

ETXANIZ'tar NEMESI

JOSETXO'REN AZKEN MUXUA

Itxas ertzeko erri batean, etxetxo bat lkusten zan: izatez edo berez txuria ba'zan ezpa-dakigu ere, kresalak zurituri zeukan bere orma zarrak.

Etxe orretan sendi arrantzale bat bizi zan; sendi au, senar-emazteak eta semetxo batek osatzen zuten. Guraso euskaldunak, au esatia naikoa dala uste det, euskaldunak, eta fededunak izango zirala jakiteko.

Semetxo oneri, Josetxo zitzaion izena; gurasoak bezela euskaldun zintzoa zan bera. Aita, beti arrantzan aritzen zan; Josetxo, berriz, etxean oraindik gaztea zalako.

Illuntze bat zan; egunero oi zuan bezela Josetxo'k, apaldu zunean, esan zion aitari:

—Aita, biar juango zerate Itxasora, e?

Eta aitak, beti bezela, goxo-goxo erantzun zion:

—Bai, seme, Jaun-Goikuak osasunarekin ela eguraldiarekin laguntzen ba'digu, irtengo gaituk, urrutira gaiñera.

—Ederki, aita —erantzun zion Joselxo'k aitari; eta laztan bat eman ta "Jaun-Goikua lagun gau on bat igaro" esan ondoren, juan zan lotara.

Urrengo goizaldean, aurrez esan bezela, ordubatak inguruan, eupl... itxasorako deia zan. Josetxo'ren aita, otarra gertu, bear zituan gauzak artu ondoren, atera zan etxetik, Josetxo lo-zorro aingeruzko batean utzirikan. Itxasontzian sartu ta, beste lagunak etorri ziranean, atera ziran kaltetikan terral edo brisari euron aizezapiak goraturik.

Eguardi ingurua zan; aize indartsu batek sekulako taparrada atera zuan; zugaitz guztiak ipurditikan atera bear zituala zirudin. Josetxo'k, berri, lenengo lana itxasora begiratutzia izan zuan, ta ikusi zuan itxas gaiña elurra baiño zuriago egiñik zeukala aizearen indarrak. Orduan ikaratzen asi zan Josetxo, eta esan zion amari:

—Ama, ekaitz izugarri bat sartu du, gaur.

—Zer, Josetxo?

—Gaur izugarriak artuko dituztela aitak eta. Aizea, gero ta indartsuago; itxasoak begiratze utsarekin beldurra ematen zuan... Josetxo, kezkatu aurkitzen zan, bere artean otoizka ari zalarik.

Eguardia igaro zan. Etortzeko garaia zan, baiño etzan agiri itxas ontziaren izpirik ere. Josetxo'k zorrotz begiratzen zuan itxas alderuntz, ikusiko ote zuan aitaren ontziko aize-zapi txuria, baiño ez du ikusten aizearen indarrak puztatuaz itxasoari ateratzen dion arrotasuna, "katxopa" edo biutsaren zuritasuna baizik.

Ordu biak, eta aztarrenik ez. Josetxo'ri biotza estutzen asi zitzaion, eta bere artean zion: zer ikusteko gauden ere...

Biurri zebillen batera begiratu ta bestera begiratu; baiño, alperrik, etzan, ba, iñondik ezer ageri. Arratsaldia ba-zijoan, gaba gaiñean zan, ta gero ta estuago Josetxo. Itxasora begira zegon lekuan, osta-osta zegon zutik, aizearen indarrak lurreratu gabe.

Illunabarra eldu zan. Gabaren arpegi beltzari iges egin zion egunaren argiak. Itxasorik etzan ikusten: illuna, Josetxo, gabarekin batera illundu da, gero ta itunago.

Onen ama, berriz, zoratu bearrean zebillen: "Zer gertatu bear ote du gaur? Jauna! Jauna!, laguntza, arren"-zion.

Gau guztia itxaropen apur batekin igaro ondoren... alperrik. Eguna argitu zuan, eta Josetxo'k begiratu beti ere itxasoruntz..., baiño alperrik. Eguardia zaneko, zabaldu zan itxaropena, galdua izango zala itxas ontzi ura, ta ala gertatu ere. Geiago etzan beiñepein itzuli bere kai mai.tera, geiago etzuan Josetxo'k bere aitaren arpegirik ikusi, ezta bere emazte maiteak ere. Josetxo'k etzuan geiago zoririk izan bere aita kuttunaren arpegia laztantzeko. Ito egin ziran, ekaitz zltal ura zala bide.

Andik egun batzuetara, Josetxo eta bere ama, ba zijoazen izketaldi bat egiñaz, eta itxas zabala begi aurreratu zitzairen. Bare-bare arkitzen zan une artan, eta Josetxo'k esan zion amari:

—Ama, begira zaiozu itxasoari, gaur bare-bare dago; ezin ote zan, ba, orrelaxe egon len ere?

Au entzutean amari negarra eldu zitzaion eta besarkada baten artuaz Josetxo, esan zion:

—Seme, beste gauza guztiak bezelaxe itxasoa ere Jaungoikuaren agin-dupean dagola oldoztu zazu; ta Beraren naia ala zalako asarratu zan zorigaiztoko egun orretan ere. Beraren naia zanez egin bedi eta izan bedi orrela.

—Bai, amatxo; egin bedi Jaunak nai duana.

—Bai, amatxo; egin bedi Jaunak nai duana.

Orduan, Josetxo'k itxasoari begiratuaz eta abots itunean, esan zun:

Nere azken aldiko muxua
aitari eman niona,
geiago sz det nik ikusiko...
agur!, nere zoriona.

Urruti ortan... ekaitz gogorrak
zapaldu zuan, bein betiko;
orregatikan, aita maitea,
etzaitut geiago laztanduko.

Itxas zabala, zure llobla
illobi bigun... urrezkoa...
Ai, al ba'nu oraintxe bertan
estutu, aita zure eskua !

Azken laztana zan, bai,
lengo egunekca...
Zeruan sartu bedi,
nere Jaun-Goikoa !

'KAI-ALDE"

MUTIKOA TA ILLE-MOZTZAILLEA

Toki batzuetan, zarrai entzunik, bertsolari egin zaizkigu gaztetxo batzuk ere. Ez dago gaizki. Zugatzak azia bezela, gizonak ere berea utzi bear dute ondoren. Gure bizitz-aldia txit laburra da, ta ondorengoak utzi bearra degu, gure zati luzatzaille bezela.

Bertsolaritza ezta tresna txarra euskal arnasari eusteko. Lenago, kondairaren asiera baiño lenagotik, bertso-oitura izan zan gure artean. Orain ere jori-jori dakusgu zenbait erritan: zaarrak ez-eze gazteak eta mutikoak ere, ortan saiatu oi dira. Txalogarria, benetan !

Erri'jaiak datoz, eta jantzi berria eramango du Mikel gaztetxoak jai oietan. Eskolan oso argi ta zoli ibilli da ikastaroan, eta bere amak sari bezela jantzi dotore bat egin dio. Doniane jaietan estrenatuko du.

Mikel gaztetxo au bertsolari da, ta amak illea moztera bialdu dunean, eta ille-moztzailaren atxean sartu, txapela erantzi ta onela agurtu du zuri jantzitako gizona:

Moztzaille jauna, ementxe nator
ni txapela erazteko,
gertu ba'zaude nere saillean
zerbait lanean asteko;

amak esan dit biar goizean
traje berria jazteko
illea txukun ebaki eta
burua apain uzteko,
usts gabian goraiziakin
ez belarririk mozteko.

Ille-moztzaillea ezta moteia. Ta bat ere bildurtu gabe, P. M. Otaño'k sarri erabilli oi zuen doiñuan, ots, "Mutil koxkor bat itsu aurreko" doiñuan, ondo ederki erantzuten dio:

Oso ederki egin didazu
aditzera ematea
buru saillean arriskuz dauden
bira oiek ez moztea;
biotzetikan esaten dizut,
ene mutiko maitea,
al baldin ba'da, ez nizuke nai
lan txarrikan egitea;
era ortako kezkarik gabe
sillan exeri zaitea.

Eta bein asi diran ezkeru, nola bukatu beren saioa? Or plazan bertso-lari bi; nork ixillerazo oien jarduna? Berdin ari dira gure mutiko gaztea ta ille-moztzaillea ere, artu ta eman, aspertzeke.

Mutikoak: Eskerrik asko, moztzaille jauna,
ekin ba, lanari zuzen;
nik kontu batzuk esango ditut
egon-arrian zoazen.
Biarko ori iritxiteko
pozetan nago zoratzen.
. Bai al.dakizu aita ta biok
trenean, nora goazen?
. Euskal umien.. jai pozgarria
goaz gu biar ikusten.

begira, beraz, seme onakin
aita nola portatzen dan.
Ipui, bertso ta kanta politik
izango dituzute an !
Mutikotxoa, ikusi eta
ikasi euskera zer dan:
gure indarrak alperrik dira
zuek indartu gabetan.

Mutikoak: Jainkoak lagun, ertengo gera
amaiketako trenian;
amabietan gerta giñezke
ziñemaren barrenian;
arreta biziz an egongo naiz
aitaren aldamenian.
Zer atsegiña nola izango
bai degun ondorenian,
albiste danak emango ditut
urrengo natorrenian.

Ille-moztzailleak: Jantzi berria jazteko onn
txukun ta egoki jarri,
aitzakirikan ezin emango
diozu moztzailleari.
Beraz, ementxe gelditutzen naiz
zure albista egarri.
Agur, mutiko, beste bat arte
esku emanaz alkarri:
egun eder bat igaro eta
berri alaiak ekarri.

Bukatu dute noizbait, baiña iturria etzaie agortu. Urrengoan ere beste orrenbeste egingo dute ziurrik asko.

Zai daudenak oso txalotu dituzte Mikel'en eta ille-moztzaillearen bertsoak. Ezin, alere, geiago luzatu. Ta alkarri eskua emanik, Mikel txapela jantzi ta etxera biurtu da; ille-moztzailleak, ostera, bere lanari ekiten dio gogotsu.

MUXIKA'tar TEODORO

—Itxasoa zer da?

—Arraien etxea.

-Zergatik dauka gatza itxasoak?

-Arraiak atzetik "botatzen" dutelako.

-Itxaso zer da?

-Baiñera aundi bat.

Etxeko andreak: —Aizu, Josepa Antoni, garbitu al dezu legatza?

Neskameak: Ez dago gaizki, beti uretan egonda garbitu egin bear ole
det ba?

Iru bider egin bear dik sardiñak igeri: uretan, oliotan eta sagardotan.

ARZALLUZ'tar MIKEL

ARGI KANTA

Argia koxk eta kaxka
dabil gaillurretan;
lurruna dariala
lurra ibai@tan;
aidea zuri-uridin
degu zeruetan;
zelaiak jai digute
lore-eztaietan.

Argia koxk eta kaxk
errekak esnatzen;
sapaburuak dabiltz
zingiran jostatzen;
ur-ertzeko belarrak
aiei begiratzen;
iturritxo zertzeta
denak maixiatzen.

Gure aurrak amari
par-irri gozoa.
Argia ta Potxolo
bikote xaloa;
biak argitzen dute
amaren kolkoa.

ETXANIZ'tar NEMESI

ERREGE SEMEAREN ABESTIA

"Ni errege-seme... errege-seme naiz... ludiko errege altsuenaren semea".

Arek, jaiotzatik, jauregia eman zidan; aize ta argizko jauregia, mendi ta basozko jauregia... Zelaiak ditu zapi eder..., errege-seme nintzanez...

Eta nere aita, nerea baiño jauregi ederragoan bizi zan... Ni ikustera zetorrela-ta, "Etxea berritu"-esan zidan.

Nere aitak egon bear zuen etxeak etzuen leiorik; ez eta ere aterik; zurruiñak ustelduta, gaiña eta ormak urratuta. Aita erregeak esan zidan: "Ala ere joango natzaik ikustera; maite aut eta biotzez..."

Eta nik eskale arloteari ainbateko etxea eman diot nere aita erregeari... Arek otz, laido eta bear gorrian lo egingo duen bitartean... Lurrean etzango naiz, eta arekin batera eskean ibilli... Ez det izango atsegiñik, jaio nintzaretik, arek emandako jauregian; aizez eta argiz, mendiz eta basoz egin-dakoan... Zelaiaz egindako zapi ederretan..., ezta Onbriako ederren ontan... Jaio nintzaretik, errege-seme nintzaretik, jostatzen ortxe ibilli nintzan arren... "Ni errege-seme, errege-seme naiz!"

"Ni errege-seme, errege-seme naiz! Nik berritu det nere aitaren etxea..."

Orma lodiak, abe sendoak, ate zabalak, odeietarañoeko dorrea. Oliondoaren neurriko zan; oraiñ, artea baiño gorago da; arrano bidetik gora

ditu urrezko ezkillak... Goiz, eguerdi eta illunabarretan jotzeko; alaber jaietan, nere aita erregearen egun aundietan...

Nere aitak, ordea, esan dit: "Etxe au ez dek meretzako diña oraindik... Aitarentzako etxea bear diat nik: aita nnuk, errege nauk; aitago errege baiño... Etxe bizia nai diat nik, etxe iraunkrra, etxe maitalea: Bizia, Iraupena, Maitasuna ni nauk eta. Etxea nai diat nere aurren gorputzetan; azken egunean auts artetik piztuko diranetan. Etxea nai diat nik, beifere ilko ez diran, nere aurrean gogoetan (animetan). Etxea nai diat, nerc aurren maitetasunean..., alkartzen dituela aien gogo eta soiñak. Maitetasun eta oroitzezko etxea, argia eta gardena".

"Ni errege-seme... errege-seme naiz! Nere aitaren etxea berritzeko... Nik ots dagiet errege seme guziaz, nik ots dagiet gizon guziaz..., guziak dira bada aren seme, guziak errege-seme.

Atozte! Eman zuen buruak! Jarri zaitezte, gure aitak aurrez ebakitako zuzenbide ontan. Lenengo etortzen diranak oiñarri izango dira; etxe guziari eotsiko diote. Lurpean sarturik, beartsu, garbi, illun; izan zaitezte erro eta asiera!; izan zaitezte lenengo arrizko etzangua! Geroago elortzon diranak eguzkitan bizi bearko dute... Jaungoikoaren, ludiko errege altsuenaren Argi aundi ontan...

Aita Jaungoikoak, zuek lo egin bear dezuten, obi orlan etzan zuen bere Seme Josu... Zoko-arri santoa, Jaunaren Seme maiteena izango dezute lagun zuen gabe aldietan.

Esnatu eta sariSzeko egunean, Jaungoikoaren lurreko etxeak, Epaikun-deko tximistak ebakita, utziko du lur galdua... Eta aren Seme Josu, Jaungoikoaren maitetasunak baturik, jasoko dezute, gorespen-kutxa irudi, Aita eta Erregearen aulkiraiño, Alaxen!

HENRI CHEON-BONIPAGI ABA

MIRUA, ERBIÑUDEA TA BASURDEA

Makal aundi ta lodi baten gailiurrean, adar-magaiik zabalenean, miru eder batek bere ume-kabia zeukan; makalaren erdi aldera, erbiñude traketse bizilagun zegoen; azpian, berriz, lur ta lokaizez egindako txabolana, basurde bat bizi zan.

Egun batez, erdi'aldeko biztanie erbiñudea miruarengana igo zan, mal-tzurkeriaren arin-ariñetan, ta esan omen zion:

—O miru andre agurgarria ! Oar bat egitera natorkizu; egingo ez ba'nizu, gaur bertan, zure ta nere umeak, agian, egunik gorriena luteke. Ikusten al dezu azpiko txabol ortan bizi dan basurdea? A zein gaizki-azi ta petralla datorkigun ! Lur-azpi-lan izugarriak egiten ari da. Maka! onen sus-traiak eten nai dilu, zugatza lur jo, zure ta nere umetxoak arrapatu ditzan. O zer egun negargarria datorkigun!

Miruari oso zailla zitzaion toki-aldatzea, ta erbiñudeari eskerrak eman-da, gau ta egun basurdearen zalantzan egon oi zan.

Beste egun batez, erbiñude au basurdearengana joan zan, ta esan omen zion:

—Ez ai dezu, Basurde jauna, ez a! dezu goiko miru lapur ori, amorraz-ten guri begira, iñoiz nabaitu?

—Bai orixe; ta arriturik nago —erantzun zion basurdeak.

—Zaitzan dago —esan zion erbiñudeak— zaitzan beti, noiz aterako ote zeran zure umetxoakin larre ta janetara, umetxo oiek atzaparretan txirtxillatu, ta bere txitoai janaritzat eraman dizazkien.

—Arrane-arrane!, naiko 'lan izango dik —basurdeak esanda, agiñak eta letagin luzeak erakutsirik, goruntz begira jarri omen zan.

Miruak basurdeari, basurdeak miruari etzion begirik aienatzen. Gau ta egun, basurdeak orru, miruak kulik egiten zuen; ta goseak i! bear ñ-tuen bata ta bestea, etziran janari billa irtentzen-da.

Bitartean, ordea, erbiñude malmutza, gabaz, bere kabitik ateratzen zan, ta iñondiko aza, arbi, ezkur, ar ta limako etxeratzen zitusun. Egunaz, asarre zegoen itxuri egin.

* * *

Etxe barrunbeko argudioa, baten bateri etorri oi zaio ondo.

ELURMENDI

ERLEA

Erlea bedeikatua esan ol da. Orregatik, diruz saldu ez baiña gari or-daiñez edo trukatu bear da. Erleak ezkoa edo argizaria egiten du. Ezko orrek balio du sendagal eta bests asko gauzetarako. Eztia ere egiten dula

ba-dakizu. Talo beroarekin, esnearekin, beatxingarraren muturrean, ondo lixtutuz jan ezker, bai gauza gozoa!

Zurgingiak moldatutako erlauntze edo erle-ontzietan egiten du bere lana; pago-ipurdietan, arkaitz-zuloan. Zirikatzen ba'idez, ziztakoren bat egingo dizu; baiña berez ez da asarrekorra. Pakean utzi bear, aurpegira etortzen ba'zaizu ere.

Etxean nagusia iltzen danean, lenbizi erleeri berri ematen zitzaien: "Erletxoak, egizue argizaria Elizarako; nagusia il da".

Iru erle mota dira: 1) "erregiña"; onek arraultzak egin oi ditu millaka, ta lau urteko bizia omen du; 2) "erlemando" edo alperra; onek ez du xixtaillurik edo miztorik, eta jan besterik ez du egiten; 3) "langilleak"; arraultzarik egiten ez duten erle emeak dira. Ume-sail osoa auek azitzen dute, ta gizonari ere janari bikaiña ematen diote.

Erleak gizonari erakutsi ederra ematen dio alkartasunean; oso alkar-koia da. Gizartean ez da erririk erle-jendea bezain alkarturik bizi danik.

Lorea bear du eta ura ondoan. Akazi-lorea onenetakoa da eztitarako. Euskalerrian lore-landare geiago sartuko ba'litza, zenbat ezii geiago bildu genezake! Eztia zuriago edo gorriago tokian tokiko loreak egiten du.

Len eztia azukre orde erabiltzen zuten. Azkurri bikaiña da; zauriak sendatzeko ere erabilli oi dugu. Azukre-gaitza edo diabetes ere sendatzen omen du.

ORIXE

MARI-SORGIN

Antziñako jendeak aztia edo sorgiña esaten zioten, gauzak aztiatzen edo asmatzen zitulako. Mari-serora edo Mari-moja ere ez *du* izena gaizki jarria, ondo begiratzen ba'zaio. Izan ere, aurreko zangoak belauniko bezela dauzka, ta burua makur, otoitz egiten ari balitz bezela.

"Iruria ez da ikatza", esaten oi dugu; bestela esan, izena gauza bat dala, izana beste bat. Mojak otoitza egiaz egiten dute ta baruak ere bai; Mari-sorgiñ orrek, berriz, ez du itxurazko otoitza besterik egiten; ez du

barurik ateratzen. Olio-egunik edo aragi usteko egunik ere, ez du serorak bezela. Egundaiñoko aragi-zalea da.

lñon diran moxorroak jan besterik egingo ez ba'lu, gaitzerdi litzake. Zer gauza arrigarri egiten du, ba? —Bere lagun arra, eztaietako egunean, eztaiak bukatzeko... il eta jan.

Margoa belarrean antzekoa dulako, errez gordetzen da belar tartean; errez sorgintzen da. An dago geldi-geldi, begiak itzuli ta irauli, aspertu gabe, bera baiño xomorro aulago bat noiz pasako dan. Alako batean, lasai dabillen mamutx bati atzapar luzeak botatzen dizkio, estutzen du iztarren eta zangoen artean. Auetan bizar gogorak dltu, arantza bezelakoak, eta errez itotzen du. Ola elbarriturik uzten dunean, ozkaka zarratatzen du eize gaxoa.

ORIXE

SUA TA TXIMELETA

Egan clabil txlmeleta,
ziru-zlra;
su-mingaln batl
begira.

Alzeak txiru-llru
gar argira.
Kontu, tximeletatxo,
jira-bira!
Zer zenduke egatxoak
erreko ba'llra?

Itxu clabll txlmeleta,
zlru-zlra;
su gorriak jo dio
begira.

Bein da berrlz, txoraxka,
gar arglra
joanaz, ega arlñak
jlra-bira,
su-mIngain gorri artan
galdu dira.

Ikusi ta ikutu,
ikusi ta txoratu;
amaika glzon
jolas orretan
munduan dlra
ondatu.

ETXANIz'tar NEMESI

M E T S B A T

Gasu xamar zebillen batean, Txomin zeritzaion bat, loalez betea oieratu eta amets egien asi zan.

Bildurri bat zanez, amets ikaragarri bat bururatu zitzaion. Lurra dar-
•dar, gelako ormetan txintxilik zeuden untzetik zearka, zegon oieko lau anakak zalapartan, etsaiak eraman nai ba-zuten bezela oartuaz, oiuka asi ta igesi egin nai izan zun; baiñan mingaiña, gorputz guztiaren eran, bildurrak gogortu zion noski: ezin zan mugitu.

Kopeta izardi otzez, biotza naigabez beteta oartu zitun; ikaraz txora-
biatu ta iltzera zijuala iruditu zitzaion.

Jaunarengan, beste ordu artan bertan il ziran askok, gure Txomin gaisoa eraman zuten. "Nora nua, zer gertatuko ote zait, zer Jaunari eran-
tzun nazaioke?" Aspalditik, alako gertaeraz etzan gogoratu ta larriturik zijoan.

Ala ere, bizkorra zanez, besteak zer esan edo eglten zuten jakitea ohea zala zion, eta pixkana atzeratu ta besteai aurrera juaten utzirik, azken xamar jauregi zar aundi batera iritxi zan.

Il-berrien zai noski ango atezai, gizon zar ta agurgarri bat.

Ate aurrean eserita, banaka etorri berri guztiak jarri-erazi zitun, ta banaka ta txandaka bakoitzari nungoa zan, bizi artean zer egin zun eta orain zer nai zun galdetzen zien. Bera, il-berriak dardarka zijuazkion bi-
tarteetan, batzuetan irriparrez, besJetan kopetillun baiñan beti maitetsu zego-
gon, batzueri jauregiko atea erakutsirik, besteal zulo beltz aldera begiratu-
-aziaz, "zuaz barrena" edo "us, emendik" esaten zien.

Txomin'en larritasunal "Zein da atezai agurgarri ori? Nora blladuko nau?" —zion; eta pixkana aurreratzen zijoan, bere fxanda itxoiten; baiñan, aren poza, bertaratuta, gizon ura ezagutu zunean!

—Ara —esan zun—, ene Jauna!, gizon ori, gure elizan erri-zaitzat dagon Pedro Deuna da noski!

—Zein da —atezaiak au aituaz zion—; zein da ain xamur ta maitetsu itz egiten dun ori? Etorri dedilla.

Juan zitzaion Txomin gizaxua, oraindik erdi dardarka; ta iritxi zan bezin laster, poztu zan. Irriparrez ta besoak zabalduaz, "atoz, ene maitea —atezaiak euskeraz ere esan zion—; atoz, atoz; aspaldin ez nun olako izkera samurrean itzik aitu: zuaz lenbailen zerura: zu, beste benetako eus-
kaldun guztiak bezela, ona ta zintzoa zera. Zeruko iru ata bakoitzetan eus-

keraz deitu beslerik ez dezu; itzegiten asi-ala bat-batean ta zabal-zabal irikiko zaizkizu".

Txomin'i biotza lasaitu zitzaion, Pedro Deun, atezai agurgarriari eunka ta biotz-biotzetik eskerrak emanez altxa ta zerurontz juan zan.

Biotza lasaitu ezkeroz, Txomin esnatu zan, mingaiña ta gorputza ere arindu ta azkatu zitzaizkion eta ametsetan oartutako gertaera gogoratuaz, maiz ta maiz esaten zun: "Emendik aurrera nola bizi ba-dakit; euskeraz nere bizitz guztian ibilliko naiz".

Ta esan ta egin. Andik aurrera, euskeraz, eginkizun, izkera ta asmoz, zintzo bizi izan zan.

Zenbait Txomin doatsu bezelakoak, euskal errian, bizi dira orain?

LERTXUNDI ABA

S A G U T X O A

Sagutxo bat ba-zan beiñola geldia ta esanekoa. Gaztetxo zala amak agindu zionez, oski (zapata) zar baten barruan poliki eman oi zuen aSdia. Katu eta gizasemeagandik urruti, ganbara loi ta illun batean bizi zan, ezeren arrisku ta galzori gabe.

Baiña bein, ganbara illun artan baiño obeki ibilliko zala-ta, mundua ikustea bururatu zitzaion. Beraz, ganbara zarra utzirik, munduko itxaso nasian murgildu zan. Eta lenengotan batez ere, zoria oso irrikoi agertu zitzaion; gero ta pozago zebillen bere bizimodu berrian.

Ori ta ere etzegon osorik ase-betea; geiago nai zuen, bizi-irrikaz bait-zegon aul-aul egiña. Amar ba'zitun, eun opa; eun ba'zitun, milla nai... Ezin asearen miñn, eraman gaitza izan iñundik ere.

—Asko ta asko dira munduan ni baiño obeto bizi diranak —pentsa-tzen zuen—; zergatik ni aien neurrira iritxi ez?

ta puskatzen. Besteak aiña izan gogo zuen.

Gau batean, etxerakoan, sator batek gogor egin zion agiraka;' gaitzak dakazkian arriskuak egoki azaldu zizkion. Sagutxoak, ordea, bere buruaz artua, etzion jaramon aundirik egin.

—Errukarria! —esan zion onulariak—. Lentxeago edo gerotxoago denak batera ordaindu bearko dituk. Doi-dol ba'da ere, zeureaz naikotu zaite; ez ezazu geiago irrikatu.

—Itz txuriak! —erantzun zion, arroxko, sagutxoak—; bizitza labur bat besterik ez degula ez al dakizu? Aro degun bitartean, gozartu dezagun. Zu zuloetan bizi zera beti, sarama lanean; baiña nik ez det nai illunetako bizitza neketsu ori. Naigo det bide-lapur izan, txiro ta arlote baiño.

Ibilli ta ibilli, goiz argitsu batez, kaiola barruan sartu zan sagutxoa; lerrenak eginda ere, ezin andik igesi. Nolako zoritxarra!

Alperrik negar egin zun; alperrik madarikatu zun bere burua. Arik laster agertu zitzaion gizon aundi bat, katu zuri mustur luze bat besoetan zekarrela. Odola izoztu zitzaion bertatik; eta, ondo damutua, onela esan zun:

—Eman dizkidaten kontseju onak gogotsu artu ba'nitu, orain ez nintzan onela aurkituko. Pizti aundi orrek bizirik jango nau noski. Ene azken izugarria!

IGOTZ

J A T E T X E A N

Sartu omen zan bein ederki jantzitako zaldun bat bazkaltzeko asmoz jatetxe batean, eta exeri ordurako "sopa" ekarri omen zioten. "Sopa" bai, baiño besterik ez: itxoin ta itxoin alperrik. Alako batean deitu omen zion an zebillen morroiari ta, begira begira jarriaz, onela omen zion:

—Nik zu asko ezagutzen zaitut, zure arpegia nunbait ikusi det; baiñan ez naiz gogoratzen nun.

—Nik zu etzaitut ezagutzean, jauna...

—A, bai, zu neri "sopa" ekarri didazuna zera.

—Zu!... Lukianka ontan egur puska bat arkitu det...

—Bai, zea...

—Ze zera ta ze arraio! Txakurra jan-eraztea ez de ezer, baiño bere txabol ta guzti, geitxo da noski...

OTSOA ARTZAIN

Behin bazen otso bat Eskual-Herriko mendi baten gaiñean. Ba-giñaki-ke ere, beharrez, erraiteko xuxen, zoin mendiren gaiñean.

Otso harrek adin bat ba-zuen; jadanik zangoak uzkuratzen, tontotzen hasiak zituen eta hortzak ere ba mutisten, eta zonbeit jadanik eroriak. Alta bada denboran ihiztari zalu eta erne izana zen. Zonbat ardi eta bildots etzituen larrutu eta jan? Baiñan egia da zahartzeak eztuela deus onik, bereziki ihiztariantzat.

Han zagon beraz otso gaizoa, goseak arraildua, hezurak larruaren baretik ageri; gogoetatua zagon, ez jakiñez zer egin, bildotso baten be deren hatzemaiteko. Baiñan otsoa urrunetik ikusi bezen laster ardiak eta bildotsak ihesi zoazin. Bertze alde artzaiñek eta xakurrek etzuten uzten artaldearenganat hurbiltzera. Zer egin bizitzeko?

Huna gogora zer heldu zitzaion. Egun batez, artalde guzia etzanik lo zagolarik, itzal azpi batean ardiak lo, artzaiña lo, xakurra lo, oro lo, emekiño hurbiltzen da otso hori; ebasten diozka artzaiñari bere soiñekoak, oiñetakoak eta bere makilla. Hantxet ezartzen ditu berak bere soiñean artzain gaizoaren pildak; eta xutik, gibealeko aldeaz lurrari, bi besoez makilari buru batetarik lotua dagolarik, gizon bat bezala, bere baitan egiten du:

—Zer den, ordean, burua jokatzea ! Nola bada etzaiote lehenago gogoratu ene idurikoer, otso batentzat, guriki eta beldurrik gaba bizitzeko, biderik oberena artzain egitea dala?

Bere buruarekin irriz zagon, ezpaiñak milikatzen zituen eta iduritzen rakon ardi hetarik egunean bat osoa janik ere, behingo ona ba-zuela. Baiñan ederki baiño ederkiago egin nahiz, horra nun burura heldu zaion ardien biltzeko, artzaiñak bezala xixtu egin behar duela. Eta xixtu nahiz ahoa zabalduz xixtu-ordez orro izigarri bat entzun arazte du, inguruetakoko men-harroka guziak inharrosten dituen. Hainbertzenarekin ardi guziak, artzaiña eta *xakvrra* lotarik irazartzen dira.

—Zer deabru dugu hau? —dio artzaiñak, bere burua buluzia eta otsoa haren pildez jabetua ikusiz.

Harritua zagon, baiñan kapusaillaren azpitik otsoaren buztana ageri zela ikusi zuenean, jauzi batez bere makila kendu zion aztaparretarik otsoari.

—"Huia, potzo, huia!" —erranez, makila-ukaldika, zinpi-zanpa, jo zuen.

Ardiak igesi joan ziren mendi aldera. Xakurrak haumaka eta klisk klask ausikika otso gaixoa odoletan eta burua makurrik igorri zuten.

AZKUE (R. M.)

MANDO BAT BELAUNIKO

Gipuzkoa'n ezik Prantzi aldian ere Tolosa deitzen zaion uri eder bat ba-dago. Ta Tolosa'ko uri ori baiño goragoxio Albi deitzen zaion beste uri eder bat dago. Bada, onezkero sarritan entzungo zenun Albitarren artean, ziñausto bat izan zala ta ziñausie (hereji) au oso zabaldurik eta beren biotzetan oso gogorturik zegoala. Gaiñera, sarritan entzungo zenun, Domingo Donean Agurtza edo Errosario doneaz Albitar asko Jaungoikoagana biurtu zitula. Ta atzenekoz, ba-leike Padua'ko Andoni Deuna, 1225'an, an izan zala jakitea.

Andoni deunak ziñausle edo ereje asko Jaunagana biurtu zitun. Baiñan beste gizon bat biurtu nai zuan, bestien artean nagusi xamarra, zorrotza

ta ausartia zalako. Glzon au Guaialdo zan. Andoni deunak askotan ekin zion eta bere jakituri zoliaz zer erantzun etzekiala askotan ixilik utzi ere bai, baiñan kaskagogor au ez atze ta ez aurre bertan gelditzen zan, batere. biurtu gabe. Ta izketan asten zanian ere, eundaiñoکو zentzun-gabegeriak esaten zitun... Enel, aiek aliak! Eta egun batian ezбайдan asi ziran.

Batek, Jesukristo Aldareko Sakramentu donean dagoala ta bestiak ezetz. Eta, jakiña, Andoni doneak egi arrigarri au oso errax egiztatzen zion, bestiak ezin ukatu zezan eran; baiñan... arraiepola! kaskagogorra beti kaskagogor izan. Atzenian, bada, cstutasun artan arkitu zanean, ara zer esan zion: —Nai dezuna esango didazu, baiñan nik orrelako gauzarik ez det siñistuko... Baiñan... tira, berriketak utzi ditzagun eta goaz eginkizunetara. Sakramentu orrek mirari bat egin dezala bai, ta orduan siñistuko det.

Andoni deunak au entzun zuanean, Jaungoikoari otoi egin zion eta Jaunak biotz barruan mirari ori egingo zuaia erantzun zion. Orduan Guaialdo'ri galdetu zion: —Ze mirari nai dezu Jaunak egitea? —Ze mirari?... Bada, nik mando bat ba-daukat; eta nik mando orreri garagarra aurrean jarriko diot eta zu Jaunakin zatozenezan garagarra utzi ta Jauna gurtzen ba'du, nik siñistuko det. Pranko zarpailla izan bear zuan gizon onek! Alaz ere, Andoni deunak baietz esan zion.

Guaialdo joan zan etxera ta mandoa ikulluan lotu zuan, berari garagar ale bat ere ematea galeraziaz. Irugarren egunean mando gosetia askatu ta berakin Andoni deunagana aurkeztu zan. —Tira, esan zion, nai dezunean egingo degu; mandua gertu dago. —Zoaz enparantzara, Andoni deunak esan zion, eta an itxoin egidazu.

Joan zan enparantzara; gertaera au ikustera Albitar ziñausie talde bat ere aurkeztu zan. Uste zuten Andoni deunaren lepotik parre galanki egingo zutela, baiñan...

Bitartean Andoni deuna enparantza aurreko elizatxo batera joan zan. Meza begirune berexiaz eman zuan, Jaunari otoi egiñaz ziñausle aien artean mirari ori, arren, egin zezala, guztiok beregana biurtu zitezzen.

Meza eman ondorean, *urrezko ontzi* ederrean Jauna arfu zuan eta enparantzara, bere adiskide batzuek lagun zituala, irten zan.

Guaialdo'k, Andoni deuna etortzen ikusi zuanean, mando gosetiari saski bat garagar bota zion. Onen zalapartak guztia batera jan nairik! Orduan guztiak ixil-ixillik zer gertatzen zan begira zegozela, Andoni deuna Jaunakin mandoagana urreratu zan eta goxo eta emeki esan zion: —Zure Jaun Egillearen izenean, nik, bere otsein apal onek, agintzen dizut garagar

ori uizirik, nere eskuetan dagon zure Egille au gurtu dezazula, ziñausle oiek egia ikusi dezaten,

Bai, mando ark, gizon aiek baiño ezaguera geiago zuala zirudian, bada Andoni deunak itz oiek esan zitun bezin batean, garagarra utzi, Jauna zegoan aldera begira jarri ta belauniko, burua makurtuaz, begirune guziaz Jauna gurtu zuan.

Etixeratu zanean, bere sendi guzia Jaunagana biurtu zuan; eta Pedro deunaren izenean eleiz eder bat egiteko agindu zuan. Bere ondorengoak ere elizatzko bat egin zuten, eta antxe gertaera au idatzirik utzi digute.

AZKENEKO DIAMANTEA

Bein batez gizon bat omen zebillen itsas baztarrean egurasten (aizea artzen). Eta alako batean nabaitu zuen ondar gaiñean zakuto bat; jaso ta idiki, ta arri koxkorrez b&terik zegola arkitu zuen.

Itsas egazti zuri batzuek ega-egaka ta *uren* gaiñean irrixtaka zebiltzen orduantxe; ta ara zer gogoratu zitzaion gure gizonari: arri koxkor aiekin txoriei arrika asi zitzaien, jostaketan. Bana banaka, arri bat ez beste guziak aurtiki (bota) zizkien, ta itxas-zolara joan ziran.

Arri koxkor bakar bat gorde zuen bere sakelean. Gero etxeratu ta su ondoan jarri ta arria atera zuenean, suaren garretan arriak eun-ta bere aldiko dizdiz ederra ematen zuen. Gizonak ongo begiztatu zuen; ta orduantxe oartu zan, arri ura diamante eder bat, balio aundiko bitxi edo perla bat zala, ta berak itsasora ain axolakabe aurtiki zituen arri koxkor guzi aiek ere beste ainbeste diamante baliotsu zirala. Damutu zitzaion bere zcrakeriaz, baiña berandu. Arin arin joan zan atzera itsas-baztarrera, ea arri aiek bildu ote zitzaken, baiña alperrik. Bere damu ta urriki ta sapite ta naigabe guziengatik, etzuen ondasuntze ura berriz eskuratu al izan. Galdua zan, sekula guziko galdua itsas-zolan (barruan).

Umetxo, guziori eman digu Jainkoak olako diamanie multzu bat, bazuei aundiagoa, besteai txikiagoa. Mundu onetan bizitzeko eman dizkigun egunak, oietzek dira diamante ta bitxi eder oiek.

Ez gaitezen, bada, arako gizon ura bezain eroak izan, ez ditzagun bitxi eder oiek ondatu. Bada-ezpadan, Jainkoa maitatu gabe joaten zaizkigun egun guziak egun galduak, bitxi galduak dira.

Saia gaitezen badare azken egunean bitxi-multzu aundia bildu izango dugu, sekula guzian gure burua apaindu bear duen koroa eder dizdiraria egiteko.

URTSUIA

"TXURI" TA "ÑABUR"

"Txuri" txakur txikia
etxe zai zeukaten.
Txakur txintxoagorik
ezta aixa topatzen.
Oillo-janak atetan
beti iduki arren,
iñoiz ere jan ori
etzuan ukitzen.

"Ñabar" aren lagunak
ostutzen ba-zekin,
etzelako asetzen
bere etxeoakin.
"Ñabar" zettorreneko
"Txuri"-k aunka zegin,
argatik zegon txuri
bsti txakurtegin.

"Ñabar" aserreturik
aunka aiek aitzean,
aldi bat egon ziran
ezta-bai miñean.
"Indarra al duzu juez?"
"Txuri"-k esatean,
"Ñabar" joka zitzaion
'leoien antzean.

"Txuri"-ren aunka miñaz
Praxku oarturik,
jun zan alde artara
arri bat arturik.
Oillo-ore jantza'lia
ikusit zularik,
"To irea" esan zion,
arria jaurtirik.

Bakoitzari berea,
ez ostu iñorenik.
Au da zuzenbidea,
bestela ezta gauz onik.

ERREKATXO KANTARIA

Errekatxo kantari,
gulu gulu gulu;
aurtxoak inguruan
jostatu oi degu.

Gulu gulu gulu gu,
guJu gulu gulu;
errekatxoak an du
bere zurru-murru.

Aurtxoak lore bana
dute eskuetan;
bildu inguruko
zelai ederretan.

Orra nik larros gorri,
orra nik lilia,
erreka jolasari
gogoz eskeiñia !

Ur Jasterrarekin
doaz guziak...
larrosa gorri eta
lili txuriak.

Oa, errekatxo,
lozez jantzia !
Ametsez bete dek
ire bizia.

Loretxoak —ai, ene !—
gulu gulu gulu...
uretan —ai, gizonak !—
ondata zaizkigu.

ETXANIZ'tar NEMESI

ERENSUGEA

Errege bizi zen uri eder baten inguruan leze andi bat zen eta leze artan suge izugarri bat, zazpi buruko sugea, bere izenez erensugea, gordetzen zen. Jende andia iresten zuen sugetzar onek. Erriak erensugearekin kontratu bat (egiune bat) egin zuen: urtean neskatxa bat izanen zuela, bertze jendeari parkatzekoiz.

Zein neskatxa erensugeari emanen zitzaion jakiteko, zotzetara egin zuten etxeko jaun guziek eta Erregeren alabari jaurri zitzaion. Erregek,

orduan, bere erresuma osoan jakiñerazi zuen, erensugearengandik bere alaba bizirik aterako zuena, berarekin ezkondu ta erregegai egiñen zuela.

Eguna eldu zanean, Erregeren alaba zuamu (zugatz) batean estekatu zuten. Ikusgura aunitz inguruetako zugatz-adarretara igan ziren. Bat ere etzen ordea lurraren gaiñean. Erensugea agertu baiño lentxeago, artzain bat, zakurra ondoan zuela, toki ariara eldu zen. Neskaxa estekatuari,

—Zer ari zara? —galdetu zion.

Erregeren alabaren aotik ango barri izan zuenean, zugatz-gibelean eseri zen, zakurra ondoan zuela.

Erensugea burrunbaz bereala agertu zen. Artzaiñak orduan bere zakurrari

—ZESAR, LOT AKIO —erran zion.

Eta zakurra pistitzarrari lotu zitzaion eta zatikatu zuen. Neskaxa bereala askatu zuen artzaiñak. Inguruetako zugatzetan ziren errege-mirabeak jautsi ta beren nagusi gaztea zazpi gonaz jauntzi zuten eta gizon gazte batek erensugearen zazpi buruak ebaki ta zorro andi batean etxera eramán zituen. Zorroan sartu orduko, artzaiñak buru bakoitzari bere miiña kendu zion eta andere erregaren alabak zituen gonai zatitxo bana ere bai.

Jan-edan aundi bat eman zuen erregek, ezta-aintziñeko bazkaria. A/lai-puruan bera, errege, bere aiaba ta alabaren senargaia zeuden jarriak. Zazpi buruak zorroan eramán zituena zan senargai au. Neork, erregeren ingurukok etzuen artzaiña bazkaltiar izateko deitu. Azken-aldean eta bertzen isilik, zakurra lagun zuela, agertu zen hura ere. Iru aldiz igorri zuen bere ZESAR plater baten billa.

Erregeren alaba bera ikusiz, izutu zen, zakurra ezagutu baitzuen. Erregek zakur hura esteka zezatela agindu zien bere mutillei. Zakurra bere nagusiarengana joana zen orduko, artzaiñarengana. Au orduan jaiki ta erregeren aitzinean agertuz itz auek erran zituen:

—Nire zakur onek purrukatu du erensugea. Ni naiz, beraz, erregek agindu bezala, bere alabarekin ezkondu bear dudana.

Zalaparta izugarria sortu zen. Matean jarria zegoen senargaiak erensugearen zazpi buruak erratillu andi batean erakutsi zituen,

—Nik kalitu dut —erranez,

—Buru oriek zerbait bear dute —gaiñeratu zion artzaiñak—. Ona emen orien zazpi miiñak, neskaxaren zazpi gonon zatietan gordeak izan ditudanak.

Bera izah zan neskaxa aren senar ta erregeren suin ta ondorengoa,

A2KUE (R. M.)

ELTXO ARROA

Egazka zebillen eltxo egarbera bat ardaoz beteriko ontzi batera urbiidu zan. Urrean zegon euli batek toki arriskutsu artara ez urbiltzeko esan zion; beste eltxo askok ere, egarriak eraginda ara jo omen zuten, eta barnean sartu; baiña ez omen ziran geiago andik irten.

Eltxoak ala ere, zital samar, erantzun zuen:

—Par erazten didazu l Jakin dezazun, upeltegi baten ere egona naiz l Eta an ba-dezu ardorik naikoa, munduko euli ta eltxo guztiak ittotzeko lain; ala ere, bizirik naukazu. Nola jarraitu nezake zure esan txepel ori, ontzi kaxkar ontatik edan ezik? Beste batzuk irten ez ba'dira, iñozo ta ezerezak ziralako izan da noski.

Euliak etzion beste ezer gaiñeratu. Eltxoa, ontzira urreraturik, barruan sartu zan, baita edan ta edan ango gozoaz mozkortu ere. Azkenez egan egin nai, baiña ezin; ta edontzian jausirik, itto zan.

Eulia luzaro egon zan geldi-geldi. Eltxo arroa etzan irten, eta bada-ezpadan ere, ego-zartaka urrundu zan leku arriskutsu artatik. Eta, bere lagunakana eldurik, eltxo kaska-gogorraren azken zurbilla edestu zien.

lñori jazotik
ikas ezazu;
iñolaz ez, bada,
gaitzik billatu.

IGOTZ

ESNE SALTZAILLEA

Bidean zijoan pinpirin-pirin
esne-saltzaille lraifia,
esku batean ontzian...
Ba-zirudian panpiña.

—"Esne onekin txanpon mordoxka
bereala det egiña;
txanpon oiekin oillanda ta arrautz
eta antxume arifia.

Esne-saltzaille lraifiarekin
ametsak doaz bidean:
—"Erregin-etxe zoragarria
eskeiñiko dit dotean.
Morroi-neskame ta ainbat soiñeko
izango ditut etxean.
Nik baiño zori ederragorik
eztu izango iñork lurrean".

Ardiak ere erosi eta
artilla sardu auzuan.
Ai, zenbat diru bilduko dedar
urte gutxiren buruan!
Nere diruen otsa zabffldu
bezin laster, inguruan
Errege-seme batek artuko
nau emaztetzat onduan".

Pozaren pozez salto ta brinko
asi da nexka gaixoa,
ta irrist egiñaz lurrean ausi
zaio ontzi lurrezkoa:
— "Ai, nere oillanda ta ardi!
Ai, Erregin-soiñekoa!"
Orrela galdu oi da munduan
ametsak jasotakoa.

ETXANIZ'tar NEMESI

BELEN'GO ARTZAIA

Abraham'en entzean, artzaiak siñistunak ziran. Yabe, Jaungoikoa, egu-
nero jauresten (adoratzen) zuten. Mesias etorkizunaren egunak betexe zira-
lako ustean zeuden. Semei, aide aietako artzai zarrenak maiz esaten ere
zien: "Gure aurrekoak esaten ziguten, berak ba-zijoazela; baiño aien adi-
ñera iristen ba'giñan, JMesia ikusiko genuela. Daniel igarleak esandako as-
teak betetzen zirala-ta".

Belen, ordea, ez al zan izango Erriaren Artzai bikaiñena ekarriko zuen
lur zorionsua? Baiño, zer zan ainbat arrotz aien errira etortze ori? Bere
egunetan Semei'k ez omen zuan beste ainbeste ikusi. Egun aietan batez ere
geitzen ari zan arrotz sailla. Goizean ardiak artuta, mendia bera abiatzen
ziraneko, egun artan ba'zetozen zenbait. Baiño beren ardiak, artzakurre
aurretik zutela, mendi saietsean bazkatzen ari ziran artean mendiko lau
lepakatetik zenbat azaltzen ziran. Batzuek gameluetan; sail batean bizpairu
kameludun, urrengoan bospa-sei ba-ziran, eta sail bakoitzarekin bat-piru
oiñezkoa. Beste asko oiñez, edo astotxoan baten gaiñean.

Ortan joan zitzaien artzaiei egun ura. Otsoak ere etzien alako lanik
eman, eta guztiak pozik. Eguerdi ondoan, alare, ozkarbi guzia gandutu zan.
Bederatzigarren orduko (arratsaldeko iruretarako) goibelak lolditu ziran.
Eta goizeko ego-otzak indarra arturik, egutera garbian etziteken egon. Ar-
diak ere oian zearretara ta gordeka eta leku babesetara jo nai zuten.

Artzaiak erneago egon bear. Bidari arrotzaz azturik, ardiai bakoitzak bere artegi edo borda alderako jira eman zien eta illunabarrerako bakoitzak bere artaldea artegi ondoan zuan.

Ardiak aurretik eta berak atzetik; bakoitzak bere egur, zama leretan zutela zetozen. Ardien bat zabartzen ba'zen, aurretik zihoan ar-zakurrari otsegiten zion artzaiak. Eta bere neke aundirik gabe, artzai bakoitzak bere artegian zun artaldea. Bakoitzak bere txabolan zer edo zer artu ondoren, bereala suak egin bear ziran. Auek banan-banan piztutzen zituen, mendi goienean zeudenetatik asita geienean. Zer su ziran oiek? Osoak izutzeko suak. Argatik goienekoak eta aurrena piztu bear.

Semei, antxe bizi zan. Bera izaten lenengo sua piztuten zuana. Aren ondoren besteak. Goiko suaren galda gorriak beragoko artegietan bere argitasuna zabaltzen zuan. Argatik auek etzuten ainbesteko presarik sua piztutzeko. Gaueko amarrak edo geiago izaten ziran azkenekoak beren sua piztutzen asterako. Guztiak suak piztu zituenean etzuten bildurrik. Artzaiak alkarrengana bildu zitezken. Gaueko amarterdiak amaikak alderako artzai geienak Semei'ren bordaidera biltzen ziran. Mutil gazteak batek ere atsegin zuten agure arren agotik beren aurrekoen berriak aditzea. Egun artan gazteak ere zer esan naikoa ba-zuten.

Belen aldera igaro ziran arrotz-saillak! Nonbait ere ostatuetan etzan zoko aundirik utsik geldituko. Beren eguneko joanetorriak alkarri zerbait adierazi ondoren, guziak batera beren otoitzak egiten zituzten; guztiak batera Yabe (Jaungoikoa) jauretsiz eta Mesia'ren etorrera eskatuz. Ori bukatu zuten garaiean, alako abots ezti, gozo, ozenak, gau artan. Elur pitsak ugaritzen, gau ain illuna, ta norenak izan ote zitezken!

—Oraindik ere bidarien batzuek ba-zetozek —esan zuen Jakob'ek.

—Ixo! —esan zuen Semei'k—. Nere bizian eztut onelako abotsik entzun; eta aboslariak asko dira.

—Baiño, zer argitasun da ori? —oiu egin zun Zakaria'k.

Iñork itz bat geiago esateko betarik etzun izan. Argitasun artan inguraturik arkitu ziran nondik zan oartzeko. Aingeru samalda arrigarria zetorren abesten. Artzai guziak gauza bera entzun zuten: "Aupakaldia zerruan Jaungoikoari, pakea berriz lurtean gogo oneko gizonai!"

Aingeru sailletik bat berexi zan, ordea, ikaraturik zeuden artzaiak esateko: "Ez bildurrik izan: zuentzat poz aundia dakarren berri-on bat, erri osoarentzat izango dana, ematen dizuet eta. Gaur jaio bai-zaizue Dabid'en irian, Zeruratzaile, Kristo Jauna dana. Eta onatx ezagungarria zuentzat: aurra, aur-oiaketan bildurrik ela ganbelan jarririk arkituko dezue".

Eta, aingeruak aiengandik zerura alde egitean, srtzaiak alkarri zesaio-ten: "Goazen Belen'ño, eta ikus zagun gertatu d:n itza, Jaunak guri azaldu diguna". Eta Mesia jaio-berriaren billa abiatu ziran. Eta ganbelaz gogoratzean, batek esan zuan ea Belen'go arpean ote dan. Beste ganbelarik etzala-ta, guziak ara jo zuten.

Eta, pozez betorik, laxterka etorri ziran. Eta Maria ta Jose arkitu zituzten, eta Aurra ganbelan etzanik. Eta auek ikustean ezagutu zuten ori zala berei esandako aurra (Luk., II). Artzaiak, ordea, beren Jaungoiko Mesia'ri nork bere aldetik zezaken puxka eskeiñi zioten. Eta beren Semei'k esandakoa, aingeruen esana ta beren begiz ikusi guzia alkarri gogoraziz, bakoitza bere artaldea ikustera itzuli ziran zorioneko gau artan.

Beren pozak eta jaungoikozko berri onak etzien, ordea, ikusia ixillik gordetzen uzten. Artzai bakoitzak bereai gertaera arrigarri onen berria laxter jakitera eman zien.

Belen'en eta bere inguru guzietan zabaldu zan orren berria. Eta guztiak arritzen ziran artzaien esanaz. Zorioneko artzaiak, Jesus jaio berria ikusi ta onen berria zabaldu zutenak I

AR'tar A.

I R U A U R

Neguak elur otza zabalduz, bazter guziak estaldu zitun. Baita Txomintxo'ren etxola ere. Etzen lan zailla: lau tantai gaizki sartuak, lasto zama bat teillatutzat, besterik ez bait-zan Txomintxo'ren etxol guzia. Eta barrun, zer? Kanpotik ageri zana: ezer ez. Egunero-egunero berak batzen zitun abar batzuk su makal bat piztutzeko.

Gabetan, su ondoan, bere manta zarpildua lur gorrian zabalduaz etzaten zan, lo apur bat egiteko asmoz. Apaldu? Bai zera! Etzitzaion gogoratzan ere; bein, eguerdian, jaten zuen zeukana.

Nor degu, baiña, Txomintxo au? Zazpi urteko umezurtz errukarri bat. Bi urte ziran gurasoak galdu zituala. Eskean zebillen. Aspalditik umezurtz? Ez, aspalditik ez, baiña berak zion lez, amatxo aspaldi joan zitzaion zerura. Ama il arte, poz-pozik itxaron zitun urtero-urtero Gabonak. Errege

egunean oe ondoan bizpairu jostaillu txiki beintzat beti arkitzen zituan, txiroak ziran arren. Baiña igaz... igaz bere inguru guziak malko berekiak besterik etzitian ikusi. Aurten ikusten zitun bere adiskidetxoan aitamak bai errira jeixten, baita karrikatik etxerakoan beren saskitxoak besoan ondo beteta. Ain urbil zegon Errege eguna!... Beretzat, berriz, ain zegon urrun !...

Bein, baiña, bere etxolara dijoa Etxori'ko etxeko andrea. Zer nai ote zuan andre Martiña'k beregana etortzeko? Berak deusez etzion ebatsi. Bapatean atea edekiz sartzen zaio esanaz:

—Txomintxo, aurten gurean bear dezu izan Gabonetan. Ala esan dit Koxe'k.

—Koxe'k? Nola dago Koxetxo? Pikutik erori zanetik ez det ikusi, Ain adiskideak giñan lenago!...

—Oraindik etzaio sendatu ezur-autsia, eta gaiñera daukan sukarrak ez dio pakean uzten gaixoari. Berak bialduta nator. Eldu zera? Atoz nerekin.

—Zerekin ni? Ain nago zikiña!

—Berdin da, Txomintxo; nik apainduko zaitut.

Joan zan, bada, gure Txomintxo andre Martiña'kin Kosetxo ikusteko irrikiz. Eta beti Kosetxo'ren gelan sartuta zegon. Elkarrenganako maitasuna ezin esana deritzait. Bi aingeruxoen artian maitasuna ezta, ba, izango? Ura zan, beraz, maitetasuna benetan, maitetasun garbia, baldin bada lurrean, maitetasun sendoa, xuria esan genezake. Bazkaritan Txomintxo'k beatzak milikatzen zitun. Ainbat denboran etzion iñork esan orrelakorik etzala egin bear.

Gabon egunean bazkari ondoan andre Martiña'ri Kosetxo'kin bakarrik egoteko baimena eskatu zion. Irri-parrak, musuka guziak etziran aski alkar maitetasuna batak besteari erakusteko. Txomintxo'k Kosetxo'ren osasuna eskatzen zion Jesus Aurtxoari. Entzun gogor egingo ote zitzaien Jesus Aurtxo, aingeru ekin otoitzari?

Ez; ez baitzezaken. Eta egun artan bertan jetxi zan, Aurra bera ere, bi adiskidetxoengana, osasuna ta poza ekarriaz.

ANJEL MARI, K. O.

MINGAIN-LUZEA

Perutxo mingain-luze, mutiltxo nasiak
Egunero ba-ditu sesio-bideak:
Edota nasten ditu bere senideak,
Edo aidean ditu auzoko andriak.

Edontzi bat arturik aitak bere eskuan
"Ur garbi au —dasaio— ikusi ontzian;
Orain ixuri zak au an-emen kalia
Eta bildu zak gero edontzi berean".

Lasterka joan eta ura ixuri zuan,
Baiñon biltzen asi ta ezin iñondikan;
Aitagana itzulita, esan ziolaikan:
"Ezin bildu det ura, sartu baita lurran"

Aitak erantzun zion: "Betiko ikas-zak,
Orrelaxe diraia mingain-luzen itzak:
Errax barratzen dituk zuen esa-mesak
T'ezin galazi dituk ondoren nasketak".

ARRATS-OTOITZA

Geldi, otoitz-eske, ezkillak oiuka.
Argia ba-doa, ba-dator eguna...

Izar-iruleak egaka dioaz
Zeru-urdiña izarrez osoki jostera,
Arratsalde-lore makurtzera doa
Ta azken-ats-urriña garaiz ematera.

Geldi, otoitz-eske, ezkillak oikua.
Argia ba-doa, ba-dator eguna...

Aingeru zuriek, zerutik jetsiki,
Lorearen atsa biltzen ari dira...
Arratsalde-lore makurtu da oso,
Ta aingeruek itzul Jainko-jauregira...

Geldi, otoitz-eske, ezkillak oiuka.
Argi ba-doa, ba-dator eguna...

ZARAIA, O. M. C.

LABE MAMORRUA

Egun aretan ere amonak Ipui bat zuan ezpaitan. Ander eta Idoia bi-llobatxoak entzun gose begira zeuzkan eta onela asi zan kontu-kontari jostarratza ta aria artu ondoren:

Ara aurrok, nun eztatik baiña nunbaiten ba omen zan labemamorro bat, etxekoandre langille gisan erratza artu ta ate aurea garbitzen ari zana.

Ander'ek eten zion kontua galdetuaz:

—Zer da erratza, amona?

—Ago ixillik. Oraindik eztatik erratza zer dan? Eskoba, motel.

—Aaa! Labemamorroak ba al dakite, ba, lurra garbitzen?

—Gure ipul ontakoak bai. Ba-zekian. Ala, ba, ari zan eta ari zan.

—Zu bezela, amonatxo?

—Ara beste perretxiko! Orrela ba-gabiltz eztegu beñere nere ipuirik bukatuko, Idoia... Zebillela, zebillela, enel... Zer da ori? Txanpon bat lurrean. Eta labemamorroak beñere ezpaizuan sosik eskuetan artu, jaso zuan eta asi zan barua berotzen:

—Zer erosiko ote-det txapon onekin? Goxoak?... Ez, litxerreria bai-litzake... Urrak?... Ez, litxerreri utsa bai-litzake **au ere... Gona gorria?**... Bai! Orixe polita litzake benetan!

Urrengo bi lo eginda gero ari zan berriro ate-aurrean erratzarekin lane an eta bere gona gorria soiñean. An dator astotxo bat eta ikusi du:

—Labemamorrotxo, bai polita zaudela !

—Ai, astotxo. Neronek egiten det lana. Zure aitak eta emak ezpaididate ogirik ematen.

—Nerekin ezkondu nai al dezu?

—Ia, ia nola kantatzen dezun?

Astoak arrantzarik gozoena entzun-arazi zion:

—Aagga, agga, aggrra !

—Ai, ez, ez! Ikaratu egingo niñuzuke.

Beste iru lo egin zituan eta oillarra sortu zan etxe nurrean:

—Ai, labemamorrotxo, bai polita zaudeia! Polita benetan !

—Neronek josten det soiñekoa. Zure aitak eta amak ezpaididate ogirik ematen.

—Nerekin ezkonduko al-ziñake?

—Ia nola kantatzen dezun?

—Kukurruku ! Kukurruku !

—Ai, ez, ez! Ikaratu egingo nazu.

Alako batean, sagutxo bat agertu zan; sagutxo BIXAR.

—Ai, labemamorrotxo, bai polita zaudela !

—Neronek lan egiten det. Zure aitak eta emak, ezpaididate ogirik ematen.

—Nerekin ezkonduko al ziñake?

—Ia nola kantatzen dezun?

—liii! liii!

—Txalo, txalo! Ederki kantatzen dezu. Zurekin ezkonduko naiz.

Ta ala biak ezkondu ziran. Egun batcan labemamorroak labera joan bear izan zuan, eta aurrez xagutxoari onela esan zion:

—BIXAR ! Kontu, gero, ez eltzera begiratu, erori egin zindezke-ta. Aditzen al didazu? Kontu, ba !

—Joan zaitte lasai, andretxo. Txinlxo ibilliko naiz.

Baiña Bixarr'ek etzion esandakoari arretarik artu ta labemamorroak labera aldegin zuan orduko, luzatu zuan muturra eltzea ikusteko. Ala zebillela, irrist egin du ta gizajoa an erori zan irakiten ari zan uretara.

Andik bereala or dator labemamorroa beti bezin alai eta polita sukaldera, ta:

—Bixar! Bixar! Nun zaude? Izkutatu al zera orain ere?

Baiña sukaldean etzan erantzunik. Labemamorroa estutzen asi zan:

—Atera zait txulotik, Bixar! Begira nolako gazta goxoa dakarkizudan.

Baiña dei aiek etzuten erantzunik. Larrituta bildurrez ikaraz an dijoa esanaz:

—Ez ote-du nere esana bete? Eneee!

Ta eltze barrura begiratu zuanean, Bixar gure xagutxoa ur irakiñetan ilda ikusi zuan. Ai, ene ba! Labemamorrotxoaren negarrak! Aren naigabea!

Ain maite zuan bere Bixar polita iida, nola biziko zan bera bakarrik?

Baiña negarrak etzuan piztu xagutxoa... Ikusten aurrok? Esanik ez egiteak orrelakotxe kalteak ekartzen ditu.

ETXANIZ'tar NEMESI

ORMATXORIA TA TXIMELETA

Basoan udaberria esnatu da. Ostrope arteko argiune batean, larrosa gorri bat zabaldu zaigu, bere orri bizietan eguzki argia milla zatitan ziprztinduz. Aren usaiak inguru guzia guritua dauka. Aren margoak zoragarrizko jolasa damaio elorri ta arantza arteko giroari.

Oraintxe ari zaizkio kantari iru txori berritxu: kardantxilloa, urretxiñola ta zozoa. Txorrotxiotxio, txorroixiotxin!

Kardantxilloak onela egiten zuan:

—Txorrotxio txio, Lore-Erregin; zure bizi berri nai nuke jakin.

Urretxiñolak bere kanta onela:

—Txirri, txirri txirri, larrosa gorri, zure ondora naiz pozik etorri.

Zozoak, berriz:

—Txo-txo txo-txo txo, zure zumo goztoa, tximeletarentzat ezti la ardoa.

Larrosak bere aldetik erantzunaz, esan zien:

—Oi, nere laguntxo maiteok! Nere ogea zuentzako txikitxoia det, baiña nere orriak zuen abestiak alaitu dituzue. Ta nere usaia bialtzen dizuet ordain, erlea ta tximeleta nere gurin eske datozkidan bitartean.

Au guzi au entzuten ari zan ormatxori lotsagabe bezin itxusi bat. Arekin maxiaketan, an dago zapu potolo ta naskagarri bat:

—Ikuste al dek tximeleta nolako arro etortzen dan larrosarengana, bere egoak zabalik. "Beinke, ba, ni!" esanaz bezela?

—Itxura utsa dik orrek, ormatxori. Ire egoak ba-nitu, laster erakutsiko nizkiokek bi ta bi zenbat diran.

—Egia diok! Alde ed'erra nere ta aren egoetan! Gaur larrosarengana datorrenean, nere mokoak erakutsiko zio, aren arrokeriak zenbat balio duan.

—Nik zaituko diat noiz datorren eta agertzen danean, txistu joko diat. Aokada ederra izango dek ire mokorako. Gero eltxoak arrapatzen lagunduko didak, ez da ala?

—Bai, bai. Orixe egingo diagu.

Bi pizti aiek onelako gaiztakeria asmatzen ari diran bitartean, erle andrea tximeletari gozo-gozo izketan ari zitzaion:

—Tximeletatxo ariña! Loreen Erregiñari otoi egiogun, arrixku guzietan lagundu dezaigun.

Larrosak bere orriak zabaldu zituan, da erlea ta tximeleta beren eguneroko ibillaldia egitera atera ziran.

Tximeletak larrosa ikusi zuanean, onela agurtu zuan:

—Agur Larrosa eder, zelaiko apaingarri! Zeruetako Erregiñari eska guretzat giroa, lorerik-lore joan gaitezen aien gozoa xurgatzen.

Zapoak irtetzen ikusi zuanean, bereala deitu zion ormatxoriari:

—Atera dituk! Begira nolako arro dijoan tximeleta!

An dijoa ormaixoria txistua aitu orduko:

—Ixo, zaputzar! Begiraiok larrosari. Otoika ari dek eta guri begira zai zegok. Oraindik ez dek nere ordua; gerotxoago, tximeleta itzultzerakoan irentsiko diat. Goazen orain osin ondora. An izango diagu naikoa eltxo.

Erlea ta tximeleta lorerik-lore dijoaz pozik bitartean.

Aiek clakite loreak nun dun bere guriña gordeta.

Adar gaiñean kantari dabi. Txistuka txori zertzeta;

larrosa ixillik dago entzuten sasi arteko izketa.

Erleak dio: —Tximeletatxo, nun zera? Atoz azkar •lorepera

Arratsak illuna dakar. Ez bagiratu atzera.

Tximeletak: —Or naiz laister, erletxoia. Aurretik sagarrondo agurtu nal det galdu baiño len beroa.

Ormatxona ta zaputzarra an dijoaz bi lapur gaiztoren itxuran, sastraka artean izkutatzera. Tximeletatxoa irentsi nai dute. Larrosak erleari larri galdetzen dio:

—Erltxo, erle maitea ! Nun da gure tximeleta laguna? Bildur naiz zorigaitzeren bat ez ote zaion gertatu.

—Sagarrondoa agurtzen gelditu da pixka batean, baiña or dator.

Ontan daudela, garraxi zorrotz bat entzuten dute. Zer gertatu da? Tximeleta gaixoak ormatxoria berarengana datorrela ikusi du ta an dator igesi, arnas estuka... Zaputzarra an dago pozik etxetik begira, ormatxoriak tximeleta noiz irentsiko. Baiña ontan erle-burrunda asarrea entzuten da.

Erlea ormatxoriari an dijoakio zuzen bere miztoa begian sartzen diola.

Aren miñez tximistak jota bezela, ormatxoria lurrera erori da. Zaputzarra amorroz eta lotsaz bere osiñean izkutatu da. Larrosak, tximeleta ondoeza eginda, bere orrietan etzaten du ta maiteki esaten dio:

—Tximeletatxo ! Tximeletatxo ! Eskerrak erleari ! Loreen Erregiñak zerruetatik gorde zaitu. Entzuizu zer dioten txorrotxioka urretxiñola, kardantxillo ta zozoak:

Txorro txio-txio
erleak zizta dio,
loren Erregiñari
otoi egin bai-dio.

Ala ba zan, kalabazan, Bitoriko plazan xaguxarra dantzan.

ETXANIZ'tar NEMESI

AURKIBIDEA

Ataria	VII
--------------	-----

URTARRILLA

<i>Jolusuk</i> (soka-saltoka; atxia motxia; zapatari zoroa; abere-karrera; txin- boka) (<i>Igotz</i>)	3
<i>Abestiuk</i> (Arre, arre...; tratakan, trakatan; Errcegeak datoz; edurra mara raara; Aurtxo raaita).....	6
Urte-aroa (<i>Amezti</i>)	9
Agur, urte zar! (<i>Agurreolea'tar P.</i>).....	11
Urrunetara, olerkia (<i>Erkiuga'tar Eusehi</i>)	12
Txano gorritxu (<i>Oñutibiu'tar Jon</i>)	13
Leoia (<i>Legouldi</i>)	14
Pedro donearen eriotza (<i>Igotz</i>)	15
Lau la'gun (<i>Azkue, R. M.</i>)	15
Mutihxu artean (<i>Azkue, R. M.</i>)	16
Igarkizuna (<i>Artatxori</i>)	16
Agustin deuna ta umetxoia (<i>Igotz</i>)	17
Ikasle azkarra (<i>Igotz</i>)	17
Igali osasunkonak.....	18
Añese gurenaren bildotsak (<i>Legoaldi</i>)	19
Eguzkia (<i>G. Aramaio</i>)	19
Pitxia (<i>Igotz</i>).....	21
Piztien indarra (<i>Azkue, R. M.</i>) ..	24

Euria ta aterria (<i>M.</i>)	25
Kristian gudaria (<i>Azkue, R. M.</i>)	26
Zenon'en ikaslea (<i>Igotz.</i>)	30
Asmakizuna	30
Apeles (<i>Azkue, R. M.</i>)	31
Erregea ta artzaiña (<i>Igotz.</i>)	32
Erramuntxo (<i>Zaitegi'tar Jokin.</i>)	32
Bildotsaren kezka (<i>Azkue, R. M.</i>)	35
Nor burutsuago? (<i>Igotz.</i>)	36
Neguko euria	37
Urteko sasoiak	38
Orduak (<i>G. Aramaio.</i>)	38
Zazpi lotiak (<i>Igotz.</i>)	39
Euliski (<i>X.</i>)	41
Praka gorriak (<i>Mañariko.</i>)	42
Sur bateri, olerkia (<i>E. M. Azkue.</i>)	44
Gexoan osasuna	45
Eguzkiaz barriketan (<i>A.</i>)	45

OTSAILLA

<i>Jolasak</i> (Maria goiko; potxolaka; soin-zenluak; iku-jokua; kurkuluxetan; mando itsua; itsu-itsuka; zezenketan) (<i>Igotz.</i>)	49
<i>Abestiak</i> (Ormatxulo batetik; Santa Ageda'renak; edurra teillatuan; artzaiarena)	52
Aurtxo baten ametsa (<i>Anjel Mari, K. O.</i>)	56
Billa joan eta gabe etorri (<i>Irisusi.</i>)	58
Txoriak txapelpean (<i>Julene Azpeitia.</i>)	59
Ogi eguna, olerkia (<i>N. O.</i>)	60
Gizonaren bizia (<i>Azkue, R. M.</i>)	61
Neska txiki zintzua (<i>Lardizahal A., I. L.</i>)	61
Barren bizitza (<i>Iñaki A.</i>)	62
Zalduna ta leoia (<i>Urtsuia.</i>)	63
Egaztiak eta txoriak (<i>Azkue, R. M.</i>)	64
Jakintsu bat eta bere morroia (<i>Elumnendi.</i>)	65
Lo ta amets!... (<i>Loramendi A.</i>)	66
Erregeak Belen'era (<i>Peru Azkoiti, K. O.</i>)	67
Ikasle alper eta zintzoak, olerkia (<i>Etxaniz'tar Nemesi.</i>)	69
Jesus Aurtxoaren jostaijlua (<i>Anjel Mari, K. O.</i>)	70
Margolarien lana (<i>Elurmendi.</i>)	72
Txoriaren negarra (<i>Modesto A. K. O.</i>)	72
Agur tontorrak! (<i>Loramendi.</i>)	73
Amets bat (<i>Agirreolea'tar P., I. L.</i>)	74
Belen'go loratuak (<i>Azkue, R. M.</i>)	74
Zai	75
Zakurra ta aragi zatia (<i>Bizenta A. Mogel.</i>)	75
Sugeak eta komediak (<i>Lezo'ko Joseba Aba.</i>)	76
Bi lotsagabeko, olerkia	78

Legazpi (E. G.)	79
Biotz bi (<i>Anjel Mari, K. O.</i>)	81
Salomon'en epaikundea (<i>Lardizabal A., I. L.</i>)	84
Amar neskatxa egurrelan (<i>Julene Azpeitia</i>)	84
Zakur zinloa (<i>Elurmendi</i>)	85
Janarien koloriak (J. A.)	86
Negugaiak, olerkia (<i>Zaraia, O. M. C.</i>)	86
Etxeko eta kanpoko saguak (<i>BlzenLa A. Mogel</i>)	87
Igel andi-naia (<i>Elurmendi</i>)	89
Ikurrin gorria (<i>Soluxe, I. L.</i>)	90
Belen'go artzaia (<i>Etxaniz, tar Nemesi</i>)	91

EPAILLA

<i>Jolasak</i> (Txilin txalan; aulkiak; altxor-billa; arin-aringa; arraulz-karrera; akit-akit; jagoleka; kandela lcarrera) (<i>Igotz</i>)	97
<i>Abestiak</i> (Txalo-pin-txalo; bonbolontena; lenengotxu ori; uso zurioi; zelaietakua; emongo deulsut)	101
Aza-orriak (<i>Schmid-Manterola</i>)	104
Iturriak (<i>G. Aramaio</i>)	105
Atezaiña (<i>Igotz</i>)	106
Txindorria ta Gernika'ko zugatza, olercia (<i>Azkue, R. M.</i>)	107
Burutsua ta buru-eritxia (J. J. M.)	108
Marraskulua ta urkiolarra (<i>Azkue, R. M.</i>)	108
Onezko amesa (<i>N. O.</i>)	109
Txomintxo'ren altxorra (<i>Igotz</i>)	111
AstokiUo	114
Zoriona (<i>Igotz</i>)	114
Mutilla ta muskerra (<i>Mañuriko</i>)	115
IJr otza (<i>Arrugain</i>)	117
Izkirimiriak	118
Txantxangorria ta ipurtargia (<i>Igotz</i>)	119
Eltxuen burrundarak (<i>Gotzon A.</i>)	119
Gudaldiko tiruaren txistua (<i>Gotzon A.</i>)	120
Gaua (<i>Eketa</i>)	121
Mats-aiena (<i>Schmid-Munlerola</i>)	122
Otseiña ta kerizak	122
Emakumeak eta ixillekoa (<i>Igotz</i>)	123
Kerizak (<i>Gotzon A.</i>)	124
Arrate'ko izarra, olerkia (<i>X.</i>)	125
Eskutitz luzea	125
Arretxinaga (<i>Azkue, R. M.</i>)	126
Deunorotxu zeruan (<i>Enbeita'tar Kepa</i>)	127
Errotazuri'ko urretxindorra (<i>Iturralde-Altuna</i>)	127
Arranoa ta azeria (<i>Igotz</i>)	129
Mirua ta amillotxa, olerkia (<i>Azkue, R. M.</i>)	130
Maiatz luzea (<i>Txistular</i>)	131
Sugeak India'n (<i>Sekundo Aba, K. O.</i>)	131

Ezetz jakin (Gotzon A., K. O.)	133
Oroldi-larrosea (Igotz)	135
Laugarren agindua (Ormaldu)	137
Felipe Arrese ta Beitja (Azkue, R. M.)	139

JORRAILLA

<i>Jolasak</i> (zeruketan; arotzak; opillena; azokaka; txingilka; sakuto egalaria; ziñuka; ogei galde; arri-billaka) (Igotz)	143
<i>Abestiak</i> (Aldapeko sagarraren; koko miko; miru moko Icgorra; zuriko, Mehetegi'ko zakurra; artzai-eresia)	147
Meza zertako? (N. O.)	151
Martolo potolo (Atxaran)	152
Tabakoaren jatorria (Azkue, R. M.)	154
Basauntza (Etxaniz'tar Nemesi)	154
Jaunik etzuan biribilkia (Soluxe, I. L.)	158
Uxo ergelak (Elurmendi)	159
OiUoa (Azkuc, R. M.)	160
Aprika'ko basoetan (Bizardun)	160
Azaburua	161
Gizonaren gorputza (Azkue, R. M.)	162
Igel ikaratia (Elurmendi)	164
Eguzki izan nai (Sistia)	164
Oilo txuriarena, olerkia (Etxaniz'tar Nemesi)	169
Pello ta Ixtebe (Barbin, K. O.)	169
Lan ederra!, olerkia (M. A. Iñarra)	175
Sukaldean (Azkue, R. M.)	175
Urrezko larronsondoa (Sistia)	176
Aldia (Azkue, R. M.)	180
Lore maitia!, olerkia (B. Etxegarai)	181
Dik eta erraldoia (Julene Azpeitia)	181
Eulia ta mandoa (Elurmendi)	182
Txoriak (J. Artola)	183
Nekatutzen ez dana, utsa da! (Soluxe)	184
Gizonaren estalki ta apaingarriak (Azkue, R. M.)	185
Txangurruak, olerkia (Iturriaga)	186
Emazte zrndoan eredu (Lardizabal A., I. L.)	186
Leoia ta astoa (Elurmendi)	187
Trumoi-egunetarako	188
OiOaxko narraxko (Etxaniz'tar Nemesi)	188

ORRILLA

<i>Jolasak</i> (Idriketan; otz ala bero?; amar zotzak; busti ala legorka; pelotaka; auskada; gaur dala; lapiko apurtzea; diru-billa) (Igotz)	196
<i>Abestiak</i> (kirikirikin; Martintxo; pandero zarra; arrantzaliak; albista ariua; maiatzeko kantea)	199
Bizarrak loa kendu	203

Emakume alperra (<i>Azkue, R. M.</i>)	203
Muslari amorratua	204
Txakurak eta azeria	205
Bizitzako goiza, olerkia (<i>Otarri</i>)	205
Jaungoikoaren arrabita (<i>Igotz</i>)	206
Amesak (<i>E. M. Azkue</i>)	207
Lilia (<i>Schmid-Manterola</i>)	207
Igarkizunak	208
Txindurri nagia (<i>Igotz</i>)	208
Gure arimea (<i>Arratzu</i>)	211
Krisldtin kroskitin	214
Bidekurutze'ko mutilla (<i>Mañariko</i>)	214
Erlamia (<i>Aramayo</i>)	217
Tontolapiko (<i>Julene Azpeitia</i>)	218
Irakatsi ederra	219
Ipotx triskaria (<i>Oñatibia'tar Jon</i>)	219
Gaztai-jatun bikaiña	222
Joxepa'ren larriak (<i>Akesolo</i>)	222
Otsoa ta bildotsa (<i>Amilgain</i>)	223
Artea ta ingea (<i>Esopo-Amilgain</i>)	224
Zigutx (<i>Igotz</i>)	225
Baso-lore (<i>Zaitegi'tar Jokin</i>)	228
Zein nagiago (<i>Grimm-Legoaldi</i>)	230
Arbia	230
Eta gero? (<i>Zubiaga'tar M. M.</i>)	231
Miin gaiztoa (<i>Igotz</i>)	232
Bedarrak eta egazliak (<i>Verdaguier-Kirikiño</i>)	233
Ase ezitia (<i>Igotz</i>)	234
Kirkur (<i>Igotz</i>)	234
Pospoliña ta olo-burua (<i>Igotz</i>)	236
Berriatu'ko txanbolin (<i>Azkue, R. M.</i>)	236
Larramendi'ko atsoa (<i>Noruega'tar balek</i>)	237
Bizkor eta erbia (<i>Igotz</i>)	238
Artoa	239

BAGILLA

<i>Jolasak</i> (zapoka; erezun billa; imintzioka; txinar jolasa; oianekoa; saku biziak; lau erro-puntuak; oillar burruka; txokoka; baratzaia ta lapurra) (<i>Igotz</i>)	243
<i>Abestiak</i> (ogi txuria; monja txuriarena; aingeruarena; paradisu'ko atean; etxe poxpola)	247
Bi lagun	251
Pipa txarraren ipuia (<i>Soluxe, I. L.</i>)	251
Aunditua	252
Intxaurrea	253
Onatx, erletxoak; olerkia (<i>Loramendi</i>)	253

Pipo, konejuxu artoa	(<i>Bernal-Berasaluze</i>).....	254
Saguak zillarra Jaten	(<i>Julene Azpeitia</i>).....	257
Dabid	(<i>Garingo</i>).....	258
Zure sukaldea maite ezazu	(<i>Soluxe, I. L.</i>).....	261
Zakurra ta otsoa	(<i>Elurmendi</i>).....	262
Kokodriiloak	(<i>Lezo'ko Joseba A.</i>).....	263
Txitxarra eta txingurria,	olerkia	(<i>Iturriaga</i>).....265
Sasi tarteko txio-miña	(<i>Zaitegi'tar Jokin</i>).....	267
Su eleizean	(<i>Azkue, R. M.</i>).....	273
Benetako zoriona	(<i>Endoia</i>).....	273
Arratoi batzaillea	(<i>Julene Azpeitia</i>).....	275
Errege gaiztoa	(<i>Amonatxo</i>).....	277
Arraiñak	(<i>Azkue, R. M.</i>).....	280
Oilloa ta urrezka errastuna	(<i>Elurmcndi</i>).....	281
Iru tximiñuak	(<i>Sistiya</i>).....	282
Ama oillo loka	(<i>Etzaniz'tar Nemesi</i>).....	286
Krixpin eta Josetxo	(<i>Etzaniz'tar Nemesi</i>).....	289

GARILLA

<i>Jolasak</i> (txantxari ta ereztunak; lapurka; txapel-zuloka; zer ete; futbol itsuka; sartziolaka; pausu-lasterka; iru oin-gaiiieka; zezin ala ur- daika) (<i>Igotz</i>).....	293
<i>Abestiak</i> (tun, kurrun, kuttun; binbili bonbolo; ointxoak; ikusten duzu; euskaldun jaio nintzan; prakar zar; agur eue erriari; Gernika'ko arbola).....	297
Adiskide txikiak (<i>M. Igotz</i>).....	301
Aingeru arri-eroatillea (<i>Mañariko</i>).....	301
Euri! Ipar! Edur!, olerkia (<i>Igotz</i>).....	303
Intxaurra.....	304
Perra galdua (<i>Igotz</i>).....	304
Kandida ta Pelipatxo (<i>Artadi, K. O.</i>).....	305
Zazpi urre-txindiak (<i>Igotz</i>).....	307
Udabarria, olerkia (<i>Igotz</i>).....	308
Prometeu ta sua (<i>Igotz</i>).....	309
Alperra ta fiiia (<i>Enbeita'tar Balendin</i>).....	310
Zazpi elaitxo.....	311
Larretxe'ko sorgiia (<i>Barrenosoro</i>).....	311
Eskeko gaxua (<i>Inekue</i>).....	314
Bedar bikaiña (<i>Schmid-Manterola</i>).....	314
Argi-ontzi biak (<i>Igotz</i>).....	315
Areitza (<i>Igotz</i>).....	315
Bei gorria (<i>Afanasiev-Altuna</i>).....	316
Anka bateko egaztia (<i>Azkue, R. M.</i>).....	319
Abere batzuen bizitza.....	320
Mutil baba-Iastoa.....	321
Zubiganean, olerkia (<i>Erkiaga'tar Eusebi</i>).....	321
Aizkora-otsak (<i>Kerexeta'tar Jaime</i>).....	322

Zaartu	nai	ez	(Otxolua)	323
Otso urdiña	(Igotz)			324
Oiturearen indarra	(Amilgain)			325
Gure bost zentzunak	(Igotz)			327
Lurra ta itxasoa	(Igotz)			328
Ugaraxu-erregea	(Grimm-Legoaldi)			329
Izkirimiriak				332
Anai biak	(U'tar M.)			332
Illuntzeko izarra	(Lauaxeta)			333
Kepa deuna eta musikeruak	(Zidorra)			335
Zurtasun-agaka	(Igotz)			337

DAGONILLA

<i>Jolusak</i> (patata-dantza; parrat edo tokean; euli itsuka; saku-karrera; eragiozu; aurkakoa; pelota-karrera; igarobidea; erre-erreka)	(Igotz)	341
<i>Abestiak</i> (baserritarrak; limosnatxo bat; nere aitak amari; orra or goiko)		345
Oillotxo txuria, olerkia	(Etxaniz'tar Nemesi)	346
Su oudoan		347
On egiñaren saria	(Goikola'ko txoria)	348
Gari-buru ta mats-mordoak	(Urtsuia)	350
Barka izkiguzu	(Modesto A., K. O.)	351
Txakur oillo-jalca (olerkia)		352
Iskiñoso arroa	(Elurmendi)	353
Perutxo makur	(Etxaniz'tar Nemesi)	353
Peru kazkarroa	(Soluxe)	356
Aizpa zartxo bi	(Azkue, R. M.)	357
Gezurak gezurra saria	(Urtsuia)	358
Kabi maitemin	(Zaitegi'tar Jokin)	360
Nekazaria ta idisko gaztea	(Bizentu Mogel)	360
Jakingarriak	(Arzalluz'tar Mikel)	361
Ostatu eske	(Urtsuia)	362
Lagun gaiztoak	(Soluxe)	363
Igelak eta eguzkia	(Elurmendi)	365
Txardin saltzaillea, olerkia	(X.)	365
Sekretario jaunak txerria il	(Julene Azpeitia)	367
Ostropeko sagarra	(Sistia)	369
Ixaka artzaintxoa	(Barbin, K. O.)	372
Zapatagillea sendagille	(Elurmendi)	375
Miragarritzko arresia	(Urtsuia)	376
Eresi berria	(Gazteluntz)	377
Oilo ta eize-zakur baten kontua	(Lezo'ko Joseba A.)	378
Iru antzikurrak	(J. B.)	380
Artzai zoritsua	(Julene Azpeitia)	381
Lo!	(Gaztelu)	382

Gaztetu nai ez (olerkia)	380
Artetxe'ko lorea (<i>Barbin, K. O.</i>)	383

IRAILLA

<i>Jolasak</i> (astea; ara ta ona; esku azpika; katuari txintxilla ipiñi; pelota gordeka; txio-txioka; sari-billa; katu irrilaria; apoka) (<i>Igotz</i>)	389
<i>Abestiak</i> (ator, ator, mutil; goiko mendian; lora polita; atxia motxia; boga, boga!)	393
Sagua, ugaraxua ta mirua (<i>Igotz</i>)	394
Txoria kaiolan (<i>JJtarsus</i>)	395
Eperren abia (<i>Schmid-Manterola</i>)	396
Ezetz jakin! (<i>Gotzon A.</i>)	397
Oillarra ta bitxia (<i>Igotz</i>)	400
Iban eta Elena (<i>Afanasiev-Altuna</i>)	400
Iru adiskideak (<i>Basaraz, I. L.</i>)	404
Eguzkia ta euria (<i>Schmid-Manterola</i>)	406
Barrueta-torreko ortulaua (<i>Noruega'tar batek</i>)	406
Gizonaren azkatasuna (<i>Igotz</i>)	407
Gantzugaillua ta gantzuzailleak (<i>Azkue, R. M.</i>)	409
Oillar zurra (<i>Nabarriztarra</i>)	410
Lotsea (<i>Igotz</i>)	414
Lugiña, artza ta azeria (<i>Ajanasiev-Altuna</i>)	415
Urrezko gangardun oillarra (<i>Ajunasiev-Altuna</i>)	418
Eusebio Maria Azkue	419
Amaraun bat (<i>Azkue, R. M.</i>)	420
Eskale txikia (<i>Igotz</i>)	421
Erleak eta lorak (<i>Gotzon A.</i>)	424
Ago-belarriak (<i>Schmid-Manterola</i>)	425
Txarrizaiña (<i>Andersen-Dirauket</i>)	426
Urrezko biotza (<i>Arrugain</i>)	430
Bizkai'ko mendiak (<i>B. Enbeita</i>)	431
Lorak lotegian? (<i>Aita Gotzon</i>)	431

URRILLA

<i>Jolasak</i> (gaintxoka;; erbiak eta zakurrak; aista, txipiritona!; ura, me-sedez; zapia; asto-astoka; soka-tira; kiñuka; aparika) (<i>Igotz</i>)	435
<i>Abestiak</i> (aurrak ikas-zazue; aurtxo danok; rtmezurtza; bat, bi, iru, lau; Gorbeia'ko gurutzea; agur. Zuberora)	439
Udaberri abestia (<i>Etxaniz'tar Nemesi</i>)	443
Txardieta, albanoa ta ixkira (<i>Elurmendi</i>)	444
Ointxuok (<i>G. Mistral-Etxaniz'tar Nemesi</i>)	445
Sr̄r ondoan	445
Aingeru zaitzaillea (<i>Muxika'tar Teodoro</i>)	446
Otsailla, olerkia, (<i>Maite</i>)	448
Ezetz asmatu (<i>Jon S. Marlin</i>)	449
Nere baratza (<i>Zaraia</i>)	450

Patxiko diruzalea	(olerkia).....	451
Anbotoko Mari	(<i>Julene Azpeitia</i>).....	452
Somaketa	(<i>Pasaitarra</i>).....	453
Gizontxo	(<i>Soluxe</i>).....	453
Zakurra ote?	(<i>Anjel Mari</i>).....	457
Zure izarra	(<i>G. Becaud-J. M. Arzalluz</i>).....	458
Ateraldiak	459
Otoak eta arizak	(<i>Rostopchine-Arritokieta</i>).....	460
Eneko	(<i>Altzarte</i>).....	468
Izkirimiriak	470
Gau erdian	(<i>G'tar P.</i>).....	471
Sagutxo bat Belen'en,	olerkia (<i>J. M. Arzalluz</i>).....	473
Txerutxo'ren jakin-miña	(<i>Etxaniz'tar Nemesi</i>).....	474
Oillo gorria	(<i>Etxaniz'tar Nemesi</i>).....	476
Mari poxpolin	(<i>Etxaniz'tar Nemesi</i>).....	478

AZILLA

<i>Jolasak</i> (ingurumarika; izpillua; ziskuan zer?; globu-ariñeketa; atzak; zer barri?; izerka; aditz-gordeka; azoka) (<i>Igotz</i>).....	483
<i>Abestiak</i> (akerra ikusi dogu; itxasua laiño dago; basatxoritxu; aitona-ren esana; maite; biotz-lilia).....	487
Basaiko-lorea (<i>Azkue, R. M.</i>).....	491
Auntzak ela akerrak (<i>Igotz</i>).....	492
Esakun sakonak.....	492
Leoi ta artzaiia (<i>Igotz</i>).....	493
Etxe-sagua ta baso-sagua (<i>Loraintza, K. O.</i>).....	493
Santijago'ko izar bidea (<i>G. Aramaio</i>).....	495
«Txalin errota» (<i>Azkue, R. M.</i>).....	496
Erbia ta kirikiñoa (<i>Aita Goiria, K. O.</i>).....	497
Oiñaztarria (<i>G. Aramaio, K. O.</i>).....	500
Bildurra agertzaille (<i>Azkue, R. M.</i>).....	502
Biotz-berotasuna (<i>Trueba-Getarrai, K. O.</i>).....	503
Baserri-bizitza, olerkia (<i>Aita Goiria</i>).....	505
Aameu au! (<i>Azkue, R. M.</i>).....	506
Iru olerkariak (<i>Igotz</i>).....	507
Zer gurago? (<i>V. J.</i>)	508
Ezetz jakin! (<i>Aita Gotzon</i>).....	509
Saizar Gaztelu'ko aztia (<i>Igotz</i>).....	510
Iru auntzak (<i>X.</i>).....	514
Katua ta azeria (<i>U'tar M.</i>).....	515
Eguzkia (<i>Schmid-Manterola</i>).....	516
Beso bagako erregiña (<i>Azkue, R. M.</i>).....	517
Txantxangorria (<i>Igotz</i>).....	520
Ama la alabordea (<i>Azkue, R. M.</i>).....	521
Illargiaren indarrak (<i>G. Aramaio</i>).....	623
Arotza (<i>Otzandio</i>).....	524

Illobi	ganean	525
Zein gurutze? (<i>Igotz</i>)		526
Belamifca ta ardia (<i>Igotz</i>)		527

LOTAZILLA

<i>Jolasak</i> (mitxeleta; asmaketan; arre-arre; mandoko; izen-eske; zein abere?; ezur-ezur; edontzia; erregintxoka; ikusi-makusika) (<i>Igotz</i>)	531
<i>Abestiak</i> (dringilin dron; Belen'en sortu zaigu; oi, Betleen; Aur txikitxo ta polita; abenduko illaren; Mesias sarritan; beleu'go portalian; nun dago, amandrea?; gabon gabian)	535
Agur, jaunafc	538
Aldapeko	539
Aurtxo troxatzen (<i>M. Lekuona</i>)	539
Jaiotza (<i>Igotz</i>)	539
Euskera (olerkiak)	540
Kanpaitxoafc (<i>Etxaniz'tar Nemesi</i>)	542
Jose txo'ren azfcen muxua (« <i>Kai-alde</i> »)	542
Mutikoa ta ille-moztzaillea (<i>Muxika'tar Teodoro</i>)	545
Umora ona (<i>Arzalluz'tar Mikel</i>)	548
Errege semearen abestia (<i>Pl. Cheon-Bonipagi Aba</i>)	549
Mirua, erbiñudea ta basurdea (<i>Elarmendi</i>)	550
Erlea (<i>Orix</i>)	551
Mari-sorgin (<i>Orix</i>)	552
Sua ta tximeleta, olerfcia (<i>Etxaniz'tar Nemesi</i>)	553
Amets bat (<i>Lertxundi Aba</i>)	554
Sagutxoa (<i>Igotz</i>)	555
Jatetxean	556
Osoa arlzaín (<i>Azkue, R. M.</i>)	557
Mando bat belauuiko	558
Azkeneko diamantea (<i>Urtzuia</i>)	560
«Txuri» ta «Nabar» (olerkia)	561
Errekatxo kantaria (<i>Etxaniz'tar Nemesi</i>)	562
Erensugea (<i>Azkue, R. M.</i>)	563
Eltxo artoa (<i>Igotz</i>)	564
Esne saltzaillea, olerkia (<i>Etxaniz'tar Nemesi</i>)	564
Belen'go artzaia (<i>Ar'tar A.</i>)	565
Iru aur (<i>Anjel Mari, K. O.</i>)	567
Mingain-luzea (olerkia)	569
Arrats-otoitza, olerkia (<i>Zaraia, O. M. C.</i>)	569
Labe mamorrua (<i>Etxaniz'tar Nemesi</i>)	570
Ormatxoria ta tximeleta (<i>Etxaniz'tar Nemesi</i>)	572